



Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia
Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeko Fundazioa

S i q̄ locauit domu de aliq̄ p̄bo homine uille : - i n ip̄le metrop̄i dñi se uoluerit
exeat de domo . i reddat p̄ciu ieniori dom̄ de q̄nto stetit i illa domo . S; si cellariu
locauit : n̄ relinq̄t illa usq; ad sui terminu . Tam si ille q̄ domu locauit uult ire i t̄r̄m̄
us : dabit p̄ciu de q̄nto stetit . S; si uult stare i uilla i alio loco . aut i uilla uxore duce .
i p̄ciu n̄ pdat . **De uidua .** **V** idua tota uicinitate faciat excepto oste . **De popi**
acionis uenit . i domu locauit . annu i die unu ab oib; uicinitatib; i munus p̄manebit .
i dein q̄si unu ex alijs uicinis : p̄uicino illi teneat . **De do mo .** **S** i q̄ aliq̄m do
abuerit de illo uenit i dicit qd̄ ille m̄ dare debet hoc . aut m̄ fec̄ i iuria . i q̄que

Lizarrako eta Donostiako foruak

XABIER IRUJO ETA AMAIA ÁLVAREZ BERASTEGIREN
EDIZIOA

7

LIZARRAKO ETA DONOSTIAKO FORUAK

XABIER IRUJO ETA AMAIA ÁLVAREZ BERASTEGIREN
EDIZIOA

Humboldt seriea, 7
Zuzendaria: Gregorio Monreal Zia



Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia
Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeko Fundazioa

Donostia, 2020

Erredakzio Kontseilua

Gregorio MONREAL ZIA, zuzendaria. Nafarroako Unibertsitate Publikoa/Universidad Pública de Navarra.

Itziar ALKORTA IDIAKEZ, idazkaria. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Carmen AGOUÉS MENDIZABAL. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Jean-Baptiste BUSAAL. Université Paris Descartes.

Josep CAPDEFERRO I PLA, Universitat Pompeu Fabra.

Ignacio FERNÁNDEZ SARASOLA. Universidad de Oviedo.

Gorka GALICIA AIZPURUA, Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Amane GOGORZA. Université de Bordeaux.

Xabier IRUJO. Center for Basque Studies, University of Nevada.

Javier PALAO GIL. Universitat de València.

GOMENDATUTAKO FITXA BIBLIOGRAFIKOA

Lizarrako eta Donostiako foruak / Xabier Irujo eta Amaia Álvarez Berastegiren edizioa – Donostia : Fundación Iura Vasconiae = Iura Vasconiae Fundazioa, 2020. - 360 orr. ; 24 cm – (Humboldt; 7).

D.L.: SS-558/2020. – ISBN: 978-84-697-9042-7

1. Foruak. I. Iura Vasconiae Fundazioa II. Titulua III. Seriea

811.361 (091)

© Fundación Iura Vasconiae. Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia / Iura Vasconiae Fundazioa. Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeko Fundazioa. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2003ko azaroaren 20ko Aginduaren bidez sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatua (2004ko urtarrilaren 22ko EHAA, 14. zenbakia, 1265-1269 or., biak barne). Helbidea: Zorroagaina 11, 1. solairua (Iura Vasconiae Fundazioaren bulegoa). 20014. Donostia (Gipuzkoa).

ISBN: 978-84-697-9042-7

Lege-gordailua: SS-558/2020

Azala: Lizarrako Forua, Lizarrako Udal Artxihoan kontserbatua.

Banatzailea: Lamiñarra (laminarra@gmail.com).

Eskubide guztiak gordeta. Argitalpen hau, azalaren diseinua barne, ezin da guztiz edo zati batez inola ere erreproduzitu, biltegitatu edo transmititu, edozein bitarteko baliatuz (elektrikoa, kimikoa, mekanikoa, optikoa, grabazioa edo fotokopia), argitaratzaileak horretarako behar den baimena idatziz eman ezean.

Iura Vasconiae Fundazioak, argitalpenak hobetzea xede, eskertu egingo du irakurleek posta elektronikoz (iura@vasconiae.eus) helarazitako iradokizun oro.

Webgunea: <https://www.iuravasconiae.eus>

Mail: iura@vasconiae.eus

AURKIBIDEA

	Orr.
SARRERA. Amaia Álvarez Berastegi.....	7
LEMA PUEYO, José Ángel	
Iragan iluna: Gipuzkoa eta Nafarroa (X-XII. mendeak).....	13
ILUNDAIN CHAMARRO, Javier	
Lizarrako lurraldearen antolamendua eta Lizarraren sorrera.....	43
ETXEZARRAGA ORTUONDO, Iosu	
Donostiako eta inguruko lurraldearen antolamendua Goi Erdi Aroan: Bilakaeraren ikuspegi panoramikoa.....	61
BARRERO GARCÍA, Ana María	
Jakako foruaren beste historia bat (Beste irakurketa bat eta berrinter- pretazio-saiakera).....	89
JIMENO ARANGUREN, Roldán	
Zuzenbidea Lizarrako eta Donostiako foruetan.....	145
IRUJO, Xabier	
Gutxiengo sozialak Lizarrako foruan.....	181
ÁLVAREZ BERASTEGI, Amaia	
Gutxiengo judua Lizarrako foruan.....	221
INTXAUSTEGI JAUREGI, Nere Jone	
Lizarrako eta Donostiako foruen familia 1200. urtetik aurrera	237
AYERBE IRÍBAR, María Rosa	
Donostiako foruari buruzko oharrak: foruaren hedapena, indarraldia eta modernotasuna, eta foru-testuen azterketa.....	251
SERNA VALLEJO, Margarita	
Donostiako foruaren ondorengo itsas zuzenbidearen garapena.....	331
PARTE-HARTZAILEAK.....	355

SARRERA

Analisi historiko orotan bezala, Erdi Aroko zuzenbideari buruzko ikerketak lagundu egiten du geroko aroetako prozesuak eta gertaerak ulertzen. Euskal Herriko tokiko foruen gaineko azterlanen kasuan, ordea, historiaren berezko loturak are garrantzi handiagoa hartzen du, Erdi Aroko zuzenbidearen eta ondorengo ordenamendu juridikoaren arteko batasuna kontuan izanik. Ez baitago euskal berezitasun juridikoak ulertzerik Erdi Aroko eta Aro Modernoko foruen bilakaerari erreparatu gabe eta, bereziki, ezinezkoa da foruen bilakaera hori konprenitzea aldez aurretik Goi Erdi Aroan udal-foruak eratuko zituzten prozesuak aintzat hartzen ez badira. Liburuki honek tokiko foruen eratze-prozesua testuinguruan kokatu eta aletzen du, Lizarrako eta Donostiako foruen azterketa konparatuaren bitartez, familia berean txirikordatutako testuak baitira biak. Bi foru horien azterketa konparatuak Erdi Aroko zuzenbidearen zenbait erronka propiotan aurrera egitea ahalbidetzen digu: zuzenbidearen eraketa-prozesuak ezagutzea XI. mendetik aurrera, eta Goi Erdi Aroko Nafarroa eta Gipuzkoako instituzioen, gizartearen eta ekonomiaren ezaugarriak argitzea.

Euskal Herriko lurraldeetan eratutako zuzenbideak geroagoko denboretan garatuko ziren axiomak aurreratu zituen; esate baterako, forua boterea zuenaren eta herriaren arteko hitzarmen gisa ulertzea, eta zenbait eskubideren jabe egitea auzotasun-kontzeptuaren bitartez. Lan honetan parte hartzen duten egileek Lizarrako eta Donostiako foruen alderdi juridikoak, politikoak eta sozialak arakatu dituzte, garai hartako erretratu bat eskaintzeko xedez, zeina lagungarri izango baitzaigu foraltasunaren jatorria erabat ulertzeko.

Erdi Aroko zuzenbidearen historian sakontzeaz gainera, lan hau Nafarroako eta Gipuzkoako tokiko foruen eraketari buruzko ezagutza espezifikorako ere guztiz lagungarri da. Eta hori guztia gaiaren inguruan historiografiaren esparruan sortutako polemika ugariei iskin egin gabe. Garai hartako dokumentazio fidagarria oso urria denez, udal-foruen eraketak, XI. mendetik hasita, hainbat eztabaida eta polemika piztu ditu. Ez dago egilerik zalantzan jartzen duenik Erdi Aroko testu horiek geroko zuzenbidearen formulazioan eta foruak eman ziren tokien garapen ekonomikoan eta sozialean izan zuten eragina edo foraltasunaren sorkunderako izan zuten garrantzia. Aitzitik, desadostasunak berehala sortzen dira lehen foru horien testuen datak eta eraketa-elementuak (eraginak eta jatorriak) aipatzen direnean. Tradizioz, Lizarrako forua Nafarroako Erdi Aroko lehenengo testu landu eta luze bezala aurkeztu izan da, eta Jakako forua jo izan da haren jatorritzat. Berrikiago, ordea, zalantzan jarri dira Lizarrako testuaren data eta jatorria eta, Jakako foruaren aldaerak kontuan izanik, eta jatorrizko do-

kumentua falta denez, leiho bat ireki da Lizarrakoa Jakakoaren aurrekoa ere izan daitekeela proposatzeko. Edonola ere, ez dago dudarik Lizarrako forua izan zela Donostiako foruaren sorburu eta jatorri. Hala ere, egia da, era berean, prozesu horren azterketak eta Gipuzkoako zuzenbidean eta historian izan zuen eraginak beren bilakaera izan dutela azken urteotan.

XII. mendeko udal-foruek forma politikoa eta juridikoa eman zieten haiek bere egin zituzten lurraldeei. Foruaren bitartez, udalerrri horietako biztanleek zenbait eskubide edo pribilegio berenganatu zituzten; eskubideok, hala ere, udalerrria osatzen zuten gizarte-multzoen arabera sailkatuta zeuden. Erdi Aroko ikuspegitik, udal-foruen bitartez arautu ziren udalerrriko biztanleen bizimoduko gorabeherak eta berdintasun juridikoaren printzipioa zabaltzen lagundu zuten. Baldintza ekonomiko jakin batzuei lotuta eman ziren foruak, baina mesedegarri izan ziren udalerrietako jarduera ekonomikoa hazi eta sendotu zedin ere. Lizarraren kasuan, 1076-1077 inguruko lehen forua Donejakue biderei zuzenean lotuta dago, kontuan izan behar baita hainbat atzerritar –frankoak– ekarri zituen erromes-bideak herritarren oparotasun ekonomikoari atek ireki zizkiola eta, horrekin batera, pribilegio jakin batzuk lortu zituztela udalerrriko zenbait taldek foruari esker. Donostiaren kasuan, lehenengo udal-forua (1180) itsas merkataritzaren garapenarekin eta Erdi Aro Beteko gorabehera politikoekin lotzen dugu. Donostian, gainera, udal-forua abian jarri ondotik, aldaketa politiko handiak gertatu ziren; izan ere, Gaztelak Gipuzkoa konkistatu zuen 1199-1200. urteetan, eta Donostiako foruaren inguruko geroztiko emakidak jada Gaztelaren nagusigoaren pean etorriko ziren.

Foruak lehentasunezko aztergaia izan dira –eta hala dira oraindik– zuzenbidearen historialarientzat, baina baita Erdi Aroan espezializatutako historialarientzat ere, hala nola José María Lacarra, Ángel Martín Duque eta José Luis Banús y Aguirre, guztiak ere aitzindariak gure bi foru-testuen azterketari dagokionez, zeinari lehen mailako ekarpenak egin baitizkioten. Liburuki honetan jasotako txostenek tokiko foruei buruzko eztabaida berriak irekitzen dituzte, ikuspegi berriak eskaintzearekin batera, eta hiribilduen eraketa-prozesuari buruzko jakintza historiografikoaren, juridikoaren eta arkeologikoaren egoera eguneratzen dute. Izan ere, elkarrizketan jartzen ditu azken urteotan zuzenbidearen historian, historia sozialean eta arkeologian egindako aurrerapenak.

Obra hiru bloke handitan egituratuta dago. Lehenengoan, Gipuzkoako eta Nafarroako Goi Erdi Aroko eta Erdi Aro Beteko giltzarriak aztertzen dira; bigarrenak iturrien esparruari eta udal-foruen inguruko eztabaidei jartzen die arreta, eta Lizarrako eta Donostiako foruen edukian zentratzen da. Azkenik, liburukiaren hirugarren zatiak, Behe Erdi Aroan eta Aro Modernoan eratu eta garatu ziren hainbat gertaera juridiko, politiko eta sozialetan –esate baterako, itsas zuzenbidea eta gutxiengoaren eskubide sozialak eta politikoak– kokatzen ditu Lizarrako eta Donostiako foruak.

Testuinguru historikoa: Goi Erdi Aroa

Lanaren hasieran Nafarroaren eta Gipuzkoaren garai hartako historiari buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzen da, eta beste bi perspektiba, Lizarraren konfigurazioari buruz bata eta Donostiako lurraldearenari bestea.

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle José Ángel Lema Pueyok **Iragan iluna: Gipuzkoa eta Nafarroa (X-XII. mendeak)** izenburuko kapituluari Lizarrako eta Donostiako lurraldeen sortze-prozesua jorratzen du, tokiko foruak eman zitzaizkien testuinguruan. Egileak udal-foruen testuinguru historikoa orduko gorabehera politiko ugariekin lotzen du. Hiribilduen eraketak bat egiten du gizarte gero eta konplexuago, desberdinago eta hierarkizatuagoen konfigurazioarekin; gizarte horiek, gainera, ez zeuden jada bakartuak, gero eta konektatuagoak baizik.

Javier Ilundain Chamarrok (Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea) idatzitako hurrengo txostenak Lizarraren historiari heltzen dio dauden lehenengo albiste dokumentaletatik hasita. Ilundain Chamarrok **Lizarrako lurraldearen antolakuntza eta Lizarraren sorrera** izenburupean adierazten du Lizarrara izeneko tokia gaztelu garrantzitsua zela jada X. eta XI. mendeetan Iruñeko erresumaren antolakuntza eta defentsarako. Horrela, egileak argudiatzen duenez, Lizarrako lurraldeak bazuen bere garrantzi ekonomikoa eta politikoa XI. mendearen aurretik ere, une horretan hasten baita dokumentatzen Donejakue bideari lotutako populazio berrien presentzia. Beraz, azalpen historiko gehienei kontra eginez, Ilundain Chamarrok balioa ematen dio Lizarra inguruak Donejakue bidea hedatu aurretik zuen garrantzi politikoari.

Donostiaren eta inguruko lurraldearen antolakuntza Goi Erdi Aroan: bilakaeraren ikuspegi panoramikoa izenburuko txostena ondu du Euskal Herriko Unibertsitateko Historiako doktore Iosu Etxezarraga Ortuondok. Lan horretan, Donostia inguruko lurraldeak forua idatzi aurreko mendeetan izandako bilakaeraren berreraikitze historikoa proposatzen du diskurtso jakin batetik abiatuta, non datu dokumentalak eta arkeologiari lotutako informazio berriak lotzen diren. Etxezarragak interpretazio-esparru berri bat proposatzen du, izaera desberdineko iturriak konbinatu eta diziplinaarteko analisi argigarri baten bitartez.

Iturrien problematika eta foru-testuen edukia

Lizarrako eta Donostiako foruak eman zireneko testuingurua azaldu ondoren, lan honen bigarren blokea bete-betean sartzen da garai hartako foral-tasunaren eraketaren inguruan azaleratuz joan diren eztabaida batzuetan. Ana María Barrero ikertzaileak, zeina gai honetan erreferentzia den, Jakako forua-

ren familiako foru-testuei buruzko analisi sakon bat idatzi zuen 2003an «Jakako foruaren zabalkundea Donejakue bidean» txosten apurtzailean, zeina lan honetan argitaratu baitzen: *El Fuero de Jaca II: Estudios* (Zaragoza: El Justicia de Aragón, 113-160). Artikulu hura berreskuratu dugu, egileak errebisatu ondoren, orain titulu honekin: **Jakako foruaren beste historia bat (Irakurketa berria eta berrinterpretazio-saiakera)**. Testuaren ekarpena eta originaltasuna ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula, kontuan izanik Lizarrako eta Donostiako foruak, tradizioz, Jakako foruen familiaren barruan kokatu izan direla. Hala, XIV. mendetik, Jakako forua interpretatu izan da Lizarrako eta Donostiako foruen erreferentzia eta zuzenbide-iturri gisa. Hala ere, Jakako foruaren aldaeren azterketa dokumental xehatuaren bitartez frogatu da, orain arte mantendu izan den ikuspegiaren kontrara, eraketa-prozesu konplexu bat egon zela eta, prozesu horren barruan, hainbat fase egon zirela foru-testuaren formulazioan eta hedapenean. Ana María Barrerok zenbait ezaugarri proposatzen ditu testuaren aldaera bakoitzean, eta problematika berriak formulatzen ditu eraginen kronologiaz eta jatorrizko testuaren datazioaz.

Roldán Jimeno Aranguren (UPNA/NUP), **Zuzenbidea Lizarrako eta Donostiako foruetan** izenburuko txostenean, foruen edukia ikertzen du, eta bi udalerrri horiei eman aurretik egon ziren motibazioak azaltzen ditu. Hala, egile horren arabera, Lizarrako lehenengo foruarekin (1076-1077 ingurukoa), erai-kuntza berriko hirigunea ezarri nahi izan zuten, aurretiko Lizarrara herrixka osatzeko, eta biztanle berriei estatus juridiko desberdina eman nahi izan zieten; horrela sortu zen zerbitzuz hornitutako hiri-ehuna, non gero eta jende gehiago bilduko zen, Donejakue bidea zela eta. Bestalde, Donostiako foruak mendekotasun juridiko nabarmena erakusten du Lizarrako foru-testuaren erredakzioarekiko. Jimeno Aranguren bi foruen edukiaren analisi luze eta sakona egin du, eta ondorioztatzen du zenbait arlotako erregulazioan, bereziki merkataritza sustatzea bilatzen duten haietan, mesedegarriagoa zela Donostiako biztanleentzat, Lizarrakoentzat baino.

Nevadako Unibertsitateko (Reno, AEB) Xabier Irujok gutxiengo sozialek Lizarrako foruan zuten rola aztertzen du **Gutxiengo sozialek Lizarrako foruan** izenburuko lanean. Irujok adierazi duen bezala, Lizarrako foru luzea (1164) idatzi zutenek ahalegin handia egin zuten Lizarrako populazioari zegozkion salbuespenak eta askatasunak identifikatzen, arautzen eta formulatzen, eta apartatu kopuru adierazgarria erabili zuten San Martin burguko auzotarren prerrogatibak ongi babestuta gera zitezen. Zehatzago esanda, gizarteko kolektibo zaurgarrietako batzuen atribuzioak kodetzera eta babestera bideratutako apartatuak nabarmentzen dira, hala nola emakumeak, adingabeak eta behartsuak. Foruak, halaber, gutxiengo juduaren salbuespenak eta interesak babestea eta sistematizatzea xede zuten lege eta arau kopuru handia hartzen du barnean. Irujoren

txostenak adierazten du Lizarrako forua deigarria gertatzen dela gizarte-sektore horien lege-babesari buruzko edukiaren zorrotasunagatik eta berrikuntzagatik, baita originaltasunagatik ere, ez baitira asko, Europako Erdi Aroan, hain esparru zehatzetako lege-aurrekariak 1164. urtearen aurretik. Amaia Álvarez Berastegiren **Gutxiengo judua Lizarrako foruan** izenburuko artikulua ildo berean sakontzen du, eta juduen erkidegoari zegokion foruaren edukia aletzen du. Lizarrak Goi Erdi Aroko erresumako judu-auzo edo aljama garrantzitsuenetako bat izan zuen, eta foruak frogatzen du orduko erregeren babesaz zutela juduek.

Lizarra eta Donostiako foruek geroztik izandako garapena

Lizarra eta Donostiako tokiko foruek oso garapen nabarmena izan zuten ondorengo mendeetan: Lizarrakoa Nafarroako herri askotara zabaldu zen, eta Donostiakoa Kantauriko kostako zenbait herritara hedatu zen, San Vicente de la Barqueraraino. Deustuko Unibertsitateko Nere Jone Intxaustegi Jauregik aletzen du prozesu hori **Lizarra eta Donostiako foruen familia 1200. urtetik aurrera** izenburuko lanean.

Bestalde, María Rosa Ayerbe Iribarrek (UPV/EHU) Donostiako foruak Gipuzkoako beste herri batzuetan izandako eragina ikertzen du. Hark ondutako **Donostiako foruari buruzko oharra: haien hedapena, indarraldia eta modernotasuna, eta testuen azterketa** txostenak azaltzen du Nafarroako Antso VI.a Jakitunak Donostiari emandako foruak funtsezko zedarria markatu zuela Gipuzkoako udalerrien antolakuntzan. Bailaretan oinarritutako lurraldearen antzinako antolakuntza desagertuz joan zen, lurraldearen ikuspegitik udalerririk mugatu eta zehatzagoi leku egiteko; udal horiek, gainera, garatuagoak eta sendagoak ziren esparru publiko-instituzionalean. Alfontso VIII.a Gaztelako erregeak Donostiako forua berretsi ostean, berehalaxe hasi zen hura hedatzen, beste herriei emandako foruen bitartez.

Azkenik, Kantabriako Unibertsitateko Margarita Serna Vallejok Donostiako foruari buruzko beste ikuspegi bat eskaintzen digu Antso VI.a Jakitunaren emakidaren osteko merkataritza-zuzenbidearen garapenetik abiatuta. XII. mendetik aurrera, Donostiako forua jaso eta berehalako hazkundearekin batera, hiribildua itsas tradizio atlantikora ireki zen, bertako bizilagunek eta agintariek Europako kosta atlantikoko gainerako biztanle eta tokiekin harremanak sendotzeko eta luzatzeko borondatea dokumentatzen duten lekukotasun askok egiaztatzen duten bezala. Horrela, **Donostiako foruaren osteko itsas zuzenbidearen garapena** izenburuko txostenean, Sernak Donostiako hiribilduak itsas zuzenbide atlantikoaren tradizioarekin bat egiteko emandako pausoetan sakontzen du, forua hiribilduari eman eta berehalaxe gertatu baitzen hori.

Obra kolektibo honetan, Iura Vasconiae fundazioak, Center for Basque Studies erakundeak (Nevadako Unibertsitatea, Reno) eta Donostiako Udalak antolatuta, 2018ko uztailearen 2an eta 3an Donostiako Udaleko osoko bilkuren aretoan egindako *Lizarra eta Donostiako foruak* Jardunaldian aurkeztu ziren txostenak biltzen dira. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU), Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA/NUP) eta Errioxako Unibertsitateko Erdi Aroko historiako hainbat espezialista, zuzenbidearen historialari eta arkeologo bildu ziren Donostiako eta Lizarrako alkateek –Eneko Goia eta Koldo Leoz– ireki zuten jardunaldi hartan.

AMAIA ÁLVAREZ BERASTEGI

Iragan iluna: Gipuzkoa eta Nafarroa (X-XII. mendeak)

José Ángel LEMA PUEYO
Euskal Herriko Unibertsitatea

AURKIBIDEA

I. SARRERA. II. HISTORIOGRAFIA ETA INFORMAZIO-ITURRIAK. III. JATORRI ILUNAK. 1. Zenbait aipamen eztabaidarako. 2. Gipuzkoa, Iruñeko erresumaren tenentzia: 1025-1076. IV. BANATUTAKO ESPAZIOA: 1076-1109. 1. Krisialdi dinastiko eta politiko baten ondorioak. 2. Iruñeko «erpina». 3. Alfontso VI.aren *Gipuzkoa*. V. GORABEHERA JURISDIKZIONALAK ALFONTSO I.aren AGINTEPEAN: 1109-1134. VI. GIPUZKOA BERREZARRITAKO ERRESUMAN: 1134-1194. 1. Gartzea Ramirez: 1134-1150. 2. Antso VI.a: 1150-1194. 2.1 Muga baten definizioa: 1150-1179. 2.2 Espazioaren berrantolaketa: 1179-1194. VII. OINARRIZKO ERREALITATEAK. 1. Eraldatzen ari den espazioa. 2. Gizarte hierarkizatua. VIII. ONDORIOAK. IX. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Testu honen sorburu izan den ponentziak *Navarra y Gipuzkoa: 1076-1180* zuen izenburu. Behin betiko izenburuan ikus daitekeenez, ibilbide historiko osatuagoa egin nahi izan dugu. Ebidentzia arkeologiko jakin batzuei eta antzinagoko balizko idatzitako lekukotzei jarraikiz, nahiago izan dugu mugarik urrunena X. mendean kokatu eta, berriena, aldiz, Antso VI.a Jakitunaren erregealdiaren amaieran, 1194. urtean. Izan ere, Donostiako foruari 1180. urteko data jartzea zentzuzko hurbilketa bat baino ez da. Ez da aipatzen Gipuzkoa Gaztelan txertatzearen arazo irristakorra, bost urte geroago gertatu zena. Hasteko, ezagutzaren eta eskura dauden iturrien egoerari buruzko azalpen labur bat egingo dugu eta, jarraian, lehenengo zatian, gure helburua zera izango da, garai hartan lurraldean gertatu ziren jurisdikzio-aldaketen jarraipena egitea, Nafarroako –Iruñeko erresuma izan zen 1162. urtera arte– erresumarekiko loturak nabarmenduta. Zati horretan, Donostiaren jatorriari eta lehen garapenari buruzko erreferentziak txertatuko dira, Petri I.a, Gartzea Ramirez eta Antso VI.a. erregeekiko harremanean.

Horren ondoren, oinarrizko errealitateei erreparatuta, Gipuzkoako populazioak eta gizarteak mende horietan guztietan izan zituzten ezaugarri orokorrak azaltzen saiatuko gara.

II. HISTORIOGRAFIA ETA INFORMAZIO-ITURRIAK

Ibilbide historiografiko batean, zaila da 1200. urtea baino lehenagoko Gipuzkoaren Erdi Aroko iragana ezagutarazten lagundu duten guztiei zor zaiena aitortzea. Zalantzarik gabe, José Luis Banús y Aguirre, Ricardo Izagirre, Manuel Lekuona edo Serapio Muxikaren ekarpenak oso baliagarriak izan ziren. Dena den, abiapuntua 1975. urtean ezarri zuen Gonzalo Martínez Díez jaunak bere obra honekin: *Guipúzcoa en los albores de su historia*; obra horretan, X. mendetik XII. mendera bitarteko idatzitako lekukotzak bildu, argitaratu, araztu eta kritikoki iruzkindu zituen, ikuspegi diplomatista batetik begiratuta. Ziurrenik, iturri asko ez izateak hurrengo urratsa ez egitera bultzatu zuen, hau da, lurraldearen garai hartako historia bat idazten saiatzea. Sei urte geroago, Eusko Ikaskuntzak Donostiako Foruari buruzko biltzarra antolatu zuen, eta testuen edizioari eta azterlan historiko eta juridikoei buruzko hogeitaz lanetik gora bildu zituzten. Testuinguru akademiko horretan, José Ángel García de Cortázarrek Donostiako foruaren garaira arteko panorama oso iradokitzailea eskaini zuen, betiere eskura zituen iturriak baliatuta, garai hartako gizarte gipuzkoarrari buruz, gizarte horren jarduera ekonomikoari buruz eta espazioaren eraldaketei buruz. Bere tesian defendatu zuen gizarte arkaikoa zela, jentilizioa, gehienbat abeltzaintzan eta basogintzan jarduten zuena; eta, XI. eta XII. mendeetan antolamendu feudaletara aldatu zela, Mediterraneo aldetik zetozen kanpoko eraginek hartararuta. Interpretazio-ildo horretan lan egin eta sakonduta, Elena Barrenak doktorego-tesia egin eta argitaratu zuen 1989. urtean, eta dokumentu-ebidentziak ez ezik, toponimiak eta geografiak emandako informazioa ere ezin gehiago ustiari zituen, bi alderdiak uztartuta. 1997. urtean Soledad Tena García, doktorego-tesiaren atarikoan, antzeko interpretazioa egin zuen, baina Gipuzkoako gizartearen bilakaera-ahalmena nabarmendu zuen, kanpoko eraginak baino gehiago¹.

¹ MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Guipúzcoa en los albores de su historia*, Donostia: Gipuzkoako Probintziako Aldundia, 1975; *Congreso: el fuero de San Sebastián y su época (San Sebastián 19-23 de enero de 1981) / Donostiako forua eta bere garaia (Donostia, 1981ko urtarrilaren 19tik 23ra)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos, 1982; GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., *La sociedad guipuzcoana antes del fuero de San Sebastián*, DÍAZ DE DURANA, J. R. (arg.), *Investigaciones sobre historia medieval del País Vasco (1965-2005)*, Bilbo: Universidad de País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005, 281-312 or.; BARRENA OSORO, E., *La formación histórica de Guipúzcoa*.

Ikuspegi tradizionalago batetik begiratuta, XX. mendearen azken urteetan argitaratutako bi lan oso interesgarriak izan dira. Alde batetik Aitor Pescador Medranoren azterlana: hainbat jatorritako dokumentu-datuak –Araba eta Bizkaikoekin– gurutzatuta, Gipuzkoak izan zituen handiki tenente nafarrei buruzko 1076. urtera arteko informazioa berreraiki zuen. Bestetik, Luis Javier Fortúnen azterlana: historia politiko eta dinastikoei buruzko gaietan José María Lacararren tradizioaren jarraitzaile izaki, gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan 1134. urtetik 1200. urtera bitarte bizi izandako subiranotasun-gorabeherak zehatz-mehatz azaldu zituen. Era berean, bidezkoa da azken hamarkadetan José Luis Orella Unzuek hainbat gai garrantzitsuri buruz egindako ekarpenak aipatzea, hala nola, besteak beste, Donostiako foruaren azterketa juridikoa edo Gipuzkoaren historia Iruñeko erresumaren tenentzia gisa².

Esku artean dugun gaiari buruzko ikerketa-lanak arazo metodologiko larri bat izaten du: idatzitako lehen mailako iturriak oso gutxi direla. Balio juridikoko testuak, ohiko hizkeran «dokumentu» esaten diegunak, ez dira ehunera ere iristen. Testu horien zati handi bat lurraldean jurisdikzioa betearazten duten erregeen edo errege horien ordezkarien aipamen laburrak dira. Hainbat testuren kopia akastunek eta aldaketek –falsifikazio hutsak ez direnean– are gehiago zailtzen dute ikertzailearen lana. Panorama hori zertxobait konpentsatzeko, Antso VI.ak Donostiari emandako foruaren argitalpen zaindua dugu, Ángel J. Martín Duquek prestatu eta lehen aipatu dugun biltzarrean aurkeztu zuena. Eskasia horren arrazoiak azaltzeko, kontuan izan behar da garai hartan horrelako testuak sortzen eta, batik bat, gordetzen zituzten zentro nagusietarako –elizbarrutiko egoitzak eta monasterioak– Gipuzkoa periferian geratzen zela, haien jabariaren eta ondarearen funtsezkoena beste eremu batzuetan baitzegoen. Kronistikak

Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval, Donostia: Deustuko Unibertsitatea (Donostia), 1989; TENA GARCÍA, S., *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Donostia: Donostiako Historiari Buruzko Dr. Camino Institutua, 1997, 49-88 or. Ikuspegi orokorraz jabetzeko, ikus: LEMA PUEYO, J. Á., De «Ipuzkoa» a la Hermandad de villas de Gipuzkoa (VI-XV. mendeak). ARAGÓN RUANO, Á., eta ECHEBERRIA AYLLÓN, I. (koord.), *Síntesis de la Historia de Gipuzkoa*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2017, 145-152 or.

² PESCADOR MEDRANO, A., Tenentes y tenencias del reino de Pamplona en Álava, Vizcaya, Guipúzcoa, La Rioja y Castilla (1004-1076), *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 29 (1999), 118-120 or.; FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J., La quiebra de la soberanía navarra en Álava, Guipúzcoa y el Duranguesado (1199-1200), *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 45-2 (2000), 439-494 or.; ORELLA UNZUÉ, J. L., Estudio jurídico comparativo de los fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño. *Congreso: el fuero de San Sebastián y su época (San Sebastián 19-23 de enero de 1981) / Donostiako forua eta bere garaia (Donostia, 1981ko urtarrilaren 19tik 23ra)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos, 1982, 255-300 or., eta Nacimiento de Guipúzcoa como tenencia navarra de frontera, *Lurralde: investigación y espacio*, 34 (2011), 189-217 or.

ere ez du askorik laguntzen; izan ere, Alfontso VIII.aren kanpaina baino lehen, Gipuzkoaren aipamen bakarra dago jasota –interes handikoa, halere– *Historia Compostelana*³ lanean.

Azken hamarkadetan, ezagutza zabaltzeko eta interpretazio berrien proposamenak egiteko aukerak arkeologiaren ekarpenei esker sortu dira. Diziplina horretako aurkikuntzen bitartez, bizimoduen materialtasunari buruzko informazioa lortzen da: espazioaren banaketa, eraikin eta instalazioak, lurperatzeak, teknologiak eta elikadura, besteak beste. Gipuzkoan, Erdi Aroarekin lotutako arkeologia 1990. urtean indarberritu zen, garai hartako Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak emandako babes instituzionalari esker. Ildo horretan ekarpenak egin dituzte hainbat ikertzailek: Agustin Azkarate, Iosu Etxezarraga, Alex Ibáñez, Alfredo Moraza, Juan Antonio Quirós eta Nerea Sarasola. Besteak beste, EHUren, edo Aranzadi Zientzia Elkartearen edo Arkeolan Fundazioaren babespean, indusketa-kanpainen lehentasuna «boterearen arkeologia» –gazteluak eta elizak– izan da, betiere landa-ingurunea eta baso-mundua ahaztu gabe –produktzio instalazioen aztarnen bitartez–. Nekropoliek pistak eman izan dituzte askotan nekazarien kokaguneei eta erlijio-enklabeei buruz. Populatzeari buruzko datazioak berrikusteko garaian oso garrantzitsuak izaki, Zarauzko Andre Maria Erregina parrokiaren *Menosca* proiektuaren barruan egindako esku-hartzeak bereziki aipatu behar dira. Getarian eta Mutrikun –Gipuzkoako zaharretakoa den Astigarribiako San Andres tenpluan– ere egin izan dira indusketa-kanpainak. Barrualdean, aurkitutako ebidentzia zaharrenak –Zarauzkoen antzeko kronologia dute– Bidania terminora garamatzate. Lan horien emaitzek eztabaidarako eta interpretazioak berritzeko bideak zabaldu dituzte⁴.

III. JATORRI ILUNAK

Noiz sortu zen lurraldearen izena? Galdera ez da bigarren mailakoa, galderari erantzunez gero, espazio batekin identifikatutako komunitate baten existentziaren hasiera markatuko luke eta. Gaiari buruzko iritziak berrikustea komeni da.

³ Erabilgarri dauden idatzitako iturrien balantzea aurki daiteke hemen: BARRENA, E., *La formación...*, *op. cit.*, 37-47 or.; TENA, S., *La sociedad urbana...*, *op. cit.*, 55-58 or.; *Historia Compostelana*, FALQUE REY, E. (argitaratzailea eta itzultzailea), Los Berrocales del Jarama (Madril): Akal, 1994, II. lib., XX.

⁴ SARASOLA ETXEGOIEN, N., El poblamiento medieval de Gipuzkoa: revisión crítica del registro arqueológico, *Munibe (Antropología-Arkeología)*, 61 (2010), 339-393 or.; SARASOLA ETXEGOIEN, N., eta MORAZA BAREA, A., *Arqueología medieval en Gipuzkoa*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011, 9-18 or.

1. Zenbait aipamen, eztabaidarako

Araba eta Bizkaia *Crónica Albeldense (Albeldako Kronika)* obran agertu ziren lehen aldiz historian; IX. mendearen bigarren erdian idatzitako obratzat jotzen da. Tradizioz, Gipuzkoaren kasua 1025. urtera arte atzeratu da eta horrek auzoko lurraldeekiko desfase nabarmena eragiten zuen. Duela hamalau urte, arazoa berrikusteko proposamen oso erakargarria –zalantzarik gabe– sortu zen. Bilaketa-lanak Burgoseko Montes de Oca eskualdera eta Errioxa Garaiko lurretara garamatza eta, zehazkiago, Donemiliaga Kukularen jabarian txertatzen den San Millán de Hiniestrako monasteriora. Erreferentzia labur-laburra da eta *Becerro Galicano* esaten zaion kodizean laburki kopiatuta dago: *Ego Gometiza trado ad ipsa regula una ferragine mea, in Gipuzare, iuxta fonte, in valle de Ripa. Era DCCCC^a. LXXX^a. I^a. Ranimiro rex.* Gometiza andrearen dohaintzak –David Peterson ikertzaileak dohaintza horren garrantzia nabarmendu zuen aztergai dugun kasuari dagokionez– *Gipuzare* bat aipatzen du eta hitz horrek «gipuzkoarraren herriska» esan nahi duela interpreta daiteke, landa kokagune xume bat, alegia. Data esanguratsua da: 943. urtea –aro hispanikoaren 981. urtea–, Ramiro II.a Leongoaren erregealdian (931-951). Horrek baditu ondorioak; izan ere, toponimo horren irakurketa hori onartuko bagenu –beste interpretazio posible batzuk baztertuta–, espazio geografiko eta nortasun gipuzkoarraren identifikazioa lehenago egin zela adierazten du horrek, eta *kanpotik* ere hautematen zutela. Esan nahiko luke, orobat, migrazioak egon zirela lurralde horretatik egungo Errioxara eta Gaztela iparraldera, baina ez dugu lurralde horren mugen eta izaera jurisdikzionalaren berririk⁵.

Urte gutxi geroago, 952. urtean, idatzitako beste lekukotza batean –Andres Mañarikuak eta José Ángel García de Cortázarrek aipatu zuten lekukotza hori– Gipuzkoako enklabe zehatz baten lehen aipamena aurki genezake: *Salinas* izeneko toki bat, non Diego Velez izena zuen batek hainbat jabetza zituen, eta Donemiliagako monasterioari eman zizkion jabetza horiek. Agian, bi autoreek iradokitzen dutenez, Leintz Gatzaga izan daiteke –gatzelaniaz Salinas de Léniz–, betiere Arabako beste aukera batzuk baztertzeke arrazoirik aterako ez balitz⁶.

⁵ PETERSON, D., Primeras menciones a Guipúzcoa, *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta*, 97 (2004), 597-608 or.; *Becerro Galicano Digital* [382 dok.] (www.ehu.es/galicano/id382 - 2018/08/10ean kontsultatua).

⁶ GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., La sociedad guipuzcoana, 281. or.; MAÑARICUA Y NUERE, A. E. de, Obisposados de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta fines del siglo XI. *Obisposados de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la diócesis de Vitoria*, Gasteiz: Elizbarrutiko Apaiztegia, 1964, 169 or.; *Becerro Galicano Digital* [358. dok.] (www.ehu.es/galicano/id358 - 2018/08/10ean kontsultatua).

2. Gipuzkoa, Iruñeko erresumaren tenentzia: 1025-1076

Nola edo hala, 1025. urtean lurraldearen aipamen bat zalantzarik gabe jasota dago, kategoria juridikozional zehatza ere baduela: Gipuzkoa Iruñeko erresumaren tenentzia edo barrutizat aurkezten da. Dokumentua ezaguna da, eta luzaroan Gipuzkoaren existentziaren lekukotzarik zaharrena dela iritzi izan zaio. Gartzea Aznarez handikiak eta haren emazte Gaila andreak San Juan de la Peña monasterioari egindako dohaintza bat da, Olazabalgo Salvatore tenplua –Altzon– eman baitzioten. Ekitaldian, Antso III.a Nagusia erregeak parte hartu zuen, eta Gartzea Aznarez Gipuzkoako jauna erregearen mendeko zela agerian geratzen da: *Prefatus ego quidem Sancio regnans in Pampilona et sub eius imperio senior Garsia Açenariz de Ipuscua hoc testamentum decrevimus confirmare*. Diplomaren hainbat kopia gordetzen dira, baina zalantza eta galdera ugari eragiten ditu. Tenentea Aragoikoa izan ote zitekeen aipatu izan da, eta agian 1048. urterako zendu zela. Haren emazte Gaila gipuzkoarra zela dirudi, eta lurraldean ez ezik, Aragoi Garaian ere ondareak bazituela⁷.

Noiztik zegoen *Ipuscua* hori Iruñeko erresumari lotuta? Araban, Iruñeko eraginaren aztarnaren bat hauteman daiteke Antso II.a Gartzez errege zelarik (970-994). Erresuma eta hegemonia zabaltzeko ahaleginetan, agian Antso III.a Nagusiak (1004-1034) lortu zuen aspaldiko Gipuzkoa hura bere jabariaren artean sartzea. Ez dakigu zeintzuk ziren lurraldearen muga zehatzak, ez eta, erregearen ordezkari izaki, Gartzea Aznarezek zenbateko boterea zuen ere⁸.

Lurraldearen historia juridikozionalean barrena egiten ari garen ibilbide honetan, dokumentazioak huts egin digu lau hamarkadaz baino gehiagoz. XI. mendearen erdialdean, Antso Fortuñones eta haren emazte Blaskita –Gaila andreaken alaba– agertzen dira aipamen batean –ez oso erabakigarria–, baina ez zaie inolako erantzukizunik egozten. Nolanahi ere, ukaezina da Iruñeko erresumaren pean jarraituko zuela, 1060. urtean Antso IV.a Peñalengoa aipatzen baita *Ypuzcoako* erregetzat. Tenentetzat ziurtasunez agertzen den bigarren agintaria Orbita Aznarez da, 1066. urtean, eta Araban ere antzeko kargua bete zuen aldi berean (1068). Badakigu aipatutako Iruñeko erregearen segiziokoa zela eta Errioxako lurretan ondare-egintza pribatuetan lekuko moduan ere jardun zuela.

⁷ MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Guipúzcoa*, 33-45 or., 175-176; BARRENA, E., *La formación*, 51-64 or.; PESCADOR, A., Tenentes..., *op. cit.*, 118-120 or.; ORELLA, J. L., Nacimiento de Guipúzcoa, 189-217 or.

⁸ MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Álava medieval. I*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1974, 77-79 or.; LARREA CONDE, J. J., La herencia vasca: acción política y arquitectura social en Vizcaya y Álava antes de su incorporación al reino de Alfonso VI. *Alfonso VI y su época I: los precedentes del reinado (966-1065)*, *Sahagún (León)*, 4 a 7 de septiembre de 2006, Leon: Leongo Unibertsitatea, 2007, 77-79 or.

Ziurrenik, ikusiko dugunez, egoera politikoak bere erantzukizunetatik aldendu zuten 1076an, baina euskal lurretan errotuta egoten jarraitu zuen⁹.

IV. BANATUTAKO ESPAZIOA: 1076-1109

Gipuzkoan ere izan zuten eragina Iruñeko monarkiaren arazo orokorrek, aldaketa-prozesuan baitzegoen, baita inguruko beste bi erresumen handinahiak ere: Aragoi eta Gaztela. Horren guztiaren ondorioz, Gipuzkoako lurraldea zatitu egin zen.


1. Krisialdi dinastiko eta politikoaren ondorioak

1076ko ekainaren 4an, Antso IV.a Peñalengoa, Iruñeko erregea, erail egin zuten haren anai-arreba Ramon eta Ermesindak bultzatutako konspirazio batean. Boterean hutsunea sortu zenez, handikiek hainbat modutara erreakzionatu zuten. Batzuek Alfontso VI.a Gaztelakoari (1072-1109) hitz eman zioten leialtasuna eta beste batzuek Antso Ramirez Aragoikoaren (1063-1094) alde egin zuten; azken horrek *iruindarren errege* titulua hartu zuen bere gain. Horren ondorioz, bi erregeek lur-banaketa egin zuten eta 1087. urtean banaketa berretsita geratu zen. Alfontso VI.ak Pancorbo, Errioxa, Araba, Bizkaia eta egungo Nafarroako Ega ibaitik hegoaldeko lurrak hartu zituen. Gainerakoa Aragoiko erregearentzat izan zen, zein Gaztelako erregearen mendeko bihurtu baitzen. Biek adierazi zuten Gipuzkoa –*Ipuzcua* edo *Puzcoa*– mendean hartzen zutela. Ebidentziak oso ahu-lak diren arren, antza, Antso Ramirezek ipar-ekialdeko muturra baino ez zuen atxiki –Urumea bailararen behealdea, gutxienez, barnean hartzen zuena–. Zati handienak, Alfontso VI.ari esleitutakoak, muga argia zuen mendebaldean: egungo Mutrikuko lurrek, Astigarribiako San Andres monasterioaren ingurukoek, markatzen zuten Bizkaiarekiko muga kostaldetik. Pentsa daiteke, barrurago, espazio hori Oria ibaiaren erdialde eta goialdetik eta Urola eta Deba ibaiaren bailaretatik zabaltzen zela. Banaketaz gain, jurisdikzioa betearazteko beste modu bat ezartzen hasi zen, feudalismoaren garaikoaren antzekoa; izan ere, nobleziak –Gipuzkoako lurretan jardungo zuten handikiak ere barne, ziurrenik– eskubi-deak, bermeak eta ekintzarako ahalmen kolektiboa irabazi zituen, erregearekiko basailutza-harremanetan¹⁰.

⁹ PESCADOR, A., Tenentes..., *op. cit.*, 118-120 or.; MARTÍN DUQUE, Á. J., *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia - Vianako Printzea Erakundea, 1983, 76. eta 83. dok.

¹⁰ LACARRA DE MIGUEL, J. M.^a, *Historia política del reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla. I*, Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1972, 271-275 or.; MARTÍNEZ

1. mapa. Iruñeko erresumaren banaketa 1076. urtean



Iturria: *Atlas de Euskal Herria. Geografía-Economía-Historia-Arte*. Orella Unzué, J. L., Aguirre Querejeta, I., eta Kortadi Olano, E., Erein, 1982, 64. or.

2. Iruñeko «erpina»

Antso Ramirez erregeak mugako tenentzien multzo batean txertatu zuen eskuratutako lurra, bere agindupeko lur berrien ipar-mendebaldeko muturrean: Etxauri, Baztan, Burunda eta, azkenik, Hernani. Azkeneko horren barruan sartzen zen, agi denean, erregeak banaketaren ondorioz jasotako Gipuzkoaren zatia, eta haren segidako bi ondorengoek oinordetzan jasoko zutena: Petri I.ak (1094-1104) eta Alfontso I.ak (1104-1134). Tenentzia multzoa Iñigo Velez jaunari –Orbita Aznaretzen semea, beharbada –esleitu zitzaion.

Testuinguru horretan, hain justu, agertu ziren dokumentuetan Donostiaren lehen aipamen seguruak¹¹. Urbano II.ak 1097. urtean Iruñeko katedralaren alde

DÍEZ, G., *Álava medieval*, 92-96 or.; LARREA CONDE, J. J., *La Navarre du IV au XII siècle. Peuplement et société*, Paris - Bruxelles, De Boeck Université, 1998, 347-360, 480-482 or.; *Becerro Galicano Digital* [579 dok] (www.ehu.es/galicano/id579 - 2018/08/10ean kontsultatua).

¹¹ Antso Ramirez erregeak, Funeseko Santiago eliza hornitzean –1089. urtean?– Donostia aipatzen du erakunde horrek eskubideak zituen eremuen artean. Dena den, aipamena agertzen duten bi diplometan arazoak aurkitu dira, eta azterketa diplomatiko, kronologiko eta historiko zorrotz eta sakona egin

emandako bulda batean honako hau aipatzen da: *Sanctum Sebastianum in ripa maris*. Beste lekukotza bat 1101. urtekoa da. Dokumentuan –Petri I.aren diploma bat da–, San Sebastiani eskainitako eliza bat bazela aipatzen da, gaur egungo Antigua auzoan, baita *villa* bat ere, hau da, herrirka bat, elizaren inguruan, eta nekazaritzarako lurak, larreak eta arrantza-eskubideak zituela *Izurun* izeneko *pardinan*. Toki hori lehen aipatu dugun Hernaniko barrutiari atxikita dago, eta Leireko monasterioarena da Iruñeko Antso errege baten –Antso III.a Nagusia, Antso IV.a Peñalengoa?– garaitik. Bestalde, Petri I.ak Leireko monasterioaren tokiko ondarea areagotu zuen, pardina bat eta Urumea ibaiaren gaineko eskubideak gehituta. Hori guztia prozesu orokorrago batean txertatzen da; prozesu horren ondorioz, Gaztela, Nafarroa eta Aragoiko zenbait monasteriok Kantauriko kostan zehar hedatu zituzten beren interesak, agian inguru hartako dinamismo ekonomikoa baliatuta¹².

3. Alfontso VI.aren *Gipuzkoa*

Gipuzkoaren gainerako lurraldea Alfontso VI.aren mende geratu zen. Horrek esan nahi du tenenteak aldatu egin zirela. Iruñeko erresumari lotutako handikiek aginpidea galdu zuten, nahiz eta ondareei eta gizarte-gailentasunari eutsi zieten, eta errege-boterearen ordezkari berriak ezarri ziren. Pertsonai garrantzitsuena Lope Enekoitz (Lope Iñíguez gaztelaniaz) izan zen, Bizkaiko eta Arabako jaun gisa ere dokumentatua dagoena. Haren Bizkaiko oinordekoa, Diego Lopez (1093-1124), baliteke Gaztela eta Leongo erregearen ordezkari izatea Gipuzkoan ere, baina hori zentzuzko ustekizun bat baino ez da. Iruñearen eraginpeko eremuan ere ikusi den ekintza-ildoari jarraikiz, monarkiak eta tokiko handikiek kanpoko zentro monastikoen ondarea zabaltzen lagundu zuten. Hori izan zen Mutrikuko Astigarribiako San Andres monasterioaren kasua, zeina Lope Enekoitzek eta Alfontso VI.ak Donemiliagaren agindupera transferitu baitzuten¹³.

beharko litzateke: CANELLAS LÓPEZ, Á., *Colección diplomática de Sancho Ramírez*, Zaragoza: Real Sociedad Económica de Amigos del País, 1993, 106 eta 108 zenbakidun dokumentuak.

¹² LEMA PUEYO, J.Á., Los orígenes medievales de San Sebastián: la época anterior al fuero de Sancho el Sabio. GÓMEZ PIÑEIRO, F. J., eta SÁEZ GARCÍA, J. A. (koord.), *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1999, 56-60 or.; GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., Una villa mercantil: 1180-1516. ARTOLA GALLEGU, M. (arg.), *Historia de Donostia-San Sebastián*, Donostia: Editorial Nerea, 2000, 15-19 or. GOÑI GAZTAMBIDE, J., *Colección diplomática de la catedral de Pamplona. Tomo I (829-1243)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1997, 68 eta 80 zenbakidun dokumentuak; MARTÍN DUQUE, Á. J., *Documentación...*, op. cit., 188 eta 212 zenbakidun dokumentuak.

¹³ *Becerro Galicano Digital* [579. dok.] (www.ehu.es/galicano/id579-2018/08/10ean kontsultatua), [581. dok.] (www.ehu.es/galicano/id581-2018/08/10ean kontsultatua); MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Gipúzcoa*, 64-69 or.

V. GORABEHERA JURISDIKZIONALAK ALFONTSO I.aren AGINTEPEAN: 1109-1134

Baina egoera hori behin-behinekoa izan zen. 1109. urtean Alfontso VI.a hil zenean, krisialdi konplexua piztu zen haren erresumetan: gudu dinastikoak eta nobleen artekoak, matxinadak Donejakue bideko burguetan eta nekazarien altxamenduak. Aragoi eta Iruñeko erregea, Alfontso I.a Borrokalaria, Urraka erreginarekin ezkondu zen urte hartan, hildako erregearen oinordekoarekin, baina ez zuen lortu errege-agintea finkatzea Gaztela eta Leonen. Baina kontsolazio-sari bat eskuratu zuen: 1113. urtetik aurrera, oinordetzan jasotako erresumen mugak mendealderantz zabaltzea lortu zuen. Testuinguru horretan ulertu behar da Araba, gutxienez 1120. urtetik, Aragoiko erregearen mende geratu izana. Aldi berean, Diego Lopez Bizkaiko jaunaren eragina gainbehera doa. Muga-zabaltze horrek, agian, zera pentsarazi zion hainbati, Iruñeko erresumaren mugak 1076. urtea baino lehen zeuden egoerara eramatea berriro. Alfontso VI.ak irabazitako Gipuzkoaren zatia eta Araba galdu egin zituen Gaztelak. Noiztik? Gutxienez, 1133. urtetik, ziur jasota dagoenez. Bien bitartean, Bizkaiko jaun Diego Lopez desagertu egin zen agertokitik eta, errege Borrokaliariaren azken urteetan, Ladron kondearen –Arabako jaun eta, ziurrenik, Gipuzkoakoa ere bai– izarrak gora egin zuen¹⁴.

VI. GIPUZKOA BERREZARRITAKO ERRESUMAN: 1134-1194

Badakigu, ongi jakin ere, Alfontso I.ak testamentu aplikaezina utzi zuela ondorengoentzat: bere erresumak Lur Santuko hiru erakunde eliztarren artean hainbanatu zituen –tenplarioen, ospitaletarren eta Hilobi Santuko kalonjeen artean– eta katedral eta abadiei neurrigabeko legatuak utzi zizkien, baita zegozkien lurretatik kanpokoak ere zenbait kasutan. Aragoiko eta Iruñeko nobleek beren konponbideak bilatu zituzten. Iruñekoek Gartzeta Ramirez errege aitortzea erabaki zuten, Iruñeko dinastiarekin ahaide egiten zelako eta Tuterako tenentea zelako. Hurrengo urteak gorabeheratsuak izan ziren eta, Gartzeta Ramirezek, bere handiki gehienen adostasunari esker –desleialtasunen bat edo beste ere jasan behar izan zuen–, Iruñeko erresuman agintari izaten jarraitzea lortu zuen¹⁵.

¹⁴ LEMA PUEYO, J. Á., Evolución política de los territorios históricos: Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en la Edad Media. BARRUSO BARÉS, P. eta LEMA PUEYO, J. Á. (koord.), *Historia del País Vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Donostia: Hiria Liburuak, 2004, 126 or.; autore berarena, *Colección diplomática de Alfonso I de Aragón y Pamplona (1104-1134)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990, 270 zenbakidun dokumentua.

¹⁵ LACARRA, J. M.^a, *Historia política I...*, op. cit., 330-333 or.; II, 11-35 or.; LEMA PUEYO, J. Á., *Alfonso I el Batallador: rey de Aragón y Pamplona (1104-1134)*, Gijón: Trea Editorial, 2008, 340-350 or.

1. Gartzea Ramirez: 1134-1150

Gipuzkoa –Bizkaiarekin batera eta, modu jarraituan ez bazen ere, Arabarekin ere bai– errege berriaren lurralde-multzoan geratu zen. Horren lekuko dira Iruñeko erregearen jurisdikzioan Gipuzkoari buruz egiten diren aipamenak, gutxienez 1135eko maiatzetik hasita, eta ez dago inon jasota kontrola galdu zuenik. Ladron kondea eta bere seme Beila txandakatu ziren lurraldearen tenentzian, leialtasun feudalen familia-joko sotil eta konplexu baten barruan. Leireko monasterioko XII. mendearen erdialdeko faltsifikazio batean Donostia Gipuzkoako ekialdeko mugatzat nabarmentzen da, Hernaniko mugartearen barruan, eta mendebaldeko muga Deban kokatzen da. Espazio horretan esku hartzen du Gartzea Ramirez erregeak 1141. urtean. Iruñeko katedralari dohaintzan eman zizkion hainbat higiezin, larre-eremu eta errege-eskubide ingurune zabal batean, Oria ibaiaren behealdetik hasi, Urumearen bailaran barrena, Altza eta, agian, Aiako Harriraino. Hartara, Leireko monasterioaren lehiakide zen erakunde nafar bat indartu zuen Berrezarleak. Apezpikuak *hinterland* donostiarrarekiko zuen interesa ulertzeko arrazoia izan daiteke, agian, ingurune hartan hazkunde demografikoa eta ekonomikoa ari zela gertatzen, eta bertan egon nahi zuela, eta bestalde, Aralar mendilerroaren eta kostaldearen arteko erradio txikiko abeltzaintza-ibilbideak kontrolatu nahi zituela¹⁶.

2. Antso VI.a: 1150-1194


Errege Jakitunak utzi zuen arrastoa Gipuzkoan. Haren xedapenen artetik ezagunena Donostiako Forua izan zen, araugintza-testu oso aberatsa. Testu harekin, aldatzen eta hazten ari zen gizarte baten premiei erantzun zien.

2.1. Muga baten definizioa: 1150-1179

Erreinaldiaren hasiera oso gorabeheratsua eta etsigarria izan zen; izan ere, Antso VI.ak erronka handiei egin behar izan zien aurre: erresuma Alfontso VII.aren eta Erramun Berenger IV.aren (1151) artean banatzeko proiektuari eta Gaztelako errege-erreginen tutoretza arriskutsuari. Leialtasun feudalak, basailutzako hitz-emate solemneak gorabehera, aldakorrak eta konplexuak dira. 1153. urtean, Ladron kondeak eta haren seme Beilak –famiabiur bihurtuko zen bi

¹⁶ BARRENA, E., *La formación...*, *op. cit.*, 315-328 or.; FORTÚN, L. J., *La quiebra...*, *op. cit.*, 443-446 or.; GOÑI, J., *Colección diplomática...*, *op. cit.*, 221 eta 232 zenbakidun dokumentuak; *Bece-rrero Galicano Digital* [0. dok.] (www.ehu.eus/galicano/id0 - 2018/08/10ean kontsultatua).

2. mapa. Iruñeko erresuma Gartzia Ramirezen agintepean (1134-1150)



Iturria: Fortún Pérez de Ciriza, L. J., eta Jusué Simonena, C., (zuz.), *Historia de Navarra. I. Antigüedad y Alta Edad Media*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 142. or.

urte geroago—Antso VI.a alde batera utzi eta Gaztelako koroaren zerbitzura jarri ziren. Segur aski, tenentziak beraiekin zituztela, tartean Gipuzkoako lurak —denak edo haietako batzuk—.

Urte gutxiren buruan, egoera eraberritu egin zen. Auzo erresumetan errege adin txikiak iziren: Gaztelan 1158. urtetik eta Aragoian 1162. urtetik aurrera. Bien bitartean, Beila Ladron, gizon zuhur eta errealista, Antso VI.a-ren aginte-pera itzuli zen eta Gipuzkoa ere bai, harekin batera. Urte haietan, munta han-

diagoko aldaketak azaleratu ziren. Oso zabaldua dagoen interpretazio batek dio Pirinioetako monarkiak bere subiranotasuna berresteko proiektu bati ekin ziola buru-belarri, lurrak, bitartekoak eta herritarrak hobeto kontrolatzearen eta nobleen aurrean zuen posizioa indartzearen. Korrante orokorra zen hori, Europako beste monarkia batzuek ere antzera jokatu baitzuten. Horrek, epe luzera, erregearen kontrol zuzenagoa eta biziagoa ekarri zuen Bizkaiaren, Arabaren eta Gipuzkoaren gain, nahiz eta, agian, ez zen beti ongi onartua izango.


Urte gorabeheratsuak izan ziren, liskar ugarikoak lurraldeak zirela eta: Nafarroak zabaltzeko saiakera egin zuen Errioxan eta Gaztela iparraldean, 1162tik 1167ra bitarte; 1173. urtetik aurrera Alfontso VIII.ak gerrarekin erantzun zuen eta Ingalaterrako Henrike II.ak bitartekaritza-lanak egin nahi izan zituen 1176-1177 urteetan, baina ez zuen arrakastarik izan. Nafarren eta gaztelarren arteko akordioa *–adiskidetasunaren eta adostasunaren ituna–* 1179ko apirilaren erdialdera lortu zen. Itun horrek ezarritako *statu quo*ak bi hamarkada iraun zuen. Gipuzkoa ia osorik, Durangaldea barne, Antso VI.a Nafarroakoari esleitutako eremuan geratu zen. Aztergai dugun eremura mugaturik, Alfontso VIII.aren *–eta, beraz, Bizkaiarekin–* zuen mendebaldeko muga Itziarren hasten zen, Deba ibaiaren ibai-ahoa, Durangoraino iristen zelarik; Malmasingo gaztelu bizkaitarra *–eztabaida dago haren kokapenari buruz–* Gaztelaren aldean geratu zen¹⁷.

Nafarroari atxikitako espazio gipuzkoar hori hainbat modutara hautematen da, ikuspegi arabera. Donemiliagako monasterioari kasu eginez gero, XII. mendearen erdialdean egindako faltsifikazio baten arabera, lurraldea Donostiatik Deba ibairaino zabaltzen da, alde batera utzita Bidasoa eta Oiartzun ibaien bialarak, eta Arabaren iparraldeko mugetatik itsasoraino. Aitzitik, Iruñeko katedralaren kasuan, Antso Jakitunaren erregealdian egindako beste faltsifikazio baten arabera, mugak ia gaur egungoak izango liriteke: Bidasoa ibaitik Deba ibaira bitarte, eta San Adriandik *–betiere izen bereko mendateari gagozkiola–* Kantauri itsasoraino¹⁸.

¹⁷ LACARRA, J. M.^a, *Historia política*. II..., *op. cit.*, 69-76 or.; MARTÍNEZ DÍEZ, *Álava medieval*. I..., *op. cit.*, 112-124 or., eta *Gipúzcoa*, 126-129 or.; FORTÚN, *La quiebra...*, *op. cit.*, 447-456 or., non 1179. urteko ituna zehatz-mehatz aztertzen den; Nafarroako monarkiaren berrespenaren ideia hemendik hartu dugu: MARTÍN DUQUE, Á. J., *Sancho VI de Navarra y el fuero de Vitoria*. ARÓSTEGUI, P. (koord.), *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiz, Gasteizko Udala, 1982, 287-289 or.; GONZÁLEZ GONZÁLEZ, J., *El reino de Castilla en época de Alfonso VIII*, II. lib., Madril: CSIC, 1960, 321 zenbakidun dokumentua; Europako joera orokorrari buruz: BISSON, Th. N., *La crisis del siglo XII: el poder, la nobleza y los orígenes de la gobernación europea*, Bartzelona: Crítica, 2010.

¹⁸ *Becerro Galicano Digital* [0. dok.] (www.ehu.es/galicano/id0 - 2018/08/31n kontsultatua); GOÑI, J., *Colección diplomática...*, *op. cit.*, 6 zenbakidun dokumentua. Antso III.aren faltsifikazioaren datari buruz, BARRENA, E., *La formación...*, *op. cit.*, 338-347 or.

3. mapa. Nafarroako erresuma Antso Jakitunaren agintepean (1150-1194)



Iturria: Fortún Pérez de Ciriza, L. J., eta Jusué Simonena, C., (zuz.), *Historia de Navarra. I. Antigüedad y Alta Edad Media*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 146. or.

2.2. Espazioaren berrantolaketa: 1179-1194

1179. urtetik aurrera, Gaztelarekiko harremana aldi baterako egonkortu ostean, Antso VI.ak erresuma gobernatzeari ekin ahal izan zion eta administrazioan kontrol zorrotzagoa ezarri zuen. Egoera horretan, Arabaren ekialdera hedatzen zen tenentzia batean txertatuta geratu zen Gipuzkoa, egoitza Aitzorroztzeko gaztelua (Eskoriatza) izanik. Gaztelu horretan, erregealdia amaitu bitarte, arabar jatorriko handikiak –Diego Lopez eta Pedro Ladron– eta nafar jatorriko

beste bat –Eneko Oriz– izan ziren, txandaka, tokiko handikien eta Pirinioetako erresuma zaharreko nobleziaren interesen artean oreka bat lortu nahi balitz bezala¹⁹.

Egoera horretan, Antso VI.ak Donostia jendeztatzea bultzatu zuen eta, horretarako, pribilegioen gutuna ez ezik, Lizarrako forua ere eman zion, bertsiio luzean, 1164. urtean. Obra honetako beste autore batzuek egin dute testu horren azterketa historiko eta juridikoa. Hemen, erregea erabaki horiek hartzea bultzatu zuten arrazoiak zeintzuk izan ziren aipatu baino ez dugu egingo, erabaki hori izango baita gure azterlanaren amaiera. Noiz eman zuen dokumentua? Jatorrizkoa galdu egin zen, eta edizio kritiko bat egiteko fidagarrienak diren eta gordetzen diren bi kopiak –1424 eta 1474 urteetakoak– berandukoak eta osatu gabeak dira. Izan ere, bietan amaierako zatia falta da –«eskatokolo» deitua–; zati horretan jasotzen ziren, besteak beste, data kronikoa eta topikoa ez ezik, elizako eta nobleen arteko agintarien zerrenda ere, horrelako diplometan ohikoa zenez. Beste aukera batzuk aintzat hartu diren arren, –Jose Maria Lacarraren irizpideari jarraikiz– gehiengoaren iritzia da 1180 urte inguruko datazioa duela, erregealdiaren testuinguru historikoaren arabera, baina gure ustez, ez dago nahikoa arrazoi 1179. urtetik 1194. urtera bitarteko edozein urte baztertzeko. Donostiako forua hiriak bultzatzeko eta indartzeko ekintza-ildoari atxikitzen zaio. Araban, 1181etik 1191ra bitarte, honako hauek jaso zuten hiri-gutuna: Gasteiz, Antoñana, Bernedo eta Argantzon. Erregearentzat, lurraldearen kontrola finkatzeko modua da, aldi berean, itsasorako irteera berresten dela; horrez gainera, abantaila juridikoak ematearen bidez, komunitateen leialtasuna ere indartzen zuen. Halaber, erregeak tokiko garapenak eragindako premiei erantzuten die; garapen hori nahikoa izan zen, besteak beste, Leireko monasterioaren eta Iruñeko eta Baionako apezpikutzen interesak –askotan kontrajarriak– ingurune hartara erakartzeko. Are gehiago, hain justu orduantxe finkatu zituzten bi elizbarruti horiek beren eragin-eremuak ingurune hartan, Egoitza Santuraino iritsi ziren akordio eta negoziazio-lanen bitartez. Urgull mendiaren oinean, Leireko monasterioak zuen kokagunetik ez oso urrun, gaskoiek komunitate bat eratu zuten: Lapurditik eta Akitaniatik iritsitako arrantzaleak, nabigatzaileak, garraiolariak, merkatarriak, eskulangileak eta ostalariak ziren. Haien jarduera itsas komunikazio sare batean txertatu zen; sare hori, gutxienez, Baionatik Kantauri itsasoko kostaldera zabaltzen zen. Lurraldean bertan ekoizten ziren eta merkatura zitezkeen soberakinak ere baliatzen zituzten. Denborarekin, etorkin horiek talde berezitua eratu zuten, eta jabetuta zeuden eskubideak zituztela eta etniaren nahiz kultura-

¹⁹ MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Álava medieval. I...*, *op. cit.*, 125-132 or.; FORTÚN, L. J., *La quiebra...*, *op. cit.*, 457-458 or. eta 462-470 or.; ORELLA, J. L., *Nacimiento de Gipuzkoa...*, *op. cit.*, 189-217 or.

ren aldetik kohesioa zutela; horrela, bada, XII. mendearen amaierarako *burgu* izendapena jaso zuten. Jende horien etorrera eta sustraitzea prozesu luze baten ondorioa izan bide zen, baina ezin dugu zehatz-mehatz adierazi noiz hasita. Zailtzarik gabe, prozesu hori sustatu zuten arrazoietakoa bat izango zen paraje hark erraztasun handiak eskaintzen zituela Bordeletik eta Baionatik kabotajeko nabigazioa indartzeko. Arrazoi gehiago ere eman izan dira, hala nola Akitaniako herritarren eta Ingalaterrako koroaren arteko tentsio hipotetikoak, XII. mendearen erdialdean eremu hori Frantziatik Henrike II.a Plantagenêt-en agindupera igaro zenean; tentsio horiek zirela eta, gaskoi askok Gipuzkoako kostaldera emigratu bide zuten. 1178. urtekoa da Santa Maria eta San Bizente parrokien lehen aipamen idatzia: Leireko monasterioa eta Iruñeko apezpikutzaren lehian ari ziren bi parrokia horien kontrola lortzeko. Ziurrenik, Nafarroako erregearen eta herritarren artean negoziazioa egon zen, eta herritarrei pizgarriak eskainiko zizkien kokagune horretan finkatzeko. Agian gutuna eman aurreko garaietan deialdiren bat egin zuen gaskoi gehiago erakartzeko. Azken batean, Donostiako forua Kantauri itsasoko kostaldearen bizitasunaren adierazle da; bestalde, garai hartan Alfontso VIII.a Gaztelakoak pribilegioak eman zizkien Castro Urdiales, Laredo eta Santander hiriei²⁰.

VII. OINARRIZKO ERREALITATEAK

1120. urtean, Oportoko Hugo apezpikua Gipuzkoara iritsi zen Baionatik, Compostelako Donejakuera bidean. Bidaia haren kontakizuna egin zuen *Historia Compostelana* liburuan, eta oso gutxi zibilizatutako paisaia bat aipatzen du, basakeriaren ideia ere emanez: *lugares remotos y apartados, ásperos y poco agradables (toki urrun eta isolatuak, latzak eta ez oso atseginak)*, munduaren mugaldean kokatutakoak, itsasoko olatuak hausten diren tokian. Paraje haietan honelako gizakiak aurki zitezkeen: *montaraces, fieros e indómitos, de idioma desconocido (basatiak, ankerrak eta hezigabeak, hizkuntza ezezaguna hitz egiten zutenak)*. Izan ere, portugaldar prelatuak *euskaldunen hizkuntza hitz egiten bazekien indigena* baten zerbitzuak behar izan zituen. Kontakizunean kultura-arloko alde nabarmena bistaratzen da, hizkuntza oztopo larria delarik elkar ulertzeko; halaber, Europako ingurune honetako biztanleei buruz antzinatek ja-

²⁰ GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., La sociedad guipuzcoana, 281-312 or., eta Una villa mercantil, 17-25 or.; LACARRA, J. M.^a, eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra. Fueros derivados de Jaca I. Estella-San Sebastián*; Iruñea: Institución Príncipe de Viana, 1969, 28-31 or.; MARTÍN DUQUE, Á. J., El fuero de San Sebastián: tradición, manuscritos y edición crítica. *Congreso: el fuero de San Sebastián y su época (San Sebastián 19-23 de enero de 1981) / Donostiako forua eta bere garaia (Donostia, 1981eko urtarrilaren 19tik 23ra)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 3-25 or.

sotako klixe literario zaharrek bizirik dirautela ere sumatzen da, azken batean, basakeriaren eta zibilizazioaren arteko kontrastea agertu nahirik. Alabaina, nekez sinets dezakegu XII. mendearen hasierako Gipuzkoako gizartea primitibismo-egoeran bizi zenik eta, arkaismoan murgilduta, Kristandade Latindarreko joera orokorrean ihes egiten zienik, berezitasunak berezitasun: nekazaritza-produkzioaren eta trukeen hazkundea, landa-kokagune gero eta egonkorragoak, hirien goraldia, elizarekiko atxikimenduaren garapena eta nobleen nagusitasun soziala²¹.

1. Eraldatzen ari den espazioa

Erdi Aroko garapen oren funtsezko oinarria landa munduan dago. Kristandade Latindar osoan bezalaxe, VIII. eta IX. mende inguruan sortu bide ziren herrixkak, betiere parrokia-eliza bati atxikitako nekazariz eta abeltzainez osatutako erkidego egonkortzat ulertuta. Halaxe gertatu zen Zarautzen eta, bereziki, aspaldi hustutako Iromendiko San Pedron, non azken aldi egindako industeta-lanei esker, Goi Erdi Aroko iragan urruneko arrastoak aurkitu diren. XI. mendearen hasieran, lurraldeko herrixken sarea eratuta egon zitekeen jada, eta herrixka horietako zenbait hiri bihurtuko ziren geroago²².

Zaila da horren arrastoari jarraitzea idatzizko dokumentazioan. Antso VI.aren erregealdiaren amaierako urteetan, Iruñeko apezpikuak 1186-1193 aldi idatzitako dokumentu bat dago; garai hartan eman behar izan zen, antza, Donostiako forua, eta dokumentu horretan hainbat toponimo gipuzkoar aipatzen dira, kategoria geografikoa zehaztu gabe. Toponimo horietako gehienak Antso III.a Nagusiaren diploma baten faltsifikazio batean –1032. urte ingurukoa– ere agertzen dira, eta aurrekoaren garai bertsean egin izan daitekeen arren –XII. mendearen 80ko hamarkadan–, oraingoan «bailarak» -*vallibus*- direla aipatzen da. Gure ustez, herrixkak edo elkarren hurbileko herrixka multzoak liriateke. Horietako bi etorkizunean alkatetza nagusi izango ziren eta, Behe Erdi Aroan, errege-herrien landa-barrutiak eratu zituzten: Azeria eta Saiatz. Argitara atera dira orain Zizurkil, Errezil eta Goiatz. Agian aipamen horren atzean dago Iromendiko San Pedroren gorakada. Iraurgiren erreferentzia Urolako bailararen edo Azpeitia edo Azkoitia baino lehen zeuden herriguneen aipamentzat har li-

²¹ *Historia Compostelana*, II. lib., XX. Ikus, halaber: GARCÍA DE CORTÁZAR, *La sociedad guipuzcoana...*, *op. cit.*, 337-338 or.

²² ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., San Pedro de Iromendi. II Campaña, *Arkeoikuska*, 13 (2014), 285-289 or.; San Pedro de Iromendi. III Campaña, *Arkeoikuska*, 14 (2015), 311-317 or.; San Pedro de Iromendi. IV Campaña, *Arkeoikuska*, 15 (2016), 306-311 or.

teke. Halaber, haietako zenbait, gerora hiribildu kategoria lortuko zuten kokagune aurre-urbanoak ziren: Hernani, jada Donostiatik argi eta garbi bereizitako populazio-gune gisa, eta Itziar, Deba hiribilduaren aurrekari historikoa. Azkenik, Oiartzun aipatzen denean, espazio konplexu bat izendatzen da, gerora, hiru zati egingo zena: izen bereko bailara, batetik, eta Errenteriako eta Hondarribiko hiribilduak, bestetik. Debagoienan, Leintzeko lurraldea zatikatzea eragin zuen prozesuarekin alderatu daiteke²³.

Herrixkarekin, eliza eratzen da, parrokia-antolamenduaren oinarri eta erkidego-bizitzaren funtsezko zentro gisa. Garai hartako joera nagusiari jarraikiz, Goi Erdi Aroan gutxi ziren artean, eragin-eremu zabala zuten eta zehaztasun gutxiko mugak. Denborarekin, gehiago sortu ziren, muga txikiagoak baina hobeto zehaztuak zituztela, eta erabilgarriagoak ziren espazioa kontrolatzeko tresna modura. Lehendik sortutako kokagune bati atxiki zitzaizkion zenbait; beste batzuek koherentzia eman zieten sakabanatutako espazioetan bizi ziren komunitateei. Arkeologia-lanari esker, Zarauzko Santa Maria La Real elizan bi tenplu txikiren aztarnak agertu dira, oinplano angeluzuzenekoak; zuhurtzia handiz, IX. eta X. mendeetako datak ezarri zaizkie, hurrenez hurren, izan ere, hiribildua jada sortuta zegoela, XIII. mendean eraiki zuten tenpluaren aurrekariak –bata bestearen atzetik– izan zirela uste baita. Ez dugu baztertu behar lehen aipatutako Iromendiko San Pedro horretan Goi Erdi Aroko tenplu bat egotea, 1100. urte inguruan eraikitakoaren aurretik. XI. mendean idatzitako iturrietan elizak aipatzen dira, halaber, Altzon –Olazabalgo Salbatore–, Mutrikun –Astigarribiako San Andres–, Bergarako *lurrean* –Aritzeta–, eta Donostian –Antigua auzoan–. XII. mendean, lehen aipatu ditugun gaskoi donostiarren bi parrokiak atera dira argitara –Santa Maria eta San Bizente–, baita Zaldibiakoa ere. Indusketa-kanpainetan, X. mendetik XIII. mendera bitarteko aztarnak agerian geratu dira Oiartzunen –Done Eztebe–, Irunen –Santa Elena–, Aian –San Pedro–, Tolosan –Done Eztebe–, Iruran –San Migel–, Getarian –San Martin eta San Salbatore–. Adibide hauetako zenbait aurrerago ere aipatuko ditugu berriro. Osatu gabe dagoen arren, zerrenda horrek gizartea antolatzeke zelula horien hazkunderako joera adierazten duela ulertu behar da. Eraikin horiei dagokienez, hasierako fase batean sinestunen tokiko erkidegoak izan zitezkeen sustatzaile, baina, denborarekin, ziurrenik goi-mailako nobleak ere hasiko ziren esku hartzen, kalitate handiagoko eraikuntza-materialak ordaintzeko eta lan-esku espezializatua erakartzeko ahalmena zutenez. Ez zuten, ordea, eskuzabaltasunez egiten –aurrera-

²³ GOÑI, J., *Colección diplomática...*, *op. cit.*, 6 eta 378 zenbakidun dokumentuak; ikus, halaber: JIMENO ARANGUREN, R., eta PESCADOR MEDRANO, A., *Colección documental de Sancho Garcés III, el Mayor, rey de Pamplona (1004-1035)*, Iruñea: Nabarralde - Pamiela, 2003. Antso III.aren diplomaren faltsifikazioa egin zen garaia eta egoera ezagutzeko, BARRENA, E., *La formación*, 338-347 or.

go azalduko dugunez–, baizik eta gizartean nagusitasuna finkatzeko eta ondarea kudeatzeko borondateari jarraikiz²⁴.

Bien bitartean, bi apezpiku-botere, Iruñekoa eta Baionakoa, Gipuzkoako lurretan beren mugak markatzeko ahaleginetan ari dira, bereziki, XI. mendearen amaieratik. Zaila da prozesuaren jarraipena egitea, horri buruzko dokumentuak –erregearenak, elizbarrutikoak eta Aita Santuarenak– ez baitaude manipulaziotik libre. Ez da erraza, halaber, lapurtarren asmoak zenbaterainokoak ziren jakitea. Prozesuaren amaierako fasea, Donostiako forua eman zen garaiarekin bat datorrena, bi xedapenekin burutu zen. Lehenengoa 1186. urtetik 1193. urtera bitartekoa da eta bi egoitzen arteko akordioa ezartzen du; horri esker, Baionako Bernardo apezpikuak hainbat tokitako probetxuez baliatzeko aukera zuen, aldi baterako eta baldintzapean: besteak beste, Donostia eta goian aipatu dugun toponimoen zerrenda agertzen dira toki horien artean. Akordioa konpentsazio iragankor bat izan zitekeen Baionako apezpikuarentzat, bi prelatu sinatzaileetako bat hiltzean amaitzen baitzen ituna. Bigarren xedapena Zelestino III.ak 1194. urtean emandako bulda bat da, zeinak Lapurdiko egoitzari esleitzen baitzion *Otarzu* edo Oiartzun bailara, hau da, egungo Hondarribitik Erreteriarara arteko lurraldea. Donostia eta Gipuzkoaren zati handiena Iruñeko egoitzaren mende geratu ziren, behin betiko.

Jarduketa horien atzean, besteak beste, parrokia-errentak kontrolatzeko interesa ezkututzen da. Ziurrenik askoz lehenago ere kobratzen ziren arren, 1194ko bulda horrek Baionako apezpikutzaren diru-sarreraren artean sartzen zituen luberrien hamarrenak –landu berriak ziren lurretako uzten gainekoak– eta, horrek bere administraziopean zeuden Gipuzkoako lurretan, gutxienez, eragina izango zuen. Hori ulergarria litzateke hazkunde ekonomiko eta demografikoaren testuinguru batean. Era berean, Baionaren jarrerak zerikusia izan dezake gaskoiek Gipuzkoaren ipar-ekialdeko lurretara egindako zabalkundearekin, Donostiaren garapenaren oinarri den aldetik²⁵.

Apezpikutzaren dokumentazioan ez da ezer aipatzen Deba ibaiaren bailarari buruz –Itziarren aipamena alde batera utzita– eta isiltasun hori adierazgarria da; izan ere, ibai-ahoa kenduta, gainerakoa Arabako apezpikutzari esleitu zi-

²⁴ IBÁÑEZ ETXEBERRIA, A. (koord.), *Santa María la Real de Zarautz (País Vasco), continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a.C. y XV d.C.*, Munibe, 27-Gehigarria (2011); SARASOLA, N., eta MORAZA, A., *Arqueología medieval en Gipuzkoa...*, op. cit., 91-136 or., 140-141 or.; CURIEL YARZA, I., *La parroquia en el País Vasco-cantábrico durante la Baja Edad Media* (c. 1350-1539), Bilbo: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009, 73-100.

²⁵ GOÑI, J., *Colección diplomática...*, op. cit., 378 zk. dok.; MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Guipúzcoa...*, op. cit., 29 zk. dok.

tzaion baina apezpikutza hori 1088. urtean desagertu zen, Calahorrakoak xurgatu izanaren ondorioz.

Kanpoko hainbat abadiak beren ondare-sareak zabaldu zituzten Gipuzkoako lurretan edo, gutxienez, ustiapen ekonomikorako eskubideak eskuratu zituzten; horretarako, mendeko zentroak sortu zituzten edo, lehendik zeudenak berenganatu zituzten. Gehienek Nafarroan eta Aragoi zuten egoitza nagusia, eta lurralde horietatik iristen ziren kultura eta erlijio arloko eraginak: Leireko San Salvatore, San Juan de la Peña –zuzenean edo Bizkaian zuen Gaztelugatxeko Doniene edo San Joan egoitzaren bitartez–, Irantzuko Andra Maria, San Migel in Excelsis edo Funeseko Santiago –gero Montearagoni atxikiko zitzaiona–. Eragin monastikoaren beste foku nagusia, zalantzarik gabe, Donemiliaga Kukulako abadia da. Monasterio garrantzitsuenei dagokienez, Gipuzkoako lurrak beren jabariaren kanpoaldeko eremuan zeuden baina horrek ez du esan nahi interesik ez zutenik.

Horrela, bada, XI. eta XII. mendeetan gazteluak agertu ziren. Hamar bat kontabilizatu dira, baina esan behar da eraikin xumeak zirela, beste lurralde batzuetakoekin alderatuz gero. Haietako batzuk zurezko egiturak ziren, muino baten gainean eraikiak, hala nola Galardin, Ordiziatik gertu. Zenbait kasutan, kokapena ikusita, kontrol politikorako eginkizuna argi eta garbi betetzen zutela pentsa daiteke, eta dokumentazioan berresten da eginkizun hori, batzuetan. Zalantzarik gabe, Aitzorrotzeko gazteluak –Eskoriatza– Arabaren eta Debagoienaren arteko komunikazioa zaintzen du, eta Antso VI.aren agindupeko tenenteen egoitza izan zen. Ausa –Ataun– eta Jentilbaratza –Zaldibia– Aralar mendilerroa zelatatzekeo lagungarri izan zitezkeen, Nafarroarekiko mugan. Beste aukera batzuk ere badira: populazio-guneen defentsa, mendiko abeltzaintza-bideen kontrola. Idatzitako lekukotzak urriak direnez, ezin dugu ziurtasunez jakin jaun nobleen boterearen egoitza izan ote ziren, eta, beraz, haietatik ordainarazpenak ezartzen ziren edo ez²⁶.

Aldaketa horien euskarri, produkzio-indarren garapena gertatu zela uste da, Donostiako foruan islatutako merkataritza-jarduera nabarmena ahalbidetuko luketen soberakinak sortzeko modukoa izateraino. José Ángel García de Cortázarrek abeltzaintzan –iturrietan bereziki behiak aipatzen dira– eta basogintzan jarduten zen espazio bat deskribatu zuen, eta labore jarduera arian-arian hedatzen ari zela adierazten zuten zantzuak ere hautematen dira. Gure ustez, hori ezinezkoa izango zatekeen laborantzako lur berriak irekitzeko ahalegina egin

²⁶ SARASOLA, N., eta MORAZA, A., *Arqueología medieval...*, *op. cit.*, 76-85 or.; ARAGÓN RUANO, Á., La evolución del hábitat y del poblamiento en el País Vasco durante las Edades Media y Moderna, *Domitia*, 12 (2011), 32. or.

gabe, goragoko luberrien hamarrenen aipamen horrek adieraz dezakeenez. Sagar-rondoa nonahi egotetik, baratzearekin eta mahastiarekin tartekatzeraz igaro zen. Dokumentuetan, merkataritzari buruzko berriak gutxi dira forua eman aurretik, baina landa-eremuan ere dirutan egindako transakzioak aipatzen dituzte²⁷.

Jada ezaguna dugun koadro hori osatu gabe geratuko litzateke beste bi jarduera ez bagenitu aintzat hartuko. Alde batetik, arrantza, portu gipuzkoarretako ekonomiaren hasierako motortzat jo izan dena. Bestetik, *haizeolak*, magaletan eta hezeguneetatik eta ur-korronteen sorburuetatik gertu kokatzen zirenak; arkeologia-kanpainak atera dute argitara jarduera horren dinamismoa. Arabarekin alderatuta, berriki arte atzeratuago zegoela uste zen jarduera horrek goraldia izan zuen, antza, X. mendetik aurrera²⁸.

2. Gizarte hierarkizatua

Dokumentazioan gizarte laikoaren goi-mailari buruzko zenbait albiste aurki daiteke. Tenentziak izatera iritsi ziren handikien zirkuluaz ari gara, zenbait kasutan, Nafarroako edo Gaztela eta Leongo errege-kurian parte hartzeraino –haiek edo haien ahaideak–. Baten bat Aragoi Garaikoa zela uste da –Gartzea Aznaretz–, beste batzuetan, mendebaldeko euskal jatorria zutela esan izan da –Orbita Aznaretz, Lope Enekoitz Bizkaiko jauna, Ladron eta Pedro Ladron–, edo nafarrak zirela –Eneko Oriz–. Ez dakigu ia ezertxo ere bakoitzak bere erregearen ordezkari izanik egindako justiziako eta gobernuko ekintzen gainean, ezta erregearekin zer nolako basailutza-lotura zuten ere. Pentsa liteke XI. eta XII. mendeetan feudalismoa garatzearekin batera, haien eskubideak areagotu egingo zirela, norik bere erregearen zerbitzuan, lurren, errenten eta soldaten gaineko *ohoreak* eta erantzukizunak baliatzeko garaian. Halaber, esan gabe doa Nafarroako, Aragoiko eta Gaztelako erregeen arteko gatazkak baliatzen zituztela ohorezko karguak lortzeko edo ondarea areagotzeko. Estrategia konplexuak eta aldakorak erabiltzen zituzten. Familia bereko kideak aurrez aurre zeuden bi erregeren zerbitzura egon zitezkeen. Bistakoak dira bi monasterio nagusiek izan zituzten harremanak: San Juan de la Peña monasterioari Gipuzkoako ekialdeko zatian sustraitzen lagundu zioten, eta Donemiliaga Kukula monasterioari, aldiz, lurraldearen mendebaldeko zatian zabaltzen.

²⁷ GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., La sociedad guipuzcoana..., *op. cit.*, 297-304 or.

²⁸ ALBERDI LONBIDE, X. eta ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., Proyecto de investigación de las ferrierías de monte o haizeolak en Gipuzkoa y Álava: avance de resultados, *Kobie, Eranskinak*, 13 (2014), 181-192 or.; FRANCO PÉREZ, F. J., ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., eta ALBERDI LONBIDE, X., Los orígenes de la tecnología del hierro en el País Vasco: las ferrierías de monte o haizeolak, *Kobie. Paleantropología Seriea*, 34 (2015), 267-282 or.

Era berean, jatorri nafar argia duten hainbat handikik ere lortu zuten Gipuzkoan ondarea eta eragina izatea, tenenteen zirkuluko kide izan gabe. XII. mendearen erdialdeko hamarkadetan Iruñeko arroan jatorria zuen Taxoareko Lope Enekoitz *seniorra* agertzen da. Taxoare herrixkako elizaren jabe izaki, Zaldibiaraino zabaldu zuen –noiztik?– bere ondarea. Arrazoiak ez dira ageri: erregearen dohaintza emandako zerbitzuengatik, herentzia edo ezkontza-eskubi-deak. Agian, Taxoareko Maria Enekoitz senitartekoa zuen; Abaltzisketan higiezinak baitzituen emakume hark²⁹.

Tokian-tokian beste noblezia bat zegoen, gipuzkoarra izatearen itxura handiagoa zuena. Antso jauna, esaterako; Bergaran higiezinak eta aziendak zituen eta haren ondare-ondasunetako bat tenplu baten kontrola zen. Haren kleroa-rekiko konexioak Gaztelugatxeko Doniene edo San Joan monasterio bizkaitar xumeraino iristen ziren: anaia bat zeukan han monje, on Zianna, denborarekin abade izango zena. Berriro ere ezintasun-aitortza egin beharrean gaude: ez daki-gu tokiko jauntxo horiek zer nolako basailutza- eta segizio-loturak zituzten, edo zuzenean erregearekin, edo handikien zirkuluarekin, zerbitzu militar, aholku eta babes betebeharrak tarteko³⁰.

Zalantza gutxi daude aristokrazia laiko horrek tokiko elizen gain zuten kontrolari dagokionez –aipatu berri dugu eliza horien hedapena–, baina zaila da zehaztea eliza propioak izateko erregimen hori ordurako nagusi zen ala ez. Badakigu egoera hori XI. eta XII. mendeetan gertatu zela, gutxienez, eta horren berri izan dugu, kasu gehienetan, eskubide horiek kanpoko abadia bati laga zitzaizkiolako: Olazabalgo San Salvatore tenplua, Astigarribiako San Andres, *Champayn* –gero Zaldibiako Fede Santua– eta Aritzetako San Migel. Lehenengo bi kasuetan, titularrak tenentziak dituzten handikien zirkulukoak dira –Gartzea Aznarez, Lope Enekoitz kondea eta bien emazteak–, hirugarren kasuan Nafarroako noblea da –Taxoareko Lope Enekoitz– eta laugarrenean, balizko noble gipuzkoar baten aurrean geundeke –aurretik aipatu dugun Antso–. Elizaz arduratuko diren apaizak hautatzeko eskubidea dute –beste instantzia batzuekin gatazkak izan arren–, eta susma daiteke elizak sortarazten zituen errenten zati bat jasotzen zutela. Kontrol horrek familia-ondarearen antolamenduan eta kudeaketan zer nolako eginkizuna betetzen zuen zehaztu beharko litzateke. Badi-rudi eskubide horiek oinordetzan transmititzen zirela. Baina erregeak esku hartu

²⁹ GOÑI, J., *Colección diplomática...*, *op. cit.*, 186 eta 242 zenbakidun dokumentuak; JIMENO JURÍO, J. M.^a, *El Libro Rubro de Iruñea*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1970, 64 zenbakidun dokumentua.

³⁰ Soledad Tenaren ustez, Gipuzkoako noblezia nolabaiteko leinuen arabera antolatuta zegoen, baina ez da parekatzekoa, inondik ere, Frantziaren iparraldean XI. eta XII. mendeetan sortzen ari zen nobleziarekin; ikus: *La sociedad urbana*, 72-74 or.

behar zuen eliza propio haiek kanpoko monasterioei laga ahal izateko: Antso III.ak, Olazabalgo San Salbatoreren kasuan (1025), eta Alfontso VI.ak, Astigarri-biako San Andresenean (1091). Horrek zera adierazten du, nagusi laikoek erregearen dohaintza bidez eskuratu zituztela eskubideak eta, erregearen aldetik, lagapena ez zela erabatekoa izan.

1194. urtean, horrelako jardunbideak debekatzearren, Zelestino III.ak aipatu zuen bazirela hainbat eliza-onura eta hilerrri *iure hereditario* transmititzen zirenak Baionako elizbarrutian, eta horrek eragina izan zezakeen Gipuzkoako haren zatian, hau da, gero Hondarribiko artzapez-barrutia izan zen horretan. Tokiko nobleziak familia jakin batzuekin lotutako lurperatzeen eta parrokia-errenten banaketa kontrolatu nahi izan zutela –zenbateraino lortu ote zuten?– adieraziko luke horrek³¹.

Pertsonaia horiek elizen ganean zituzten eskubideak –jabetza izan zitekeen, edo zaindaritza-pribilegioren bat– Gipuzkoatik kanpora ere zabalduta zuden eta, zenbait kasutan, Iruñeko arrora eta Aragoi Garaira zabaltzen dira, eta beste zenbait kasutan Arabara eta Errioxara ere bai. Hor dugu Orbita Aznaretzen adibidea; lehenbizi, 1060. urtean, «Huula»ko monasterioa San Juan de la Peñari eman zioten Arabako *baroietako* bat izan zen; eta 1080. urtean, berriz, Harotik hurbileko San Migel Albanoko monasterioaren heren bat laga zion zenobio emiliarrari³².

Nobleen eta elizaren testuinguru horretan, idazlari profesional gipuzkoar baten lehen aipamen ziurra –eta luzaroan bakarra– agertzen zaigu. Comiz edo Gomiz de Urrari buruz ari gara; 1025. urtean, Olazabalgo tenpluaren dohaintzari buruzko dokumentua idatzi zuen edo idatzarazi zion bere zerbitzuko laguntzaile bati. Ez dugu informaziorik erabakitzeke Gartzea Aznaretz tenentearen zerbitzuko kapilau eta gramatikoa ote zen –Urra abizenak jatorri nafarra adieraz lezake–, edo eliza horretako kultuan jarduten zuten apaizetako bat³³.

XI. mendeko dokumentazioan soilik agertzen dira emakumeak negozio juridikoetan jarduten, Gipuzkoako lurraldeari dagokionez. Emakume horiek guztiak eliteen munduan mugitzen dira: Gaila edo Galga andrea –Gartzea Aznaretzen emaztea–, Blaskita andrea –aurreko bien alaba eta Antso Fortuñonesen emaztea– eta Tekla andrea, Lope Enekoitz kondearen emaztea. Emazteek senarrarekin bat-eginik jarduten dute edo, kasuren batean, nork bere kontura dohaintzak egiteko nahiz salerosketako egintzetan edo horiei dagozkien berrespenetan.

³¹ MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Guipúzcoa...*, *op. cit.*, 29 zenbakidun dokumentua.

³² PESCADOR, A., *Tenentes...*, *op. cit.*, 119. or.; *Becerro Galicano Digital* [170. dok.] (www.ehu.eus/galicano/id170 - 2018/08/23).

³³ MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Guipúzcoa...*, *op. cit.*, 6 zenbakidun dokumentua.

Uneren batean aldez aurreko negoziazioetan parte har zezaketen; esaterako, Te-kla andrea senarrarekin batera agertu zen Alfontso VI.aren aurrean Astigarribia-ko San Andres tenplua Donemiliagari lagatzeko prozesua (1091) arintzarren. Edo Gaila andrearen kasuan, elizan meza emateaz arduratzen den apaiza izendatzeko eskubidea baliatu zuen, eta eliza-agintariekin horri buruz negoziatu zuen. Era berean, XI. mendean, bederen, oinordetza-eskubide garrantzitsuak dituzte emakumeek, Blaskita andrearen kasuan, bezala. Kanpoko eliza-zentroak kontrolatzen dituzte. Gaila andreak berak monasterio bat –«Luquedeng»eko Donejakue– zuen jabetzan Iruñean 1048. urtera arte, eta aldi berean, bai hark eta bai Blaskita alabak eta Antso Fortuñones suhiak Binieseko Santa Eufemia elizaren patroitza zuten Jazetanian; hori zela eta, San Juan de la Peñako monasterioarekin negoziazio konplexuak egin behar izan zituzten³⁴.

Jaurerriaren sorrera oso ezaguna da, Iruñeko erresumaren kasuan. Hainbat aztarnak funtzio publikoen eta funtzio horien ondoriozko ordainarazpenen pribatizazioa gertatu zela pentsarazten dute Araban eta Bizkaian. Tenenteak beren karguaz balia zitezkeen eskubideak usurpatzeko edo errege-boterearen aurrean beren onibarrak babesten zituzten emakidak lortzeko. Horri dagokion adibiderik argiena da Diego Lopez Bizkaiko –eta, agian, Gipuzkoako– tenenteak 1110. urtean Urraka erreginarengandik lortu zuen pribilegioa. Emakida hari esker, haren sakabanatutako *hereditates*-ek immunitatea izango zuten zegozkien barruti guztietan, barrutia gobernatzeko kondea edo tenentea edonor zela ere. Ez dakigu prozesu hori zenbaterainokoa izan zen Gipuzkoan. XIII. mendetik aurrera, batik bat, sortzen hasi ziren herriguneetan errege-herriak nagusi zirela esan daiteke. Nolanahi ere, beti komeni izaten da galderak egitea. Errotu ote zen jaurerria hego-mendebaldeko muturrean bederen? Izan ere, lurralde haietan Gebaratarrek ezarri baitzuten beren nagusitasuna, denboraren poderioz³⁵.

Zein zen gizarte-maila apalagoen egoera? José Ángel García de Cortázarren ustez, egintza juridikoetan ohorezko inolako titulurik gabe aipatzen ziren lekukoak ondasun-jabeak izan zitezkeen. Zerrenda horretan leudeke 1053. urtean egintza juridiko bat eratu zuten Ormaiztegiko Gomez Fortuñones, Lazkao-ko Iñigo Lopez eta Loinazko Nunuso Narriatez, baina egia da horietako zenbait

³⁴ MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Guipúzcoa...*, *op. cit.*, 6, 8, 9, 10 eta 12 zenbakidun dokumentuak; *Bece-rrero Galicano Digital* [579. dok.] (www.ehu.es/galicano/id579) eta [581. dok.] (www.ehu.es/galicano/id581) 2018/08/17an kontsultatua).

³⁵ GARCÍA CAMINO, I., Origen y consolidación de la sociedad feudal en el País Vasco (siglos IX-XII), BARRUSO BARÉS, P. eta LEMA PUEYO, J. Á. (koord.), *Historia del País Vasco. Edad Media (siglos V-XV)*, Donostia: Hiria Liburuak, 2004, 274-277 or.; RUIZ ALBI, I., *La reina doña Urraca (1109-1126). Cancillería y colección diplomática*, León: Centro de Estudio e Investigación San Isidoro, 2003, 8 zenbakidun dokumentua.

gipuzkoartzat hartzeak zalantza handiak sortzen dituela. Logika horri jarraikiz, 1025. urteko dohaintzan agertzen den Nunuso Narriatez ere sar genezake zerranda horretan³⁶. Bestalde, etsigarria da garai hartako gipuzkoarren lurrarekiko atxikimenduari buruzko zein berri gutxi dagoen jasota. Oraingo, ziurra bi baino ez dira, lurraldearen hego-mendebaldeko muturrean, Leintz Gatzagan. Han, Orbita Aznarez *seniorrak* herritar bat, Mames izenekoa, 1080. urtean, bere etxebizitzarekin eta, beraz, familiarekin, Donemiliagako monasterioari entregatu zion. Ez zen nekazaria, gatz-produkzioan jarduten zuela dirudi, langintza horretan parte hartzen zuen. Zazpi urte geroago, beste handiki batek, Galindok –Iñigo López kondearen semea– nekazari-morroi bat eman zion zenobio emiliarrari toki berean, berriro ere, bere familia-unitatearekin batera. Iturriak oso eskasak izaki, oso zaila da jakitea noblezia laikoarekiko mendetasun-egoera hori zenbateraino zegoen zabalduta lurraldean³⁷.

Pentsa daiteke horrelako egoera gehiago ere gertatu zirela lurraldean errotu ziren monasterioen jabariari atxikitako lurretan. Baliteke Leintz Gatzagan Donemiliagari emandako nekazari-morroiak ez izatea abadiak inguru hartan zituen bakarrak. Ez da baztertu behar horrelako egoeraren bat gertatu izana, noiz edo noiz, Astigarribiako abadiako biztanleen artean edo Donostiako hasierako *villa*-ko herritarren artean, Leireko monasterioari emana izan baitzen azken hori.

VIII. ONDORIOAK

Amaitzeko, azken gogoetak eta hainbat iradokizun aurkezteko unea iritsi da. Galderak gehiago dira ziurtasunak baino. Ez gara sartuko Goi Erdi Aroan, abiapuntu gisa, gizarte jentilizio bat zegoen edo ez zegoen ebatzi nahian, baina eskema horiek krisi argian eta atzeraldian daudela adierazten dute faktore guztiek. Espazio gero eta populatuago baterantz eta gizarte gero eta konplexuago, berdintasun gutxiagoko eta hierarkikoago baterantz zihola pentsatu behar da. Horixe iradokitzen dute idatzitako lekukotzek eta, bereziki, aurkikuntza arkeologikoek, eta horixe ondoriozta daiteke auzo lurraldeekin alderatuta. Dena den, funtsezko hainbat gai itzalpean geratu dira, hala nola mundu feudalean oina-

³⁶ GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., La sociedad guipuzcoana..., *op. cit.*, 306-307 or.; MARTÍNEZ DÍEZ, G., *Guipúzcoa...*, *op. cit.*, azterlaneko 51-55 or. eta 6 eta 11 zenbakidun dokumentuak.

³⁷ *Becerro Galicano Digital* [170. dok.] (www.ehu.es/galicano/id170 - 2018/08/16an kontsultatua) eta [577. dok.] (www.ehu.es/galicano/id577 - 2018/08/16an kontsultatua). Orain dela gutxi arte, antzeko kasutzat jo izan da 1141ean Berastegiko tokiren batean bi nekazari-morroirekin –Beraxa eta Orti Muñoz– egin zutena, baina, badirudi toki hori Uharte Arakil hiribilduaren jurisdikzioari dagokiola, Nafarroan: GARCÍA FERNÁNDEZ, E., Sociedad, poblamiento y poder en las fronteras de Navarra con Castilla en el Edad Media: las pueblas de Burunda y Araquil, *Anuario de Estudios Medievales*, 21 (1991), 41. or., 15. oharra.

rrizkoak diren erakundeei buruzkoak: basailutza- eta segizio-loturak, jauntxo nobleen sustraitzea eta nekazarien egoera juridikoa, besteak beste.

Gipuzkoa ez zegoen isolatuta. Gipuzkoako nobleak eta apaizak hainbat eliza-zentrori atxikita zeuden; ekialdera, Nafarroarekin eta Aragoi Garaiarekin zuten konexioa, eta hegoaldera eta mendebaldera Arabarekin, Bizkaiarekin eta Gaztelarekin. Konexio horiek boterearekin eta ondarearekin loturik daude, baina baita partzialki baino ezagutzen ez ditugun kultura- eta erlijio-eraginekin ere. Idazketa erabiltzea eta, idazketarekin batera, elizako latina zabaltzea –hizkuntza -testuingurua ia erabat euskalduna izanik– fenomeno horiekin loturik dago. Joan ote ziren nekazariak lurraldetik kanpora, hegoaldera? Hartu ote zuten parte kolonizazio- eta birpopulazte-prozesuetan? 943. urteko lekukotza batean –berretsiko balitz– joera horiek aipatzen badira ere, gai honetan zuhurtziaz jokatzeko komeni da. Hartu ote zuten parte gipuzkoarrek Nafarroako eta Gaztelako erregeen kanpaina militarretan, al Andaluseko mugan? Ez genuke aukera hori baztertu behar.

Harrigarria da Donostiako foruaren aberastasuna informazioari dagokionez, aurreko idazkietako informazio-urritasun muturrekoarekin alderatuta. Foru-testuan merkataritzaren eta hirigintzaren bat-bateko loraldiaren berri ematen da, Lapurdiko eta Akitaniako etorkinak etorri eta tokiko herritarrekin elkarreaginean hasi zirenean. Zilegi da pentsatzea hazkunde ekonomiko jarraituko aldi luze baten ondorioz sortu zela errege Jakitunaren diplomaren jasotzen den goraldia, nahiz eta guk aldi horren zati oso txikiak baino ez ditugun ezagutzen. Gutxienez, hazten ari den gizarte bat dela ziur esan dezakegu, garai hartako Kristandade Latindarraren «zabalkunde isilaren» barruan.

Gaskoiak eta lapurtarrak Gipuzkoan zergatik finkatu ziren jakin nahi izanez gero, berriro ere interpretazioetan ahalegindu beharko dugu. Dinastia-aldaketekin lotutako arrazoi politikoak baino gehiago, arrazoa izan daiteke Kantauri aldeko merkataritza oso erakargarria zela eta, batik bat, jatorrizko lurraldeetako gizartearen ezaugarriak eta bilakaera. Horren guztiaren ondorioak argiago daude mundu urbanoari eman zitzaion bultzada erabakigarriari dagokionez, bereziki, kostaldean. Ukronia praktikatu *–what if delakoa–*, litekeena da nabigatzaile eta merkataritari horien parte-hartzerik gabe Gipuzkoako hiribilduen gorakada XIII. mendearen erdialdera arte atzeratzea, Alfontso X.a Jakitunaren (1252-1284) garaira arte. Aldi berean, Akitaniako immigrazioak eta fenomeno horrek ekarri zuen dinamismo ekonomikoak mugak hobeto zehaztera bultzatu zituen hainbat botere, hala nola Baionako eta Iruñeko apezpikutzak. Horrek bultzatu zuen Antso VI.a Donostiako portua eta hiribildua indartzera eta, agian, Donostiaren oparotasuna akuilu ere izan zen Alfontso VIII.a Gipuzkoako lurraldeaz jabetzera bultzatzeko.

Azken batean, gai horietan gehiago sakondu nahi bada, eskura dauden iturri idatzietako informazioak –urriak dira eta ez dirudi nabarmen ugalduko dire-

nik– gurutzatu beharko dira; eta, batez ere, kanpaina arkeologikoetan aurrera egingen saiatu. Hein bateraino antzeko ezaugarriak dituzten lurraldeekin –Bizkaia edo Kantabria– konparazio-azterketa bat egin beharko da. Espero dezagun galdera, metodo eta interpretazio berriak lagungarri izatea arlo honetan aurrera egiteko.

IX. BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI LONBIDE, Xabier eta ETXEZARRAGA ORTUONDO, Iosu, Proyecto de investigación de las ferrerías de monte o haizeolak en Gipuzkoa y Álava: avance de resultados, *Kobie, Anejos*, 13 (2014), 181-192 or.
- ARAGÓN RUANO, Álvaro, La evolución del hábitat y del poblamiento en el País Vasco durante las Edades Media y Moderna, *Domitia*, 12 (2011), 21-52 or.
- BARRENA OSORO, Elena, *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*, Donostia: Deustuko Unibertsitatea (Donostia), 1989.
- BISSON, Thomas N., *La crisis del siglo XII: el poder, la nobleza y los orígenes de la gobernación europea*, Bartzelona: Crítica, 2010.
- CANELLAS LÓPEZ, Ángel, *Colección diplomática de Sancho Ramírez*, Zaragoza: Real Sociedad Económica de Amigos del País, 1993.
- CURIEL YARZA, Iosu, *La parroquia en el País Vasco-cantábrico durante la Baja Edad Media (c. 1350-1539)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.
- ETXEZARRAGA ORTUONDO, Iosu, San Pedro de Iromendi. II Campaña, *Arkeoikuska*, 13 (2014), 285-289 or.
 -San Pedro de Iromendi. III Campaña, *Arkeoikuska*, 14 (2015), 311-317 or.
 -San Pedro de Iromendi. IV Campaña, *Arkeoikuska*, 15 (2016), 306-311 or.
- FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier, La quiebra de la soberanía navarra en Álava, Guipúzcoa y el Duranguesado (1199-1200), *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 45-2 (2000), 439-494 or.
- FRANCO PÉREZ, Francisco Javier; ETXEZARRAGA ORTUONDO, Iosu, eta ALBERDI LONBIDE, Xabier, Los orígenes de la tecnología del hierro en el País Vasco: las ferrerías de monte o haizeolak, *Kobie. Serie Paleoantropología*, 34 (2015), 267-282 or.
- GARCÍA CAMINO, Iñaki, Origen y consolidación de la sociedad feudal en el País Vasco (siglos IX-XII). BARRUSO BARÉS, Pedro eta LEMA PUEYO, José Ángel (koord.), *Historia del País Vasco. Edad Media (siglos V-XV)-en*, Donostia: Hiria Liburuak, 2004, 247-277 or.

GARCÍA DE CORTÁZAR, José Ángel, La sociedad guipuzcoana antes del fuero de San Sebastián. DÍAZ DE DURANA, José Ramón (ed.), *Investigaciones sobre historia medieval del País Vasco (1965-2005)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005, 281-312 or.

-Una villa mercantil: 1180-1516. ARTOLA GALLEGO, Miguel (ed.), *Historia de Donostia-San Sebastián-en*, Donostia: Editorial Nerea, 2000, 13-86 or.

GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto, Sociedad, poblamiento y poder en las fronteras de Navarra con Castilla en el Edad Media: las pueblas de Burunda y Araquil, *Anuario de Estudios Medievales*, 21 (1991), 41-69 or.

GONZÁLEZ GONZÁLEZ, Julio, *El reino de Castilla en época de Alfonso VIII*, t. II, Madril: CSIC, 1960.

GOÑI GAZTAMBIDE, José, *Colección diplomática de la catedral de Pamplona. Tomo I (829-1243)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1997.

Historia Compostelana, Falque Rey, Emma (editore eta itzultzailea), Los Berrocales del Jarama (Madril): Akal, 1994.

IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Alex (koord.), *Santa María la Real de Zarautz (País Vasco), continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a.C. y XV d.C.*, *Munibe*, 27-Gehigarria (2011).

JIMENO ARANGUREN, Roldán, eta PESCADOR MEDRANO, Aitor, *Colección documental de Sancho Garcés III, el Mayor, rey de Pamplona (1004-1035)*, Iruñea: Nabarralde - Pamiela, 2003.

JIMENO JURÍO, José María, *El Libro Rubro de Iranzu*, Iruñea: Editorial Aranzadi, 1970.

LACARRA DE MIGUEL, José María, *Historia política del reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla. I y II*, Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1972.

LACARRA DE MIGUEL, José María eta MARTÍN DUQUE, Ángel Juan, *Fueros de Navarra. Fueros derivados de Jaca I. Estella-San Sebastián*; Pamplona: Institución Príncipe de Viana, 1969, 28-31 or.

LARREA CONDE, J. J., *La Navarre du IV au XII siècle. Peuplement et société*, Paris - Bruxelles, De Boeck Université, 1998.

-La herencia vasca: acción política y arquitectura social en Vizcaya y Álava antes de su incorporación al reino de Alfonso VI. *Alfonso VI y su época I: los precedentes del reinado (966-1065)*, *Sahagún, León, 4 a 7 de septiembre de 2006* Ianean, León: Leongo Unibertsitatea, 2007, 69-119 or.

LEMA PUEYO, José Ángel, Los orígenes medievales de San Sebastián: la época anterior al fuero de Sancho el Sabio. GÓMEZ PIÑEIRO, Francisco Javier,

- eta SÁEZ GARCÍA, Juan Antonio (koord.), *Geografía e Historia de Donostia -San Sebastián-*en, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1999, 56-60 or.
- De Ipuzkoa a la Hermandad de villas de Gipuzkoa (ss. VI-XV). ARAGÓN RUANO, Álvaro eta ECHEBERRIA AYLLÓN, Iñaki (koord.), *Síntesis de la Historia de Gipuzkoa*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2017, 145-211 or.
- MAÑARICUA Y NUERE, Andrés E. de, Obispos de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta fines del siglo XI. *Obispos de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la diócesis de Vitoria* lanean, Gasteiz: Seminario Diocesano, 1964.
- MARTÍN DUQUE, Ángel Juan, El fuero de San Sebastián: tradición, manuscritos y edición crítica. *Congreso: el fuero de San Sebastián y su época (San Sebastián 19-23 de enero de 1981) / Donostiako forua eta bere garaia (Donostia, 1981eko urtarrilaren 19tik 23ra)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 3-25 or.
- Sancho VI de Navarra y el fuero de Vitoria. ARÓSTEGUI, P. (koord.), *Vitoria en la Edad Media*, Vitoria-Gasteiz, Gasteizko Udala, 1982, 283-295 or.
- Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia - Vianako Printzea Institutioa, 1983.
- MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo: *Álava medieval. I*, Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, 1974.
- Guipúzcoa en los albores de su historia*, Donostia: Diputación Provincial de Guipúzcoa, 1975.
- ORELLA UNZUÉ, José Luis, Estudio jurídico comparativo de los fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño. *Congreso: el fuero de San Sebastián y su época (San Sebastián 19-23 de enero de 1981) / Donostiako forua eta bere garaia (Donostia, 1981eko urtarrilaren 19tik 23ra)* lanean, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 255-300 or.
- Nacimiento de Guipúzcoa como tenencia navarra de frontera, *Lurralde: investigación y espacio*, 34 (2011), 189-217 or.
- PESCADOR MEDRANO, Aitor, Tenentes y tenencias del reino de Pamplona en Álava, Vizcaya, Guipúzcoa, La Rioja y Castilla (1004-1076), *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 29 (1999), 107-144 or.
- PETERSON, David, Primeras menciones a Guipúzcoa, *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta*, 97 (2004), 597-608 or.
- RUIZ ALBI, Irene, *La reina doña Urraca (1109-1126). Cancillería y colección diplomática*, León: Centro de Estudio e Investigación San Isidoro, 2003.
- SARASOLA ETXEGOIEN, Nerea, El poblamiento medieval de Gipuzkoa: revisión crítica del registro arqueológico, *Munibe (Antropología-Arkeologia)*, 61 (2010), 339-393 or.

SARASOLA ETXEGOIEN, Nerea eta MORAZA BAREA, Alfredo, *Arqueología medieval en Gipuzkoa*, Donostia / San Sebastián: Gipuzkoako Foru Al-
dunia, 2011.

TENA GARCÍA, Soledad, *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medie-
val: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Donostia: Instituto
Doctor Camino de Historia Donostiarra, 1997.

Lizarrako lurraldearen antolamendua eta Lizarraren sorrera

Javier ILUNDAIN CHAMARRO
Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea

Aurkibidea

I. SARRERA. II. DEIOKO LURRALDEA. 1. Lizarrarako herrixka eta tenentzia. 2. Lizarraren sorrera. III. ONDORIOAK. IV. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

1990. urtean Martín Duquek¹ 1076. urtera aurreratu zuenetik Nafarroako lehen burguaren sorrera, ahalegin asko egin izan dira Lizarraren jatorrian sakontzeko, haren estatutu juridikoa, herriaren forma eta biztanleen profil sozio-linguistikoa zeintzuk izan ziren argitzearren. Zentzu horretan, proposamen interesgarrienak zuzenbidearen historiari², elizaren historiari³, linguistikari⁴ (onomastikaren arloan bereziki⁵) eta arkeologiari esker sortu dira⁶.

¹ MARTÍN DUQUE, Á. J., La fundación del primer burgo navarro: Estella, *Príncipe de Viana*, 190 (1990), 317-328 or.

² BARRERO GARCÍA, A.M., La difusión del Fuero de Jaca en el Camino de Santiago. *El fuero de Jaca: estudios*, Zaragoza: El Justicia de Aragón, 2004, 111-160 or.; PAVÓN BENITO, J., Fuero de Jaca y Fuero de Estella. Observaciones críticas. *XV Congreso de Historia de la Corona de Aragón. Jaca en la Corona de Aragón (siglos XII-XVIII)*, 3. liburukia, Zaragoza: Aragoiko Gobernu, 1993, 341-355 or.

³ GOÑI GAZTAMBIDE, J., *Historia eclesiástica de Estella* (II. eta II. liburukiak), Iruñea: Nafarroako Gobernu, 1990-1994; JIMENO ARANGUREN, R., *Terras a suis reperitur semper esse possessas: la Iglesia en Tierra Estella en la Edad Media*, Iruñea: Lamiñarra, 2007.

⁴ GONZÁLEZ OLLÉ, F., Etimología del topónimo Estella, *Príncipe de Viana*, 190 (1990), 329-344 or.; CIÉRBIDE, R., La lengua de los francos de Estella, *Sancho el Sabio: Euskal kultura eta ikerketa aldizkaria*, 3 (1993), 115-148 or.

⁵ CIÉRBIDE, R., En torno a las denominaciones de la ciudad de Estella, *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 51 (1988), 53-58 or.; CIÉRBIDE, R., Onomástica personal de los francos de Estella (1090-1222), *Actas de las III Jornadas de Onomástica Estella*, 2008, 165-186 or.; JIMENO JURÍO, J. M^a, Estella/Lizarra. Toponimia, *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, 77 (1998), 133-164 or.; JIMENO JURÍO, J. M^a, Toponimia rural y urbana de Estella. *Actas de las III Jornadas de Onomástica Estella*, 2008, 25-41 or.

Egia esan, oso testu gutxi ditugu foruak eman aurretik Lizarra nolakoa zen eta hasieran zein forma izan zuen jakin ahal izateko. 1100. urtea baino lehenagoko berrogei bat dokumentu baino ez ditugu aurkitu horri buruzko informazioarekin. Gabezia horretaz gain, arazo gehiago ere badira: zenbait dokumenturen zalantzazko fidagarritasuna, faltsuak direlako, interpolatuta daudelako edo beranduko kopia akastunak direlako; edo dokumentu gehienetan agertzen den informazio bakarria toponimo baten aipamena izatea.

Lan honen helburua, beraz, zera da, Lizarraren sorreraren gertakari historikoari eta hasieran izan zuen antolamenduari buruzko panorama ahalik eta osatuena eskaintzea; horretarako, egin diren azken ikerketak bildu eta zenbait iturri berriro irakurri ditugu ikerketa horiek aintzat hartuta.

II. DEIOKO LURRALDEA

Iruñeko erresuma sortu zenetik, Deioiko lurraldea erresumaren barruan sartzen zen oso-osorik⁷, edo, hobeto esanda, erresuma osatzen zuten piezetako bat zen⁸. Bai kroniketan, bai dokumentazioan, Iruñetik argi eta garbi bereizita agertzen da. Halaxe ikus daiteke *Alfontso III.aren kronikan*⁹ eta *Albeldako Kronikan*¹⁰, Antso I.aren agindupeko lurrak aipatzen direnean. 928. urtean, haren seme Gartztea errege zen *in Pampilona et in Deiu*¹¹. Berriro ere 958. urtean, Gartztea I.aren lurretan, Orti Garindoitz (Fortún Galíndez) zen Naiarako agintari¹² eta Toda erregina, aldiz, Deion¹³.

Ez da erraza bereizketa horren oinarria zein den hautematea. Baliteke lurraldearen nortasun bereziagatik izatea, beste lurralde batzuekin alderatuta, edo, agian, nolabaiteko antolamendu eta izaera politikoa zuelako erresumara atxiki

⁶ LEGARDA SEMBROIZ, J. M., Estructuras defensivas en la ciudad de Estella. Resultados arqueológicos, *Trabajos de Arqueología Navarra*, 22 (2010), 163-193 or.; RAMOS AGUIRRE, M., Intervenciones arqueológicas en el castillo de Estella (2001-2010), *Trabajos de Arqueología Navarra*, 27 (2015), 185-218 or.

⁷ GIL FERNÁNDEZ, J. (arg.), Moralejo, J. M. (itz.) eta RUIZ DE LA PEÑA, J. I. (azter.), *Crónicas Asturianas*, Oviedo: Oviedoko Unibertsitatea, 1985. Albelda XX.

⁸ Lacarrak ere aipatu zuen ideia hori: LACARRA, J. M^o, *Historia del Reino de Navarra en la Edad Media*, Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1975, 89. or.

⁹ GIL FERNÁNDEZ, J. (arg.), *Crónicas Asturianas...*, *op. cit.* Alfonso III 14, 4.

¹⁰ *Ibíd.* Albelda XV y XX.

¹¹ UBIETO ARTETA, A., *Cartulario de San Juan de la Peña*, Valentzia: Anubar, 1962, 14. zk.

¹² Adierazgarria da garai hartarako, antza, Naiara Deio baino garrantzitsuagoa zela jada; izan ere, Deioen balio estrategiko-militarra bigarren mailara igaro zen Ebro ibaiaren bailarako zabalkundearen ondoren.

¹³ GIL FERNÁNDEZ, J. (arg.), *Crónicas Asturianas...*, *op. cit.* Albelda 24.

aurretik, edo mugako marka gisa. Bereizketa horrek denboran iraun izanak zera adieraz lezake, Iruñeko monarkian txertatu zenean bloke modura sartu zela, edo militarki, edo diplomaziaren bidetik. Antzeko kasuan zeuden Aragoi, ezkontza -aliantzaren bitartez txertatua; Araba, jauntxoen basailutza bidez, edota Naiara, konkistaren bitartez eskuratua¹⁴; lurralde horiek guztiek beren banakako izaerari eutsi zioten «regnante-klausulak» deitzen bidez. XI. mendean, bereizketa lausotu egin zela dirudi, baina, nola edo hala, Lizarrak jaso zuen oinordetzan eta izen horren pean lurralde-entitate berezituaren kontzeptua sortu zen XII. mendean, ikusiko dugun bezala.

Berrotzarekin batera, erresumak Islamari aurre egiteko lehen gotorleku bihurtu zen Deio, mendebaldeko mugan¹⁵. IX. mendean, artean musulmanen hainbat erasoaldi jasan zituen¹⁶. Semeno -Jimeno, gaztelaniaz- leinua iritsi zenean, guneak garrantzi handia lortu zuen defentsa-muga moduan eta Iruñeko erasoaldien abiapuntu gisa. Deioaren balio sinboliko eta estrategikoaren adierazgarri izango lirateke Antso I.aren ustezko hilobia Done Ezteben (Monjardín) egotea¹⁷ eta, bereziki, inguru guztian barreiatuta dauden gotorlekuak -handiagoak edo txikiagoak-. Izan ere, Kantabriako mendilerroaren eta Jurramendiren arteko mendi-ertzak defentsa-lerro baten bitartez babestu zituzten (Marañón, Punicastro, Desoio, Sorlada, San Esteban, Arroitz, Allo), eta hor oinarritzen zen tenentzia sistema itxi bat,¹⁸ XII. mendera arte iraun zuena, hein batean¹⁹. Lehen babes murru horren atzean bigarren lerro bat zegoen, atzeguardia modura, eta lerro horretan zegoen Lizarrarako gaztelua.

Badirudi Deio, Berrotza bezalaxe, gehiago zela lurralde-mugarte bat, eta ez gotorleku zehatz eta jakin bat. *Albeldako Kronikaren* arabera, musulmanek Deio arpilatu zuten baina ez zuten lortu ez herririk, ez gaztelurik menpean hartzea²⁰. Horregatik aurki daitezke, ziurrenik, izen horretatik eratorritako toponimoak esparru geografiko nahiko zabal batean: Deikaztelu (Deio Gaztelu)²¹,

¹⁴ MARTÍN DUQUE, A. J., Navarra en la Alta Edad Media (711-1234), *Nueva Historia de Navarra*, Francisco Javier Navarra (arg.), Barañain: EUNSA, 2010, 119-155 or.

¹⁵ GIL FERNÁNDEZ, J. (arg.), *Crónicas Asturianas...*, op. cit. Rot. Seb. 14, 4. *Ibid.* Albelda XV.

¹⁶ ESTÉVEZ SOLA, J. A., *Crónica Najerense*, Madril Akal, 2003, II 23. *Ibid.* Albelda XX.

¹⁷ *Ibid.* Albelda XV. ESTÉVEZ SOLA, J. A., *Crónica Najerense*, Madrid: Akal, 2003, II 23.

¹⁸ CAÑADA JUSTE, A., Honores y tenencias en la monarquía pamplonesa del siglo X. Precedentes de una institución, *Príncipe de Viana*, 2. eranskina (1986), 69. eta 74. or.

¹⁹ LEMA PUEYO, J. Á., Las tenencias navarras de Alfonso I «el Batallador», *Príncipe de Viana*, 8. eranskina (1988), 63-68 or.

²⁰ GIL FERNÁNDEZ, J. (arg.), *Crónicas Asturianas...*, op. cit. Albelda XV.

²¹ LACARRA, J. M^a, *Colección diplomática de Irache*, Zaragoza: Instituto de Estudios Pirenaicos, 1965, 9. zk. (aurrerantzean *Col. Irache*).

Deioko Done Eztebe²², Deioko San Andres²³ edo Deierrri (*Deio - herri*)²⁴. Alabaina, XI. mendean izen hori gotorleku garrantzitsuenetakoko bati estu loturik geratu zen: Done Eztebekoari, alegia.

Naiara konkistatu (923) eta Calahorra behin betiko hartu (1045) ostean, tenentzia horietako batzuen erantzukizun militarra arindu egin zen, muga-eremu izatetik barnealdera igaro baitziren. Zenbait desagertu egin ziren eta, beste hainbat kasutan, tenenteen eginkizun nagusia lurraldea administratzea izango zen handik aurrera²⁵. Egiteko berri horren barruan, lehentasun nagusietakoak ziren erregeak eremuan zuen ondarea kudeatzea eta lurraldea jendeztatzea eta kolonizatzea. Done Ezteberen kasuan, garai batean erresumako gaztelu intsignia izan zena, lehenik Iratxe monasterioaren esku egon zen (1045)²⁶ eta 1081. urtean monje frantsesen komunitate bat finkatu zen bertan²⁷. Lizarrara, alabaina, eremuko tenentzia garrantzitsuenetakoa bihurtu zen.

Lizarrarak kokapen estrategikoa zuen²⁸ eta X. eta XI. mendeetan funtsezko eginkizuna izan zuen kokapen horri esker. Ega ibaiak ureztatutako eta mendixkaz eta harkaitzez inguratutako lautada txiki hartan, Deierrri, Ameskoa, Gesalatz, Doneztebe Iguzkitza eta Egaibar bailarek bat egiten dute eta, gainera, mendialdearen eta Ebro bailararen arteko kontaktu-puntuetakoko bat ere bada. Gaztelu zaharra²⁹ ibaiak inguratutako harkaitz baten gainean zegoenez, ibaier-tzetako joan-etorriak ez ezik, ibaia nork zeharkatzen zuen ere kontrola zezaketen. Ibaiaren beste aldean zegoen herrigunea (Lizarrako San Pedro elizaren inguruan), eta herritarrak baratze eta errotei esker hornitzen ziren –XI. mendetik dokumentuetan jasota dago horren berri–. Eremu militarren eta produkzio-eremuaren arteko konexioa zubi baten edo batzuen bidez egingo zen. Zangozan

²² MARTÍN DUQUE, A. J., *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Iruña: Vianako Printzea Erakundea, 1983, 62. zk. (aurrerantzean: *Doc. Leire*).

²³ UBIETO ARTETA, A., *Cartuario de Albelda*, Valentzia: Anubar, 1960, 47. zk. (aurrerantzean: *Cart. Albelda*).

²⁴ MORET, J. de, *Anales del Reino de Navarra* T. I, Tolosa: Eusebio Lópezen argitaletxea, 1890, 130-131 or.

²⁵ Beste zenbaitek, hala nola Marañón, Punicastro eta, beste zentzu batean, Lizarrarak, garrantzia berreskuratu zuten Antso IV.a 1076. urtean hil eta erresuma zatitu ostean. SANTAMARÍA, R., La muerte de un rey. Repercusiones territoriales del asesinato de Sancho IV Garcés (1076) en el área navarro-riojana, *Príncipe de Viana*, 253 (2011), 249-262 or. *Col. Irache*, 8 eta 64.

²⁶ *Col. Irache*, 8.

²⁷ *Col. Irache*, 64.

²⁸ FLORISTÁN SAMANES, A., De Lizarra a Estella una reflexión geográfica, *Príncipe de Viana*, 190 (1990), 307-316 or.

²⁹ RAMOS AGIRRE, M., Intervenciones arqueológicas..., *op. cit.* 185-218 or.

edo Garesen bezalaxe³⁰, zubia elementu erabakigarria izango zen Lizarraren loraldia gerta zedin. Puntu zehatz batean kokaturik, gaztelu baten babes-kontrolpean, lehen aipatu ditugun bailarak konektatzen zituzten bideek bat egiten zuten bertan eta, beraz, merkataritzako hartu-emanetarako kokaleku oso egokia zen, baita, merkataria eta eskulangileak bertan finkatzeko ere. Lizarrarak herrigune gisa lortu zuen hazkundera eta arrakasta erabaki politiko baten ondorio izan ziren, ikusiko dugunez, baina erabaki horien oinarrian baldintza geografiko eta giza baldintza oso egokiak zeuden. Donejakue bidearen garapenak ere indartu eta ospea eman zion³¹.

Lizarraren sortutako tenentzia, beraz, herria garatzeko lehen urratsa izan zen, eta gaztelu bat eta handikiak izateak ere –zenbait kasutan errege-familia-ko kideak– bultzada eman zion. Herrigunearen kokapen estrategikoa ere mesedegarri izan zitekeen tenentziarentzat, lurraldearen gobernuari eta kontrolari zegokienez. Deio lurraldean, Done Ezteberekina batera, Lizarrara zen *honor* garrantzitsuena. Zalantzarik gabe, Done Eztebe gazteluak postu enblematikoa zuen, bere balio militarra zela eta. Hala ere, Toda erreginak bere semearen izenean Deio gobernatzen zuenean, Lizarratik egiten zuen³²; hortaz, lurraldeburu ez bazen ere, erreferentziako herriguneetako bat behintzat bazen.

1. Lizarrarako herrixka eta tenentzia

Ez dakigu gauza askorik Lizarrarako lehenengo herriguneari buruz. Lizarrako San Pedro eliza gotikoa, ustez, lehendik zegoen beste tenplu baten gainean eraiki zen; tenplu hori hiribilduko lehenengo parroquia izan bide zen. Behe Erdi Aroan, Iruñeko apezpikuaren mende zegoen Lizarrako eliza bakarra zen³³; izan ere, lehenagokoa baitzen XI. eta XII. mendeetan, dohaintza bidez, San Juan de la Peña, Montearagon edo Iratxeko monasterioaren jurisdikziopean jarri zituzten gainerako tenpluak baino.

Errege-herriko jaurerria garrantzitsua izango zen eremuan; tenentziaren oinarritzat hartuko zen hasieran eta, gerora, foru-emakidetan Lizarrari esleitu

³⁰ Foru-emakidetan bi herriek bereizgarri bat zuten, hau da, zubia izatea: *illo borgo novo prope illo ponte* (LACARRA, J. M^a, eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra. I.1. Fueros derivados de Jaca. Estella-San Sebastián*, Iruñea: Vianako Printzea Erakundea, 1969, 4. zk.) eta *illo ponte de Arga* (LEMA PUEYO, J. Á., *Colección diplomática de Alfonso I de Aragón y Pamplona (1104-1134)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990, 113. zk.).

³¹ VÁZQUEZ DE PARGA, L., LACARRA, J. M^a, URÍA RÍU, J., *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1998, 465-497 or.

³² *Et regina Tota donna in Deio in Lizarrara* (*Cart. Albelda*, 24).

³³ JIMENO ARANGUREN, R., *Terras a suis reperitur...*, *op. cit.* 2007, 80. or.

zitzaion kontzeju-mugarterearen oinarritzat. Alabaina, badirudi nobleen familia asko zirela Lizarraran finkatuta zeudenak edo jabetzak zituztenak. 1024. urtean, Antso eta Andregoto Garindoitz anai-arrebek Lizarraran eta Urtadian zituzten jauregi, mahasti, baratze eta gainerako ondasunak Iratxeko monasterioari eman zizkioten³⁴. Hiribildu horretakoak ziren, halaber, Antso Gartzez Lizarrarakoa³⁵, Antsa Lizarrarakoa³⁶ eta Semero Ortiz Lizarrarakoa³⁷, lekuko gisa aipatzen direnak, hurrenez hurren, 1045., 1098. eta 1120. urteetan. Horiek guztiek *senior* edo *domna* tituluak erabili izanak handizurenak zirela adierazten du, argi eta garbi³⁸. XII. mendean, abizen toponimiko bera erabili zuten beste pertsonaia batzuk ere agertu dira dokumentuetan: García Velázquez Lizarrarakoa³⁹, Pedro Sánchez Lizarrarakoa⁴⁰, García Lizarceco eta haren seme Fortun⁴¹. Onomastika horrek zalantzarik gabe adierazten du tokiko herritarrak zirela⁴².

Lizarrarako tenenteak, halaber, Iruñeko aristokraziako kide izan ziren. Toda⁴³ erreginaren ondoren, Semero Ogaoiz agertzen da dokumentuetan 1024an⁴⁴ eta, 1047tik 1084ra bitarte, Semero Gartzez. Azken hori Gartzea III. aren⁴⁵ erreinalditik Estefania⁴⁶ erreginaren testamentuko onuraduntzat dokumentatuta dagoen gizon batekin identifika daiteke; Antso IV.aren alferez-kargua bete zuen 1060-1064 aldian⁴⁷. Tenente hau oso maiz aipatzen da eta maiztasun horrek

³⁴ *Col. Irache*, 3. Lortutako informazioak egiazkoa dirudien arren, dokumentua, ziurrenik, manipulatua izan zen Iratxeko kartularioan sartu zutenean.

³⁵ *Ibid.*, 8.

³⁶ *Ibid.*, 73.

³⁷ *Ibid.*, 103.

³⁸ Gerora, «don» eta «doña» deitzaileak herritar frankoen artean ere erabiltzen hasi ziren. ILUNDAIN CHAMARRO, J., *Los buenos hombres de Olite (siglos XII-XIV). Sociedad, poder y élites urbanas*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2017, 250. or. eta hurrengoak.

³⁹ *Col. Irache*, 125.

⁴⁰ *Ibid.*, 144.

⁴¹ GOÑI GAZTAMBIDE, J., *Colección diplomática de la Catedral de Pamplona*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 1997, 255. zk.

⁴² Mendebaldeko Pirinioetako izen tradizionalak eta horien aldaerak ziren nagusi: Antso, Gartzea, Orti, Velasco, Andregoto (GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., Antroponimia en Navarra y Rioja en los siglos X a XII, *Estudios de Historia Medieval de La Rioja*, Logroño: Errioxako Unibertsitatea, 2009, 199-200 or.).

⁴³ *Cart. Albelda*, 24.

⁴⁴ *Col. Irache*, 3.

⁴⁵ CANTERA MONTENEGRO, M., *Colección documental de Santa María la Real de Nájera. Tomo I (siglos X-XIV)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991, 8. zk. Arriskatua da Ramiro Aragoikoaren haurtzainarekin (*nutrix*) identifikatzea, arrazoi kronologikoak direla eta.

⁴⁶ CANTERA MONTENEGRO, M., *Colección Documental...*, *op. cit.* 18. zk.

⁴⁷ Iruñeko garai hartako noblezian homonimia hain ohikoa zenez, benetan zaila da segurtasunez berrestea. *Cart. Albelda*, 42 eta 47, *Col. Irache*, 24, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34 eta 35, *Doc. Leire*, 68 eta

kontraste bizia egiten du garai hartako beste jauntxo batzuen presentziarekin eta, bereziki, postuan haren aurretik egon zirenekin; agian, tenentziak antzina-ko Deioiko lurraldean gero eta garrantzi handiagoa zuela adieraz lezake horrek. Hipotesi horiek berretsiko balira, XI. mendearen bigarren erdiko pertsona garrantzitsuenetako bat izango litzateke. 1076. urtean Antso IV.a zendu ostean, badirudi Semero Gartzez Antso Ramirezen alde kokatu zela berehala. Egia esan, Lizarrarako tenentziaren kontrola funtsezkoa izango zen une hartan, erresumaren mendebaldeko zatia bermatzeko eta bizilagun gaztelar berriaren balizko saraldi bat geldiarazteko; izan ere, 1076ko errege-hilketaren ondoren, Errioxa eta Araba Gaztelaren mende baitzeuden. Aragoiko erregearekiko leialtasuna saritu egin zion errege berriak, eta tenentzia berriak esleitu zizkion bai Semerori eta bai haren familiari. 1079an eta 1080a, Semero Gartzez izan zen Lizarrarako tenentea, eta Zaraitzukoa ere bai harrezkero; eta are adierazgarriagoa, ordura arte ezezagunak ziren haren anaiek –Antso, Lope eta Iñigo– Etxauriko, Agoizko, Nagoreko, Nabaskozeko eta Zangozako tenentzien agintea jaso zuten⁴⁸.

Tenentzia Semero Gartzezen gobernupean egoteari dagokionez, XI. mendearen erdialdean erresuma Errioxara zabaltzearekin, lurralde-administratzaile eginkizuna areagotu egin zitzaioela esan dezakegu, betiere erregearen ordezkari gisa⁴⁹. Haren betekizun militarrek ere jardunean jarraitu zuten, gazteluko titular zen aldetik. Alabaina, jarduera askoz zabalagoetan jardun zuela egiaztatu dugu. Ez dago arrastorik justiziaren jarduketa eskuordetuari dagokionez, eta errege-ondarearen kudeaketa egiaztatua gaztelua menderatzera mugatzen zen. Dena den, adierazgarria da Lizarrara ingurunean jazotako gertaera garrantzitsuenetan presente egotea, ziurrenik haren tutoretzapean egongo baitzen. Horrela, bada, Iratxeko monasterioaren aldeko dohaintza ugaritan lekukotzat eta berresleztat agertzen da⁵⁰, askotan errege-boterearen ordezkari bakarra eta ezinbesteko erreferentea inguruko biztanleentzat eta botereentzat. 1063. urtean Antso IV.ak Deioiko San Andres monasterioa Naiarako Gomesano apezpikuari eman zionean, tokiko tenenteak aurrean zirela, han zegoen, besteak beste, Semero Gartzez⁵¹.

70. RODRÍGUEZ DE LAMA, I., *Colección diplomática medieval de la Rioja (923-1225)*, Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 1976-1979, 21. zk., GOÑI GAZTAMBIDE, J., *Colección diplomática...*, *op. cit.* 19. zk. *Doc. Leire*, 106 eta 107.

⁴⁸ *Dok. Leire* 106 eta 107.

⁴⁹ LEMA PUEYO, J.Á., *Instituciones políticas del reinado de Alfonso I el Batallador, rey de Aragón y Pamplona. 1104-1134*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1997, 172-175 or. *Col. Irache*, 16, 25, 28, 29, 30, 31, 33, 36, 49, 55, 64. *Cart. Albelda*, 47.

⁵⁰ *Col. Irache*, 16, 25, 28, 29, 30, 31, 33, 36, 49, 55 eta 64.

⁵¹ *Cart. Albelda*, 47.

Nolanahi ere, ikerketa honi dagokionez, guri gehien interesatzen zaiguna lurraldea birpopulatzeko egin zuen lana da. Horixe zen tenenteen eginkizun tradizionala bat, nahiz eta ez diren horren lekukotza askorik gordetzen. Izan ere, herrigune baten fundazioan edo foru bat emateko ekitaldian protagonista erregea izatea zen ohikoa, erregeak soilik zuelako ahalmen hori. Hala ere, zenbait albiteren arabera, ekimen horien benetako sustatzailea eskualdean nagusi zen tenentea izaten zela uler daiteke⁵². Horixe gertatu zen San Anacleto izenaz ezagutzen zen herrixkaren kasuan. 1065. urtean Gomesanak, Calahorrako eta Naiarako apezpikuak, Gartzea III.a erregeak emandako legeak berretsi zizkien San Anacletoko biztanleei, eta San Martin Albeldakoaren mende jarri zituen⁵³. Dokumentuak berak dio, gainera, herrigunea Gartzea erregeak jendeztatu zuela lehenik, eta gero Semero Gartzezek, Lizarrarako tenenteak. Azken horrek, ziu-rrenik, Antso IV.aren agintepean, errege horrek ere hainbat esleipen egin zituela uste baita. Artean Semero Gartzezen tenentziarean zegoela, jabetza berretsi eta eskualdatu zen. Ez dakigu San Anacleto non kokatzen zen, baina erreferentzia geografikoetan Lizarrarako tenentzia aipatzen da –haren tutoretzapean zegoen–, baita ondoko herri eta gazteluen izenak ere, diplomako lekukoak handik etorritakoak zirelako (Done Eztebe, Arroitz, Arellano, Deikaztelu eta *Chegen*⁵⁴); beraz, Jurramendiko hegaletan kokatuta egon zitekeen. Gerora ez da herrigune horren erreferentziarik aurkitu, eta izena ere ez dago dokumentuetan jasota, ez Nafarroan, ezta inguruko probintzietan ere; hortaz, Albeldako kartularioaren egileak kopiatzean akatsen bat eginen zuela pentsa daiteke.

Edonola ere, esanguratsua da Semero Gartzezek aktiboki parte hartu izana bere tenentziarean herrigune bat sortu eta izaera juridikoa emateko prozesuan; gero Lizarran gertatu zenaren aurrekaria izan zen, argi eta garbi.

2. Lizarraren sorrera

Dokumentu edo epigraferen batean aurkikuntza berririk egin ezean, ezinezkoa da zehatz-mehatz finkatzea Lizarra noiz sortu zen. Lehen esan dugunez, herrigune bat eta, bereziki, zubi bat eta tenentzia bat egoteak jendea bertan kokatzea sustatu zuten XI. mendean. Horri gehitu behar zaio Semero Gartzezen tenenteak birpopulatzeko jardueran parte hartu zuela, frogatuta dagoen bezala,

⁵² Kasu paradigmaticoetako bat 1147. urtean gertatu zen, Gartzea Ramirezek Lizarrako forua Olibeteo herritarrei eman zienean (Olibeteo Udal Artxiboa, 1. dok.). Argi eta garbi adierazten da Uxueko tenente Ramiro Gartzezen izan zela erregeari forua ematea eskatu ziona.

⁵³ *Cart. Albelda*, 49.

⁵⁴ Herria ez da identifikatu, agian, irakurketa-akats baten ondorioz. Aiegi izan daiteke, edota Deio izenaren eratorri edo aldaeraren bat.

eta lagungarri izan zitekeela hori herrigunearen mesedetan. 1076. urtean⁵⁵ Iratxe monasterioak San Juan de la Peña monasterioari orube bat eman ziola jasotzen duen dokumentuan egitura protourbano bat finkatua zegoela aipatzen da: Lizarrarako gaztelupeko burgua; etxeak eta errotak zeuden jada, eta erakitzen jarraitzeko aurreikuspenak zituzten. Burgu izenak berak harresi bat zegoela adieraz dezake eta, agian, izaera juridiko-administratiboren bat ere bai. 1077an⁵⁶, Semero Gartzezen mendeko zen Lope Arnaldok Estellako merio titulua eman zion bere buruari. Herriaren izen berriaren lehen erreferentzia izan zen hori eta, ikusiko dugunez, 1084. urtean ezarriko zen, Lope Arnaldo tenente bihurtu zelarik⁵⁷. 1086. urtean⁵⁸ Antso Ramirezek Funeseko Santiago elizari eman zizkion Lizarran bere jabetzakoak ziren ondasunen eta juduen errentetatik Koroari zegozkionak, baita gazteluko eliza eta atxikitako onibarrak ere. 1093. urtean, errenta horiek Montearagoneko monasterioaren eskuetara igaro ziren⁵⁹. XI. mendearen amaieran, Lizarrako komunitate hebrearra nahiko handia zen, antza denez; ordaindu behar zituzten zergak dohaintzan emateko adinakoak baldin baziren. Bi dokumentu horiek bereziki interesgarriak dira, *Lizarrariela* izeneko beste herri bat aipatzen dutelako; hor ere juduak bizi ziren. Toponimo hori ez da seguratasunez identifikatu oraindik. Hala ere, Lizarrara izenaren eratorria izan daiteke, erromantzearen atzizki txikigarri bat erantsita. Horrek esan nahiko luke, agian, «Lizarrara txikia» zela, errege-herri zaharrari atxikitako auzo bat. XI. mendearen amaieran hebrearrak bazirela dokumentuetan jasota egoiteak esan nahi du herrigune hori garrantzitsua zela, edo erakargarria komunitate horrentzat. Harrigarria da ezaugarri horiek zituen herri bat arrastorik utzi gabe desagertzea dokumentuetatik; horrenbestez, antzekotasun toponimikoa ikusita, etorkizuneko Lizarraren aurrekaria izan litekeela pentsa dezakegu. *Lizarrariela* bizirik zegoen, artean, XI. mendearen amaieran, edo bai, behintzat, haren populatzearen eta atxikitako errenten memoria, baina haren nortasuna eta herritarrak Lizarraren itzalpean geratu ziren.

San Juan de la Peñako kronikan jasotzen zenez (XIV. mendean idatzi zen), Lizarra-Estella 1090. urtean jendeztatu zen⁶⁰, Antso Ramirezen ekimenez. Izan ere, urte berean erregeak Lizarrara izenez ezagutzen zen hiribilduan herri berri bat egiteko interesa zuela adierazi zuen, Donejakue bidea desbideratu eta herri

⁵⁵ MARTÍN DUQUE, Á. J., La fundación..., *op. cit.* 765-767 or. *Col. Irache*, 58.

⁵⁶ Artxibo Historiko Nazionala CLERO-SECULAR_REGULAR, Car. 701, 21. zk.

⁵⁷ *Doc. Leire*, 113.

⁵⁸ BARRIOS MARTÍNEZ, M^a D., *Documentos de Montearagón: 1058-1205*, Huesca: Asociación de Amigos del Castillo de Montearagón, 2004, 3. zk.

⁵⁹ *Ibid.*, 6. zk.

⁶⁰ LACARRA, J. M^a eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra. I.1.*, *op. cit.* 1.

horretatik igarotzeko. Baina kontua da San Juan de la Peñako monjeek herrigune franko bat (zergarik gabea) sortzeko asmoa zutela Zarapuz-en, Lizarrararik 4 km eskasera. Bi herrien artean lehia sortzeko arriskua ikusita, eta Lizarrarako plaza hobeto babestuta zegoela iritzita, Antso Ramirezek aurrea hartu zien monjeei. Eta monjeek erregearen aurkako zurrumurrurik sor ez zezaten, hiribildu berriaren errenta guztien hamarren bat eman zien, baita bertan eraikitzen ziren eliza guztiak ere. Azken dohaintza hori Iruñeko apezpikuak berretsi zuen 1092an⁶¹, eta, berriro ere, Lizarrara toponimoa aipatzen da berariaz, Estellari buruzko inongo aipamenik egin gabe.

Antso Ramirezen diplomako hainbat elementu harrigarriak dira. Alde batetik, *castrum et populationem de francos* bat eraikitzeko asmoa zuela aipatzea; izan ere, Lizarrara nukleo anitzeko errealitate⁶² baitzen jada eta gaztelu bat ere bai baitzuen. Egia esateko, gaztelua eta gazteluaz arduratzen zen tenente bat hor egotea izan ziren, teoriarik behintzat, Zarapuz baztertu eta Lizarrararen alde egitearen arrazoiak. Bestetik, Lizarrara izena aipatzen da beti, eta jada ezaguna zen Estella erabat baztertzeko da. Kontuan izan behar da 1084. urtetik tenentziaren izena aldatu eta Estella jarri ziotela; beraz, Lizarrara izena erabiltzea arkaismotzat har daiteke, edo bestela, hitzez hitz hartuz gero, herrigune-proiektutzat, Lizarrara hiribildu zaharraren gainean edo ondoan, eta ez harkaitzaren azpian. Azkenik, Donejakue bidea desbideratzeko asmoa ere harrigarria da, ez baitzegoen ibilbide bakar bat edo etapa jakin batzuen arabera finkatuta. 1076. urtetik burgu edo hiribildua dokumentuetan agertzea ibilbidea Lizarrara aldera naturalki eta berez birbideratu izanaren lehen emaitza izan daiteke, lehen aipatutako ezaugarriak zirela eta erromesentzat erakargarriagoa izan bide zelako. Alabaina, monjeen populatze-asmoak arriskuan jar zezakeen desbideratze hori; beraz, ezinbestekoa zen erregeak zerbait egitea Lizarrara-Estellako hiri-proiektua sendotzeko. Lehendik zegoenaren eta Antso Ramirezek proposatzen zuenaren arteko alde nagusia zen hiribildu franko bat izatea, bai esanahi etnikoari eta bai, batez ere, esanahi juridikoari erreparatuta. Sortu nahi zen herria lehendik zeudenei gehituko zitzaien⁶³ baina inguruko beste giza kokaguneen gaineko nagusitasuna ziurtatuko zioten ezaugarri juridikoekin, hain zuzen ere, Donejakue bidetik zetozen erromesek, bai hornitzeko eta bai zerbitzuak baliatzeko, nahiago izatea eragiten zuten berezitasunak indartzearen bitartez. Izaera frankoa berresatea izan zen Lizarraren hirigintza-prozesuaren amaiera.

⁶¹ GOÑI GAZTAMBIDE, J., *Colección diplomática...*, op. cit. 52. zk.

⁶² Une hartan Lizarrara eta hiribildua (Estella izendatu zutena) existitzen ziren. Lizarrariela, ziurrenik, Estella sortu zen une berean itzali zen.

⁶³ Zangozan, Lizarran edo Iruñean beste horrenbeste gertatu zen.

Bi albisteri esker egiazta dezakegu XI. mendearen azken hamarkadarako Lizarra-Estella errealtate sendoa zela, nortasun propio eta guzti. Lehenik, 1090. urtean Lizarrako herritar batek Garesen errotak eraikitzea sustatu zuen⁶⁴. Bernero de Estella⁶⁵ zuen izena; izen horrek zera berresten du, alde batetik, Antso Ramirezek eraiki nahi zuen herri berri hori baino lehen bazirela Pirinioez haraindiko biztanleak; eta, bestetik, toponimoaren erabilera antroponimikoak adierazten du erreferente hori finkatua zegoela eta ezagutzeko modukoa zela, abizen modura erabiltzeko adina. Bigarrenik, 1094. urtean, jatorria Leiren duen dokumentu batek⁶⁶ *mensuram de Stella* erabiltzen zuen garia neurtzeko; horrek esan nahi du Lizarra ezaguna zela erresuma osoko erreferentziako merkatu gisa.

Aspaldidanik aztertu izan dute historialariek eta filologoek Lizarrara eta Estella (Lizarra) izenen jatorri etimologikoa⁶⁷. Jimeno Juríok horri buruzko proposamen nagusiak bildu zituen Lizarrako toponimiari buruzko lanean⁶⁸. Badirudi hipotesi onargarriena dela Lizarrara euskarazko *lizar* hitzetik datorrela, zuhaitzaren izenetik. Ez da kasualitatea 1135eko dokumentu batean agertzea lizardi bat zegoela (*fraxineta*) Es|tellako San Nikolas elizaren ondoan⁶⁹. Hitz hori era askotara egokituko zen⁷⁰ grafia latinoetara, X. eta XI. mendeetan idatzita jarri behar zutenean. Alabaina, XII. eta XIII. mendeetan, kartularioetan Lizarrara toponimoa kopiatu zutenean, Estellako eskualdera murriztuta geratu zen eta, beraz, hainbat eskribauk akatsekin kopiatu zuten edo ezagunagoa zitzaien beste batzuen pareko idatzi zuten, hala nola Lizarraga⁷¹.

XI. mendean barrena, euskararik ez zekien jendea iritsi izanaren ondorioz, toponimoaren erromanizazio-prozesu libre bat gertatu bide zen; bi fenomenotan suma daiteke prozesu hori. Alde batetik, atzizki txikigarria eranstea; horren ondorioz, *Lizarrariela*⁷² sortu zen. Bestetik, Lizarra aldaera laburtua honela identifikatu zuten, beharbada: artikulua gehi *izarra* erroaz osatutako konposatutzat. Horrela, bada, Lizarra hitzez hitz itzuliz gero, «La Estrella» izan zite-

⁶⁴ *Col. Irache*, 69.

⁶⁵ Hemen dokumentatu eta aztertua: LACARRA, J. M^a, Una aparición de ultratumba en Estella, *Príncipe de Viana*, 15 (1944), 173-184 or.

⁶⁶ *Doc. Leire*, 142.

⁶⁷ XVII. mendean, hiribilduaren izena Ama Birjinaren agerpen batekin lotzen zen (EGUÍA Y VEAUMONT, F. de, *Historia de la ciudad de Estella y su merindad*, Lizarra: 1644).

⁶⁸ JIMENO JURÍO, J. M^a, Estella/Lizarra..., *op. cit.* 135-137 or.

⁶⁹ ALEGRÍA SUESCUN, D., LOPETEGUI SEMPERENE, G. eta PESCADOR MEDRANO, A., *Archivo General de Navarra (1134-1194)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997, I.1 zk.

⁷⁰ JIMENO JURÍO, J. M^a, Estella/Lizarra, *op. cit.* 134. or.

⁷¹ *Doc. Leire*, 106, 107, 112.

⁷² BARRIOS MARTÍNEZ, M^a D., *Documentos de Monteraagón*, *op. cit.* 6. zk.

keen gaztelaniaz. XII. mendean erabilera hori jasota dago, Pedro Tizon aipatzen baita *la Stela*⁷³ko tenentetzat. Interpretazio hori egiteko lagungarri izan bide zen Europan hainbat herri egotea «Izarra»⁷⁴ toponimoarekin eta horien ezaugarri nagusia bideen elkargune edo bidegurutze izatea⁷⁵, Lizarrara bezalaxe. Hiribildua Donejakue bidean egoteak ere indar zezakeen «izar» esanahia. 1644. urtean, Francisco Egia Beumont idazleak Abartzuzako bi artzainen kondaira jaso zuen: 1085. urtean, izarren gidaritzapean, Ama Birjinaren irudi bat aurkitu omen zuten artzainek. Kontuak kontu, etimologiaren, interesen eta kondairen bat-etortze horrek toponimo berria sendotzea eragin zuen berehala, zaharraren kaltetan. XIII. mendean, Lizarrako kontzejuak, bere nortasunaz harro, izar bat jarri zuen zigiluan, hiribilduaren ezaugarritzat⁷⁶.

Ikusi dugu Estella izena XI. mendearen 70eko hamarkadatik aurrera agertzen dela dokumentuetan⁷⁷. Lehenengo aldiz testuinguru formal batean agertzen dela kontuan hartuta, kargu ofizial baten aipamenean, *merino in Stela*, 1077. urterako erabilera informala zabaldu samartua egongo zela pentsa dezakegu. Ondorioz, toponimoaren «itzulpena» bultzatu zuten kanpotik etorritako horiek askoz lehenago iritsiak izango ziren. Horrek berretsiko luke giza kokagune hori sendotuta zegoela jada 1076an burgu izena jaso zuenerako⁷⁸. Hala ere, Lizarrara baztertu eta toponimoa behin betiko finkatzea Lope Arnaldoren erabaki pertsonala izan zen, dirudienez. Pertsonaia hori Semero Gartzezen merio izan zen eta 1084. urtean Semero hil zenean⁷⁹, haren tokia hartu zuen tenentzian. Eta tenentea aldatzearekin batera, izen-aldaketa etorri zen: une horretatik aurrera, tenentziaren egoitza Estella (Lizarra) izango da. Ezin dugu jakin zerk bultzatu zuen Lope Arnaldo erabaki hori hartzera, baina badira argi egin lezaketzen zen-

⁷³ LEMA PUEYO, J. Á., *Colección diplomática de Alfonso I de Aragón y Pamplona (1104-1134)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990, 231. zk.

⁷⁴ Toponimoa bidegurutzeekin lotzen da (NÈGRE, E., *Toponymie générale de la France*, I. lib., Geneva: Librairie Droz, 1990, 1450. or.). Izen horren presentzia Frantzian dokumentatu da, batik bat, (L'Étoile izeneko tokiak daude Jura, Somme, Hautes-Alpes eta Drôme komunetan), baina adibideak badira Portugalen (Estrela, Alentejo) eta Italian ere (Stella, Savona probintzia).

⁷⁵ CIÉRBIDE, R., En torno a las denominaciones..., *op. cit.* 57. or.

⁷⁶ MENÉNDEZ PIDAL DE NAVASCUÉS, F., RAMOS AGUIRRE, M. eta OCHOA DE OLZA, E., *Sellos medievales de Navarra: estudio y corpus descriptivo*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1995, 823-824 or. Ikonografia hori agertzen da, halaber, hiribildu bereko Santo Domingo komentuan ere (*El arte gótico en Navarra*, Clara Fernández-Ladreda (zuz.), Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2015, 98-102. or.). Lizarrak une horretan zuen kontzeju-antolamenduari buruz, *vid.* GARCÍA ARANCÓN, M^a R., Una posible reforma de las magistraturas de Estella –Navarra- en el siglo XIII, *Vasconia: Cuadernos de historia – geografía*, 36. zk., 2009, 37-44 or.

⁷⁷ Artxibo Historiko Nazionala CLERO-SECULAR_REGULAR, Car. 701, 21. zk.

⁷⁸ *Col. Irache*, 58.

⁷⁹ *Doc. Leire*, 112 eta 113.

bait datu. Alde batetik, merio zenean jada toponimo berria erabiltzen zuenez, haren karguaren eta hiribilduaren artean lotura bereziren bat zegoela adieraz lezake horrek. XII. mendean, merioek errege-ondarearen administratzaile jardun zuten, lurralde eta herri jakin batzuetan, dela zuzenean erregearen agintepean, dela jaun baten aginduetara⁸⁰. Hori izan zitekeen Lope Arnaldoren kasua, berriki sortutako hiribilduan errege-erreginen onibarrak kudeatu behar zituenez. Litekeena da, gainera, *senior* karguaren kasuan ez bezala, merioa hiribilduan bertan bizi izatea. XII. mendean, Lizarrako merioak hiribilduan bizi ziren eta, horretaz gain, frankoak ziren jatorriz⁸¹. Adierazgarria da Lope Arnaldok bere eginkizunak betetzen jarraitu izana, hiribildu berriari zegokionez, 1084tik 1093ra arte⁸² *dominator Stella* karguarekin. Bestalde, baliteke Lope Arnaldo bera Pirinioez bestaldekoa izatea sortzez eta, beraz, biztanle berriekin eta haiek erabiltzen zuten izenarekin gehiago identifikatzea zaharrekin baino. Lope izenak tradizio luzea zuen Iruñeko Erdi Aroko onomastikan⁸³, baina Arnaldo patronimikoa, aldiz, erabat arrotza zen. Hala, XII. mendearen hasierara arte nekez agertzen da izen hori dokumentuetan, harik eta, hain justu, Lizarrako frankoen artean nahikoa maiz azaltzen den arte⁸⁴.

Foruak eman ostean, lehen tenenteen tutoretzapean bateratuta zeuden herriguneak bereizi egin ziren juridikoki eta, horren ondorioz, izena ere bereizi egin zen. Antzinako herrixkan, non biztanleen gehiengoa autoktonoa baitzen –nekazariak edo handizurenak– eutsi egin zioten Lizarrara izenari eta, XIII. mendera arte, nahikoa maiz erabili zen abizen toponimikotzat. Hiribildua eta gerora atxikitako auzoak Estella toponimoaren izenaren pean bildu ziren, eta azkenean gaztelua ere bai. XII. eta XIII. mendeetan, bi herriguneak batu egin ziren berriro Estellako kontzejupean. Lizarrara toponimoa –orain Lizarra forma laburtuarekin– San Pedroko elizarekin loturik egon zen, hein batean Ruako izen bereko elizatik bereiztearren.

Mende horietan barrena, herrigune horien kategoria aldatu egin zen. Lizarrako eta Estellako *castruma* baliozko erreferente izan zen XI. eta XII. mendeetan. XIII. mendearen hasieran, *Gurutzada Albitarraren kantua* okzitaniaraz idatzi zuen Gillen Tuterakoa poetak Antso VII.aren mendeko lurrak zerrendatu zituenean honako hau aipatu zuen: Iruñea, Tuter eta Estellako gaztelua⁸⁵.

⁸⁰ LEMA PUEYO, J. Á., *Instituciones política*, *op. cit.*, 176-178 or.

⁸¹ *Col. Irache*, *op. cit.* 219.

⁸² *Ibid.* 70.

⁸³ GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., *Antroponimia en Navarra*, *op. cit.*

⁸⁴ CIÉRBIDE, R., *Onomástica personal de los francos...*, *op. cit.* 210-214 or.

⁸⁵ TUDELA, G. de, *La chanson de la croisade Albigeoise: texte original*, Michel Zink (sarr.), Paris: Librairie Générale Française, 1989, 9. estrofa.

1076. urtean burgu bat aipatzen da⁸⁶, guk Estellarekin lotzen duguna, eta titulu horrek tokiko toponimian iraun zuen XII. mendean sortu ziren auzoetako zenbait izendatzeko. XI. mendearen 90eko hamarkadan, bai Lizarra⁸⁷ bai Estella⁸⁸ hiribildu izendatu zituzten. 1187. eta 1188. urteetan, Lizarra hiribildu zen oraindik ere⁸⁹. Puntualki, 1121. urtean, Estellari *civitate* esaten zitzaion Pedro Tizonen agintepean⁹⁰. Katgoria hori ez zen zuzena, hiribilduak ez baitzuen hiri-privilegioa 1483. urtera arte jaso⁹¹. Dena den, ordurako lortua zuen hiri-garapena agerian uzten zuen, Lizarrarako hiribilduarekin kontrapuntua eginez.

Bukatzeko, Gartzzea Ramirezek Iruñeko monarkia berrezarri zuenean⁹², Estella erregearen agindupeko hiribildu nagusi bihurtu zen berriro. Regnante-klausuletan Iruñearen eta Tuteraren ondoan agertzen da, horrela erresumaren barruan zuen potentzial demografikoa eta balio ekonomiko eta politikoa aitortzen zitzaizkiolarik. Ohitura horri Nafarroako erregearen titulua Antso VI.aren hedatu zen arte eutsi zitzaion.

III. ONDORIOAK

Dokumentuetan bildutako lehenengo berrietatik, Lizarrara gazteluak badu nolabaiteko garrantzia erresumaren antolaketari eta defentsari dagokienez. X. eta XI. mendeetan gorabehera handiak izan ziren Iruñeko monarkian, bai politikari eta bai lurraldetasunari zegokionez; ondorioz, gazteluaren eginkizuna aldatuz joan zen; azkenean, tenentzia bereziki garrantzitsua bihurtu zen, erresumaren mendebaldeko lurretan kokapen egokia zuelako. XI. mendearen amaieran agertzen da dokumentuetan jasota Donejakue bidearekin eta zenbait erregeren foru-ekimenarekin lotutako herrigune berrien presentzia.

Ezin da baztertu, dena den, hiribildu, zubi (ibilbideek bat egiteko puntutzat hartuta) eta gaztelu-tenentzia trinomioak biztanle berriak erakarri izana bertan kokatzeko, tokiak eskaintzen zituen merkataritza-aukerak zirela eta. Etorकिन lehen etorraldi hori aldiri edo behe-auzo batean gertatu zen, *Lizarrarielan*, non

⁸⁶ Col. Irache, *op. cit.*, 58

⁸⁷ LACARRA, J. M^a, eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra. I.1.*, *op. cit.* 1.

⁸⁸ BARRIOS MARTÍNEZ, M^a D., *Documentos de Montearagón...*, *op. cit.* 6. zk.

⁸⁹ Col. Irache, 208 eta ALEGRÍA, D. *et alii*, *Archivo General de Navarra...*, *op. cit.* II 103.

⁹⁰ UBIETO ARTETA, A., *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Valentzia: Anubar, 1976, 302. zk.

⁹¹ MARTÍN DUQUE, Á. J., El fenómeno urbano medieval en Navarra, *Príncipe de Viana*, 227 (2002), 738. or.

⁹² GOÑI GAZTAMBIDE, J., *Colección diplomática...*, *op. cit.* 200. zk.a

komunitate hebrear txiki bat ere egon baitzen. Ziurrenik Antso IV.aren garaian eta Semero Gartzezen agintepean, toki horrek lortutako arrakasta eta eskaintzen zituen aukerak ikusita, herrigune berri bat sustatzen hasi ziren, Lizarrari-rielan baino hiri-antolamendu zehaztuagoarekin eta ez hain espontaneoarekin. Burgua gaztelupean kokatuta zegoen, eta pribilegioren bat izango zuen –nahiz eta ez dugun horren berririk–; izan ere, pribilegio hori lagungarri izango zen etorkinak –jatorriz frankoak eta hebrearrak– burguraino desbideratzeko eta, era berean, erresumako zenobio edo monasterio nagusiak (Iratxe eta San Juan de la Peña) erakartzeko. Burgu horrek hiri-nortasun eta nortasun juridiko berezitu-ua zuen Lizarrara zaharrarekiko, eta beste izen bat ere hartu zuen, aurrekotik eratorria baina desberdina; handik gutxira, estatutu juridiko frankoa esleitu zitzaion lehengoaren orde-za eta, estatutu horrek eraginda, erresumako hiri-proiektzio handieneko hiribilduetako bat bihurtu zen.

XII. eta XIII. mendeetan, hainbat pribilegio jaso zituen, handitu egin zen eta herriguneak atxiki zitzaizkion, besteak beste, Lizarra; azkenean, Estella erresumako bost hiribildu nagusietako bat bihurtu zen, eta Iruñeak soilik gaintzen zuen prestigioari zegokionez, hiriburu eta apezpiku-hiria zelako.

IV. BIBLIOGRAFIA

- ALEGRÍA SUESCUN, David, LOPETEGUI SEMPERENE, Guadalupe eta PESCADOR MEDRANO, Aitor, *Archivo General de Navarra (1134-1194)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997.
- BARRERO GARCÍA, Ana María, La difusión del Fuero de Jaca en el Camino de Santiago, *El fuero de Jaca: estudios*, Zaragoza: El Justicia de Aragón, 2004, 111-160 or.
- BARRIOS MARTÍNEZ, M^a Dolores, *Documentos de Monteragón: 1058-1205*, Huesca: Asociación de Amigos del Castillo de Montearagón, 2004.
- CANTERA MONTENEGRO, Margarita, *Colección documental de Santa María la Real de Nájera. Tomo I (siglos X-XIV)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991, 8. zbk.
- CAÑADA JUSTE, Alberto, Honores y tenencias en la monarquía pamplonesa del siglo X. Precedentes de una institución, *Príncipe de Viana*, Anejo 2 (1986), 67-73 or.
- CIÉRBIDE, Ricardo, En torno a las denominaciones de la ciudad de Estella, *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 51 (1988), 53-58 or.
- La lengua de los francos de Estella, *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 3 (1993), 115-148 or.

- Onomástica personal de los francos de Estella (1090-1222). En *Actas de las III Jornadas de Onomástica Estella*, 2008, 165-186 or.
- EGUÍA Y VEAUMONT, Francisco de, *Historia de la ciudad de Estella y su merindad*, Lizarra, 1644.
- ESTÉVEZ SOLA, Juan Antonio, *Crónica Najerense*, Madril: Akal, 2003.
- FERNÁNDEZ-LAREDA, Clara (zuz.), *El arte gótico en Navarra*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2015.
- FLORISTÁN SAMANES, Alfredo, De Lizarra a Estella una reflexión geográfica, *Príncipe de Viana*, 190 (1990), 307-316 or.
- GARCÍA ARANCÓN, María Raquel, Una posible reforma de las magistraturas de Estella –Navarra- en el siglo XIII, *Vasconia: Cuadernos de historia – geografía*, 36 (2009), 37-44 or.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., Antroponimia en Navarra y Rioja en los siglos X a XII, *Estudios de Historia Medieval de La Rioja*, Logroño: Universidad de La Rioja, 2009, 187-204 or.
- GIL FERNÁNDEZ, Juan (ed.), Moralejo, José L. (trad.) eta RUIZ DE LA PEÑA, Juan I.(estudio), *Crónicas Asturianas*, Oviedo: Oviedoko Unibertsitatea, 1985.
- GONZÁLEZ OLLÉ, Fernando, Etimología del topónimo Estella, *Príncipe de Viana*, 190 (1990), 329-344 or.
- GOÑI GAZTAMBIDE, José, *Colección diplomática de la Catedral de Pamplona*, Pamplona, Nafarroako Gobernua, 1997, 255 zk.
- Historia eclesiástica de Estella*, 2 bol. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1990-1994.
- ILUNDAIN CHAMARRO, Javier, *Los buenos hombres de Olite (siglos XII-XIV). Sociedad, poder y élites urbanas*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2017.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Terras a suis reperitur semper esse possessas: la Iglesia en Tierra Estella en la Edad Media*, Iruñea: Lamiñarra, 2007.
- JIMENO JURÍO, José María, Estella/Lizarra. Toponimia, *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, 77 (1998), 133-164 or.
- Toponimia rural y urbana de Estella. En *Actas de las III Jornadas de Onomástica Estella*, 2008, 25-41 or.
- LACARRA, José María, *Colección diplomática de Irache*, Zaragoza: Instituto de Estudios Pirenaicos, 1965.
- Historia del Reino de Navarra en la Edad Media*, Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1975.

- Una aparición de ultratumba en Estella, *Príncipe de Viana*, 15 (1944), 173-184 or.
- LACARRA, José María, eta MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Fueros de Navarra. I.1. Fueros derivados de Jaca. Estella-San Sebastián*, Iruñea: Vianako Printzea Institutuzioa, 1969.
- LEGARDA SEMBROIZ, José Miguel, Estructuras defensivas en la ciudad de Estella. Resultados arqueológicos, *Trabajos de arqueología Navarra*, 22 (2010), 163-193 or.
- LEMA PUEYO, José Ángel, *Colección diplomática de Alfonso I de Aragón y Pamplona (1104-1134)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990.
- Las tenencias navarras de Alfonso I «el Batallador», *Príncipe de Viana, Anexo*, 8 (1988), 61-70 or.
- Instituciones políticas del reinado de Alfonso I el Batallador, rey de Aragón y Pamplona. 1104-1134*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1997.
- MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Iruñea: Vianako Printzea Institutuzioa, 1983.
- El fenómeno urbano medieval en Navarra, *Príncipe de Viana*, 227 (2002), pp. 727-760.
- La fundación del primer burgo navarro: Estella, *Príncipe de Viana*, 190 (1990), 317-328 or.
- Navarra en la Alta Edad Media (711-1234), *Nueva Historia de Navarra*, Francisco Javier Navarra (ed.), Barañain: EUNSA, 2010.
- MENÉNDEZ PIDAL DE NAVASCUÉS, Faustino, RAMOS AGUIRRE, Mikel eta OCHOA DE OLZA, Esperanza, *Sellos medievales de Navarra: estudio y corpus descriptivo*, Iruñea: Nafarroako Goebnua, 1995.
- MORET, José de. *Anales del Reino de Navarras T. I.*, Tolosa: Casa editorial de Eusebio López, 1890.
- NÈGRE, Ernest, *Toponymie générale de la France*, bol. I, Ginebra: Librairie Droz, 1990.
- PAVÓN BENITO, Julia, Fuero de Jaca y Fuero de Estella. Observaciones críticas. *XV Congreso de Historia de la Corona de Aragón. Jaca en la Corona de Aragón (siglos XII-XVIII)*, 3. bol., Zaragoza: Aragoiko Gobernua, 1993, 341-355 or.
- RAMOS AGUIRRE, Mikel, Intervenciones arqueológicas en el castillo de Estella (2001-2010), *Trabajos de Arqueología Navarra*, 27 (2015), 185-218 or.
- RODRÍGUEZ DE LAMA, Ildfonso, *Colección diplomática medieval de la Rioja (923-1225)*, Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 1976-1979.

SANTAMARÍA, Ricardo, La muerte de un rey. Repercusiones territoriales del asesinato de Sancho IV Garcés (1076) en el área navarro-riojana, *Príncipe de Viana*, 253 (2011), 249-262 or.

TUDELA, Guillaume de, *La chanson de la croisade Albigeoise: texte original*, Michel Zink (intr.), Paris: Librairie Générale Française, 1989.

UBIETO ARTETA, Antonio, *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Valentzia: Anubar, 1976.

-*Cartulario de Albelda*, Valencia: Anubar, 1960.

-*Cartulario de San Juan de la Peña*, Valentzia: Anubar, 1962.

VÁZQUEZ DE PARGA, Luis, LACARRA, José María eta URÍA RÍU, Juan, *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*, Iruñea: Nafarroako Goebrua, 1998.

Donostiako eta inguruko lurraldearen antolamendua Goi Erdi Aroan: Bilakaeraren ikuspegi panoramikoa

Iosu ETXEZARRAGA ORTUONDO

Ikerlari independentea

Aurkibidea

I. SARRERA. II. GIPUZKOAKO KOSTALDEAREN POPULATZEA ERROMATARREN GARAIAN ETA ERDI AROAN. III. DONOSTIAKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA FORUA IDATZI AURREKO GARAIAN. IV. DONOSTIA HERNANIKO BAILARAN. V. BIZITASUN EKONOMIKOAREN FROGAK KANTAURIKO EKIALDEKO EREMUAN. VI. ONDORIOAK. VII. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Hainbat hamarkadatan, Gipuzkoan Erdi Aroaren hasiera nolakoa izan zen argitzeko ikerketa zientifikoak zailtasunak izan ditu ez zegoelako behar adina dokumentu-iturri eta behar bezain aberatsak eta, horren ondorioz, ez direlako sortu eztabaida historiografikoaren bitartez aurrera egitea bultzatuko duten irakurketak. Aurreko mendeko 80ko hamarkadan ahalegin handia egin zen gure lurraldeak Antzinatean (aro hori hobeto ezagutzen hasiak ginen¹) Behe Erdi Aroa bitarte izandako bilakaera azalduko zuen kontakizuna harilkatzeko, eta esfortzu horren emaitza frankismoaren ondoko berrikuntza historiografikoaren testuinguruan gauzatu zen J. A. García de Cortázar egileari eta «espazioaren antolaketa sozialaren» teoriari esker. Gipuzkoako lurraldeari dagokionez, korronte horren adierazgarri nagusia Elena Barrena Osoro irakaslea da; Barrenak zera lortu zuen, eskura zuen informazio guztiz urria Cortázarrek Iberiar penintsularen iparraldeko gizarte feudalaren jatorriari buruz egindako eskemaren barruan txertatzea².

¹ Euskal Herriko Antzinateari buruzko ikerketen aurrerapausoen berri ematen duen zedarrri historiografiko nagusia Milagro Esteban Delgadoren doktorego-tesia da: ESTEBAN DELGADO, M., *El país Vasco Atlántico en época romana*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1990.

² BARRENA OSORO, E., *La formación histórica de Gipuzkoa*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1989.

Ia bi hamarkadatan, diskurtso hori izan zen interpretazio-esparru bakarra, eta ez zen ezbaian jartzen ez akademian, ezta Historiaren arloko profesionalen aldetik ere.

Iragan mendeko 90eko hamarkadaren amaieran Erdi Aroko arkeologia garatzen hasiz geroztik, datu berriak azaltzen hasi ziren eta beste diskurtso bat sortu ahal izan zen³; hartara, agerian geratu ziren indarrean zegoen diskurtso historiografikoaren eta kultura materialaren arteko desadostasunak. Gainera, georagoko dokumentazioaren bitartez egindako beste azterlan batzuei esker, jakin ahal izan dugu Gipuzkoako Erdi Aroko gizartearen oinarri ekonomikoek, E. Barreren lanean deskribatzen zen moduan⁴, ez zutela tokirik haiek gero izango zuten⁵. Zehazki, abeltzaintza kudeatzeko sistemari buruz ari naiz; teoriarik, abeltzaintza zen Goi Erdi Aroko gizartearen produkzio-jarduera nagusia, eta populatze mota baldintzatzerainoko indarra omen zuen: lehenengoa transhumantea eta bigarrena ibiltaria. Ikerketa arkeologikoen gero eta informazio gehiago eskaintzen dutenez, hain urria zen dokumentuen bilduma osatzen hasteko modua izan dugu, eta aurreko historiografiak planteatzen zuenaren oso bestelako panorama agertzen ari da.

Lan honen bitartez, interpretazio-proposamen berria aurkeztu nahi dugu, ikerketari esker gaur egun eskura dauden datuetan oinarrituta. Testuaren ardatzak populatze-sarea eta lurraldearen antolamendua dira, batik bat; izan ere, alderdi geopolitikoak eta gizarte- nahiz botere-harremanak beste autore batzuen ekarpenetan aztertuko dira. Azkenik, lurraldearen egitura politiko-juridikoaren eraldaketan eragina izan zezaketela uste dugun zenbait aldaketa-faktore ekonomiko ere aztertuko ditugu. Oro har, azaleko azterketa baino ez dugu egingo hemen, azterlan monografikoak egiteko moduko gaiak diren arren; lan hori egiteke dago oraindik. Balio beza ekarpen honek etorkizuneko ikerketetarako ildo nagusiak proposatzeko.

³ Diziiplina arkeologikoen Gipuzkoan eman dituen aurkikuntza garrantzitsuenen sintesia kontsulta daiteke hemen: MORAZA, A., SARASOLA N., *Arkeologia 0.5. Arqueología medieval en Gipuzkoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011. Goi Erdi Aroko arrasto horien irakurketaren interpretazio handiagoa egiten da honako hauetan: SARASOLA ETXEGOIEN, N., El poblamiento medieval de Gipuzkoa. Revisión crítica del registro arqueológico, *Munibe Antropología-Arkeologia*, 61 (2010), 339-393 or.

⁴ ARAGÓN RUANO, Á., *La ganadería guipuzcoana en el Antiguo Régimen*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.

⁵ ALBERDI LONBIDE, X., PÉREZ CENTENO, J.M., DEL BARRIO BAZAKO, L., Yacimiento de Mukitar y prospecciones en los alrededores, *Arkeoikuska*, 2010 (2011), pp. 427-428; ALBERDI LONBIDE, X., Yacimiento de Mukitar, *Arkeoikuska*, 2011 (2012), pp. 367-368; ALBERDI LONBIDE, X., Yacimiento de Mukitar, *Arkeoikuska*, 2012 (2013), pp. 303-305; ALBERDI LONBIDE, X., Yacimiento de Mukitar, *Arkeoikuska*, 2013 (2014), pp. 315-316.

II. GIPUZKOAKO KOSTALDEAREN POPULATZEA ERROMATARRAREN GARAIAN ETA ERDI AROAN

Arkeologia emaitza handiak ematen ari da eta, diziplina horri esker, Gipuzkoako Historia berreraikitzekeo ekarpen handienetakoa jaso duen aro bat, hain justu, Antzinateko mendeak dira. Hogeita hamar urteko ikerketen ondorioz, aztarnategien mapa nahikoa aberatsa sortu da Kantauriko kostaren ekialdeko muturrean eta, aztarna horiei esker, aro-aldaketarekin batera gure lurraldearen populatzean izandako bilakaera berreraikitzen has gaitezke.

Lehenengo milurtekoaren hasieran dokumentatuta dauden hainbat giza kokagune lehendik populatuta zeuden tokietan kokatu ziren, hala nola Getarian⁶ edo Zarautzen⁷; beste zenbait kasutan, badirudi ordura arte inor bizi ez zen tokietan ezarri zirela giza kokaguneak. Hori gertatu zen, antza, Donostian edo Irun-Oiasso hiri erromatarrean. Baieztapen horren oinarria zera da, ez dagoela Burdin Aroari lotutako ebidentziarik puntu horietan, baina ezin dugu baztertu etorkizunean agertzeko aukerarik. Zentzu horretan, oso interesgarria iruditzen zaigu Donostian erromatarren garaian zegoen giza kokagunearen kokapena, Urgull mendiaren oinetan baitzegoen, eta muino hori oso egokia izan zitekeen kostaldeko kastro bat kokatzeko.

Nolanahi ere, ikerketa egun dagoen egoeran, esku artean dauden hipotesiek diote Donostia inguruko populatzearen ereduak aldaketarako joera izan zutela ingurunea Inperioan txertatzearekin batera. Azken hamarkadan, Burdin Aroko azken urteetako arrastoak aurkitu dira Jaizkibel mendiko herrixka harreritua dirudien batean: Mukitar (Lezo)⁷ –herrixka horrek ez zuen okupaziorik izan gerora–; edo Astigarragako Santiagomendiko giza kokagunean⁸, gure Aroaren hasiera inguruan bertan behera utzia; bi adibide horiek Kontxako Badiaren inguruko edo gertuko populatzean aldaketa-prozesu bat gertatu zela adieraziko lukete. Kasu horretan, tonboloan Burdin Aroko arrastorik agertu ez denez, populazioa kokagune perimetral horietatik etorri zela pentsatu izan da. Azken batean, Donostiako kokagunea sortzearen helburua kostaldeko kabotajeko bidea indartzea izan zitekeen, eta, bide batez, itsas ibilbide horren testuinguruan sortutako dinamika ekonomiko berriak baliatzeko modua ere bai. Kantauri itsasoko

⁶ ALBERDI LONBIDE, X., ARAGÓN RUANO, Á., PÉREZ CENTENO, J. M., Quince años de investigaciones histórico-arqueológicas en torno a Getaria, *Munibe*, 57-2 (2005-2006), 435-451 or.

⁷ IBÁÑEZ ETXEBERRIA, A. (arg.): *Santa María la Real de Zarautz (País Vasco). Continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a.C. y XIV d.C.*, Munibe 27 gehigarria, Donostia: Aranzadi Zientzia Elkarte, 2009.

⁸ IZQUIERDO MARCULETA, M. T., El poblamiento de la Edad del Hierro en el entorno de Santiagomendi (Astigarraga, Gipuzkoa), *Kobie (Anejos seriea)* 6. zk. (1. lib.) (2004), 297-304 or.

kostaldeko txoko honek garrantzia izan zuen erromatarren merkataritza-ibilbi-deetan, eta Oiasso hiri erromatarren testuinguruan –egungo Hondarribia eta, batik bat, Irun– egin diren aurkikuntza garrantzitsuek frogatuko lukete garrantzi hori⁹.

Gerora, erromatarren behe-inperio garaian, nekazaritza- eta eskulangintza -produkzioarekin lotutako kokaleku berriak garatuko ziren aurreko etapan sortutako giza kokagune garrantzitsuenen inguruan¹⁰. Donostiaren kasuan, oraingoz ez dugu horrelako giza kokaguneren baten berririk izan, baina bai beste kasu batzuetan: gaur egun Getaria eta Zarautz dauden tokietan, K.O. I. mendetik zeuden populazio-guneen inguruan. Garai historiko horretan espazio eta baliabide berrien ustiapenaren adibide dira Zumaiako Urteaga Zahar aztarnategia (okupazio protohistorikoa du, baina goi-inperiokoa) edo Urezberoetako Kanposantu Zaharra, Aian¹¹. Donostiaren inguruan baina Oria ibaiaren bailara menderatzen duen puntu batean kokatuta dago Usurbilgo Irigain aztarnategia¹². Oraingoz ez dakigu zehatz-mehatz aztarnategia nolako izango den, baina aurrekoen antzeko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenerako enklabea izan zela pentsa daiteke. Bestalde, Zarautzen dagoen Arbiun aztarnategiko indusketa-lanetan metalurgia -produkzioko tailer baten aztarnak agertu dira; lantegi horretan, burdina lantzen zuten, industriaurreko eran. Lezoko San Juan parrokiatik gertu dagoen toki batean ere kronologia horretako frogak aurkitu genituen, Lezo Haundiaren oinetxe edo leinu-etxea izandakoaren hondakinen artean, baina oso egoera txarrean zeuden eta ezinezkoa da orubearen historia berreraikitzea¹³.

IV. mendetik aurrera, zenbait kokagune abandonatu egin zituzten, hala nola Urteaga Zahar, Urezberoetako Kanposantu Zaharra, Iria edo Arbiun. Aitzitik, gure aroaren hasieran edo aurreko garai batean errotuta zeuden giza kokaguneez –Getaria eta Zarautz, kasu– populatuta jarraitu dute gaur egunera arte¹⁴.

⁹ Egindako aurkikuntzen deskribapen zabala aurki daiteke hemen: URTEAGA, M., ARCE, J., *Arkeologia 0.4, Arqueología romana en Gipuzkoa*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011.

¹⁰ Oraingoz, Gipuzkoako lurraldean, aldaketa horiek Urola Kosta eskualdean baino ez dira identifikatu, baina Inperioaren eremu atlantikoko dinamika orokorraren barruan sartzen dira (ESTEBAN DELGADO, Milagros, Arbiun. Taller metalúrgico en el enclave romano de la gran bahía de Getaria, *Kobie (Anejos seriea)*, 13 (2014), 93-110 or.

¹¹ ESTEBAN, M., Arbiun, *op. cit.*, 104-106 or.

¹² CEBERIO RODRÍGUEZ, M., Primeros testimonios de época antigua en el tramo final del valle del Oria: el yacimiento de Irigain (Usurbil, Gipuzkoa), *Munibe (Antropología-Arkeología)*, 61 (2010), 243-259 or.

¹³ BUCES CABELLO, J., Plaza Lezoaundi, *Arkeoikuska*, 10 (2011) 375-376 or.

¹⁴ Zarautzen kasurako, ikus IBÁÑEZ ETXEBERRIA, A. (arg.): *Santa María la Real de Zarautz (País Vasco). Continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a.C. y XIV d.C.*, Munibe 27 gehigarria, Donostia: Aranzadi Zientzia Elkarte, 2009.

Jarraitutasun hori, aldaketa-testuinguru batean kokatzen den arren, ez zen salbuespen izan Erromako Inperioa osatzen zuten gainerako lurraldeei zegokienez; izan ere, aurreko egitura handiaren ordeztutako erakunde politiko berrietan antolatzen hasiak baitziren¹⁵. Horrela, bada, toki horietan giza presentzia jarraitua izateak eta biztanle horien kultura materialaren ebidentziek zera adieraziko luke, merkataritza-arloko ibilbide eta harremanek mende batez edo mende eta erdiz, gutxienez, iraun zutela Bizkaiko golkoaren barruan, kostaldearen eta Ebro bailararen artean,¹⁶ baita Atlantikoaren eta Mediterraneoeko ekialdearen artean ere¹⁷.

Hortaz, dokumentuetako erreferentziak edo, hobeto esanda, erreferentzia horien ezak Antzinatearen eta Erdi Aroaren arteko hausturaren diskurtsoa sustatu bazuen, Arkeologiari esker etenaldi hori leuntzen ari da, eta Antzinate Berantiarra esaten zaion etapan gertatu ziren aldaketak eta iraunkortasunak haztatzen has gaitezke.

Tamalez, Donostiako tonboloaren enklabea zaharrenak aurkitu diren tokian esku-hartze arkeologiko gutxi egin dira, eta ezin izan dugu dokumentatu Antzinatearen eta Goi Erdi Aroaren arteko garaien bateko ebidentziarik. Donostiako hiribildua izango zen tokian aurkitutako Erdi Aroko ebidentzia goiztiarrenak ez dira X. mendea baino lehenagokoak¹⁸. Dena dela, lehen ere esan dugunez, baliteke orain arte egindako esku-hartze urriengatik izatea hori eta, etorkizuneko ikerketen bitartez, testuinguru berriak agertzea; hain zuzen ere, Santa Teresa komentuari inguruko lurretako kokalekua bertan behera utzi zen unetik Koruko Andre Mariaren basilikako Goi Erdi Aroko nekropoli perimetralari zegozkiola uste den hilobien garaira bitarteko data ezar dakiekeen testuinguruak.

¹⁵ Antzinate Berantiarreko testuinguru europarrari dagokionez, ikus WICKHAM, J., *Una historia nueva de la Alta Edad Media. Europa y el mundo mediterráneo, 400-800*, Bartzelona: Crítica, 2008.

¹⁶ ESTEBAN DELGADO, M., La vía marítima en época antigua, agente de transformación en las tierras costeras entre Oïasso y el Divae, *Itsas Memoria*, 4 (2003), 35. eta 38. or.; ESTEBAN DELGADO, M., IZQUIERDO MARCULETA, M. T., MARTÍNEZ SALCEDO, A. eta PÉREZ CENTENO, J. M., La difusión de la terra sigillata hispánica tardía (TSHT) y otras cerámicas finas en el Cantábrico oriental, *Ex Officina Hispana*, 1 (2012), 139-160 or.; ESTEBAN DELGADO, M., IZQUIERDO MARCULETA, M. T., MARTÍNEZ SALCEDO, A., La cerámica de época romana en el País Vasco atlántico: Redes comerciales y consumo, *Ex Officina Hispana*, 2, T.I. (2014), 193-210 or.; AZKARATE GARAI-OLAUN, A., SOLAUN BUSTINZA, J. L., La cerámica altomedieval en el País Vasco (siglos V-X d.C.): producciones, modelos productivos y patrones de consumo. VIGIL-ESCALERA GUIRADO, A., QUIRÓS CASTILLO, J. A. (dir.), *La cerámica de la Alta Edad Media en el cuadrante noroeste de la Península Ibérica (siglos V-X). Sistemas de producción, mecanismos de distribución y patrones de consumo*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2016, 193-228 or.

¹⁷ BENITO, A. M., Cerámicas del yacimiento submarino del Cabo de Híguer (Hondarribia), *Munibe*, 40 (1988), 123-163 or.

¹⁸ GEREÑU URZELAI, M., Las excavaciones arqueológicas de Santa Teresa y La Brecha. UNSAIN AZPIROZ, J. M. (arg.), *San Sebastián, ciudad Marítima*, Donostia: Untzi Museoa., 2008, 163-173 or.

Baina bada ukatu ezinezko ebidentzia bat: Goi Inperioaren garaian Gipuzkoako kostaldean jada finkatuta zeuden giza kokaguneak forua jasotzen lehenengoak izan ziren¹⁹; denboran iraun izanaren sintomatzat eta gizartearen eta politikaren arloko antolamendua errotuta egotearen seinaleztat interpreta daiteke hori. Ziurrenik, giza kokagune horiek arrakasta izan zuten kostaldeko kabotaje-bideetan estrategikoki kokatuta zeudelako eta lurreko eta itsasoko bideek bat egiten zuten nodoak zirelako. Bestela esateko, kokagune horiek denboran irautearen arrazoia kokagune bakoitzak eskaintzen zituen aukera ekonomikoak zirela pentsa dezakegu, garai latzetan biziraun ahal izan zutelako eta nazioarteko merkataritza-dinamikak biziberritu zirenean goraldia izan zutelako.

Edonola ere, atal honetan guri interesatzen zaiguna zera da, populatzeak Donostian ere iraun izana adierazten duten frogak aurkitzea. Gaur egun, ezin dugu baieztapen biribilik egin baina, esan dugunez, Urola Kosta eskualdearen kasuan hautemandako errealitatea ez zen Donostiaren errealitatearen oso bestelakoa izango, segur aski. Donostiako Andre Mariaren elizaren inguruan aurkitutako hilobiak antzinako tenpluaren orubetik urruneko eremu batean kokatzen zirela aipatu behar dugu, tenplu zaharrak egungo eraikinak baino azalera txikiagoa okupatuko zuen eta. Beraz, ziurrenik, giza arrasto horiek geroago okupatutako nekropoli batekoak izango ziren.

Nolanahi ere, kontuan izan behar dugu aipatzen ari garen herri-izenek gaur egungo errealitateak gogorarazten dizkigutela eta errealitate horiek antzinakoekiko oso bestelakoak direla antolamendu politikoari eta lurralde-antolamenduari dagokienez; izan ere, gaurko errealitateak bilakaera historiko luze baten ondorio dira. Zentzu horretan, erromatarren behe-inperioko garaian giza kokagune aberatsenen inguruko ustiapen ekonomikorako enklabeak nolakoak ziren ezagutzen hasi gara Getariako, Zarauzko eta Zumaiako jurisdikzioen kasuan, baina oraindik erabat ezezaguna da Donostiari dagokionez. Erromatarren garaiko aztarna adierazgarri bakarrak Urgull mendiaren oinean kokatzen dira, hau da, Erdi Aroko hiribildua zegoen toki berean; aitzitik, Donostiako jurisdikzioaren gainerako tokietan ez da horrelako aurkikuntzarik egin, oraingoz. Eta hori arazo garrantzitsua da hiribildua eratu aurreko mendeetan landa-ingurunea nola eraldatu zen berreraikitzeke. Kontuan izan behar da gaur egun Donostiako udalerriak okupatzen duen lurralde-eremu zabala oso aldatuta dagoela hiriaren hazkundearengatik eta lurzoruaren urbanizazioarengatik.

Adibide paradigmatico bat Donostiako badian bertan aurki dezakegu: Ondarreta eta Kontxako hondartzak bereizten dituen Loretopeko penintsula eta

¹⁹ Mutriku salbuespentzat har daiteke (1208. urtea baino lehenagoko forua du), baina Donostiaren (1180), Getariaren (1200 baino lehen), Hondarribiaren (1203) eta Zarautzen (1237) kasuetan, horrela gertatu zen.

muino txikia. Goi Erdi Aroan eliza bat zegoen geografikoki puntu gailena den toki horretan, eta XIII. menderako honela zen ezaguna: «*monasterium Sancti Sebastiani ueteris*»²⁰. Funtsean, bi datuk adierazten dute antzinakoa zela: alde batetik, «zaharra» adjektiboak eta, bestetik, tonboloko giza kokaguneak tenplu horren deitura hartzea izentzat, hau da, San Sebastian. Tamalez, orubean ikerketa arkeologikoak egitea oso nekeza da, paraje horretan eraikinak bata bestearen atzetik eraikitzean erabat itxuraldatu zelako. Labur-labur, honela zerrendatu ditzakegu lan horiek. Lehenik, XVI. mendearen erdialdean Donostiako moja domingotarren komentua eraiki zen, jatorrizko tenpluari atxikita, eta, tropa karlistek hiria setiatu zutenean, 1836. urtean erre eta suntsitu egin zen²¹. Bigarrenik, XIX. mendearen bigarren herenean dorre militar bat eraiki zen²², eta gero eraitsi. Hirugarrenik, Antiguako parrokia berreraiki zuten azken Gerra Karlistaren ondoren²³. Azkenik, penintsularen bi aldeak komunikatzen dituen lurpeko pasabidea eraiki zen²⁴ eta, bukatzeko, 1893. urtean Miramar jauregia eraiki zen. Ezin dugu erabat baztertu aztarna esanguratsuren batek iraun ahal izateko aukera, testuingurua nahaspilatuta egon arren, baina egia esan behar badugu, Donostiako historian esanahi handienetakoa duen enklabe bat ezin izan da arkeologikoki arakatu eta, beraz, ezin dira argitu giza kokagune horren jatorriaren inguruko alderdi ezezagunak.

Bertsio ezagunenaren arabera, eliza hori aspaldiko landa-eliza bat izan zitekeen hasierako garaietan²⁵ –ezin dugu garaia zehaztu, baina XI. mendea baino lehen betiere–, eta Kontxako badiaren inguruko bakarra izan zitekeen. Daturik ez dagoenez, ezin dugu ziurtatu jatorri hori erromatarren garaia amaiararen edo Antzinate Berantiarrean kokatzen denik, baina aukera hori kontuan izateko modukoa da. Antzeko egoera gertatu da Askizuko San Martin tenpluan Getarian. Aldarearen inguruan eta eraikineko absidearen kanpoaldean egindako indusketa arkeologikoetan nekropoli bat agertu zen, eta hilobi zaharrenak K.O. VI. men-

²⁰ MARTÍNEZ DÍEZ, G., GONZÁLEZ DÍEZ, E., MARTÍNEZ LLORENTE, F. J., *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas (1200-1369)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, 47. or.

²¹ Komentu horren historia osoa hemen: BARRADO BARQUILLA, J., *Las dominicas de San Sebastián el Antiguo. Cuatrocientos cincuenta años de historia en Donostia (siglos XVI-XX)*, Salamanca: San Esteban editorial, 2001.

²² SÁEZ GARCÍA, J. A., *Viejas Piedras. Fortificaciones guipuzcoanas*, Donostia: Michelena artes gráficas, 2000, 186-189 or.

²³ TXILLARDEGI, *Antigua 1900*, Donostia: Dr. Camino Institutua, 1993, 50-51 or.

²⁴ Berez, ez da tunel bat, baizik eta ganga edo bobeda baten gainean berriz lurrez estalitako zanga bat (TXILLARDEGI, *Antigua 1900*, 54-55 or.).

²⁵ GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., Una villa mercantil: 1180-1516. ARTOLA, M. (arg.), *Historia de Donostia-San Sebastián*, Hondarribia: Nerea arg., 2001, 20-21 or.

dekotzat jo ahal izan dira²⁶. Indusketa-lanetan ez zen parrokiaren orube osoa aztertu, eta ez dakigu ia ezer ehorzketa horiek gertatu ziren testuinguruari buruz, baina ukaezina da aurkikuntza horiek biziki garrantzitsuak direla orain arte oso ezezagunak zaizkigun gaien berri izateko; esaterako, Gipuzkoako lurraldean kristautze-prozesua nolakoa izan zen eta hasiera-hasierako garai haietan nola antolatzen ote ziren. Kasu honetan, datu aipagarria zera da, giza kokagune hori erromatarren garaian Getariako penintsulan populatuta zegoen enklabetik 2 km pasatxora dagoela, lerro zuzenean. Donostiako kasuarekiko paralelismoak nabarmenak dira oso. Une honetan oraindik ezohiko aztarnategia den arren, baliteke Donostiako landa-elizari ematen zioten «Antigua» kalifikatzaileak antzeko errealitatea ezkutatzea. Nolanahi ere, joka dezagun zuhurtziaz eta jatorri historikoa Goi Erdi Aroko garaira mugatuko dugu.

Antzinate Berantiarraren eta Erdi Aroaren arteko trantsizioa ez da argi-argoa Donostian. Horregatik, erromatarren garaia ondoko segidako mendeei buruz eta Goi Erdi Aroaren zati handienari buruzko datu zehatzik ez dugun arren, ez Donostiaren kasuan, ez-eta, oro har, Gipuzkoaren kasuan ere, lanerako hipotesi modura, Urola Kosta eskualdeari buruz dakiguna (funtsean, Getaria eta Zarauzko udalerriez ari gara) Donostiaren testuingurura estrapolatuko dugu. Hori horrela izanik, erromatarren garaian Urgull mendiaren babesean okupatutako kokaguneak Goi Erdi Aroan arte nola edo hala iraun zuela iradoki dezakegu, eta Goi Erdi Aroan, ziurrenik, herrixka bihurtuko zela.

III. DONOSTIAKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA FORUA IDATZI AURREKO GARAIA

700. urtetik aurrera, gutxi gorabehera, mendebalde kristauan egoera aldaketa bat gertatu zen landa-inguruneko edo nekazarien giza kokaguneei zegokienez²⁷. Lehenagotik errotuta zeuden giza kokaguneak eta etapa historiko horretan sortzen ari zirenak landa-elizen inguruan antolatzen hasi ziren²⁸, Behe

²⁶ PÉREZ CENTENO, J. M., ESTEBAN DELGADO, M., ALBERDI LONBIDE, X., San Martín de Tours (Askizu), *Arkeoikuskua* 07 (2008), 352-353 or. Eskerrak eman nahi dizkiot Xabier Alberdiri, indusketa-lanetan aurkitu zuten harkaitzean zulatutako hilobi antropomorfo bateko hezur-hondakinen datazioari buruzko informazio berria nirekin partekatzeagatik.

²⁷ GARCÍA, I., *Arqueología y poblamiento*, 185. or.; QUIRÓS CASTILLO, J. A., Las iglesias altomedievales en el País Vasco. Del monumento al paisaje, *Studia Historica, Historia Medieval*, 29 (2011) 388. or.

²⁸ Historiografian luze eta zabal landu da kontzeptu hori. Ikus, adibidez, FERNÁNDEZ CONDE, *La religiosidad medieval en España. Alta Edad Media (siglos VII-X)*, Xixon: Ediciones Trea (2. argitaraldia), 2008, 257-258 or.

Erdi Arotik aurrera parrokia modura ezagutzen ditugunen aurrekari modura. Herrixketako komunitateak elizaz hornitzen hasi ziren, eta harrezkero, izugarrizko garrantzia hartuko zuten eraikin haiek erkidegoaren antolaketa erlijioso, politiko eta sozialerako. Tenplu horiek debozio-eginkizunetan ez ezik, politikan ere funtsezko eginkizuna jokatzen hasi ziren garai hartako gizartearen antolamenduan²⁹.

Euskal Herriaren testuinguruan, azken hamarkadetan asko lantzen ari den fenomeno da, eta bereziki arrakastatsua izaten ari da Araban eta Bizkaiko zenbait giza kokagunetan³⁰. Arkeologiari esker Gipuzkoan ere aurkikuntza berriak ateratzen ari dira. Lurralde horretan Goi Erdi Aroko okupazioak utzitako aztarnei esker, garapen horren ildo nagusiak inguruko beste lurraldeetako antzekoak direla frogatzen ari da³¹. Tamalez, Donostiaren kasuan ez da indusketa-lanik egin hiribildu zaharreko eliza-esparruak aztertzeke; aitzitik, lehen ere esan dugunez, Andre Maria elizari zegokion eremuaren ertzetako batean egin ziren aurkikuntzak. Horrela, bada, oraingoz, Goi Erdi Aroko landa-eliza batekin lotutako aztarna zaharrenak ez dira 1000. urtea baino lehenagokoak. Nire ustez, hala ere, denbora-muga hori ikerketaren gora-beherek ezarritako ondorioa da, eta ez Donostia herrixka eta landa-elizen sortze-prozesu horren beranduko adibide bat delako. Lehen aipatu izan dugun bezala, bada hainbat zantzu erromatar garaiko jendeztatzea V. mendetik X. mendera arte ez zela eten pentsatzeko bidea ematen dutenak. Hortaz, litekeena da Donostiako eliza-sarea uneren batean konplexuago bihurtzea, VIII. mendetik aurrera. Zentzu horretan, Antiguako San Sebastian tenplua den artean goiztiarrena izan zen ideia onartu arren, pentsa genezake Andre Maria elizak ere urruneko iragana izan dezakeela, dokumentuetako lehen aipamena edo orain arte aurkitutako lehenengo aztarnak baino lehenagokoa, alegia.

Aitzitik, San Bizente elizaren hasierako garapena ilunagoa da oraindik. Elizaren perimetroko kaleetan hirigintza-lanak egin izan direnean, esaterako San Bizente kalean, jarraipen arkeologikoa egin izan da eta, ziurrenik Behe Erdi Arokoak diren beste hainbat aztarna arkeologikoren artean, harlauzazko hilobi

²⁹ ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., Parroquia, hábitat y comunidad en Guipúzcoa. Una propuesta para el estudio de sus relaciones entre los siglos XIII y XV, *Domitia*, 12 (2011) 89-112 or.; ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., *El laicado y sus instituciones en la configuración religiosa de Gipuzkoa en la Edad Media*, doktorego-tesia, 1. kapitulua.

³⁰ Iberiar penintsularen ipar-mendebaldeko koadrantean izandako eraldaketa horiei buruz azkenaldian egindako lan bat kontsulta daiteke hemen: VIGIL-ESCALERA GUIRADO, A., QUIRÓS CASTILLO, J.A., Arqueología de los paisajes rurales altomedievales en noroeste peninsular. CABALLERO Y ZOREDA, L., MATEOS CRUZ, P., CORDERO RUIZ, T., *Visigodos y Omeyas. El territorio*. Merida: Meridako Arkeologia Institutua-CSIC, 2012, 79-95 or.

³¹ Salbu eta, agian, herrixken sarea eratzen beranduago hasi izana, Mesetarekin alderatuta (VIGIL-ESCALERA, A., QUIRÓS, J. A., Arqueología de los paisajes rurales, 86-87 or.).

baten itxura zuena agertu zen³². Hilobi horretan egon zitezkeen giza aztarnei ez zitzaizen datazio absoluturik egin, baina tipologia ikusita, hipotesi modura, IX. mendetik XII. mendera bitartekoa izan zitekeela esan dezakegu³³. Gauza bat badakigu seguru: XII. mendearen amaieran tenplu hori lehen aldiz aipatzen dela eta kronologia hori bat datorrela hilobi horren datazio estilistikoarekin. Nolanahi ere, oraindik ezin dugu proposatu San Bizenteko lehen tenplua eraiki zuteneko datarik.

Etorkizunean San Bizente parrokia izango zenaren jatorria zein izan zen eta Donostiaren lurralde-arloko eta gizarte-arloko antolamenduan zer nolako eginkizuna bete zuen argitzeko, beste adierazle batzuei erreparatu behar diegu. Gipuzkoako gainerako hiribilduekin alderatuta, ezohiko gauza bat dago: harresiaren barruko esparruan kategoria edo eliza-maila bereko bi tenplu izatea. Ama Birjinari eskainitako tenplua erromatarren garaiko aztarnen gertuko ingurune batean kokatzen da, hau da, Urgulleko tonboloan kokatutako giza kokapen zaharretik hurbil, eta ikerketaren egungo egoeraren arabera, kokapen horrek adieraziko luke tenplu hori San Bizentekoa baino zaharragoa dela. Horrela, bada, Urgull menditik hurbileneko zerrendaren barruan, doi beste muturrean, eliza bat agertu zen, baina kota apalagoan, hau da, itsasoaren erasoaldien eragin handiagoaren pean; ikuspegi topografiko batetik, desadostasun kronologikoa berrets lezake horrek. Bestela esateko, eliza berria eraiki zutenean kokaleku egokiena lehendik okupatuta zegoela pentsa daiteke. Kontuan izan behar dugu harresi barruko bi tenpluak lotzen dituen ardatzetik –hau da, Abuztuaren 31 kaleak osatzen duenetik– urrunen dauden orubeetan egindako esku-hartzeetan erromatarren garaiko materialak aurkitu izan direla, baina beti bigarren mailako oposizioan, hau da, hasierako kokapenetik arrastatuta edo desplazatuta, amortizatuta geratu ostean³⁴. Beste modu batera esanda, Andre Maria eliza eta Santa Teresa komentua

³² AYERBE, M., FERNÁNDEZ, C., *Memoria de control arqueológico de las obras de rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia – San Sebastián (Gipuzkoa). Capítulo 2, Calles Narrica, San Vicente y San Juan*, 1992. Txosten hori argitaratu gabe dago oraindik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuko Arkeologia Artxiboan gordeta dago.

³³ Zarautzen aurkitutako ehorzketen kasuan, harlauzako hilobiak X. mendetik XII. mendera bitartekoak direla egiaztatu ahal izan da [IBÁÑEZ ETXEBERRIA, A., MORAZA BAREA, A., *Evolución cronotipológica de las inhumaciones medievales en el Cantábrico Oriental: el caso de Santa María la Real de Zarautz (Gipuzkoa)*, *Munibe Antropología-Arkeología*, 57 (2005), 419-434 or]. Iromendiko San Pedroren kasuan (Bidania-Goiatz), oraingoz datatu ahal izan den harlauzako ehorztoki zaharrena IX. mendekoa da (ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., San Pedro de Iromendi, *Arkeoikuska 2013* (2014), 285-289 or.); XII. mendean, aldiz, hobi sinpleko ehorzlekuak egiten zituzten horien ordez (ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., San Pedro de Iromendi, *Arkeoikuska 2015*, (2016), 308. or.).

³⁴ AYERBE, M., FERNÁNDEZ, C., *Intervención arqueológica en la casa nº 3 de la calle Embeltrán de Donostia-San Sebastián*, *Zainak 19* (2000), 215-226 or.

kokatzen diren muinotik kanpo lokalizatutako erromatarren aztarnak giza kokagunearen hedaduraren ebidentzia ez direla pentsa daiteke eta, beraz, oraingoz, antzinako giza kokagunearen eremua egungo Alde Zaharreko ipar-mendebaldeko gunera mugatzen da. Jarraibide hori baliagarria izan liteke, halaber, Erdi Aro osoan Donostiako tonboloaren lurzoruan izandako okupazioaren diakronia argitzeko. Ziurrenik, hasieran, hiriko egungo portu osoa ikusteko aukera ematen duen gailurra izango zen itsasoaren gorabeheretatik babestuen zegoen kokaleku seguruen, baina arian-arian, area perimetral berriak bermatu, lehortu eta finkatuko ziren, bizitegitarako eremuak zabaltzearen.

Alabaina, hori ez da aski tokiko entitate politiko berean eliza-maila bereko bi elizaren existentzia azaltzeko. Oraingoz, ez dugu lortu ebidentziarik interpretazio-hipotesi zehatz eta irmoak proposatzeko, baina nire ustez baliagarria izan daiteke hipotesi horien hasierako zirriborroak egiten hastea. Bikoiztasun hori azaltzeko, talde sozial heterogeneo bat txertatu behar dugu gure kontakizunean; Akitaniatik zetozenek osatzen zuten, funtsean, jende multzo hura, eta izen generiko bat jarri zitzaien: gaskoiak³⁵. Donostiako hiribilduaren etapa historiko hori aztertu duten historialariek talde sozial horrek hiribilduaren antolamendu politiko goiztiarrean izan zuen eginkizuna nabarmendu dute. Zenbait kasutan, hiribilduaren sorreran protagonista izan zirela ere aipatzen da³⁶, eta Kontxako badiaren erdian kokatuta zegoen biztanle autoktonoen herrixka tonboloko giza kokagunearekin –hiribilduaren hazi izango zenarekin– kontrajartzera ere iritsi izan dira, jatorri batez ere akitaniarreko komunitate berria puntu horretan kokatu baitzen. Gaur egun, badakigu Urgull mendiaren oinaldean kokatutako okupazioa populatzaile berri horiek iritsi ziren balizko unea baino lehenagokoa dela eta, hortaz, egokiagoa da beste proposamen hau egitea: gaskoiak jatorrizko giza kokagunearen ertzean kokatu zirela eta parrokia propioaren inguruan eratu zutela beren antolaketa politikoa. Funtsean zera proposatzen ari gara, Donostiako hiribildua sortu zenean bi burgu edo auzo zituela eta foruaren bitartez pribilegiatu zituztela.

Hipotesi hori berretsi egiten da lege-testu horretan egiten den bereizketarekin: alde batetik, nafarrak aipatzen ditu, hau da, eremu donostiarrekoak izanik jatorrizko herrixkan bizi zirenak eta, bestetik, frankoak, Baiona aldetik iritsitako atzerritarrei zegokienez. José Luis Orella Unzué irakasleak hipotesi hori berretsiko luketen ikuspegi berriak azaldu ditu; esate baterako, Logroñori emandako foru-testua baztertu eta Lizarrakoa hartu izana Donostiako forua idazteko oinarritzat. Hain justu Lizarrako Foruaren legez-ezaugarriek bil zezaketen bi giza

³⁵ Donostialdeko gaskoien erretratu zehatza aurki dezakegu hemen: ORELLA UNZUE, J. L., *La gasconización medieval occidental del Reino de Navarra*, *Lurralde*, 33 (2010), 177-208 or.

³⁶ BARRENA, E., *La formación histórica*, *op. cit.*, 372-377 or.

kokagunez osatutako hiribildu berri bat, bi kokaguneetako biztanleak fisikoki eta politikoki bereizita egonik; Logroñoan ez zen horrelakorik aintzat hartzen. Edonola ere, pentsa daiteke egoera horrek ez zuela luzaro iraun denboran, Behe Erdi Aroan Donostiari buruz aurkitu ditugun dokumentuek ez baitute iraupen horren ebidentziarik eman.

Beraz, zera iradoki dezakegu, Donostiako forua ez zela soilik populatzaile berrien ekimenaren fruitu izan; aitzitik, besteak beste, hiribilduan sortzen ari zen nahaspila politiko eta sozial konplexuari lege-esparru bat eskaintzea izango zuela xede.

Hipotesiarekin jarraituta, Donostiako hiribilduak izena aldatu eta egungo izena zergatik hartu zuen ere iradoki dezakegu. Gogoratu behar dugu Kontxako badiaren inguruan *villa* bat zegoela (Goi Erdi Aroko zentzuan ulertuta, hau da, herrixka bat) eta Izurun zuela izena zelako herrixkak, baina une jakin batean toponimo hori erabiltzeari utzi ziola³⁷. Donostiako tonboloan sortzen ari zen entitate politiko-juridikoa Goi Erdi Arokoarekiko nahikoa desberdina zen; agian, herrixkaren errealitatea pixkanaka aldatuz joan izana eta forua idatzi zen garaian edo apur bat aurretik lehen hiri-garapena abiatu izana izan daitezke horren arrazoiak. Bestalde, inguruko lurralde guztia antolatzeke asmoa zuen errealitate berriari izena jartzeko Antiguako landa-elizaren deitura erabili izanaren arrazoiak izan daiteke tenplu hori eta zegokion balizko herrixka kronologikoki lehenagoak izatea; alegia, hiribildu berria diseinatu zutenen edo haren sorreran parte hartu zutenen artean jada ezarritako errealitatea izatea. Entitate berriari ospea edo izen ona emateko modu bat izango litzateke, Donostiako badiaren inguruko giza kokagunearen jatorri mitikoaren –heine handiagoan edo txikiagoan– bitartez. Edonola ere, balizko azalpen bat baino ez da.

Azkenik, atala bukatzeko, Donostiaren lurralde-antolamenduaren interpretazioa egiten saiatuko naiz, betiere perimetro zabalagoa hartuta. Ikuspegia Donostiak gaur egun hartzen duen ingurune geografikora zabaltzen badugu, giza kokagunearen bilakaera nahiko konplexua izan zela ohartuko gara, Erdi Aroa izateko. Hiribilduaren inguruko perimetroan, lehen aipatu ditugun Antiguako San Sebastian eliza eta Urumea ibaiaren ertzeko Santa Katalina eliza egongo lirateke. Bigarren tenplu horren lehen aipamenak Behe Erdi Arokoak dira eta, horiei esker, badakigu Ospitaleko Ordenaren Zizurreko komendadoretzaren esku zegoela³⁸. Urumea ibaiaren itsasadarrean, portu ondoan kokatuta egonik, XVI.

³⁷ Hona hemen hitzez hitzeko aipamena: «*illam villam qui antiqui dicebant Yzurun*». BARRENA, E., *La formación histórica*, op. cit. 437-439 or.

³⁸ JIMENO JURÍO, J. M., Iglesias y euskera en Donostia: siglo XVI, *Vasconia*, 25 (1998), 217-242 or.

mendeko lekukotzen arabera, harresiez kanpoko inguruko herritarrei erlijio-zerbitzuak ematen zizkien³⁹; bi faktore horiek aintzat hartuta, Santa Katalina ere Goi Erdi Aroko landa-eliza izan zela pentsa liteke, baina ez zaigu posible sortze-datarik proposatzea. Izan ere, ikertzaileontzat ilunena den giza kokagunea da hori, Donostiako hirigintzak orube hori okupatuta duelako eta bertan egon zitekeen okupazio-sekuentzia suntsituta geratu zelako. Hipotesi modura zera proposatuko dugu, bi elizek herrixka bana egituratzen zutela.

Mendebalderantz, XII. mendetik aurrera dokumentuetan agertzen den beste giza kokagune bat egongo litzateke: Igeldo, Donostiako hiribilduan behin betiko txertatu zena 1379. urtean⁴⁰. Aldiz, egungo Donostiaren ekialdean dagoen lurraldean— hau da, Altza, Bidebieta, Intxaurren eta Pasaiaren mendebaldeko aldea (San Pedro)— ez dirudi herrixketan antolatutako egitura zutenik. XII. mendearen hasieratik aurrera, badakigu abeltzaintza-ustiapenerako tokia zela; Uli menditik Errenteria eta Astigarraga herrietara bitarte kokatutako hainbat saro edo korta-baso aipatzen dira, Iruñeko katedralari dohaintzan emandakoak. Altzaren kasuan, 1390. urtean, inguruko herritarrek San Martzial eskaintako eliza berria eraikitzea eskatu zuten⁴¹. Izan ere, populazio-dentsitatea areagotu egin baitzen, baita haien arteko lotura komunitarioak ere. Aldiz, Pasaiako badiaren mendebaldeko ertzaren kolonizazio-prozesuan izandako gertaera garrantzitsua 1450. urtean gertatu zen, San Pedro parrokia eraiki eta fundatu zutenean⁴². Edonola ere, forua eskuratzeko testuinguruan, badirudi lurraldearen ekialdeko gunea mendi-ustiapenerako erabiltzen zutela, habitat egonkorrik eta antolamendu politiko propiorik gabe. Ubako edo Huako Andre Mariaren ermita salbuespen izan daiteke; Ametzagañako muinoaren hegoaldeko magalean zegoen, Urumea ibaiaren behealdea mendean zuela, baina aurkitutako datu zaharrenak XVI. mendekoak dira⁴³.

IV. DONOSTIA HERNANIKO BAILARAN

VIII. mendetik aurrera hautematen hasten diren herrixka sareak, XII. menderako, lurralde-arloko egitura politiko-administratiboetan txertatuta zeuden, hau da, bailaratan. Bailara, kontzeptu historiografikotzat hartuta, E. Barrenak

³⁹ *Ibid.* 229. orr.

⁴⁰ Simancaseko Artxibo Nagusia, Ogasun Kontseilua, Ogasun Esp., 217,6 paper-sorta.

⁴¹ ZAPIRAIN KARRIKA, D., MORA AFÁN, J. C., Altza, de los cubilares al concejo, *Artiga* 1 (1997).

⁴² IRIJOA CORTÉS, I., *Pasaia: orígenes (siglos XIV-XVI)*, Pasaia: Pasaiako Udala, 2009.

⁴³ LIZARRALDE ELBERDIN, K., AGUIRRE SORONDO, A., *Ermitas de Gipuzkoa*, Ataun: Barandiaran Fundazioa, 2000, 157. or.

luze eta zabal landu zuen bere doktorego-tesian⁴⁴, eta J.A. García de Cortázar eta M. Achúcarro⁴⁵ autoreek ere aztertu izan dute. Geroago, I. García Caminok ere erreparatu izan dio bailara kontzeptuari, baina kasu horretan Bizkaiari dagokionez⁴⁶. Oro har, egile horiek kanpoko eragile feudalen eraginaren ondorioz tokiko errealitatea eraldatzearen testuinguruan kokatzen dute bailaren sorrera, eta herrixka-sareak agertzearekin lotzen dute prozesu hori. Gaur egun, interpretazio berriak proposatzeko moduan gaude.

VIII. mendetik aurrera sortzen hasia zen tokiko antolamendua, izatez, hurrengo mendeetan garatu zen, eta XII. mendearen inguruan lortu zuen puntu gorrena⁴⁷. Hark oinarrian zuen herrixka-sarea Gipuzkoako lurralde ia osoan barrena zabaltzen zen, betiere bizitzeko moduko altura batetik behera. Kasu gehienetan, egitura horren existentziaren froga agerikoena tenplu bat izan da; tenplu horiei dagokienez, edo parrokia moduan iraun dute, edo baseliza bihurtu dira, edo, muturreko kasuetan, desagertu egin dira eliza-eraikin edo instituzio gisa⁴⁸. Horrela, bada, ziurrenik, landa-eremuko eliza eta herrixken dentsitatea Behe Erdi Aroan baino handiagoa zen. Goi Erdi Aroaren amaieran, giza kokagune txikiz josita zegoen paisaia, landa-eliza xumeen inguruan egituratuta⁴⁹.

Antza, herrixka horiek ez zuten jurisdikzio propiorik, betiere Behe Erdi Aroan ulertzen zen moduan hartuta. Horrelako multzoa osatzen zuten etxe-unitateak eta beste zenbait eraikin osagarri (nekazaritza eta abeltzaintzarako, edo

⁴⁴ BARRENA, E., *La formación histórica*, op. cit.


⁴⁵ GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., *La sociedad guipuzcoana antes del fuero de San Sebastián. Congreso: El Fuero de san Sebastián y su época, San Sebastián: Sociedad de Estudios Vascos*, 1982, 89-111 or.; GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., *Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en los siglos XIII a XV: de los valles a las provincias*, *R.I.E.V.*, 45 (2000), 197-234 or.; ACHÚCARRO LARRAÑAGA, M., *La tierra de Guipúzcoa y sus «valles»: su incorporación al Reino de Castilla*, *En la España Medieval*, 4 (1984), 13-45 or.

⁴⁶ GARCÍA CAMINO, I., *Arqueología y poblamiento en Bizkaia (siglos VI-XIII). La configuración de la sociedad feudal*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 2002.

⁴⁷ ETXEZARRAGA, I., *El laicado y sus instituciones*, op. cit. 1. kapitulua.

⁴⁸ Prozesu hori haitemateko moduari buruzko lehen proposamena hemen egin nuen: ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., *Parroquia, hábitat y comunidad en Guipúzcoa*, op. cit. Gero, nire doktorego-tesiarene kapitulu batean interpretatu egin nituen (ETXEZARRAGA, I., *El laicado y sus instituciones*, 1. kapitulua).

⁴⁹ «*Le foisonnement spectaculaire de petits établissements ecclésiastiques dans l'Espagne chrétienne, et plus particulièrement dans les régions de mouvance asturo-léonaise, est une donnée aussi fréquemment souligné qu'incontestable. Les vallées qui nous occupent sont assurément concernées de très près par le phénomène*». LARREA, J. J., VIADER, R., *Aprisiones et presuras au début du IXe siècle: pour une étude des formes d'appropriation du territoire dans la Tarraconaise du haut Moyen Âge. De la Tarraconaise à la Marche supérieure d'Al-Andalus, IVe-XIe siècle. Les habitats ruraux. Méridiennes. Études médiévales ibériques*, Toulouse, CNRS-Université de Toulouse-Le Mirail, 2006, 173. or.



1. IRUDIA: Hernaniko bailararen gutxi gorabeherako mugak eta herrixkaren antolamenduaren ardatz ziren landa-eliza posibleak: 1- Santa Maria, 2- San Bizente, 3- Antiguako San Sebastian, 4. Ubako Andre Maria, 5- Igeldoko San Pedro, 6- Murgiako Andre Maria, 7- Sagastiagako San Martin, 8- Hernaniko San Joan, 9- Zikuñagako Andre Maria, 10- Oako Done Eztebe, 11- Agirreko San Martin, 12- Orioko San Nikolas, 13. Santa Katalina⁵⁰.

eskulangintzarako), soro-lurrez eta abeltzaintzarako lursailez inguratuta zeudela uste da, bakoitzak berea izanik. Nukleo horiek, aldi berean, herri-basoen eremu zabalen barruan kokatzen ziren⁵¹. Baliatze komunitarioko espazio hori herrixketako erkidegoetako kideek ustiatuko zuten, baina oraindik ez dakigu nola. Mendiko eremuak abeltzaintzarako erabiltzen zirela adierazten dute, esaterako, orain Aralarko Gipuzkoako partean aztertzen ari diren abeltzain-asetamentuek⁵².

⁵⁰ Mapa geuk egin dugu, iturri asko aztertu ondoren: ETXEZARRAGA, I., *El laicado y sus instituciones*, op. cit.

⁵¹ Antolamendu hori deskribatuta zegoen dagoeneko, hemen: GARCÍA I., *Arqueología y poblamiento*., 269-274 or.

⁵² MUJIKALUSTIZA, J. A., MORAZA BAREA, A., Establecimientos de hábitat al aire libre. Los fondos de cabaña de morfología tumular: características, proceso de formación y cronología, *Veleia*, 22 (2005), 77-110 or.

Gune horretan giza okupazioa Protohistoriatik datorrenez, gure azterketarako interesgarria den kronologiaren barruan datatutako hainbat txabola hauteman dira, hau da, Antzinate Berantiarraren eta Behe Erdi Aroaren artekoak. Abeltzaintzarako kokagune horiek urte-sasoaren arabera erabiliko zituzten, neguan klimatologia oso gogorra izaten baita, eta nekazariak mendialdeko gune komunitario horiek nola edo zertarako erabiltzen zituzten adierazten digute.

Testuinguru horretan, bailaretako antolamendua tokiko edo eskualdeko logika bati jarraikiz aztertzea proposatzen dugu, lurraldearen antolamendu politiko eta ekonomikoari zentzua emanez. Lehenengo milurtekoaren amaierarako bazen herrixka-sare bat, eta lurraldeko populazioa nukleo txiki eta ugaritan bizi zen; herritar horiek basogintza-, abeltzaintza- eta industria-aprobetxamendurako guneak partekatzen zituztenez, kudeaketarako eta erabakiak hartzeko eremu erkideak izan behar zituzten nahitaez. Zentzu horretan, kanpoko botereetatik ezarritako lurraldea egituratzeko eta lurraldeko gizartea antolatzekeko modu bat baino gehiago, mugape geografiko horiek mendiko baliabideen eguneroko erabilera ebazteko premiari erantzuten zieten zientzia liteke eta, agian, tokiko eta erkidegoen arteko intereseko beste alderdi batzuei ere bai.

Donostiaren kasuan, Kontxako badiaren inguruan kokatzen ziren herrixkak Hernaniko bailaran sartzen ziren⁵³. Mugape horrek Oiartzungo bailara zuen mugakide ekialdean, Leringoa hego-ekialdean, Leitzakoa hegoaldean, Zizurkilgoa hego-mendebaldean eta Saiatzekoa mendebaldean; Hernaniko bailara horretan sartuko lirake gaur egungo Oriu, Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia, Pasaia San Pedro eta Hernani. Bailara horretako antzinako herrixkek, segur aski, basogintzako eta abeltzaintza-ustiapenerako hainbat gune partekatuko zituzten, hala nola Igeldoko eta Uliu-Altzako mendilerroak eta, Behe Erdi Arotik aurrera, Uru-meako Zilegi Mendiak izena hartu zuen eremu zabala⁵⁴. Bada planteamendu hori berresten duen ebidentziarik; esaterako, inguru hartan XII. mendetik, gutxienez, dauden korta edo antzinako saroiak⁵⁵. Abeltzaintzako kokagune horiek gerora mugatu egin ziren mugari nagusi batetik abiatuta; horrelako kokaguneen berezitasun bat da, alde batetik, herri-basoaren barruan area individualizatuak osatzen zituztela eta, bestetik, titularrei hainbat eskubide esleitzen zitzaizkiela, mendia-

⁵³ Horren frogatzen da, adibidez, Antiguako elizaren 1101. urteko aipamena: «*San Sebastián... infinitibus Hernani*». BARRENA, E., *La formación histórica*, op. cit. 427. or.

⁵⁴ Azken ingurune horren kasuan, bilakaera historikoaren azterketa zehaztua egin zen hemen: AYERBE IRIBAR, R., Los llamados Montes Francos del Urumea. Un ejemplo de desintegración de los comunales supramunicipales guipuzcoanos (s.XIV-XVII), *BEHSS*, 47 (2014), 15-64 or.

⁵⁵ ARAGÓN RUANO, Á., Relaciones ganaderas entre Navarra y Guipúzcoa durante la Baja Edad Media y el comienzo de la Edad Moderna, *En la España Medieval* 38 (2015), 13-35 or.

ren herri-ahoretzameneko araubidean salbuespena eginez⁵⁶. Egiaztatuta dago saroiak sakabanatuta zeudela deskribatu diren eremu geografikoetan, Donostiak forua lortu zuenerako; hortaz, zeharka bada ere, foruaren ondoriozko mapan hauteman zitekeen, agian, zeintzuk ziren bailarako herri-erabilerako guneak.

Ikusiko dugunez, X. mendetik aurrera, loraldi ekonomikoaren adierazgarriak nahiko argiak dira jada Kantauri Ekialdeko sektorean, hartaraino non faktore ekonomikoak aintzat hartu beharreko elementu oso garrantzitsutzat hartu behar baitira, XII. mendetik aurrera gertatuko ziren aldaketa politiko eta juridikoak ulertze aldera. Gaur egun, bada ebidentzia arkeologikorik Tarteko Erdi Aroan populazioan aldaketak izan zirela sostengatzeko eta, ondorioz, baita tokiko antolamendu-egituretan ere⁵⁷. Eraldaketa hori, funtsean, landa-elizen sarean izandako aldaketetan eta Goi Erdi Aroko nekropoliak alde batera uztean hautematen da⁵⁸. Baliteke zenbait nukleoren garrantzi estrategikoa areagotzearen ondorioz populazioa erakartzeko ahalmena ere areagotu izana, hazkunde demografikoa gertatzea eta, hortaz, lurraldea antolatzeke egitura zaharretan eta egitura juridiko zaharretan desoreka sortu izatea. Gaur egun, aukera hori ez da sakon aztertu oraindik; beraz, aintzat hartu beharreko interpretazio-proposamentzat jo beharko da. Kasu honetan ere, Arkeologiak planteamendu hori berretsi, zehaztu edo baztertzten duten datu berriak eman ahalko dizkigu.

Nolanahi ere, Donostiari emandako maila juridikoa –hiribilduarena– artean berria zenez Gipuzkoan, lurraldearen aurreko antolamenduan nahasmen-dua eragin zuen. Foru-testuan iradokitzen diren mugak (ez dira zehatzak, inondik inora ere) bat etor litezke bailararen mugekin⁵⁹, eta epe luzera, inguruko

⁵⁶ ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., ARAGÓN RUANO, Á., Entre la explotación pastoril y la forestal. La evolución en el uso y explotación de los seles en el País Vasco. GRAU SOLOGESTOA, I., QUIRÓS CASTILLO, J.A., *Arqueología de la Edad Moderna en el País Vasco y su entorno*. Oxford: Archeopress Publishing LTD, 123-139 or.

⁵⁷ Prozesu hori justifikatu da hemen: ETXEZARRAGA, I., *El laicado y sus instituciones*, op. cit. 1. kapitulu.

⁵⁸ Garai berean, aldaketa horiek sumatu ziren Bizkaian ere (GARCÍA, I., *Arqueología y poblamiento*, 347-348 or.). Egia esateko, Iberiar penintsularen ipar-ekialdeko ertza gaintzen duen prozesua da (PARISSE, M. 1993, «Le recadrement du clergé séculier», MAYEUR, J. M., PIETRI, L., VAUCHEZ, A. VENARD, M. (zuz.) *Histoire du Christianisme des origines à nos jours. Tome V: Apogée de la Papauté et expansion de la Chrétienté (1054-1274)*. Paris: Desclée, 1993, 266-268 or.).

⁵⁹ Kasu askotan, hiribilduen sorrerak barruti berriak Goi Erdi Aroko bailaratik bereiztea ekarri bazuen ere, Donostiaren kasuan ezin dugu baieztatu hori egin. Testuan aipatzen diren muga geografikoak honako hauek dira: Hondarribitik Oria ibaira, kostaldetik Errenga mendira eta Aranoko San Martinera (mugako herria da Arano, eta egun Nafarroari dagokio). Hiribilduen populatzearen jatorriari buruz gaur egun dugun ezagutza aintzat harturik, kontuan izan behar dugu, hain zuzen ere, Aranoko herrixka Hernaniko bailaratik bereizitako mugapea zen bezala, Hondarribia ere ezin dela hartu Donostiaren jurisdikziopeko herritzat. Oiarzungo bailararen ekialdeko eremua, ziurrenik, bere eraldatze-prozesuan sartuta

hainbat herri (Hernani, Orío, Usurbil eta Astigarraga) zein bere bidea egiten hasi zen. Donostiako lurraldean eraldaketa juridiko eta politikoa gertatu izanaren beste froga bat zera izan zen, Iruñeko interesak Nafarroako erresumaren iparraldeko mugetan defendatuko zituen tenente bat ezarri zela bertan, erregearen ordezkari; gai horretaz mintzatuko dira beste parte-hartzaile batzuk lan honetan.

V. BIZITASUN EKONOMIKOAREN FROGAK KANTAURIKO EKIALDEKO EREMUAN

Zalantzarik gabe, atzerritar taldeak eta, batik bat, Baiona aldetik zetozen gaskoiak Donostia ingurura iritsi izanak zera adierazten du, Gipuzkoaren ekialdea irakinaldi ekonomiko betean sartuta zegoela. Egia esan, zaila da zehaztea eskualdeak zer nolako aukerak eskaintzen zizkien iritsi berriei, baina eskura ditugun datuetan oinarrituta, egoeraren erretratua egiten saiatuko naiz.


Alde batetik, itsas merkataritza dagokionez kokapen estrategikoa du, eta itsas kabotajeko bidea ainguratoki naturalez beterik dago (Kontxa, Pasaia eta Asturiaga-Hondarribia); erromatarren garaian bezalaxe⁶⁰, ezaugarri horiek garapenerako faktoretzat jotzen dira. Portu natural horiek, gainera, kostaldea eta lurraldearen barnealdea lotzen zituzten lehorreko eta ibaietako bideen ondoan zeuden, eta horrek giza kokaguneen potentzialtasun estrategikoa areagotzen zuen; giza kokapen horiek merkataritza-trafikoaren lotune izango lirake.

Nire ustez, gaur egun, agerikoa da Gipuzkoako kostaldeko lehen hiribilduen loraldia eta XIII. mendearen lehen erditik aurrera hiribildu horiek merkataritza atlantikoan jada zuten protagonismoa ez zirela izan, soilik, lege-antolamendu berria lortu izanaren eta hiri-esparru berri bat sortu izanaren ondorio. 1237. urtean Donostiak eta Mantxako kanaleko hainbat portuk merkataritza-ituna sinatu zuten,⁶¹ baina horren aurretik, euskal ontziek presentzia handia izan behar

egongo zen eta, prozesu horren emaitza modura, 1203an hiribildu gisa eratu zen (MARTÍNEZ G. et alii, *Colección de documentos medievales*, 20. or.). Ez zaigu kasualitatea iruditzen, halaber, herri horretako foruan zehaztea Lezoko biztanleak («*dono bobis Guillelmum de Lacon et socios suos*») Hondarribiko jurisdikzioari atxiki behar zitzaizkiola, zegokien lurraldetik bereizita, hau da, Hernani/Donostiatik edo Oiartzundik. Hor islatuko lirakeke Pasaia badiaren titulartasunaren eta kudeaketaren harira kostaldeko bi hiribilduen eta Errenteriako hiribilduaren (Villanueva de Oiartzun) artean Behe Erdi Aroan izandako gatazkak.

⁶⁰ Itsas bide horrek Gipuzkoako populazioaren garapenean izandako eraginari buruz dihardu, luze eta zabal, honako lan hau: ESTEBAN, M., *Presencia romana en San Sebastián*. *op. cit.*

⁶¹ CHILDS, W., *Commercial relations between the Basque Provinces and England in the Later Middle Ages, c.1200-c.1500*, *Itsas Memoria*, 4 (2003), 55-64 or.



2. IRUDIA: Gipuzkoako ipar-ekialdeko koadrantean Erdi Aroan eta aro modernoan identifikatutako sarioien mapa⁶².

zuten, nahitaez, Bizkaiko Golkoan, hala iparralderantz, nola mendebalderantz. Horrela, eduki ekonomiko garrantzitsuko forua idatzi izana baliteke bertako biztanleen eta kanpotik etorritakoen arteko harremanak –gero eta indar handiagoa hartzen ari zen jardueraren inguruan– arautzeko premiari emandako erantzuna izatea.

Kantauri ekialdeak eragile batzuentzat zein besteentzat hainbat aukera eskaintzen zituen ideia lehendik ezagunak ziren dokumentuetako datuen beste interpretazio batean eta datu arkeologiko berrietan oinarritzen da. Agertoki ekonomiko berri horretan, mendiaren ustiapen-maila oso handia da, batik bat, hiru jardueratan. Alde batetik, XII. mendeko dokumentazioan korta eta sarioien dentsitate handia aipatzen da, eta hori mendialdeen aprobeixamendu handiaren adierazle izan daiteke. Azkenaldiko azterlanek erakusten dutenez, herri-lurren abeltzaintzarako erabilera zorrotz araututa zegoen; araubide horren arabera, kanpoko abeltzainen behi-taldeek beren jatorrira itzuli behar zuten gaez, Erdi Aroan

⁶² Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroak sustatutako eta lerro hauek sinatzen dituen honek zuzendutako hainbat ikerketatan oinarrituta. Ondorio nagusiak hemen azaltzen dira: ETXEZARRAGA, I., ARAGÓN, A., Entre la explotación pastoril y forestal, *op. cit.*

Gipuzkoan indarrean zegoen egusentitik gauera arteko araua betetzeko⁶³. Behi-talde handien jabeek –esate baterako, Iruñeko katedrala– saroi saroi eramaten zituzten abelburuak Nafarroako mendialdetik kostaldeko mendizerretara –Jaizkibelera edo Igeldora, esaterako–. Datu zehatzik ez dugun arren, ez dago frogarik abelburu horien xede-inguruneetako herrixketako biztanleek mendi horiek berak ez zituztela ustiatzen esateko. Aitzitik, lehen ere esan dugunez, saroiak egoteak eta egusentitik gauera arteko arau horren salbuespena betetzeko gune edo lursailak sortzeko premiak adierazten dute gune horiek berak abeltzaintzarako baliatzen zirela eta aprobetxamendu hori kudeatzeko sistema bat bazegoela. Bestela esateko, jarduera bat araututa baldin badago, jarduera hori garrantzitsua den seinale da, nire ustez. Eguzkitik eguzkirako larre-eskubideak muga bat ezartzen du balizko abusuen aurrean, eta herri-basoan sartzeko eskubidea dutenen alde egiten du; saroiak interes partikularrei erantzuteko modu bat da.

Bestalde, itsasoko eta ibaietako baliabideen ustiapenak garrantzi handiko sektorea izan behar zuen Tarteko Erdi Aroko ekonomian. Baleen harrapaketa eta bale-produktuak merkaturatzea jarduera oso garrantzitsua izan zen Euskal Herriko kostaldeko herri askotan, belaunaldi askorentzat. Horren adierazgarri da, esaterako, aprobetxamendu horrekin lotutako ikonografia txertatu izana Kantauri Ekialdeko hiribildu askoren armarrietan. Gipuzkoan, jarduera horri buruz dokumentuetan aurkitu den aipamenik zaharrena 1200. urtekoa da; aipamen horri esker, badakigu Mutrikuko populazioak zetazeoen baliabideak ustiatzen zituela ordurako⁶⁴. Datu berriek jarduera horren kronologia zaharragoa frogatuko luke; izan ere, baleen hezurren aztarnak aurkitu dira Getariako Zarautz Jauregiko aztarnategian, herriak forua lortu aurreko Goi Erdi Aroko testuinguruan⁶⁵. Era berean, XII. mendeko dokumentazioaren arabera, ibaietan arrantzarako hainbat instalazio izaten ziren, «pesquera» edo nasa deituak⁶⁶. Antiguako San Sebastian landa-elizari atxikitako jabetzen artean zegoen horietako bat. Nasa haren aztarna modernoena Añorga erreka bokaletan detektatu dira, Ondarretako hondartzaren mendebaldeko sektorean⁶⁷. Tamalez, ez dugu informaziorik Gipuzkoan aldi horretan egiten zen itsasertzeko arrantzari buruz.


⁶³ Horrelako arauak Aragoiko Pirinioetan ere hauteman dira; «alera foral» deitzen zaie han. Gai horiek hemen zehazten dira: ARAGÓN, A., *La ganadería guipuzcoana*, *op. cit.* 32-45 or.

⁶⁴ BARRENA, E., *La formación histórica*, *op. cit.* 440-441 or.

⁶⁵ Eskerrak eman nahi dizkiogu X. Alberdiri emandako informazioarengatik. Aztarnategi hori aztertzen ari dira oraindik, eta baleen arrastoen kronologia absolutua eta arrasto horiek berreskuratu zireneko testuinguru arkeologikoa zehazteko lanetan ari dira.

⁶⁶ BARRENA, E., *La formación histórica*, *op. cit.* 427. eta 437-439 or.

⁶⁷ XVIII. mendeko kronologiarekin, hondarretan bikoteka sartutako postez eratutako sistema bat da, eta oinplanoan itsasorantz zabaltzen den parabola baten irudia egiten du. Ziurrenik, instalazioaren



3. IRUDIA: Euskal Herriko aztarnategi paleometalurgikoen mapa; Donostiaren inguruko mendialdea markatuta dago⁶⁸.

Azkenik, azken hamarkadetan beste jarduera bati ere garrantzi berezia ematen ari dira: burdinaren produkzio aurre-hidraulikoari. Mendiko burdinola edo *haizeolak* erabiltzen zituzten zaineko minerala (hematitea) burdina forjagarri bihurtzeko. Arkitekturaren eta egituraren aldetik monumentaltasun urrikoak izaki, hainbat elementuz osatutako konplexuak ziren: kaltzinazio-labeak, erredukzio-labeak eta bestelako instalazio osagarriak izaten zituzten, eta mendi-magaletan askotariko posizioa hartzen zuten, oro har, iturburuetatik getru, ibai-ertzean edo hainbat ibai elkartzan ziren tokian. Bizkaian erromatarren garaitik etenik gabe dokumentatuta dauden arren, X. mendetik XIII.era artekoa izan zen

faserik modernoena izango da, eta instalazio hori hainbat posiziotan jarriko zuten Añorga errekan, ingurunearen topografia eta morfologia aldatu ahala. Egitura horren dokumentazioari buruz gehiago jakin nahi izanez gero: ALBERDI LONBIDE, Xabier, PÉREZ CENTENO, J. M., Estructura lígnea en la playa de Ondarreta, *Arkeoikuska* 03 (2004), 149. or.; PÉREZ CENTENO, J. M., ALBERDI LONBIDE, X., Nasa de Ondarreta, *Arkeoikuska*, 2005 (2006), 469-470 or.

⁶⁸ Euskal Herriko Meataritzaren Museoko Arkeologia Taldeak egindako banaketa-mapa, egileek egindako landa-prospekzioan oinarrituta eta beste lantalde batzuen lanak berrikusi ostean (besteak beste, ikus FRANCO, J., ETXEZARRAGA, I., ALBERDI, X., Los orígenes de la tecnología del hierro, *op. cit.*).

jardueraren aro gorena Euskal Herri kantauriarrean⁶⁹. Industriaurreko horrelako ehunka instalazio aurkitu dira Euskal Herriaren kostaldean eta, beraz, pentsa dezakegu Erdi Aroko metalurgia-jardueraren lehen goraldi hura produkzio-prozesuan energia hidraulikoa sartu aurretik gertatu zela.

Oiartzunen eta Hernanin ere aurkitu izan dira horrelako instalazioen ale batzuk; aipatzeko modukoak dira Astigarragaren eta Hernaniren arteko egungo mugan, Urumeako Zilegi Mendien eremuko Epele errekan, aurkitutako zepadiak. Aztertu gabe daude oraindik, baina uste izatekoa da instalazio horietako produkzioa ez zela barne-merkatua asetzera soilik bideratuko. Mendiko burdinola edo haizeolen adibidetzat har ditzakegu Aia behealdean, Amaserreka eta Manterolako erreken ertzean identifikatu direnak; XIII. mendearen amaieran ibaietatik eta itsasoz esportatzen zen burdina erreduzitzen zuten instalazioen aurrekariak direla esan daiteke⁷⁰.

Beste produkzio-jarduera batzuei dagokienez, arrantzako eta merkataritzako jardueren goraldiaren aurrean, ondoriozta daiteke ontzigitzako industria garrantzitsua behar izango zutela. Aldi berean, jarduera horrek eragina izango zuen basoen ustiaketan. Dena den, oraingoz eta aztertzen ari garen kronologiari dagokionez, ezin dugu ezer zehaztu eta, beraz, espekulazioen alorrean gabiltza oraindik.

VI. ONDORIOAK

Esan dugunez, aurkeztutako panorama hori interpretazio-ahalegina egitearen ondorio da, betiere orain eskura ditugun ebidentzietan oinarrituta. Arkeologiak agerian utzi du kontakizun historikoa berritu egin behar dela eta ikerketa-ildo berriei ekin behar zaiela. Nire ustez, etapa historiografiko berri baten atarian gaude, eta azterketa honetako planteamenduan abiapuntu berri bat eskaini baino ez dugu egin nahi izan, berehala gaindituko den abiapuntua, espero dut. Edonola ere, balio beza interpretazio-esparru berriak eratzeko lanerako hipotesi modura.

Eskura ditugun datuetan oinarrituta, kontakizuna eraiki ahal izan dugu, non protagonistak bi diren, lehen ez bezala: lehen, errentak eta baliabideak lor-

⁶⁹ FRANCO PÉREZ, J., ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., ALBERDI LONBIDE, X., Los orígenes de la tecnología del hierro en el País Vasco: ferrerías de monte o haizeolak, *Kobie Paleoantropología*, 34 (2014), 267-282 or.; ALBERDI LONBIDE, X., ETXEZARRAGA ORTUONDO, I., Proyecto de investigación de las ferrerías de monte o haizeolak en Gipuzkoa y Álava. Avance de resultados, *Kobie (anejos seriea)*, 13 (2014), 181-192 or.

⁷⁰ DÍEZ DE SALAZAR, L. M., El comercio y la fiscalidad de Guipúzcoa a fines del s. XIII, *BRSBAP*, 36, 1-4, (1980), 239-277 or.

tzeko asmoz lurraldea eraldatu nahi zuten kanpoko eragileak ziren protagonista eta, orain, tokiko eragileekin partekatu behar dute protagonismo hori. Historiarik gabeko lurraldea omen zen, gizarte isolatua zuena eta gurgil amaigabe batean harrapatua zegoena kanpoko eraginak agertzen hasi ziren arte; baina orain badakigu hori ez zela horrela. Antzinate Berantiarraren eta Behe Erdi Aroaren artean garatu ziren tokiko dinamikak inguruko eskualdeetako dinamiken antzekoak izan zirela esan dezakegu. Bestalde, berezitasun geografikoen eta abiapuntuko egitura politiko, sozial eta ekonomikoaren arabera, Erdi Aroko eraldaketak desberdinak izan ziren toki batzuetan eta besteetan. Egiazta daitekeenez, nire ustez, barneko eta kanpoko interes eta eraginak hartu behar dira aintzat, kasu honetan, Donostiako forua idatzi zeneko testuinguruaren esparru historikoa berrekitzeko.

Hiribildu berriak sortzeko prozesua Erdi Aroko koroen edo kanpotik etorritako botere-taldearen estrategia ekonomiko eta politikoen barruan txertatu izan da, oro har, eta hausnartutako plangintza baten ondorioztat jo izan da. Oro har, irudi luke errege-kantzilertzak direla lurraldea eraldatu nahi zutenak, monarkia-aren premietara egokitzeko. Gorteen interesak gutxietsi gabe, testuan aurkeztu dugun panoraman, nire ustez, tokiko dinamikak lagungarri izan daitezke lurraldearen antolamendu politiko eta juridiko berriaren garapenari buruzko azalpena emateko. Nik esango nuke, zein bere testuinguru geografiko eta kronologikoan, Gipuzkoako hiribilduen sorrera arrazoi ugari eragindako tokiko eraldaketa baten ondorio izan zela, eta erregeak berretsitako legeria lortzearen bitartez areagotu, zuzendu edo bideratu nahi izan zutela eraldaketa hori.

Aurrera begira, oso interesgarria izango litzateke tokiko eragina izan zuten eta lurraldearen antolamenduan aldaketa eragin zuten faktoreak aztertzen jarraitzea. Zentzu horretan, hiri-arkeologiak informazio asko eta oso baliagarria eskain dezake, eta aurrekarien erretratu berria osatzen ez ezik, eredu juridiko, politiko eta ekonomiko berriak izan zuen emaitzaren –hiribilduen sarea– erretratua eraikitzen ere lagundu beharko luke. Ildo beretik, argi dago frogarkeologikoak ez direla behar adina aztertu; ebidentzia horiek kultura materialean izandako aldaketei buruzko informazio gehiago eskain dezakete eta, berreskuratutako artefaktuen bitartez, merkataritza-harremanak hauteman daitezke. Donostiako kasuan, programatutako indusketak egin behar dira lehenbailehen, area zehatzak ikertzeko eta aurreko ataletan aurkeztu ditugun zalantzak argitu ahal izateko. Bereizitako bi burgu ote zeuden argitzea, eta populazioa harresiaren barruko parrakia bakoitzeko jurisdikzioetan jatorriaren arabera banatzen ote zen hipotesia ere bide horretatik argitu litezkeen auziak dira. Horretarako, Koruko Andra Mariaren eta San Bizente tenpluekin lotura zuten Erdi Aroko nekropoliei buruzko diziplina anitzeko azterketak egitea funtsezkoa izan daiteke, eta hipotesi hori berretsi edo baztertuko duen informazioa eskain dezakete.

Zentzu horretan, urgentziazko esku-hartze arkeologiak, alegia, obrak egingo diren eta, oro har, substratu arkeologikoa suntsitzen duten espazioak dokumentatzeko premiari erantzuten dionak, datu interesgarriak eskaintzen ditu, baina, ausazkoa izaki, gaiaren egungo egoera gaingintzeko benetako aurrerapau-soak egitea eragozten du. Zientziak aurrera egin ahala, iraganeko aztarna materialetan esku hartzeko modua birplanteatu beharko da. Ikerketa arkeologikorako plan estrategiko bat egitea tresna gutziz egokia izan daiteke, epe ertainera, hiriarren iragan urruna hobeto ezagutu eta, bereziki, 1180. urtearen inguruan hiribil-du berri moduan sortu eta eratu zeneko testuinguruaren ezagutzan aurrerapenak egin ahal izateko.

VII. BIBLIOGRAFIA

- ACHÚCARRO LARRAÑAGA, Mercedes, La tierra de Guipúzcoa y sus «valles»: su incorporación al Reino de Castilla, *En la España Medieval*, 4 (1984), 13-45 or.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier, Yacimiento de Mukitar, *Arkeoikuska*, 2011 (2012), 367-368 or.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier, Yacimiento de Mukitar, *Arkeoikuska*, 2012 (2013), 303-305 or.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier, Yacimiento de Mukitar, *Arkeoikuska*, 2013 (2014), 315-316 or.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier, ARAGÓN RUANO, Álvaro, PÉREZ CENTENO, Jesús Manuel, Quince años de investigaciones histórico-arqueológicas en torno a Getaria, *Munibe* 57-2 (2005-2006), 435-451 or.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier, PÉREZ CENTENO, Jesús Manuel, DEL BARRIO BAZAKO, Luis, Yacimiento de Mukitar y prospecciones en los alrededores, *Arkeoikuska*, 2010 (2011), 427-428 or.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier, PÉREZ CENTENO, Jesús Manuel, Estructura lúnea en la playa de Ondarreta, *Arkeoikuska*, 03 (2004), 149 or.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier, ETXEZARRAGA ORTUONDO, Iosu, Proyecto de investigación de las ferrerías de monte o haizeolak en Gipuzkoa y Álava. Avance de resultados, *Kobie (serie anejos)* 13 (2014), 181-192 or.
- ARAGÓN RUANO, Álvaro, *La ganadería guipuzcoana en el Antiguo Régimen*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.
- Relaciones ganaderas entre Navarra y Guipúzcoa durante la Baja Edad Media y el comienzo de la Edad Moderna, *En la España Medieval*, 38 (2015) 13-35 or.

- AYERBE, Miren, FERNÁNDEZ, César, Intervención arqueológica en la casa nº 3 de la calle Embeltrán de Donostia-San Sebastián, *Zainak*, 19 (2000), 215-226 or.
- Memoria de control arqueológico de las obras de rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia – San Sebastián (Gipuzkoa). Capítulo 2, Calles Narrica, San Vicente y San Juan*, 1992, Argitaratu gabeko txostena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Saileko Arkeologia Artxiboan sartua.
- AYERBE IRIBAR, Rosa, Los llamados Montes Francos del Urumea. Un ejemplo de desintegración de los comunales supramunicipales guipuzcoanos (s.XIV -XVII), *BEHSS*, 47 (2014), 15-64 or.
- AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín, SOLAUN BUSTINZA, José Luis, La cerámica altomedieval en el País Vasco (siglos V-X d.C.): producciones, modelos productivos y patrones de consumo. VIGIL-ESCALERA GUIRADO, Alfonso, QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio (zuz.), *La cerámica de la Alta Edad Media en el cuadrante noroeste de la Península Ibérica (siglos V-X). Sistemas de producción, mecanismos de distribución y patrones de consumo*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2016, pp.193-228.
- BARRADO BARQUILLA, José, *Las dominicas de San Sebastián el Antiguo. Cuatrocientos cincuenta años de historia en Donostia (siglos XVI-XX)*, Salamanca: San Esteban editorial, 2001.
- BARRENA OSORO, Elena, *La formación histórica de Gipuzkoa*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1989.
- BUCES CABELLO, Javier, Plaza Lezoaundi, *Arkeoikuska*, 10 (2011), 375-376 or.
- CEBERIO RODRÍGUEZ, Manu, Primeros testimonios de época antigua en el tramo final del valle del Oria: el yacimiento de Irigain (Usurbil, Gipuzkoa), *Munibe (Antropologia-Arkeologia)* 61 (2010), 243-259 or.
- CHILDS, Wendy, Commercial relations between the Basque Provinces and England in the Later Middle Ages, c.1200-c.1500, *Itsas Memoria*, 4 (2003), 55-64 or.
- DÍEZ DE SALAZAR, Luis Miguel, El comercio y la fiscalidad de Guipúzcoa a fines del s.XIII, *BRSBAP*, 36, 1-4 (1980), 239-277 or.
- ESTEBAN DELGADO, Milagros, La vía marítima en época antigua, agente de transformación en las tierras costeras entre Oiasso y el Divae, *Itsas Memoria*, 4 (2003), 13-40 or.
- Presencia romana en San Sebastián. UNSAIN AZPIROZ, José María (ed.), *San Sebastián, ciudad Marítima*, San Sebastián: Museo Naval, 2008, 153-161 or.

- Arbiun. Taller metalúrgico en el enclave romano de la gran bahía de Getaria, *Kobie (serie anejos)*, 13 (2014), 93-110 or.
- ESTEBAN DELGADO, Milagros, IZQUIERDO MARCULETA, María Teresa, MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, PÉREZ CENTENO, Jesús Manuel, La difusión de la terra sigillata hispánica tardía (TSHT) y otras cerámicas finas en el Cantábrico oriental, *Ex Officina Hispana*, 1 (2012), 139-160 or.
- ESTEBAN DELGADO, Milagros, IZQUIERDO MARCULETA, María Teresa, MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, La cerámica de época romana en el País Vasco atlántico: Redes comerciales y consumo, *Ex Officina Hispana*, 2, T.I. (2014), 193-210 or.
- ETXEZARRAGA ORTUONDO, Iosu, Parroquia, hábitat y comunidad en Guipúzcoa. Una propuesta para el estudio de sus relaciones entre los siglos XIII y XV, *Domitia*, 12, 89-112 or.
- San Pedro de Iromendi, *Arkeoikuska 2013* (2014), 285-289 or.
- San Pedro de Iromendi, *Arkeoikuska 2015* (2016), 306-311 or.
- ETXEZARRAGA ORTUONDO, Iosu, ARAGÓN RUANO, Álvaro, Entre la explotación pastoril y la forestal. La evolución en el uso y explotación de los seles en el País Vasco. GRAU SOLOGESTOA, I., QUIRÓS CASTILLO, J.A., *Arqueología de la Edad Moderna en el País Vasco y su entorno*. Oxford: Archeopress Publishing LTD, 123-139 or.
- IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Alex (ed.), *Santa María la Real de Zarautz (País Vasco). Continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a.C. y XIV d.C.*, Munibe Gehigarria 27, Donostia: Aranzadi Zientzia Elkartea, 2009.
- IZQUIERDO MARCULETA, María Teresa, El poblamiento de la Edad del Hierro en el entorno de Santiagomendi (Astigarraga, Gipuzkoa), *Kobie (serie Anejos)* 6 zk. (1.º bol.) (2004), 297-304 or.
- FERNÁNDEZ CONDE, Francisco Javier, *La religiosidad medieval en España. Alta Edad Media (siglos VII-X)*, Gijón: Ediciones Trea (2.º edizioa), 2008.
- FRANCO PÉREZ, Javier, ETXEZARRAGA ORTUONDO, Iosu, ALBERDI LONBIDE, Xabier, Los orígenes de la tecnología del hierro en el País Vasco: ferrerías de monte o haizeolak, *Kobie Paleoantropología*, 34 (2014), 267-282 or.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, José Ángel, La sociedad guipuzcoana antes del fuero de San Sebastián. *Congreso: El Fuero de san Sebastián y su época, San Sebastián: Sociedad de Estudios Vascos* lanean, 1982, 89-111 or.
- Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en los siglos XIII a XV: de los valles a las provincias, *R.I.E.V*, 45 (2000), 197-234 or.

- Una villa mercantil: 1180-1516. ARTOLA, Miguel (ed.), *Historia de Donostia-San Sebastián* lanean, Hondarribi: ed. Nerea, 2001.
- GARCÍA CAMINO, Iñaki, *Arqueología y poblamiento en Bizkaia (siglos VI-XIII). La configuración de la sociedad feudal*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 2002.
- GEREÑU URZELAI, Marian, Las excavaciones arqueológicas de Santa Teresa y La Brecha. UNSAIN AZPIROZ, José María (ed.), *San Sebastián, ciudad Marítima* lanean, Donostia: Itsas Museoa, 2008, 163-173 or.
- IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Alex, MORAZA BAREA, Alfredo, Evolución cronotipológica de las inhumaciones medievales en el Cantábrico Oriental: el caso de Santa María la Real de Zarautz (Gipuzkoa), *Munibe Antropologia-Arkeologia*, 57 (2005), 419-434 or.
- IRIJOA CORTÉS, Iago, *Pasaia: orígenes (siglos XIV-XVI)*, Pasaia: Pasaiko Udala, 2009.
- JIMENO JURÍO, José María, Iglesias y euskera en Donostia: siglo XVI, *Vasconia*, 25 (1998), 217-242 or.
- LARREA, Juan José, VIADER, Roland, Aprisjons et presuras au début du IXe siècle: pour une étude des formes d'appropriation du territoire dans la Tarraconaise du haut Moyen Âge. En *De la Tarraconaise à la Marche supérieure d'Al-Andalus, IVe-XIe siècle. Les habitats ruraux. Méridiennes. Études médiévales ibériques*, Toulouse, CNRS-Université de Toulouse-Le Mirail, 2006, 167-210 or.
- LIZARRALDE ELBERDIN, Koldo, AGUIRRE SORONDO, Antxon, *Ermitas de Gipuzkoa*, Ataun: Barandiaran Fundazioa, 2000.
- MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo, GONZÁLEZ DÍEZ, Emiliano, MARTÍNEZ LLORENTE, Félix Javier, *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas (1200-1369)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991.
- MORAZA, Alfredo, SARASOLA Nerea, *Arkeologia 0.5. Arqueología medieval en Gipuzkoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011.
- MUJIKA ALUSTIZA, Jose Antonio, MORAZA BAREA, Alfredo, Establecimientos de hábitat al aire libre. Los fondos de cabaña de morfología tumular: características, proceso de formación y cronología, *Veleia*, 22 (2005), 77-110 or.
- ORELLA UNZUE, José Luis, La gasconización medieval occidental del Reino de Navarra, *Lurralde*, 33 (2010), 177-208 or.
- PARISSE, M., Le recadrement du clergé séculier. MAYEUR, Jean Marie, PIETRI, L., VAUCHEZ, André, VENARD, Marc (zuz.), *Histoire du Christianisme des origines à nos jours. Tome V: Apogée de la Papauté et expansion de la Chrétienté (1054-1274)*, Paris: Desclée, 1993, 241-276 or.

- PÉREZ CENTENO, Jesús Manuel, ALBERDI LONBIDE, Xabier, Nasa de Ondarreta, *Arkeoikuska*, 2005 (2006), 469-470 or.
- PÉREZ CENTENO, Jesús Manuel, ESTEBAN DELGADO, Milagros, ALBERDI LONBIDE, Xabier, San Martín de Tours (Askizu), *Arkeoikuska* 07 (2008), 352-353 or.
- QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio, Las iglesias altomedievales en el País Vasco. Del monumento al paisaje, *Studia Historica, Historia Medieval*, 29 (2011) 175-205 or.
- RUIZ, T., *Visigodos y Omeyas. El territorio*. Mérida: Instituto de Arqueología de Mérida-CSIC, 2012, 79-95 or.
- SÁEZ GARCÍA, Juan Antonio, *Viejas Piedras. Fortificaciones guipuzcoanas*, Donostia: Michelena artes gráficas, 2000.
- SARASOLA ETXEGOIEN, Nerea, El poblamiento medieval de Gipuzkoa. Revisión crítica del registro arqueológico, *Munibe Antopologia-Arkeologia*, 61 (2010), 339-393 or.
- TXILLARDEGI, *Antigua 1900*, Donostia: Instituto Dr. Camino, 1993.
- URTEAGA, Mertxe, ARCE, Javier, *Arkeologia 0.4, Arqueología romana en Gipuzkoa*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011.
- VIGIL-ESCALERA GUIRADO, Alfonso, QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio, Arqueología de los paisajes rurales altomedievales en noroeste peninsular. CABALLERO Y ZOREDA, L, MATEOS CRUZ, P., CORDERO, ZAPIRAIN KARRIKA, David, MORA AFÁN, Juan Carlos, Altza, de los cubilares al concejo, *Artiga* 1 (1997).

Jakako foruaren beste historia bat (Beste irakurketa bat eta berrinterpretazio-saiakera)¹

Ana M^a BARRERO GARCÍA
Ikerlari Zientifikoa

Aurkibidea

I. PLANTEAMENDUA. II. JAKAKO DOKUMENTU FORALAK. 1. Antso Ramiritzen forua. 1.1. Haren tradizio idatzia. 1.2. Haren kritika diplomatikoa. 2. Ramiro II.aren berrespena. 3. Alfontso II.aren emakida. 4. Kritika diplomatikotik eratorritako ondorioak. III. JAKAKO FORUAREN HEDAPENA. 1. Testigantza dokumentalak. 2. Jakako foruarekin lotutako testuen analisi konparatiboa. 3. Testuen arteko konkordantzien finkapena. 4. Konkordantzia-taularen emaitzak. 5. Konkordantzien testu-analisia. 5.1. Elkarrekikotasun handiko kasuak. 5.2. Jakako foruarekiko eta Aragoiko foruekiko kasu komunak. 5.3. Jakako foruarekiko eta Nafarroako herri eta hirietako foruekiko kasu komunak. 5.4. Jakako foruan jasota ez dauden Nafarroako eta Aragoiko foruekiko kasu komunak. 5.5. Aragoiko foruekiko kasu komunak. IV. JAKAKO ZUZENBIDEAREN ERATZE-PROZESUA. V. BIBLIOGRAFIA.

I. PLANTEAMENDUA

XIV. mendeko hainbat testigantzatan, gertuko lurraldearen mugetatik kanpo hedapen handia lortu zuen zuzenbide propioaren gune sortzaile gisa erakutsi izan da Jaka, erresumako mugetatik oso urrun iristeraino.

Haien artean, adierazgarriena eta, halaber, interesatuena, zalantzarik gabe, 1342. urtean Jakako juratuek Iruñeko beren kideei emandako erantzuna da, iruindarrek haien foruak konpultsa eta zuzen ditzatela eskatzen baitiete, Ja-

¹ Testu hau lan honen egokitzapen bat da, aldaketa oso gutxiarekin: La difusión del fuero de Jaca en el Camino de Santiago. *El Fuero de Jaca II: Estudios*, Zaragoza: Aragoiko Justizia, 2003, 113-160 or. Aragoiko Justizia erakundeari eskerrak eman nahi dizkiogu lan hau erreproduzitzeko baimena emateagatik.

kakoen ereduari oinarrituta. Erantzun horretan onartzen da Iruñea foru horren bidez populatu eta pribilegiatu dela; era berean, adierazten da bazirela Jakakoak zirela esaten zen hainbat foru-liburu printzipioz harekin bat ez zetozenak (*muytos libros de fueros que se decian seer de Jaca, los coales en partida non concordaban*). Eta azkenik, nolabaiteko garraztasunez, Nafarroako hiriburuko agintariei aurpegiratzen zaie Jakako auzitegiei apelazioak aurkezteko jarduna eten izana foru haren pekoa izanik eta haren mendekotasun politikoa gorabehera; hau da, garai hartan Donostiak eta Hondarribiak oraindik egiten zuten gisara, Gaztelako erregearen mendekoak zirelarik ere (*que son de la seynnoría del Rey de Castiella*²). Apelazioen gai hori *Penintsulako Estatuaren Kronikan* (*Crónica de los Estados peninsulares*) ere jasota dago. Lan horretan, tradizio fidagarritzat jotzen da, eta Nafarroak jardun hori etetea Antso Azkarrari leporatzen zaio³.

Nafarroari eta bere foraltasun motei buruzko beste erreferentzia bat jasota dago Foru Orokorraren kodex baten orri-bazterreko ohar batean, zeina Erresumako Artxiboan gordetzen baita. Han, Erresuman noizbait indarrean egon direla irizten zaien zazpi foruen artean bigarren eta hirugarren lekuan aipatzen dira, berezko nortasunarekin, Jakakoa eta Lizarrakoa. Horrekin bat etorritik, Jakako forua eman zitzaizen Iruñea hiriari eta Zangoza, Irunberri, Larrasoaina, Atarrabia, Lantz, Etxarri eta Alesbes hiribilduei. Bestalde, Lizarrako forua jaso zuten Erriberrik, Garesek, Tebasek, Elok eta Tafallak⁴.

Kasu batean zein bestean, Donejakue Bidean dauden lekuak dira –Orreagako pasabidetik–, bai eta merkatariek erabiltzen zituzten bideetako beste leku batzuk ere: Jakatik Iruñerako bidean, Zangoza, Irunberri, Urrotz eta Atarrabia; Frantziarako bidean, Atarrabia, Larrasoaina eta Orreaga; eta Baionarako eta Donostiarako bidean, Lantz eta Doneztebe. Hain zuzen, horri erantzuten dio garai-ko dokumentazioak; izan ere, oharpen horretan aipatzen diren zenbait lekutako

² Dokumentua Jakako foruaren Ap idazketa gisa argitaratu zen. MOLHO, M., *El fuero de Jaca. Edición crítica*, Zaragoza: Instituto de estudios pirenaicos, 1964, 7-9.

³ Nolanahi ere, Jakako forua Sobrarbeoarekin identifikatzen du: *Et dizen mas, que Navarra e Ypuzcoa se gobiernan por el fuero de Sobrarbe; que sy los reyes fuessen de Navarra, los privilegios que fueron de Navarra ternian; et oy en dia los de Ypuzcoa apellan al fuero de Sobre-Arbe, et los de Navarra si fazian, sino que lo vedo el rey don Sancho l'Encerrado* (arg. UBIETO, A., *Crónica de los Estados Peninsulares (Texto del siglo XIV)*, Granada: Granadako Unibertsitatea, 1955; cfr. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca: 1. Estella-San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1969, 20. or., 10. oharra. Sobrarbeo foruari buruz, Aragoiko foraltasun militarren eta Jakakoak ordeztu duen foru burgesarekiko konkomitantziaren adierazle den aldetik, irakur LALINDE ABADÍA, J., *Los fueros de Aragón*, Librería General, Zaragoza: 1976, 27-33 or.

⁴ Hemen ageri da haren testua: LACARRA, J. M., Notas para la formación de las familias de fueros navarros, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 10 (1933), 206 or.

sortze-agiriak kontserbatu egin dira⁵. Bestalde, kontserbatu den Aragoiko dokumentazioak agerian uzten du Donejakue Bideko Aragoiko adarreko leketan ere Jakako forua aplikatu zela. Hain zuzen, bide hori Somportetik Jakara doa, eta Aragoi ibaiaren ibilguari jarraiki Berdungo kanalera zuzentzen da, Nafarroan Zangoza eta Tebastik sartu eta Garesen Donejakue Bidearekin elkartzeko. Berdunek eta Luesiak berariaz jaso zuten Jakako forua, baina, nolahi ere, bidea sortu baino lehen populatu ziren leku horiek eta ez dute erlazio berezirik erromes-bidearekin⁶.

Datu horiek guztiak bat datoz funtsean: Jakako juratuen gutuna eta *Crónica* bat datoz gorako helegiteen gaia tratatzeko orduan, baina nork bere ikuspegitik jorratzen du. Nolanahi ere, zalantza dago ea azken horretan egiten den orokortzea –Nafarroaz eta Gipuzkoaz hitz egiten du– baliabide narratibo hutsa den edo errealitate historikoari erantzuten dion. Kasu horretan Lizarra ere helegiteak jartzera Jakako auzitegiara jo beharko luketen hiribilduen artean sartu beharko litzateke; izan ere, Lizarrako forua Jakakoarekin identifikatuta ageri da Donostiakoaren eta Hondarribikoaren bidez. Hori horrela balitz, kontraesantzat jo beharko al litzateke Foru Orokorreko oharpenaren egileak haien bien artean adierazitako aldea? Ala, agian, itxurazko kontraesan horrek zerikusia ote du XIV. mendeko Iruñeko juratuei, aplikatu beharreko arauetan, nahasmena sortu zieten bertsio desberdinekin?⁷ Ugaritasun horren kausari buruzko galdera egin behar da, zeina, itxuraz, lehenagotik baitator; izan ere, Jakako agintariak behartuta zeuden beren foru zaharren ereductara jotzera. Eta, horrez gain, balizko jatorrizko arrazoi bat zein izan daitekeen esatera ausartu daiteke, harrigarria baita Jakako foruaren kontserbatutako eskuizkribuek horri buruz ezer ez esatea –are gehiago, inkongruentzia izan daiteke–; izan ere, Jakako foruaren bertsio aragoarretan ez da aipatzen errege-pribilegiarik, ez eta erreferentzia pertsonalik ere. Aitzitik, bertsio nafarretan, *D* letraz tipifikatutako idazketa Borrokalariak Iruñeko San Zernini emandako foru-gutunarekin hasten da, eta, jarraian, hitzau-

⁵ Vid. *infra* III.a, Jakako foruaren hedapena.

⁶ Vid. SESMA MUÑOZ, J. Á., El camino de Santiago en Aragón. *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela y San Salvador de Oviedo en la Edad Media, Actas del I Congreso Internacional celebrado en Oviedo del 3 al 7 de diciembre de 1990*, Oviedo, Asturiasko Printzerriko Gobernua, 1993, 87-101 or.

⁷ Nahasmen hau ez da oraindik gaintu, egun Jakako forutzat hartzen diren bertsio ugarietako bat bera ere ez baitator guztiz bat 1342an Jakako epaimahaiek zeukaten Jakako foru zahararen ereduarekin; izan ere, juratuen gutuna barne hartzen duen zuzendutako arauetako bat ez dator bat haietan dagoen ezeinekin, baina bai, ordea, eta hitzez hitz, kodex villarensen jasota dagoen Aragoiko foruen idazketako arau batekin (ed. RAMOS LOSCERTALES, J. M., *Textos para el estudio del derecho aragonés en la Edad Media, Anuario de Historia del Derecho Español*, 1 (1924), 403. or; horri guztiari buruz vid. MOLHO, M., *El fuero de Jaca, op. cit.*, XXI-XXII).

rrean testu normatiboaren egiletza Witiza erregeari egozten zaio (700. urtea). Hitzaurre horrek Errege Forua ekartzen du gogora, eta, are gehiago, Errege Foruko paragrafo ugari hitzez hitz jasotzen ditu⁸.

Nolanahi ere, alderdi horrek ez du Jakako zuzenbidearen ikerlarien arreta erakarri. Antso Ramiritzek Jakari forua emateko erabilitako dokumentua existitzen da eta hori erabakigarria izan da historiografiak dokumentu hori eta errege hori jo ditzan zuzenbide⁹ horren abiapuntutzat, eta pribilegio horren luzapentzat jo dezan foru hori beste hiribildu batzuei ematea bai une hartan eta bai gerora. Hori horrela izanik eta kontserbatutako dokumentuak ikusirik, harrigarria da pribilegio hori idatziz emateko egon den tradizio urria, bai bere jatorrizko lekuan, bai bere hedapen-eremuko hiri eta herrietan. Horri gehitu behar zaio hedapen hori ez zela gertatu dezente geroago arte –XII. mendearen bigarren herenean–. Alfontso I.aren ekimenez eraman zen aurrera aipatutako hedapena, eta une horretatik aurrera soilik orokortu zen Jakaren aipamena dokumentuetan; gerora harekin identifikatu ziren eskualdeko beste foru batzuk. Eta ez hori soilik; izan ere, irakurraldi bat nahikoa da ikusteko zer nolako alde nabarmena dagoen Jakako forua emateko erabilitako testuen –jatorri hori berariaz aitortuta dutenak eta ez dutenak– eta Antso Ramiritzen foruaren artean. Argudio horiek nahikoa dira zalantzan jartzeko ea foru hori –egun ezagutzen dugun forman– egiazki bat ote datorren errege horren jardunaren edukiarekin. Ondorioz, hura argitzeari ekin behar litzaioke, Jakako familia foralaren testuen analisi kritikotik abiatuta.

II. JAKAKO DOKUMENTU FORALAK

Jakari buruzko Erdi Aroko dokumentazioa *Libro de la cadena* liburuan bildu zutelako kontserbatzen da. 1398. urtean osatu zen guztiz, Martin I.aren berrespena jaso zezan. Badirudi errege-pribilegioak jasotzen dituen zatia Pedro III.a erregeak, Pribilegio Orokorra zela-eta, erresumako hiri eta hiribilduei beren pribilegioak berresteko egindako promesaren ondorioz osatu zela. Pribilegio hori 1283ko urriaren 20an sartu zen indarrean Jakari eta beste herri batzuei dago kienez¹⁰. Han bildutako errege-pribilegioen artean, bik foru-gutunen izaera

⁸ Hitzaurre hori, halaber, Jakako forua (*E* bertsioa) jasota dagoen Errege Jauregiko Liburutegiko eskuizkribu batean (944) ageri da (egun Salamancako Unibertsitatean, ms.2652); Molhok identifikatua (ms. *E* 1); vid. MOLHO, M., *El fuero de Jaca*, op. cit., XXVI-XXVIII or.

⁹ Horrela, esaterako, M. MOLHOK zera ulertzen du: «hasiera batean [Jakako foruaren] konpilazioak independenteki idatzi ziren Jakan eta Iruñean, bi kasuetan Antso Ramiritzen foru latinoa oinarritzat hartuta» (*El fuero de Jaca*, XXXI. or.).

¹⁰ Vid. UBIETO, A., *Jaca: Documentos municipales, 971-1269*, Valentzia: Cronista Almela y Vives, 1975, 13-14 or.

dute; bata Antso Ramiritzen emakida gisa ageri da, eta, bestea, Alfontso II.aren emakida gisa¹¹. Gainera, badira foruak berresten dituzten zenbait dokumentu, baina haietako batek soilik, Ramiro II.ari zor zaionak, aipatzen du jarduketa jakin bat –haren aitarena–, bai eta erreproduzitzen duen kapitulu sorta bat ere. Ez zuten gauza bera egin haren oinordekoek foruak berretsi zituzten aldietan, modu generikoan egin baitzuten beti, bai foruen edukiari eta bai haien emaileei dagokienez. Horrela egin zuen Petri II.ak 1197. urteko azaroko dokumentu batean, non bere arbaso txit gorenek emandako foruak eta ohiturak (*illos fueros et consuetudines*) berretsi baitzituen haiek egin eta baimendutako tresnen arabera, eta 1208an, foruak berriro berretsi zituenean, horrekin batera beste pribilegio batzuk ere eman zituen¹². Era berean, Jakue I.ak zenbait unetan gauza bera egin zuen: 1225ean, 1227an eta 1269an¹³. Beste zenbait errege-jarduketan helburua pribilegio jakin batzuk ematea zen, eta pribilegio horietako batzuek foruetan jasotako gaietan dute eragina. Alfontso II.ak, 1192. urteko abuztuan, etxeko bakea bermatu nahi zuen; Petri II.ak, 1197an, asteroko astearteko azokaren emakida egin zuen eta infantzoiei eta klerikoei onibarrak saltzea debekatu zuen; 1203an, hiribilduko biztanleen eskariz, haragi-salmenta pisura egin zedila agindu zuen; eta 1212an juratuen instituzioa ezarri zuen¹⁴.

1. Antso Ramiritzen forua

1.1. Haren tradizio idatzia

Jakako foru laburra izenez ezagutzen den testuaren bi bertsiok kontserbatu dira; haien bien arteko alde nabarmenena eduki normatiboaren hedadura da.

Haietako zabalena bi aleren bitartez iritsi zaigu: bata pergaminoan idatziriko sasi-originala da, Jakako udal artxiboan kontserbatzen dena (1. kutxa,

¹¹ Ikerlan honetan aipatzen diren testu foralen eta beste testu foral batzuen edizioei dagokienez, vid. BARRERO GARCÍA, A. M. eta ALONSO MARTÍN, M. L., *Textos de derecho local español en la Edad Media. Catálogo de fueros y costums municipales*, Madril: CSIC, 1989, voces correspondientes. Aragoiko testuetarako honako hauek gehitu behar dira: UBIETO, A., *Documentos de Ramiro II de Aragón*, Zaragoza: Anúbar, 1988; LEDESMA RUBIO, M. L., *Cartas de población del Reino de Aragón en los siglos medievales*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1991; CANELLAS, Á., *La colección diplomática de Sancho Ramírez*, Zaragoza: Real Sociedad Económica Aragonesa de los Amigos del País, 1993; Antso Ramiritzen Jakako foruari buruz, halaber, ikus: MORALES ARRIZABALAGA, J., *Privilegios altomedievales: El fuero de Jaca (c. 1076)*, Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea, 1997; Tebasko foruari buruz, ikus: JIMENO ARANGUREN, R. (koord.), *Documentación histórica sobre la villa de Tiebas*, Tebas: Tebasko kontzejua, 1999.

¹² UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 23. eta 30. zk., 75. eta 87-89 or., hurrenez hurren.

¹³ *Ibidem*, 52, 54. eta 66. zk., 128., 130. eta 149. or.

¹⁴ *Ibidem*, 22., 24., 25., 28., 33. eta 34. zk., 74., 76., 77.-78., 85., 95.-98. or.

13. orri-sorta, 3. zk.), letra bisigotikoan idatzia eta XII. mendekoa jotzen dena¹⁵, zehatzago esanda, XII. mendearen lehen erdikoa¹⁶. Halaber, forua *Libro de la cadena* liburuan kopiatu zen; beraz, 1283. urtean. Tresna bat zein bestea oinarritzat hartuta, haien editoreek ez badute hura berariaz aipatzen ere, pentsa daiteke XIII. mendeko kopia zuzenean sasi-originalaren gainean egin zela, eta hori ego-
kia da onartutako kronologiari dagokionez, bai eta bi tresnek duten muturreko literaltasuna kontuan izanda ere. Horrenbestez, Ubietok dokumentuaren bere edizioan aurkeztutako aparatu kritikoan egiazta daiteke aldaera horiek oso gutxi direla –sei– eta haien funtsa baliogabea, kasu jakin batean izan ezik: kopian, 21. arauari, XIV. mendeko letraz gehitzen zaion azken paragrafoa, non ehotze-askatasunetik kanpo uzten baitira juduak eta merkataritza-helburuetarako ogia fabrikatzeko irina, zeina sasi-originalean ageri baita. Dokumentuaren transmisio testualari dagokionez, interesgarria izaten jarraitzen du horrek; izan ere, hainbat azalpen izan ditzake, egin gabe utzitako zerbaiten zuzenketa berantiarra izan baitaiteke –nahi gabe egindakoa dela pentsa daiteke, hau da, *Libro de la cadena* liburuaren kopistak oinarritzat zuen sasi-originala kopiatzean egindako akats bat dela–; edo, bestela, pentsa daiteke sasi-originalaren egileak bere kabuz gehitu zuela esaldi hori, eta horrek behartzen gaitu pentsatzera agian ez dagoela zuzeneko harremanik bi tresnen artean, baizik eta aipatutako paragrafoa ageri ez zen eredu beraren kopia independenteak direla. Azkenik, hirugarren aukera bat eskaintzen da: sasi-originala *Libro de la cadena* liburuaren kopia oinarritzat hartuta egin izana, liburu horretan gehikuntza hori egin eta gero; hori horrela balitz, diploma horren egikera XIV. mendean kokatuko litzateke.

Bertsiorik laburrena ezagutzen da erreproduzitu egin zelako Ramiro II.a-
ren Jakako foruaren berrespenean eta Antso Jakitunaren Lizarrako foruaren berrespenean, 1164. urtean¹⁷. Jakako dokumentukoa kontsideratu izan da Antso Ramiritzen foruaren osatu gabeko kopia bat, aipatutako berrespenean dagoena¹⁸. Era berean, Lizarrako foruan dagoen bertsioa Lizarrari hiribilduaren fundazioa-
ren unean hark egindako mota horretako emakida batekin lotu izan da. Duela gutxi arte, fundazio hori 1090ean kokatu izan da¹⁹, baina inoiz ez da erlaziona-

¹⁵ *Ibidem*, 8. zk., 49. or., eta haren jarraian LEDESMA RUBIO, M. L., *Cartas de población*, *op. cit.*, 2. zk., 26. or.

¹⁶ LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca 2. Pamplona*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1975, 1. zk., 105. or.

¹⁷ Vid. *infra* 80. oharra.

¹⁸ LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona*, *op. cit.*, 1. zk., 105. or., Antso Ramiritzen foruaren D ale gisa aitortua.

¹⁹ Beraz, LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Estella*, *op. cit.*, 17-18 or. Gerora, Martín Duquek adierazi du Lizarraren populaketa urte horretan kokatzen duen dokumentua apokrifoa dela, eta,

tu –bien arteko bat-etortze nabarmen eta adierazgarriak izan arren– aipatutako bere semearen berrespenean jasota dagoenarekin²⁰. Hala ere, Jakako foruaren bi bertsio labur horien arteko analisi konparatiboak eta Antso Ramiritzen dokumentuarekin egindakoak errealitate nahiko desberdina erakusten dute; izan ere, bi berrespenen testuen arteko zuzeneko harremana agerian geratzen da, jatorrizkotzat jotzen den dokumentuarekin alderatuz.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da bi bertsio laburrek bertsio luzetik arau berak jasotzen dituztela; izan ere, Lizarrako foruak ez du jasotzen Antso Ramiritzen foruko araurik Ramiro II.aren berrespenean ageri ez denik. Bi testuek ez dituzte hartzen Antso Ramiritzen forutik hasierako bost paragrafoak eta amaierako hiruak. Lizarrako foruak ez du hartzen Jakako foruko 23. araua, baina, ordea, ageri da foru horren berrespenean.

Oso deigarria da, halaber, berrespenetako hitzaurreek elkarrekiko duten literaltasun-maila Jakako testu originalarekin alderatuta. Horrenbestez, auzokomunitate bakoitzari egindako foruaren lehen emakidan baldintzak antzekoak izan zitezkeen arren, horren justifikazioa testuen zuzeneko harremanean soilik aurkitu daiteke, eta, are gehiago, kontuan izan behar da emaile bakoitzaren kantzelaritza-ohitura berezko eta bereziekin osatu zela testu bakoitza²¹. Hori dela eta, dokumentu batean zein bestean ikus daiteke hitzaurre horretako klausulen formulazioaren aldaerek inbokazioari soilik eragiten diotela; hots, Jakakoan trinitarioa baldin bada, Lizarrakoan dibinitateari buruzkoa da, errege Jakitunaren dokumentuetan ohikoa den legez. Beste desberdintasun batzuek, logikoki, izaera pertsonala eta topikoa dute; esaterako, Lizarrakoan ez da aipatzen forua ematen duen erregeak Antso Ramiritzekin duen erlazioa, eta *Jaka* izena *Lizarrarra* izenarekin ordeztzen da. Eta ez dira falta zenbait desberdintasun literal huts, hala nola *quotidie faciat* esamoldeko hitzak alderantzikatzea eta, Lizarrakoan,

era berean, hainbat testigantza dokumental aurkezten ditu 1076an jada bazegoela erakusten dutenak eta, ziurtasun osoz, 1084. urtea baino lehen existitzen zela erakusten dutenak. Vid. MARTÍN DUQUE, Á. J., La fundación del primer burgo navarro. Estella, *Príncipe de Viana*, 51. bol., 190. zk. (1990), 317-327 or.

²⁰ Vid. horri buruz egin den ikerlan berriena: PAVÓN BENITO, J., Fuero de Jaca y fuero de Estella. Observaciones críticas, *XV Congreso de Historia de la Corona de Aragón. Actas. Tomo III. Jaca en la Corona de Aragón (siglos XII-XVIII)*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1994, 343-353 or.

²¹ Lantzen ari garen aldiko Aragoiko kantzelaritza buruz, vid. CANELLAS LÓPEZ, Á., La cancellería real en el reino de Aragón (1035-1134). *Folia Budapestina*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, CSIC, 1983, 23-46 or. Antso VI.aren kantzelaritza buruz, GARCÍA LARRAGUETA, S. eta OSTOLAZA ELIZONDO, I., Estudios de diplomática sobre fuentes de la época de Sancho el Sabio. *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de estudios históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de septiembre de 1981 en conmemoración del 800 aniversario de su fundación*, Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1982, 115-215 or.

erregearen etorkizuneko jarduna proiektatzea. Mota horretako beste zenbait –eta hori adierazgarria izan daiteke Lizarrako eskuizkribuen genealogia finkatzeari dagokionez– zaharren kontsideratzen den idazketarekin -A-²² lotuta gertatzen dira soilik; baina ez da hala gertatzen B idazketan, hala nola *et* juntagailuaren omisioa eta Antso Ramiritzi buruzko *qui requies sit* esaldiaren omisioa, edota erregearen jarduna indartzeko sartzen den *concedere* aditza.

Bi hitzaurreen arteko literaltasun-ezaugarri hori arauen enuntziatuetan ere mantentzen da. Testu batean zein bestean, erregearen aurretiazko jardun batekin lotzeko –Antso Ramiritzen forua–, lehenaldiko aditz formak erabiltzen dituzte arauak formulatzeko orduan, eta, halaber, nahiz eta Jakako bertsioak aurrekoarekiko hurbiltasun formal handiagoa izan dezakeen, identitate-zantzuak hautematen dira bertsio laburretan beste horren aldean. Esaterako, bi bertsio laburretan *ire noluisse* esamoldea erabiltzen da *non volet ire* esamoldea erabili beharrean –hain zuzen, azken esamolde hori erabiltzen da Jakako foruan armadari buruzko arauan–, eta, era berean, *habere* aditza erabiltzen da *dare* aditza erabili beharrean estuproari dagokion arauan, eta, bi aldiz, *vobis* pertsona-izenordainaren omisioa egiten da urte eta egunaren preskripzioa ezartzen duen arauan. Baina, zalantzarik gabe, mendekotasun horren zantzu adierazgarriena testu horietan *pariare* aditzarekin egiten den erabilera da. Termino horrek bi adiera izan ditzake. Batak, ohikoenak, ordaintzea, zor bat kitatzea adierazten du; besteak, berriz, berdintzea, beste baten parean jartzea adierazten du –iragangaitz eta pasibo gisa–²³. Antso Ramiritzen Jakako foruan, hitz hori adierazitako lehen adieran soilik erabiltzen da, eta soilik lehen arauetan, hain zuzen, bertsio laburretan ageri ez direnetan. Bertsio laburretan ordaindu esanahiarekin erabiltzen da, oro har, baina, halaber, bortxaketa-kasuei buruzkoetan ere erabiltzen da, bigarren adieratik gertuago dagoen esanahiarekin. Jakakoaren kasuan, badirudi testuinguru horretan erabiltzea ez zela ulertzeko oztopo. Lizarrakoan, berriz, badirudi baietz; izan ere, dagokion adiera glosa baten bidez argitzen da²⁴. Eta, dirudienez, hori bera gertatzen da Antso Ramiritzen foruarekin ere, baina kasu horretan ez

²² Vid. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Estella*, *op. cit.*, 31-32 or. Hala eta guztiz ere, datu horiek agerian uzten dute B idazketa A idazketa baino lehenagoko testu batean oinarrituta idatzi izan zitekeela, eta ez zuzenean A idazketa hori oinarritzat hartuta. Alderdi horri dagokionez, interesgarria da Martín Duquek Lizarrako eta Donostiako foruen transmisio testualari eta genealogiari buruz adierazten duen ikuspuntua (vid. MARTÍN DUQUE, Á. J., *El fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica. Congreso El fuero de San Sebastián y su época*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 9-10 or.).

²³ Cfr. DU CANGE, *Glossarium Mediae latinitatis et infimae Latinitatis*, Niort, Favre, 1883-1887.

²⁴ F E I, 6.3: Hoc est pariare: Si mulier non est digna ut sit uxor illius, debet ille qui forciavit eam dare illi talem maritum unde fuisset honorata antequam habuisset eam...

da erabiltzen azalpen-glosa bat, baizik eta zuzenean ordeztan da terminoa kontzeptuarekin²⁵. Jakako foruaren bertsio laburretan adierazle bera erabiltzen da, eta ez Jakako foruan bertan erabiltzen den aukera. Horrek berriz ere adierazten du bi bertsio laburren arteko mendekotasuna, non Antso Ramiritzen testuak ez baitu lekurik. Bestalde, bai Antso Ramiritzenean bai Lizarrakoan, *pariare* terminoa adiera bakarrarekin erabiltzen da, eta horrek adierazten du bien artean hurreman bat egon daitekeela, zeinak testu-oinarri hurbilagoa edo urrunagoa izan baitezake. Nolanahi ere, hori guztia osotasun-ikuspegi batetik begiraturaz gero, paragrafo horren transmisio testualean ikusten den gradazioa nabarmendu behar da –terminoa, glosa eta kontzeptua–, are gehiago, ikusirik eskuarki onartzen den ordenaren alderantzizkoan gertatzen dela; izan ere, Antso Ramiritzen testua jotzen da Jakako jatorrizko forua.

Bestalde, Lizarrako foruaren bi idazketak –*A* eta *B*– bat datoz elkarrekin, ez baitituzte onartzen Jakakoetan –laburra eta luzea– egiten diren irakurketa jakin batzuk; nolana ere, ez zaizkie beti soluzio berberak ematen²⁶, arauen edukian eragiten duten –aldatuz edo osatuz– elementuak daudenean²⁷.

1.2. Haren kritika diplomatikoa

Aita Huescak Antso Ramiritzen Jakako forua argitaratu zuenetik (bertsio luzea), haren hainbat argitalpen egin dira, hura jasotzen duten kontserbatutako tresna bati edo besteri jarraikiz. Beraz, aski ezaguna den testu bat da, eta haren analisiak zalantzarako eta eztabaidarako puntu bat baino ez die eman adituei: data zehaztea. Izan ere, klausula kronologikoan, aroa aipatzen denean, ez daude hamarrekoei eta unitateei dagozkien zifrak. Eman diren soluzioen artetik, egun, probabilitate handia aitortzen zaio Ubieta irakasleak ezarritakoari: 1077. urtea.

²⁵ F J 12: ...Et si sit causa quod eam forçet, det ei maritum

²⁶ F J 7=F E I, 2.1: *malo cisso*] *A: interdicto vel cisso, B: impedimento*; F J 8= F E I, 2.2: *anno uno et die*] *A: anno et uno die, B: uno anno et una die*; F J 9=F E I, 2.4: *circuitu illius*] *A: illo, B] Stelle*.

²⁷ Armadaren erregulazioari dagokionez (J 1=E I, 1.2) Lizarrak aurreikusten du ez-betetzea, eta 60 soldataro zigorra ezartzen du; Lizarrak urak sartzen ditu aprobetxamendu komunalen enuntziatuan (J 4= E I, 2.3); Borroka judizialari dagokionez (J 5= E I, 4.1), Lizarrak alde batera uzten du bizilagunen arteko kasuaren planteamendua, ez du aurreikusten bertakoen irizpidea lehenestea kanpotarrenaren aldean araua betetzeari dagokionez, eta, azkenik, soluzio positibo bat gehitzen dio kasuari ordezeko aukera bikoitz eta graduatuarekin. Bestalde, *B* idazketak zehaztasunak gehitzen dizkio arauaren zati horri, zeina formulazio nafarrak berezkoa baitu; eraso mota jakin batzuegatik jarritako *caloña* edo isunari dagokionez, Lizarrak 60 soldataro handitzen du Jakak ezarritako isunaren zenbatekoa (J 10=E I, 7.2); Lizarrak bahia fidantzaren truke egiteko aukera aurreikusten du, bahia dela eta etxeko bakea hausten den kasuetarako (J 12= E I, 8); epaiketarik egiteari dagokionez, Lizarrak zabaldu egiten du araua, beste inguruabar batzuk barne hartuz (J 14= E I, 10); eta, azkenik, neurrien faltsifikazioari dagokionez, Lizarrak zabaldu egiten du arauen enuntziatua (J 15= E I, 11).

Data hori ezartzeko, Ubietok oinarritzat hartzen du errege-intitulazioaren formula, eta, halaber, dataren gabezia numerikoa justifikatzeko, kopia egin zuen eskribak originaleko zifrak ulertzeko izandako zailtasunean oinarritzen da²⁸. Baina ezein unetan ez da dokumentuaren benetakotasunaren inguruko susmorik izan; horrenbestez, beste informazio- eta kontraste-elementurik ez dagoenez, han bildutako datuek balio axiomatikoa hartu dute bizilagun-gune horren garapeneko lehen urratsen historia deskribatzeko garaian. Hala ere, lehen, tradizio dokumentalaren segimenduan nabarmendutako alderdiak –kontserbatutako sasi-originala *Libro de la cadena*²⁹ liburuan jasotako kopia baino geroago egina izateko aukera, eta, halaber, foruaren bertsio ezberdinetak bortxaketari buruzko arauaren idazketa-sekuentzia eskuarki onartutako kronologiari egokitzeko zailtasuna– dokumentu hau berriz ere eskatzen duen arretaz irakurtzeko nahikoa arrazoi gisa aurkezten dira.

Ikuspuntu formal batetik, testua hiru zati argitan bereizita aurkezten da, garaiko diplomekin eta, zehazki, erregeak emandako pribilegioekin bat etorritik, zeina emaile bezala ageri baita: klausula protokolarioak, formulazio laburrekoak, arau multzo erlatiboki zabala eta itxura unitarioa duena, editoreek 24 paragrafotan banatua; hertsatze-klausula bat; eta, azkenik, eskatokoloari dagozkionak, hau da, Antso erregearen eta haren ondorengo Petri I.aren zeinuen aposizioa eta kronologikoa.

Dokumentua inbokazio bikoitz monogramatiko eta nominal konposatu –kristologikoa eta trinitarioa– batez hasten da. Ondoren jakinarazpen-klausula dator, bi zatitan garatzen dena: lehenengoan, monarka horren jardun dokumentalarekin bat etorritik, dokumentuaren ezaugarriak azaltzen dira, eta, jarraian, emailearen aipamena egiten da hari dagokion titulazioarekin; halaber, lekua ere aipatzen da. Jarraian, espero zitekeenaren kontra, ez dator arau multzoa, baizik eta bigarren jakinarazpen-klausula bat. Klausula hori ez da gutunari buruzkoa, baizik eta Jaka hiribildu izatetik hiri bilakatzeko errege-borondateari buruzkoa. Nahikoa harrigarria da klausula horren formulazioa, hari eman nahi zaion irismena dela eta; izan ere, jakinarazpen bat baino gehiago lau haizeetara egiten den erregearen desioaren aldarrikapena da –literala–, larderiazko terminoetan, gainera –*ego volo constituere*–, eta ez antzeko egoeratan erabili ohi zen formularekin (*placuit mihi libenti animo et spontanea voluntate*).

Bigarren jakinarazpen hori alde batera utzita, protokoloko klausulek ez dute anomaliarik erakusten, baina ez da horrela gertatzen dokumentuaren

²⁸ Horri guztiari buruz, vid. UBIETO, A., *Jaca*, *op. cit.*, 20-21 or.

²⁹ Aukera hori are sinesgarriagoa egiten da; izan ere, XIV. mendeko gehikuntzaren xede den manua enuntziatu bera eskaintzen du, hau da, gehikuntza hori gabe, Jakako foruaren bertsio laburrean.

amaieran ageri diren izaera horretako klausulekin. Horiek, araudi nagusia itxiz, hertsatze-klausula bat dira, zeinak agertzea salbuespena baita garaiko Aragoiko errege-dokumentuetan, foruetan izan ezik, kasu honetan bezala, betiere zehapen ekonomikoekin eta ez espiritualekin; izan ere, azken horiek ohikoagoak dira idaztegi eklesiastikoetan egindako dokumentuetan (izan errege-dokumentuak edo ez)³⁰. Eskatokoloari dagokionez, bi klausula soilik barne hartzen ditu: data eta erregearen izenpea, (beraz, azken hori baino lehenagoko berrespen-klausula alde batera uzten da). Hemen, gainera, eskatokoloa, ohiko ordena aldatuz, kronologikoaren ondoren ematen da. Kronologikoan urtea, osatu gabe, aipatzen da soilik; horrenbestez, egunari eta hilari buruzko aipamenak falta dira, bai eta Aragoiko dokumentuetan ohikoak izaten diren aipamen topikoa eta pertsonalak ere. Hutsune horiez gain, ageri den adierazpen kronologiko bakarra inkarnazioaren eta aro hispanikoaren zenbaketa bikoitzaren bidez egiten da. Zehazki dokumentu honekin ez, baina garai horretako dokumentuen datazioa soilik inkarnazio-aroaren bidez egitea edo bi forma horiek batera agertzea dokumentuaren faltsutasun zantzutzat eta anomalia argitzat jo izan dute garai eta eskualde hori lantzen duten adituek³¹, eta horrek, bestalde, kantzelaritza kataluniar-aragoarren estudioak berresten ditu itxuraz³².

Dokumentua amaitzeko, Antso Ramiritz eta Petri I.a erregeen zeinuen aposizioa ageri da, eta ez dago erregistraturik errege-mandatu egikaritzen duen eskribaren izenperik³³. Lehenaren signaturaren formula bere beste zenbait dokumentutan agertzen denarekin bat dator erabat. Ez da hala gertatzen haren semearenarekin. Kasu horretan, zeinuak baditu tronuratu ondoren hartu zituen ka-

³⁰ Vid. CANELLAS, Á., Cancillería, *op. cit.*, 36. or.; hala ere, Antso Ramiritzek emandako forue-tatik, Alquézar eta Castellarkoek zehapen espiritualeko klausula bat dute, baina formulazioa laburragoa eta bakunagoa da.

³¹ UBIETO, A., *Jaca*, *op. cit.*, 16. or.; *Libro de la cadena* liburuko dokumentu faltsuak zehaztera-koan eta Jakako Kontzilioaren ustezko aktak jasotzen dituztenei (4. zk.) eta Ramiro I.ak Jakako kate-dralari egindako hamahiru elizen donazioari (5. zk.) erreferentzia eginez –biak ala biak 1063an daude datatuak–, adierazten du Aragoiko dokumentuak beti datatu zirela aro hispanikoaren bidez, eta, kasuren batean, inkarnazio-urtearen bidez, erresumatik kanpoko pertsonaei edo instituzioei zuzenduta daude-nean. MARTÍN DUQUE, Á. J., *La fundación*, *op. cit.* lanean Lizarraren fundazio-dokumentua jorratzen du. Dokumentu hori 1090. urtean dago datatuta eta San Juan de la Peñako monasterioan du jatorria. Egilearen ustez, «aroaren eta inkarnazioaren bidezko ohiz kanpoko datazio bikoitzak manipulazioaren hipotesia indartzen du» (317. or, 1. oharra).

³² TRENCHS ODENAK, Alfontso II.aren eskribautza jorratzean, hau adierazten du hari buruz nahiz klausula kronologikoari dagokionez: «Aragoin emandako dokumentuetan aroaren erabilerari eus-ten zaio, baina, halaber, ikus daiteke Inkarnazioaren estiloak baduela aurrerapena –batez, ere eskribau katalanek idatzirik dokumentuetan–, zeina eraren ondoan jartzen baita» (*Las escribanías catalano-aragonesas desde Ramón Berenguer IV a la minoría de Jaime I*, in *Folia Budapestina*, *op. cit.*, 70. or.).

³³ Antso Ramiritzen kantzelaritzako eskribei buruz, vid. CANELLAS, Á., *La cancellería*, *op. cit.*, 26-27 or.

raktere arabiarrak, baina ez dator bat intitulazioarekin, esplizituegia baita haren genealogiari dagokionez –*filius Sancii regis, filii Ranimiri regis*–, eta ohikoena da *Pedro Sanç* edo *Sanchiz* gisa agertzea. Hori guztia kontuan izanda ere, erabat harrigarria egiten da bera izatea dokumentuaren eskriturazioa bere buruari egozten diona –*Ego, Petrus...hec supradicta scribi volui*–; izan ere, edukiari hitzez hitz heltzen badiogu –*hec supradicta iussi*–, haren aitak agindu besterik ez zuen egin.

Arau multzoa formulazio zehatzeko zenbait manuz osatua dago, eta formulazio hori emailearen autoritatearen izaera inperatibotik harago doa. Autoritate hori jardun pertsonal baten bidez azaleratzen da maiz, eta orainaldian, kasu batean izan ezik, eta kasu hori zinez da adierazgarria; izan ere, dozena bat hitzen bidez, jada erregeak aldarrikatu berri duen desira igarota –Jaka hiri-mailara igotzea–, ekimen horren berehalako eragina gaurkotzeko, Jakako biztanleek zituzten foru txarrak indargabetu nahi ziren (*in hunc diem quod ego constitui...esse civitatem*), eta, hortaz, onak izango ziren beste batzuk eman nahi ziren. Foru horiek, esaten denez herritarrek eskatuta, xede bakarra zuten (eta esan daiteke erregearen obsesioa ere bazela): hiriaren birpopulaketa modu egokian egin ahal izatea. Ezin zen izan beste modu batean; izan ere, Jaka, monarkak berak hala desio zuelako, *civitas* ez ezik, erregearen *civitas* ere bilakatzen da, ondare-ondasuna baino gehiago ondasun pertsonala balitz bezala. Behin eta berriz azpimarratzen da, baina, dirudienez, ez behar adina. Paragrafo horretaz harago, aipamenak Jakari egiten zaizkio, eta kasuren batean, hitz egiten duena erregea bada ere, hiribildua (*villa*) aipatzen da³⁴. Dokumentu honetaz harago, erregearen nahiak, hainbeste aldarrikatu denak, ez dirudi oihartzunik lortu zuenik, ez orduan ez hurrengo mendeetan, baina, hala ere, izan zuen oihartzuna XIV. eta XV. mendeetan, udal-eremuan³⁵; gaur egun ere bai³⁶. Era berean, badirudi Jaka-

³⁴ F J 4: «Et si aliquis, vel miles vel burguenses aut rusticus, percusserit aliquem et non ante me nec in meo palatio, quamvis ego sum in Iaca, non pariet calonia nisi secundum forum quod habetis quando non sum in *villa*».

³⁵ UBIETO, Antoniok –*Jaca, op. cit.*, 22. or.– nabarmetzen du apezpiku-aulkia Huescara eraman zenean XII. eta XIII. mendeko errege-dokumentuetan Jaka hiribildu gisa izendatzen zela, nahiz eta XV. mendeko kopista edo irakurle bat sistematikoki ezabatzen joan zen *villa* hitza *Libro de la cadena* liburuan, eta haren gainean *ciutat* hitza idatzi zuen. Liburu horretan jasotako dokumentazioan Jaka hiri gisa azaltzen den aipamenak salbuespenak dira, eta hori egiazta daiteke haiei buruzko konkordantzia lematizatuak eskaintzen dituen lan honetan: YAGÜE FERRER, M. I., *Jaca: Documentos municipales (971-1324). Introducción y concordancia lematizada*, Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea, 1995. Horien arabera, foruaren dokumentua eta 1063an datatutako Jakako katedralari hamahiru eliza donazioan emateko dokumentua, apokrifotzat joa (cfr. *supra* 31. oharra), alde batera utzita, 1238ko eta 1324ko bi dokumentutan soilik ageri dira Jaka hiriari buruzko aipamenak, eta haietako batek ere ez du jatorria errege-kantzelaritzetan. Era berean, Ramiro II.aren corpus dokumentalean, Ubietok bildua, Jakan datatutako 15 dokumentuetan (akats edo omisioak salbu), aipamen topikoa beti egiten zaio Jaka *villari*, bi

ko biztanleak (*populatores*), zeinei zuzentzen baitzaie erregea hasiera honetan, ahaztuak izan direla; izan ere, hertsatze-klausulan soilik agertzen dira berriro ere, errege-gutunaren hartzaile gisa.

Gainerako eduki normatiboak, testu foralek berezkoa duten doktrina kasuistikoaren barruan, nolabaiteko itxura bateratua erakusten du; izan ere, lehen paragrafoetako idazketaren sekuentzian –*Et unisquisque; et si evererit; Et si aliquis; et si evererit*– etena egiten da seigarren paragrafoa hasteko erabiltzen den forma pertsonal eta zuzenarekin –*dono et concedo*– eta haietan *pariare* terminoa erabiltzen da *pectare* edo *donare* terminoen ordez, eta hori oharkabean pasa liteke, ez balitz, hain zuzen, modu horretan eta paragrafo horrekin hasiko Jakako foruaren Ramiro II.aren berrespenean eta Lizarrako foruaren Antso VI.aren berrespenean jasota dagoen bertsio laburra. Bertsio labur horren eduki osoa eskaintzen da hemen, ordena berean eta desberdintasun testual bakan batzuekin. Horien artean hauek nabarmentzen dira: lehen aztertu dugun *pariare* terminoa saihestea, bereziki bortxaketari dagokion paragrafoan (§ 12); erregeak bere oinordekoei armada-obligazioaren gaineko mandatua zabaltzea, eta hori are deigarriagoa da, ikusi den bezala, eskatokoloko klausulen artean ez baitago betikotasun-berrespenaren ohiko formula; eta, orobat, arestian aipatutako 21. paragrafoko gehikuntza, non salbuetsi egiten baitira ehotze-askatasunetik bai juduak, bai merkataritza-helburuekin egindako ehotzeak. Horiek bezain adierazgarriak dira azken hiru klausulak, zeinek ez baitute elkarrekikotasunik idazketa laburrean. Izan ere, haien edukia dela eta, agerikoa da ez direla omisioak; aitzitik, jatorrizko testu foralari egindako Antso Ramiritzen testuaren gehikuntzak dira. Horrenbestez, badirudi Petri II.ak ezarri zuela Jakan, 1197ko azaroan errege-obligazioez salbuetsitako biztanleei, klerikoei eta infantzoiei, onibarrak

kasutan izan ezik (66. eta 79. dok.), biak ala biak 1135. urtean; eta aipamen horietan *urbe* esaten zaio Jakari, baina inoiz ez *civitas*, zeina, ordea, beti erabiltzen den Huesca aipatzeko. Hala ere, bada kontra-koa adierazten duen testigantzarik; esaterako, *Chronica Adefonsi Imperatoris* kronikan *civitas regia* gisa tratatzen da Jaka, 62. kapituluaren Ramiro II.aren hautaketaz hitz egiten denean (ed. SANCHEZ BELDA, I., Madril: CSIC, 1950).

³⁶ Gertakari hori erabat onartzen du historiografiak. Hori justifikatzeko, historiografiak dio, oro har, zuzenbide kanonikoarekin lotuta dagoela; izan ere, zuzenbide kanonikoaren arabera, apezpiku-aulkiek hirietan egon behar dute eta Jaka aukeratu zen Aragoikoa ezartzeko. Gertakari hori 1063an kokatu izan ohi da, han egin zen Kontzilioaren akten edukian oinarrituta. UBIETO irakasleak apokrifoa zirela erakutsi zuen (*Jaca, op. cit.*, 16. or. eta ed. kritikoa, 4. zk., 36–41 or), eta, hori dela eta, ondoriozta daiteke gertakari horren arrazoia aldaketa batean dagoela: apezpikuen intitulazioetan Jakak Aragoi ordezkatzeko du, eta horrela dago erregistratuta 1076tik aurrerako dokumentazioan (vid. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona*, 107. or.). Martín Duquek, berriz, –MARTÍN DUQUE, Á. J., *El primer burgo, op. cit.*, 323. or.– gertakari horren garrantzi politikoa kontuan hartzen du; izan ere, haren ustez, erregeak jaso berri zuen erresumako *civitas pamplonensis* paralelo bat Aragoi ezartzeko ekimenaren ondorioa da; ekimen horrek bi lekuak ohorezko egoera berean jartzea izango zuen helburu.

saltzeko debekua³⁷ –bestalde, horrelako manuak ohikoak dira erregeek emandako foruetan–. Era berean, zorreatatik espetxeratzeari eta jopu mairuaren bahiari buruzko azken bi arauak badute elkarrekikotasuna hiribildu horretako berezko zuzenbidearen formulaziotzat hartzen den Lizarrako foruaren zatian³⁸.

Dokumentu honen kritika diplomatikoak eta barnekoak dakartzan emaitzak espero zitezkeenak izan arren, nabarmenak dira. Ikuspuntu formal batetik begiratuta, dokumentu honetan ikus genezake mota horretako anomaliak daukela –hitzaurrean eta, bereziki, eskatokoloan–, zeinak nahikoak baitira esateko gaur egunera iritsi den dokumentua ezin izan zela haren emailtzat ageri den erregearen kantzelaritza-eremuan osatu. Bestalde, edukiak adierazten du konposizio konplexua duela, jatorri ugaritako elementu normatiboetatik abiatuta: lehenik, 16 xedapenez osatutako multzo zabal bat –§ § 6-21–, zeina, gutxienez, Ramiro II.aren garaian (1134-1137), haren aitak Jakari emandako forutzat hartzen baitzen. Nolanahi ere, bi bertsioen analisi konparatiboak agerian uzten du dokumentu honetan jasotakoa berrikusi egin zela dokumentuan sartu baino lehen, eta, halaber, planteatzen du dokumentu honetan transkribatutako eredia ez zetorrela guztiz bat harekin. Multzo honi jatorri desberdineko eta geroagoko hiru arau gehitu zitzaizkion –§ § 22-24–³⁹. Hori baino zailagoa da 2.etik 5.era arteko arauen jatorria finkatzea, bai eta arau horien jatorri komuna ziurtatzea ere. Esaterako, lehenak (§ 2), bere edukia dela eta, badirudi dokumentu honen protokolo hasierako klausulek jatorria duten hiri-gutun berean izango lukeela jatorria; hurrengo arauak, errege-justiziaren jardunari buruzkoak, Petri I.ak idatzitzi nahi izan zuen eta sinatu zuen dokumentuarekin lotu beharko lirateke agian –haren hitzei erreparatzen badiegu–⁴⁰. Hala ere, ezein oinarri dokumentalek ez

³⁷ Cfr. *supra* 14. oharra.

³⁸ Jakako 23. araua bat dator edukian Lizarrako E II, 2.22 arauarekin; antzeko formulazioa dute, baina ez zeharo literala. Jopu mairuaren bahiari dagokionez, Lizarrako E II, 2.26 arauan dago jasota, oso formulazio desberdinarekin, baina, ziur aski, ez edukian, arreta jartzen bazaio aurreko paragrafoen irakurketari (animaliaren bahiari buruzkoak). Hala ere, Jakakoan araua gogo humanitario batez jantzita dago, eta horrek geroko garai batean koka gaitzake edo, bestela, elizgizonen ingurune batean.

³⁹ Ohartarazi da lehenago ere 22. araua Jakarako formulatuta ageri dela Petri II.ak 1197ko azaroan emandako pribilegioetako batean; hala ere, infantzoiak eta klerikoak ezartzeko debekuak arau horretan indarrean jarraitzearen ondorio logikoa izan daiteke xedapen hori, zeina berariaz formulatua agertzen baita Jakako zuzenbidearekin oso lotuta dauden zenbait testutan, hala nola Zangozako burgu berrikoan, Gareskoan eta Iruñeko San Zerningoan (vid. *infra* III, 5.5.1). 23. eta 24. arauen kasuan, Lizarrako foruan ere agertzen direnez –lehen A idazketan jasotakoaren oso antzeko formulazioarekin–, pentsa liteke jatorri testual komuna izan dezaketela; izan ere, egia da arau horiek Lizarrako xedapenetan ageri direla, zeinak hiribilduan bertan emandako garapenaren adierazpentzat jo izan baitira. Lizarrako forua Antso VI.ak 1164. urtean berretsi zuela uste da.

⁴⁰ Hala ere, nahiz eta haren hasierako idazketa dela eta 5. paragrafoa 3. paragrafoarekin lotu behar den, formulazio apur bat nahasgarria duen araua da; izan ere, hari ematen zaion soluzioa, hau da, Jakan edo haren mugapean gertatutako hilketak batengatik egilea giza hilketaz erregabetea ez dator guztiz

dirudi aurreikusteko modukoa multzo konplexu honen buruan dagoen arauarentzat; aitzitik, arau hori dokumentu hau egiteko arrazoi gisa aurkezten da, aipatutako iruzkin normatiboak oinarritzat hartuta, eta formalki lotuta dago heratsatze-klausulari eta eskatokoloko klausulei, zeinak oso argi adierazten baitute dokumentuaren irregulartasuna.

Horrenbestez, dokumentu hau ez dator guztiz bat Antso Ramiritzek garrantzi bereziko leku baten garapena sustatzeko emandako foruekin; aitzitik, multzo normatibo anitz baten aurrean gaude, eta horrek, hein handienez, jatorri pribilegiatua du, baina, hala ere, une jakin batean nahi bat aitortzeko tresna gisa erabili da –eta nahi hori juridikoa ez baino, sinbolikoa eta politikoa da–.

Behin puntu honetara iritsitakoan dokumentu hori egiteko beharra noiz eta zergatik sortu zen galdetzea nahitaezko bilakatzen da, baina ez da komenigarria oraindik erantzuna ematea, gainerako Jakako testu foralak guztiz aztertu arte.

2. Ramiro II.aren berrespena

Ramiro II.aren jarduketa hori jasotzen duten bi dokumentu kontserbatu dira, bakoitzari dagokion *Libro de la cadena* liburuko kopiaren bidez. Jarduketa horretan, Ramiro II.ak. Jakari bere aitak emandako foruak berresten ditu eta beste zenbait pribilegio eman. Bi dokumentuen artean lotura estu baten zantzu nabarmenak daude, ez soilik biek ekintza berari buruz hitz egiten dutelako, baizik eta zenbait paralelismo eta identitate testual dituztelako; baina, era berean, diferentzia handiak ere badaude bien artean, bai formari, bai garapen normatiboari dagozkionak. Egintza bati buruzko bi bertsio egotea praktika dokumentalean gertatzen den zerbait da. Hori gerta daiteke dokumentu baten lanketan izandako faseen testigantza kontserbatzeagatik –lehen testu batean erregearen *actio* bat erregistratzen da eta, bigarrenean, egintza hori jasotzen da guztiz formalizatutako dokumentu batean– edo, bestela, izaera foraleko pribilegioetan ohikoa da dokumentuetako bat aurrez eman den izaera orokorreko errege-emakida bati eduki normatibo espezifiko gehitzearen emaitza izatea; eduki hori emakidaren hartzailleek egin zezaketen, errege-eskribautzaz kanpo, beraz, ez da harrizkoa zenbait anomalia edo hutsune diplomatiko izatea⁴¹. Printzipioz, azken hori azalpen

bat kasuaren planteamendurekin. Planteamendu horretan jasotzen dena da lapurraren heriotza lapurreta egiten ari den uanean gertatzea, bizilekuaren bortxatze-egoera batean –Lizarrako foruan jasota dago manu hori (E II, 2.7)–, eta etxeko jabearentzat antzeko soluzioa ematen da.

⁴¹ Horri buruz, vid. BARRERO, A. M., El proceso de formación del derecho local medieval a través de sus textos: Los fueros castellano-leoneses. DE LA IGLESIA DUARTE, José Ignacio (zuz.), *I Semana de Estudios medievales, Nájera 1990*, Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 2001, 91-131 or.

egokia eta nahikoa izan daiteke kasu honetarako, dokumentu horiek erakusten dituzten aldeak kontuan izanda, bai formalak, bai haien edukiaren garapenean ageri direnak.

Diferentzia formal nabarmenenak eskatokoloaren klausuletan daude; izan ere, haietako batek –egun ezagutzen den bertsioan– ez du halakorik, baina hori gorabehera, hain zuzen, hantxe erregistratu ziren, emailearen izenpearen ondoren, haren ondorengo izenpeak Petri II.aren iritsi arte. Edukiari dagokionez, aldaera nagusiak hauetan oinarritzen dira: lehenik, monarkaren jardunaren funtsa den kausan; bigarrenik, berretsitako foruaren azalpen normatiboan –dokumentuetako batek ez dauka–; eta, hirugarrenik, berrespen-ekintzarekin batera gehitzen diren pribilegioen hedapen desberdinean, bai eta bi dokumentuetan ageri direnetan erabiltzen den formulazio desberdinean ere.

Osorik egituratutako dokumentua hasteko, aldi hartako kantzelaritza-erabilerarako egokiak diren protokolozko klausulak erabiltzen dira⁴²: Jainkoari egindako inbokazio nominal bakun bat; dokumentua *carta donationis et libertatis* gisa aitortzea; erregearen izena aipatzea –*rex* tituluarekin–, berariaz adierazi gabe bere menpeko lurraldeak eta bere filiazioa adieraziz. Jarraian, ekintzaren lekua⁴³ eta edukiaren jakinarazpena eta haren motibazioa ageri dira: lehenik, foruen berrespina, non berrespen hori formulatzeko terminoek gogora ekartzen baitituzte egun ezaguna den eta haiek barne hartzen dituela dioen dokumentuko hitzurreak –dokumentuak bere burua honela aipatzen du: *illos bonos fueros*–, eta, halaber, aipatzen du foru txarren indargabetzea⁴⁴, baina kasu honetan lehen pertsonan, berezko jardun bat izango balitz bezala; bigarrenik eta arrazoi jakin bat dela medio –Jakako gizonen pribilegioa, hots, hura errege izendatzeko lehentasuna–, ohiz kanpokotzat aurkezten den pribilegio baten emakida, hau da: pribilegioa (*illam meliorem libertatem*), norena den pribilegioa (*illi burguenses de Montpesstler*), zeina ondoren puntualki adierazten baitu (*et est talis*). Hura idazketa-batasun nabarmeneko bi paragrafotan soilik garatzen da, baina, hala ere, etenda geratzen da, tartean berrespen-klausula bat agertzen baita, zeina berriz ere agertuko baita, ez termino berberetan, baizik eta dokumentu osoari erreferentzia eginez, leku egokian, xedapen-zatiaren amaiera gisa. Horren ondoren, eskatokoloarenak daude, jardun dokumentalak ezarritako ordenari guztiz jarraitu gabe; izan ere, datazioa emailearen izenpea baino lehenago agertzen da. Dataziorako formularen, Antso Ramiritzen dokumentuan bezala, beharrezko

⁴² Ramiro II.aren dokumentuen ezaugarriei buruz, vid. CANELLAS, Á., *La cancellería, op. cit.*, 32-40 or.

⁴³ Nabarmena da kopistaren lapsusa, *presentis* terminoa ez baitu idazten.

⁴⁴ Berriz ere ageri da paragrafo honetan kopia-akats bat, seguru asko *tollo* hitza irakurtzean egin-dakoa.

adierazpen kronologikoak ageri dira, erregearen ohiko formula eta aipamen topiko eta pertsonalak saihestuz. Aitzitik, dataren adierazpena zinez da osoa; izan ere, inkarnazioaren eta aro hispanikoaren zenbaketa bikoitzaren ondoren hila (otsaila) eta eguna adierazten dira (hil horretako hirugarren idusa; hots, kristau-egutegiko 11. egunari dagokiona). Edonola ere, datu horiek ez dira zuzenak, dokumentuan jasotako ekintzari nahiz haren formulazioari dagokionez. Adierazitako dataren akatsa agerikoa da; izan ere, Borrokaliariaren heriotza urte horretako irailaren 7an gertatu zen⁴⁵. Eta, hori dela eta, kritikak bi aukera planteatu ditu hori azaltzeko: aroaren adierazpenean akats sinesgarri bat egotea; beraz, dokumentua 1135ean kokatu beharko litzateke. Edo, bestela, kopista nahastu izana ereduaren zegoen hila laburtzapena interpretatzerakoan, hau da, *otsaila* irakurtzea *iraila* jartzen zuen lekuan⁴⁶. Hala ere, adituei ez zaie deigarria egin, eta ez da erraza errege-eskribautzako dokumentu batean erabilitako formula justifikatzea; izan ere, zenbaketa bikoitzaren formulaz gain⁴⁷, hilaren eguna ere aipatzen da, eta hori Aragoiko dokumentuetan geroago arte erabiltzen ez zen formula da. Halaber, kontuan hartu behar da formula hori ez dela ageri *Libro de las cadenas* liburuko gainerako errege-dokumentuetan, baina bai, ordea, apezpiku-kantzelaritzako dokumenturen batean⁴⁸. Erregearen izenpearen ondoren, pertsona ugariaren izena ageri da (hogeita bost), *actio* horren lekuko gisa aurkezten direnak, iraganaldian jarduten baitira guztiak *-fuerunt testes-*; hala eta guztiz ere, hura gainetik irakurtzea nahikoa da hautemateko aipatutako bederatzi pertsonak, guxtienez, datazio pertsonaleko klausula batean egon beharko luketela, eta, hain zuzen, dokumentuan ez dago halakorik⁴⁹. Azkenik, Pedro eskribak dokumen-

⁴⁵ Borrokaliariaren testamentuari eta heriotzari buruz, MARTÍN DUQUE, Á. J., Navarra y Aragón. *Historia de España de Menéndez Pidal dirigida por J. M^a. Jover Zamora, IX. La Reconquista y el proceso de diferenciación política (1035-1217)*, Madril: Espasa-Calpe, 1998, 309-310 or.

⁴⁶ UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 65. or. Nolanahi ere, bi datak dokumentuko zerrenda nominalarekin bat datoz, eta horiei esker 1134ko irailaren –ordurako Teresa bizkondesa ageri da Uncastilloko tenentziaren titular gisa– eta hurrengo urteko abuztuaren –non Fortun Galindezek Huescako izateari uzten baitio– arteko aldiak koka daiteke (cfr. UBIETO, A., *Los «tenentes» en Navarra y Aragón en los siglos XI y XII*, Valentzia: Anúbar, 1973).

⁴⁷ Ramiro II.aren korpus dokumentalean ikus daiteke zenbaketa bikoitza erresumaren emakida Petronila andrearen eta Bartzelonako kondearen mesedetan egiteari buruzko dokumentuetan soilik ageri dela.

⁴⁸ Formula horren ezaugarria da hila bi aldiz aipatzen dela; izan ere, hura eguna baino lehen egoiteak behartzen du gero berriz ere aipatzea egunaren determinatzaile gisa. Oso antzeko bat erabiltzen da García de Gudal apezpikuaren dokumentu batean –dokumentu horren bidez Soduruelgo artxidakonozaren donazioa egiten zaio Jakako elizari) (ed. UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 31. zk., 90-91 or.).

⁴⁹ Oro har, aldi horretako Aragoiko dokumentuek ez dute lekukorik izaten, eta, izatekotan, zerrenda ez da luzea izaten. Apezpikuen eta tenenteen enuntziatua klausula kronologiko pertsonalean sartu ohi da, kargua egikaritzen den lekuari dagozkion beharrezko identifikazio-erreferentzia topikoak aipatuz. Dokumentu honetan ikus daiteke Huescako apezpikuaren aipamenaren ondoren toponimo guztien au-

tua izenpetzen du berari dagokion zeinu pertsonalaz. Eskriba horren jarduna 1129-1138 aldian garatu zen⁵⁰.

Ugariak dira dokumentu honetan aurkitu daitezkeen anomaliak, eta, horrenbestez, zaila da, ezagutzen den forman behintzat, errege-eskribautzan sortutako tresna baten kopiatzat jotzea. Halaber, zenbait klausulatan egindako zuzenketak eta adierazpen kronologikoarekin aipamen pertsonalak egokitu direla –arestian aipatutako zenbakizko akatsa eta irakurtze-akatsa salbu– kontuan izanik, Ramiro II.aren benetako dokumentu bat oinarri hartuta egindako dokumentua izan daitekeela ondoriozta daiteke.

Hau izan al daiteke dokumentu luzea? Ikuspuntu formal batetik, dokumentu honen hutsune handiena eskatokoloaren klausulen absentzia da, baina, aldiz, emaiaren ondorengo izenpea ageri da. Absentzia horren justifikazio posibletzat jo daiteke *Libro de las cadenas* liburuan aurrekoaren jarraian jasota dagoela, eta, agian, horrek eraman zuela liburuaren kopista, antzekoak izateagatik, klausula horiek dokumentuan ez sartzeraz; halaber, izenpeak beste dokumentuan agertzen ez zirelako jarriko zituen.

Kontserbatutako zatiari dagokionez (egia bada noizbait ez zela eskatokoloa falta izan), nabarmentzeko modukoa da haren koherentzia handiagoa formari eta edukiari dagokionez, bai hitzaurrean, bai garapen normatiboan. Hortaz, hartan ez dira lehenengo dokumentuan ikus daitezkeen kopia-akatsak hautematen⁵¹, ez eta erregearen jardunaren irismenari dagokion han adierazitako inkoherentzia ere, hor ez baita gertatzen egin nahi zen foru txar batzuen indargabetzea. Bestalde, dokumentu honen hitzaurrea edota haren bertsio fidagarri bat une jakin batean Lizarran erabili izana froga ona da ondorioztatzeko erlatiboki gertukoa den garai batean guztizko autoritatea izan zuela. Era berean, edukiaren garapenaren koherentzia eta edukiak hitzaurrearekiko duena nabarmenak dira. Erregeak bere aitaren foruak berresten ditu, eta berariaz zerrendatzen ditu. Ezin dugu jakin errege-dokumentu originalean horrela zen edota dokumentuaren garapena ez zen errege-eskribautzaren lana izan, baina, edonola ere, ez da hautematen idazketa-inkongruentziarik edo dokumentuaren osotasunarekin bat ez datorren erreferentziarik. Forua aurkeztu eta gero, Ramiro II.ak beste pribilegio batzuk ematen ditu. Pribilegio horiek graziaren eraginez ematen ditu, arrazoi pertsonaletan oinarrituz, zeinak are egokiagoak ziren kasu horretan, bere eliz-

rretik *in* preposizioa jartzen dela, eta ez zerrendaren lehen zatian bezala, non *de* preposizioa erabiltzen baita, pertsonaren identifikazioa bere jatorriaren bidez osatzen denean. Era berean, apezpikuen izenarekin ez hastea eta apezpiku eta tenenteak zerrendaren amaierako zatian agertzea nahikoa zantzu da ondorioztatzeko zerrenda hori elementu desberdinetan oinarrituz osatuta dagoela.

⁵⁰ Cfr. CANELLAS, Á., *La cancellería*, *op. cit.*, 40. or.

⁵¹ 43. eta 44. oharretan nabarmendutakoak.

gizon-kondizioa eta azkenaldian gertatutakoak kontuan izanik. Hori dela eta, Alfontso I.aren heriotzaren unean erresuman lezda ordaintzeko salbuespen orokorraren pribilegioa, zeina, bestalde, ez baitzen ohiz kanpoko dokumentu nafar-aragoarretan⁵², Jakan finkatutako biztanleei zuzenduta zegoen, etorkizuneko proiektioarekin eta leku haren populaketa bermatzeko helburuarekin. Klausula horren idazketak, erreferentziako diferentziak salbu, identitate literal nabarmena erakusten du bi dokumentuetan; hainbestearinokoa da, ezen han ezarritako denbora-mugari buruzko paragrafoaren desegokitasuna –Borrokalariaen heriotza– gainditzeko ez da paragrafoa ezabatzen, baizik eta hura errege-berrespen desegokiko klausula baten bidez ordeztan da, arestian azpimarratu den bezala, sartuta agertzen den lekuagatik eta dokumentuaren osotasuna kontuan izanik, asko errepikatzen delako. Lezdaren gaineko pribilegioari errege-bainuen errenten donazioa gehitu behar zaio, bai eta hiribildua harresitzeko erabiliko den baratza baten erdiaren donazioa ere. Jarraian erregearen berrespena eta izenpea datoz. Ez dakigu jatorrizko dokumentua ohiko klausula protokolarioekin osatu zen, baina litekeena eta gertagarria da, dokumentuaren zehaztasun formalari eta koherentziari erreparatuta. Dokumentu honen edukiak aurrekoak 1134. urtean kokatzen duen ekintza berari buruz hitz egiten duenez, logikoa dirudi data hori egotea dokumentu honi ere; nolana ere, azken klausuletako bi aipamenez, eremua modu egonkorrean finkatzeko interesak, hau da, etxebizitza habitatuaren eskakizunak, eta ondoren datorren donazioaren defentsarako xedeak pentsarazten digute hiribildua une horretan zailtasun handiak bizitzen ari zela, agian, Nafarroarekin izandako lehen borroken ondorioz eta Burnaoko sutearen ondorioz, zeina hirigune zaharraren harresietatik kanpo baitzegoen⁵³. Hori horrela balitz, 1134. urtea baino geroagoko garai batean kokatuko ginatke, errege monjearen erreinaldiaren azken urteetan, hain zuzen. Horrelako zehaztapen kronologikoen interesa pizten dute ikuspuntu dokumentaletik lehen aztertutako dokumentuaren izaera apokrifoa agerian uzten duten neurrian; izan ere, dokumentu hori xede jakin baterako egin izana posible da, beste honen egokitzapenetik abiatuta –aurredatazioa barne⁵⁴–. Dirudienez, xede hori izango litzateke Jaka erregearen babesa bereziki merezi zuen leku gisa aurkeztea (ezin baita espero besterik bere autoritatea ere zor duenarengandik), eta, horrenbestez, erresuman hain ohiz kanpokoak ziren pribilegioak emanez erantzun zuen erregeak. Pribilegio horiek

⁵² Vid. *infra* III, 5.1.2.

⁵³ Vid. LACARRA, José M^a, Desarrollo urbano de Jaca en la Edad Media, *Estudios de la Edad Media de la Corona de Aragón*, 4 (1951), 139-155 or.

⁵⁴ Horrek, gainera, esan nahiko luke data horretako (1134/35) beste dokumentu bat erabili zela lekukoan zerrendan agertzen diren azken izenak gutxienez sartzeko; eta hori hipotesi gisa apur bat behartua den arren, azaldu lezake lekukoan zerrenda gisa aurkezten den zerrenda horren eraketa bitxia.

onenak bezala aurkezten dira, bortuz bestaldeko hiri garrantzitsu batean dituzte-
nen parekoak, MontPELLIERren hain zuzen. Konnotazio bat gehiago beste batzue-
kin batera klausula formaletan –foru txarrak indargabetzeari buruzko aipamena,
zenbaketa bikoitzeko datazioa–, eta horren aurrean behatzaileak ezin dio utzi
Antso Ramiritzi egotzitako dokumentu foralean pentsatzeari.

3. Alfontso II.aren emakida

Dokumentu honek jasotzen du Alfontso II.ak Jakako zuzenbide tradizio-
nala berresteko egindako jarduketa bat, zeina, dirudienez, zehazten baita jarraian
ageri den xedapen multzoan, erlatiboki zabala berau (30 klausula, haren edi-
toeren arabera). Tresna horrek adituen artean piztutako interesaren jatorria ez
dago bereziki arau horien irismenean, baizik eta hitzaurrean egiten diren baieztapen-
tapenetan. Baieztapen horiek hiribilduaren berezitasunari buruzkoak dira, bes-
te behin ere, baina kasu honetan ez dago erregearekin lotuta –hiribilduarekiko
izan ditzakeen debozio edo obligazioak–, baizik eta hiribilduak berezkoa duen
zerbaitekin: haren zuzenbidearekin. Zuzenbide horren ezaugarria da bere indar-
-eremuaren hedapena (*tocius ille terre que est ultra serram*), bai eta haren per-
fekzio bitxia ere, zeinak kanpoko jendearen arreta erakarri baitzuen. Eta ez dira
funsgabeko esamesak edo baieztapenak; erregeak berak badu horren berri (*scio
enim*), berak badaki hori gertatzen dela (*in Castella, in Navarra et in aliis terris
solent venire Iaccam per bonas consuetudines et fuoros addiscendos et ad loca
sua transferendos*). Horrelaxe adierazi zuen monarkak, eta horrelaxe onartu da,
inolako erreserbarik gabe⁵⁵. Baina, hori horrela gertatu al zen? Kasu honetan ere,
kritika diplomatikoa izango da kontuz ibiltzeko ohartaraziko gaituena.

Testigantza hau ere *Libro de la cadena* liburuan jasotako haren transkrip-
zioari esker iritsi zaigu; horrenbestez, haren kalitate dokumentala epaitzeari da-
gokionez, klausula formal eta normatiboen kritikatik erator daitezkeen elemen-
tuak baino ez ditugu eskura. Dokumentua Bernat Desvall errege-notarioak izen-

⁵⁵ Nolanahi ere, erregearen baieztapena eta errealtate dokumentala bateratzeko zailtasuna nabar-
mendu izan da. Dokumentu honen lehen editoreak (MUÑOZ Y ROMERO) hau adierazi zuen, ironia
puntu batez: «Cuando de todas partes acudían a Jaca a aprender sus usos y costumbres, es de presumir
hubiese además de estos fueros, otros muchos que no estuviesen escritos y formasen su derecho consue-
tudinario. Si en aquella época no existía en Jaca otra legislación foral que la escrita, no tenían en verdad
necesidad de ir a estudiarla los castellanos y navarros» (cfr. *Colección de fueros municipales y cartas
pueblos de los reinos de Castilla, León, Navarra y Aragón*, Madril: José María Alonsoren inprimategia,
1847, 243. or.). Bestalde, Mauricio MOLHOK, Jakako foruaren kodexei dagokienez, irizten dio baieztapen
horrengatik ez balitz badaudela zantzuak kodex horiek Aragoiko lautadako udalerrietan sortu
zirela uste izateko (MOLHO, M., *Difusión del derecho pirenaico (Fuero de Jaca) en el reino de Aragón.
Boletín de la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona*, 28 (1959-1960), 303. or.).

petuta dago, eta haren jarduna 1184-1194 aldian dago erregistratuta⁵⁶; itxuraz, dokumentuak aldi horretako diplomen ezaugarriak ditu. Hitzaurrea laburra da. Baditu Jainkoari egindako inbokazio-klausula nominalak eta dokumentatutako ekintzaren jakinarazpen-klausulak, non erregeak –bere izenez eta dagozkion tituluez izendatua– dokumentuaren irismena adierazten duen –onespena, emakida eta antzinako ohitura eta foruen berrespena– eta zer inguruabarretan garatzen den ere. Halaber, adierazten da pertsona multzo batek kontseilari gisa parte hartu zuela (*multorum bonorum virorum*), eta horietako lau izenez aipatzen dira, eta horietatik biren kargua adierazten da. Azken lerrotan, erregeak bere jardunaren zioa azaltzen du, hau da, zuzenbide horren garrantziaz eta transzendentziaz konturatzen dela berau. Eskatokoloko klausulek ez dute etenik multzo normatiboarekiko. Errege-berrespenari dagokion ohiko klausula falta da haietan; izenpea badago, eta kasu honetan ere dataren atzean ageri da. Data, hitzaurrearekin bat etorritik, *actio*ari buruzkoa da, eta ez haren *conscriptio*ari buruzkoa. Aragoiko eran dago adierazita: adierazpen topiko eta kronologikoaz osatuta dago, hilaren eta aroaren aipamenarekin, eta, jarraian, lekukoaren zerrenda nominal batean eraldatzen da zalantzarik gabe jatorrian erregearenak hasten zuen datazio pertsonaleko formula zena. Horrenbestez, zerrenda horren lehenengo tokian erregea bera ageri da, zeinak bere burua lekuko gisa aurkezten baitu, bere izena aipatu gabe, baina bere mendeko lurraldeak aipatuz⁵⁷. Errege-zeinuaren aposizioaren ondoren, lekuko-kondizioa (*teste*) ere egozten zaien pertsonen aipamena ageri da –hori, egiazki, singularrean egiten da–. Lehena Huescako apezpikua da⁵⁸, eta, jarraian, zenbait tenenteren izena ageri da, haietako bakoitzaren mendeko lurrak adieraziz, bai eta gorteko beste karguren bat ere. Aipatutako apezpikuaz gain, erregeari aholkua ematen dioten eta hitzaurrean aipatzen diren beste hiru pertsonak ageri dira. Horretan eta gainerako erreferentzia pertsonaletan ez da hautematen goian adierazitako datarekiko anakronismorik⁵⁹. Errege-notarioaren izenpetzeko formulak ez du erakusten anomalia-zantzurik. Edonola ere, aipatutakoak nahikoa

⁵⁶ Vid. TRENCHS, J., *Las escribanías*, *op. cit.*, 64. or.

⁵⁷ Paragrafo horren formulazio nahasgarriaren ondorioz, Ubieto irakasleak puntuazioa oker erabili du, eta, hori dela eta, inkoherentzia areagotu egiten da.

⁵⁸ Horrela aipatzen da hitzaurrean; hemen, berriz, Huesca-Jakako egoitzaren buru gisa ageri da. Dokumentuan, apezpiku-aulki horretako apezpikuak intitulatzeko moduari dagokionez, argigarria da egiaztatzea –Lacarrak bildutako Ebro ibarreko dokumentuetan behintzat– nola Ramiro II.aren dokumentuetatik aurrera apezpikuak Huescako apezpiku gisa soilik intitulatzen diren. Halaber, *Libro de la cadena* liburuan jasotako dokumentuetan ikus daiteke errege-dokumentuetan egoitza horretako apezpiku bezala ageri direla, baina eliza-dokumentuetan, berriz, aipamen bikoitzarekin ageri direla.

⁵⁹ Egia da zenbait aipamen oso doituak direla; Jimeno Corneliari (Ejea) dagokionez, Agustín UBIETOK dokumentu bakarrean erregistratzen du pertsona hori, hain zuzen ere, urte horretako azaroan datatutakoan (cfr. *Los «tenentes»*, *op. cit.*, 137. or.).

adierazgarriak dira ondorioztatu ahal izateko dokumentuari, ezagutzen den moduan, zenbait aldaketa egin zitzaizkiola eskatokoloko klausula horietan.

Baina ez soilik haietan. Edukia irakurriz ere haren osaeraren konplexutasuna ikus daiteke; izan ere, zenbait arau bereizi daitezke: hasierakoak eta amaierakoak (§§ 1-8 eta 26-30). Haietan, erregea berehala dago presente –*In primis laudo et confirmo* (§ 1), *mille solidos nobis pectare* (§ 26), *et deffensione nostra suscipimus* (§ 30)–, eta, hori dela eta, ez dago zalantzarik dokumentuaren jatorriari dagokionez. Aitzitik, erregeari egiten zaizkion gainerako 17 aipamenak hirugarren pertsonan dira –*merino regis, domno regi, in manu domino regi*–, eta, hori dela eta, pentsa daiteke jatorri desberdinekoak direla, ondorioztatzeraino jatorria hiribilduko autoritateen gaitasun estatutariotik eratorria dela. Hori horrela islatzen du haietako zenbaiten hasierako enuntziatuak –*De latronibus vero statuimus* (§ 9), *De apeltis ita statuimus* (§ 18)–; horiek, hain zuzen, arau multzo bat bateratasun tematiko batean kokatzeko balio duten errubrikak baino ez dira. Arau horiek, jatorrian, mota horretako iruzkin normatibo bat edo batzuen zati izan daitezke, askotariko gaiei buruzkoak, lehen aipatutakoei buruzkoak, bai eta ordena prozesalari (§§ 21, 22, 25) eta trashumantzia-erregimenari (§§ 16, 17, 23-24) buruzkoak ere (zeinak orain elkarren ondoan jartzen baitira, eta, halaber, marjina-glosaren bat ere ageri da⁶⁰). Horiek guztiak Alfontso II.aren jatorrizko pribilegioaren klausula normatiboekin bateratzean, izaera horretako testu normatibo beraren osagaitzat ageri dira. Jatorri eta izaera desberdinetako arauak fusionatzea dela eta, sortzen den zalantza da ea izaera estatutariokoak bat datozen erregeak berresten duela dioen Jakako zuzenbide tradizionalarekin; nolahi ere, hori horrela izanda ere, ez dirudi haien formulazioa lehenago gertatu zenik, ez eta Alfontso II.aren dokumentuaren emakidaren unean ere, dokumentu horretan sartuak izan zitezten; izan ere, horrela izan balitz, erregeari egindako aipamenetako inkohereziaz konponduko ziratekeen. Era berean, beste zalantza bat ere sortzen da: ea bateratze horrek irismen normatiboa izan zuen soilik, hau da, ea bateratze hori, eguneratuz, errege-berrespenaren ekintzari eduki puntual eta zehatza emateko egin zen, edo ea bateratze horrek pribilegioaren jatorrizko tes-

⁶⁰ Hori izan daiteke 20. arauaren jatorria; arau horretan ofizial (*consules* deituak) batzuen hautaketari buruz hitz egiten da, Jaka eta beste hiribildu batzuen zaintza eta defentsarako. Arau horrek, itxuraz, ez du harremanik abizenari buruzko aurrekoekin, salbu eta instituzio baten eta bestearen helburuari dagokionez. Inperatiboan formulatuta badago ere, *tamen* adbertsatiboarekin hasten da, eta, horrenbestez, ondoriozta daiteke aurreko testuari buruzko ohar bat dela. Bestalde, Aragoiko tokiko magistratura bati *consules* terminoa aplikatzea –ohikoagoa nomenklatura katalanean– harrigarria egiten da testuinguru horretan; are gehiago, kontuan hartzen badugu segur aski erreferentzia egiten dion instituzioa, juratuen, 1212an ezarri zuela Jakan Petri II.ak (cfr. UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 33. eta 34. zk., 95-98 or.). Hala ere, esan behar da termino hori, era berean, beste dokumentuan ere ageri dela, Petri II.ak asteko azokaren emakida egiteko dokumentuan hain zuzen (1197ko azaroa).

tuari eragin zion, kanpoko arauen gehikuntza soil bat izateaz gainera. Egindako analisi diplomatikotik ondorioztatzen da eskatokoloko klausuletan zenbait aldaketa egin zirela, baina litekeena da aldaketa formal hutsak baino zabalagoak eta transzendentzia handiagokoak izatea. Protokoloko klausulak aztertzean, harrigarria egiten da diskurtsoan erregearen jardunaren zioen azalpenak duen kokapen epigonala; are gehiago, kontuan izanik erreferentzia topiko baten jarraian kokatuta dagoela, zeina, era berean, kontakizunean legokion lekutik bereizita ageri baita. Hau da esaldia: *antiquas Iacce consuetudines et fuoros, et tocius ille terre que est ultra serram, versus montana Iacce, scio enim...* Sintaxia apur bat behartua da, baina ez luke arreta gehiegi eskatuko, ez balitz aurrerago, zazpigarren paragrafoan, antzeko modu batean erreproduzitu: *Preterea homines de Iacca caveant caucius negociari et de tota illa terra*. Baina ez da horrela, ordea, erreferentzia hori beste aldi batean ageri denean ere –§ 4: *Si autem fuerit extraneus qui moriatur Iacce vel in illa terra ultra serram...*–. Kasu horretan, testuinguru normatiboan guztiz integratuta ageri da eta Guarako mendilerroaren bestaldeko lurrekin (*transierra*) bat dator kokapen espazialari dagokionez, eta, hain zuzen, hori ez da gertatzen lehenengoan, non kontrako norabidean ulertu behar baiten, hau da, hegoaldetik iparraldera. Hori ulertzeko zailtasunaz konturatu behar izan zuen dokumentuaren egileak; izan ere, ikuspuntua zehaztera behartuta ikusi zuen bere burua (*versus montana Iacce*)⁶¹. Testuinguruari dagozkion irregularitasun horiei erreparatuta, honako susmo hau planteatu behar da: jatorrizko testuaren aldaketa horiek Jakako zuzenbidearen indar-eremua zabaltzeko helburua dute, eta, zergatik ez, zuzenbide horrek erresumaz harago duen transzendentzia azpimarratzekoa. Gainontzean, batzuei zein besteei ondasunak libreki edukitzea eta salgaien trafikoa egiteko askatasuna bermatzen dieten arau horien edukia eta irismena –jatorrizko dokumentuak, seguruenik, barne hartuko zituenak– erabat egokitzen dira tokiko inguruabarretara, kontuan izanik Europako komunikazio-eta merkataritza-bideetan Jakak garai hartan zuen garrantzia (1187), eta, halaber, erregeek, pribilegiozko arauen emakiden bidez, biztanleak finkatzeko eta beren erresumetako ekonomia garatzeko zuten interesa aintzat hartuz⁶².

⁶¹ Ez da horrela izan historialarientzat; izan ere, 16. eta 23. klausuletan *Yspaniari* egiten zaion erreferentziak bide ematen du ulertzeko dokumentuak *Montaña* edo jatorrizko Aragoi eta lurralde konkistatu berriak (Espainia) bereizten dituela. Vid. RAMOS LOSCERTALES, J. M., *Fuero de Jaca (última redacción)*, Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitatea, 1927, XXII-XXV; MOLHO, M., *Difusión*, 292-293; LALINDE, J., *Los fueros de Aragón, op. cit.*, 26. or. Nire ustez, bi erreferentzia horiek lurralde berari buruzkoak dira, mendilerroaz bestaldeko lurri buruzkoak, eta horrek berretsi egiten du dokumentu honen osaketa konplexua hainbat elementutan oinarrituta egin zela.

⁶² Hala, hemen Alfontso II.ak emandako arauen antzekoak eman zituen urte batzuk geroago, Leon-go izen bereko erregeak. (vid. VÁZQUEZ DE PARGA, L., LACARRA, J. M., URÍA, J., *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela. III*, Madril: CSIC, 1949, 77. ap. zk.).

Berriro ere, foruak berresteko dokumentu bat dugu esku artean, berariazko interesez luze eta zabal berregin izanaren zantzu nabariak dituena; nolana ere, aurrekoak bezala –Ramiro II.arena salbu, zeinak Montpellier aipatzen baitu– oinarri dokumental fidagarrietan funtsatzen dela dirudi.

4. Kritika diplomatikotik eratorritako ondorioak

Berregite horietan erabilitako teknikari dagokionez, guztietan balizko jatorrizko dokumentuetan aldaketak egin izanaren zantzuak ikus daitezke. Aldaketa horiek honela laburbil daitezke: batetik, datazio-klausuletan kantzelaritza-forma katalanak erabiltzeko joera Aragoiko forma dokumentalak erabili beharrean –zenbaketa inkarnazioaren bidez egitea, baina hemen aro hispanikoari lotuta; formula pertsonala lekukoan zerrenda batean eraldatzea–; eta, bestetik, jatorri bisigotikoa duen zehapen espiritualaren klausula, garai eta inguru haietan ohi-koagoa zena elizako dokumentuetan. Beste alde batetik, hitzaurreen irakurketa bateratua dela eta hauteman daiteke asmoen arteko sintonia bat sekuentzia-kadentzia batekin: erregeak Jaka *civitas* kategoriara goratzen du, Jakak erregearen aldeotasuna du, Jaka aitortua izan da bere zuzenbidearen bikaintasuna dela eta, eta hori erregeak egin du berariaz, bai eta Gaztelako eta Nafarroako jendeak nahiz beste lurralde batzuetakoak ere; izan ere, agian, haraino hedatu nahi zen Antso errege zaharraren ahotsa. Itxura guztien arabera, ez ziren izan dokumentuetan aldaketak egin izanaren zenbait kasu; aitzitik, jardun bateratu bat izan zela dirudi: tresna desberdinetan ageri da, baina guztiak daude hiribilduko zuzenbidearekin lotuta eta guztiek dute lotura estua erregearen pertsonarekin.

Egindako kritika dokumentalak nahiko datu adierazgarriak eskaintzen ditu; haien bidez, ikus daiteke nola berregin ziren dokumentu foral horiek, jatorrizko eta izaera anitzeko iruzkin normatiboak bateratuzetik abiatuta, eta, era berean, oinarrizko tresna jakin batzuetatik hartutako egitura formalera egokituta (eta, orobat, interes jakin batzuetara). Baina prozesu horri buruzko beste galdera batzuk argitzeke daude oraindik: noiz gertatu zen, nor egin zuen eta zergatik egin zuen.

Beranduenez zer datatan egin zen jakitea ez da zailegia. Batetik, dokumentu guztien kopiak *Libro de la cadena* liburuan ageri direnez, 1283. urtea *ad quem* termino gisa har daiteke. Bestalde, *a quo* terminoa, berriz, gutxienez 1187. urtean koka daiteke, aztertutako dokumentuetan azkenak data hori baitauka, eta, halaber, oso litekeena da 1197. urtearen ostekoa izatea, izan ere, Antso Ramiritzen foruan Petri II.ak data horretan ezarritako kleriko eta infantzoiei onibarrak saltzeko debekuari buruzko araua dago jasota⁶³. Ia mende bateko denbora-tarte

⁶³ Cfr. *supra* 14. oharra.

horretan zehaztasun handiagoak egitea hipotesiaren eremuan sartzea litzateke, eta eremu horretan ziurgabetasunak eta zuhurtzia dira nagusi. Horrenbestez, Jakako foruak berretsi zituzten ondoz ondoko erregeek erabilitako formulai erreparatzea argigarria izan daiteke hurbiltzeko bide gisa. Hori gertatzen da Ramiro II.aren berrespenarekin. Berrespen horretan erreferentzia pertsonal zehatza egiten da (*illos bonos fueros quos pater meus Sancius rex... missit in Iacca*); izan ere, jarraian datozenak anbiguotasunez eta orokortasunez daude formulatuta (aipatzen dira *antiquas consuetudines et fueros*⁶⁴) edo zehaztu egiten dira. Nolanahi ere, oraingoan ez dira zehazten izaera pertsonaleko erreferentzia baten bidez, baizik izaera instrumentaleko erreferentzia baten bidez; izan ere, erregearen jarduna berariaz zuzentzen zaie hauei: *illos fueros et illas consuetudines... prout in instrumentis factis et auctorizatis vobis ab illis antecessoribus meis*⁶⁵, edo, bestela –modu zehatzean hemen ere, baina nabarmen zabalagoan–, honela: *omnes foros et consuetudines ac franchitates quos et quas antecessores nostri vobis concesserunt, et sicut in cartis vestris plenius continentur, et sicut melius hactenus cum cartis et sine cartis habuistis et rationabilibus posseditis*⁶⁶. Horrenbestez, dokumentu horien irakurketa jarraituak erakusten du une jakin batetik aurrera (1197. urtea) soilik onartzen dela berariaz badirela izaera desberdineko arauak jasotzen dituzten testu normatiboak –*fueros et consuetudines*–, eta horiek, jatorria errege-kantzelaritzan izan edo ez izan, erregeen behar bezalako berrespena dute –hori esaten da behintzat–. Hori dela eta, ezin da oharkabean pasa Petri II.aren dokumentu batean ageri den adierazpena (Jakan, 1208ko ekainaren 16an datatua⁶⁷). Adierazpen horretan, monarkak, testuinguru horretan eta aurrekaria ezarri gabe, Jakako *cives*-en (*maioribus et minoribus*⁶⁸) eskaerari erantzunez, berrespen hau egiten du: *cartas vestras omnes super quolibet facto vel casu vel negocio vobis a predecessoribus nostris factas atque concessas vobis omnibus supradictis et cuncte generationi vestre laudamus, concedimus et confirmamus, sine aliqua retentione ad plenum, et presentis scripti patrocínio comunimus per nos et successores nostros et eas bonas, veras, legales et omni vitio et falsitate carentes perpetuo iudicamus, volentes statuantes atque mandantes eas omnes in omnibus et per omnia obtinere robur et vigorem perpetue firmitatis, salva tamen fidelitate nostra*. Ohi ez bezalako emakida da hori, nahiz eta eskertuta dagoen errege batena den; izan ere, hori egiteak berarekin dakar erregeak onartzea hain

⁶⁴ Alfontso II.aren pribilegioa, 1187ko azarokoa (*supra* II, 3-n aipatua).

⁶⁵ Cfr. *supra* 12. oharra.

⁶⁶ Cfr. *supra* 13. oharra.

⁶⁷ UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 30. zk., 87-89 or.

⁶⁸ Cfr. *supra* 35. oharra. Ramiro II.aren berrespen-dokumentuetako hitzaurreetan eta Antso VI.aren Lizarrako foruaren berrespenean ageri dira *maioribus et minoribus* terminoak.

ospe zalantzarria errege-eskribautzetan egindako dokumentuei egozteko aukera. Eta are ohiz kanpokoagoa da kontuan hartzen badugu itxuraz zuzentasunez egindako dokumentu batean dagoela eta 1203. urtetik errege-notarioa denaren izenpea duela: Ferrer⁶⁹. Notarioaren izenpean haren ohiko bi formula batera erabiltzen dira⁷⁰, eta formula horiek datazio-klausularen ondoren klausula normatibo bat sartu dela adierazten duen aipamen batek bereizten ditu; hori dela eta, susma daiteke aipamen hori nahiz aipatzen den araua jatorrizko dokumentuari gerora gehitu zitzaizkiola, eta, hortaz, horrek atea zabalik uzten dio beste zenbait aldaketa egin izanaren aukerari, hala nola arestian aipatutako araua gehitzea, zeina zinez adierazgarria baita bai formulazioan bai irismenean, bai eta izaera formaleko beste elementu batzuk gehitzea ere, hala nola *cives* terminoa erabiltzea lekua adieraztean, zehapen espiritualaren hertsatze-klausula errege-hiraren eta ohiko zehapen ekonomikoaren aurretik jartzea, eta datazioan zenbaketa bi-koitzaren formula erabiltzea ere bai⁷¹. Beraz, ez dirudi ausartegia pentsatzea Petri II.aren dokumentuko aldaketa horiek aurrekoekin lotuta egon daitezkeela eta esku berak egin dituela, eta, horretarako, agian, jatorrizko dokumentuan aurretik egindako errege-jarduketak berresten dituen klausula edo paragrafo bat egotea baliatu dela. Hori egiteko, monarka horren pribilegioa erabiltzeak eta ez haren ondorengo Jakue I.arena, zeinak, halaber, zenbait alditan berretsi baitzuen Jakako zuzenbidea⁷², adieraz dezake berregite dokumental horiek haren erreinaldian egin zirela, eta, zehatzago esanda, 1208. eta 1213. urteen artean.

Dokumentu horiek jardun bateratu baten emaitza gisa hartzen baditugu –XIII. mendearen bigarren hamarkadakoak izateko nahikoa zantzurekin–, Jakari *civitas* maila emateko interesak –aztertutako lehen dokumentuan oso agerikoa da– indarra galtzen du prozesu horren kausa erabakigarri gisa eta, halaber, alde batera uzten du hura Elizarekin lotutako motiboekin azaltzeko edozein auke-

⁶⁹ Vid. TRENCHS, J., *Las escribanías*, *op. cit.*, 76-77 or.

⁷⁰ Lehenengoan honela dago erregistratuta: «Ego Ferrarius, notarius domini regis scribi fecit mandato ipsius et apponi post diem et annum linea ultima» (TRENCHS, J., *Las escribanías*, *op. cit.*, 81. or.); bigarrena sinpleagoa da eta ez dio aipamen espliziturik egiten dokumentuaren eskriturazioaren errege-mandatua erregistratzen den dokumentuko lekuari: «Ego Ferrarius...mandato ipsius loco dei et anno prefixis» (cfr. LEDESMA RUBIO, M. L., *Cartas de población*, *op. cit.*, 154.-156. zk.).

⁷¹ Dokumentu honetan zehapen espirituala erabiltzea bitxia egiten da; izan ere, errege horren erreinaldian hauteman daiteke formula dokumentalak bakunagoak direla, Aitzitik, ez da gauza bera gertatzen datazioari dagokionez; izan ere, Aragoiko dokumentuetan une horretan atzerakada bat gertatzen da aro hispanikoaren formularen erabileran, eta oso kasu bakanetan soilik erabiltzen da datatzeko elementu bakar gisa (TRENCHS, J., *Las escribanías*, *op. cit.*, 89. or.). Edonola ere, *Libro de la cadena* liburuan jasotako Petri II.aren zenbait dokumentutan ikus daiteke dokumentu bakar batean ere ez dela ageri zehapen espiritualaren formularik, ez eta aro hispanikoarena ez den bestelako erreferentzia kronologikorik ere.

⁷² Cfr. *supra* 13. oharra.

ra. Gauza bera esan daiteke haietan aipatutako eta nolabaiteko garrantzia duen prozesu politikoari dagokionez: Ramiro II.aren koroatzea Jakan. Gertakari hori bere balio sinbolikoagatik plazaratzen da; izan ere, testuinguru horretan garrantzi gutxi du bai politikoki, bai juridikoki. Dokumentu juridikoak direnez, badirudi horrela jarduteko arrazoiak izaera juridikokoa izan beharko lukeela, eta horri dagokionez, Alfontso II.aren dokumentuko hitzaurreak zenbait zantzu ematen dizkigu, Jaka zuzenbide-eskola gisa erakutsiz (zuzenbide propioa), eta aditzera emanez haren aitorten zabala bai Gaztelan, bai Nafarroan (agian, esan beharko litzateke batez ere Nafarroan). Puntu horretan eta XIII. mendearen bigarren hamarkadan, hau da, Nafarroako Erresuman Antso Azkarraren erreinaldiaren erdi-erdian, gauza ez al da izango Jakako agintariak haserre zeudela ondoko erre-suma hartako gora jotzeko helegiteak galdu zirelako? 1342an, oraindik ere, gai mingarria bazen juratuentzat, ez da sinesgaitza egiten egun batean egoera hori jasan zutenek nolabaiteko erreakzioa izatea, hala nola ikusi dugun hori, alegia, tresna batzuk sortzea eta haien bidez Jakako zuzenbidea autoritate gorenaz eta bermez janztea; horrela, hain zuzen, haren jatorriaren fidagarritasuna erakustez gain, une jakin batean aurkezteko eta alegatzeko balioko zuten⁷³. Beraz, auzotarren komunitate osoari zegokion gaia izanik, pentsa daiteke ekimena udal-arloan hasi zela. Hala ere, dokumentuen analisiaren arabera, badirudi egile materiala pertsona bakarra izan zela, ziur aski jurista bat, ez bazen Jakakoa hiribilduarekin lotura zuena, agian elizgizona, eta, edonola ere, trebakuntza zuena edo behintzat ezagutza zuena eta zalantzarik gabe harrituta zegoena Montpellierko Estudioarekin⁷⁴.

⁷³ Beste herri bateko forupean dauden auzotarren komunitateen gora jotzeko helegiteei horrela erantzutea ez da ez-ohikoa. Jakan gertatu zenaren antzeko zerbait gertatu zen –baina kontrako zentzuan– geroago Carmonan, nahitaez Sevillan egin beharreko helegitea saihestu ahal izateko. Horri buruz: BARRERO, Ana M^o, *El fuero de Carmona. Actas del I Congreso de Historia de Carmona. Edad Media. Congreso conmemorativo del 750 aniversario de la conquista de la ciudad de Carmona por Fernando III. 1247. Carmona (Sevilla), 22 al 25 de septiembre de 1997*, Sevilla: Centro de Estudios Ramón Areces, 1998, 387-413 or.

Jakari, Lizarrari eta Iruñeari emandako lehen estatutuetan lezda ordaintzeko salbuespenari buruzko arauak ez egotearen arrazoia izan daiteke hirigune horiek Donejakue Bidearen derrigorrezko igarobideak izatea¹¹³; baina, itxuraz, indarrean egon zen Zangozan, agian, Antso Ramiritzek burgu zaharrari emandako pribilegio nagusia izateagatik, zeina berariaz nabarmentzen baitu Borrokariak foruak berrestean. Nahiz eta egia den ez duela lezda ordaintzeko salbuespena zehazki aipatzen, agerikoa dirudi horrela izango zela; izan ere, Asín eta Pueyo de Castellongo foruetan agertu ez ezik, ohiko pribilegioa zen Antso erregeak eta haren ondorengo Petri I.ak egiten zituzten mota horretako emakidetan ere¹¹⁴. Lezda ordaintzeko salbuespena errege-herri osora hedatzen da. Erresumatik ateratzean haren ordainketa eskatzea –hori Asingo foruan bakarrik aipatzen da– arau orokortzat aitortuta egon zitekeen. Zehaztapen hori eginda, arauaren formulazioa berbera da testu guztietan; nolahi ere, Berdungo foruan biztanle franko eta juduei aplikatzen zaie. Castellongo foruan, berriz, ez da lezda ordaintzeko salbuespena ezartzen, baizik eta lurreko eta itsasoko bidesariarena, zeina, zalantzarik gabe ezagutzen den bertsioaren egileari egotzi behar zaion¹¹⁵.

5.2. Jakako foruarekiko eta Aragoiko foruekiko kasu komunak

Multzo honetako zazpi arauetan modu askotara jokutzen da; izan ere, haie-tako hirutan aldaerek funtsean idazketari eragiten diote, bitan, planteamenduari ere bai, baina ez soluzioari; hirugarrenean, berriz, kasuaren bestelako planteamenduak eragiten dio soluzioari. Halaber, bestelako soluzioa eskaintzen dute, partzialki behintzat, armada arautzen duten foruek.

Identitate-maila handiena epaiketei (§ 19), armen erabilerari (§ 13) eta delu judizialari (§ 10) buruzko kasuetan aurkitu daiteke. Epaiketei buruzko

¹¹³ Gogoratu behar da lezda ordaintzeko salbuespena Ramiro II.ak eman ziola Jakari. Bestalde, Iruñeko San Zerningo foruaren jatorrizko bertsioak ez du arau hori jasotzen, baina haren bertsio zabalago batean jasota dago xedapen baten bidez. Xedapen horrek lezda eta bidesaria ordaintzetik salbuesten ditu burgesak, eta, agian, Antso VI.ak bidesaria ordaintzearen salbuespena berretsi zuenean egin zen (cfr. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona, op. cit.*, 8. zk. eta 25., 32., 85-86 eta 127-128 or.). Lizarrako foruan, berriz, II, 59. arauan erregulatzen da lezda, baina ez dio salbuespenari aztertutako foruetan ematen zaion zabaltasunik ematen. Erriberri eta Iriberriko foruek, beren matrizeekiko fidelki jokatu, ez dute salbuespena jasotzen.

¹¹⁴ Horrela egin zuen Antso Ramiritzek 1092an Arguedas herri nafarrari forua eman zionean, bai eta Aragoiko Alquezarri, Monzóni eta Castellari eman zienean ere. Era berean, salbuespena jasotzen dute Petri I.ak Huescari eta Barbastrori emandako pribilegioek ere.

¹¹⁵ Kontuan izan behar da testu horretan mugapeen ustiapen-eskubidea erresuma osora hedatzean ere agerikoa egingen zela esajeratzeko joera (cfr. *supra* 107. oharra).

araua Ainsa, Asín eta Berdungo foruetan dago jasota, eta, horietan, Jakakoan bezala, tokiko biztanleak salbuetsita daude hiribildutik kanpo epailearen aurrean aurkeztu behar izateaz. Arauaren formulazioa, esplizituagoa Ainsa eta Asingo foruetan zenbait xehetasun emateagatik, zehaztu egiten da Jakakoan, agian Asingo idazketaren antzeko batean oinarrituta; Berdungoak, ordea, formalki Jakakoaren antzekoa izanik, garatzeko posibilitatea alde batera uzten du Jakakora berariaz igorritz. Bigarren arauan –Jakakoarekiko eta Alquezarkoarekiko komuna–, kasua berbera izanik, ñabardura-diferentziak agertzen dira etengabe, bai planteamenduan, bai soluzioan. Beraz, biek ala biek mila soldatiko zigorrak zigortzen dute armen erabilera erasokorra, baina Jakakoak ordezkotza irtenbide bat ere eskaintzen du: eskua moztea. Horrez gain, foru horretan araua bertako biztanle baten aurkako erasoak zigortzera dago zuzenduta, baina Alquezarkoan, berriz, aipamen hori izaera espazialekoa da (burguan edo azokan), eta horrek esan nahi du auzotasunaren eskaera gainditzen dela. Alquezarko testuak duen eboluzio-maila handiagoarekin –bistakoa diferentzia hauetan– bat dator idazketa; izan ere, armei buruzko enuntziatu xehatua ez du jasotzen, intenzionalitatearen esamoldean inplizituki baitago, hurbiltasun testualeko balizko erlazioa gorabehera, zeina oso zaila baita zehaztea beste konparazio-elementurik egon ezean. Duelu judizialari buruzko araua Asingo foruan soilik dago jasota, eta aldaerak ditu Jakakoaren formulazioaren aldean, ez baititu inguruabarrak kontuan hartzen eta prozedura judizialari buruzko irudi zabalago bat eskaintzen baitu; izan ere, burdina goriaren froga debekatzen du eta baliozkotasuna ematen dio zin egiteari. Desberdintasun horiei, logikoki, enuntziatu anitzak dagozkie.

Kasu berberetan Jakakoarekiko planteamendu desberdina duten Aragoiko testuetako hiru arauetatik bi Alquezar eta Asingo foruetan daude, eta hirugarrena, azken horretan soilik. Errotei buruzko arauak (§ 21), zeinak haien gaineko monopolioari uko egitea baitakar hiru foruetan, planteamendu desberdinak ditu; izan ere, Jakako testua ehotze-askatasuna ezartzera zuzenduta dago, baina Alquezarkoan eta Asingoan erregeak bizilagunei errotaren jabetza askea aitortzen die. Transmisio testualari dagokionez, adierazgarriagoak dira beste bi xedapenak; izan ere, planteamenduen arteko desberdintasuna formulazioaren aldaketa gradualaren isla da. Haietan lehenengoak, giza hilketaren penalizazioari buruzkoak (§ 14), Jakako testuan zigorraren zenbatekoak ezartzen ditu soilik; baina ez da hori gertatzen Alquezarkoan, non horrez gain hilketaren egilearen erantzukizunaren muga sartzen baitu, eta, era berean, soluzioan espetxe-zigorra eta hiltzailearen ondasunen konfiskazioa xedatzen ditu, isuna ordaintzeko kautela-neurri gisa. Asingo foruak, berriz, honako hau bakarrik xedatzen du gai horri dagokionez: hilketagatik erantzukizunaz salbuesten ditu biztanleak, hilketa burgutik kanpo gertatzen den kasuetarako. Planteamenduen gradazio horri dagokio bi testuen perfekzio formalik handiena; horren era-

kusgarri da ekintza zigorgarria *giza hilketa* terminoarekin tipifikatzea. Antzeko zerbait gertatzen da *caloña* edo isunak jasotzeari buruzko arauarekin (§ 18), baina haren bilakaeraren bi testigantza soilik ditugu. Jakako foruak sei handikiren onespena izatearen baldintza jartzen du erregeak isunak kobratu ahal izateko; Asingoak, ordea, hura aitortuz (agian baldintza berarekin) erregeak erreklamatu ez dituen isunak biztanleek libreki erabil ditzaten xedatzen du. Testu batean eta bestean arauaren planteamenduak duen alde nabaria kontuan izanik, ez dago haien idazketan, aurreikus zitekeen bezala, antzekotasun zantzu txikiena ere.

Halaber, Jakako eta Asingo foruetan soilik heltzen diote armadaren erre-glazioari partzialki desberdinak diren soluzioekin; izan ere, Asingoak, bertako bizilagunak eta etorkizuneko biztanleak zazpi urtez salbuetsi eta gero Jakakoan ezarritakora jotzen du¹¹⁶. Aipamen implizitu horrez gain, salbuespen horren Jakako jatorria beste testigantza baten bidez indartzen da, Luesia hiribilduari egiten zaion emakidarekin: *tales fueros quomodo habent illos burzeses de Iacca*. Ez dakigu egiazki zein testutara jotzen zuen: edo salbuespen hori jasotzen zuen Jakako testu batera –gaur egun ezezaguna–, edo, aitzitik, Jakako testutzat hartzen zen hura jasotzen duen Asingo testura¹¹⁷; nolana ere, arauaren izaera pribilegiatua eta arauak hiribildu horiek birpopulatzeko prozesuarekin duen lotura kontuan izanik, pentsatu beharko litzateke hura Jakan aplikatu bazen, egun ezagutzen ditugun testuetan ageri den arau horren formulazioaren aurretik gertatu zela.

5.3. Jakako foruarekiko eta Nafarroako herri eta hirietako foruekiko kasu komunak

Jakako eta Lizarrako foruen arteko lotura alde batera uzten badugu, zeina nabarmena baita jada aztertu den haien testuen antzekotasun literalagatik, Garesko foruko arau bakar batek soilik dauka nolabaiteko elkarrekikotasun bat Jakako estatutuarekin; izan ere, bietan, urtearen eta egunaren preskripziora jotzen da, euren arauen ebazpen-epetzat hartuz: lehenengoan, jabetza bat eskuratzeari dagokionez, eta, bigarrenean, berriz, auzotasuna lortu ahal izateko eskatzen den finkapenaren betekizuna betetzeari dagokionez.

¹¹⁶ Hartan honako hau bakarrik adierazten da: *...et post VII annos completos quod me securratis ad lite campale*; baina pentsa daiteke, Jakan bezala, hiru egunez gastuei aurre egin beharko zitzaela.

¹¹⁷ Horri dagokionez, komeni da gogoraraztea bi emakiden daten arteko hurbiltasuna: Luesiakoa 1154an izan zen, eta Antso VI.aren Zangozako foruaren berrespenean, 1158an (cfr. *supra* 77. oharra).

5.4. Jakako foruan jasota ez dauden Nafarroako eta Aragoiko foruekiko kasu komunak

Errubrika honen pean kokatzen diren elkarrekikotasunek irismen txikia dute testuetan, oro har; izan ere, haietako lauri eta hiruri eragiten diete soilik, eta inoiz ez dira berberak.

Finkapenaren lekuari emandako eskubideei erregearen babesa bermatzen dien araua (§ 9) Zangozako burgu berriko eta Garesko foruetan dago jasota, ia formulazio berarekin, non 60 soldatako isunaz zigortzen baita bahia emandako mugapeetan. Zigor hori bera, errege-hiran sartuz larriagotua, ezartzen du Erriberrikoak antzeko kasu baterako, baina irismen orokorrarekin dago formulatua; izan ere, hiribilduko biztanle baten aurka egindako atentatu-ekintza oro hartzen du kontuan. Batzuen eta besteen artean kokaturik, Ainsako foruak, non haiekiko nolabaiteko paralelismo formala baitago, antzeko esanahiarekin aipatzen ditu mugapeei buruzko eskubideak, baina kaltea zein zigorra zehaztu gabe.

Foru-berdintasunari buruzko araua (§ 5) ere testu nafarretan ageri da gehien, planteamenduan xehetasun-diferentziak dituelarik; izan ere, derrigortasuna adierazten da San Zerningo burguren foruaren formulazioan, bertan ezartzen ziren biztanleei burguko zuzenbidearen pean jartzeari dagokionez; Pueyo de Pintanoko eta Iriberrikoetako enuntziatuetan, ordea, haien izaera pribilegiatua azpimarratzen da, eta biak datoz bat zuzenbide horren irismen pertsonala eta ez-tokikoa nabarmentzeko orduan. Kointzidentzia horrez harago, haien formulazioko ezerk ez garamatza pentsatzera bi testuen arteko lotura estuagorik egon daitekeenik, biek ala biek aldeak erakusten baitituzte euren planteamenduetan; izan ere, lehenengoan, biztanle batek errege-herriko beste lur batzuetan izan ditzakeen jabetzei dagokienez egiten du, zeinak, horrela, *liberas et franchas a fuero de Jaca* izango baitira. Iriberrikoan, berriz, Iruñeko testuaren literaltasunetik gertu, komunitatean onartutako eklesiastikoak, infantzoiak eta biztanle nafarrak aipatzen ditu zehazki: haiek tokiko forua nahitaez onartu behar zuten, eta horrek berarekin zekarren bertako biztanleen salbuespen-kondizioa edukitzea.

Hamarrenak ordaintzeko betebeharrari buruzko arauan (§ 4), zeina Garesko, Asingo eta Berdungo foruetan jasota baitago, planteamendua eta soluzioa bat izanik, azken bi horien balizko erlazioa agerikoa da, biek apezpikuaren laurdena aipatzen baitute, baina Gareskoak ez du ezer ere aipatzen alderdi horri buruz.

Harrigarria da, leku horien izaera burgesa dela eta, azoka egiteari buruzko arauak Alquezarko (§ 5), San Zerningo eta Berdungo foruetan soilik agertzea. Testu nafarrean arau horren enuntziatua Aragoikoetatik independentea dela dirudi; izan ere, azoka egitea onartuta, azoka egiteko lekua aipatzen du soilik. Aragoikoetan, berriz, unean uneko erreferentziak behin-behinekotasuna du, eta bat datoz finkatutako egunean (osteguna), baina ez maiztasunean: Berdungo fo-

ruan, testuinguruari erreparatuz, asterokoa dela ondoriozta daiteke, baina Alquezarkoan, berriz, halabeharrez hamabost egunean behin egitekoa da. Egun hori finkatzeko arrazoiak Berdungo foruak ematen du; Jakako azokaren lehentasuna adierazten du, astearteetan egiten baitzen, eta hori zinez da interesgarria; izan ere, erakusten du Jakak onartutako lehentasuna zuela bideko gainerako herri eta hirien aurrean, behintzat alderdi zehatz horri dagokionez, eta hori guztia ofizialki haren existentzia aitortu baino lehen¹¹⁸.

5.5. Aragoiko foruekiko kasu komunak

Alquezarko eta Berdungo foruen arteko lotura estua, arestiko arauan agerikoa dena, are nabarmenagoa egiten da; izan ere, bi foru horietan eta horietan soilik ageri da beste arau bat (§ 5), zeinaren bidez erregeak bere babesaren xede berezi egiten baititu azokara doazen oinezkoak, eta isun handia (mila soldata) ezartzen die modu batean edo bestean haiek erasotzen dituztenei joan-etorriak irauten duen denboran (Alquezarkoan hiru egunetan zenbatesten da). Trafiko komertziala bermatze aldera egindako xedapen hori, halaber, Petri II.ak ere adierazten du, positiboki formulatuz, Jakari azoka egiteko eskubidea ematen diotenean, eta, horrenbestez, Aragoiko hiri eta herrien artean dagoen lotura normatibo estua agerian geratzen da.

Azkenik, Berdungo eta Pueyo de Pintanoko foruen arteko elkarrekotasunak, ganadu-barrutien erregulazioari buruzkoak, ez dakar berarekin kointzidentzia normatiborik, baina adierazten du eskualdean abeltzaintza-jarduna zegoela, batik bat ohituraren bidez gobernatzen zena, eta Berdungo arauak dioenaren arabera epaitu behar bada, Aragoiko printzipio hau lehenesten zen: *tortum per tortum*¹¹⁹.

IV. JAKAKO ZUZENBIDEAREN ERATZE-PROZESUA

Hain analisi xeheak hainbat emaitza erabilgarri dakartza Jakako dokumentu foralen kritikatik eratorritako hutsuneak betetzeko, eta, halaber, ahal den neurrian, haren eratze-prozesua berreraikitzeke, esku artean ditugun tresnek ahalbidetzen duten uneraino behintzat.

Orain arte, kritika faltagatik, ikuspegi bat mantendu da: testu bakar bat oso hedatuta zegoen, baina, hala ere, hura jaso zuten lekuetatik bakarrean gauza-

¹¹⁸ Jakan azoka asteartean egitea, astero, Petri II.ak 1197an amandako pribilegiotzat ageri da (cfr. *supra* 14. oharra). Lizarrako foruak azoka egiteari buruzko araurik ez badu ere, hango zenbait xedapenek adierazten dute han ere azoka ostegunetan egiten zela (II, 59.1 eta 62.4)

¹¹⁹ Vid. LALINDE, J., *Los fueros, op. cit.*, 30. or.

tu zen, eta, gainera, guztiz osatu gabe. Horren aurrean, kritika testualak ikuspegi dinamiko bat erakusten du, eratze-prozesu bat finkatuz, non, gutxienez, segidako bi fase bereizi baitaitezke.

Lehen fasea bat dator Antso Ramiritzen ekimenarekin, zeinaren bidez ordura arte bere mendeko lurretan finkatutako herri eta hiriei bere berariazko aitortza eman nahi baitzuen, eta, era berean, emakida onuragarri baten bidez pribilegiatuz, haiek ugaritzea lortzen zuen. Hori dela eta, Zangoza eta Lizarra hiribildu nafarrek eta Jakak –lehenek jatorrian dute lotura, eta azken horrek, berriz, Donejakue Bidetik eratorritako prozesu birpopulatzailan– erregearen arreta izan zuten, eta bakoitzak bere foru-gutuna jaso zuen. Foru-gutun horiek, diferentziaren bat gorabehera, finkatzeko baldintzak ezartzera zuzendutako arau berberak izango zituzten. Espazioari dagokionez, mugapeak ezartzen dira (salbu eta, Jakan gertatu izan zitekeen bezala, haiek lehenagotik aitortuta bazeuden), bai eta bizilagunen komunitateak haiez baliatzeko eskubideak ere. Era berean, banako eta familia-talde bakoitzari aipatutako mugapeen barruan laboratzeko lurrak libreki eskuratzeko eskubidea aitortzen zaie, betiere haien aukeren arabera. Horrez gain, hiribildu nafarretan erregeak berariaz adierazten du mugapearen gainean bere babesak duen benetako irismena, eta 60 soldatuko zigorra ezartzen du hango biztanleen aurka bahia erabiltzen bada¹²⁰. Foru-berdintasuna bermatuta ageri da, infantzoiei eta, agian, kleroari ez baitzaie finkatzeko aukerarik ematen. Bestalde, askatasun pertsonalak eta ondare-askatasunak badute beren adierazpen normatiboa; izan ere, frankizia-kondizioa aitortu zitzaizen errege-herrian eskuratu zitezkeen jabetza guztiei. Hiru hiribilduentzako pribilegio-baldintzen oinarri komun hori zenbait salbuespenekin osatzen da. Salbuespen horiek, testuetan oinarrituz, ez lirateke berberak izango, baizik eta, emakidaren unearen eta tokiko inguruabarren arabera, egokienak zirela irizten zirenak. Beraz, Zangozako biztanleak salbuetsita zeuden erresumako hiribilduetan eta azoketan lezda ordaintzeaz; Lizarrakoak eta Jakakoak, berriz, erregeari armez laguntzeaz salbuetsita zeuden zazpi urtez¹²¹. Zangozako foruak eta Jakakoak

¹²⁰ Betiere, Lizarrako jatorrizko foruaren –egun ezezaguna– eta Gareskoan jasotako xedapenen artean dagoen identitate normatibo gertagarritik eta idazketari dagokionetik abiatuta.

¹²¹ Hala ere, nahiz eta ezagutzen diren Jakako foruan zein Lizarrakoan ez dagoen salbuespen hori jasota, ez da doako baieztapen bat. Antso Ramiritzen foruaren bi bertsioretan jasotako araua formulatu baino lehen salbuespen hori Jakan indarrean egon izana Jakako forua Luesiari emateagatik ondorioztatzen da (vid. *supra* III). Lizarrari dagokionez, hango foruan Jakako testuan ageri den bezala formulatuta dago arau hori (I, 1.1); nolana ere, amaierako errubriketako batek –*De foro* (III, 69/72)– arau hori berresteak, jarraian, puntualki, hura ez betetzea justifikatzen duen arau multzo bat zehaztuz, aditzera eman dezake auzo-agintarien saiakera bat izan zela, lehen salbuespen hori oinarritzat hartuta egiten zen jardun oker bat zuzentzeko. Bestalde, arau hori Asingo foruan jasotakoan artean egoteak ez du esan nahi Zangozan indarrean egongo zenik; izan ere, foru horren eta Aragoiko beste hiribildu batzuei egindako

eta Lizarrakoak edukian duten diferentziak, baina, halaber, testu nafarren artean bahiari dagokion zigorra preskribatzeko unean ageri diren kointzidentziek, eta, Jakakoarekin alderatuz, haien arteko hurbiltasun literalak pentsarazten digute emakida ez zela une berean egin leku guztietan, baizik eta sekuentzia jarraitu batean. Zangozari legokio denbora-lehentasuna *iter* kronologiko horretan; izan ere, hango lehen finkapenari ematen zaion lezda ordaintzeko salbuespena kontuan harturik, litekeena da haren edukia Antso erregearen beste foru-gutunen antzekoa izatea, nahiz eta armadari buruzko araua zeharo salbuespenezkoa izan¹²². Bestalde, Zangozako eta Garesko foruek beren artean duten hurbiltasun literal handiagoak garamatzate Lizarrako emakida bigarren leku batean jartzera, Jakakoarekin amaitzeko, eta, hain justu, hori bat dator egintza honekin: han hasten da erregearen lehen ekimen horrek sorrarazitako zuzenbide hori intentsitate handiagoz garatzen, prozesu honen bigarren faseari bide emanez.

Bigarren fase hori, kritika testualaren emaitzak kontuan hartuta, amaitzen da haien askatasunaren bermea ziren baldintza batzuen pean ingurune jakin batean ezarritako pertsonen elkarbizitzaren ondorioz sortutako arau batzuk formulatuz eta idatzirik jarritz. Sorkuntza normatiboaren prozesua hiribildu horietako bakoitzean egin zen, baina, itxuraz, idazketa-prozesua soilik Jakan egin zen, nolabaiteko intentsitatea emanez; izan ere, zenbait iruzkin normatibotan zehaztu zen, denbora-lapsus ez oso luze batean. 1122an, Lizarrako forua Garesi eman zionean, Alfontso I.ak biztanleen finkapenari buruzko baldintzak zehaztu zituen soilik, eta planteatu zitezkeen beste gaietarako –*causas et fazriendas*–, aipamen nahiko lausoetara jo zuen (*tales fueros et tales usaticos vel consuetudines*, bertako biztanleena). Horrek ez du esan nahi hutsune normatibo bat zegoenik, baina bai adierazten du tresna baten gabezia, non zuzenbide bizi hori xedapen zehatz batzuen bidez zehaztuta egongo zen Lizarran; baina, halaber, Jakan ere gabezia hori bazegoela adierazten du, bestela, Alfontso erregeak hara joko baitzuen, urte batzuk geroago Ainsaren birpopulaketan eta Alquezarko burgu berrian egin zuen gisara. Lan hori nork egin zuen eta nola egin zuen jakiteko erantzunik apenas dago testuetan. Biztanleen finkapenari buruzkoak ez diren arauen edukia ikusita, egileak tokiko ohiturak eta praktika judiziala ezagutzen zuten pertsonak zirela ondoriozta daiteke soilik. Jarduteko moduari dagokionez, kritika testualetik zenbait zantzu atera daitezke; izan ere, handik eratorritako edukiari eta formari buruzko elkarrekikotasunek hainbat idazketa egotea eskatzen dute:

emakiden arteko lotura testual nabarmenak kontuan hartuz gero, ondoriozta daiteke hori izan zitekeela arau hori bere foruan jasotzeko bidea.

¹²² Lezdaren gaineko salbuespena duten Antso Ramiritzen foruei buruz, vid. *supra* 114. oharra. Aitzitik, testu horietako zenbaitetan (Arguedas, Uxue, Monzón eta Castellar) jasota dagoen armadari buruzko araua, lehen aipatutako Jakako foruan ezarritakoa da.

Lehena, Antso Ramiritzen dokumentuan oinarrituta egingo zen, haren garapen gisa, izaera prozesal eta penaleko arau multzo bat gehituz –epaiketak hiribilduan egitea, duelua frogatuz gisa baztertua, giza hilketaren penalizazioa, armak erasotzeko xedearekin erabiltzearen penalizazioa, eta ezarritako isunen xedapena–, eta izaera pribilegiatuko besteren bat gehituz, hala nola ehotzeko askatasuna, eta, orobat, biztanle berrien ohituratik eratorritakoak gehituz, hala nola urtearen eta egunaren preskripzioa. Seguru asko hori izango zen Jakako zuzenbidearen testua hango forua Ainsa eta Iruñeari eman zitzaizkion; izan ere, lehenengoan epaiketak egiteari buruzko araua jasota badago ere, San Zerningoan adierazgarria da aipamen orokorra egiten dela, Garesen erabiltzen den formularekin alderatuz, han egiten den bezala (*vestras fazendas*, baina era berean a *vestros iudizios*). Bestalde, Ainsako foruan lezda ordaintzeko salbuespenaren klausula egotea eta, oro har, Zangozakoarekiko eta Gareskoarekiko duen hurbiltasun literala, eta, halaber, Iruñekoan Jakakora jotzea (*tales fueros... quomodo fuerunt populatos illos populos de Jaka*) xehetasun argigarriak dira testu honen eta Antso Ramiritzen lehen emakidaren arteko harreman estua ikusteko, bai eta Zangozakoarekin eta Lizarrakoarekin duen antzekotasuna ikusteko ere.

Testu hori, halaber, berrikusi egin zen, eta berrikuspen horretatik abiatuta beste bi iruzkin egin ziren, erabateko independentziatzat eta, seguru asko, leku eta une desberdinetan. Badirudi lehen iruzkina, nominalki eta edukiari dagokionez Jakari lotua, hango zuzenbidea beste komunitate batzuei egokitzeko prozesuan egin zela. Haren ezaugarria da zenbait arau, izaera penal eta prozesalekoek, edukiaren eta formaren garapen handiagoa erakustea, eta, orobat, beste zenbait arau gehitzea, zeinak gai jakin batzuetan Jakan erabiltzen ziren moduak eta praktikak bere egitea zekarten, hala nola azoka egitea eta babestea eta elizari zergak ordaintzeko betebeharra, hamarrenaren eta apezpiku-laurdenaren bidez. Testu hori jaso zen Alquezarko burgo berrian eta Asinen, non, agian, Antso Ramiritzek Zangozako burgo berriari emandako gutunarekin bateratu edo egokitzeagatik, hiribildu horretako berezko foru gisa aurkezten baita. Era berean, Alquezarren bildutako bertsioari jarraituz, Erramun Berengerrek eta Alfontso II.ak Berduni eta Pueyo de Pintanori egindako emakidetan erabili zuten. Bigarren iruzkina Jakan egin zen; beharbada, Ramiro II.aren erreinaldian. Ez zuen berehalako garrantzia izan bere mugetatik kanpo, baina erabakigarria izan zen; izan ere, Jakako zuzenbidea ia betiko finkatu ez ezik, hedapen-maila handiagoak lortu zituen Lizarran berezko forutzat hartu zenean, eta, halaber, azken horren berezko emakida izan ala ez edo jatorrizko izendapenarekin, Donostiara eta Gipuzkoako beste hiribildu batzuetara hedatu zen. Edukiari eta formari dagokionez, aurrez zegoen Jakako testuaren berregite garrantzitsua izan zen; izan ere, haren gainean egin zen –Antso erregeari egotzen jarraituz–, lehenik, haren arauak inguruabar

berrietara egokitzea, Antso Ramiritzen pribilegioan zeuden zenbait klausula baztertuz (mugapeen emakida, orubeaz jabetzea, infantzoiak finkatzeko debekua) eta beste zenbaiten formulazioa aldatuz, bai edukiari dagokionez, hala nola armadan zerbitzu emateaz salbuesteari buruzkoan, zeina orain derrigorrezkoa egiten baita, bai idazketari dagokionez –idazketa zehatzagoa egiten da–, abstrakzio- eta orokortasun-efektu handiagoa lortuz. Bigarrenik, arau-edukia handitzen da, prozesuari dagozkion arauekin –fidantzak ematea– eta, neurri handiago batean, arau penalekin –estuproa eta bortxaketa, askotariko erasoak eta etxeko bakea haustea– eta auzoko gaiekin lotutako arauekin –neurriak faltsutzea–.

Ez dakigu testu hori errege-monjeari berresteko aurkeztu zitzaion, edo, aitzitik, haren jardun baten –beste pribilegio batzuk emateaz gain, hiribilduko foruak berrestea– *conscriptioa* egiteko oinarriztat erabiltzeko balio zuelako, baina argi dagoena da horren ondorioz behin betiko finkatu zela testu hori. Ordutik, testuak bere ibilbide propioa egin zuen eta gureganaino iritsi da, beste zenbait dokumenturekin batera, transmisiozko eta berregite testualeko prozesu baten bidez; eta, hain zuzen, azterlan honen abiapuntu izan den haren kritika diplomatikoak horixe bera seinalatzen du.

Ramiro II.aren testu horrekin, itxuraz, Jakako zuzenbidearen eratze-prozesuaren lehen zikloa amaitzen da; eta zuzenbide hori, hain zuzen, berreraikitzen saiatu da, existitzen diren haren hedapenari buruzko testuek hori ahalbidetu duten neurrian. Nolanahi ere, hori askoz ere zabalagoa den prozesu bat argitze-ko lehen urratsa baino ez da. Prozesu horrek baditu zenbait alderdi ezezagun (batzuk hemen adierazi dira), eta haiek argitzeko, zalantzarik gabe, azterketa sakonago bat egin behar da, gure oraingo helburuaren muga kronologiko eta espazialak zinez gaindituko dituen.

V. BIBLIOGRAFIA

BANÚS Y AGUIRRE, José Luis, *El fuero de San Sebastián*, Zarautz: Donostia-ko Udala, 1963.

BARRERO, Ana M^a, El fuero de Carmona. *Actas del I Congreso de Historia de Carmona. Edad Media. Congreso conmemorativo del 750 aniversario de la conquista de la ciudad de Carmona por Fernando III. 1247. Carmona (Sevilla), 22 al 25 d septiembre de 1997*, Sevilla: Centro de Estudios Ramón Areces, 1998, 387-413 or.

-El proceso de formación del derecho local medieval a través de sus textos: Los fueros castellano-leoneses. DE LA IGLESIA DUARTE, José Ignacio (zuz.), *I Semana de Estudios medievales. Nájera 1990*, Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 2001, 91-131 or.

- Las redacciones navarras del fuero de Logroño, *Príncipe de Viana*, 53. bol., 196. zk. (1992), 409-428 or.
- BARRERO GARCÍA, Ana M^a eta ALONSO MARTÍN, M^a Luz, Textos de derecho local español en la Edad Media. *Catálogo de fueros y costums municipales*, Madril: CSIC, 1989.
- CANELLAS LÓPEZ, Ángel, La cancillería real en el reino de Aragón (1035-1134). *Folia Budapestina*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, CSIC, 1983, 23-46 or.
- La colección diplomática de Sancho Ramírez*, Zaragoza: Real Sociedad Económica Aragonesa de los Amigos del País, 1993.
- DU CANGE, *Glossarium Mediae latinitatis et infimae Latinitatis*, Niort, Favre, 1883-1887.
- GARCÍA LARRAGUETA, Santos eta OSTOLAZA ELIZONDO, Isabel, Estudios de diplomática sobre fuentes de la época de Sancho el Sabio. *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de estudios históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de septiembre de 1981 en conmemoración del 800 aniversario de su fundación*, Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1982, 115-215 or.
- GOURON, André, Autour de Placentin à Montpellier: Maître Gui et Pierre de Cardona, *Studia Gratiana*, 19 (1976), 337-354 or.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán (koord.), *Documentación histórica sobre la villa de Tiebas*, Tebas: Tebasko kontzejua, 1999.
- LACARRA, José M^a, Notas para la formación de las familias de fueros navarros, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 10 (1933), 203-272 or.
- Desarrollo urbano de Jaca en la Edad Media, *Estudios de la Edad Media de la Corona de Aragón* 4 (1951), 139-155 or.
- Estudios de Edad Media de la Corona de Aragón, 3 (1947-1948), (461-73 or.) eta Ainsa, (*Documentos para el estudio de la reconquista y repoblación del valle del Ebro*, (1-319 zk.), Zaragoza: Anúbar, 1982.
- LACARRA, José M^a eta MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca: 1. Estella-San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1969.
- Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca 2. Pamplona*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1975.
- LALINDE ABADÍA, Jesús, *Los fueros de Aragón*, Zaragoza: Librería General, 1976.
- LEDESMA RUBIO, María Luisa, *Cartas de población del Reino de Aragón en los siglos medievales*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1991.

MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Documentación medieval de Leire (siglos XI a XII)*, Iruñea: Vianako Printzea Erakundea, 1983.

-El fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica. *Congreso El fuero de San Sebastián y su época*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 3-26 or.

-La fundación del primer burgo navarro: Estella, *Príncipe de Viana*, 51. bol., 190 zk. (1990), 317-327 or.

-Navarra y Aragón. *Historia de España de Menéndez Pidal dirigida por J. M^a. Jover Zamora, IX. La Reconquista y el proceso de diferenciación política (1035-1217)*, Madril: Espasa-Calpe, 1998.

-Sancho VI de Navarra y el fuero de Vitoria. *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de estudios históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de septiembre de 1981 en conmemoración del 800 aniversario de su fundación*, Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1982, 283-295 or.

MOLHO, Mauricio, Difusión del derecho pirenaico (Fuero de Jaca) en el reino de Aragón, *Boletín de la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona*, 28 (1959-1960), 265-352 or.

-*El fuero de Jaca. Edición crítica*, Zaragoza: Instituto de estudios pirenaicos, 1964.

MOR, Carlo Guido, A l'origine de l'école de Montpellier: Rogerius ou Placentinus. *Recueil de mémoires et travaux. Société d'Histoire du Droit et des Institutions des Anciens Pays de Droit Ecrit*, 6 (1967), 145-155 or.

MORALES ARRIZABALAGA, Jesús, *Privilegios altomedievales: El fuero de Jaca (c. 1076)*, Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea, 1997.

MUÑOZ Y ROMERO, Tomás, *Colección de fueros municipales y cartas pueblas de los reinos de Castilla, León, Navarra y Aragón*, Madril: José María Alonsoren inprimategia, 1847.

PAVÓN BENITO, Julia, Fuero de Jaca y fuero de Estella. Observaciones críticas. *XV Congreso de Historia de la Corona de Aragón. Actas. Tomo III. Jaca en la Corona de Aragón (siglos XII-XVIII)*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1994, 343-353 or.

RAMOS LOSCERTALES, José M^a, Textos para el estudio del derecho aragonés en la Edad Media, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 1 (1924), 397-416 or.

-*Fuero de Jaca (última redacción)*, Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitatea, 1927.

SANCHEZ BELDA, Ismael (ed.), *Chronica Adefonsi Imperatoris*, Jaka aipatze-ko civitas regia erabiltzen du, Madril: CSIC, 1950.

- SESMA MUÑOZ, José Ángel, El camino de Santiago en Aragón. *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela y San Salvador de Oviedo en la Edad Media, Actas del I Congreso Internacional celebrado en Oviedo del 3 al 7 de diciembre de 1990*, Oviedo: Asturiasko Printzerriaren Gobernua, 1993, 87-101 or.
- UBIETO, Agustín, *Los «tenentes» en Navarra y Aragón en los siglos XI y XII*, Valentzia: Anúbar, 1973.
- UBIETO, Antonio, *Crónica de los Estados Peninsulares (Texto del siglo XIV)*, Granada: Granadako Unibertsitatea, 1955.
- Documentos de Ramiro II de Aragón*, Zaragoza: Anúbar, 1988.
- Jaca: Documentos municipales, 971-1269*, Valentzia: Cronista Almela y Vives, 1975.
- VÁZQUEZ DE PARGA, Luis, LACARRA, José María eta URÍA, Juan, *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*. III, Madril: CSIC, 1949.
- YAGÜE FERRER, M^a Isabel, *Jaca: Documentos municipales (971-1324). Introducción y concordancia lematizada*, Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea, 1995.

Zuzenbidea Lizarrako eta Donostiako foruetan

Roldán JIMENO ARANGUREN
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Aurkibidea

I. SARRERA. II. AUZOTASUNA. III. TOKIKO ERAKUNDEAK. IV. EPAIKETAK. V. SOLDADUTZA. VI. ZERGA-SISTEMA. VII. MERKATARIEN ETA ERROMESEN ESKUBIDEAK. VIII. JABETZAREN ETA ONDASUNEN BABES JURIDIKOA, ETA GOZAMENEKO ESKUBIDE ERREALAK. IX. OBLIGAZIOAK ETA KONTRATUAK. 1. Betebeharrak. 2. Salerosketak. 3. Dohaintzak. 4. Errentamenduak. X. FIDANTZA ETA BAHIA. XI. EZKONTZA, ALARGUNTZA ETA BIGARREN EZKONTZA. XII. FILIAZIOA. XIV. BAKEAREN BERMEA ETA PERTSONEN ETA ONDASUNEN BABES PENALA. XV. ERLIJO-GUTXIENGOEI BURUZKO ZUZENBIDEA. XVI. LABURPEN MODUAN. XVII. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Ongi ezagutzen dugu Lizarrako eta Donostiako foruen zuzenbidea, aspal-ditik, Jose María Lacarrari esker; hain zuzen ere, ikerketak eta edizioak argitaratzen hasi zen 1927an¹ eta, ondoren, 1969an, Lizarrako mediebalista ospetsuak ikerketa gehiago egin zituen, bere ikasle Ángel J. Martín Duquerekin². Lehengo, 1963an, Gustaf Holmer-ek³ Lizarrako foruaren beste bertsio bat argitaratu zuen; urte berean, José Luis Banús Aguirrek⁴ Donostiako foruaren edizioa eta

¹ LACARRA, J. M., Fuero de Estella, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 4 (1927), 404.-451. or.; Fuero de Estella. Año 1164, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 9 (1932), 386.-392. or.; Fuero de Estella en versión lemosina, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 9 (1932), 393.-413. or. Notas para la formación de las familias de fueros de Navarra, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 10 (1933), 203.-272. or.

² LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros derivados de Jaca I: Estella-San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1969.

³ HOLMER, G. (argit.), *El fuero de Estella según el manuscrito 944 de la Biblioteca de Palacio de Madrid*, Bilduma: Leges Hispanicae Medii Aevi, 10. zk., Göteborg; Stockholm; Uppsala: Karlshamn, 1963.

⁴ BANÚS Y AGUIRRE, J. L., *El Fuero de San Sebastián*, Zarautz: Donostiako Udala, 1963.

azterketa argitaratu zituen. Eusko Ikaskuntzak *El fuero de San Sebastián y su época* biltzarra antolatu zuen Donostian, 1981eko urtarrilaren 19tik 23ra. Biltzar horretako aktetatik, Donostiako forua aztertzeke ezinbestekoak diren zenbait artikulua atera ziren. Egile hauenak nabarmendu behar dira: José Luis Orella Unzué⁵, Gabriel García Cantero⁶, Francisco Salinas Quijada⁷ eta Paz Alonso⁸. Era berean, biltzar horretan, oso ekarpen erabilgarriak egin zituzten Ángel J. Martín Duquek –foruaren testuaren edizio berria eman zuen⁹– eta Luis Alberto Basabe Martínek –bere azterketa filologikoari gaztelaniazko itzulpena erantsi zion¹⁰–. José Luis Orellak Donostiako foruari buruz sakontzen jarraitu zuen 1999an argitaratutako beste lan batean¹¹.

Ikertzaileen azken ekarpen aipagarriek Lizarrako lehenengo foruaren datuen berrikuspen kritikoan jarri dute arreta. Esaten zen Lizarra 1090ean sortu zela, erakunde juridiko berezi moduan eta Estella izenez, Antso Ramiritzek Lizarrara herrixka frankoz bete eta biztanleei Jakako forua eman zienean; eskubide horrek beste edozeinek baino gehiago biltzen zituen Donejakue bidean herrigune bat eraikitzeke askatasun burgesak. Data hori zalantzan jarri zuen lehenengoa Ángel J. Martín Duque izan zen¹², foruaren emakidaren ustezko 800. urteurrenean. Martín Duquek erakutsi zuen 1076an sortu zela lehenengo herri-gune burgesa San Martin elizaren inguruan eta, beraz, litekeena da urte horren

⁵ ORELLA, J. L., Estudio jurídico comparativo de los fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño. *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 255.-300. or.

⁶ GARCÍA CANTERO, G., El Derecho civil en el Fuero de San Sebastián. *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 379.-396. or.

⁷ SALINAS QUIJADA, F., El Derecho civil en el Fuero de San Sebastián (Y Fuero Nuevo). *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 301.-378. or.

⁸ ALONSO, P., El proceso penal en el Fuero de San Sebastián. *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 397.-405. or.

⁹ MARTÍN DUQUE, Á. J., El fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica. *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 3.-25. or.

¹⁰ BASABE MARTÍN, A., Estudio lingüístico del fuero de San Sebastián en Congreso. *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 27.-68. or.

¹¹ ORELLA, J. L., El fuero de San Sebastián y su entorno histórico. GÓMEZ PIÑEIRO, J. eta SÁEZ GARCÍA, J. A. (argit.) *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián*, Donostia: Ingeba, 1999, 60.-78. or.

¹² MARTÍN DUQUE, Á. J., La fundación del burgo navarro: Estella, *Príncipe de Viana*, 51. libk., 190. zk. (1990), 317.-328. or.; berrarg. *Príncipe de Viana*, 63. libk, 227. zk. (2002), 761.-772. or.

eta 1084aren artean jaso izana frankoek forua, urte horretan agertzen baita lehen aldiz idatzita Lizarrak foru hori zuela. Ana María Barrerok are gehiago zehaztu zuen datazioa: 2003an, Jakako familiaren testuen iturri dokumentalak sakon aztertu ondoren, adierazi zuen Lizarrako foru laburra 1076. eta 1077. urteen artean eman zutela¹³. Zenbait egilek ez dute kontuan hartu berrikuspen hori; esaterako, Luis Javier Fortúnek, zeinak Lizarrako foruari buruzko laburpen ongi aztertua egin zuen Nafarroako tokiko foruen azterketa panoramikoan (2007)¹⁴. Hala ere, beste egile batzuek aintzat hartu dute, besteak beste, guk (2005 eta 2016)¹⁵ eta Xabier Irujok, zeinak Lizarrako foruari buruz egindako monografian hura aztertu eta ingelesera itzuli zuen (2011)¹⁶.

Gaiari buruz lan ugari egin da, baina arazo metodologiko handia ere egon da; izan ere, funtsean foru horien zuzenbidea aztertu duten egileek kodetze-irizpide propioak erabili izan dituzte. Zuzenbidearen Historia aztertzeke, XI. eta XII. mendeetan ez zeuden irizpideak aplikatzen badira, zorrozki mugatzen dira figura juridikoak, eta kategoria positibo zibilen, penalen eta prozesalaren bidez baino ez dira aztertzen. Emaidza nahiko artifiziala da, eta errealitatea itxuraldatzen du, egitura kodetuak ez baitu zerikusirik Goi Erdi Aroko eta Erdi Aro Klasikoko instituzioen izaera juridikoarekin. Izan ere, garai haietan zuzenbidea, funtsean, herritarra zen, eta oraindik ez zen *ius commune* delakoa ere agertu.

Antso V.a Ramiritzen Lizarrako foruaren lehenengo 14 kapituluak 23 manutan daude antolatuta, eta 1164ko foru luzean kopiatu ziren. José María Lacarrak eta Ángel J. Martín Duquek argitaratu zuten testu horren A bertsioa, latinez¹⁷, eta Julio Camposek gaztelaniara itzuli zuen¹⁸; azken bertsio hori 2008an egokitu genuen, Gregorio Monrealekin batera egin genuen argitalpenean¹⁹. Hala

¹³ BARRERO GARCÍA, A. M., La difusión del Fuero de Jaca en el Camino de Santiago. *El Fuero de Jaca, II, Estudios*, Zaragoza: El Justicia de Aragón, 2003, 113.-160. or.

¹⁴ FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J., Fueros locales de Navarra, *Príncipe de Viana*, 68. libk, 242. zk. (2007), 881.-883. or.

¹⁵ JIMENO ARANGUREN, R., El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005), 63.-67. or.; JIMENO ARANGUREN, R., *Los Fueros de Navarra*, Madril: Estatuko Agentzia, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2016, 319.-326.or.

¹⁶ IRUJO, X., *Giving Birth to Cosmopolis. The Code of Laws of Estella (c. 1076)*, Santa Barbara: University of California, Santa Barbara, 2011.

¹⁷ LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra, I. Fueros derivados de Jaca. I. Estella-San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1969, 87.-149. or.

¹⁸ CAMPOS RUIZ, J., *El Fuero de Estella*, Estella/Lizarrak: Lizarrako Udala, 2005, 7.-31. or. (Itzulpenaren berrikuspena: Merche OSÉS URRICELQUI).

¹⁹ MONREAL ZIA, G. eta JIMENO ARANGUREN, R., *Textos histórico-jurídicos navarros. I. Historia Antigua y Medieval*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2008, 49.1 zk., 303.-329. or.

latinezko bertsioa nola gaztelaniazkoa berrikusi genituen 2016an argitaratu nuen edizioan²⁰.

Era berean, 1164ko testuaren A bertsioan oinarrituta idatzi zuten 1180 inguruko Donostiako forua. Testuak aztertuta, José María Lacarrak eta Ángel Martín Duquek erakutsi zuten Donostiako foruaren hitzaurrea eta 24 manuak Lizarrako forutik hartu zirela literalki edo aldaketa txiki batzuekin. Testu hauek dira bat datozenak²¹:

-*Hitzaurrea*: Lizarrako foruaren tituluak eta protokoloa kopiatzen ditu.

-Lizarrako foruaren 1, 1 kap. = Donostiako foruaren 1, 1 kap.

-1, 13 kap. (Lizarra) = 1, 7 kap. (Donostia).

-1, 10 kap. (Lizarra) = 1, 9 kap. (Donostia).

-1, 3 kap. (Lizarra) = 1, 11 kap. (Donostia).

-1, 2 kap. (Lizarra) = 2, 1 kap. (Donostia).

-1, 4 kap. (Lizarra) = 2, 2 kap. (Donostia).

-1, 5 kap. (Lizarra) = 2, 3 kap. (Donostia).

-1, 6 kap. (Lizarra) = 2, 4 kap. (Donostia).

-1, 7 kap. (Lizarra) = 2, 5 kap. (Donostia).

-1, 8 kap. (Lizarra) = 2, 6 kap. (Donostia).

-1, 9 kap. (Lizarra) = 2, 7 kap. (Donostia).

-1, 10 kap. (Lizarra) = 2, 8 kap. (Donostia).

-1, 11 kap. (Lizarra) = 2, 9 kap. (Donostia).

-1, 12 kap. (Lizarra) = 2, 10 kap. (Donostia).

-1, 14 kap. (Lizarra) = 2, 11 kap. (Donostia).

-2, 3 kap. (Lizarra) = 3, 1 kap. (Donostia).

-2, 4 kap. (Lizarra) = 3, 2 kap. (Donostia).

-2, 5 kap. (Lizarra) = 3, 3 kap. (Donostia).

-2, 6 kap. (Lizarra) = 3, 4 kap. (Donostia).

-2, 7 kap. (Lizarra) = 3, 5 kap. (Donostia).

-2, 12 kap. (Lizarra) = 3, 6 kap. (Donostia).

-2, 14 kap. (Lizarra) = 3, 7 kap. (Donostia).

-2, 26 kap. (Lizarra) = 3, 8 kap. (Donostia).

-2, 11 kap. (Lizarra) = 3, 9 kap. (Donostia).

²⁰ JIMENO ARANGUREN, R., *Los Fueros de Navarra, op. cit.*, 327.-347. or. (lat.), 348.-368. (gast.).

²¹ LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros derivados de Jaca I: Estella-San Sebastián, op. cit.*, 29.-31. or.

XII. mende erdialdetik Jakako forua oinarritzat hartzen zen beste foru batzuk interpretatzeko; izan ere, Alfontso II.ak 1187an egindako adierazpen baten arabera, mende horren bigarren erdialdetik aurrera «Gaztelatik, Nafarroatik eta beste lurralde batzuetatik etortzen ziren Jakara, ohitura onak eta foruak ikastera eta beren lurraldeetara eramatera». Behe Erdi Arotik, Lizarrako, Iruñeko, Donostiako eta Hondarribiko jendea Jakara joaten zen forua interpretatzera, bai eta herri horietan emandako sententziak apelatzera ere. Errealitate hori historiografian jasota geratu zen; esaterako, Esteban Garibayk gogorarazi zuen honako hau esaten zela XIV. mende hasieran idatzitako *Crónica de los Estados Peninsulares* testuan:

«Et dizen más, que Navarra e Ypuzcoa se gobiernan por el fuero de Sobre Arbe; que si los reyes fuessen de Navarra, los privilegios que fueron de Navarra tenerian; et oy en día de Ypuzcoa apellan a fuero de Sobre Arbe; et los de Navarra sí fazían, si non que lo vedó el rey don Sancho “l'Encerrado»²².

Lan honetan, Lizarrako eta Donostiako foruen zuzenbidea aztertuko dugu, aipatu berri ditugun iturrien bidez. Gure ikerketatik kanpo utziko dugu Tibalt I.a-ren garaiko Lizarrako foru-proiektua (1234-1253), erregeak, azkenean, ez baitzuen berretsi. Testu berri hori hizkuntza erromanikoan idatzi zuten, zehaztasun juridikoak txertatu ziren eta zuzenbide zibileko eta penaleko kapitulu berriak erantsi, Lizarrako jurisprudentziako jardunbidetik abiatuta.

II. AUZOTASUNA

Erdi Aroko udalerrri guztietan bezala, Lizarrako eta Donostiako zuzenbidea hiribildu horietako herritarrei buruzkoa zen. Hiribilduko herritarra izateak edo ez izateak markatzen zuen pertsonen egoera. Foruak emandako auzotasunak berdintasun eta babes juridikoa ematen zuen eta, horri esker, herritarrek herri-ondasunak erabil zitzaizketen, kontzejuan parte har zezaketen eta askatasun, salbuespen eta frankizia jakin batzuk zituzten. Azken finean, foruek emandako abantaila batzuk ziren, eta, horien bidez, biztanleak erakartzen ziren. Gainera, Lizarraren eta Donostiaren kasuan, biztanle berri horiek frankoak izatea lehenesten zen, nafarrak eta elizgizonak ezin baitziren hiribildu horietan bizi, erregearen eta auzotar guztien baimena izan ezean²³.

²² GARIBAY, E. de, *Los XL libros d'el Compendio historial de las Chronicas y vniuersal Historia de todos los Reynos de España / Compuestos por Estevan de Garibay y Çamálloa, de nación Cántabro, vezino de la villa de Mondragón, de la provincia de Guipúzcoa*, Anveres: Christophoro Plantino, 1571, XXI. lib., XIV. kap.

²³ Lizarra 1, 13 = Donostia, 1, 7.

Lizarrako foruak *biztanlea* eta *auzotarra* bereizi zituen; horren arabera, biztanle bat herrira heltzen bazen, etxe bat alokatu eta bertan bizitzeko asmoz, ez zuen zergarik ordaindu beharko urtebete eta egun batez²⁴. Epe hori igarota, biztanleak ostearen betebeharrak eta auzotasunaren kargak bete beharko zituen auzotar izateko, gainerakoek bezala²⁵. Manu interesgarri eta argigarri hori ez zuten txertatu Donostiako foruan; horretan, xedapen gehienek biztanleez hitz egiten dute, eta ulertzen da auzotarrak direla. Hori guztia agerian jartzen da 1, 7.2 kapitulu adierazgarrian, non adierazten den auzotarren kontzejuak eta erregeak erabakitzen zutela zein elizgizon eta zein nafar izan zitezkeen «herriko biztanle», hots, gizarte-estamentu horietako nor izan zitezkeen auzotar. Donostiako foruan, berariaz auzotarrez hitz egiten duten manu gehienak Lizarrako forutik hartu ziren zuzenean²⁶.

Lizarrako foruan auzotasunari buruz hitz egiten zuten kapitulu guztiak ez ziren Donostiako forura heldu. Batzuk oso adierazgarriak dira; adibidez, batek zioen emakume alargunek auzotasun osoa zutela eta hiribilduko auzotarren karga guztiak bete behar zituztela, ostera joateko betebeharra izan ezik²⁷; beste baten arabera, auzotarrek ostean parte hartu behar zuten, derrigorrez²⁸; beste baten aginduaren arabera, lursail bat erosi nahi zuten auzotarrek ezin zuten auzotasuna alegatu, senidetasuna baizik²⁹; ezin ahaztu, halaber, auzotarrei buruzko auzi prozesalei buruzko erregulazioa³⁰.

III. TOKIKO ERAKUNDEAK

Udaleko foruetan sarritan aipatzen dira hiribildua gobernatzen zuten edo justizia egiteaz arduratzen ziren agintariak; Lizarrako eta Donostiako foruetan ere bai, jakina. Erakunde horiek aipatzen dira, baina ez dira horien zereginak deskribatzen.

Lizarrako foruan hiribilduko Kontzejua aipatzen da, berariaz. Tokiko gizon handiek osatzen zuten kide anitzeko erakunde hori ia ez da ageri testuan;

²⁴ Lizarra, 2, 16.1.

²⁵ Lizarra, 2, 16.2.

²⁶ Zehazki, honako hauek dira: Lizarra 1, 7.1 = Donostia, 2, 5.1; Lizarra, 1, 8 = Donostia 2, 6; Lizarra, 1, 13 = Donostia, 1, 7; Lizarra 1, 6.3 = Donostia 2, 4.3; Lizarra 1, 7.1 = Donostia 2, 5.1. Lizarra, 1, 8 = Donostia 2, 6. Lizarra 1, 9 = Donostia, 2, 7. Lizarra, 2, 6.1 = Donostia 3, 4.1. Lizarra, 2, 11.13 = Donostia, 3, 9.13.

²⁷ Lizarra, 2, 15.

²⁸ Lizarra, 2, 69.

²⁹ Lizarra, 2, 42.

³⁰ Lizarra, 2, 31 eta 2, 70.

soilik aipatzen da zer zeregin zuen kontzejuak barrutietan³¹, eta erakunde horri ordaindu behar zitzaioela etxean ardoa gordetzen zuen atzerritarri jarritako isunaren erdia³². Donostiako foruan ez da aipatzen hiribilduko kontzejua, baina bai «hamabi auzotar onak»³³, zeregin judizialak aipatzen dituzten xedapen batzuetan. Pentsa daiteke, «gizon onak» aipatzen dituzten garaiko beste testu juridiko batzuetan bezala, gizon horiek udal-zeregin administratiboak zituztela kontzejuetan eta, horrez gain, justizia egiten zutela eta ekonomia eta finantzeta-ko kontuetan parte hartzen zutela³⁴. Badirudi hamabi auzotar onak Donostiako Kontzeju izango zenaren jatorria direla, Foru Zaharreko hamabi jaunak Nafarroako Gorteen aitzindari izan ziren moduan.

Hiribilduko jaunaren eta merioaren instituzioek, hots, hiribilduan erregearen ordezkari zirenek, erregulazio bera zuten Lizarrako eta Donostiako foruetan: jauna lau manu penaletan agertzen da³⁵, eta erregearen merioa, batean³⁶. Baina manu horiez gain, tokiko instituzio horiek berezko erregulazioa dute: hiribilduko jauna maiz agertzen da Lizarrako testuan, isunak jasotzeari edo beste auzi prozesal batzuei buruz idazten denean³⁷, baina ez da gauza bera gertatzen Donostiako foruan. Donostiako foruan, Lizarrako eredu-ko testuarekin alderatuta, beste hiru manutan aipatzen da hiribilduko jauna³⁸.

Antzeko zerbait gertatzen da Lizarrako merioarekin³⁹: isun handien hartzaile zen, eta askotariko eskumen prozesalak zituen; aldiz, instituzio hori ez da ageri Donostiako foruan, Lizarrako foruan inspiratuta ez dagoen berezko kapitulu batean izan ezik⁴⁰.

Foruak alkatea eta probestua urtero aldatzeko eskubidea aitortzen zien Donostiako auzotarrei⁴¹. Instituzio judizial horiek bazeuden Lizarran, baina ez dakigu urtero izendatzen ote ziren hiribilduan, foruan ez baitago horri buruzko

³¹ Lizarra, 2, 49.

³² Lizarra, 2, 61.

³³ Donostia, 2, 4.3 y 2, 4.5.

³⁴ ARÍZAGA, B., Las villas guipuzcoanas que reciben el fuero de San Sebastián: modos de vida de sus habitantes, *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 119. or.

³⁵ Lizarra 2, 3.2 = Donostia, 3, 1.2; Lizarra 2, 3.2 = Donostia, 3, 1.2; Lizarra 2, 7.2 = Donostia 3, 5.2; Lizarra 2, 7.3 = Donostia 3, 5.3.

³⁶ Lizarra 1, 9 = Donostia, 2, 7.

³⁷ Lizarra, 2, 1.2; 2, 8.2; 2, 8.3; 2, 21.3; 2, 25.2; 2, 30; 2, 53.1; 2, 61.

³⁸ Donostia, 4, 3.5; 4, 4.2; 4, 4.5.

³⁹ Lizarra, 2, 8.2; 2, 18.1; 2, 18.4; 2, 18.5; 2, 21.3; 2, 22.3; 2, 22.4; 2, 22.5; 2, 48.4; 2, 50.3.

⁴⁰ Donostia, 4, 2.2.

⁴¹ Donostia, 4, 8.

ezer jasota. Alkateari buruzko bi manu soilik errepikatzen dira bi foruetan⁴². Bestalde, Lizarrako foruan beste hainbatetan aipatzen da instituzio hori⁴³, eta Donostiakoan, aldiz, gutxiagotan⁴⁴.

Lizarrako foruan ez da almirantea aipatzen, baina Donostiako foruan bai⁴⁵; tokiko instituzio horrek zeregin polizialak, fiskalak eta militarrek zituen.

IV. EPAIKETAK

Bi hiribilduotako biztanleek arlo judizial abantailatsua zuten⁴⁶. Lizarrako eta Donostiako foruetan, gizonak beti hiribilduaren barruan epaitu behar ziren⁴⁷. Baina auzotar bat udalerritik kanpo egonik, kanpotar batek auzitara eramaten bazuen, biek Lizarrara edo Donostiara joan behar zuten –kasuan kasu–, eta han egingo zen justizia, ezin baitzuten alkate kanpotarrek epaitu, foruaren arabera⁴⁸. Donostiako foruaren azken kapituluan errepikatu egin zen printzipio juridiko hori, non erregeak, foru bidez, hauxe agindu zien hiribilduko biztanleei: «Nire lurraldean edo nire kurian dauden tokian daudela, Donostiako foruaren arabera epaituak izan daitezela»⁴⁹.

Paz Alonsok aztertu zuen foru horien prozesu penala⁵⁰, eta ez da ezer adierazten epaiketak hasteko moduari buruz. Ikusi dugunez, ez da ia ezer aipatzen alkateari buruz; hala, ez dakigu zeregin ofizialik ote zuen delituen jazarpenean. Lehen aipatutako kapituluan, hots, auzotar bat auzitara eramaten zuen kanpotarraren kasuan⁵¹, badirudi akusatzailearen eskariz hasten zirela prozedurazko jarduketak, eta beste manu batzuek ere halaxe iradokitzen dute⁵².

Akusazioa jartzeko epeak zeuden, egoera jakin batzuetan, behinik behin: esaterako, emakume bortxatuei buruzko manuan, emakumeak bortxaketa gertatu eta lehenengo hiru egunetan salatu behar zuen eraso, eta benetako lekukoekin frogatu⁵³; halaber, lekuko faltsuari buruzko kapituluan ikusten denez, lekuko

⁴² Lizarra 1, 6.3 = Donostia 2, 4.3; Lizarra 1, 10.2 = Donostia 2, 8.2.

⁴³ Lizarra, 2, 8.2; 2, 31.4; 2, 48.3; 2, 48.4; 2, 67.

⁴⁴ Donostia, 4, 4.7; 4, 4.8.

⁴⁵ Donostia, 4, 4.7.

⁴⁶ ALONSO, P., El proceso penal, *op. cit.*, 397.-398. or.

⁴⁷ Lizarra 1, 10.1 = Donostia, 2, 8.1.

⁴⁸ Lizarra, 1, 10.2 = Donostia 2, 8.2.

⁴⁹ Donostia, 4, 9.

⁵⁰ ALONSO, P., El proceso penal, *op. cit.*, 398.-405. or.

⁵¹ Lizarra, 1, 10.2 = Donostia 2, 8.2.

⁵² Lizarra 2, 7 = Donostia 3, 5; Lizarra 1, 6 = Donostia 2, 4; Lizarra, 2, 26 = Donostia, 3, 8.

⁵³ Lizarra, 1, 6.5 = Donostia, 2, 4.5.

hura ezin zuten salatu testigantza faltsua eman eta bi urte eta egun bat igaro ondoren⁵⁴.

Kautelazko neurriak nahiko zehatz jaso zituzten. Hala, ezin zuten inor espetxeratu, zuzenbidezko fidantza edo bere buruaren fidantza ematen bazuen⁵⁵. Lehenengo kasuan, zuzenbidezko fidatzaileak demandatua epaiketara joango zela bermatzen zuen eta, kontrako sententzia jasotzen bazuen, bete egingo zuela. Bestalde, bere buruaren fidantza nolabaiteko autofidantza zen, zeinaren arabera demandatuak bahitu izateko konpromisoa hartzen zuen, sententzia beteko zuela bermatzeko⁵⁶. Lizarrako foruan, ez zen agertzen prozesu penaletako bahiari buruzko ezer. Bai, ordea, Donostiako foruan, hamar manuk osatutako kapitulu luze batean: isuna ordainduko zela bermatzeko erabiltzen zen, aldi berean berme eta prozedura exekutibo izateko xedez⁵⁷:

«Zorragatik fidantza duenak, bahia jarri beharko du fidantza modura.

Eta fidantza modura heren bat gutxiago balio duen hildako bahia ematen badu, bahia onartu beharko zaio, hirugarren egunean.

Baina abere bizia ematen badu, lehenago nahiz geroago onar daiteke. Baina zorra ehun sueldo baino gehiagokoa bada, zaldi, mando edo behor bizia erakutsi beharko du.

Eta zorrak ehun sueldo balio badu, hogeit hamar sueldo balio duen aberea erakutsi beharko du; eta zorrak berrogeita hamar balio badu, hamar sueldo balio duen aberea erakutsi beharko du.

Eta ezin badu bahirik eman, goian idatzita dagoen bezala, erregearen zigilua erakutsi beharko du; eta ez badu erregearen zigilua erakutsi nahi, hiribilduko jaunarengana joan lehenbailehen, eta hirurogei sueldo eskatu, eta erregearen espetxean sartu, zor duena izan arte.

Eta abere horiek bahi direla ekoitzi ez dutenaren balioa hemezortzi denario dira goizetik gauera; eta astoa bada, bederatzi denario.

Eta fidatzailea bera preso egonez gero, gau bakoitzeko hirurogei sueldoren petxa ordain dezala hura preso egotearen erantzule denak.

Eta petxa hori ordaindu behar izan badu, bi halako itzuliko dizkio.

Eta fidatzaileak egilea apelatuko balu, bost eguneko epea emango zaio erregearen lurretan badago; kanpoan badago, hamar egunekoa. Eta Santiagon bada, hilabete eta egun bat; San Gilen badago, hilabete eta egun bat; eta Jerusalem, urtebete eta egun bat. Eta aurrez esandako baldintzetan etortzen ez bada, eman bere zorra, kontra egin gabe.

⁵⁴ Lizarra, 2, 26.1 = Donostia, 3, 8.1.

⁵⁵ Lizarra, 1, 5 = Donostia 2, 3.

⁵⁶ ALONSO, P., El proceso penal, *op. cit.*, 401. or.

⁵⁷ Donostia, 4, 3.1-3.10.

Eta bahia dagoenean, hartzekodun den aldetik zordunari har diezaiokeela bermatzeko, erregearen zigilua erakutsi beharko du; ez badu halakorik egiten, zuzenbidezko fidatzailea hartu beharko du. Eta agerikoa bada, ordaindu edo harekin ados jarri beharko du; eta erregearen zigilua apurtzen badu, hirurogei sueldo ordaindu beharko ditu».

Prozesuaren erdigunean froga zegoen, eta beti akusatzaileari zegokion. Hark aurkeztutako gertakariak frogatu behar zituen frogara horren bidez, eta hori aurkeztean, ez dirudi epaituak bere burua defendatzeko aukerarik zuenik⁵⁸. Froga, oro har, lekuko bidezkoa izaten zen⁵⁹. Lekuko bidezko frogarik ez bazegoen eta ez bazen epaitua absolbitzen edo epaiketa bertan behera uzten, demandatuak errugabe zela frogatzeko aukera izaten zuen. Frogarik gabeko akusazio horren aurrean, auzipetuak bereziki Jainkoaren epai bidez garbitu behar zituen berari buruzko susmoak; horrelako frogara ordalikoak oso ohikoak ziren *ius commune* delakoa baino lehenagoko zuzenbide prozesalean. Jainkoaren epai horietan, dibinitateak esaten zuen nor zen erruduna⁶⁰; gure foruetan, epai-duelua eta burdina goriaren ordalia ziren horren salbuespenezko adibide. Lehenengo ordalia hori hiru manutan agertzen da:

«Eta norbaitek azak lapurtu baditu itxi gabeko baratze batean, 5 sueldo ordaindu eta hartutakoa itzuli beharko du; itxita bazegoen, 25 sueldo. Eta ezin badu lekuko bidez frogatu, ukatzen duenak zin egin beharko du; eta frogatu nahi duenak hala nahi badu, epai-duelua eska dezake»⁶¹.

«Eta hildakoaren senideren batek gizona hil duenari esaten badio: *zuk beste modu batean hil zenuen nire senidea, eta ez zen zure etxean gertatu*, hiltzaileak zin egin beharko du, eta burdinazko frogaz egiaztatu gauez eta bere etxean hil zuela, eta ez zegoela beste arrazoi edo etsaitasunik. Eta burdinazko probatik onik eta osorik irteten bada, hildakoaren senideek bermeak eman beharko dizkiote, eta akusatua ez da hilketaren erantzule izango; duelua ere egin daiteke, bi aldeek hala nahi badute, baina hori ez da arauzkoa»⁶².

⁵⁸ Paz Alonsok hala ondorioztatu du (El proceso penal, *op. cit.*, 402. or.), manu hauetatik: Lizarra 1, 6 = Donostia 2, 4; Lizarra 2, 5 = Donostia 3, 3; eta Lizarra, 2, 26 = Donostia, 3, 8.

⁵⁹ Baita manu hauetan ere: Lizarra 1, 4.1. Donostia 2, 2.1; Lizarra 1, 4.2. Donostia 2, 2.2; Lizarra 1, 6.5 Donostia 2, 4.5; Lizarra 2, 6.4. Donostia 3, 4; Lizarra 2, 6.6. Donostia 3, 4.6; Lizarra, 2, 26.2. Donostia, 3, 8.2. Halaber, Lizarra, 2, 13.1; 2, 13.2; 2, 19.1-19.4; 2, 22.2; 2, 22.6; 2, 22.30; 2, 25.1-25.4; 2, 28; 2, 32.2; 2, 32.3; 2, 32.5; 2, 34.1; 2, 35.2; 2, 37.1-37.3; 2, 38.3; 2, 50.1; 2, 50.2; 2, 52.1; 2, 54; 2, 55.1; 2, 55.2; 2, 55.4; 2, 55.5; 2, 62.2; 2, 63.1; 2, 63.3; 2, 64.2; 2, 66; 2, 67; 2, 68.1. Eta Donostia, 4, 4.1; 4, 4.2.

⁶⁰ MONREAL ZIA, G. eta JIMENO ARANGUREN, R., *Textos histórico-jurídicos navarros. I, op. cit.*, 735.-736. or.

⁶¹ Lizarra, 2, 6.4 = Donostia 3, 4.4.

⁶² Lizarra, 2, 7.4 = Donostia 3, 5.4.

«Baina ezin badu lekuko bidez frogatu [testigantza faltsua], epai-duelu bi-dez salba daiteke; eta horretan galtzen badu, gorago idatzita dagoen moduan ordainduko du. Baina auzia irabazten badu, frogatu duenak 500 sueldoko isuna ordainduko du eta zordun izango da proban jarri nahi izan zuenarekin eta haren senideekin»⁶³.

Dueluak hiribilduko gizonekin soilik egin zitezkeen, bi foruetan debekatura baitzegoen auziak zirela-eta kanpokoekin egitea. Neurri hori ordezkatzeko, lekukoak izenda zitzaketen, bata nafarra eta bestea frankoa⁶⁴; eta, lekukorik egon ezean, zin egin behar zuten⁶⁵.

Burdina goriaren ordaliari dagokionez, Paz Alonsok gogorarazten du gauzez gertatu zirelako frogatzen zailak ziren kasuetan soilik egiten zela⁶⁶. Hala, gauzez ustez jo zuten mahasti-zaintzailearen kasua daukagu. Akusatuari burdinaren proba egingo zitzaion, eta erretzen ez bazen, zaintzaileak 60 sueldo ordaindu beharko zituen⁶⁷. Bigarren kasua hilketa bati buruzkoa da:

«hildakoaren senideren batek gizona hil duenari esaten badio: *zuk beste modu batean hil zenuen nire senidea, eta ez zen zure etxean gertatu*, hiltzaileak zin egin beharko du, eta burdinazko frogaz egiaztatu gauzez eta bere etxean hil zuela, eta ez zegoela beste arrazoi edo etsaitasunik. Eta burdinazko probatik onik eta osorik irteten bada, hildakoaren senideek bermeak eman beharko dizkiote, eta akusatua ez da hilketaren erantzule izango; duelua ere egin daiteke, bi aldeek hala nahi badute, baina hori ez da arauzkoa»⁶⁸.

Lizarrako foruan bada froga ordalikoen beste adibide bat –ez, ordea, Donostiakoan–; kasu honetan, auzi zibila zen, zorren ordainketa, eta *Hil den gizonari buruz*⁶⁹ kapituluaren agertzen zen:

«Hil den gizon batek beste bati dirua zor bazion, eta eskatzen duenak ezin badu frogatu hildakoak zor ziola, haren ondorengoek zin egingo dute ez zekite-la zor hori zuenik; eta onargarria izango da.

Hildakoaren emazteak gauza bera esango du, eta eskatzen duenak *zuk hori bazenekien* esaten badu, burdinaren probara jo beharko da.

Eta semeari esaten badio *zure aitak diru hau zor dit*, eta semeak erantzuten badu *agian zor zizun, baina itzuli zizun*, dirua eskatzen duenak zin egin eta burdina goria jaso beharko du, eta egiaztatzen badu, bere dirua berreskuratuko du.

⁶³ Lizarra, 2, 26.2 = Donostia, 3, 8.2.

⁶⁴ Lizarra, 1, 4.1 = Donostia 2, 2.1.

⁶⁵ Lizarra, 1, 4.2 = Donostia 2, 2.2.

⁶⁶ ALONSO, P., El proceso penal, *op. cit.*, 404. or.

⁶⁷ Lizarra, 2, 6.7 = Donostia 3, 4.7.

⁶⁸ Lizarra, 2, 7.4 = Donostia 3, 5.4.

⁶⁹ Lizarra, 2, 33.1-33.4.

«Eta nahiko balu, burdinaren proba jasan behar duenak beste gizon bat jar dezake bere ordeztu burdina gorria jaso dezan; izan ere, gerrarako beste gizon bat bidal badezake bere ordeztu, gauza bera egin dezake proba hori egiten den epaiketan burdina jasotzeko».

Lizarrako eta Donostiako foruetan ez da ezer aipatzen epailearen erabakiari buruz, baina, Paz Alonsok ongi ikusi zuen moduan, epailea probaren emaitzarekin oso lotuta zegoen; hala, epaileak probaren emaitza berariaz aitortu, eta foruak berak jasotako zigorra ebatziko zuen. Itxuraz, hori ondorioztatzen da probaren eta zigorraren arteko zuzeneko lotura ikusten den kasuetan⁷⁰; halaxe da, adibidez, testigantza faltsuari buruzko kapituluko kasuan⁷¹:

«Norbaitek testigantza faltsua eman badu eta beste norbaitek beste testigantza batzuekin frogatzen badu, urtebete eta egun bat igaro ondoren, galdu zuenari galera guztiak ordainduko dizkio, eta testigantza eman zuena lurraldeko jaunaren esku geratuko da.

Baina ezin badu lekuko bidez frogatu, epai-duelu bidez salba daiteke; eta horretan galtzen badu, gorago idatzita dagoen moduan ordainduko du. Baina auzia irabazten badu, frogatu duenak 500 sueldoko isuna ordainduko du, eta zorra izango du frogatu nahi izan zuenarekin eta haren senideekin.

Baina bigarren urtean apelatzen ez badu, ez du gehiago erantzungo, eta hura ez da ausartuko apelatzera; eta egiten badu, 250 sueldoko isuna ordaindu behar du».

Sententziak ez zuen errekurtsorik; beraz, epaia erabakigarria zen.

V. SOLDADUTZA

Garai hartako tokiko foruek soldadutzari eta forupeko hiribilduetako auzotarrek arlo horretan zituzten salbuespenei buruzko araudia jasotzen zuten⁷². Hori gertatzen da Lizarrako eta Donostiako foruetan; testuok garrantzi berezia ematen zioten osteraren salbuespenari, arlo hori lehenengo manuan jasota baitago. Lizarrako testua luzeagoa da eta, horretan, erregeak xedapen abantailatsua eman zuen: auzotarrek ez zuten osteraren joan beharrik, derrigorrezko hiru egunetan izan ezik, zelai beteko bataila zegoenean edo etsaiek erregea setiatuta zeukatenean. Hala ere, auzotarrak betebeharrak horretatik kanpo gera zitezkeen, beren langile bat edo 60 sueldo bidalita⁷³. Espedizio militarretara joatearen sal-

⁷⁰ ALONSO, P., El proceso penal, *op. cit.*, 404. or.

⁷¹ Lizarra, 2, 26.1-26.3 = Donostia, 3, 8.1-8.3.

⁷² JIMENO ARANGUREN, R., Servicio de armas en los fueros medievales de Vasconia: fonsado/hueste, cabalgada y apellido, *Iura Vasconiae*, 4 (2007), 33.-66. or.

⁷³ Lizarra, 1, 1 y 1, 2.

buespena hertsia goa zen Donostiako foruan; horretan, erregeak esan zuen Donostiako biztanleak ez zirela ostera edo zamalkatzera joango. Azken hori kanpaina labur eta azkarra zen, etsaien lurraldean zaldiz egiten zena⁷⁴. Donostian, gainera, erregeak esan zuen ez zutela ez gerrarik ez duelurik egingo kanpoko gizonekin, ezein auzirengatik⁷⁵.

VI. ZERGA-SISTEMA

Frankoen foruen bereizgarri izaten da zerga-baldintza abantailatsuak ematen dituztela, biztanleak erakarri, eta hiribilduan bizitzen jar zitezten. Ildo horretan, eta jada esan dugun bezala, Lizarrako foruaren arabera, biztanle bat herrira heltzen bazen, etxe bat alokatu eta bertan bizitzeko asmoz, ez zuen zergarik ordaindu beharko urtebete eta egun batez. Epe hori igarota, biztanleak ostearen betebeharrak eta auzotasunaren kargak bete behar zituen auzotar izateko, gainerakoek bezala⁷⁶. Karga horien artean zegoen auzotar guztiek erregeari ordaintzen zioten zuzeneko zerga⁷⁷. Donostian ez dago halako manurik, honako hau dioenez harago: biztanleak «foru txar eta ohitura txar guztietatik aske eta salbuetsita egongo dira, betiko»⁷⁸.

Donostian ere zergen arloko abantaila zegoela ikusten da; Lizarran ez zegoen manu bat txertatu zuten hango foruan. Hain zuzen ere, Gipuzkoako hiribilduan, erregeak baimena eman zuen bertako biztanleak eta haien ondorengoak egiten zituzten labe, bainu eta errota guztien erabateko jabeak izan zitezten. Gainera, erregeak ez zien horiei buruzko erroldarik eskatuko⁷⁹.

Bi hiribilduetan, erregeak isun handien zenbatekoa kontrolatzen zuen foru bidez; alabaina, bermatuta zegoen erregearen merioak ez zuela jasoko Lizarrako gizonen isunik, sei auzotar onen erabakiz izan ezean⁸⁰.

Bi foruak bereziki onuragarriak ziren merkatariarentzat, lezda ordaintzetik neurri batean edo guztiz aske baitzeuden; lezda saldutako merkantzien gaineko zerga zen, eta fiskoari ordaintzen zitzaion⁸¹. Zehazki, Lizarrako foruan jasotzen

⁷⁴ Donostia, 1, 1.

⁷⁵ Donostia, 2, 1.

⁷⁶ Lizarra, 2, 16.

⁷⁷ SOLA ALAYETO, A. eta ROS ZUASTI, T., *Estella, posta y mercado en la Ruta Jacobea*, Lizarra: Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1992, 12. or.

⁷⁸ Donostia, 1, 1.2.

⁷⁹ Donostia, 1, 6.

⁸⁰ Lizarra 1, 9= Donostia, 2, 7.

⁸¹ MONREAL ZIA, G. eta JIMENO ARANGUREN, R., *Textos histórico-jurídicos navarros. I*, op. cit., 810. or.

zen ostegunetan –azoka zegoela ulertzen da– ez zela lezdarik kobratuko, arrabol bidez neurtzen zenagatik izan ezik. Gainera, burgesek uzta beren etxean sal zezaketen, eta ez zuten lezda ordaindu behar, asteazkeneko arratsaldeko hiruretatik ostegun gauera bitartean izan ezik⁸².

Donostiako forua eskuzabalagoa zen arlo horretan. Erregeak lurralde osoan lezda ez ordaintzeko eskubidea eman zien hiribildura itsasoz edo lurrez beren salgaiekin heltzen ziren biztanleei⁸³, salbuespen batekin: biztanle batek fardelak edo salgairen bat Baionan erosi eta Donostiatik igarota beste nonbait saldu nahi bazituen, lezda ordaindu beharko zuen; aldiz, ez zuen zerga hori ordaindu beharko salgai horiek Gipuzkoako hiribilduan salduz gero⁸⁴. Foruak zehazten zuen hiribildura ogia, ardoa eta haragia eramaten zuenak ez zuela lezda ordaindu behar⁸⁵.

Halaber, erregeak ezarri zuen Donostiako ontziak zergarik gabeak, askeak eta salbuetsiak izango zirela; hala, ez zuten ordainduko ez bidesaririk ez lezdarik⁸⁶; aitzitik, kanpoko ontziek ordaindu egin behar zuten⁸⁷. Bestalde, itsasontzi bat Donostiako uretan hondoratzen bazen, merkatariek salgai guztiekin berreskura zezaketen, hamar sueldo eta haien lezda emanda⁸⁸.

Kasu horiez gain, Donostiako foruak ezartzen zuen atzerritarrek 6 diru ordaindu behar zituztela arrain-karga bakoitzeko; argizari-karga bakoitzeko, 6 diru porturatzeko eta horren lezda, Iruñean legez emango lukeena baino heren bat gutxiago; kobre-karga bakoitzeko, 6 diru; eztainu-karga bakoitzeko, 6 diru eta horren lezda; berun-karga bakoitzeko, sei diru eta horren lezda; eta larru-ilara bakoitzeko, 2 diru, ilara erdiagatik diru bat, eta gutxiago izanez gero, ezer ez⁸⁹.

VII. MERKATARIEN ETA ERROMESEN ESKUBIDEAK

Aztertzen ari garen bi foruen arteko desberdintasunik nabarmenena merkataritza-zuzenbidean dago. Aurreko atalean egiaztatu dugu hori, lezdaren eta

⁸² Lizarra, 2, 59.1.

⁸³ Donostia, 1, 2.1.

⁸⁴ Donostia, 1, 2.2.

⁸⁵ Donostia, 1, 5.

⁸⁶ Donostia, 1, 3.1.

⁸⁷ Zehazki, ontzi bakoitzeko Nafarroako hamar sueldo, eta ontzitik ateratako fardel bakoitzeko, hamabi diru porturatzeko eta horren lezda, baina Iruñean legez emango lukeena baino heren bat gutxiago. Donostia, 1, 3.2.

⁸⁸ Donostia, 1, 10.

⁸⁹ Donostia, 1, 4.1-4.6.

merkataritzako beste karga batzuen erregulazioan dauden desberdintasunak ikusita. Baina desberdintasun horiez harago, antzekotasun handiak ere badaude. Bi udalerriek, foruaren bidez, merkatu bat bereganatu zuten. Merkatuaren instituzioa da merkatu- eta industria-ekonomiaren sortzailea eta, hain zuzen ere, instituzio hori izango zen toki horien benetako eragile ekonomikoa. Artisanu eta merkataria askeak ez zeuden jaun baten mende; beraz, independenteak ziren juridikoki eta ekonomikoki.

Lizarrako lehenengo foruak garrantzi berezia eman zion tokiko merkatua indartzeari, merkatariei buruzko zenbait xedapenekin eta merkatua bera araututa⁹⁰; besteak beste, arau batek zioen merkatariren batek neurri faltsua bazuen (pisua, besoa edo soka), 60 sueldo ordaindu beharko zizkiola erregeari. Donostiako foruak ere jaso zuen manu hori⁹¹.

Lizarran bi azoka edo merkatu zeuden, bat asterokoa eta bestea egunerokoa⁹². Dirudenez, lehenengoa ostegunetan izaten zen. Ikusi dugunez, foruak zehaztu zuen egun horretan ez zela lezdarik kobratuko, arrabol bidez neur zitekeenagatik izan ezik. Egun horretan, burgesek uzta beren etxean sal zezaketen eta ez zuten lezda ordaindu behar, asteazkeneko arratsaldeko hiruretatik ostegun gauera bitartean izan ezik⁹³. Merkataritzari buruzko gainerako manuetan, itxuraz, ez da bereizketarik egiten asteroko eta eguneroko azoken artean; azken horretan, erromesek ere garrantzi handia zuten. Hain zuzen ere, merkatariekin nahasten ziren, baita juridikoki ere, kapitulu batean ikus daitekeenez:

«norbaitek animalia bat erosi badio erromes bati edo merkataria bati, eta ez badio bermerik eskatu, eta hori egia dela zin egiten duten lekukoak baditu, erosketak balioa izango du; eta erosleak berak zin egiten badu esfera eta makuludun erromes bati erosi diola, erosketak balioa izango du, halaber. Gauza bera gertatuko da lekukorik ez duen merkatariekin»⁹⁴.

Lizarrako foruak babesa ematen zion merkataritari, arazo handirik izan ez zezan bere jardueran. Hala, adibidez, kanpotarrek ezin zituzten armak eraman azokara, bertan geratu gabe igaro ezean; halakoetan, isunik ordaindu gabe utzi behar zituzten⁹⁵. Donostiako foruan sakonago jaso zen kontu hori helburu bereko xedapen batean, zeinak hau ezarri zuen:

⁹⁰ JIMENO ARANGUREN, R., El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005), 59.-60. or.

⁹¹ Lizarra 1, 11= Donostia, 2, 9.

⁹² SOLA ALAYETO, A. eta ROS ZUASTI, T., *Estella*, op. cit., 12.-14. or.

⁹³ Lizarra, 2, 59.1.

⁹⁴ Lizarra, 2, 34.1.

⁹⁵ Lizarra, 2, 59.3.

«kanpotarrak, Donostia barruan daudenetik, ezin dira borrokatu, eta ezin dute arma zorrotzik hartu, beste baten aurkako gorrotoa edo zorren bat dela medio; eta, hartzen badituzte, mila sueldo ordaindu beharko dute. Eta biztanle guztiek, altxatu, eta bestea kolpekatu duena hilko balute, ez legoke zigorrik»⁹⁶.

Segurtasun fisikoarekin batera, segurtasun juridikoa eta ekonomikoa zegoen; hain zuzen ere, bi foruetan jasota zegoen norbaitek neurri faltsua bazuen (pisua, besoa edo soka) 60 sueldo ordaindu beharko zizkiola erregeari⁹⁷. Halaber, bi foruetan zehaztu zen inor ezin zela libratu hiribilduko frankoekin izandako zorretatik⁹⁸. Era berean, Lizarrako foruan aipatzen zen azokara joaten zirenak ezin zirela zorpetuta egon, zorduna edo fidatzailea izan ezean⁹⁹. Ildo beretik, Donostiako foruan ezartzen zen inor ezin zela salbuetsita egon hiribilduko frankoekin izandako zorretatik¹⁰⁰. Azken testuan ere honako hau adierazten zen: «Donostiako biztanle guztiek, edozein dela beren lanbidea, lapurretarik eta trai-ziorik gabe lortu behar dituzte beren irabaziak»¹⁰¹.

Bi foruetan, merkatari kanpotarrari zerga bat ezartzen zitzaion ostatu-tan saltzeko, *hostalaje* zeritzona. Merkatariak ostatu hartzen zuen toki berean gauzatzen zuen jarduera, eta toki horren jabeari ordaindu behar zion aipatutako zerga. Jardunbide oso ohikoa izango zen; izan ere, Lizarrako foruan 14 manu daude *hostalaje* delakoari buruz¹⁰², eta Donostian, berriz, 32¹⁰³.

Ez dirudi Lizarran merkatarien eta erromesen arteko desberdintasuna handia zenik, ostatu-eskubideei eta ostatu-tan egindako delituengatik ezarritako zigorrei dagokienez¹⁰⁴:

«Erromes edo merkatari batek etxe batean ostatu hartzen badu, eta haren bagajea desagertzen bada, eta etxearen jabeari edo haren emazteari, edo seme-alabei esaten badie: “Zuk duzu nire bagajea, eta horregatik lapur eta gaizkide zara”, eta etxearen jabeak erantzuten badu: “ez”, akusatuak, zin egin, eta errugabe dela frogatu beharko du, epaiketa batera joanda. Eta galtzen badu, lapurretaren balioaren hirukoitza eman beharko dio bagajearen jabeari, eta 60 sueldoko isuna ordainduko dio erregeari lapurretagatik, eta beste 60 sueldo epaiketagatik.

⁹⁶ Donostia, 2, 11.

⁹⁷ Lizarra 1, 11= Donostia, 2, 9.

⁹⁸ Lizarra 1, 12. Donostia, 2, 10. Lizarrako foruan manu horrek desberdintasun bat du: frankoekin batera, juduak aipatzen ditu.

⁹⁹ Lizarra, 2, 59.2.

¹⁰⁰ Donostia, 2, 10.

¹⁰¹ Donostia, 4, 1.

¹⁰² Lizarra, 2, 24.1-14.

¹⁰³ Donostia, 4, 5.1-5.11 y 4, 6.1-6.21.

¹⁰⁴ Lizarra, 2, 8.1-8.5.

Eta, azken horietatik, 20 sueldo merioarentzat izango dira, beste 20 alkatearentzat, eta beste 20ak hiribilduko jaunarentzat.

Alabaina, akusatua epaiketa galtzen ez badu, erromes edo merkatariak 60 sueldo ordainduko dizkio hiribilduko jaunari.

Era berean, ostatu hartu duenak jabeari ondasunen bat lapurtzen badio, azaldutako prozedura berari jarraituz erantzun beharko du.

Eta akusatua ondasunik ez badu eta epaiketan errunduntzat jotzen badute, jendaurrera eraman beharko du bere burua, dituen ondasun higigarri eta higiezin guztiekin, eta zin egin beharko du ez duela beste ondasunik».

Esan beharra dago Donostiako foruan ez dela agertzen Donejakue bidea egiten ari ziren erromesei buruzko araurik; beraz, agerian geratzen da Gipuzkoan, XII. mendeko azken hamarkadetan, ez zegoela Donejakueren kostako biderik.

VIII. JABETZAREN ETA ONDASUNEN BABES JURIDIKOA, ETA GOZAMENEO ESKUBIDE ERREALAK

Jakako foruen¹⁰⁵ ezaugarri orokortua da jabetza pribatua asko babestea, hainbestearino, ezen jabaritik datorren eskubide modura mugatzen baita, jendeak onibarrak errespetatzeko xedez¹⁰⁶. Jabeek kargarik gabe izan zitzaketen jabetzak; hain zuzen ere, testuan adierazten zen biztanleek edozein tokitan etxalde bat erosten bazuten edo udalerriko edo kanpoko etxalde batean bizi baziren, zergarik gabe eta salbuetsita izango zutela, eta ez zela ez interdikturik ez errodarik egingo¹⁰⁷. Halaber, jendeak urtebete eta egun batez har zezakeen etxalde bat jabetzan, inork aurka egin gabe; ordutik aurrera, norbaitek etxaldea eskatu edo kentzen bazion, hark 60 sueldo ordaindu beharko zizkion erregeari eta etxaldearen jabe zela egiaztatu beharko zuen¹⁰⁸. Neurri sorta horri esker, jabetza ongi babesten zen, eta higiezin salerosketa askeari laguntzen zitzaion.

Bestalde, foruek babes nabarmena garatu zuten egoitza edo beste edozein jabetza bortxatzeari zegokionez, manu penal askoren bidez.

Gozameneko eskubide errealei dagokienez, erregeak baimena eman zien Lizarrako biztanle guztiei egun berean joan eta etorri ahal ziren toki guztietako larreak, basoak eta urak erabiltzeko¹⁰⁹; aldiz, Donostian zehaztasun handiagoz

¹⁰⁵ LALINDE, J., *Los Fueros de Aragón*, Zaragoza: Librería General, 1979, 23. or. GARCÍA CANTERO, G., *El Derecho civil, op. cit.*, 384. or.

¹⁰⁶ Lizarra 2, 3.1-3.4. = Donostia, 3, 1.1-1-4.

¹⁰⁷ Lizarra, 1, 2.1 = Donostia 2, 1.1.

¹⁰⁸ Lizarra, 1, 2.2 = Donostia 2, 1.2.

¹⁰⁹ Lizarrako forua, 1.3.

mugatu zuen ingurune geografikoa, honako hau ezarri baitzuen: «Undarabitik Oriaraino eta Arrengatik Aranoko San Martinerraino, mugarte horren barruan dudan lurralde guztia». Donostiaren emakidan, Lizarrakoan bezala, honela zehaztu zuen: biztanleek beti izango dituzte «nire lurralde guztian larreak, basoak eta urak, ingurunean bizi diren gizonek dituzten moduan»¹¹⁰. Bestalde, errege-lurralde horietako ekoizpen-bideen jabe zen aldetik, erregeak baimena eman zien Donostiako biztanleei labeak, bainu eta errotak egiteko, eta horien jabetza osoa izateko, zergetatik salbuetsita; gainera, erregeak ez zien horiei buruzko erroldarik eskatuko, gorago ikusi dugun moduan¹¹¹.

IX. OBLIGAZIOAK ETA KONTRATUAK

1. Betebeharrak

Aztertzen ari garen testuetan, oso gutxi aipatzen dira obligazioak; fidantzen arlokoak –gero ikusiko ditugu– eta Donostiako foruak zordunei ematen zien pribilegioa soilik agertzen dira. Pribilegio horri esker, zorrak ordaintzeko luzamendua zegoen: hiribilduko zordunek, edo haien fidatzaileek ez zieten bi urte igaro arte ordaindu behar hartzekodunei¹¹²; ondorioz, atzerapena ez zen lege-haustea. Manu berezia da, eta ez zuen aurrekaririk Lizarrako testuan.

Bi foruetan modu berean arautu zen betebeharren froga, zeina zinpeko aitorpena¹¹³ nahiz lekukoen froga izan zitekeen¹¹⁴. Era berean, foruek testigantza faltsuaren frogaren kasua ere jaso zuten. Urtebete eta egun bat igarota, testigantza faltsua eman zuenak kalteak ordaindu behar zituen, eta hiribilduko jaunaren mende geratzen zen; hiribilduko jauna ezarriko zuen zegokion zehapen penala¹¹⁵. Hori frogatzeko lekukorik egon ezean, testigantza faltsuaren ustezko egilea errugabe jo zitekeen, dueluaren froga ordalikoaren bidez¹¹⁶.

Bestalde, Donostiako foruarekin bat etorri gabe, Lizarrako foruak hildako gizon baten zorren kasua jaso zuen: dirua eskatzen zuenak ezin balu frogatu hildakoak zor ziola, eta horren ondorengoek zin egingo balute ez zekitela zor hori zuenik, nahikoa izango zen testigantza horrekin¹¹⁷. Aldiz, hildakoaren emazteak

¹¹⁰ Donostia, 1, 11.

¹¹¹ Donostia, 1, 6.

¹¹² Donostia, 1, 8.

¹¹³ Lizarra, 1, 4.2 = Donostia 2, 2.2.

¹¹⁴ Lizarra, 1, 4.1 = Donostia 2, 2.1.

¹¹⁵ Lizarra, 2, 26.1 = Donostia, 3, 8.1.

¹¹⁶ Lizarra, 2, 26.2 y 26.3. Donostia, 3, 8.2 y 8.3.

¹¹⁷ Lizarra, 2, 33.1.

gauza bera esango balu, eta eskatzaileak adieraziko balu emakumeak horri buruz bazekiela, burdinaren probara jo beharko zen¹¹⁸. Eta hartzekodunak hildakoaren ondorengoari esango balio «zure aitak diru hau zor dit», eta hildakoaren ondorengoak erantzungo balu «agian zor zizun, baina itzuli zizun», hartzekodunak zin egin eta burdina gorria jaso behar zuen, eta egiaztatuko balu, bere dirua berreskuratuko zuen¹¹⁹.

2. Salerosketak

Hala Lizarrako foruan nola Donostiakoan, salerosketei eta errentamenduei buruzko kasu asko jasotzen dira, eta horiei buruz, funtsean, arau berak dituzte.

Ondasun higiezinak nolabaiteko askatasuna zuten salerosketan, eta hori pizgarri handia zen biztanleak erakartzeko¹²⁰. Lizarrako edo Donostiako hiribilduetan etxalde bat erostea zergetatik aske eta salbuetsita egon behar zen, debeku zein erroldarik gabe¹²¹. Eta urtebete eta egun batez inork aurka egin gabe jabe izan ondoren, norbaitek eskatuko balu, eskatzaileak 60 sueldo ordaindu beharko zizkion erregeari, eta etxaldearen jabe zela egiaztatu beharko zuen¹²². Ondasun higiezinak harago, foruek salerosketari buruz hitz egiten dute semeorde-alabaordeek beren aitaren onibarrei zegokienez zituzten eskubideei buruzko kapituluan; hala, adierazten da amaorde alargunak ezin zituela ez saldu ez bahian eman¹²³. Donostiako foruaren kasu zehatzean, salmentak aipatzen dira, salgaien salmentaren ondoriozko lezdaren ordainketa arautzean¹²⁴; Lizarrako foruan, berriz, «onibarren erosketari» buruzko lau manu daude¹²⁵.

3. Dohaintzak

Dohaintzak familiaren eta ondorengotzaren arloko instituzioei lotuta zeuden¹²⁶. Hala, bi aldiz ezkonduetako ama alargunak bere senarraren edo edozein gizonen ondasunak dohaintzan eman nahi bazituen, horren bermea ematen

¹¹⁸ Lizarra, 2, 33.2.

¹¹⁹ Lizarra, 2, 33.3.

¹²⁰ GARCÍA CANTERO, G., *El Derecho civil, op. cit.*, 390. or.

¹²¹ Lizarra, 1, 2.1 = Donostia 2, 1.1.

¹²² Lizarra, 1, 2.2 = Donostia 2, 1.2.

¹²³ Lizarra, 2, 11.13 = Donostia, 3, 9.13.

¹²⁴ Donostia, 1, 2.

¹²⁵ Lizarra, 2, 25.1-25.4.

¹²⁶ GARCÍA CANTERO, G., *El Derecho civil, op. cit.*, 390.-391. or.

bazuen soilik izango zuen balioa dohaintzak¹²⁷. Halaber, alargun horrek bere ondasunen *mortis causa* dohaintza egin zezakeen, eta horretarako ez zuen fidantzarik jarri behar, baldin eta testamentu-betearazleak bazeuden eta Jainkoari eta beren arimei esaten bazieten: «Guk dohaintza hori egiten ikusi eta entzun genuen»¹²⁸. Bestalde, senarrak ezin zituen emakumearenak ziren ondasunak dohaintzan eman haren berariazko baimenik gabe; beraz, bereak ziren ondasunak soilik eman zitezkeen¹²⁹.

4. Errentamenduak

Errentamenduen erregulazioak jabe errentatzailea babesten zuen, frankoen beste foru batzuetan bezala. Errentamendua ondasun higiezinetara mugatzen zen, eta kontratuaren iraupenari, errentaren ordaintetari eta iraungipenaren arazoiei buruzko manuak zeuden¹³⁰. Foruak biztanleekin bereziki eskuzabalak ziren, hauxe adierazten baitzuten:

«norbaitek hiribilduko gizon zintzo baten etxea alokatuta edukirik, jabeak etxe horretara joan nahiko balu bizitzera, etxea alokatu duenak etxetik joan behar du, eta etxe horretan egon den denboragatik dagokion zenbatekoa ordaindu behar dio jabeari»¹³¹.

Alabaina, errentamendua soto, sabai, aletegi edo beste biltegiren batena zenean, ez zen indargabetzen epea bete arte¹³².

Halaber, errentariak ez zuen eskubiderik bere alokairua ez ordaintzeko, ezta arrazoi garrantzitsuak zirela medio ere; esaterako, Jerusalemara edo beste herrialde batera bidaiatzea edo bizitzera beste hiribildu batera joatea¹³³. Era berean, kontratua ez zen amaitzen eta ezin zitzaion errenta ordaintzeari utzi ezkonzeagatik edo bizitzera hiribildu bereko beste toki batera joateagatik¹³⁴.

Bi aldiz ezkonduko ama batek lehenengo senarraren ondorengo etxaldea alokairuan hartu nahi bazuen, beste interesdun batzuek ordainduko zuten zenbateko bera ordainduta aloka zezakeen¹³⁵.

¹²⁷ Lizarra, 2, 11.6 = Donostia, 3, 9.6.

¹²⁸ Lizarra, 2, 11.7 = Donostia, 3, 9.7

¹²⁹ Lizarra, 2, 11.10 eta 11.11 = Donostia, 3, 9.10 eta 9.11.

¹³⁰ GARCÍA CANTERO, G., *El Derecho civil, op. cit.*, 391. or.

¹³¹ Lizarra, 2, 14.1 = Donostia 3, 7.1.

¹³² Lizarra, 2, 14.2 = Donostia 3, 7.2.

¹³³ Lizarra, 2, 14.3 = Donostia 3, 7.3.

¹³⁴ Lizarra, 2, 14.4 = Donostia 3, 7.4.

¹³⁵ Lizarra, 2, 11.17 = Donostia, 3, 9.17.

Azkenik, aipatu behar da Lizarrako foruak ostatu-kontratua sartu zuela «Errentamenduari buruz» izeneko idazpuruan. Kontratu horrek erabateko askatasuna ematen zuen, baina ez zen onartzen derrigorrezko ostatua:

«Norbaitek hiribilduko gizon zintzo baten etxea alokatuta edukirik, jabeak etxe horretara joan nahiko balu bizitzera, etxea alokatu duenak etxetik joan beharko du, eta etxe horretan egon den denboragatik dagokion zenbatekoa ordaindu beharko dio jabeari»¹³⁶.

X. FIDANTZA ETA BAHIA

Salerosketetan segurtasun juridiko handiagoa lortzeko, udal-foruek bermeak arautu zituzten, bereziki fidantza eta bahia¹³⁷. Lizarrako foruan zehaztasunez arautu ziren arlo horiek, baina Donostiakoan ez hainbeste, manu oso zehatzetan izan ezik; esaterako, aipatzen zen inork ezin zuela auzoko zordun baten etxean sartu bahia indarrez eskatzera; hala eginez gero, 25 sueldo ordainduko zizkion etxearen jabeari, salbu eta bahia fidantza moduan hartua izan balitz, halakoetan fidatzaileak bahi hori har baitzezakeen¹³⁸.

Bi foruetan aurki ditzakegu fidantza jartzeko betebeharra nabarmentzen duten manuak; esaterako, bere haurrak aitaren ondasun higigarrien eta higiezin bidez atxiki nahi zituen emakume alargunaren kasua, zeinak fidantza onak eman behar zizkien haurren senideei, haiek nerabegarora heltzen zirenean ondasun higigarri eta higiezin horiek emango zizkiela bermatzeko¹³⁹. Halaber, bi testuetan jaso zen emakume alargunei buruzko beste kasu bat, zeinetan alargunak, bermeak emanda, bere ondasunak eman ahal zizkion bigarren senarrari edo beste edozein gizoni¹⁴⁰.

Gainerako erregulazioa, zeina oso zehatza baita, foru batean edo bestean soilik agertzen da. Lizarrakoan bermeei buruzko 54 manu daude¹⁴¹, eta Donostiakoan, 11 besterik ez¹⁴².

¹³⁶ Lizarra, 2, 14.1 = Donostia 3, 7.1.

¹³⁷ JIMENO ARANGUREN, R., Las figuras de garantía en los fueros medievales hispánicos occidentales. SALUSTIANO DE DIOS, J. I., ROBLEDO, R. eta TORIJANO, E. (koor.), *Historia de la Propiedad. Crédito y Garantía. V Encuentro interdisciplinar, Salamanca, 31 de mayo-2 de junio de 2006*, Madrid: Erregistratzaileen Elkargoko Azterlanen Zerbitzua, 2007, 15.-79. or.

¹³⁸ Lizarra, 1, 8 = Donostia, 2, 6.

¹³⁹ Lizarra, 2, 12.2 = Donostia 3, 6.2.

¹⁴⁰ Lizarra, 2, 11.6. Donostia, 3, 9.6.

¹⁴¹ Lizarra, 2, 9.1-9.4; 2, 10; 2, 13.1-13.2; 2, 20.1-20.3; 2, 22.1-22.35; 2, 23.1-23.4; 2, 28; 2, 48.1-2, 48.4.

¹⁴² Donostia, 1, 8; 4, 3.1-3.10.

XI. EZKONTZA, ALARGUNTZA ETA BIGARREN EZKONTZA

Lizarrako eta Donostiako testuek, Erdi Aroko udal-foruetan ohikoa zenez, ez zuten arautu ezkontzaren instituzioa, arlo kanonikoari zegokiolako. Onestasanaren aurkako delituetan aurkitu ditugu ezkontzari buruzko aipamenak. Ildo horretan, bortxaketari buruzko manuak nabarmentzen dira; haietan adierazten denez, bortxatzaileak hiru aukera zituen: bortxatutako emakumearekin ezkontzea, hari senarra bilatzea edo ordain ekonomikoa ematea. Zehazki, aztertzen ari garen bi foruetan zehaztasun handiz azaltzen da bortxaketa baten ondoriozko ezkontzaren kasuistika¹⁴³. Ezkontza delitua ordaintzeko modutzat jotzen zen; hala, ezarrita zegoen biztanle batek emakume bat bortxatzen bazuen, ordaina eman behar ziola edo, bestela, harekin ezkondu behar zuela¹⁴⁴. Kasuistika hori ez zen orokorra, bereizketak egiten baitziren gizarte-mailaren arabera: sexu-erasoa izan zuen emakumea bortxatzailea baino gizarte-maila apalagokoa bazen, hura behartuta zegoen emakumearentzako senar egokia bilatzera, alkateak eta hama-bi auzotar onek egindako irizpenaren arabera¹⁴⁵; bestela, beste bi aukera zituen: emakumearekin ezkondu edo bere gorputza emakumearen senideei eman¹⁴⁶.

Foruek ezkontzaren araubide ekonomikoa arautu zuten. Garai hartako tokiko beste testu arau-emaile batzuetan bezala, hauetan ere irabazpidezko ondasunen erregimena jaso zen; hain zuzen ere, erregimen horrek ezkontzan lortutako ondasun eta etekin guztiak biltzen zituen, eta ezkontza amaitzean, bi alderdiek ezarritakoaren arabera banatzen ziren. Lizarrako eta Donostiako foruetan, erregimen hori modu berezian jasota zegoen: ezkontza desagitean, ondasun-er-kidegoa likidatzen zen¹⁴⁷.

Gure testuek beste ezaugarri bereizgarri bat zuten: alargunaren leialtasuneko usufruktua, zeinaren xedea familiaren batasuna eta alargunaren bizibidea bermatzea zen¹⁴⁸. Emakume alarguna hildako ezkontidearen ondasun guztien usufruktuduna zen. Ondasun horien transmititzaile zen arren, ezin zituen saldu; hala, aitarengandik ondorengoengana pasatzen ziren zuzenean, haiek adin nagu-

¹⁴³ JIMENO ARANGUREN, R., *Matrimonio y otras uniones afines en el Derecho histórico navarro (siglos VIII-XVIII)*, Madril: Dykinson, 2015, 184.-191. or.

¹⁴⁴ Lizarra, 1, 6.2 = Donostia, 2, 4.2.

¹⁴⁵ Lizarra, 1, 6.3 = Donostia, 2, 4.3.

¹⁴⁶ «Eta ez badio horrelako senar bat eman nahi, harekin ezkondu beharko du. Eta ez badu bi gauza horietako bat ere egin nahi, bere gorputza emakumearen senideen esku jarri beharko du, nahi dutena egin dezaten». Lizarra, 1, 6.4 = 2, 4.4. Vid. GARCÍA CANTERO, G., *El Derecho civil, op. cit.*, 392. or.; BEROIZ LAZCANO, M., *Crimen y castigo en Navarra bajo el reinado de los primeros Evreux (1328-1349)*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2005, 214. or.

¹⁴⁷ JIMENO ARANGUREN, R., *Matrimonio y otras uniones afines, op. cit.*, 316.-319. or.

¹⁴⁸ Lehenago ikusitakoa (*Ibidem*, 359.-390. or.) laburbilduko dugu hemen.

sira heltzen zirenean. Emakume alargunak, gainera, alargun izaten jarraitu behar zuen, bai eta seme-alabak zaindu eta egindako zorrak ordaindu ere. Emakume alargunek hainbat ahalmen eta eskubide juridiko zituzten, Lizarrako eta Donostiako foruetan zehaztu zirenez:

«Eta emazteak senarrari dohaintza egiten entzuten badio, eta han egonik ez badu ezer esaten, dohaintza egiteko baimenik eman ezean, ez du balioko. Eta emakumea bizi eta senarra hiltzen bada, seme-alabak izan arren, emakumea, alargun jarraitu nahi duen bitartean, ondasun eta etxalde guztien jabe izango da, ahalmen guztiekin»¹⁴⁹.

Ikus daitekeenez, Lizarrako foruko usufruktua –eta, beraz, baita Donostiako forukoa ere– emakume alargunari soilik zegokion. Baina senarra agertzen ez zen arren, praktikan, gizonezko alargunak ere usufruktudun izan ziren. Tibalt II.ak argitu zuen lege-hutsune hori 1269an, foruko arlo hori «Lizarrako gizon edo emakume» guztietara zabaldu zuenean¹⁵⁰.

Adierazi izan da bi lege-testu hauetan jasotako alarguntzari esker alarguntza unibertsala legezko instituzio moduan ezarri zela. Izan ere, aurreko foruetan ez bezala, jada ez da ezkontza-erkidego jarraitu soila; aldiz, usufrukturako benetak eskubidea da, bizirik dagoen ezkontidearen alde legez ezarria¹⁵¹. Zehazki, gure foruetan ezarri zen irabazpidezko ondasunak erditik banatuko zirela emaztearen eta oinordekoen artean, gizona hiltzeagatik elkarteira iraungi ondoren:

«Emakume bati senarra hiltzen bazaio, eta haren seme-alabak baditu, eta gero berriz ezkondu nahi bada, emakume horrek lehenengo senarrarekin irabazitako diru eta etxalde guztien erdiak eman beharko dizkie bere ondorengoei»¹⁵².

Banaketa horretatik kanpo geratzen ziren emakumeak ezkondu aurretik eskuratutako ondasunak, zeinak alargunak nahierara erabil zitzakeen. Zehazki, adierazten zenez, emakumeak ezkondu aurretik beste etxalde bat bazuen, ez zien horren zatirik eman beharko bere ondorengoei¹⁵³.

Ondasun higigarri eta higiezinak gaineko alarguntza unibertsal horrek salbuespen bat zuen haurordeen ondasunen usufruktuan, higieziinei soilik bai-

¹⁴⁹ Lizarra, 2, 11.11 = Donostia, 3, 9.11.

¹⁵⁰ Argit. OSÉS URRICELQUI, M., *Documentación medieval de Estella (siglos XII-XVI)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2005, 8. zk., 105.-106. or. Vid. GARCÍA-GRANERO, J., Fuero General de Navarra 4, 2, 3. El cónyuge viudo que tiene *fealdat* ¿puede enajenar en caso de necesidad?, *Anuario de Derecho Civil*, 27 (1974), 200. or.

¹⁵¹ LACRUZ BERDEJO, J. L., El régimen matrimonial de los fueros de Aragón, *Anuario de Derecho Aragonés*, 3 (1946), 131. or.; GARCÍA-GRANERO, J., Fuero General de Navarra 4, 2, 3, *op.cit.*, 200. or.

¹⁵² Lizarra, 2, 11.1 = Donostia, 3, 9.1.

¹⁵³ Lizarra, 2, 11.2 = Donostia, 3, 9.2.

tzegokion. Ondasun higigarrien banaketak bat etorri behar zuen foru honetan jasotako ondasun eta etekinen erkidegoaren ezkontza-erregimenarekin:

«Eta emakumeak haurrordeak baditu eta haiek ez bazuten beren amaren zatia banatu aitarekin, haurrorde horientzat izango dira aitak beste emazte bat hartu aurretik amak irabazitako ondasun higigarriak eta higiezinak; baina aitaren aldetik, emakumeak alargun izaten jarraitu nahi duen bitartean, ez dute ondasun higiezinik izango, ondasun higigarriak soilik banatuko dira»¹⁵⁴.

Alargunak ezin zituen ez saldu ez pignoratu haurrordeen aldetik usufuktuan zituen etxaldeak; alabaina, premia egonez gero –berariaz adierazten zen «goseagatik»–, bere ondorengoaren etxaldeak sal edo pignora zitzakeen¹⁵⁵. Halaber, usufuktudunak ondasunak besterentzeko eskumena zuen premia egonez gero, baina ez alargun izateagatik, bere ondorengo adingabeen gainean zuen guraso-ahalagatik baizik, manu honetatik ondoriozta daitekeenez:

«Ondorengo txiki bat balego eta gero adin nagusira helduko balitz, eta amari bere aitaren ondasun higiezinak eta higigarrien zatia eskatuko balio, bere aitaren ondare zenetik gelditzen denaren bere zatia egokituko zaio»¹⁵⁶.

Leialtasunaren usufuktua bigarren aldiz ezkontzean galtzen zen, eta gure foruek araudi berezia eskaini zioten gai horri¹⁵⁷. Berriz ezkondu nahi zuen ama alargunak bere ondorengoekin banatu behar zuen, erdi eta erdi, lehenengo senarrarekin irabazitako guztia, hala higigarria nola higiezinak, gorago ikusi dugun moduan¹⁵⁸. Emakumearen beraren ondasunak salbuetsita zeuden, honako hau esaten baitzen: «emazteak beste etxalderen bat bazuen ezkondu aurretik, ondaragatik edo beste edozein arrazoigatik, ez die horren zatirik eman beharko bere ondorengoei»¹⁵⁹.

Ez zegoen mugarik bi aldiz, hiru aldiz edo gehiagotan ezkontzeari zegokionez; hala, irabazpidezko zenbait sozietateren likidazioak egon zitezkeen, bata bestearen atzetik:

«Eta bi edo hiru senar izan baditu, eta guztiekin haurrak izan baditu, eta ondorengoez ez badiete beren zatia eskatu amari, eta berriz ezkondu ostean eskatu

¹⁵⁴ Lizarra, 2, 11.12 = Donostia, 3, 9.12.

¹⁵⁵ Lizarra, 2, 11.13 = Donostia, 3, 9.13.

¹⁵⁶ Lizarra, 2, 11.14. Donostia, 3, 9.14. *Vid.* MARTÍNEZ GIJÓN, J., Los sistemas de tutela y administración de los bienes de los menores en el Derecho local de Navarra, *Anuario de Historia del Derecho español*, 40 (1970), 235.-240. or.; GARCÍA-GRANERO, J., Fuero General de Navarra 4, 2, 3, *op.cit.*, 202. or.

¹⁵⁷ *Vid.* hauen gogoetak: GARCÍA CANTERO, G., El Derecho civil, *op. cit.*, 392.-393. or.; SALINAS QUIJADA, F., El Derecho civil, *op.cit.*, 367.-368. or. eta 371.-372. or.

¹⁵⁸ Lizarra, 2, 11.1 = Donostia, 3, 9.1.

¹⁵⁹ Lizarra, 2, 11.2 = Donostia, 3, 9.2.

badiote, emakumeak bakoitzaren aitarekin irabazitakoaren zatia emango die, eta ez besterik»¹⁶⁰.

Beste kasu bat ere jasotzen zen: amak ezkontza-sozietatea lehenengo ezkontzako ondorengoekin likidatzen bazuen, edozein dohaintza egin zezakeen bere zatiarekin, baita bigarren edo ondorengo senarrei ere:

«Eta ondorengoak adingabeak badira eta aitak, hiltzean, testamentu-betearazleak izendatu bazituen, azken horiek bermeak banatu eta eman ditzakete nahi badute, eta herentzia sal edo bahi dezakete, haurrek premia badute, eta balioa izango du. Eta testamentu-betearazleek ama behartu dezakete ondorengoan izenean, eta amak ezingo ditu testamentu-betearazleak behartu»¹⁶¹.

Bi aldiz ezkontutako emakumeak *inter vivos* dohaintzak ere egin zitzakeen bere ondasun propioekin, hala bigarren senarrari nola beste pertsona bati, baita lehenengo senarraren herentzia banatu aurretik ere, baina fidantza jarri behar zuen derrigorrez, foruek honako hau agintzen baitzuten: «amak, banatu nahiz ez banatu, bere senarraren edo beste gizon baten ondasunen dohaintza egin nahi balu, horren bermea ematen badu soilik izango du balioa dohaintza horrek»¹⁶². Gabriel García-Canteroren ustez, manu horrek agerian uzten du bigarren aldiz ezkontutako emakumeak lehenengo senarrarengandik jasotako ondasunak gordetzeko betebeharra zuela, ondasun horiek lehenengo ezkontzako ondorengoentzat izango zirela bermatzeko¹⁶³.

Berriz ezkontutako emakume alargunak, halaber, bere ondasunen testamentua egin zezakeen; izan ere, lehen aipatu dugun kapituluan honako hau azaltzen zen: «heriotza heltzen bada eta bere ondasunak ematen baditu, eta han fidatzailerik ez bada, testamentu-betearazleak soilik baizik, testamentu-betearazle horiek ez dute zin egin behar; aldiz, Jainkoari eta beren arimei hau esan behar diete: *guk dohaintza hori egiten ikusi eta entzun genuen*»¹⁶⁴.

Amak ezin zituen behartu aurreko ezkontzako ondorengoak banaketa egi-tera; aldiz, haiek ama behartu zezaketen, erregearen justiziaren agindu bidez¹⁶⁵.

Lizarrako eta Donostiako foruetan, halaber, jasota dago zer egoera juri-dikotan zegoen bi aldiz ezkontutako gizonaren alarguna, tartean gizonaren ondorengoak zeudenean. Zehazki, senarrak, emaztearen beraren baimenik gabe, emaztearen ondasunak dohaintzan ematen bazituen, ez zuen baliorik; aldiz, gi-

¹⁶⁰ Lizarra, 2, 11.3 = Donostia, 3, 9.3.

¹⁶¹ Lizarra, 2, 11.5 = Donostia, 3, 9.5.

¹⁶² Lizarra, 2, 11.6 = Donostia, 3, 9.6.

¹⁶³ GARCÍA CANTERO, G., *El Derecho civil, op. cit.*, 393. or.

¹⁶⁴ Lizarra, 2, 11.7 = Donostia, 3, 9.7.

¹⁶⁵ Lizarra, 2, 11.14 = Donostia, 3, 9.14.

zonaren beraren ondasunak baziren, balioa zuen¹⁶⁶. Emazteak, alargun zen bitartean, ezin zituen bere haurrordeen ondasunak saldu ez bahian eman, baina bai bere seme-alaben ondasunak, premia handia bazuen eta senideek edo auzotarrek hala berresten bazuten, lehenago aipatu dugun manuan ezarrita dagoen bezala¹⁶⁷. Bestalde, haur txiki bat balego eta gero adin nagusira helduko balitz, eta amari bere aitaren ondasun higiezinaren eta higigarrien zatia eskatuko balio, bere aitaren ondare zenetik gelditzen zenaren bere zatia egokituko zitzaion¹⁶⁸; izan ere, hauxe dio foruak:

«eta ondorengoak esaten badu: *nire aitaren ondasun gehiago dituzu*; eta amak erantzuten badu: *ez*, amak zin egin beharko dio ondorengoari. Eta testamentu-betearazleek ez badute banatu nahi eta aitona bere bilobei banatzen eta fidantzak ematen badizkie, eta seme-alabak baimenez jaso baditu, balioa eta sendotasuna izango du»¹⁶⁹.

Ondorengoak banaketa egitera joaten zirenean, beren kabuz banatu behar zuten, eta aitak eta amak etxalde guztien artetik aukeratuko zuten¹⁷⁰.

XII. FILIAZIOA

Lizarrako eta Donostiako foruetan ez zen asko arautu filiazioa, ume legitimoak aitortzeaz harago. Erdi Aroko tokiko beste foru batzuetan egiten bazen ere, hemen ez dira aipatzen maitale edo ohelagunen seme-alabak, baina pentsa daiteke ohikoak zirela, emakume ezkongabeekin izandako adostasunezko sexu-harremanak ez ziren legez kontrakoak, edo ez ziren isuntzen, behinik behin¹⁷¹.

Gurasoen legezko gaitasuna haurrak adin nagusira iritsi arte heltzen zen, lehen aipatutako manutik ondorioztatzen denez: haur txiki bat balego eta gero adin nagusira helduko balitz, eta amari bere aitaren ondasun higiezinaren eta higigarrien zatia eskatuko balio, bere aitaren ondare zenetik gelditzen denaren bere zatia egokituko zitzaion¹⁷².

Senideak aitortzeko, odolkidetasunezko senidetasun legitimoa hartzen zen kontuan, eta behin bakarrik aipatzen da foruetan lehen mailako kidetasunezko senidetasun legitimoa¹⁷³.

¹⁶⁶ Lizarra, 2, 11.10 = Donostia, 3, 9.10.

¹⁶⁷ Lizarra, 2, 11.13 = Donostia, 3, 9.13.

¹⁶⁸ Lizarra, 2, 11.14 = Donostia, 3, 9.14.

¹⁶⁹ Lizarra, 2, 11.15 = Donostia, 3, 9.15.

¹⁷⁰ Lizarra, 2, 11.16 = Donostia, 3, 9.16.

¹⁷¹ Lizarra, 1, 6.1 = Donostia 2, 4.1.

¹⁷² Lizarra, 2, 11.14 = Donostia, 3, 9.14.

¹⁷³ Lizarra, 2, 11.12 = Donostia, 3, 9.12.

XIII. DOHAINZAK ETA ONDORENGOTZAK

Lizarrako eta Donostiako foruetan, dohaintzei buruz agertzen diren xedapen bakarrak bigarren ezkontzei buruzkoak dira, eta gainerako ezkontzetara heda daitezke¹⁷⁴. Gainera, beste kasu berezi bat jasotzen da: gizon batek aitona -amonen etxeak dohaintzan eman nahi zituen, baina etxe bakarra zuen; ezin zuen dohaintzan eman, baina bere arimagatik eman ziezaiokeen Elizari¹⁷⁵. Beraz, *mortis causa* dohaintza edo legatua da, baina ezin da hertsiki herentziatzat hartu.

Bi foruek hala testamentu bidezko oinordetza nola testamenturik gabekoa jasotzen dituzte¹⁷⁶. Emandako testamentu mota arruntak agertzen dira, testamentu-betearazleak izendatuta. Haiek kausatzailearen azken nahia betearazten zuten, hala hildakoaren dohaintzak nola borondatezko xedapenak zirenean. Lizarrako eta Donostiako foruetan, testamentu-betearazleen zereginak aipatzen dira, gizon baten heriotzaz hitz egitean: haur txikiak utzi zituen eta, hil aurretik, testamentu-betearazleak izendatu zituen. Kasu horietan, testamentu-betearazleek bermeak banatu eta eman zitzaizketen, nahi izanez gero, bai eta herentzia saldu eta bahitu ere, haurren premiak betetzeko. Halaber, testamentu-betearazleek ama behartu zezaizketen haurren izenean, eta amak ezingo zituen testamentu-betearazleak behartu¹⁷⁷.

Testamentu-betearazle horiek heriotza gertatu ondoren zuten jokabidea manu batean jaso zen:

«heriotza heltzen bada eta bere ondasunak ematen baditu, eta han fidatzailerik ez bada, testamentu-betearazleak soilik baizik, testamentu-betearazle horiek ez dute zin egin behar; aldiriz, Jainkoari eta beren arimek hau esan behar diete: *guk dohaintza hori egiten ikusi eta entzun genuen*»¹⁷⁸.

Kasu horretan, borondatezko ondorengotza modu bat da (dohaintza edo *donatium* delakoa), testamentuen arloko nolabaiteko manu bat, ondasunen etorkizuna ahoz zehazten duena testamentu-betearazleen aurrean.

Testamenturik gabeko oinordetzari dagokionez, zenbait legezko neurri ezarri ziren ondorengoei mesede egiteko, ama alarguna berriz ezkontzen bazen ere:

«nor bait hilko balitz, eta hiltzean testamenturik ez balego, eta haur txikiak utzi baditu, eta ama berriz ezkontzen bada, haurren senideek haurrei dagokien aitarren zatia banatu eta onar dezakete, bai eta bermeak hartu ere»¹⁷⁹.

¹⁷⁴ Lizarra, 2, 11; 2, 12 = Donostia, 3, 9; 3, 6.

¹⁷⁵ Lizarra, 2, 12.6 = Donostia, 3, 6.6.

¹⁷⁶ GARCÍA-GRANERO, J., *Fuero General de Navarra* 4, 2, 3, *op.cit.*, 394.-396. or.

¹⁷⁷ Lizarra, 2, 11.5 = Donostia, 3, 9.5.

¹⁷⁸ Lizarra, 2, 11.7 = Donostia, 3, 9.7.

¹⁷⁹ Lizarra 2, 12.1 = Donostia 3, 6.1.

Testamentu mota bereziak ere bazeuden; esaterako, heriotza-arriskua zela medio, testamentua parrokoaren aurrean egitea edo, halakorik izan ezean, legezko gaitasuna zuen gizon baten edo bi emakumeren aurrean egitea¹⁸⁰. Era berean, norbait toki bakarti batean hiltzen bazen, gizon edo emakume baten aurrean, haien testigantzak testamentu-betearazleen testigantza bera izango zuen¹⁸¹.

Bi udal-foruak zehaztasunez aritu ziren familia-ondorengotza berruzko herentziaren deia buruz¹⁸².

Bestalde, bi aldiz ezkontzea muga bat zen *mortis causa* oinordetza izateko askatasunean eta kasu horietan herentzia banatzeko moduan, bigarren ezkontzak aztertu ditugunean ikusi dugunez.

Aipatu behar da tronkalekotasuna agertzen dela bi foruetan. Horrek hildakoaren ondorengoak oinordetutako ondasun higigarri eta higiezin guztiak biltzen zituen:

«Eta amak bere ondorengoak aitaren ondasun higigarrien eta higiezinen bidez atxiki nahi baditu, fidantza onak eman beharko dizkie ondorengo senideei, haiek nerabezarora hiltzen direnean higigarri eta higiezin horiek emango dizkiela bermatzeko»¹⁸³.

Arreta bereziz arautu zen alderantzikatzeko tronkala: haurrak 12 urte bete aurretik hiltzen baziren, herentzia eta ondasun higiezinak eta higigarriak ez ziren amarentzat izango, baizik eta familia-enborrera itzuliko ziren¹⁸⁴. Beraz, ondasun tronkalak enborrean mantendu behar ziren ondorengotza bidez, eta bilobek ere ezin zizkieten arrotzei ondasun horiek dohaintzan eman:

«Aitona-amonen herentzia ezin da dohaintzan eman, salbu eta mahasti bat, lursail bat edo etxe bat (bi edo hiru etxe izanez gero), edo etxalde bat, eta hori seme edo alaba bati. Baina herentzia horretatik semei edo alabei eman diezaieke, haiek ezkontzen direnean»¹⁸⁵.

¹⁸⁰ Lizarra, 2, 11.8 = Donostia, 3, 9.8.

¹⁸¹ Lizarra, 2, 11.9 = Donostia, 3, 9.9.

¹⁸² Lizarra, 2, 11.5 = Donostia, 3, 9.5; Lizarra, 2, 12.3 = Donostia, 3, 6.3; Lizarra, 2, 12.5 = Donostia, 3, 6.5; Lizarra, 2, 12.5 = Donostia, 3, 6.5.

¹⁸³ Lizarra, 2, 12.2 = Donostia, 3, 6.2. Manuak ama soilik aipatzen du, baina pentsa daiteke aitari ere aplikatuko zitzaioela.

¹⁸⁴ Lizarra, 2, 12.3-12.4 = Donostia, 3, 6.3-6.4.

¹⁸⁵ Lizarra, 2, 12.5 = Donostia, 3, 6.5.

XIV. BAKEAREN BERMEA ETA PERTSONEN ETA ONDASUNEN BABES PENALA

Lizarrako eta Donostiako foruen zuzenbide penalean argi ageri da eraldatzen ari zen zuzenbide bat zela; hain zuzen ere, askotariko egoerei buruz zenbait garaitan egindako arauen multzoa jaso zuen, eta horietan arau penal pribatuak eta erreal eta publikoak nahasten dira. Ordaliak bereizgarri zituen zuzenbide penal pribatuarekin batera –goian aztertu ditugu ordaliak–, beste zuzenbide penal bat nabarmendu zen, bakea bermatu eta mendekuan oinarritutako ekintza pribatuak gainditu nahi zituena. Bake edo gizarte-ordena hori haustea delitua zen, eta zegokion zigorra zeukan. Ildo horretan, Paz Alonsok bakearen bi alderdi bereizgarriak zedarritu zituen Lizarrako eta Donostiako foruetan, hiriko bakeari eta etxeko bakeari egindako berariazko aipamenetan: batetik, ezarritako ordena mendeku bidez hausteko debekua eta, bestetik, hauste horren ondorioa, hots, delitua egin zuena bakearen babesaren zirkuluan zeuden guztien mendekuaren esku uztea¹⁸⁶. Hiriko bakearen garrantzia manu batean ikusten da: hiribilduan sartzen ziren kanpoko gizonak ez zuten beste inor jo behar edo haren aurka armarik erabili behar, haien artean edozein etsaitasun edo zor egonda ere; eta, hala eginez gero, hiribilduko gizonak zigortu edo hiltzen bazituzten, ez zuten horregatik zigorrik edo isunik jasoko¹⁸⁷. Etxeko bakea haustek ez zuen hain ondorio larririk¹⁸⁸.

Luzeegia litzateke zehatz-mehatz aztertzea Lizarrako eta Donostiako foruek pertsonen eta ondasunen buruz egiten duten babes penala¹⁸⁹. Zigortu ziren delituak aipatuko ditugu, besterik gabe: lapurretak eta ebasketak, giza hilketak, pertsona baten edo haren ondasunen aurkako erasoak, sexu-delituak (adulterioa eta bortxaketa), merkataritzako faltsutzea edo iruzurra eta testigantza faltsua.

XV. ERLIJO-GUTXIENGOEI BURUZKO ZUZENBIDEA

Lizarrako lehenengo foruak (1076-1077 ingurukoa) ez zuen musulmanen buruzko manurik jasotzen; aldiz, 1164ko bertsioan, berreskuratutako lurretatik ekarritako mairu gatibuei buruzko araudia jaso zen, agian Jakako jurispruden-

¹⁸⁶ ALONSO, P., El proceso penal, *op. cit.*, 399. or.

¹⁸⁷ Lizarra 1, 14= Donostia, 2, 11.

¹⁸⁸ Lizarra 2, 7.1-7.4 = Donostia 3, 5.1-5.4

¹⁸⁹ Cf: SEGURA URRRA, F., *Fazer justicia. Fuero poder público y delito en Navarra (siglos XIII-XIV)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2005; BEROIZ LAZCANO, M., *Crimen y castigo, op. cit.*; MONREAL ZIA, G. eta JIMENO ARANGUREN, R., *Textos histórico-jurídicos navarros. I, op. cit.*, 740.-743. or.

tziaren eraginez. Foruan soilik azaltzen zen mairuak abere handien eskubide berberak zituela¹⁹⁰, alegia, mairuak esklaboaren estatus juridikoa zuela eta jabea zuela. Era berean, testuan adierazten zen auzotar baten gatibu zen mairuak edo animaliak gizon bat zaurituko balu, eta jabeak ukatuko balu, bi lekuko kristau beharko zirela frogatzeko¹⁹¹. Ezin bazuen frogatu, mairuaren edo animalia-aren jabeak zin egin beharko zuen ez zuela minik egin; eta ez bazuen zin egin nahi, mairua edo animalia eman beharko zuen¹⁹².

Donostiako foruan ez zen jaso mairu gatibuei buruzko manurik, ez eta juduei buruzkorik ere, eta hori oso adierazgarria da; izan ere, litekeena da horrek nolabaiteko eragina izatea Donostian kokaleku judurik ez egoteko kontuarekin. Are gehiago, forua idaztean, Lizarrako testuko manuetan juduei buruz egiten ziren aipamenak kendu egin ziren Donostiakora pasatzean. Hala, adibidez, Lizarran hau esaten zen: «inor ezin da libratu hiribilduko frankoekin edo juduekin dituen zorretatik»¹⁹³; aldiz, Donostian honetara murriztu zen: «inor ezin da libratu Donostiako frankoekin dituen zorretatik»¹⁹⁴.

Lizarrako testuaren 1164ko bertsioan, berezitasun bat jaso zen: juduek «beren ekialdeagatik» zin egiten zutela, agian musulmanekin parekatuta, haiek Mekara begira zin egiten baitzuten¹⁹⁵:

«Eta juduek eta herritarrek beren eskuaz zin egingo dute 12 dirutik gorako zorragatik. Eta nafarrak bere aitakidearen buruagatik zin egingo du; eta juduak bere ekialdeagatik, 12 dirutik behera denean; eta frankoak, 12 dirutik behera denean, bere aitakidearen edo aitabitxiaren buruagatik zin egingo du gizon guztien aurrean»¹⁹⁶.

Baina, zalantzarik gabe, juduen zorrei buruzko arauetan jarri zuen arreta gehien foruak; izan ere, zortzi manu zeuden horri buruz. Aipatu dugunez, Antso V.a Ramiritzen jatorrizko foruak hau adierazi zuen: «Inor ezin da libratu Lizarrako frankoekin edo juduekin dituen zorretatik»¹⁹⁷. Bereziki interesgarria da *Kristauari eta juduari buruz* izenburua, zeinetan juduek kristauekin egindako zorrei buruzko bost kasu jaso ziren¹⁹⁸:

¹⁹⁰ Lizarra, 2, 22.26.

¹⁹¹ Lizarra, 2, 52.1.

¹⁹² Lizarra, 2, 52.2.

¹⁹³ Lizarra 1, 12.

¹⁹⁴ Donostia, 2, 10.

¹⁹⁵ MONREAL ZIA, G. eta JIMENO ARANGUREN, R., *Textos histórico-jurídicos navarros. I, op. cit.*, 967. or.

¹⁹⁶ Lizarra, 2, 19.9.

¹⁹⁷ Lizarra 1, 12.

¹⁹⁸ Lizarra, 2, 55.1-55.5.

«Judu batek kristau bati zerbait zor badio, eta ukatzen saiatzen bada, lekukoen bidez frogatu beharko du; franko bati zor badio, franko baten eta judu baten bidez frogatuko du; kanpotarra bada, kanpotar baten eta judu baten bidez; eta juduak kristauari zor badio, prozedura bera erabiliz.

Eta kristauak agiria badauka, juduak ezingo du ukatu, errabinoaren agiriek lekukoek bezainbeste balio baitute juduen aurka. Baina juduak lekuko bidez frogatu beharko du agiria duenari ordaindu ziola, eta eskatzaileak ezin badu frogatu, zin egin beharko du ez ziola ordaindu, eta orduan ordainduko zaio.

Eta judua hiltzen bada, haren ondorengoek bete beharko dute aitaren betekizuna, lehen idatzitakoaren arabera, kristauak agiririk badu.

Eta kristaua hiltzen bada, eta haren ondorengoek zorra eskatzen badute eta agiria badute, orduan juduak haien aitari ordaindu ziola frogatu beharko du. Eta ezin badu lekuko bidez frogatu, agiria duen ondorengoak zin egingo du bere aitari ez ziotela ordaindu, eta juduak ordaindu egingo du.

Eta kristau batek judu baten kontra auziren bat badu, dirua, kolpeak edo beste arrazoiren bat dela medio, agiririk edo lekukorik izan ezean, juduak zin egingo du frogatzeko, eta aske geratuko da; era berean, kristauak juduaren aurka frogatzeko zin egingo du, lekukorik ez badu».

Raquel García Arancónen ustez, Lizarrako epaileek foruan garrantzi handia eman zioten nahiko ezohikoa zela dirudien egoera horri; aldiz, ohikoagoa zen kasu bat, hots, judu hartzekodunarena, modu orokorrean jaso zen, infantzoiaren, frankoen eta hiritarren zorren zinaz aritzean¹⁹⁹:

«Baina infantzoiak eta frankoek, herritar batekin edo judu batekin zorra dute-nean, hamabost urteko edo gehiagoko gizon bat aurkeztuko dute zin egin dezan, 10 sueldo baino gutxiago denean²⁰⁰.

Eta juduek eta hiritarrek beren eskuaz zin egingo dute 12 dirutik gorako zorra denean. Eta nafarrak bere aitakidearen buruagatik zin egingo du; eta juduak bere ekialdeagatik, 12 dirutik behera denean; eta frankoak, 12 dirutik behera denean, bere aitakidearen edo aitabitxiaren buruagatik zin egingo du gizon guztien aurrean»²⁰¹.

XVI. LABURPEN MODUAN

Lizarrako lehenengo foruarekin (1076-1077 ingurukoa), eraikuntza berriko hirigunea ezarri nahi izan zuten, aurretiko Lizarrara herrixka osatzeko, eta biztanle berriei estatus juridiko desberdina eman nahi zieten; hala, zerbitzuz

¹⁹⁹ GARCÍA ARANCÓN, M. R., Marco jurídico y proyección social de las minorías navarras: judíos y mudéjares (siglos XII-XV), *Iura Vasconiae. Revista de Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia*, 4 (2007), 488.-489. or.

²⁰⁰ Lizarra, 2, 19.8.

²⁰¹ Lizarra, 2, 19.9.

hornitutako hiri-ehuna sortu zen gero, non gero eta jende gehiago biltzen zen, Donejakue bidea zela eta. Ez daukagu Lizarrako lehenengo foruaren jatorrizko dokumentua; baina 1164ko foru luzearen bertsioren hasieran kopiatuta ageri da testua. Testu horrek 14 kapitulu eta 23 manu ditu, eta frankoen estatutu juridikoa zehazten duten pribilegioetako batzuk ezartzen ditu: ondasunen askatasuna eta horiek eskuratzeko urtebete eta egun bateko agindua; espexera ez joateko fidantza; norbere hiriko jurisdikzioa eskatzeko eskubidea; merioa zigorren ko-brantzatik kanpo egotea; zigorra pisuak eta neurriak faltsutzeagatik, etab. Jakako tradizioan aurkitzen ditugun kapitulu berak dira, eta Lizarrako testutik Donostiako forura pasatu ziren, aldaketa txiki batzuekin.

Sortu eta mende batera, Lizarra zenbait auzoz osatuta zegoen: Lizarra, San Pedro, San Nikolas, Hilobi Santua eta San Joan. Baina berritasun handi bat zegoen: hala frankoak nola nafarrak bizi zitezkeen, lehenengo auzuneetan izan ezik. XII. mendeko bigarren erdialdean, Lizarra oso oparoa zen, eta lege-testu berri bat behar zuen. Hala, foruaren bertsiio luzea sortu zen, latinez idatzia eta Antso Jakitunak aldarrikatua, 1164an. José María Lacarrak adierazi zuenez, testu hori Jakako zuzenbidearen garapenaren bertsiio goiztiarra da, gaur egun kontserbatzen diren Aragoiko eta Iruñeko bertsiioak XIII. eta XIV. mendeetakoak baitira. Testu berri hori Jakako foruaren kontserbatzen ez den bertsioren batean oinarritu zen. Ordurako, Jakako familiaren teoria sortu eta finkatuta zegoen; hain zuzen ere, Lizarrako biztanleak Jakara joaten ziren argibideak eskatzera XII. mendean.

Foruan xedatutakoak Lizarrako bizitza itxuratzen zuen juridikoki. Alarguntasun- eta ondorengotza-eskubideei buruz agertzen diren manuak 1247ko Huescako Konpilazioan ere agertu ziren gerora, batzuetan literalki, edo Jakako foruaren idazketa luzatuta; horrek agerian jartzen du Lizarrak Jakako hasierako zuzenbideari jarraitu ziola. Hala ere, Lizarrako legelariak berezko manu esklusiboak sortu zituzten; esaterako, osteguneko merkatuari buruzkoak edo frankoen eta nafarren arteko bizikidetzaren ingurukoak. Gainera, hiribildu frankoaren ia mende bateko historian metatuz joan zen jurisprudentzia (arlo penalekoa, zibilekoa, fiskalekoa eta udal-arlokoa) jaso zen testu berrian.

Foruaren zati bat, 1164an idatzitakoa, jatorrizko forua baino askoz luzeagoa da, 70 kapitulu eta 245 manu baititu. Lehenengo 24 kapituluetan manu penalak jorratzen dira. Hainbat delitu eta haiei dagozkien zigorrak agertzen dira, nagusiki diruzkoak, eta horiek frogatzeko xedapenak ere jasotzen dira batzuetan. Sistematizatze ahalegina inon baino nabarmenagoa da zuzenbide zibilari buruzko hurrengo kapituluetan. Bahia, mailegua eta alokairua jorratzen dira, besteak beste; alabaina, ongien sistematizatutako edukia ondorengotzari buruzkoa da, zehaztasun handiz finkatzen baitira zenbait gai: irabazpidezko ondasunen banaketa, bereziki bigarren ezkontza dagoenean; testamentu motak, parrokoaren aurrekoa eta toki bakartian gertatutakoa barne; alargunaren usufruktuaren eta

bizirik dagoen ezkontidearen atzera eskuratzeko eskubideak; abintestatoa, etab. Gainera, auzotasunari buruzko eskubidea eta zuzenbide prozesalari buruzko zenbait kapitulu jasotzen dira, azken horiek zin-hitzetan, bahietan eta fidantzetan ardaztuta. Forua amaitzeko, ordenantza fiskal bat dago, *hostalaje* zeritzonagatik kobratutako eskubideei buruzkoa.

Lizarrako foru luzearen testuan sistematizatzeko ahalegina ikusten da, bereziki manu zibilen bi multzotan eta horien ondorengo manu penal batzuetan. Lehenengo multzoan, askotariko auzi zibilak biltzen dira: zorrak, salerosketak, lansariak, etab. Eta ezin da esan familia-zuzenbidea nagusitzen denik. Horren atzetik, kalteei buruzko manu penalak daude. Bigarren multzoan, salerosketei eta bahiei buruzko manu zibilak biltzen dira. Ondoren, hilketa-kasu batzuei buruzko manu penalak daude jasota. 2, 48 kapitulutik aurrera, gehiago nahasten dira auzi zibilak, penalak, prozesalak, fiskalak eta udal-arlokoak.

Bestalde, Donostiako foruan (Antso VI.a Jakitunak emana 1180an), agerian geratzen da mendekotasun juridiko handia zuela Lizarrako foruaren A idazketarekiko. Zenbait arlotako arauketa, bereziki merkataritza sustatzeko zenean, onuragarriagoa zen Donostiako biztanleentzat, Lizarrako testu nagusian aurkitzen duguna baino.

Bi foruen arteko alderik nabarmenenak merkataritza-zuzenbidean daude, hain zuzen ere. Kontuan hartu behar da Lizarrako forua sortzeko arrazoia Donejakue bidearen gune estrategiko batean merkataritzako hirigunea sortzea zela; aldiz, Donostian, Nafarroako erreinuarentzat itsas merkataritzako hirigunea sortu nahi zen. Zehazki, lehen zatiko 2., 3., 4. eta 5. kapituluetan, lezdaren salbuespena itsas merkataritzako ohitura eta usadioetara egokitzen da; badakigu Jakako biztanleak 1135etik zeudela lezda ordaintzetik salbuespena. Etxe biztanleduna zutenek soilik zuten salbuespen hori. Halaber, agerian geratzen da hiribildua sortzeko interes estrategikoa; hain zuzen ere, Iruñera zihoazen salgaiei heren bateko beherapena egiten zitzaizen lezdaren ordainketan²⁰². Donostiako foruaren laurdena merkataritzako kontuak arautzeko egin zuten bereziki; hala, ez dator bat Lizarrako foruarekin. Zati horretako manu batzuk, almirantearena, esaterako, Jakako foruaren Iruñeko bertsioaren batean oinarrituko ziren, agian.

XVII. BIBLIOGRAFIA

ALONSO, Paz, El proceso penal en el Fuero de San Sebastián. *El Fuero de San Sebastián y su época* lanean. *Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 397-405. or.

²⁰² Donostia, 1, 3.2 eta 1, 4.2.

- ARÍZAGA, Beatriz, Las villas guipuzcoanas que reciben el fuero de San Sebastián: modos de vida de sus habitantes. *El Fuero de San Sebastián y su época lanean. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 113-134. or.
- BANÚS Y AGUIRRE, José Luis, *El Fuero de San Sebastián*, Zarautz: Donostiako Udala, 1963.
- BARRERO GARCÍA, Ana María, La difusión del Fuero de Jaca en el Camino de Santiago. *El Fuero de Jaca, II, Estudios*, Zaragoza: El Justicia de Aragón, 2003, 113-160. or.
- BASABE MARTÍN, Alberto, Estudio lingüístico del fuero de San Sebastián en Congreso. *El Fuero de San Sebastián y su época lanean. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 27-68. or.
- BEROIZ LAZCANO, Marcelino, *Crimen y castigo en Navarra bajo el reinado de los primeros Evreux (1328-1349)*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2005.
- CAMPOS RUIZ, Julio, *El Fuero de Estella*, Lizarra: Lizarrako Udala, 2005.
- FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier, Fueros locales de Navarra, *Príncipe de Viana*, 68. bol., 242. zbk. (2007), 865-899. or.
- GARCÍA ARANCÓN, M^a Raquel, Marco jurídico y proyección social de las minorías navarras: judíos y mudéjares (siglos XII-XV), *Iura Vasconiae. Revista de Derecho Histórico y Autónomo de Vasconia*, 4 (2007), 459-516. or.
- GARCÍA CANTERO, Gabriel, El Derecho civil en el Fuero de San Sebastián. *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 379-396. or.
- GARCÍA-GRANERO, Javier, Fuero General de Navarra 4, 2, 3. El cónyuge viudo que tiene *fealdat* ¿puede enajenar en caso de necesidad?, *Anuario de Derecho Civil*, 27 (1974), 91-268. or.
- GARIBAY, Esteban de, *Los XL libros dél Compendio historial de las Chronicas y vniuersal Historia de todos los reynos de España / Compuestos por Estewan de Garibay y Çamálloa, de nación Cántabro, vezino de la villa de Mondragón, de la provincia de Guipúzcoa*, Anveres: Christophoro Plantino, 1571.
- HOLMER, Gustaf (ed.), *El fuero de Estella según el manuscrito 944 de la Biblioteca de Palacio de Madrid*, Colecc. Leges Hispanicae Medii Aevi, 10. Zbk., Goteborg; Stockholm; Uppsala: Karlshamn, 1963.
- IRUJO, Xabier, *Giving Birth to Cosmopolis. The Code of Laws of Estella (c. 1076)*, Santa Barbara: Californiako Unibertsitatea, Santa Barbara, 2011.

JIMENO ARANGUREN, Roldán, El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005), 45-83. or.

-Las figuras de garantía en los fueros medievales hispánicos occidentales. SALUSTIANO DE DIOS, Javier Infante, ROBLEDO, Ricardo eta TORIJANO, Eugenia (koor.), *Historia de la Propiedad. Crédito y Garantía. V Encuentro interdisciplinar, Salamanca, 31 de mayo-2 de junio de 2006*, Madrid: Servicio de Estudios del Colegio de Registradores, 2007, pp. 15-79.

-Servicio de armas en los fueros medievales de Vasconia: fonsado/hueste, cabalgada y apellido, *Iura Vasconiae*, 4 (2007), pp. 33-66.

-*Matrimonio y otras uniones afines en el Derecho histórico navarro (siglos VIII-XVIII)*, Madrid: Dykinson, 2015.

-*Los Fueros de Navarra*, Madrid: Estatuko Aldizkari Ofiziala Estatu Agentzia, 2016.

LACARRA DE MIGUEL, José María, Fuero de Estella, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 4 (1927), 404-451. or.

-Fuero de Estella. 1164. urtea, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 9 (1932), 386-392. or.

-Fuero de Estella en versión lemosina, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 9 (1932), 393-413. or.

-Notas para la formación de las familias de fueros de Navarra, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 10 (1933), 203-272. or.

LACARRA DE MIGUEL, José M^a eta MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Fueros derivados de Jaca I: Estella-San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1969.

LACRUZ BERDEJO, José Luis, El régimen matrimonial de los fueros de Aragón, *Anuario de Derecho Aragonés*, 3 (1946), 17-153. or.

LALINDE, Jesús, *Los Fueros de Aragón*, Zaragoza: Librería General, 1979.

MARTÍN DUQUE, Ángel J., El fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica. *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 3-25. or.

-La fundación del burgo navarro: Estella, *Príncipe de Viana*, 51. bol., 190. zbk. (1990), 317-328. or.; berred. *Príncipe de Viana*, 63. bol., 227. zbk. (2002), 761-772. or.

MARTÍNEZ GIJÓN, José, Los sistemas de tutela y administración de los bienes de los menores en el Derecho local de Navarra, *Anuario de Historia del Derecho español*, 40 (1970), 227-240. or.

- MONREAL ZIA, Gregorio eta JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Textos histórico-jurídicos navarros. I. Historia Antigua y Medieval*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2008.
- ORELLA, José Luis, El fuero de San Sebastián y su entorno histórico. GÓMEZ PIÑEIRO, Javier eta SÁEZ GARCÍA, Juan Antonio (ed.) *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián* lanean, Donostia: Ingeba, 1999, 60-78.or.
- Estudio jurídico comparativo de los fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño. *El Fuero de San Sebastián y su época. Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián* lanean, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 255-300. or.
- OSÉS URRICELQUI, Merche, *Documentación medieval de Estella (siglos XII-XVI)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2005.
- SALINAS QUIJADA, Francisco, El Derecho civil en el Fuero de San Sebastián (Y Fuero Nuevo). *El Fuero de San Sebastián y su época* lanean. *Actas del VIII centenario de la Fundación de San Sebastián*, San Sebastián: Sociedad de Estudios Vascos, 1982, 301-378. or.
- SEGURA URRA, Félix, *Fazer justicia. Fuero poder público y delito en Navarra (siglos XIII-XIV)*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2005.
- SOLA ALAYETO, Antonio eta ROS ZUASTI, Toño, *Estella, posta y mercado en la Ruta Jacobea*, Lizarra: Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1992.

Gutxiengo sozialak Lizarrako foruan

Xabier IRUJO

Nevadako Unibertsitatea

1076. urte inguruan, San Juan de la Peña monasterioko abadeak Lizarrako gaztelua dagoen harkaitzaren azpiko «burguan» kokatutako lursail bat aipatu zuen (*in burgo quod est subtus illo castro de Lizarrara*¹). Eskuizkribu horrek Lizarrako San Martin burgua 1076. urtean existitzen zela dokumentatzen du, eta 1077ko data duen bigarren titulu batek zera frogatzen du, Lope Arnal Lizarrako merio edo *lurraren jauna* zela jada (*Lop Arnal merino in Stela*)². San Martin burgu berri hori etorkizuneko Estella hiriko nukleo forudun zaharrena da, bertiere jatorrizko Lizarra giza kokagunearekin batera; ez dakigu giza kokagune horren kokapen zehatza zein izan zen, baina badirudi XI. mendea baino askoz lehenagotik bazela³.

San Martin burgua Erromesen Karrikaren alde banatan zabaltzen zen; karrika hori Ega ibaiaren paralelo zihuan, eta zabalera irregularra zuen: 3 metro tokirik estuenean eta zabalenean 5 metro. Guztira 182 metro luze zituen, bai kalearen erdian, bai barruko edo ezkerreko fatxadan, eta guztira 171 metro luze eskuineko fatxadan, ibaiaren aldean. Bloke zaharrenak ikusita, jatorrizko etxe edo atarien fatxadek gutxi gorabehera 4,5 metroko batez besteko zabalera izango zuten (badira 3 metrokoak, baita 5 metrokoak ere), eta batez beste 8-10 metroko sakonera. Gaur egun, kalean 54 atari daude, baina batzuk oso-oso zabalak dira, jatorrizko etxeak eraitsi eta bloke berriak egitearen ondorioz. Nolanahi ere, fatxadak 182 metro lineal zituen eta etxebizitza bakoitzak 4,5 metroko batez bestekoa; guztira, 40 atari ateratzen dira hegoaldeko fatxadan, eta 38 atari iparraldekoan, hau da, orotara 78 etxebizitza⁴.

Datu horiek bat datoz 1366ko eta 1427ko populazio-erregistroetan agertzen diren datuekin. 1366. urteko erroldan 68 su aipatzen dira izurri beltzaren

¹ MARTÍN DUQUE, Á. J., La formación del primer 'burgo' navarro. Estella, *Príncipe de Viana*, 51. lib., 190. zk. (1990) 317-328 or. berrarg. *Vianako printzea*, 63. lib., 227. zk. (2002), 765. or. Ikus, halaber, JIMENO, R., El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005), 45-83 or.

² DSR errege-diploma, I, 14. zk. (Ucar hiribiduaren dohaintza), SALARRULLANA, J. *Colección de documentos para el estudio de la historia de Aragón*, Zaragoza: M. Escar, 1907, 3. lib., 32. or.

³ Brontze Aroko aztarnak aurkitu dira gaur egungo Lizarra hiriaren mugen barruan. Ikus *Estudios de arqueología alavesa*, Arabako Foru Aldundia, Kultura Kontseilua, 1974, 6. lib., 59. or.

⁴ Guk geuk egindako neurketak.

ondoren, eta 1427. urtekoan, aldiz, 1380ko, 1401eko, 1411ko eta 1422ko izurrien ostean, 36 su edo etxe⁵.

Karrika hori erresuma guztia ipar-ekialdetik hego-mendebalderantz zeharkatzen zuen Donejakue bidearen zati bat zen eta, horri esker, merkataritza-jarduera eta ahalmen ekonomikoa bermatu ziren jatorrizko burguan. Izan ere, 1266. urteko Kontuen Erregistroko datuen arabera, sortu zenetik bi mendera, Lizarra Nafarroako erresumako gune ekonomiko eta demografiko garrantzitsu bihurtua zen eta 1.127 su edo familia inguru zituen⁶; horietatik 547 bat San Martin auzoan eta Errebalean kokatzen ziren (% 50), 126 San Pedro eta San Migel auzoetan (% 11,5), 304 San Joan auzoan (% 28) eta 113 juduen auzoan (% 10,5)⁷. Ehun urte geroago, eta izurriek XIV. mendean inpaktu demografiko negatiboa izan zuten arren, Lizarrak 17 karrika eta 829 su zituen, edo 4.000 biztanle inguru; horrek esan nahi du aurreko mendearekiko % 23ko jaitsiera izan zuela populazioan⁸. Dena den, Nafarroa osoko biztanleriaren % 5, gutxi gorabehera, osatzen zuen Lizarrak, eta bere merindadeko populazioaren % 15⁹. Nafarroako Koroak 1366. urtean egindako populazio-neurketa baten arabera, Lizarrako herrian 17 karrika edo auzo zeuden, eta horietako bakoitzean honako su hauek: San Martin, 68; Denden karrika, 57; Borc Nuel, 68; San Migel parroikia, 192; Broteria, 5; Valdreseria, 6; Arenal, 35; Asteria, 19; Merkatu Zaharra, 34; Lamborc andrearen auzoa, 8; San Pedro Lizarrakoa parroikia, 49; Kale Luzea, 57; Merkatu Berria, 63; Tecenderia, 27; Carpinteria, 15; Nabarrerria, 41; Arenal, 41¹⁰. Nafarroa osoan 1.900 su judu inguru zeuden XIII. mendetik XIV. mendera bitarte; alegia, erresumako populazioaren % 5,5, gutxi gorabehera, osatzen zuten¹¹. Lizarrako juduen auzoan 85 su zeuden 1366an, hau da, herriko su guztien

⁵ Atari bakoitzaren batez besteko zabalera 4 metrotik 5 metrora bitarte zela onartzen badugu, guztira, gutxienez 70 eta gehienez 87 etxebizitza aterako zaizkigu Erromesen Karrika osoan.

⁶ Martín Duquek aipatu eta Monteanok jaso zuenez, «su» kontzeptuak «familia» baino gehiago «etxea» esan nahi du, zentzu sozio-ekonomikoan ulertuta, baina kasu gehienetan pentsa daiteke etxe horietan familia bakarra bizi zela, familia hori nuklearra edo zabalagoa izan. Ikus MARTÍN DUQUE, Á. J., *Gran Enciclopedia de Navarra*, Iruñea: CAN, 1992, 5. lib., 176. or. Eta, MONTEANO, P., Navarra de 1366 a 1428: Población y poblamiento, *Príncipe de Viana*, 57. urtea, 208 (1996), 314. or.

⁷ GARCÍA ARANCÓN, M. R., La población de Navarra en la segunda mitad del siglo XIII, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 17. urtea, 46 (1985), 92. or.

⁸ Raquel García Arancónen ustez, Nafarroako populazioan % 39,2ko jaitsiera gertatu zen XIV. mendean. GARCÍA ARANCÓN, M. R., La población de Navarra en la segunda mitad del siglo XIII, *op. cit.*, 98-99 or.

⁹ *Ibid.*, 98. or.

¹⁰ CARRASCO, J., *La población de Navarra en el siglo XIV*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitatearen Argitalpenak, 1973, 85-129 or.

¹¹ Juan Carrascok 1250etik 1328ra bitarte 1.591 familia judu zeudela esan zuen. Hemen: CARRASCO, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, Iruñea:

% 10,8¹². Tuterako eta Iruñeko aljama edo juduen auzoekin batera, Lizarrakoa erresumako hiru aljama garrantzitsuenetako bat zen¹³.

Nafarroako eta Europako beste toki batzuetan bezala, Lizarrako populazioak behera egin zuen, berririo ere, 1366tik 1427ra bitarte, izurrien (1380, 1401, 1411, 1422. urteetan), hondamendi naturalen eta gerren ondorioz. Yanguas y Miranda autoreak dio 1422ko izurriak eragin oso handia izan zuela Lizarran: herriarrek nekez ordain zezaketen kuarteletako zerga¹⁴ eta 1427ko su-kontaktetan populazioa 11 kale eta burgutan banatzen zen, 1366. urtean baino sei gutxiago: San Nikolas, 44; Denden karrika, 36; Santa Maria Yus del Castillo, 31; San Miguel plaza, 51; Asteria, 29; San Migeleko Garlanda, 37; Kale Luzea, 45; Merkatu berriko Garlanda, 52; Tecenderia eta Carpinteria, 32; Nabarrerria, 28; San Pedro Lizarrakoa, 23. Garai hartan, 482 etxe zeuden itxita hirian eta, guztira, 418 su. 1366an baino nabarmen gutxiago¹⁵.

Hasiera-hasieratik, askotariko herria izan zen Lizarra: Europako hainbat tokitatik iritsitako jendea bizi zen bertan, hainbat hizkuntza hitz egiten zituzten, hainbat erlijio praktikatzen zituzten eta askotariko ohituretara ohituta zeuden; hori guztia foruan jasota dago. Izan ere, horixe da, hain zuzen, dokumentu juridiko hori egiteko arrazoia: antzinako Lizarra izeneko tokian sortutako hiri berria populatuko zuen giza talde heterogeneoaren komunitate-bizitza antolatzea. Besteak beste, García Gallo eta Lacarra autoreen esanetan, herrietako lehenengo foruek Pirinioetako ohiturazko zuzenbidetik hartu zuten lege-araudia; beraz, lege-arauen antologiatzat har daitezke¹⁶. Zentzu berean, Lizarrako foru zaharra –1054 eta 1076 urteen artekoa– idatzi zutenek herrialdeko ohiturazko zuzenbidetik hartu zituzten oinarrizko hainbat bizikidetzara, funtsean, merkataritza

Vianako Printzea Erakundea, 1993, 33. or. Ikus, halaber, CARRASCO, J., Las primeras migraciones judías en el reino de Navarra (1076-1328). MIRANDA GARCÍA, F. (koord.), *Movimientos migratorios y expulsiones en la diáspora occidental. Terceros encuentros judaicos de Tudela: 14-17 de julio de 1998*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Zuzendaritza, Iruñea, 2000, 37-38 or. Ikus, halaber, RODRIGUEZ OCHOA, J. M., *Menahem Ben Zerah, Rabino Estellés (1310-1385). Aproximación a una cultura que floreció en Sefarad*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2011, 137. or.

¹² CARRASCO, J., *La población de Navarra en el siglo XIV, op. cit.*, 150. or.

¹³ Carrascok juduen 513 su kontabilizatu zituen, guztira, Nafarroan, baina datuak osatu gabe daude, ez daudelako sartuta, esaterako, Iruñeko merindadeko erroldak. CARRASCO, J., *La población de Navarra en el siglo XIV, op. cit.*, 149-150 or.

¹⁴ YANGUAS Y MIRANDA, J., *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra*, Iruñea, 1840, 2. lib., 716. or.

¹⁵ ARRAIZA FRAUCA, J., Los fuegos de la merindad de Estella en 1427, *Príncipe de Viana*, 29. urtea, 110-111 zk. (1968), 123. or.

¹⁶ GARCÍA GALLO, A., Pirenaicos [706]. *Manual de historia del derecho español. El origen y la evolución del derecho*, Madril: egilearen argitalpena, 1984, 380. or.

-transakzioei eta hiriko biztanle izango zirenek izango zituzten salbuespen eta askatasunei buruzkoak, eta idatziz jaso zituzten¹⁷. Mende bat geroago, Nafarroako Antso VI.a Jakituna erregeak jatorrizko lege-dokumentua handitzea berretsi zuen, eta 1164. urteko foru luzea sortu zen; gaur egun hiriko artxiboan jasota dago agiri hori.

Foruaren alderdi premia-koenetako bat San Martin herrigune berriko –1076. urte inguruan sortu zen– bizilagunen oparotasuna sustatzea eta bakea bermatzea zen eta, horretarako, justizia-administrazioaren erregelamendu zehatza egin zen. Lizarrako foruan oinarritzko hiru printzipio biltzen dira justiziaren kudeaketa publikoari dagokionez:

- Justizia legearen arabera administratu behar zen, auzibidean aurrez aurreko bat eginez, eta ez zen onartzen indarkeria erabiltzea kontuak kitatzeko (atalak: 1, 4.1; 2, 30; 2, 54.1; 1, 7.1; 1,14 eta 2, 50.1¹⁸).
- Pertsona batek leporatzen zitzaizkion karguengatik soilik erantzun behar zuen epailearen aurrean (2, 18.2) eta, epaileak absoluzioa ematen bazion, pertsona horrek ez beste inork ez zuen kausa horrengatik inoiz gehiago erantzun beharko auzi-jartzailearen aurrean (2, 18.3 eta 2, 18.5).
- Ezin zen isunik jarri (ezta bestelako zigorrik ere) baldin eta alkateak (epaileak) akusatuari ez bazion alde zurretik jakinarazten zer urraketa egin zuen, eta akusatuak bere kausa auzitegian defendatzeko aukerarik izaten ez bazuen (2, 8 eta 2, 18). Agindu hori gaur egungo errugabetasun-presuntzioaren printzipio juridikoaren aurrekaria da.

Akusatuaren salbuespen eta askatasunei dagokienez, Lizarrako foruan honako hauek aurki ditzakegu: hiriko auzitegi batean legezko epaile batek hiriko legeen arabera epaitzeko eskubidea (1, 10.1; 1, 10.2; 2, 31 eta 2, 67); auzitegian entzuna izateko eta bere burua defendatzeko eskubidea (2, 26 eta 2, 18.3); bere aldeko frogak edo lekukotzak aurkezteko eskubidea, eta bere kontrako karguen frogak edo lekukotzak eskatzekoa (1, 4.1; 1, 4.2 eta 2, 37); epaileen erabakiei helegitea jartzeko eskubidea (2, 26.3) eta, epailearen alde zurretik agindurik gabe atxilotua ez izateko eskubidea, eta giltzapetua ez izatekoa, bermeak edo fidantzak entregatuta (1, 5).

¹⁷ IRUJO, X., Sobre la datación y naturaleza del fuero de Estella, *Terra stellae*, 7 (2016), 38-55 or.

¹⁸ XI. mendeko jatorrizko foruan eta 1164ko bertsio luzean atalak ez zeuden zenbakituta. José María Lacarrak eta Ángel J. Martín Duquek proposatuta jarri ziren zenbakiak, 1969. urtean egindako Lizarrako foruaren argitalpenean. Nik zenbakera horri jarraitu diot foruko arauen aipamenak egiteko. Ikus LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros derivados de Jaca. Vol. 1, Estella; San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea, 1969.

Ez zegoen auzitegi berezirik, eta lege-tratamendua berdina izaten zen beti klase soziala gorabehera, betiere ofizio publikoen immunitate-kasuak salbuespen izanik, hala nola erregearen merioa; merioari ezin zitzaion isunik jarri Lizarran, sei herritar zintzok erabakitzen ez bazuten (1, 9). Arau-hauste gehienak egindako faltaren arabera isunen bitartez zigortzen ziren; zigorrak «hiribilduko kontzejuaren erabaki bidez» ezartzen ziren, justiziaren izenean (2, 49.1). «Eta kontzejuaren borondatearen arabera jarritako isun oro bete behar dute [herritarrek]. Eta jarritako debeku guztiei nahi adina denboraz eutsi ahal izango zaie, eta nahi dutenean altxa ahal izango dituzte, forua halakoxea delako» (2, 49.2). Azkenik, espetxe-zigorra oso mugatua zegoen; foruaren arabera, inor ez zen giltzapetuko eta ez zitzaion gorputza edo ondasunik bahituko, zuzenbideko fidatzailea emanez gero (1, 5¹⁹) eta pertsona bat ez zen girgiluekin sartuko espetxean edo kartzelan; izan ere, «erregearen jauregian edo kanpamenduan girgilurik gabe egon behar zuen» (2, 22.3). Gerora, Tibalt II.ak berretsi zien xedapen hori 1253. urtean *a nostros amados burgueses de Esteilla*, gizonei nahiz emakumei: «juramos que non soframos que ningun ome, ninguna muller del Regno de Navarra, sea preso so cuerpo nin ninguna ren de las sus cosas, eill o eilla dando fiador de dreito por tanto como su fuero mandare²⁰». Giza hilketagatiko heriotza-zigorrik ez zen izan Lizarran 1310. urtera arte²¹. Orain arte esandakoa aintzat

¹⁹ Horrek esan nahi du ez zegoela prebentzioko espetxealdirik, edo oso mugatuta zegoela.

²⁰ PECES-BARBA, G., LLAMAS, Á., FERNÁNDEZ, C. R. (arg.), *Textos básicos de derechos humanos con estudios generales y especiales y comentarios a cada texto nacional e internacional*, Aranzadi argital., Elkano, 2001, 36. or.

²¹ Lizarrako Kontzejuak onartutako ordenantza batean honako hau agintzen zen: «quien mate, muera ahogado y que pague veinticinco libras de Sanchetes de multa; que quien hiera con arma, pague veinticinco libras de multa, ó si no pudiera pagar que sufra un año de prisión; y que los matadores que huyan, sean encartados ó extrañados perpetuamente, pagando la multa referida, así como los agresores fugitivos sean acotados hasta que cumplan la pena señalada; quedando á salvo el privilegio del Rey Don Teobaldo sobre los homicidios casuales y el fuero sobre confiscación de los bienes de los homicidas para el Rey (hiltzen duena, itota hil dadila eta hogeita bost Santxete liberako isuna ordain dezala; armaz inor zauritzen duenak hogeita bost liberako isuna ordain dezala, edo ordaindu ezin badu, urtebeteko espetxealdia izan dezala; eta ihes egiten duten hiltzaileak auzipetu eta betiko erbesteratuak izan daitezela, dagokien isuna ordainduta, eta ihes egiten duten erasotzaileak ezarritako zigorra bete arte mugatuta egon daitezela; On Tibalt erregearen ezusteko giza hilketei buruzko pribilegioa eta hiltzaileen ondasunak Erregearentzat konfiskatzeari buruzko forua bete daitezen)». Ordenantza hori bost urtez izan zen ordenantza Lizarrari zegokion Nafarroako gobernadore Engarrán de Villers-ek erabakita, «Lizarran, Mendekoste ondoko lehen astelehenean, 1310. urteko ekainaren zortzian». Miles, Noyers-eko jauna, eta Alfontso Robray-koa erregeen mandatariek beste bost urtez luzatu zuten 1314ko martxoan eta, gerora, beste bost urtetarako berri zuen Oliten Joffre Morentainakoak, Rosillongo jaunak, Nafarroako gobernadorearen ordezkariak, 1320. urteko Mendekoste aurreko lehen ostiralean. ZORRILLA, P. E., *Índice cronológico de los documentos y papeles antiguos existentes en el archivo municipal de la ciudad de Estella, pertenecientes á los siglos XII á XVIII, ambos inclusive, formado por el que suscribe, en el año de 1911*, Lizarra, 1911, 202. or.

hartuta, foruaren arabera indarkeria edo tortura mota oro debekatuta zegoela ondoriozta daiteke²².

Garrantzitsua da nabarmentzea arau horiek eta, oro har, foruan bildutako arau guztiak ez zirela pribilegioak, legeak baizik. Bestela esateko, lege-dokumentu horretan jasotako arau edo «foru onak» ez ziren lege-salbuespenak; aitzitik, legea ziren, indarrean egongo zen legea «salva y digna, libre y franca (osorik eta duina, askea eta zintzoa)», hiriko kontzejuak ordenantza moduan emandako beste xedapen batzuekin indargabetu edo ordeztu arte; hiriko kontzejua urtean behin hautatzen zen. Horrexegatik, foruan argi eta garbi bereizten ziren, alde batetik, «forukoak» ziren xedapenak, hau da, Lizarrako herritar guztiei hein berean eta derrigorrez aplikatzen zitzaizkien legezko arauak; eta, bestetik, «forukoak ez ziren» eginbideak, esate baterako hildako senide batengatik dolua egitea. Lizarraren kasuan, dolua egitea familiak erabakitzen zuen eta, beraz, ez zen ez lege, ez derrigorrezko (2, 7.4). Dena den, forua hautazkoa zen, hain zuzen ere, Lizarrako legeak kontra egiten ziolako puntu horretan herrialdeko ohitura eta azturei; izan ere, lurperatzeak nola eta zer ordutan egin behar ziren arautzen zuten ohitura haiek, dolua nola egin behar zen eta baita familiek hiletetan gehienez zenbat diru gastatu behar zuten ere²³.

Zentzu horretan, forua oso esplizitua da justizia-administrazioaren unibertsaltasunari dagokionez; izan ere, azkeneko atalaren arabera, justizia egin behar da forua betez eta ez foruaren kontura, eta berariaz debekatzen du inork akordioak egitea isunak edo bestelako zigorrak ordaindu behar ez izateko; bestela 60 sueldoko zigor zorrotza jarriko zitzaion. Izan ere, kasu horretan, Kontzejuaren diru-kutxa ez zen betetzen eta «ez zen justizia egiten» eta, testuak dioenez, «erregeak bere eskubidea galtzen du horrekin, hiriak bere forua, eta txiroak bere burubidea» (2, 70.1).

Justiziaren kudeaketa publikoaren testuinguru horretan txiro edo pobreen aipamena agertzea oso interesgarria da, eta Lizarrako foruaren xedapenen helburua –puntu horri dagokionez– zein den adierazten du, hau da, herritar guztiei justizia-administrazioa baldintza berdinetan bermatzea. Egia esan, XI. eta XII.

²² SATRUSTEGI, J. M., *Comportamiento sexual de los vascos*, Donostia: Txertoa, 1981, 67. or. Ikus, halaber, BEROIZ, M., *Crimen y castigo en Navarra bajo el reinado de los primeros Evreux (1328-1349)*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2005, 161. or.

²³ Ohiturazko arau horiek Nafarroako 1234ko foru orokorrean txertatu ziren gero, III. liburuki-ko XXI. tituluan (Lur ematei buruz), I. kap. *Fueros del Reyno de Navarra (Nafarroako erresumako foruak)*, Iruñea: Martin Gregorio de Zabalaren inprimategia, 1686, 91-92 or. Ikus, halaber, argitalpen berriagoan: *Fueros del Reyno de Navarra*, Iruñea: Longas, 1815, 120. or. Ikus, era berean, YANGUAS Y MIRANDA, J., *Diccionarios de los Fueros del Reino de Navarra*, Donostia: Ignacio Ramon Barojaren inprimategia, 1828, 29-30 or.

mendeetan babes handirik ez zuen gutxiengo sozial baten askatasun eta salbuespenak babesten dituen lege-araua izatea garrantzitsua da, baina horretaz gain, xedapen oso berezia ere badela esan behar dugu, Pirinioetako eta penintsulako zuzenbidean aurrekaririk ia ez duena.

1164. urtea baino lehenagoko tokiko edo herriko foruak ez dira asko. Luis Javier Fortún autoreak 83 foru eta pribilegio aipatu zituen, Nafarroan, 1234. urtea baino lehenagokoak²⁴. Ana Barrero eta Mari Luz Alonsoren *Catálogo de fueros y costums municipales* lanean hogeitasei bat foru erregistratu zituzten penintsulako hiribildu eta bailaretan, 1017-1076 aldian, eta 100 bat 1164. urtera arte²⁵. Zehazki, bi autore horiek lau foru katalogatu zituzten VII. mendean, zortzi X. mendean, hogeita bost XI. mendean (Zangozako, Lizarrakoa eta Jakakoa alde batera utzita) eta, berrogeita hamar 1164. urtera arte. Artikulu hau idazteko, 1164. urteko Lizarrako foruaren bertsio luzea baino lehenagoko 87 foru aztertu ditut –penintsulako foru orokorrak, udal-foruak eta hiri-gutunak–, gutxiengo sozialen edo egoera ahuleneko taldeen –txiro eta behartsuen kolektiboa, esaterako– interes, salbuespen eta askatasunak babesten dituzten aurrekariak eta paraleloak bilatzeko asmoz.

Zehaztasunetan sartu gabe, 1164ko forua baino lehen, txiroen kolektiboari buruzko aurrekariak oso urriak dira. Horietako bat Diego Gelmírez apezpikuak (ca. 1113) Santiago de Compostelako apezpikutzaren herrixkei emandako forua da, eta txiroei lagundu beharra erregistratzen du, jende ahaltsuaren aurkako kasuetan. *Episcopi ad protegendos pauperes* epigrafean, foruak zera xedatzen zuen, txiroen eta ahulen zapalkuntza «eten beharra zegoela, errukiz, beren onurez baliatzen jarraitu ahal izan zezaten, onura horietaz gabetu gabe»²⁶. *De causis pauperum* atalaren arabera, «ahaltzu batek txiro baten aurkako auzibideari ekiten badio (...), antzeko kalitateko pertsona batek argi eta garbi zehaztu behar du kausa zein den, kausa hori ez dadin isilpean geratu edozein baliabideren bitartez, [eta hori egingo da] txiroen justiziak aintza handiagoa izan dezan»²⁷. Zalantzarik gabe, atal hori egoera sozial ahulenean daudenak babestearen adibide polita da, betiere Zisterarren erreformaren testuinguruan, eta baliteke Lizarrako foruak jasotzen duenaren benetako aurrekari bakarra izatea.

²⁴ FORTÚN, L. J., Los 'fueros menores' y el señorío realengo en Navarra (siglos XI-XIV), *Príncipe de Viana*, 46. lib., 176. zk. (1985), 604. or.

²⁵ BARRERO, A. M^a eta ALONSO, M. L., *Textos de derecho local español en la Edad Media. Catálogo de fueros y costums municipales*, Madril: Consejo Superior de Investigaciones Científicas - Instituto de Ciencias Jurídicas, 1989.

²⁶ FLÓREZ, H., *España Sagrada: Theatro geographico-historico de la Iglesia de España. Historia Compostelana*, Madril: Antonio Marín Bulegoan, 1754, 176. or.

²⁷ *Ibíd.*, 179. or.

Ekonomikoki egoera ahulean zeuden pertsonen zuzenbidearen arabera zegoen interesak bermatzen diren beste kasu baten adibidea 1150. urteko Cozanzako Kontzilioaren zazpigarren titulua da; honako hau xedatzen du: «konde guztiek eta erregearen merio guztiek, duten herria erregeak zuzenbidearen arabera emana dutelarik, ez ditzatela eskubiderik gabeko txiroak estutu epaiketan, baizik eta ikusi eta entzun ditzatela, eta gezurrezko lekukotza frogatzen bada, ezar bezate gezurrezko lekukotasunen liburuan xedatzen den zigorra²⁸». Ez da udal-foru bat, baina hala ere, aurrekaria nabarmentzeko modukoa da.

Gerra judizialaren testuinguruan txiroen aipamena agertzea, beraz, ez da batere ohikoa penintsulako foruetan 1164. urtea baino lehen, hau da, Lizarrako foru berria aldarrikatu baino lehen. Hala edukiaren nola idazkeraren aldetik, txiroen eskubideen formulazio originala da, gerra judizialaren testuinguruan, bai eta justizia behar bezala administratzearen aldeko arrazoibidea ere, gobernu-sistema legitimo baten bizkarrezur den aldetik. Bitxikeria gisa, 1164. urtearen ondoren, Alfontso VIII.a Gaztelakoak (ca. 1202) emandako Madrilgo foruaren atarikoan zera jasotzen da, gutuna eman zela «aberatsak eta txiroak bakean eta osasunez bizi daitezen²⁹».

Lizarrako foruan, emakumeari buruzko atal ugari daude. Izan ere, errubrikan emakumearen figura aipatze hutsa berria da eta oso aurrekari gutxi ditu 1164an; kolektibo sozial hori foruaren subjektutzat jotzen da, eta ez legearen xedetzat soilik. Amaierako formularen esplizituki adierazten da forua erregeak emana dela «zuei, Lizarrako biztanle guztiei, adineko nahiz adingabe, etorkizuneko nahiz orainaldiko, eta zuen seme-alabei, bai zuen belaunaldikoei, bai zuen ondoko guztiei, eta Lizarran biziko diren zuen ondorengo guztiei». Emakumeari buruzko erregulazioen zerrenda luzea ikusita, errubrika hori ez da formula diplomatikoa huts-hutsik, baizik eta eduki juridikoz beteta dago. Antzeko formulak aurkitu ditugu 953ko azaroaren 29an egindako San Zadornin, Berbeja eta Barrioko foruen deklarazioan, nongo formularen gizonak eta emakumeak aipatzen

²⁸ Jatorrizko latinez: *Séptimo quoque titulo admonemus, ut omnes comites, seu majorini regales populum sibi subditum per justitiam regant, pauperes injuste non opriment, in iudicio testimonium, nisi illorum pnesentium, qui viderunt aut audierunt non accipiant. Quod si testes falsi convicti fuerint, illud suplicium accipiant, quod in libro iudicum de falsis testibus est constitutum.* MUÑOZ y ROMERO, T., *Colección de fueros municipales y cartas pueblas de los reinos de Castilla, León, Corona de Aragón y Navarra*, Madril: On Jose Maria Alonsoren inprimategia, 1847, 1. lib., 211. or. Hemen ere aipatzen da: BOLTON, B. eta STUART, S. M., *Women in Medieval Society*, Philadelphia: University of Pennsylvania Press, 1976, 93. or.

²⁹ Jatorrizko latinez: *Unde dives et pauperes vivant in pace et in salute.* MARICHALAR, A. eta MANRIQUE, C., *Historia de la legislación y recitaciones del derecho civil de España*, Madril: Imprenta Nacional, 1861, 2. lib., 446. or.

baitira (*varones et mulieres*³⁰). Era berean, Alfontso VI.ak (ca. 1076) berretsita-ko Naiarako foruan ere agertzen da, eta 1304ko bertsioan honako hau xedatzen du: «gutuna Naiarako bai emakumeei, bai gizonei zuzenduta dago» (*tam viris quam mulieribus*)³¹. Aipamen horiek alde batera utzita, 1164. urtea baino lehen emakumeen erreferentzia oso gutxi daude errubriketan.

Ius suffragiorum (suffragioa), ius honorum (inbestidura³²) eta gai militarrik eta ordena publikoari buruzkoak salbuetsita, ez baitzeuden bermatuta emakume ezkonduarentzat, emakumeek, Lizarran, hiriko herritarren eskubide zibilak baliatzen zituzten, hala nola ius connubii edo ezkontzeko eskubidea (2, 11.1 eta 2, 12.5³³), hau da, ezkontzea ala ezkongabe jarraitzea aukera zezaketen (2, 11.12). Emakume alarguna nahi adina aldiz ezkon zitekeen, edo alargun jarraitu (2, 11.1 eta 2, 11.3). Foruan ez da inoiz ere aipatzen *patria potestas*, eta emakumeari dagokionez, formula hitzez hitz da «senarra hartu nahi du» edo «senarra hartzen du», eta horrek argi adierazten du emakumearen erabakiak garrantzi handia duela (2, 11.1 eta 2, 11.1). Eremu prozesalean, Lizarrako emakumeak legezko epaile baten aurrean epaitu behar ziren, hiriko auzitegi batean eta hiriko legeen arabera, eta eskubide hauek ere bazituzten: epaileen erabakiei helegitea jartzeko eskubidea, habeas corpus, giltzapetua ez izateko eta ez gorputza, ez ondasunak bahituak ez izateko eskubidea, zuzenbideko fidatzailea emanez gero foruaren arabera (1, 5) eta, lege-borroka edo auzi mota orotan deklaratzeko edo lekuko izateko eskubidea, nork bere izenean *ad litem* bat behar izan gabe (1, 6.5 eta 2, 11.9³⁴). Foruan ez da generoan oinarritutako bereizketarik egiten legea urratzen

³⁰ Jatorrizko latinez: *Varones et mulieres, senices et iuvenes, maximos et minimos, totos una pariter qui sumus habitantes...* MORET, J., *Anales del Reino de Navarra*, Tolosa: Establecimiento Tipográfico y Casa Editorial de Eusebio López, 1891, 9. lib., 117. or.

³¹ Jatorrizko latinez: *Vobis plebi nagarensi, tam viris, quam mulieribus, clericis, nec non et viduis, sive maioribus, atque minoribus.* MUÑOZ y ROMERO, T., *Colección de fueros municipales y cartas pueblas de los reinos de Castilla, León, Corona de Aragón y Navarra, op. cit.*, 287. or.

³² Ius suffragiorum eta ius honorum zuzenbideei jarraikiz, Lizarran legezko herritar zirenek soilik zuten bozkatzeko eta hautatuak izateko eskubidea, baita eginkizun publikoak betetzekoa ere. Foruan ez da zehazten emakumeek mugarik ote zuten ius suffragiorum eta ius honorum eskubideak baliatzean, hiriko magistraturei zegokionez, baina XI. mendetik XII. mendera bitarte ez da kasurik ezagutzen. Lege salikoa ez zen indarrean egon Nafarroako erresuman; 816. urtetik 1512. urtera bitarte bost erregina egon ziren (guztizkoaren % 14).

³³ Emakume nafarrak ez zituzten askatasun horretaz gabetu legez, baina 1556. urtean Lizarran bildutako Gorteetan lege bat onartu zen eta, lege horren bitartez, gurasoei baimena ematen zitzaaien alabak oinordetzarik eta ezkonsaririk gabe uzteko baldin eta ezkutuan ezkontzen baziren. FERNÁNDEZ, Silvia eta RODA, Paco (arg.), *Ellas, las mujeres en la historia de Pamplona*, Iruñea: Emakumearen Zinegotzigoa, 1998, 104. or.

³⁴ Nafarroako Foru Orokorren 2. liburuaren 6. tituluko 12. kapituluaren arabera, emakumeen lekukotza onartu daiteke ezkontzari, simoniari eta konpaitasunari buruzko frogetan. Dena den, 2. liburuko 7. tituluko 1. kapitulan xedatzen denez, «Foru bidez ezartzen dugu haurdun dagoen ezein emakumek

дутен herritarrei leporatuko litzaizkiekeen karguei dagokienez, eta emakumeek gizonak bezalaxe erantzuten zuten alkateen aurrean, beren kabuz eta babesik gabe. Horrela, bada, esaterako, Tibalt II.ak 1266. urtean Lizarrako herritarrei zera eman zien, «bat izatea, alkate eta probestu bakarrarekin eta epaile batzuekin», eta horrekin giza hilketaren zigorraz libratu zituen, «gizonak gizona, gizonak emakumea eta emakumeak gizona hiltzen duenean izan ezik³⁵». 1339ko inbentario batean jasota dagoenez, Lizarrako gazteluan gizon bat eta emakume bat zeuden preso³⁶.

Hiriko eta, oro har, erresumako emakumeek ius commercii edo legezko kontratuak egiteko eskubidean³⁷ parte hartzen zutela nabarmendu behar da, edo zorrak ordaintzeko eskubidean, betiere 12 urte baino gehiago izanez gero (2, 43.1), baita hiriko Kontzejuak erabakitakoak baino zerga gehiago ez ordaintzeko eskubidean ere (2, 15.1). Lizarrako emakumezko herritarrek hiriko mugen barruan eta kanpoan jabetzak izateko eskubidea zuten, betiere hiriko legeen arabera, bai higigarriak (*uxor domum habeat*), bai higiezinak; negozioak zuzendu eta bideratzeko eskubidea, dela produktore moduan, dela bitarteko moduan, eta bai alargun izanez gero, bai ezkongabe izanez gero, baita ezkondua izanez gero ere (2, 11.2 y 2, 14.4); eta jabetza horiek erosteko eta saltzeko eskubidea, maileguak eman edo hartzekoa³⁸. Lizarrako emakumeak libre ziren testamentua hiriko legeen arabera egiteko, baita edozein ondasun higigarri eta higiezin oinordetzan jasotzeko ere (2, 11)³⁹. Alabek eta semeek oinordetza-eskubide berdinak zituzten, generoaren arabera eta jaiotzaren ordenaren arabera inolako bereizke-

ez duela zin egingo epaileak epaitzen duen ezein prozesutan erditzetik hogeita hamar egun igaro arte, berdin mutila edo neska izaten badu, baina fidatzaile bat eman beharko du [zin egingo duela bermatuko duena] zin egiteko aipatutako epean».

³⁵ YANGUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra, Op. cit.* 318. or.

³⁶ *Ibid.*, 167. or.

³⁷ Erreferentzia asko aurkitu ditugu Lizarrako eta, oro har, Nafarroako emakumeen esku dauden negozioei buruz, eta «aztertutako hirietan (Tutera, Lizarra edo Urantzia) emakumearen merkataritza-jarduera nabarmentzat ere jo dezakegu». Ikus *Coloquio Mujeres de la Edad Media: escritura, visión, ciencia: Escritura, visión, ciencia. A novecientos años del nacimiento de Hildegard von Bingen*, Txileko Unibertsitatea. Filosofia eta Giza Zientzietako Fakultatea, Txileko Santiago, 1999, 63. or. Ikus, halaber, FERNÁNDEZ, S. eta RODA, P. (arg.), *Ellas, las mujeres en la historia de Pamplona*, Iruñea: Emakumearen Zinegotzigoa, 1998, 69-70 or.

³⁸ «Senarrek ez zituzten emazteen zorrak kitatu behar, ostalariak edo merkatariak ez baziren». Ikus, YANGUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra, op. cit.*, 266. or.

³⁹ Tamalez, XI. mendetik XIII. mendera bitarteko dokumentazioa oso urria da, baina hurrengo mendeetan horri buruzko dokumentazio ugari dago. Ikus, adibidez OSÉS URRICELQUI, M. (arg.), *Documentación medieval de Estella: siglos XII-XVI*, Iruñea: Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Turismo Departamentua - Vianako Printzea erakundea, 2005, 1. lib., 768-770 or.

tarik egin gabe (premutasunaren araubidea ez zegoen indarrean). Azkenik, ius migrationis edo auzotasun-eskubideak Lizarra hiriaren mugetatik kanpora ere gordetzeko eskubidea zuten.

XI. mendetik XIII. mendera bitarteko aldiari buruzko dokumentazioa eskasa den arren, Lizarrako emakumeen jarduera ekonomikoari buruzko azterlanen arabera, emakumeak oso aktiboak ziren garai hartako ekonomiaren sektore guztietan jarduera eta okupazio mota ugarian: nekazari eta abeltzain, tindatzaile eta irule, inbertitzaile eta mailegu-emaille, besteak beste. Adibidez, XIV. mendeko emakume judu alargun eta ezkonduen lanbideari buruzko erregistroek ere adierazten dute emakumeek parte-hartze bizia izaten zutela Nafarroako aljametakoa bizitza ekonomiko eta sozialean, eta honako emakume hauek nabarmentzen dira: Dueña, Arach Eucaveren alarguna; Sirnha, Salomón Alberge zaharraren alarguna; Sorbellita, Joseph Esquerraren alarguna; Soloru, Samuel Ederren emaztea; Oroceti, Josef ben Shapruten emaztea eta Oroshoel, Salomon Aljarninen emaztea⁴⁰. Tuterako Nathan del Gabayren emazteak, Mira ben Menirrek, lurrak errentan hartu eta erosi zizkion Nafarroako altxorrari 1366tik 1368ra bitarte⁴¹.

Nafarroako foru orokorrak Nafarroako Erresumako maila guztietako gizon eta emakumeen zerga-betebeharrak arautzen ditu. Sistema konplexua da, egoerak aldatu egiten baitira herri batetik bestera edo bailara batetik bestera, baita zerga bakoitzaren arabera ere, baina foru orokorrak xedatzen zuenez, oro har, bi emakume ezkongabek gizon baten moduan ordaindu behar zuten petxa edo zerga. Edozein lan egiteko ezintasuna zuen gizon batek emakume batek adina ordaindu behar zuen. Era berean, mutikoen emakumeek adina ordaindu behar zuten pubertarora iritsi eta 'bere naturan ileak atera arte'⁴². Lizarrako foruak, ordea, ez ditu bereizketa horiek egiten eta Alargunari buruz (2, 15) izeneko atalean xedatzen duenez, alargunak eta, hedaduraz, familiaburu zen emakumeak hiriko auzotarren karga guztiak bete behar zituen, ostea izan ezik (2, 15.1). Atal hori biziki garrantzitsua da, osteagatik kargen salbuespen horretatik ondorioztatzen baita emakumeek foruaren arabera zegokienagatik ordaintzen zituztela zergak, hau da, ordainketa horiei atxikitako eskubideak berezkoak zituztela.

Oro har, Lizarrako foruan sei printzipio orokor xedatzen dira emakumeei dagokienez:

⁴⁰ CIERBIDE, R., Las comunidades judaicas navarras en la Edad Media. *Los Judíos*, Gasteiz: Antso Jakituna fundazioa, 1992, 228. or.

⁴¹ *Ibid.*, 232. or.

⁴² Nafarroako Foru Orokorraren 3. liburua, 4. titulua, 3. kapitulua. *Fueros del Reyno de Navarra*, Iruñea: Martín Gregorio de Zabalaen inprimategia, 1686, 45. or. Ikus, halaber, YANGUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, op. cit., 387. eta 399-400 or.

- Emakumea, legez *echandra* edo *etxeke andre* tituluarekin, Nafarroako 1234ko foru orokorrean⁴³, zuzenbideko subjektua zen eta, Lizarrako foruaren arabera, «legezko ahalmena» (*sui juris*) zuen, hau da, *mulier legalis* zen (2, 11.9)⁴⁴.
- Emakumeak herritar izateko eskubidea zuen (Errubrika).
- Lizarrako gizartearen nukleo nagusia familia zen, eta *dominus domus* edo *senior domus* zen ordezkaria (2, 2.1, 2,7). *Dominus domus* figurak ez zuen emaztearen gaineko agintaritzarik, eta emazteak ez zuen tutorerik; ezkontideek lege-berdintasunean administratzen eta gainbegiratzen zuten familia-nukleoaren jarduera sozial eta ekonomikoa.
- Emakume alarguna edo ezkongabea familiaburu izan zitekeen, zalantzarik gabe, «su edo etxearen edukitzaile edo familiaburu⁴⁵» modura.
- Emakume ezkondua, ezkongabea edo alarguna bere «ondasun eta onibar guztien jabe zen, ahalmen guztiekin», eta jabetzan zituen ondasunak erosi, errentan eman, saldu, bahian eman, hipotekatu, oinordetzan hartu edo eman zitzakeen (2, 11.11).
- Emakume familiaburuak baliatzen zituen eskubideei atxikitako auzotasuneko zerga-betebeharrak betetzen zituen (2, 15).

Lizarrako foruaren lehen atalean zuzenbideko printzipiotzat xedatzen da inork ezin zuela justizia bere kabuz egin eta, beraz, hirikoek debekatua zuten kanpokoekin gerran edo dueluan ibiltzea auziren batengatik; halaber, bi lekuko izendatzeko agintzen da, bata nafarra eta bestea frankoa, eta elkarren arteko liskarra auzitegi batean konpon dezatela (1, 4.1). Arau horrek salbuespen partzialak baino ez ditu eta, funtsean, Goi Erdi Aroko kutsu handia duen legeria baten arrasto dira; izan ere, legearen arabera, biktimak edo biktimaren ahaideek justizia egiteko ahalmenen bat zuten. Kasu horietako bat emakumearen bortxaketa zen.

Foruan hainbat bortxaketa-kasu aurreikusten ziren (*mulier forciata*). Emakume bat bortxatzen bazuten, erasoja jasan osteko hiru egunen barruan deklaratu behar zuen, eta Lizarrako lekuko sinesgarriak aurkeztuta (*veridicos tes-*

⁴³ Caro Barojak gogoratu zuenez, Nafarroako foru orokorrean «echandra» edo «chandra» (etxeke andre) eta «echaun» edo «echaiaun» (etxeke jaun) aipatzen dira, eta legezko figura horiek oso garrantzitsuak ziren herrialdeko auzotasuna eta erlijiotasuna aztertzeko. Ikus CARO BAROJA, J., *Etnografía histórica de Navarra*, Iruñea: Editorial Aranzadi, 1972, 3. lib., 139. or.

⁴⁴ Lizarrako foruan ez dago erreferentziarik *pater familias* legezko figurari dagokionez, familiaburu bakar gisa, eta, oro har, ezin ataletan ez da erregistratzen senarrak emaztearen gaineko ahala duenik familia-eremuan.

⁴⁵ *Coloquio Mujeres de la Edad Media: escritura, visión, ciencia: Escritura, visión, ciencia. A novecientos años del nacimiento de Hildegard von Bingen*, op. cit., 56. or.

tes Stellenses) frogatu behar zuen, zeren «hiru egunak igaro ostean ezerk ez dio balio izango» (1, 6.5). Emakumeak epaiketari frogatzea lortzen bazuen, gizonak ordaina eman behar zion (*pariasset eam*) edo harekin ezkondu maila berekoa baldin bazen, eta ez bazen, emakumearentzako senar egokia aurkitu behar zuen «lehen bezain onest gera zedin harekin» (1, 6.2 eta 1, 6.3). Xedapen hori garai hartako hainbat forutan agertzen da, eta Deuteronomiotik dator (22:28-29⁴⁶). Biktimari eman beharreko ordainaz gainera, foruaren arabera, bortxaketagatik 60 sueldoko isuna ordaindu behar zitzaion erregeari (1, 6.5). Alkatearen eta hiriko hamabi herritar onen (*duodecim bonorum vicinorum*) irizpenaren arabera erabaki behar zen gizon hori emakumearentzat benetan egokia zen ala ez (1, 6.5). Azkenik, bortxatzaileak ez bazuen nahi edo ezin bazuen konpentsaziorik eman edo biktimarentzako senarra bilatu, bortxatzailearen pertsona emakumearen ahaideen esku geratzen zen, haien borondatera (1, 6.4).

Lizarrako foru berria onartu eta 74 urte geroago, 1238. urtean, Tibalt I.ak Nafarroako Foru Orokorra zin egin zuen. Azken foru hori lagungarri izan daiteke bortxaketa-kasuen berezitasunak ulertzeko, biak ala biak ohiturazko tradizio beretik baitatoz. Foru orokorraren arabera, gizon batek maila sozial apalagoko emakume ezkongabe bat bortxatzen bazuen, harekin ezkondu behar zuen eta, ez bazuen hori egin nahi, erresumatik erbesteratua izango zen, ondasun guztiak bahituko zizkioten eta «emakumearen ahaideak etsai izango zituen⁴⁷». Bortxatutako emakumea goragoko maila sozialekoa baldin bazen, erasotzaileak 600 sueldoko isuna ordaindu behar zuen, erdia erregearentzat eta beste erdia bortxatutako emakumearentzat, eta gizona erbesteratu egingo zuten eta ondasunak bahituko zizkioten⁴⁸.

Lizarrakoan ez bezala, foru orokorrean bereizketa egiten zen erasotzailearen egoera zibilaren arabera, eta bahiketaren eta adulterioaren legezko figurak txertatzen ziren bortxaketaren inguruabar modura. Zentzu horretan, gizon ezkongabe batek emakume ezkondu bat indarrez (bahiketa) edo haren borondatez (adulterio) eramaten badu, zigortu egingo da: ondasun guztiak konfiskatuko zaizkio eta erbesteratua izango da «Erregearen eta senarraren konfiantza berreskuratu arte⁴⁹». Foruaren arabera, halaber, senarrak uste badu erasotzaileak

⁴⁶ (28) Gizon batek neska gazte birjina batekin egiten badu topo eta neska horrek ez badu ezkon-hitza emanda, gizonak neska oheratzera behartzen badu, eta norbaitek harrapatu egiten baditu (29), gizonak zilarrezko berrogeita hamar txanpon ordainduko dizkio neskaren aitari eta, gainera, neskarekin ezkonduko da ohorea kendu diolako. Bizitza osoan ezin izango du neskarengandik dibortziatu.

⁴⁷ 4. lib., 3. tit. (De fuerzas de mugeres et de adulterios), 3. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 164. or.

⁴⁸ *Ibid.*, 164. or.

⁴⁹ «Daqui á que amor aya del Rey et de su marido». 4. lib., 3. tit., 8. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 165. or.

emaztea indarrez eta haren baimenik gabe eraman duela, emaztea berreskuratu ostean «harekin jarraitu beharko zuen, ezer txarrik egin ez balu bezala⁵⁰». Gizon ezkondu batek emakume ezkondu bat bortxatzen badu, gizonak jabetza guztiak galduko ditu eta erbesteratua izango da; dena den, ezkontza-horniak ez zaizkio bahituko ez erasotzailearen emazteari, ezta bien seme-alabei ere; eta emazteak ez bazuen ezkontza-hornirik jaso, seme-alabei gurasoen onibar guztien erdia egokituko zaie, baita irabazpidezko ondasunak ere; eta erregeak gizonaren jabetza guztien erdia konfiskatuko du. Erasotzaileak emakumea bahitzen bazuen, emakumearen ahaideek erasotzaileari desafio egin ziezaioketen, baita hil ere, emakumea etxera itzultzeari uko egiten bazion. Gainera, erasotzailearen ahaideek debekatuta zuten hari ostatu, laguntza edo aholkurik ematea. Eta erasotzaileak emakumearekin seme-alabarik izango balu, ez lukete herentzia jasotzeko eskubiderik izango. Foru orokorrak dio erasotzaileak ezin izango zuela erresumara itzuli erregearen eta emaztearen konfiantza berreskuratu arte eta, hori gertatuz gero, erasotzaileak bere onibar guztiak berreskuratzeko eskubidea izango zukeela⁵¹.

Azkenik, akusatua absolbitua izan zitekeen eraso frogatzen ez bazen; kasu horretan, zinpean honako lekukotza hau egin behar zuen: «que no la fodió, nin la fregó⁵²».

Nafarroako Foru Orokorrean erregistratutako ohitura baten arabera, gizon ezkonduak emaztea bere auzoan baldin bazuen, ezin zuen beste emakume batzuekin bizi⁵³ eta gizon ezkonduak emaztea hiribilduaren barruan baldin bazuen, ez zuen beste emakume batekin oheratu behar, emaztearekin baizik, eta azpiko galtzarik gabe oheratu behar zuen⁵⁴; larru-jotzea (*fornicatio*) ez zen delitu Lizarrako foruaren arabera eta, beraz, ezkongabeen arteko baimendutako sexu-harremanak isunarekin ez zigortzea arautu zen (1, 6.1). Adulterioari dagokionez, Lizarrako foruaren arabera ez zen soilik emakumeari zegokion delitua, eta emakumeen adulterioa ere ez zen bereziki zigortzen; izan ere, foruan ez zaio zigorrik jartzen emakumeari, baizik eta harekin oheratzen den gizonari. Tuterako foruan bezalaxe, Lizarrako foruan zera xedatzen zen, senarrak emaztea beste gizon batekin gauez harrapatu eta gizona hiltzen bazuen, ez zuela isunik jasoko horregatik (2, 21.2), baina emaztea norbaitek harrapatzen bazuen adulterioa egiten egunez, eta senarrak erreklamazioa aurkezten bazion horregatik hiribildu-

⁵⁰ «Como nuyll mal esta oviesse fecho». 4. lib., 3. tit., 8. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 165. or.

⁵¹ 4. lib., 3. tit., 9. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 165-166 or.

⁵² 4. lib., 3. tit., 3. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 164. or.

⁵³ 4. lib., 1. tit., 2. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 156-157 or.

⁵⁴ 4. lib., 1. tit., 3. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 157. or.

ko jaunari (probestuari) edo lurreko jaunari (merioari), horiek ez zuten justizia egin behar eta ez zuten isunik jarri behar senarrarekin hitz egin gabe; «aitzitik, bientzat egin behar zuten justizia» (2, 21.3). Justizia bientzat egiteko aipamenak (*iustitiam de ambobus facere*) esan nahi du ordena publikoaren edo ohitura sozialaren aurkako delitutzat jotzen zela, baita familia-ordenaren kontrakotzat ere, eta horregatik lurreko eta hiriko jauntxoei zegokien, senarrarekin batera, justizia egitea. Zentzu berean, foruak dio apaiz bat emakume batekin –ezkondua edo ezkongabea– harrapatzen bazuten, beste presbitero batek eta lego zintzo batek frogatu behar zutela, eta lurreko jauntxoaren esku geratzen zen zigorra aplikatzea (2, 27). Lizarrako aljama juduan ere zigortzen zuten adulterioa, eta bedinak jartzen zituen isunak; froga nabari modura, salatutako emakumearen haurdunaldi aurreratua aurkezten zen⁵⁵.

Nafarroako Foru Orokorren laugarren liburuko hirugarren tituluan (*De fuerzas de mugeres et de adulterios*), Lizarrakoaren antzeko modura sistematizatzen da adulterioa, baina ez dio aitortzen senarrari emaztearen maitalea hiltzeko eskubidea. Alde batetik, zera xedatzen du, gizon eta emakume adulterio-gileek giza hilketa erdi baten isuna ordaindu behar diotela lurreko jauntxoari; beraz, ordena sozialaren aurkako delitutzat jotzen da. Beste alde batetik, foru orokorraren arabera, sasiko haurra ez du beste ahaide batek haziko, ez da hartuko ezkon-bikote kanonikoaren seme-alaben anaiatzat edo arrebatzat, eta ez du eskubiderik izango ez aitaren, ez amaren ondasunak oinordetzan hartzeko. Are gehiago, adin-nagusitasunera iristean, ezin izango du fidatzaile, abal-emaile, lekuko edo zin-egile ere izan eliza batean. Alabaina, Lizarrako foruan bezalaxe, foru orokorrean sasiko haurraren interes ekonomikoak babesten dira, eta aitak edo amak erabakiko zuen herentziaren zati bat uztea ala ez uztea, betiere estatu-tu juridikoaren arabera⁵⁶.

⁵⁵ CARRASCO, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, Iruñea: Vianako Printzea Erakundea, 1993, 76. or.

⁵⁶ 4. lib., 3. tit., 10-12 kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 166. or. Sasiko seme-alabek ezin zuten herentziarik jaso, «porque según la ley y fuero no debía nascer (zeren legearen eta foruaren arabera ez baitzuten jaio behar)». Sasiko haurraren eskubideak aldatu egiten ziren haren legezko estatusaren arabera. Ezkondutako bi maitalaren haurri «campix» esaten zitzaion (Tuterako foruaren 55. legean agertu zen lehen aldiz, eta okzitanieraz ‘soroan aurkitutakoa’ edo ez-legitimoa esan nahi du). Ez guraso batek ez besteak, seme-alabarik ez bazuen, sasiko haurrak honako hau jasoko zuen oinordetzan, legez: 2 sueldo, 6 diru eta gizalur erdi bat, eta gainerakoa hildakoaren hurbileneko ahaideek. Gizona ezkondua eta andrea ezkongabea baldin bazen, adulterio horretako haurrei «fornecinos» esaten zitzairen, (latineko fornix hitzetik, hau da, prostituzio-etxea) eta 5 sueldo eta gizalur bat jasotzen zituzten oinordetzan. Aita eta ama ezkongabeak baziren, haurrei «de ganancia (irabazpidezkoak)» esaten zitzairen, eta gutxienez 5 sueldo higigarriengatik eta gizalur bat jasotzen zituzten oinordetzan, gehi gurasoek utzi nahi zieten. Yanguas y Miranda, José, *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia - Vianako Printzea erakundea, 1964, 1. lib., 480. or.

Lizarrako foruaren arabera, ezkontza kontratu ekonomikoa da, eta kontratu horretan emakumearen legezko parte-hartzea eta baimena izatea ezinbestekoa zen ezkontzaren aurretik, bitartean eta ondoren. Ezkondutako emakumearen egoera zibila faktore garrantzitsua izaten zen haren autonomia soziala murritzeko, baina foruan dagoen ezerk ez du ahalbidetzen emakume ezkonduak ezkongabeak baino salbuespen eta askatasun gehiago baliatzeko aukera izatea, salbuespen batekin: su-ukailearen edo familiaburuaren legezko titulua. Horrela, bada, foruaren arabera, senarra andregaiaren etxera joango da bizitzera ezkondu ondoren eta andregaiak, noski, ez du etxearen jabetza galduko (2, 14.4).

Pirinioetako zuzenbidearen testuinguruan, emakumea libre zen ezkontzeko, eta Nafarroako foruan xedatzen zenez, ez gurasoek, ez aitona-amonek ez zuten eskubiderik seme-alabei edo bilobei beren borondatearen aurka ezkontzera behartzeko⁵⁷. Hala ere, handizurenen kasuan, gurasoek senarra proposa ziezaieketen alabei eta alabek gehienez bi proposamen bazter zitzaizketen, baina hirugarrenarekin ezkontzera behartuta zeuden⁵⁸. Kasu horietan, foruak «andregaiaren prezioa» arautzen zuen, edo senarrak emaztearen familiari zenbat ordaindu behar zion ezkontzeagatik; halaber, ahaideek gizon justuak izendatu eta ezkontza gauzatzeko epe bat zehaztu behar zuten, eta bi aldeak ados jarritz gero, emaztearen ahaideek ezkontza-hornia eskatuko zioten senarrari⁵⁹. Lizarrako foruan ez da alderdi hori arautzen, baina erreferentzia bat agertzen da (2, 43.1); dioenez, emakume batek ezkonsaria ematen bazion senarrari (edo senarraren zorren bat ordaintzen bazuen), baliozkoa izateko bermatzaileak aurkeztu behar zituen, eta adinez nagusia izan behar zuen, hau da, emakumeak hamabi urte edo gehiago izan behar zituen, «zeren bestela ez baitu balio». Europako beste toki batzuetan ez bezala, foruan ez zen aipatzen ezkon-gauaren biharamunean senarrak andregaiari ordaintzen zion oparia, baina zenbait ezkontza birjintasunaren baldintzapean eta frogapean egiten ziren⁶⁰. Nafarroako foru orokorraren arabera, halaber, zerbitzari bat ezkontzen bazen eta jaunak ez bazion uzten askatasunez joaten, zerbitzariak, «jaunak nahi izan ala ez izan», bere bideari jarraituko dio emaztearen ondoan eta jaunaren zerbitzuan egoteari utziko dio ezkon-egunetik aurrera, eta jauna soldata osoa ordaintzera behartuta dago, zerbitzuan jardundako egunak zenbatuta⁶¹.

⁵⁷ 24. errubrika, 7. artikulua. *Los fors et costumaz deu Royaumme de Navarre deca-ports*, Pau: Jérôme Duproux, 1722, 76. or.

⁵⁸ 4. lib., 1. tit., 2. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 156. or.

⁵⁹ 4. lib., 1. tit., 1. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 155-156 or.

⁶⁰ YANGUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, op. cit., 121. or.

⁶¹ 1. lib., 5. tit., 12. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 24. or.

Lizarrako foruan ez dago ia araurik ezkontza eratzeari edo desegiteari buruz⁶², baina ezkontideen jabetzak kudeatzearekin lotutako arau eta atal ugari ditu. Zehazkiago, herentzien araubideari dagokionez, foruan, senarra hil ostean haren jabetzen gaineko emaztearen eskubideak sistematizatzeari buruzko artikulua asko daude. Bitxia den arren, foruan ez dira aipatzen ez gizon alargunak, ezta haien eskubideak ere, baina emakumearen berdinak zirela pentsatzen dugu, nahiz eta kasu gutxiago izango ziren.

Pirinioetako zuzenbidearen testuinguruan, ezkondu ostean, gizonak eta emakumeak elkarrekin partekatzen zuten ondasun higiezin eta higigarrien jabetza eta bi ezkontideek eskubide berdina zuten jabetza horren gain, «aunque el marido haya muchos [bienes] y la mujer no nada o la mujer muchos y el marido no nada (nahiz eta senarrak izan eta emazteak batere ez, edo emazteak asko eta senarrak ezer ez)⁶³». Ezkontza-jabetzaren araubide honen ezaugarrietako bat da ezkontza desegiten bada eta seme-alabak baldin badaude, jabetza osoa bi zati berdinetan zatitzen dela. Seme-alabarik ez bazegoen, ondasunak ez ziren zatitzen eta irabazpidezko sistema aplikatzen zen; beraz, bakoitzak berea zena eramaten zuen eta bikoteak ezkontzaz geroztik lortutakoa erdi bana banatzen zen. Oro har, bietako bat, senar nahiz emazte, seme-alabarik gabe hiltzen bazen, haren ondasunak jatorrizko ahaideengana itzuli behar izaten ziren, hau da, gurasoak bizi baziren, gurasoengana⁶⁴. Nafarroako foru orokorraren arabera, emakumea libre zen oinordetzan hartzeko edo emateko⁶⁵ eta ezkontideek ez zuten askatasunik bestearen baimen edo onarpenik gabe testamentua egiteko; aitzitik, ados jarrita egin behar zuten⁶⁶.

Emakume ezkonduaren ondasunei –higigarri nahiz higiezin– berak eusten zien bere izenean, eta ez ziren, inolaz ere, senarraren jabetzakoak bihurtzen, ezkontzeagatik. Ezkontideen ondasunei zegokienez eta Pirinioetako zuzenbi-

⁶² Ez dago erregistratuta lurraren jaunari zegarrik ordaintzen zitzaionik ezkontzeagatik, eta lehen gaueko eskubidea ere ez zen inoiz indarrean egon herrialdean. Lizarrako foruan ez zen jaso emakumeen janzkerari buruzko luxu-araurik, baina hainbat ohiturari eutsi zitzaien. Foruan ez dago xedapenik etxeko indarkeriari buruz, edo senar-emazteen arteko abusuari buruz, baina adingabeen interes ekonomikoak babesteaz aipatzen da zerbait, oso zeharka bada ere.

⁶³ Bizkaiko foru berria, 20. titulua, 1. titulua. Zuzenbideko printzipio hori euskal foru gehienetan aurki dezakegu; esate baterako, 1611. urteko Bortuez haraindiko Nafarroako erresumako foruaren 2. artikuluko 25. errubrikan; 1514. urteko Lapurdiko foruaren 1. artikuluko 9. tituluan; edo 1520. urteko Zuberoako foruaren 1. eta 5. artikuluetako 24. tituluan.

⁶⁴ *Nafarroako Foru Orokorra*, 2. liburua, 4. titulua, 16. kapitulua.

⁶⁵ Nafarroako Foru Orokorren 4. liburuko 1. tituluan ezarri zen, oro har, erresumako herentzien araubidea. Onibarrak jasotzeko eskubidea, 4. kapituluan.

⁶⁶ *Nafarroako Foru Orokorra*, 3. liburua, 12. titulua, 14. kapitulua eta 3. liburua, 20. titulua, 8. kapitulua.

dearen printzipioei, oro har, jarraikiz, Emakumeari buruz izeneko atalean (2, 43), Lizarrako foruak zera xedatzen du, emazte batek senarrari ezkonsaria ematen bazion edo senarraren zorren bat ordaintzen bazuen, hura baliozkoa izango zen soilik transakzioaren bermeak ematen baziren eta emakumea adinez nagusia baldin bazen, zeren, bestela, ez zuen lege-indarrrik. Ildo beretik, foruaren arabera, senarrak ezin zuen emaztearena zen zerbait dohaintzan eman emaztearen baimenik gabe, baina bere gauzak bai eman zitzakeen dohaintzan (2, 11.10). Dena den, «emazteak senarrari dohaintza egiten entzuten badio, eta han egonik ez badu ezer esaten, dohaintza egiteko baimenik eman ezean, ez du balioko» (2, 11.11). Printzipio hori foru orokorrean ere jasota zegoen; horren arabera, kapare ezkonduak ezin zuen emaztearen ezkontza-hornia saldu haren baimenik izan gabe, ez biek batera erosi edo eskuratutako ezer, ezta emaztearen aldetik etorritako ondasunak ere. Eta, era berean, emakume ezkonduak ezin zuen bere onibarra saldu, besterendu, hipotekatu, ezta bahian eman ere, «erregu bat zahiren baliora arte izan ezik»⁶⁷.

Beraz, honako ondorio hau atera dezakegu: ezkontideek familiaren barruan egindako zorrek erkideak zirela eta, beraz, foruak fidatzaileei eta hartzekodunei buruzko alderdi guztiak arautzen zituen. Zordunak ez bazuen zorra ordaintzen eta fidatzaile bat baldin bazuen, hartzekodunak alkatearengana jo eta fidatzailearen etxera sartzea eskatzeko eskubidea zuen, berme bat jasotzera, eta fidatzaileak ez bazion bermerik erakusten atean, etxetik kanpo, hartzekoduna etxean sar zitezkeen zegozkion bermeak hartzera (2, 22.18). Dena den, une horretan familiaburua ez bazen etxean, hartzekodunak fidatzailearen emazteari jakinarazi behar zion –lekukoen aurrean– bermearen bila joan zela hara, eta fidatzailea ez bazegoen ezkondata, zerbitzariet jakinarazi behar zien. Bermeak eskuratzeko lehen saialdian, emazteak ofizialei eta hartzekodunari ez sartzen uzteko eskubidea zuen, eta ez zuen isunik jasoko horregatik (2, 22.29), baina egun horretatik aurrera, ez fidatzailearen emazteak, ez zerbitzariet ezin izango zioten eragotzi hartzekodunari bermeak hartzea (2, 22.30). Eta eragozten bazioten, isuna jasoko zuten (2, 22.31). Nolanahi ere, fidatzaileak bermea erakuts zezakeen eta, kasu horretan, hartzekodunak ezin izango zuen fidatzailearen etxean sartu (2, 22.15).

Nafarroako Foru Orokorren arabera, emakumea libre zen oinordetzan hartzeko edo emateko eta ezkontideek ez zuten askatasunik bestearen baimen edo onarpenik gabe testamentua egiteko; aitzitik, ados jarrita egin behar zuten. Printzipio horri jarraitzen zaio, halaber, Lizarrako foruan: ados jarrita egin behar zela zioen, eta lekukoen aurrean beti. Lekukoei ‘testamentario’ esaten

⁶⁷ 3. lib., 12. tit., 14. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 112-113 or.

zitzaien, eta ezkontideen borondatearen lekuko izan zirela ziurtatu behar zuten –ez zuten zin egin beharrik–, honako legezko formula honen bitartez: «guk dohaintza hori egiten ikusi eta entzun genuen» (2, 11.7). Testamentariorik ez balego, parrokiako apaizak balio lezake, edo apaizik ez balego, lege-ahalmena duten bi emakumek (2, 11.8). Muturreko kasuetan, lege-ahalmenik gabeko emakume edo gizon baten lekukotzak ere balio izango luke (2, 11.9). 1262. urtean, Tibalt II.ak zera agindu zuen, Lizarrako gizon edo emakumeren batek jabetza higigarriak oinordetzan hartzen bazituen eta alargun izanik horien jabe bazen, jabetza horiek zaindu egin behar zituela. Laborantzarako soroak edo mahastiak baldin baziren, jabeak urtean lau egiteko, gutxienez, egin behar zituen, hau da, aitzurtu, zulatu, kimatu eta mahastiak zaindu; eta, etxeak baldin baziren, etxeei zutik eusteko obligazioa zuen. Eta baldintza horiek betetzen ez zituenak alargun-eskubidea galtzen zuen⁶⁸. Arau horren helburua adingabeen interesak babestea zen.

Deuteronomioan debekatuta dago ezkontza desagitea (22:19 eta 22:29), baina Nafarroako Foru Orokorrek ezkontzaren alde bakarreko haustura arautu zuen, zela gizonaren aldetik, zela emakumearen aldetik⁶⁹. Foruaren arabera, emazteak ez bazuen nahi senarraren ondoan jarraitu, senarrak bere hiru ahaide, gutxienez, deituko zituen eta, hiru senide horiei eta beste hiru auzokideri –«hiri-bilduko edo eskualdeko zuhurrenak izan daitezela»– bikote-bizimodua nolakoa izan zen azalduko zien, bai senarra, bai emaztea nola bizi izan ziren. Senarrak epaimahai bihurtutako pertsona horiek konbentzitzen bazituen emaztea etxean gera zedin, halaxe egin behar zen. Bestela, ezkontideen ondasunak banatu eta senarra bere ondasunekin geratuko zen eta emaztea bereekin, eta onibarren bat bazuten erosita edo konkistetan eskuratua, erdi bana banatu behar zuten. Arrazoi beragatik, ondasun higigarriak eta zorrak erdi bana zatitzen ziren. Baita seme-alabak ere. Seme-alaba kopurua bikoitia baldin bazen, aitak eta amak erdiak hartuko zituzten eta, seme edo alaba bat sobera geratuko balitz, bien artean hazi beharko zuten, «diziendo estos bonos ombres: por crear estas criaturas mas vale que se aiuden esemble⁷⁰». Era berean, foruaren arabera, emakume ezkondu bat beste gizon batekin elkartzen bazen eta senarra uzten bazuen, bere borondatez, «por su plazenteria», bere onibarrak galduko zituen eta lehen senarrak atxikiko zituen, eta ez emazteak, ez haren izenean beste inork, ezin izango zituen haiek

⁶⁸ YANGUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra, op. cit.*, 183. or.

⁶⁹ JIMENO, R., *Matrimonio y otras uniones afines en el derecho histórico navarro (siglos VIII-XVIII), op. cit.*, 349-352 or.

⁷⁰ «Por criar estas criaturas, más vale que se ayuden mutuamente (Haur hauek hazteko, hobe dute elkarri laguntzea)». 4. lib., 1. tit., 1. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 155-156 or.

erreklamatu, baina bien seme-alabek ez zuten galtzen onibar horiek oinordetzan jasotzeko eskubidea⁷¹.

Ezkontideetako bat hiltzeagatik ezkontza desegiteari dagokionez, dena alargunaren esku geratzen zen eta hildakoak hil zen uenean zituen ondasun eta eskubide guztiak baliatzen zituen. Lizarrako foruak leialtasunaren legezko gozamina arautzen zuen, honela: «emakumea bizi eta senarra hiltzen bada, seme-alabak izan arren, emakumea, alargun jarraitu nahi duen bitartean, bikotearen ondasun eta onibar guztien jabe izango da, ahalmen guztiekin» (2, 11.11). Bestela esateko, senarra hiltzean dena alargunaren esku geratzen zen eta, berriro ezkontzen ez zen bitartean, alargunaren zaintzapean geratzen zen guztia bikotearen seme-alabak adinez nagusi izan arte.

Testamentua egiteko askatasuna eta gozamenaz baliatzea alargunaren eskubide besterenezina zen, baina foruak mugak ezarri zituen seme-alaba adingabeen interesak babeste aldera, seme-alabei baitzegokien herentziaren zati bat. Hala eta guztiz ere, alargunak, seme-alabei aitaren aldetik zegozkien ondasunak banatu ala ez banatu, «senarrarenak edo beste edozein gizonenak izandako gauzetatik dohaintzaren bat» egin zezakeen (*aliquod donativum suo marito aut quolibet homini*), betiere horren bermeak emanaz gero (2, 11.6).

Foruan atal asko daude ezkontide bat hiltzen denean ondasunak nola banatu arautzeko, eta bereziki erreparatzen zaio amaren eta adingabeen interesak defendatzeari. Oro har, foruan xedatzen zenez, adin-nagusitasunera iristen zirenean, seme-alabek amari erreklama ziezaioketen legez haiei zegokien aitaren onibar eta ondasun higigarrietatik «geratzen zena»(2, 11.14). Auzia sortuz gero, seme edo alabaren batek gehiago zegokiola erreklamatzeko bazuen, amak, testamentarioek eta aitona-amonak zin egin behar zuten (2, 11.15). Gurasoen ahala zen ondasunak seme-alaben artean nola banatu erabakitzea (2, 11.16).

Nafarroako Foru Orokorren IV. tituluan (Herentziei eta ondorengotzei buruzkoa) arlo horren alderdi guztiak arautzen ziren, eta adingabeen interesak babesten ziren, familiaren ondasunen gaineko haien testamentu-eskubideei zegokienez. 3. kapituluan, aitak edo amak seme-alabei zer jabetza eman eta banatu ziezaioketen xedatzen zen, eta zer zen «girgileria» edo arbasoengandik jasotako ondarearen zati hori, betiere aitona-amonak beren biloben guraso diren seme-alabak baino gehiago bizi direnean. Kasu horretan, foruan xedatzen zenez, ez zen ezein ondasun bilobengana transmitituko girgileria moduan, baldin eta aita edo ama aitona baino lehenago hiltzen baziren; aita edo ama aitona hil ondoren

⁷¹ 4. lib., 3. tit., 7. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 165. or. Ikus Jimeno, Roldán, *Matrimonio y otras uniones afines en el derecho histórico navarro (siglos VIII-XVIII)*, Madril: Dykinson, 2015, 352-353 or.

hiltzen baziren, orduan, ondasun hori ondare-ondasuntzat jotzen zen. Lizarrako foruan ez bezala –mugak muga, ezkontideen ondasunen gaineko ahal guztia alargunari esleitzen zion seme-alabekin banatu aurretik–, foru orokorrean zera ezartzen zen, bizirik geratzen zen ezkontideak –aitak nahiz amak– ezin zuela dohaintzarik edo salmentarik egin seme-alaben baimenik ez bazuen, betiere alde zuzenetik ondasunak haiekin banatzen ez bazituen. Ondasunen banaketa horretatik salbuetsita geratzen ziren konkista batetik etorritako ondasunak; izan ere, ondasun horiek ezkontzan eskuratu baitzituen senarrak edo emazteak. Gainerako ondasunak seme-alaben artean banatu behar ziren, ondorengotza bitartez, eta gurasoek ezin zituzten seme-alabak oinordetzarik gabe utzi, foru orokorraren arabera «oinordetzarik gabe uzten duenak, dena oinordetzan uzten baitu⁷²». Izan ere, foruan hainbeste babesten ziren ezkonsariko ondasun higiezinak ezen ezin baitzituzten behartu ezein zorretarako haiek baliatzera.

Ez aitak, ez amak ezin zituen seme-alabak oinordetzarik gabe utzi, kasu jakin batzuetan izan ezik, hala nola, semeak edo alabak bere gurasoren bat zauritzen bazuen, edo salaketa larri batengatik zin eginarazten bazieten, edo ileetatik tira egiten bazieten, edo, pertsona onen aurrean, gurasoei «traidore egiaztatua edo miserablea» deitzen bazien. Halaber, Foru Orokorraren arabera, ezkontideek seme edo alaba bat baino gehiago izaten bazituzten, ezin zizkioten ondasun guztiak bakar bati eman, ezin zituztenez gainerakoak oinordetzarik gabe utzi, baina seme edo alaba bati gainerakoei baino ondasun higigarri gehiago eman ziezaioketen, edo lursail bat, edo mahasti bat, eta ondasun higiezinak gehitu ezkontzagatik⁷³.

Lizarrako foruan, halaber, ama alargunak familia-ondarearen gainean zizuten eskubideak adingabeen interesen babesarekin kontrajartzen ziren kasuak ere arautzen ziren. Oso kasu gutxitan transmiti zitzakeen emazteak baliatu ezin zituen eskubideak, baina horietako kasu bat zen hori. Seme-alabak adinez nagusi zirenean eta ondasunak banatu nahi ez zituztenean, amak ezin zituen hori egitera behartu, baina seme-alabek banatu nahi izanez gero, justizia-auzitegi baten aurrean behar zezaketen ama; dena den, kasu horretan ama alargunak txirotasuna argudia zezakeen (2, 11.4). Emazte edo alargun txirotasunaren legezko figura penintsulako zuzenbidean aipatzen den lehen aldietako bat da hori. Baina, seme-alaba naturalen jabetzei zegokionez, ama alargunak edozein jabetza saldu edo eman zezakeen bahian, behar izanez gero, eta premia agerikoa bazen ahaide edo bizilagunen iritzian, foruak dio «seme-alabak ere sal zitzakeela, goseagatik» –adopzioan emateko aukerari buruz ari da– (2, 11.13). Norbaitek seme-alaben

⁷² 2. lib., 4. tit., 3. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 40. or.

⁷³ 2. lib., 4. tit., 8. kap. *Nafarroako Foru Orokorra*, Iruñea: Aranzadi argitaletxea, 1964, 41-42 or.

onibarra errentan hartu nahi bazuen eta ama alargunak errentan eman gabe atxiki nahi bazuen onibar hori, atxiki zezakeen baina errentan hartzeko eskainitako prezio berdina ordaintzen bazuen (2, 11.17).

Emakumeak haurrordeak baldin bazituen eta haiek ez bazuten beren ama naturalaren zatia banatu aitarekin, haurrorde horientzat izango litzateke ama naturalak aitarekin –beste emazte bat hartu aurretik– irabazitako ondasun higigarrien eta higiezinaren zatia; baina aitaren aldetik, emakumeak alargun izaten jarraitu nahi zuen bitartean, ez zuten ondasun higiezinik izango, ondasun higigarriak soilik banatuko ziren (2, 11.12). Eta alargun izaten jarraitzen zuen bitartean, ezin zituen haurrordeen ondasun higiezinak saldu, ezta bahian eman ere.

Norbait testamentua egin gabe hiltzen bazen, eta seme-alaba txikiak uzten bazituen, eta amak beste senar bat hartzen bazuen, seme-alaben ahaideek seme-alaben aitaren aldeko zatia aitortu behar zuten, lekukoen aurrean, eta eskriturak egin (2, 12.1). Eta amak bere ondorengoak aitaren ondasun higigarrien eta higiezinaren bidez atxiki nahi bazituen, fidantza onak eman behar zizkien ondorengoen senideei, haiek nerabegarora heltzen zirenean ondasun higigarri eta higiezin horiek emango zizkiela bermatzeko (2, 12.2). Bien bitartean seme-alabak hiltzen baziren, herentzia hori eta ondasun higigarri eta higiezin horiek etorritako tokira itzuli behar ziren, hau da, hurbileneko ahaideengana (2, 12.3). Seme-alabek ezin zuten beren oinordetza dohaintzan eman edo baliatu 12 urte bete arte (2, 12.4). Aitona-amonen herentzia ezin zen dohaintzan eman, salbu eta soilik mahasti bat, onibar bat edo etxe bat, betiere gutxienez bi etxe edo onibar bat izanez gero, eta hori soilik seme edo alaba bati, edo apaizei edo elizei. Hala ere, alargunak herentzia hori libreki eman ziezaiekeen semeei eta alabei, ezkontzen zirenean (2, 12.5-6).

Foruan zorrotz arautzen zen lekukorik ez izatea eta eskriturak ez egitea, eta kasu horietan, ez-egite hori egin zuena zigortzen zuen. Kasu zehatz honetan, hildakoak beste pertsona bati dirua zor bazion eta erreklamatzeko zuenak ezin bazuen lekukoen edo eskrituren bidez frogatu, hildakoaren seme-alabek esku-bidea zuten zera zin egiteko, ez zekitela beren aitak diru hori zor zuenik eta ez zutela ezer ordaindu beharrik (2, 33.1). Dena den, hildakoaren seme-alabei dirua erreklamatzeko seme-alabek alegatuko balute hildakoak dirua itzuli zuela, dirua erreklamatzeko zuenak zin egin behar zuen eta burdina goriaren proba gainditu behar zuen (2, 33.3)⁷⁴. Eta erreklamatzailerak nahiko balu, beste pertsona bat

⁷⁴ Europako beste toki batzuetan bezala, ordaliak ez ziren jada erabiltzen XII. mendearen amaieran, eta 1215eko Letrango kontziliotik aurrera bertan behera utzi zituzten. Zehazki, 18. kanonak apaizaren bedeinkazioa debekatu zuen burdina eta ur beroaren proban eta ur hotzaren proban, eta 1222. urtean, Honorio III.a Aita Santuak ordaliak debekatu zituen *Delecti filii* dekretuaren bitartez.

jar zezakeen bere ordez burdina gorria jasotzeko, «zeren gerrarako beste gizon bat bidal badezake bere ordez⁷⁵, gauza bera egin baitezake proba hori egiten den epaiketean burdina jasotzeko» (2, 33.4). Hildakoaren emazteak modu berean jokatzeko eskubidea zuen, baina erreklamatzailerak behin eta berriz esaten bazuen emazteak bazekiela, burdinaren proba egitera behartuta zegoen emaztea (2, 33.2).

Sasiko seme-alabei dagokienez, foruan xedatzen da aitak onibar bat edo dirua ematen bazion, sasikoak ez zuela jasoko aita hildakoan seme edo alabatzat legokiokeen zatitik ezer, eta ez zuela parte hartuko gainerako seme-alaba legitimoekin herentziaren banaketan (2, 38.1) baina aitak ez bazuen horrelakorik egiten, herentziaren zati bat izango zuela, anai-arreba legitimoen antzera, baita aitona-amonen herentzian eta erosturetan ere (2, 38.2). Baina aitak, hil aurretik, seme edo alabatzat ukatzen bazuen, eta beste anai-arrebek frogatu bazezaketen, lekuko legitimoekin, ezin izango zuen herentzian parte hartu (2, 38.3).

Foruan xedatzen zenez, lehenengo senarraren seme-alabak zituen alargun batek bigarren aldiz ezkondu nahi bazuen, lehen ezkontidearen seme-alabei harekin irabazitako guztiaren, diruaren eta onibarren erdia zor zien (2, 11.1) baina emazteak lehenengo ezkontzaren aurreko beste onibar edo ondareak bazituen, ez zegoen behartuta horien zati bat seme-alabei ematera (2, 11.2). Eta bi edo hiru senar izan eta guztien seme-alabak baldin baditu, emazteak dagokion aitarekin izandako irabazpidearen zatia eman behar zion seme edo alaba bakoitzari, «eta ez beste ezer» (2, 11.3).

Foruak xehetasun handiz antolatzen du umezurtzen tutoretza Enkomien-dari buruz izeneko atalean (2, 35). Senar-emazteak hil eta haur bat beste pertsona baten tutoretzapean uzten bazuten, eta tutoretza horretaz arduratu behar zue-nak kalte edo iruzur egiten bazion oinordetzan jaso beharreko diruari edo lurrei zegokienez, edo fidatzaile ezgai bat jartzen bazuen haren kalterako, hogeita hamar urtez edo gehiagoz tutore izan bazen ere, kalte-ordaina eman beharko zion egindako kalte guztiarengatik (2, 35.1). Eta ez zuen horregatik tutoretza utzi behar baldin eta semeak, lekukoen aurrean, haren tutoretzapean egoteari utzi nahi ziola adierazten ez bazuen (2, 35.2). Arau horrek salbuespen bakarra zuen: beste behin ere, seme-alaben babesa premiagatik edo txirotasunagatik. Horrela

⁷⁵ Lizarrako foruaren lehen lege-arauari jarraikiz, hiritarren salbuespen eta askatasunetako bat zen gerrara soilik hiru egunetarako joatea, eta hori baldin eta zelai zabaleko gudua baldin bazen, edo erregea etsaiek setiatu bazuten (1, 1.1). Xedapen hori foru orokorrean ere araututa dago (1. lib., 1. tit., 4. eta 5. kap.). Foru orokorraren arabera, arrazoiren batengatik norbaitek ezin bazuen beste pertsona bat bidali gerrara, haren ordez beste norbait bidaltzeko adina diru ordain zezakeen (Lizarrako foruaren 2, 69.2 atalean arautzen da figura hori). Horregatik, Lizarrako foruan xedatzen da hori egin bazitekeen, suaren proba egiteko ere eskuordetu zitekeela beste pertsona batengan.

bada, seme-alabak adin txikikoak izanik, eta haien aitak testamentarioak izendatu bazituen hil aurretik, testamentario horiek, premia-kasuetan, testamentu bidez legozkiekeen ondasunak banatu, saldu eta bahian eman zitzaizketen, baina seme-alaben premia betetzeko baino ez (2, 11.5).

Benetan zaila da Lizarrako forukoaren antzeko lege-aurrekariak aurkitzea 1164. urtea baino lehenagoko penintsulako legeetan. Lehen esan dugunez, legetuen errubriketan emakumeen aipamenak egiten diren aurrekari oso-oso gutxi daude. Haietan lehenengoa 953. urteko San Zadornin, Berbeja eta Barrioko forua da, non «varones et mulieres» aipatzen baitira, Gartztea Santxez I.a Iruñeko erregearen erreinaldian, eta bigarrena Antso Gartzez III.ak –aurrekoaren birbilobak– emandako Naiarako forua. Dena den, bi lege-testu horietan ez bezala, Lizarrako foruan harrigarria da emakumeari buruz zenbat artikuludauden. Foruan 36 aldiz aipatzen dira emakumeak, 16 aldiz amak, 5 aldiz emazteak, bi aldiz alargunak, 10 aldiz alabak eta beste 10 aldiz aipatzen ditu emakumeak «ellas» izenordainaren bitartez; guztira, 79 aldiz, Lizarrako emakumeek baliatzen zituzten eskubide nagusien zenbait printzipio gidari garatzen dituzten 41 arautan. Eta hori foruko 258 arauen guztizkotik % 15,8 da⁷⁶. Halaber, oso deigarria da arau horien % 78 jabetzarekin, herentziarekin eta testamentuekin lotutako kontuak izatea. Azkenik, printzipio horiek zehaztasun-maila oso handiarekin arautzen direla nabarmendu behar dugu, emakumeek familiaren jabetzen gainean zituzten interesei zokokienez.

Lizarrako foruan jasota dagoen moduan, ondasunen jabe izatearekin, erabiltzearekin eta transmititzearekin lotutako emakumeen ahalaria buruzko lege-aurrekariak oso eskasak dira IX. mendetik XII. mendera bitarte. 1017. urteko Leongo foruan zenbait lege-xedapen daude ezkontzari, emaztearen ondasunei, etxearen bortxaezintasunari eta, ezkontidea falta dela, emaztearen immunitateari buruz. Horrela, esaterako, foruan xedatzen denez, toki jakin batean «mandazionario» ondasun higiezinak dituen emakume batekin ezkontzen den gizonak emaztearen onibarren jabe izan eta administratu zitzaizkeen, betiere han biziz gero; aldiz, onibar «ingenu» edo libre bat duen emakumearekin ezkontzen denak

⁷⁶ Bat larru-jotzeaz (1, 6.1), bost bortxaketari buruz (1, 6.1-5), bat erromesen jabetzak lapurtzeari buruz (2, 8.1), 17 ondorengotzei buruzko atalaren barruan (2, 11), hiru herentziei buruzko atalean (2, 12), bat emaztegaiaren etxera bizitzera joango den gizonak egindako zorrak ez barkatzeari buruz (2, 14.4), bat alargunek bete beharreko zerga-kargei buruz (2, 15.1), hiru adulterioari buruz (2, 21.1-2 eta 2, 27.1), bat emakumearen jabetza higigarria bahimenduen aurrean babesteari buruz (2, 22.20), hiru emakumeak familia-ondasunak babesteari buruz, zorreatatik bermeak bahitu beharreko kasuetan (2, 22.29-31), bat zela-aberea ez bahitzeko alaben eskubideari buruz (2, 22.34), bat senar zenak egindako zorrei buruz (2, 33.2), bat senarraren zorrak ordaintzeari buruz (2, 43.1), bat etxeko gizonazkoen gerra-zerbitzuaren salbuespenari buruz, erditzeagatik edo amaren osasun egoera larriagatik (2, 69.2) eta, bukatzeko, Lizarrako emakume guztiei buruzko epigrafea.

haren jabetza osoa izan dezake, non bizi den axola gabe (10. dekretua)⁷⁷. Foruaren arabera, halaber, senarrak emaztearen gaineko lege-ahala zuen, ezin baitzen emazterik preso hartu, epaitu edo prozesatu senarra ez bazegoen (42. dekr.) eta ezin emakume ezin zen bere gogoaren kontra eraman errege-ogia egitera, «nolaz eta haren zerbitzaria ez den» (37. dekr.). Azkenik, Leongo foruak ezartzen zuen, emakumezko okin batek ogiaren pisuan iruzur egiten bazuen, lehen aldi, zafratu zezatela eta, berriro eginez gero, bost sueldo ordaindu beharko zizkiola erregearen merioari (35. dekr.). Emakumezko okinek zilarrezko sueldo bana ordaindu behar zioten astean behin erregearen borrheroari (43. dekr.). Bukatzeko, 25. dekretuak agintzen zuenez, senarrak giza hilketa egiten bazuen eta ez bazuen zerekin ordaindu, borrheroak gizonaren ondasun higigarrien erdia hartuko zuen, eta beste erdia emazte, seme-alaba edo gertukoentzat gordeko zen, etxeekin eta onibar guztiarekin batera⁷⁸.

Naiarako foruaren 31. artikuluan xedatzen zen seme-alabarik gabeko alargunak (*vidua de Naiara*) ez zuela oste-zerga ordaindu beharrik (apaizek eta lurren errentariak ere ez zuten ordaintzen)⁷⁹. Inork ezin zuen ostatu eskatu emakume alargunaren edo ezkongabearen etxean, ezta haren ohoreari eraso egin ere (30. art.)⁸⁰. 44. artikuluan testamentua egiteko askatasuna arautzen zen eta, gizonak edo emakumeak ez bazuten seme-alaba edo oinordeko naturalik, ondasun higigarriak edo higiezinak nahi zutenari eman ziezazkioketen oinordetzan, handizuren bati izan ezik⁸¹. Azkenik, Naiarako foruan emakume txiroaren aipamen bat egiten da: erregea edo herrialdeko jauna muturreko premia-egorran baldin bazegoen, borrheroa bidal zezakeen emakume txiroen oiloak konfiskatzera, baina oilo bakoitzaren truke ezohiko prezioa ordaindu behar zuen, hau da, ahari-larru bat⁸².

Bortxaketari buruzko erregulazioen aurrekariak ohikoagoak dira, testu biblikoetan oinarritzen diren aldetik. Esate baterako, 1099. urtean, Miranda Ebroko foruan heriotza-zigorra xedatzen zen bortxaketagatik. Foru horren arabera, gizon edo emakume batek ezkontutako gizon edo emakume bat zauritzen

⁷⁷ RODRÍGUEZ, J. (arg.), *Los fueros del Reino de León: Documentos*, León: Leonesas, Ediciones S. A., 1981, 2. lib., 16. or.

⁷⁸ Rodríguez, Justiniano (arg.), *Los fueros del Reino de León: Documentos*, Leonesas, Ediciones S. A., León, 1981, 2. lib., 16-23 or. Ikus, halaber, jatorrizko latinezko testua, hemen: Flórez, Henrike, *España Sagrada: Theatro geographico-historico de la Iglesia de España. Historia Compostelana*, Madril: Antonio Marín Bulegoan, 1754, 340-347. or.

⁷⁹ Boletín de la Real Academia de la Historia, Madril: Historiako Errege Akademia, 1891, 19. lib., 79. or.

⁸⁰ *Ibíd.*, 79. or.

⁸¹ *Ibíd.*, 82. or.

⁸² *Ibíd.*, 83. or.

bazuen, hirurogei sueldoko isuna ordaindu behar zuen; eta odolik isuri ezean, hogeita hamar sueldokoa. Gainera, «lizunkeriak bultzatuta, gizon edo emakume batek gizon ezkondu bati iletik, bizarretik edo barrabiletatik helduz gero, erruaz askatzeko giza hilketa erdi baten isuna ordaindu behar zuen; eta ezin bazuen ordaindu, espetxean egon beharko zuen hogeita hamar egunez eta, gero, makilaz jo hiribilduaren alde batetik bestera zihoan bitartean⁸³». Nafarroako Marañoño foruan (ca. 1124) ere arautu zen bortxaketa, 300 solido ordainduta (*Toto homine qui rapuerit filiam de vicino de Maraione*⁸⁴). Santiago de Compostelako apezpikutzaren herrixken foruan (1113), emakumearen bortxaketa edo bahiketari buruzko atal bat dago (*mulieris violationis, quod vulgo raptum dicitur*⁸⁵), eta 1118. urteko Toledoko foruan bortxaketa debekatuta zegoen, heriotza-zigor eta guzti (*morte moriatur in loco*⁸⁶). Azkenik, Naiarako foruan emakume birjina bat bortxatzea debekatzen zen, baina ez zen xedatzen delituari zegokion zigorra (*neque virginem forcicare*⁸⁷).

Adingabeek herentziaren gainean zituzten eskubideak sistematizatzeari buruzko aurrekariak ere urriak dira, eta egia esateko, zaila da idatzitako lege-arauetan adingabeek gurasoen herentziarekiko duten ahala hain zehatz arautzen duenik aurkitzea 1164. urtea baino lehen. Lizarrako foruan adingabeen 57 erreferentzia aurki daitezke 28 arautan, eta ia denak herentzia-eskubideei eta adingabeen babes eta tutoretzari buruzkoak; mende hartan berrikuntza izan zen hori.

Lizarrako foruan, halaber, lehenik eta behin San Martin burguko juduen salbuespen eta askatasunak arautu ziren zehaztasun handiz, eta gero hiri osoko juduenak. Juduen 19 aipamen daude foruan, zortzi lege-arautan bilduta eta aipamen gehienak merkataritza-transakzioei buruzkoak dira: beren auzoan edo aljaman bertan, harresiz inguratuta, sinagoga eta hilerria zutela, eta beren ordenantza eta erakunde propioak ere bazituzten. Antso Jakitunak Naiarako forua eman zien Tuterako juduei 1170. urtean⁸⁸ eta Nafarroako hebrear erkidegoak udal-go-

⁸³ MUÑOZ y ROMERO, T., *Colección de fueros municipales y cartas pueblas de los reinos de Castilla, León, Corona de Aragón y Navarra, op. cit.*, 348. or.

⁸⁴ *Ibid.*, 496. or.

⁸⁵ *Ibid.*, 404. or.

⁸⁶ *Ibid.*, 366. or.

⁸⁷ *Ibid.*, 290. or.

⁸⁸ Eskumen ugari zituzten, esate baterako «herriko gaztelura joan daitezela bizitzera, eta auzoan uzten dituzten etxeak saltzeko ahalmena izan dezatela: ez dezatela lezda ordaindu, baina gaztelua konpontzeko betebeharra izango dute: ez dezatela giza hilketa ordaindu, baldin eta gazteluan daudela eraso egiten badiete eta kristauren bat hiltzen badute; abantaila asko zituzten, besteak beste, leinuaren onibarrerengatik hamarrenik ez ordaintzea, eta bai kristauei erositakoengatik soilik». MARICHALAR, A. eta MANRIQUE, C., *Historia de la legislación y recitaciones del derecho civil de España, op. cit.*, 363-364 or.

bernu baten bitartez antolatzen hasi ziren harrezkero, bedin edo albedin bat buru zutela, errejidore eta epaimahaikide eta guzti, eta udal kristauetan izaten ziren gainerako karguekin; autonomia-maila handia izan zuten. Aljamako bizimodua arautzen zuten lege-arauak –Taqanot edo tekana deituak– kristau-erkidegoetako ordenantzen antzera onartu behar izaten ziren, udal-batzarrean; batzar horiek sinagogan egiten ziren⁸⁹. Adibidez, Tuterako aljamak udal-ordenantza berriak onartu zituen 1363. urtean, eta «izendatutako hogeirejidoreen erabakiak obeditzen ez zituztenak zigortu egingo zituzten, baita gezurrezko lekukotza egiten zutenak ere⁹⁰».

Beren ordenantzak zituzten arren, Lizarrako foruaren arabera, juduek hiriko legeak bete behar zituzten merkataritzari zegokionez, gainerako herritarrek bezalaxe. Zentzu horretan, foruaren testuan ez da juduen eta kristauen arteko bereizketarik egiten giza hilketei, zauriei edo irainei dagokienez, eta lege-neurri berak aplikatzen zaizkie guztiei (1, 14) eta, halaber, oso esplizitua da juduen estatua juridikoari dagokienez, handizurenak, frankoak, hiritarrak eta juduak legez parekatuta daudela aipatzen baitu (2, 19.8-9).

- Nafarroako Erresuma osoan juduen tratamendu juridikoa, oro har, bideratzen duten lau printzipio, gutxienez, biltzen dira Lizarrako foruan:
- Juduak zuzenbideko subjektu ziren (1, 14; 2, 19.8-9).
- Libre ziren (1, 14; 2, 19.8-9).
- Libreki jardun zezaketen merkataritzan eta jabetza ere libreki eskura zezaketen (2, 55). Juduen ondarearen zati handiena kristau, musulman eta juduek egindako kreditu-konpromisoak ez betetzetik zetorren⁹¹.
- Babes juridikoa zuten (1, 12). Ordenamendu juridiko, jurisprudentzia eta epaile propioak zituzten komunitate barruko gai erlijioso eta zibiletarako. Zigor-arloan, behe-justizia administratu zezaketen; izan ere, Nafarroan, zigor-arloko justizia erregeari zegokion eta salbuespen oso urriak ziren jurisdikzio-jaurerriak eta immunitateak. Epaiak betearaztea eta isunak kobratzea errege-botereari zegozkion.

Lizarrako merkatariak eta haien interesak erresumako agintarien babespean zeuden eta, halaber, baita Gaztelako eta Aragoiko agintarien babespean ere. Lizarrako foruaren lehen atalean –hiriko biztanleen eskubide eta askata-

⁸⁹ CARRASCO, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 34. or.

⁹⁰ MARICHALAR, A. eta MANRIQUE, C., *Historia de la legislación y recitaciones del derecho civil de España*, *op. cit.*, 364. or.

⁹¹ CARRASCO, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 52. or.

sunei buruzkoan– xedatzen zenez, ezein gizon ez zen libre geratuko Lizarrako franko edo juduekin zorpetzen bazen (1, 12).

Oro har, Lizarrako foruan, hiriko bi erlijio-komunitateei –judu eta kristabei– zegozkien alderdiak tratatzen diren kasuetan aipatzen dira juduak berariaz; izan ere, Lizarran ez baitzen musulmanik. Gerra judizial baten testuinguruan, juduak bere sinesbidearen izenean zin egin zezakeen eta zin egin behar zuten (2, 19.9) eta errabinoaren gutunek kristauen eskritura edo lekukotzen balio berdina zuten (2, 55.2). Eskubide horren jatorria Alfontso I.ak 1119. urtean Tuterako musulmanei emandako gutuna da; gutun horretan agintzen zenez, «mairu batek auzia badu kristau batekin, edo kristau batek mairu batekin, mairuen alkateak epai dezala mairua beren sunnah-ri jarraikiz, eta kristauen alkateak epai dezala kristaua, beren foruaren arabera⁹²».

«Kristauari eta juduari buruz» kapituluan, funtsean, eskritura, zor edo salerosketekin lotutako auziak aipatzen dira eta, oro har, Lizarrako kristau eta juduen arteko legezko guduak; kapitulu horretan, bi erlijioetako sinestunen artean erabateko berdintasuneko araubidea xedatzen da eta, beraz, kristau batek judu baten aurkako auzia bazuen, dela diruagatik, dela kolpeengatik, dela beste edozein arrazoiengatik, eskriturarik edo lekukorik izango ez balitz, juduak zin egin eta justifikatzen bazuen bere burua, libre geratzen zen; era berean, kristauak zin eginda justifika zezakeen bere burua judu baten aurkako auzian, baldin eta juduak lekukorik ez bazuen (2, 55.5).

Zentzu berean, foruan honako hauek bereizten ziren: lekuko frankoak edo nafarrak (erresumako beste toki batzuetatik etorritakoak), presbiteroak edo legoak, kristauak edo juduak. Judu eta kristauen arteko epaiketa baten testuinguruan, arrazoa edozein izanik ere, bi lekukok deklaratu behar zuten, bata judua eta bestea kristaua (2, 55.1). Lehen esan dugunez, eskriturarik edo lekukorik ez zenean, biek zin eginda justifika zezaketen beren burua, eta kargu orotatik libre geratzen ziren hala (2, 55.5). Zorrek eragindako epaiketen testuinguruan, kristauak aljamako errabinoaren eskritura bat eraman zezakeen auzibidera, ordainketa egin zuela egiaztatzeko (2, 55.2), eta kasu horretan, juduak lekukoen bidez egiaztatu behar zion eskritura zuenari ez ziola ordaindu. Judu edo kristau bat hiltzen zenean, seme-alabek aitak egindako zorra kitatu behar zuten, betiere hartzekodunak eskritura egin bazuen edo horren frogarik izanez gero (2, 55.3). Kristau bat hiltzen bazen eta oinordekoek ordaindu gabeko zor bat erreklamatzeko bazioten judu bati, eskrituren bitartez frogatu behar zuten eta, juduak ezin

⁹² PECES-BARBA, G.; LLAMAS, Á.; FERNÁNDEZ, C. R. (arg.), *Textos básicos de derechos humanos con estudios generales y especiales y comentarios a cada texto nacional e internacional*, op. cit., 31-32. or.

bazuen lekukoen bidez frogatu zorra benetan kitatu zuela, ordaindu egin behar-ko zuen (2, 55.4). Handizuren eta frankoek 10 sueldo baino gutxiagoko zorrak bazituzten hiritar eta juduekin, lehenengoek gizon heldu bat –hamabost urte edo gehiagokoa– lekukotzat aurkeztu behar zuten, zinpean lekukotza emateko (2, 19.8). Bestalde, judu eta hiritarrek beren eskuarekin zin egin behar zuten 12 sueldotik gorako zorreatatik (2, 19.9). 12 diru baino gutxiagoko kasuetan, nafarrak «gizon guztien aurrean» «bere adiskidearen buruagatik» zin egin behar zuen, juduak «Ekialdearengatik» eta frankoak «bere adiskidearen edo aitabitxiaren buruagatik» (2, 19.9).

Legeak Lizarrako juduak babesten zituen eta erregeen babes-ere bazuten, erbesteratutako judu askoren babes-leku bihurtu zen Nafarroa XI. mendearen erditik XVI. mendearen amaierara bitarte. Almorabideen 1086ko inbasioaren eta, gerora, 1147. urtean, almohadeen agintearen ondorioz, XI. mendearen bigarren erditik aurrera lur musulmanetan bizi ziren erkidego juduen exodoa gertatu zen Nafarroarantz. Horrekin batera, 1096. urtean Urbano II.a Aita Santuaren lehen gurutzadatik eta horren ondoren etorritako juduen aurkako xedapenetatik aurrera –esaterako, Felipe II.ak 1182an agindutakoak, 1215eko Letrango Kontzilioaren probidentziak, 1209tik 1244ra bitarte gurutzada albitarrean hartutako neurriak eta Luis IX.aren ediktuak 1242an eta 1254an (sarraskiak eta kanporatzea), zazpigarren gurutzadaren testuinguruan–, komunitate judu askok Nafarroako erresumara erbesteratzea erabaki zuten.

Frantziako erresumako eta Europako beste toki batzuetako errepresio-politikek kontraste handia egiten zuten Tibalt I.ak 1237an hartutako neurriekin; Tibalt I.ak, Inozentzio IV.a Aita Santuaren sostenguarekin, juduen gutxiengoaren babesletzat jo zuen bere burua, «behartutako bataioak saihestera eta haien zorrak ordain daitezten ahalbidetzera iristeraino⁹³». Gaztelako mugan dauden Vianako eta Guardiako hiribilduetan 70 eta 50 familia judu hartu zituzten, hurrenez hurren, XIII. mendearen hasieran⁹⁴. 1234. urtean, Gregorio IX.a Aita Santuak Tibalt erregeari gogorarazi zion Nafarroan ez zirela betetzen Letrango kontzilioko xedapenak, juduen janzkerari zegokionez; izan ere, kristauen janzkeraz bestelako arropa janztera behartzen zituen juduak, jendaurrean identifikatu ahal izateko⁹⁵. 1266ko erregistroan, Lizarrako judutegi osoan Nafarroako errege-altxorri ekarpenak egiten zizkieten 29 etxe zenbatu ziren eta, koroari egindako zerbitzuen artean, komunitateak erregeari emandako 1.700 liberako mailegu

⁹³ CARRASCO, J., *Las primeras migraciones judías en el reino de Navarra (1076-1328)*, *op. cit.*, 24. or.

⁹⁴ *Ibid.*, 27. or.

⁹⁵ YANGUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 516. or.

garrantzitsua erregistratu zen⁹⁶. Juan Carrascoren hitzetan, «tolerantziaren eta babestuei emandako tratua onduz, Nafarroako lurak babes-leku bihurtu ziren, bereziki, 1274. urtetik aurrera, Frantziako etxearen politika antisemitak juduen migrazio-aldiak eragin baitzituen bata bestearen atzetik⁹⁷».

Baina indarkeria judu nafarregana ere iritsi zen eta, 1276an, Felipe III. aren indar frantsesek Nabarrerria eraso eta suntsitu zuten, eta horrekin batera, Iruñeko aljama. Nabarrerria suntsitu eta handik urtebetera, Frantziako erregeak, Nafarroako erregearen tutore zen aldetik, zera agindu zuen, Nuño Gonzalezi dirua edo jan-edanak lukurreriaz mailegatu zizkietenek printzipala kobratzearekin konformatu beharko zutelara eta Lizarrako juduek zortzi urteko epea eman behar zutelara zordunei zorra ordaintzeko, urtean zortziren bat kobratuta. Ildo beretik, 1278. urtean, juduek Murillo el Fruto eta Cabanillas herrietako herritarrei jartzen zizkieten interesak muga zitezten agindu zuen, eta Araciel eta Corella herrietako herritarrek printzipala ordain ziezaietela juduei, ez interesak; eta juduek San Adrián eta Azagrako herritarrei hiru urteko epea eman ziezaieten agindu zuen, zorrak ordaintzeko⁹⁸. 1277. urtetik 1280. urtera bitarte, hainbat xedapen onartu ziren erresuman Lizarrako merindadeko erkidego juduetako pertsonak eta haien interesak babesteko, eta urtean zergetan ordaindu beharreko gehienekoa ezarri zen, hau da, 2.000 libera; 1280an, Tuterako juduek ez zituztelara Ribaforadako herritarrak molestatu agindu zuen erregeak, zor zizkieten interesengatik, eta Buñuelgo herritarrei kapitala baino ez kobratzeko. Ildo beretik, 1299. urtean, Nafarroako erregearen ezkontide Felipe I.ak Frantziako Luisen ordenantza erresuman bete zedin agindu zuen, baina ez zuen arrakastarik izan; ordenantzak zioen juduekin lukurreriaz hartutako betebeharrak barkatu egin behar zirela eta nahikoa zela kapitala itzultzearekin⁹⁹.

Baina neurriak neurri, juduen exodoak migrazio gehiago erakarri zituen Nafarroara 1292tik 1306ra bitarte kontinenteko hainbat puntutan ezarritako

⁹⁶ CARRASCO, J., Las primeras migraciones judías en el reino de Navarra (1076-1328), *op. cit.*, 25. or.

⁹⁷ CARRASCO, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 58. or.

⁹⁸ 1256. urtean, maileguak ez ordaintzeagatik juduek eskuratutako ondasunez jabetzeko ahalmena eman zion Alejandro IV.a Aita Santuak Tibalt II.a erregeari, jabeai itzultzeko edo erabilera elizkoietarako; eta 1330. urtean, Felipe III.a erregeak maileguak gehienez % 20ko interesarekin egiteko mugak ezarri zituen foruen hobekuntzan, baina agindu horrek ez zituen eragin legegileak bilatzen zituen ondorioak, koroak berak ere agindua saihestu behar izan baitzuen. Ikus YANUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 502. eta 516. or.

⁹⁹ *Ibidem.*, 517. or. 1277 eta 1280 artean, hainbat xedapen onartu ziren erresuman Lizarrako merindadeko erkidego juduetako pertsonak eta haien interesak babesteko, eta urtean zergetan ordaindu beharreko gehienekoa ezarri zen, hau da, 2.000 libera.

neurri antisemiten ondorioz: jabetzak sistematikoki espoliatzea, atxiloketak, zerga bereziak eta konfiskatzeak; azkenean, Felipe IV.ak kanporatzea agindu zuen 1306an, eta Frantziako, Languedoceko eta Borgoñako juduak seigarren aldiz kanporatu zituzten 1322. urtean. Horren ondorioz, Joana II.a Evreuxkoaren erreinaldian (1329-1349), juduen beste migrazio-aldi bat gertatu zen Nafarroarantz, eta Tuteran eta Lizarran hartu zituzten erbesterratu gehienak, guztizkoaren % 65. XIV. mendearen hasieran, Lizarrako judutegia asko handitu zen eta erresumako hirugarrena zen zerga-ekarpenen arabera; ekonomiaren eta kulturaren arloko jardueren loraldia ere ekarri zuen¹⁰⁰.

Lizarrako juduak seneskalaren jurisdikziopean zeuden; seneskalak hainbat judu preso hartu zituen 1308an, eta juduen komunitateak protesta egin zion Luis Hutin erregeari. Kausa entzun ostean, erregeak zera agindu zuen, Lizarrako seneskalak utz zezala jurisdikzio hura Iruñekoaren esku, judutegiko giltzekin batera, eta presoak aske utz zitzala. Aldi berean, erregeak juduen interesak eta ondasunak defendatzeko agindu zion Iruñeko seneskalari. 1326. urtean, Lizarrako juduak Juan Gartzea hartzailea auzitara eraman zuten berriro 50 sueldo egunean eskatu zizkielako «denbora luzez» erregeari zor zizkioten petxak kobratzeko, horrek zerga-karga areagotu egiten baitzuen. Kausa entzun ostean, Juan Gartzeak erkidego juduaren petxaren hartzaile izateari uko egin behar izan zion, eta erkidegoko bailea bera hasi zen petxa administratzen, lehen egiten zen bezala¹⁰¹.

1320ko udaberritik aurrera, «pastorelloen» mugimenduak ikara eragin zuen Europako hainbat tokitako aljama juduetan. Yanguas y Miranda autoreak esan zuenez, Lizarrako kristauak suminduta zeuden koroak juduei ematen zien babesarengatik, «haien inbidiaz baitzeuden, haien aberastasunak zirela eta¹⁰²». 1328ko otsailaren batean Karlos I.a Burusoila hil zela baliaturik, mugimendu antisemitak piztu ziren Nafarroan, eta Lizarrako judu asko erail zituzten martxoaren 5etik 6rako gauean, kristauen olde batek, San Frantzisko komentuko Pedro Ollogoien fraideak zirikatuta, judutegia eraso zuenean¹⁰³. Sarraskia gertatu ondoren, erresumak justizia egin zuen, hau da, zigor-epaia betearazi zuen eta isun zorrotzak ezarri zizkien partikularrei, baita zenbait kontzejuri ere, haietako herritarren batek lintxamenduan parte hartu zutelako, baina egia esan, kausa guztiz zaila izan zen, jende asko zegoelako aipatutako krimenean inplikaturik eta

¹⁰⁰ CARRASCO, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, op. cit., 74. or.

¹⁰¹ YANQUAS Y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, op. cit., 517. or.

¹⁰² *Ibidem*.

¹⁰³ GOÑI GAZTAMBIDE, J., La matanza de judíos en Navarra, en 1328, *Hispania Sacra*, 12, 1959, 5-33 or.

auzitegien epaiean¹⁰⁴. Fray Pedro Ollogoien Lizarran hartu zuten atxilo erregearen ofizialek, eta Iruñeko apezpikuaren esku utzi zuten¹⁰⁵. 1329ko gertakarietan parte hartzeagatik epaitu eta heriotza-zigorra ezarri zioten, baina elizako agintariek zigorra barkatu zioten geroago. Isun partikularrez gain, erregeak beste isun bat ere jarri zien Lizarrako herritarrei, oro har: 10.000 libera, hamar urtean ordaintzeko; halaber, ohiturari jarraikiz, oinordekorik gabe hildako juduen jabetzak erregeak jaso zituen oinordetzan.

Sarraskiak eragin handia izan zuen arren, soilik urtebete geroago, bereziki, Lizarrako eta, oro har, Nafarroako komunitate judua berriro ere goraldia bizitzen hasi zen eta, 1329. urtean, Lizarrako juduek 1.600 liberako laguntza eman zioten erregearen diru-kutzari¹⁰⁶. Nafarroako errege-erregina berriek juduekiko zuten politika babes-politika izan zen orduan ere, 1330. urtean aldarrikatu zen Nafarroako foru orokorraren hobekuntzan, gutxiengo sozial, erlijioso eta kultural horri monarkiaren aldetik eman zitzaion tratamenduan ikus zitekeenez. Hasieran, Tuteran izan zen erbesteratutako judu gehienen jomuga, baina 1334tik aurrera –Henrike Sullykoa gobernadore zela–, Tuteran, Lizarran eta Zangozan metatu ziren deserriratutako juduen % 64, eta esan behar da Estellerriko sei herrietan hogeita hamasei familia edo guztizkoaren ia % 34 hartu zituztela¹⁰⁷. Aldi berean, Nafarroako gobernadore Salhadin Angleurakoak 1277. urtean suntsitutako Nabarrieriako judutegia berreraiki zedin agindu zuen 1336an. Judutegi berriak harresia izan behar zuen eta, babeste aldera, judu guztien etxeak toki horretan eraikitzeko agindu zuen, ezin zuten hiriko beste inon eraiki etxerik¹⁰⁸.

1331ko, 1340ko eta 1361eko gorteetan neurri antisemitak hartu zituzten Portugalen: hamar familia judu baino gehiago bizi ziren herrietan ghettoak sortzeko agindu zuten¹⁰⁹ eta 1355. urtean eta 1366-1369 aldian Henrike Trastamarakoaren tropek Gaztelako lehen gerra zibilaren testuinguruan egindako bidegabekeriak zirela eta, Nafarroa harrera-lurralde bihurtu zen berriro ere, eta erresumak juduen interesak babesten jarraitu zuen¹¹⁰. 1370. urtean, Joana I.a erreginak zera

¹⁰⁴ MENDOZA, F., Con los judíos de Estella, *Revista Príncipe de Viana*, 44-45, 1951, 261. or.

¹⁰⁵ GOÑI GAZTAMBIDE, J., *Historia Eclesiástica de Estella*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, Hezuntza, Kultura eta Kirol Departamentua, 1990, 2. lib., 85. or.

¹⁰⁶ CARRASCO, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 77. or.

¹⁰⁷ *Ibid.*, 69. or.

¹⁰⁸ YANGUAS Y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 518. or.

¹⁰⁹ PIMENTA, M. J., *Los judíos en Portugal*, Madril: Mapfre, 1992, 72. eta 110. or.

¹¹⁰ PÉREZ, J., *Los judíos en España*, Madril: Marcial Pons, 2005, 121-123 or. Ikus, halaber, LEROY, B., Recherches sur les juifs de Navarre à la fin du Moyen Age, *Revue des études juives*, 140, 1981, 319-432 or.

agindu zuen, Calahorratik eta Gaztelatik Nafarroara erbesteratzen ziren juduak babestu egin behar zirela; horretarako, bakoitzak buru eta besoko urtean bi florineko ekarpena egin behar zuen eta aberats eta txiroek ordaindu behar zuten. Horretaz gain, «erresumako aljamak ekarpenak egitera ez behartzeko» agindu zuen, «ardoaren eta haragiaren sisan izan ezik, ez eta beste juduak ere; eta ezin izango zitzaizkien eskumikua eta aztama leporatu¹¹¹». Gainera, gehiegikeriarik izan ez zedin, kristau edo musulmanek juduei onibarrak erostea debekatu zitzaizen, erregearen baimenik gabe. 1366an, Lizarrako judutegian 85 su zeuden, hau da, Estellerriko aljamako populazioaren % 10 eta hiriko populazioaren ia % 11 osatzen zuten. Merindadeko juduen zerga-biltzailea Jeuda Levi zen garai hartan¹¹². 1375ean, Lizarrako juduen aljama erresumako hirugarrena zen orduan ere, errege-zergetan egiten zuen ekarpenaren arabera¹¹³. Nazioartean juduen gaineko presioa handia izaki, judu askok jabetza higigarriak saldu egin zituzten errazago mugitu ahal izateko eta, beraz, 1380. urtean, Karlos II.ak zerga berria ezarri zuen: juduek kristau edo musulmanei saltzen zieten onibar guztietan liberra bakoitzeko 5 sueldo¹¹⁴.

Gaztelako eta Aragoiko erresumetan sarraskia izan zen 1391n, eta Karlos IV.a Frantziakoak zazpigarren kanporatze-ediktua eman zuen 1394. urtean; horren arabera, erkidego juduek 45 eguneko epea zuten jabetzak saldu eta erbestera abiatzeko. Beraz, migrazio-aldi gehiago egon ziren Nafarroara¹¹⁵. 1386an, Karlos II.ak Tuterako juduei petxagatik zor zituzten 431 libera barkatu zizkien, «haien txirotasunagatik, izan ere, iraganean 500 petxero egoten ziren, baina orain 200 baino ez ziren geratzen¹¹⁶». Karlos III.ak berriro ere 120 libera barkatu zizkion Tuterako aljamari, ekarpen arruntetik, sinagoga nagusia konpondu ahal izan zezaten, egoera txarrean zegoelako; eta 1435. urtean, erregeak petxa arruntetik 342 libera barkatu zizkien berriro¹¹⁷. 1469an, Iruñeko aljamatik kanpo bizi ziren juduak berriro ere aljama barrura itzul zitezten agindu zen, eta erregearen ondare ziren etxeak konpon zitzaizkizela; 1482. urtean, Tafallako gorteeek onartutako ordenantza baten bitartez, juduek ezin zuten aljamatik irten

¹¹¹ YANUAS Y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra, op. cit.*, 518. or.

¹¹² LEROY, B., *The Jews of Navarre in the late Middle Ages*, Magnes Press, Hebrew University, 1985, 94. & 119. or.

¹¹³ Tuterako judutegiak 521 florin, 7 sueldo eta 2 diru ordaintzen zizkion petxengatik erregeari; Iruñekoak 261 florin, 14 sueldo eta 11 diru; eta Lizarrakoak 119 florin eta 9 diru.

¹¹⁴ YANUAS Y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra, op. cit.*, 519. or.

¹¹⁵ LEROY, B., *Le royaume de Navarre et les juifs aux XIV et XV siècles: entre l'accueil et la tolérance*, *Sefarad* 38 (1978), 263-292 or.

¹¹⁶ YANUAS Y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra, op. cit.*, 519. or.

¹¹⁷ *Ibidem.*, 519. or.

jai-egunetan, eta ezin zuten kalean ibili, kristauen artean, elizkizunak bukatu baino lehen¹¹⁸.

Dena den, Nafarroako judutegiaren harrera-eginkizuna murrizten hasi zen XV. mendearen bigarren erditik aurrera, Errege-erregina Katolikoaren presioaren eraginez¹¹⁹. 1492an, Gaztelatik eta Aragoitik kanporatutako juduak Lizarran, Tafallan eta Tuteran hartu zituzten, baina 1498. urtean, erresuma horietatik kanporatu zirenetik sei urte igaro zirelarik, Katalina Nafarroakoak amore eman behar izan zuen, eskumiku-mehatxuaren aurrean¹²⁰. Nafarroa konkistatzeko gerran, kristautuak Nafarroako errege-erreginen kausa legitimoari lagundu zioten eta, horregatik, 1521ean jatorri judua zuten herritarren aurkako zigorrak ezarri ziren. Konkista gauzatu zenetik urte asko igaro zirelarik, 1561ean Tuterako hainbat herritarrek zera eskatzen zuten oraindik, «ofizio publikoak eta onurak lortzeko debekua ez zedila zabaldu kristau berrien etorkizuneko belaunaldietara¹²¹». Kristaututako familiak eta «kristau zaharrak» bereizte aldera, kristaututako juduen izenak «manta» handietan grabatzeko agindu zuten, eta elizetan zintzilikatzen zituzten, jendeak ikusteko. Tuterakoa katedraleko Barkamenaren Kristoaren kapera zintzilikatu zuten, eta luzeenetako bat zen, ia berrehun izen baitzituen idatzita¹²². Eta «desohorea familietan betikotu zedin», Tuterako udalak 1610. urtean zera azaldu zuen, «mantan izen horiek idatzita egotearen arrazoia da garbitasunak irautea hirian eta beste toki batzuetan, eta haien ondorengo direnak bereizten jakitearren, denborarekin arbasoen memoria ilundu eta itzali ez dadin eta pertsona nobleen kalitatea ezagutarazi eta bereizi ahal izateko¹²³». Nafarroako eliza askotan zeuden ikusgai manta horiek XVIII. mendearen amaieran, eta Tuterako manta XIX. mendearen bukaerara arte egon zen¹²⁴.

Nafarroako populazio juduaren jarduerari eta interesei buruzko xedape-nei dagokienez, aurrekari berrienetako bat da Naiarako forua; izan ere, honako hauei zuzenduta dago: handizurenei, apaiz eta monjeei, judu eta mairuei, burgesei, plebeio eta hiritarrei, eta Naiarako herritarrei. Foru horren arabera,

¹¹⁸ *Ibidem*, 520. or.

¹¹⁹ CARRASCO, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 34. or.

¹²⁰ CIERBIDE, R., Las comunidades judaicas navarras en la Edad Media, *op. cit.*, 241. or. Ikus, halaber, GAMPEL, B. R., *The last Jews on Iberian Soil: Navarrese Jewry 1479/1498*, Berkeley: University of California Press, 1989.

¹²¹ YANGUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 523. or.

¹²² Gaztelaniazko «tirar de la manta» esapidea hortik dator. CARO BAROJA, J., *Los judíos en la España moderna y contemporánea*, Madril: Istmo, 1978, 38. or.

¹²³ MARICHALAR, A. eta MANRIQUE, C., *Historia de la legislación y recitaciones del derecho civil de España*, *op. cit.*, 365. or.

¹²⁴ YANGUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, *op. cit.*, 525. or.

handizuren, monje edo judu bat hiltzea 250 sueldoko isunarekin zigortzen zen, hiritar bat hiltzeagatik 100 sueldo ordaintzen ziren eta musulman bat hiltzeagatik, berriz, 12,5 sueldo. Foruan, kristauak eta juduak maila berean jartzen ziren, alderdi askotan. XI. mendearen amaieran estatutu bat eman zitzaien eta, horren arabera, onibarrak saldu eta erosi zitzaizketen judutegiaren barruan, lezda ordaintzeaz salbuetsita zeuden, errege-merioa zuten epaile helegiteetan eta juduen auzoko harresiak defendatzeaz arduratzen ziren. Alfontso I.ak Naiarako forua eman zien Tuterako musulmanei hiria 1119. urtean konkistatu zuenean. Foru horri jarraikiz, «beren alkatearen eta aguazilen esku egon daitezela auzi eta epaiketetan, mairuen garaian bezala¹²⁵». Musulmanek beren alkateak izendatzeko eta «ohoretan izateko» eskubidea zuten, «mairuen garaian bezala, ohoragarriki, alegia». Musulman batek auzia izaten bazuen kristau batekin, alkate musulmanak Sunnah-ren arabera epaituko zuen musulmana, eta alkate kristauak foruaren arabera kristaua; eta bakoitzak bere sinesbidearen eta ohituren arabera egin behar zuen zina¹²⁶. Gainera, foruan xedatzen zenez, musulman batek delitua egin izanaren susmoa izanez gero, beste musulman baten lekukotzak soilik balioko zuen, eta ez lekuko kristauenak¹²⁷.

Ondorio gisa, Lizarrako foruan emakumearen figurak izan duen tratamendu juridikoa nabarmendu behar dugu, garai hartako edo lehenagoko foruetan ez baita ohikoa horrelakorik ikustea, ez lege-esparru berezi horri buruzko artikuluko kopuru handiarengatik, ezta lege-aginduak sintetizatu eta idatziz jaso ziren zehaztasun handiagatik ere. Beste horrenbeste esan liteke txiroen aipamenari dagokionez, betiere gerra judizial baten testuinguruan, edo adingabeen interesak babesteari dagokionez, oso konplexua eta osatua baita. Oso ezohikoa da, halaber, alargunen eta behartsuen kasuistika, baita pobrezian dauden adingabeekin lotutako kasuak ere, betiere adingabea izateagatik tutoretzapean egotearen testuinguruan.

1077. urtea baino lehenagoko foru originala eta 1164ko haren handitzea dira, zalantzarik gabe, San Martingo hasierako burguak izan zuen arrakastaren –populazioari eta demografiari dagokienez– faktore garrantzitsuenetako bi; izan ere, 150 urte eskasean, hamabost aldiz biderkatu zen: XI. mendearen amaieran 78 su ziren eta, 1266. urterako, 1.127 su zituen hiria izatera iritsi zen, 17 ba-

¹²⁵ GARCÍA GALLO, A., *Metodología histórico-jurídica. Antología de fuentes del derecho español*, Artes Gráficas, 1975, 540. or.

¹²⁶ *Ibid.*, 541. or.

¹²⁷ Beste aurrekari batzuk: Alfontso I.a Aragoikoak 1131 inguruan emandako Calatayudeko forua, non judu baten hilketa agerikoa 300 solidorekin zigortzen baitzen; gainera, juduek beren legearen gainean zin egin zezaketela xedatzen zen. 1148. urteko Lermako hiri-gutuna; haren arabera, handizurenek eta juduek Lermako hiritarren foru bera baliatzen zuten.

rrutitan banatuta. Zalantzarik gabe, faktore sozio-ekonomiko eta politikoez ere eragin erabakigarria izan zuten hazkunde horretan, baina forua izan zen hazkundearen oinarria eta, foruaren garapenari esker, hazkunde hori modu iraungarrian egin zen, batik bat, biztanle berriak erakarri eta horiei eutsi egin zuelako eta biztanle guztientzako egokiak ziren lege-bermeen esparru egonkorra ezartzea lortu zuelako, klase-bereizketarik gabe.

Lizarrako juduen egoerari dagokionez, hiriko legeak eta koroak segurtasun-maila handia eman zien, eta Europako beste toki askotan zuten segurtasun faltarekin alderatu ere ezin zen egin. Kasu horretan ere, foruaren ezaugarriak kontuan izanik, eta koroak erkidego juduaren interesak defendatu zituela aintzat hartuta, Lizarrako hiria, bereziki, eta Nafarroako erresuma, orokorrean, jomuga izan ziren erbesteratutako judu askorentzat XI. mendetik XIV. mendera bitarte.

BIBLIOGRAFIA

- ARRAIZA, Jesús, Los fuegos de la merindad de Estella en 1427, *Príncipe de Viana*, 29, 110-111 (1968), 117-147. or.
- ARRECHEA, Horacio, Algunas correspondencias sobre el fuero de Estella y el fuero de Tudela. En *Segundo Congreso General de Historia de Navarra. 2. Prehistoria, Historia Antigua, Historia Medieval*, Anejo 14 de la Revista Príncipe de Viana, Iruñea/Pamplona, 1992, 315-324. or.
- BARRERO, Ana María y ALONSO, Mari Luz, *Textos de derecho local español en la Edad Media. Catálogo de fueros y costums municipales*, Madril: Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena - Zientzia Juridikoen Institutuan, 1989.
- BEROIZ, Marcelino, *Crimen y castigo en Navarra bajo el reinado de los primeros Evreux (1328-1349)*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2005.
- Boletín de la Real Academia de la Historia, Madril: Real Academia de la Historia, 1891, 19. bol.
- BOLTON, Brenda eta STUARD, Susan M., *Women in Medieval Society*, Philadelphia: University of Pennsylvania Press, 1976.
- CARO BAROJA, Julio, *Los judíos en la España moderna y contemporánea*, Madril: Istmo, 1978.
- CARRASCO, Juan, Las primeras migraciones judías en el reino de Navarra (1076-1328). Miranda García, Fermín (koord.), *Movimientos migratorios y expulsiones en la diáspora occidental. Terceros encuentros judaicos de Tudela: 14-17 de julio de 1998* lanean, Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Gobernuako Argitalpen Zerbitzua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua, 2000

- La población de Navarra en el siglo XIV*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea, 1973.
- Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, Iruñea: Vianako Printzea Institutuzioa, 1993.
- CIERBIDE, Ricardo, Las comunidades judaicas navarras en la Edad Media. *Los Judíos lanean*, Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, 1992.
- Coloquio Mujeres de la Edad Media: escritura, visión, ciencia: Escritura, visión, ciencia. A novecientos años del nacimiento de Hildegard von Bingen*, Santiago de Chile: Txileko Unibertsitatea. Filosofía eta Humanitateen Fakultatea, 1999.
- Estudios de arqueología alavesa*, Arabako Foru Aldundia, Kultura Kontseilua, 1974, 6. bol.
- FERNÁNDEZ, Silvia eta RODA, P. (ed.), *Ellas, las mujeres en la historia de Pamplona*, Iruñea: Emakumearen Zinegotzigoa, 1998.
- FLÓREZ, Henrique, *España Sagrada: Theatro geographico-historico de la Iglesia de España. Historia Compostelana*, Madril: Antonio Marín en bule-goan, 1754.
- FORTÚN, Luis Javier, Los ‘fueros menores’ y el señorío realengo en Navarra (siglos XI-XIV), *Príncipe de Viana*, 46. bol., 176. zbk. (1985), 603-673.or.
- Fuero General de Navarra*, Iruñea: Aranzadi, 1964.
- Fueros del Reyno de Navarra*, Iruñea: Martín Gregorio de Zabalaren inprenta, 1686.
- Fueros del Reyno de Navarra*, Iruñea: Longas, 1815.
- GAMPEL, B. R., *The last Jews on Iberian Soil: Navarrese Jewry 1479/1498*, Berkeley: University of California Press, 1989.
- GARCÍA ARANCÓN, M^a Raquel, La población e Navarra en la segunda mitad del siglo XIII, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 17. urtea, 46. zbk. (1985), 87-101. or.
- GARCÍA GALLO, Alfonso, *Metodología histórico-jurídica. Antología de fuentes del derecho español*, Artes Gráficas, 1975.
- Manual de historia del derecho español. El origen y la evolución del derecho*, Madril: edición del autor, 1984.
- GOÑI GAZTAMBIDE, José, *Historia Eclesiástica de Estella*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza, Kultura eta Kirola Departamentua, 1990.
- La matanza de judíos en Navarra, en 1328, *Hispania Sacra*, 12 (1959), 5-33.or.
- IRUJO, Xabier, Sobre la datación y naturaleza del fuero de Estella, *Terra Ste-llae*, 7 (2016), 38-55. or.

JIMENO, Roldán, *Matrimonio y otras uniones afines en el derecho histórico navarro (siglos VIII XVIII)*, Madrid: Dykinson, 2015.

-El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005), 45-83. or.

LACARRA, José M^a, *Notas para la formación de las familias de Fueros navarros*, Tipografía de la Revista de Archivos. Biblioteca Virtual de Derecho Aragonés, 1933.

LACARRA, José M^a eta MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Fueros derivados de Jaca. Vol. 1, Estella; San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako printzea Institutuzioa, 1969.

LEROY, Beatrice, Le royaume de Navarre et les juifs aux XIV et XV siècles: entre l'accueil et la tolérance, *Sefarad*, 38 (1978), 263-292. or.

-Recherches sur les juifs de Navarre à la fin du Moyen Age, *Revue des études juives*, 140 (1981), 319-432. or.

Leroy, Béatrice, *The Jews of Navarre in the late Middle Ages*, Magnes Press, Hebrew University, 1985.

Los fors et costumas deu Royaumme de Navarre deca-ports, Pau: Jérôme Duproux, 1722.

MARICHALAR, Amalio eta MANRIQUE, Cayetano, *Historia de la legislación y recitaciones del derecho civil de España*, Madrid: Imprenta nacionala, 1862.

MARTÍN DUQUE, Ángel J., La formación del primer 'burgo' navarro. Estella, *Revista Príncipe de Viana*, 51. bol, 190. zbk. (1990), 765. or.

MENDOZA, Fernando, Con los judíos de Estella, *Príncipe de Viana*, 44-45 (1951), 235-271. or.

MONTEANO, Peio, Navarra de 1366 a 1428: Población y poblamiento, *Príncipe de Viana*, 57. urtea, 208. zbk. (1996), 307-344. or.

MORET, Josep, *Anales del Reino de Navarra*, Tolosa: Establecimiento Tipográfico y Casa Editorial de Eusebio López, 1891.

MUÑOZ y ROMERO, Tomás, *Colección de fueros municipales y cartas pueblas de los reinos de Castilla, León, Corona de Aragón y Navarra*, Madrid: Don José María Alonsoren imprenta, 1847.

OSÉS URRICELQUI, Merche (ed.), *Documentación medieval de Estella: siglos XII-XVI*, Iruñea: Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo Departamentua – Vianako Printzea Institutuzioa, 2005.

PECES-BARBA, Gregorio, LLAMAS, Ángel eta FERNÁNDEZ, Carlos R. (ed.), *Textos básicos de derechos humanos con estudios generales y especia-*

- les y comentarios a cada texto nacional e internacional*, Editorial Aranzadi, Elcano, 2001.
- PÉREZ, Joseph, *Los judíos en España*, Madril: Marcial Pons, 2005.
- PIMENTA, María José, *Los judíos en Portugal*, Madril: Mapfre, 1992.
- RODRÍGUEZ OCHOA, José M^a, *Menahem Ben Zerah, Rabino Estellés (1310-1385). Aproximación a una cultura que floreció en Sefarad*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2011.
- RODRÍGUEZ, Justiniano (ed.), *Los fueros del Reino de León: Documentos*, León, Leonesas, Ediciones S. A., 1981.
- SALARRULLANA, José, *Colección de documentos para el estudio de la historia de Aragón*, Zaragoza: M. Escar, 1907.
- SATRUSTEGI, José M^a, *Comportamiento sexual de los vascos*, Donostia: Txertoa, 1981.
- YANGUAS y MIRANDA, José, *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra*, Iruñea, 1840.
- Diccionarios de los Fueros del Reino de Navarra*, Donostia: Ignacio Ramón Barojaren inprenta, 1828.
- ZORRILLA, Pedro E., *Índice cronológico de los documentos y papeles antiguos existentes en el archivo municipal de la ciudad de Estella, pertenecientes á los siglos XII á XVIII, ambos inclusive, formado por el que suscribe, en el año de 1911*, Lizarra, 1911.

Gutxiengo judua Lizarrako foruan

Amaia ÁLVAREZ BERASTEGI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Aurkibidea

I. SARRERA. II. LIZARRAKO ALJAMA. 1. Lizarrako aljamaren oinarizko ezaugarriak. 2. Aljamaren autonomia judiziala. 3. Lizarrako aljamaren krisia. III. JUDUEN ERREGULAZIO JURIDIKOA LIZARRAKO FORUAN. 1. Juduak Lizarrako foruan: alderdi orokorrak. 2. Juduen zina. 3. Maileguen erregulazioa. IV. ONDORIOAK. V. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Europako IX. eta X. mendeetako gerrak eta krisi ekonomikoa zirela eta, diaspora-tradizioari eutsirik, hainbat juduk migratzea erabaki zuten segurtasunaren eta oparotasunaren bila. Nahiz eta balitekeen Nafarroako lehen sinagoga Iruñean sortua izatea, 905 aldera, lehenengo judu-auzoak Erriberan ezarri ziren, islamaren itzalpean. Iruñeko erresuman, beste hainbat erresuma kristautan bezala, juduen presentzia lege- eta zilegitasun-irizpideetan oinarrituta onartzen zen, eta erregeren babesak ahalbidetzen zuen hori. Juduak, zuzenbide mugatuko erkidego berezi gisa, erregeen babesean eta gerizpean geratu ziren, eta zuzeneko pribilegioak jaso zituzten monarkiaren eskutik¹.

Iruñeko Antso Nagusiaren erregealdian Donejakue bideari emandako bul-tzadari esker, asko handitu zen erromesen joan-etorria, eta Nafarroa-Aragoiko erregeen agintaldietan, plangintza jakin baten arabera sortu ziren burguetako biztanle berriz eratutako hiriguneak². XI. mendeko azken hereneko migrazio-mugimenduak zirela eta, Iruñeko Erresuman hiribilduak eta burgoak sortzen

¹ SUÁREZ BILBAO, F., La comunidad judía y los procedimientos judiciales en la Baja Edad Media, *Cuadernos de Historia del Derecho*, 2 (1995), 100.

² FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J., Fueros locales de Navarra, *Príncipe de Viana*, 68, 242 (2007), 869-870. Jakako forua –Lizarrako edota Iruñeko aldaeran– eduki ez zuen Donejakue bideko hiribildu on bakarra Los Arcos izan zen, zeinak 1176an bere foru propioa jaso baitzuen Antso VI.aren eskutik. Foruaren xedea, batez ere, biztanleak erakartzea zen, hala frankoak nola handizuren eta nekazariak.

joan ziren eta horiekin batera judutar asko ere iritsi ziren. Hortaz, bi gertakari horiek (judutarren migrazioak eta burgoak eratzeko prozesua) batera eman ziren, eta biek eragin zuten erreinuaren hazkunde ekonomikoan³. Diruan oinarritutako ekonomia berria erakarpen indartsua izan zen juduentzat⁴, kontuan izan behar baita pribilegiatuak zirela beren ahalmen ekonomikoagatik eta, batez ere, Koroari egiten zizkioten ekarpenengatik.⁵ Nahiz eta, erregeen ikuspegitik, lurraldeen gobernurako eta administraziorako kolaboratzaile eraginkorrak izan, kristau gizartea, europar antisemitismoaren eraginpean, juduen kontrako pentsamoldea eratuz joan zen, zeina pulpituetatik elikatzen baitzen: beste alde negatibo askoren artean, Jesusen heriotzaren erantzule egiten zituen Elizak⁶.

Lizarra 1076-1077. aldera sortu zen, bere udal-foruaren eskutik. Aurretik Lizarran jendea bizi bazen ere, hain zuzen, Lizarra edo Lizarrara izeneko gazteluaren inguruan, hasierako populazio-gune hura XI. mendearen bigarren erdian eraldatu eta bihurtu zen hirigune. Hiribilduaren bilakaera Donejakue bidetako merkataritza-jarduerari eta haren inguruan sortutako azokei lotua egon zen. Hasieran San Martin auzoaren inguruan eratu zen, eta kokagune pribilegiatua bihurtu zen Jahveh gurtzen zuten merkataria eta mailegu-emaileak erakartzeko. Biztanle juduen presentzia frogatuta dago XI. mendearen azken herenetik aurrera⁷, eta denbora asko baino lehen, Lizarrako aljama, erregeak babestutako bi judutegirekin, erresumako garrantzitsuenetakoa bihurtu zen, hori bai, beti Tuterakoaren atzetik⁸.

Baina ez zen monarkia gutxiengo juduaren babesle bakarra; tokiko foruak zenbait eskubide aitortzen zizkien, eta, biztanle frankoen eskubideen mailara inoiz iritsi ez baziren ere –salbuespen fiskal handiagoak zituzten frankoek–⁹,

³ CIERBIDE MARTINENA, R., La lengua de los francos de Estella: intento de interpretación, *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 3 (1999), 115. MARTÍN DUQUE, Á. J., La fundación del primer burgo navarro: Estella, *Príncipe de Viana*, 63, 227 (2002), 317-328.

⁴ Nafarroako juduei buruzko dokumentazioa luze eta zabal jaso zen hurrengo liburu honetan: CARRASCO, J., MIRANDA GARCÍA, F. eta RAMÍREZ VAQUERO, E., *Los judíos del reino de Navarra. Documentos 1093-1333*, Nafarroako Gobernua, 1994.

⁵ MIRANDA GARCÍA, F., El precio de la fe. Rentas de la corona y aljamas judías en Navarra (siglos XII-XIV), *Príncipe de Viana* 58, 210, (1997), 51.

⁶ HINOJOSA MONTALVO, J. R., Los judíos de la España medieval: de la tolerancia a la expulsión, *Los marginados en el mundo medieval y moderno*. Almería, 1998ko azaroaren 5etik 7ra, 2000, 27.

⁷ CARRASCO, J., Juderías y Sinagogas en el reino de Navarra, *Príncipe de Viana* 63, 225 (2002), 115.

⁸ SOLA ALAYETO, A. eta ROS ZUASTI, T., *Estella, posta y mercado en la Ruta Jacobea*. Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1992, 8.

⁹ JIMENO ARANGUREN, R., El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005), 63.

hainbat alderditan antzeko eskubideak izan zituzten¹⁰. Bai foru laburraren emakida (1076-1077) eta bai foru luzearen berrespena (1164) juduen loraldi edo oparotasun aro batean gertatu ziren –hala Europan, nola Nafarroan–, horregatik izan ziren hain eskuzabalak mende horietako foruetan jasotako babes-neurriak. Hala ere, XIII. mendetik aurrerako antisemitismoa zela eta –aita santuak gero eta begi txarragoz ikusten zituelako eta beste hainbat arrazoirengatik– haien eskubideak murrizten hasi ziren, gero etorriko ziren legeetan ikusi zen bezala, nahiz eta ez zen hori izan Tibalt I.ak bultzatutako erreforma-proiektuaren kasua¹¹.

Juduekin zerikusia duten zenbait alderdiren inguruko arautegi juridikoa XI. mendetik aurrera Nafarroan emandako beste udal-foru batzuetan ere agertzen da. Arau haien xedea udalerrri eratu berri haietako biztanleei zenbait pribilegio eta eskubide ematea zen. Jakina den bezala, talde homogeen bat eratu ordez, forupeko herri haiek zenbait kolektiboz osatuta zeuden: frankoak, nafarrak, juduak eta mairuak –azken horiek Erriberan bakarrik–; beraz, tokiko foruetan lege batzuk ezarri ziren taldeen arteko harremanak arautzeko xedez. Beren ohiko jarduera maileguak ematea izaten zenez, juduen kasuan, tokiko foruek bereziki arautu zituzten erkidego horren eta gainerako kolektiboen arteko harreman ekonomikoak. Hala jaso zuen Lizarrako foruak ere, zeinak, frankoentzat egindako forua izan arren, Lizarran bizi ziren gizarte-multzoen arteko harremanak erregulatzeko arauak ezarri baitzituen.

Lan honetan, juduen erkidegoak XI. eta XII. mendeetan Lizarrako foruarekin izandako erlazioaren analisisan zentratuko gara. Lehenengo zatian Lizarrako aljamaren ezaugarri nagusiak aztertu ondoren, bigarrenean Lizarrako foruan berariaz juduen kolektiboarentzat diren arauak aztertuko ditugu.

II. LIZARRAKO ALJAMA

1. Lizarrako aljamaren oinarrizko ezaugarriak

Juduak aljama edo juduen auzo autonomoetan antolatuta zeuden, baina hirigune kristauean integratuta. Aljama zen herri bateko juduak biltzen zituen erakunde juridikoa, eta haietako bakoitzean sinagoga bat eta errabino bat ze-

¹⁰ IRUJO, X., *Giving Birth to Cosmopolis. The Code of Laws of Estella (c.1076)*. Santa Barbara: University of California, Basque Law Series, 1. zk. Barandiaran Basque Studies Chair, 2011, 113.

¹¹ Ziurrenik Tibalt I.aren erregealdian (1234-1253) 1164ko foruaren beste erredakzio bat prestatu zen, ukitu lexiko soil batzuetara mugatzen zena, baina ofizialki ez zen aldarrikatu. MARTÍN DUQUE, Á., El fenómeno urbano medieval en Navarra, in *El fenómeno urbano medieval entre el Cantábrico y el Duero: revisión historiográfica y propuestas de estudio*, Asociación de Jóvenes Historiadores de Cantabria. Jesús Ángel Solórzano Telecheak eta Beatriz Arízaga Bolumburuk koordinatutako lana, 2002, 737.

goen; dena den, haren gainetik, Nafarroako erresumako judu guztien errabino nagusia zegoen. Aljamak kontzeju bat bezala antolatuta zeuden, beren bedinarekin eta zinpekoekin; barne-araudiak zituzten (*takkanot*), eta haietan oinarrিতා antolatzen ziren eta epaitzen zuten. Aljama arduratzen zen errabinoak, sinagoga eta erakunde propioak eta kulturalak mantentzeaz; bai eta erkidegoko zergak biltzeaz ere. Aljama bakoitza burujabea zen, eta bere gobernurako estatutu propioak zituen; haiek, gero, erregeak eman edo berretsi behar zituen¹². Aljametako eskumen juridikoak behe justiziari zegozkien¹³, eta judutarren faltak isunen bitartez eta elkargotik kanporatzearekin (*herem*) zigortzen ziren. Aljamako gizarte-antolakuntzaren oinarrizko nukleoa familia zen, ezkontzan oinarrিতා eta araubide patriarkal zorrotzaren arabera antolatua zegoen¹⁴. Aljametan bizi ziren hebrear erkidegoek, beren gobernu eta petxa-biltzaile postuetako ardurak hartzeaz gainera, maileguak ematen zituzten eta merkataritzan edo lanbide espezializatuetan jarduten zuten: medikuntzan, adibidez¹⁵.

Kontuen erregistroak edota kalkulu estatistikoak egitea ahalbidetuko ligukeen beste iturririk ez dagoenez, ezinezkoa zaigu kalkulatzea zenbat judu bizi ziren Lizarrako aljaman forua eman zenean eta haren bertsio luzea berretsi zenean. Badakigu hurrengo aldirian, XIII. eta XIV. mendeetan, Nafarroako biztanleen % 7,5 zirela juduak, hau da, 1.500 familia inguru, guztira. Lizarrako judu-auzoa, erresumako bigarrena tamainaz, 150 familia biltzera iritsi zen, eta artean 85 familia zituen, 1328an izandako triskantzen ondoren¹⁶.

Lizarrako juduei buruzko lehenengo berariazko aipamenak foruaren zenbait apartatutan aurki badaitezke ere, handik laster, 1093an, beste agiri batek adierazten du jada kokatuta zeudela bai Lizarran eta bai jatorrizko Lizarrako gunean ere, eta zerga propioak egozten dizkie, erkidego gisa, bi tokietan (auziak, giza-hilketak, trukeak)¹⁷. Hiribilduan batez ere frankoak bizi ziren, baina biztanle juduak eta nafarrak ere kokatuta zeuden ordurako. XI. mendearen azkeneko, aljama eratuta zegoen, baita San Martingo burgua eta burgu Berria

¹² HINOJOSA MONTALVO, J. R., Los judíos de la España medieval, *op. cit.*, 36.

¹³ GARCÍA ARANCÓN, M. R., Marco jurídico y proyección social de las minorías navarras: judíos y mudéjares (siglos XII y XV), *Iura Vasconiae* 4, 2007.

¹⁴ CANTERA MONTENEGRO, E., La mujer judía en la España medieval. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie III, Historia medieval*, 2. lib., (1989), 38-39.

¹⁵ RAPOPORT, J., Los médicos judíos y su actividad en el reino de Navarra. 1349-1425, *Príncipe de Viana* 64, 229 (2003), 338. Nafarroako mediku juduak prestigio handiko profesionalak ziren, beren lankide kristauekin alderatuta, eta dokumentu batean horren aipamen espezifikoak egiten da.

¹⁶ MARTÍN DUQUE, Á., La formación del primer «burgo» navarro, *op. cit.*, 737.

¹⁷ LEGARDA SEMBROIZ, J. M., La judería Nueva de Estella. Intervención Arqueológica, 2008, *Trabajos de Arqueología de Navarra (TAN)* 21, (2009), 325.

ere; San Migelgo «hiribildu zaharra» eta San Joan eta Arenal auzoak ere bai¹⁸. Erkidego judua, Lizarran, frankoen burgua sortu eta eratu izanari esker hedatu zen, eta burgua haren loratzea, halaber, 1076-1077 aldera emandako foruarekin lotzen da.

Lizarrako hirigunea Goi Erdi Aroari zegokion azoka-hiri baten garape-nerako oso baldintza onetan sortu zen¹⁹. Garai hartan, Ega ertzeko hiriak hiru funtzio estrategiko betetzen zituen: defentsa funtzioa (gaztelua eta harresiak), Donejakue bidearekin lotutako erlijio-ostatu funtzioa eta zeukan merkatu garrantzitsuen arabera merkataritza-funtzioa²⁰. Nafarroa leku estrategikoan zegoen, merkataritzaren ikuspuntutik, erromesaldian zetorren jendearen joan-ertorriagatik, eta Lizarra, hain zuzen, bidegurutzean zegoen, bai Donejakue bideari eta bai beste merkataritza-bide batzuei zegokienez. Erresumaren ipar eta hegoko artzainak atzeritar merkatariekin –franko eta judu– elkartzen ziren Lizarrako merkatuetan²¹. Asteroko azoka printzipala frankoek kontrolatzen zuten, baina bazen eguneroko merkatua ere San Martin auzoan, eta beste azoka bat hiritik kanpo, San Migelen, Tibalt I.ak berretsi zuena²². Lizarrako merkatuak, izatez, Iruñekoekin eta Logroñokoekin lehiatzen ziren, bi hiriak, alde banatan, Lizarratik 40 kilometro ingurura daude. Xanpaina leinuak bultzada berezia eman zien merkatu-feriei eta merkataritza-jarduera gero eta handiagoak itsasorako irteera bilatu beharra ekarri zuen. Hain zuzen ere, helburu horrekin estutu zituzten harremanak Frantziako konderriekin, Baionarekin eta Donostiarekin, eta, hala, Donostiak 1180an beretu zuen Lizarrako forua²³.

Lizarrako merkataritza-jarduera oparoak, beraz, jada aurreratu dugun bezala, erremedio gabe erakarri zituen juduak eta, pixkanaka, erresumako almaja garrantzitsuenetako bat eratu zen, Tuterakoa eta Iruñekoa baino munta handiagokoa, zeren eta, Tuteran judu gehiago izan arren, Lizarrako aljamak proportzio handiagoko ekarpenak egiten zizkion erresumari zergen bitartez. Funesen eta Vianan ere eratu ziren aljamak, baina protagonismo txikiagoa izan zuten.

¹⁸ JIMENO JURÍO, J. M., Merindad de Estella. *I. Historia de Estella/Lizarra*. Lan osoak 33. zk. Iruñea: Pamiela, Udalbide eta Euskara Kultur Elkargoa, 2006, 170.

¹⁹ ALBERDI AGUIRREBEÑA, J. I., La actividad comercial en el espacio urbano medieval: el ejemplo de Estella, *Cuadernos de sección. Historia-Geografía* 21, Eusko Ikaskuntza (1993), 101-102.

²⁰ BIELZA DE ORY, V., Estella, estudio geográfico de una pequeña ciudad navarra, *Príncipe de Viana* 29, 110-111, (1968), 53.

²¹ MARTÍN DUQUE, Á., La formación del primer «burgo» navarro, *op. cit.*, 766.

²² SOLA ALAYETO, A. eta ROS ZUASTI, T., *Estella, posta y mercado en la Ruta Jacobea*, *op. cit.* 14.

²³ LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á., *Fueros derivados de Jaca. I. Estella-San Sebastián*. Iruñea: Foru Aldundia, 1969.

Lizarra edo Lizarrarako judutegi txikiaz gainera –hastapeneko judutegia, Lizarrako gazteluaren ondoko herrixkan–, hebrearrak beste bi judutegitan antolatu ziren, Elgazenako judutegi zaharrea eta berria, biak Zalatanbor gazteluaren, Talaiako gazteluaren, Beltxemer gazteluaren eta Hilobi Santuko portalearen artean kokatuak²⁴. Olgazenakoa edo judutegi zaharra erresumako lehenengoa eta antzinakoena izan zen, eta haren sorrera eta hazkundera Aragoi-erekiko leinu-batasunaren aroan gertatu zen (1076-1134)²⁵. Judutegi berria hegal aldapatsu batean zegoen, ekialdera begira kokatua, eta horren mugak harresi indartsu batzuen bidez zehaztu ziren. Ziurrenik, harresi horiek 1203ko Gaztelaren erasoaren eta 1276-1278 urteetan Belchemer gazteluaren lanen arteko epean eraiki ziren²⁶.

Juduek korporazio modura eta zenbateko orokor bat kotizatzen zuten²⁷; beraz, juduen erkidegoak gehiago ordaindu behar zuen zergatan, kristauek baino. Juduen ekarpen ekonomiko nagusia urteko zerga edo petxa zen. XIII. mendean azkenetan, aroaren oparotasuna eta Kapeto leinuaren aldeotasuna zirela eta, Lizarrako judutegiak gaina hartu zion Tuterakoari (880-900 libera artean) zerga-ahalmenari zegokionez²⁸. Lizarrako judutegia osatzen zutenek 1.500 libera baino gehiago ordaintzen zuten zergatan, eta hori koroaren guztizko diru-sarreraren ia ehuneko hamar zen²⁹. Lizarrako juduek, kristauekin alderatuta, lau-bat proportzioan ordaintzen zituzten zergatan; Tuteran eta Iruñean, berriz, juduen ekarpena diru-sarrearen erdira hurbiltzen zen³⁰.

Hasieran, Lizarrako aljama giltzaz itxita zegoen, harresiaren barruan eta erregeren babespean. De Mendozak azaldutakoaren arabera, XII. mendean Lizarrako aljama harresiz inguratuta zegoen, eta «etengabe hazten ari zen» uharte bat eratzen zuen³¹. XII. mendean erregeak behin baino gehiagotan babestu zituen judutarrak eta, are gehiago, kolektibo horrek burgoen sorreran modu aktibo batean parte hartu zuen³². XIII. mendean, jada finkatutako erkidegoa zen;

²⁴ CARRASCO, J., *Juderías y Sinagogas en el reino de Navarra*, *op. cit.*, 156.

²⁵ *Ibid.*, 115.

²⁶ LEGARDA SEMBROIZ, J. M., *La judería Nueva de Estella*, *op. cit.*, 326. 2008an, Lizarrerriko Ikerketa Guneak, boluntarioz osatutako programa batekin, lehenengo indusketa egin zuen judutegian, eta hiru zundaketa egin zituen.

²⁷ SOLA ALAYETO, A. eta ROS ZUASTI, T., *Estella, posta y mercado en la Ruta Jacobea*, *op. cit.* 45.

²⁸ CARRASCO, J., *Juderías y Sinagogas en el reino de Navarra*, *op. cit.*, 118.

²⁹ *Ibid.*

³⁰ GARCÍA ARANCÓN, M. R., *Marco jurídico y proyección social de las minorías*, *op. cit.*, 478.

³¹ DE MENDOZA, F., *Con los judíos de Estella*, *Príncipe de Viana* 44-45, (1951), 236.

³² CARRASCO, J., *Juderías y Sinagogas en el reino de Navarra*, *op. cit.*, 116.

mende horren lehen herenean, Lizarrako judutegia 150 pertsona inguruk osatzen zutela kalkulatu da, eta hori udalerrri osoko biztanleen % 10 zen, gutxi gorabehera³³.

2. Aljamaren autonomia judiziala

Goi Erdi Aroan judu-auzo edo aljamek autonomia handia zuten eta, beraz, beren justizia propioa administratzeko aukera zeukaten, hebrear Zuzenbidearen arabera. Lizarrako aljamak ere bazuen nolabaiteko autonomia juridikoa, eta bere ordenamendu propioa zuen. Aljamaren eskumen juridikoak, ordea, sobera mugatuak ziren; justizia kriminala, adibidez, erregearen eskumenekoa zen soilik. Epaiak betearaztea eta isunak kobratzea ere errege-boterearen eskuduntzak ziren. Gainera, Erregearen Ogasuna zen talde babestu horiei aplikatzen zitzaizkien zerga-ordainarazpen ugarien ia onuradun bakarra³⁴.

Hebrear legea juduen arteko auzietan soilik aplikatzen zen, eta haien ordenantzak –*takkanot* deituak– ezin ziren erregearen onarpenik gabe idatzi. Ordenantzek zigor-arauak ere jasotzen zituzten, baina praktikan oso zaila zen haiek aplikatzea. Kristauak, gainera, ez ziren aurkezten hebrear epaitegien aurrera.

Sinagoga zen juduen epaitegiaren egoitza, eta aljamako elitearen parte izan ohi ziren hiru epailek osatzen zuten epaimahaia. Epaitegi haiek epaitzen zituzten delituen artean garrantzi eta larritasun berezia zuen saldukeriak edo erki-degoari traizio egiteak, zeina *herem* edo anatema bidez zigortzen baitzen, edota, arinagoa zenean, aldi baterako eskumikatzeko edo *nidduyarekin*³⁵.

3. Lizarrako aljamaren krisia

Juduen burujabetza judizialak atzera egin zuen Behe Erdi Aroan, ordutik aurrera gero eta eskumen gehiago transferitu baitzitzaizkien errege-epaitegiei. Neurri horiek Europako antisemitismoaren hazkunderekin batera etorri ziren. XIII. mendean aita santuak erakutsitako juduen aurkako jarrerak ondorio handiak izan zituen, hala nola Letrango IV. Kontzilioko (1215) 67. kanon ospetsua, kristauei juduekin salerosian aritzea galarazten ziena. Nafarroari dagokionez, Gregorio IX.a aita santuak Antso VII.a Azkarrari igorritako 1233ko ekainaren 7ko buldak ez zuen ontzat hartzen erresumako kristauen eta juduen arteko nahasmena eta, bi hamarraldi geroago, 1257ko urriaren 5ean, Alexander IV.ak

³³ Ibid., 116-117.

³⁴ GARCÍA ARANCÓN, M. R., Marco jurídico y proyección social de las minorías, *op. cit.*, 493.

³⁵ Ibid., 486.

juduen lukurreria bridatu zezala eskatu zion Tibalt II.ari³⁶. Hala ere, ordurako, Xanpaina leinua oso bestelako irizpideak zituen juduei zegokienez, eta Nafarroako aljama jori eta oparoak funtzio bakarra betetzen hasi ziren: koroarentzat zuzeneko sarrera-iturri eraginkorra izatea³⁷.

Nafarroako erregearen sostenguak ezin izan zuen eragotzi europar antisemitismoa erresuman ere finkatzea. Izan ziren aurrekariak, Erdi Aro Betean, ondorio modura erkidego juduei desjabetze puntualak egitea ekarri zutenak, esate baterako, Olgazenan –Lizarra– gertatu zena, 1135ean³⁸. Europako XIV. mendeko zailtasun ekonomikoek eta istilu politikoek larriagotu egin zituzten gizarteko ezinegonak eta gora egin zuen hirietako oligarkien eta herri masa kristauen antisemitismoak. Testuinguru berri horretan, juduak izan ziren mende hartako zailtasunen koplak-buruko eta, beste hainbat zitalkeriaren artean, izurriak zabaltearen edota urak pozoitzearen erantzule egin zituzten³⁹. Judutarren kontrako jazarpena, batez ere, XIV. mendean egin zen eta horretan une gorena 1328. urteko sarraskiarekin iritsi zen, Lizarran bereziki odoltsua izan zen sarraskiarekin, hain zuzen ere⁴⁰. Hilketa horri buruz Lizarrako talmudista Menahem ben Zerah-ek emandako lekukotasunari esker ezagutzen dugu⁴¹. Azken errege kapearra hil eta gero (Karlos IV Ederra, Frantziako eta Nafarroako erregea), nafar lurretan zeuden judutegi gehienak historian izandako erasorik gogorrena jasan zuten. 1328ko martxoaren 6ko sute eta arpilatzeetatik bi hilabete baizik igaro ez zirenean, judutegi barruko bizitza hasia zen jada bere onera etortzen⁴². Hilketa horien ondorio zuzena hebrearrak beste erreinu batzuetara emigratzea izan zen –Aragoira, batez ere–. Hala ere, erregearen eta judutar komunitatearen arteko lotura zela eta, erregearen ondareak ere ondorioak jasan zituen⁴³.

1381ean, Nafarroako errege Karlos II.ak zerga berezi bat ezarri zien juduei: bost sueldo ordaindu behar zituzten liberako (100eko 25), erresumako juduek kristauai azken 50 urteetan saldu edo bahitutako ondasun guztien gainean.

³⁶ MIRANDA GARCÍA, F., El precio de la fe. Rentas de la corona y aljamas judías, *op. cit.*, 54.

³⁷ *Ibid.*, 55.

³⁸ SOLA ALAYETO, A. eta ROS ZUASTI, T., *Estella, posta y mercado en la Ruta Jacobea*, *op. cit.* 52.

³⁹ HINOJOSA MONTALVO, J. R., Los judíos de la España medieval, *op. cit.*, 28.

⁴⁰ GOÑI GAZTAMBIDE, J., La matanza de judíos en Navarra en 1328, *Hispania Sacra* XXIII, (1959), 5-33.

⁴¹ RODRÍGUEZ OCHOA, J. M., *Menahem ben Zerah, rabino estellés (1310-1385). Aproximación a una cultura que floreció en Sefarad*, Iruñea: Nafarroako Gobernuak, 2011.

⁴² CARRASCO PÉREZ, J., El libro del menidaje en Estella (1328-1331), *Miscelánea de Estudios Árabes y Hebráicos* 30, (1981), 109.

⁴³ CARRASCO PÉREZ, J., Propiedades de judíos en la merindad de Estella (1330-1381), *En la España medieval*, 2, (1982). Liburuak eskaintza hau du: Salvador de Moxóren memorian (I), 275.

III. JUDUEN ERREGULAZIO JURIDIKOA LIZARRAKO FORUAN

1. Juduak Lizarrako foruan: elementu orokorrak

Goi Erdi Aro eta Betean penintsulako kristau erresumetan juduen presentzia bermatu zuten baldintzak oso mota desberdinetakoak izan ziren. Berme orokorrak zituzten beren ondasun eta etxebizitza partikularren jabetzari buruz eta toki komunitarioen inguruan (sinagogak, etab.). Erregeri soilik ordaintzen zizkioten zergak, errege-altxorrari zuzenean, eta autonomia judiziala eta administratiboa zuten ordainetan⁴⁴. Lizarraren kasuan, erkidego juduaren eskubideak eta pribilegioak 1076-1077ko udal foruaren bitartez arautu ziren lehenik eta behin. Hala, beste udal foru batzuen ildotik, Lizarrakoak jurisdikzio-esparru propioa ematen zien bere biztanleei, zuzenbide prozesal eta penal bigunagoa, auzoen arteko bake bermatua, norberaren egoitzaren bortxaezintasuna, erosteko, saltzeko eta onibarren jabe izateko askatasuna, eta obligazio militar gutxi, beste pribilegio batzuen artean⁴⁵. Zuzenbide hori etorkizuneko biztanleetara ere hedatu zen:

«Goian esandako foru eta pribilegio hau ematen eta berresten dizuet zuei, Lizarrako biztanle guztioi, hala nagusi nola adingabe, bai etorkizunekoei nola egungoei, eta zuen seme-alabei, bai zuen belaunaldikoei eta ondotik etorriko direnei eta Lizarran biziko diren zuen ondorengoei, hura salbu eta duin, aske eta seguru mantenduko dutenei gizaldi eta gizaldietan, amen»⁴⁶.

1164ko foruari dagokionez, aldeak ezarri zituen frankoen, nafarren eta juduen erkidegoen artean. Hiru gizarte-maila bereizten zituen, *grosso modo*: 1) handizurenak eta frankoak, beren artean parekatuak eta kontrajarriak, 2) hiribilduko juduak, nekazariak, nafarrak eta herritarrak, eta 3) hiribildukoak ez diren juduak eta nafarrak (*de foris*)⁴⁷. Foruaren hainbat esparrutan juduak eta kristauak parekatuak agertzen baziren ere⁴⁸, 1164ko foruak, batetik, jatorrizko frankoak bereizten zituen –onuradunak, prerrogatiba bereziak zituztenak eta handizurenekin parekatuak–, eta bestetik, herritarrak, nafarrak eta juduak, beren kategoria apalagoa zela eta bananduta zeudenak⁴⁹.

⁴⁴ SUÁREZ BILBAO, F., La comunidad judía y los procedimientos judiciales, *op. cit.*, 101.

⁴⁵ JIMENO ARANGUREN, R., *Los Fueros de Navarra, Leyes Históricas de España*, Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2016.

⁴⁶ Lizarrako Forua. III. Titulua. Ondorengo liburuan jasotako Lizarrako Foruaren gaztelaniazko bertsioetik itzulia: JIMENO ARANGUREN, R., *Los Fueros de Navarra, Leyes Históricas de España*, Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2016, 368.

⁴⁷ ORELLA MARTÍNEZ, J. L., Los judíos en las fuentes jurídicas medievales del pueblo vasco, *Revista internacional de los estudios vascos-Eusko ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria*, 29, 2, (1984), 270.

⁴⁸ CARRASCO, J., Juderías y Sinagogas en el reino de Navarra, *op. cit.*, 2.

⁴⁹ JIMENO ARANGUREN, R., *Los Fueros de Navarra, op. cit.*, 58.

Foruaren lehenbiziko helburua hiribildura biztanle frankoak erakartzea zen, baina, horrekin batera, hiribilduan bizi ziren erkidego desberdinen arteko harremanak arautzea ere bai, batez ere, frankoen, juduen eta nafarren artekoak. Biztanle mairuei dagokienez, Lizarrako foruak argi uzten du haien gutxiagotasun juridikoa. Erdi Aroko erkidego judu eta mudejarrek hainbat ezaugarri partekatzen zituzten beren barne-kohesioari zegokionez, nork bere mintzaira eta erlijioa, kasu, baina haien egoera juridikoa oso desberdina zen. Lizarrako foruaren kasuan, biztanle mudejar edo mairuak abereekin parekatzen ziren: «Mairuak abere handien foru berbera du»⁵⁰. Baina, juduek ez bezala, erkidego mudejarrek ez zuten presentziarik izan Egaren ertzeko hiribilduan; beraz, praktikan, foruaren kapitulu horiek ez zuten inolako ibilbiderik izan.

Lizarrako foruan jasota dauden juduei buruzko arauak, batez ere, erlazio ekonomikoen ingurukoak dira, eta, batik bat, alderdi gatazkatsuenetan zentratzen dira, hau da, kontratuetan (maileguak) edo prozesu arloan (lekukoak, fida-tzaileak, zinak)⁵¹.

2. Juduen zina

Jakako foruan jatorria zuten udal foruek hainbat artikulua jaso zituzten judu eta mairuei aldi berean erreferentzia egiten zietenak. Horixe da, hain zuzen, Iruñeko eta Lizarrako foruen kasua, hirian erkidego mudejarririk izan ez arren, bi erkidegoak aipatzen baitzituzten bi udal foruek⁵². Ildo horretan, Lizarrako foruak berezitasun bat jaso zuen: juduek «beren ekialdeagatik» zin egiten zutela, agian musulmanekin parekatuta, haiek Mekara begira zin egingo baitzuten⁵³:

«Eta juduek eta hiritarrek beren eskuaz zin egingo dute 12 dirutik gorako zorra denean. Eta nafarrak bere aitakidearen buruagatik zin egingo du; eta juduak Ekialdera begira, 12 dirutik behera denean; eta frankoak, 12 dirutik behera denean, bere aitakidearen edo aitabitxiaren buruagatik zin egingo du gizon guztien aurrean»⁵⁴.

Goi Erdi Aroko udal foruetan zorrengatik zin egiteko aurkitzen ditugun baldintza eta betebeharrak hiru erlijioetako pertsonak aipatzen dituzte, eta zina

⁵⁰ Lizarrako Forua. 2. titulua, 22.26.

⁵¹ GARCÍA ARANCÓN, M. R., Marco jurídico y proyección social de las minorías, *op. cit.*, 493.

⁵² *Ibid.*, 469. or.

⁵³ MONREAL ZIA, G. eta JIMENO ARANGUREN, R., *Textos histórico-jurídicos navarros. I*, *op. cit.*, 967.

⁵⁴ Lizarrako Forua, 2, 19.9.

erlijio bakoitzaren usadioetara egokitzen zen. Lizarrako foruan aurkitzen dugun zinei buruzko arautegiak, Iruñekoan gertatzen den bezalaxe, adierazten du ez zela nahitaezkoa kasu guztietan, eta aldatu egiten zela diru kopuruaren arabera. Tuteran eta Funesen hebrear erkidegoei emandako juduen foruan ez bezala –horietan zehaztuta dago zin egiteko prozedura, zin eta madarikazio zerrenda xehatu batekin– Lizarrako foruak aipatzen du, beste zehaztapenik gabe, juduaren zina, zorra hamabi diru baino gehiagokoa den kasuan, «*bere eskuaz*» egingo duela eta hamabi diru baino gutxiagokoa denean «*Ekialdera begira*» (*secundum orientem*), hau da, Toráren edo Moisesen legearen gainean.

3. Maileguen erregulazioa

Erdi Aroko Mendebaldeko juduen jarduera hedatuena dirua zenbait modutan mailegatzea izan zen. Lizarrako foruak zordunen, fidatzaileen eta mailegu-emaileen arteko erlazio ekonomikoak arautu zituen, eta parekatu egiten zituen juduak eta frankoak alderdi ekonomiko adierazgarrietan. Adibidez, foruak ez-ordaintzeetatik babesten zituen bi erkidego horiek: «Eta ez dadila ezein gizon Lizarrako franko edo juduei dien zorretik libre egon»⁵⁵.

Lizarrako foruak juduei buruz jasotzen dituen kasu guztiak maileguen ingurukoak dira. Foruan jasota badaude ere juduak kristauekin zorretan zeuden kasuak, halako egoerak oso bakanak izaten ziren; aitzitik, askoz ohikoagoa izaten zen judua hartzekoduna izatea. Aita santuak interesaren kontra emandako neurriak Tibalt II.aren aldirian hasi ziren aplikatzen eta, hortaz, Lizarrako foruak ez ditu jasotzen XIII. mendetik aurrera inplementatu ziren lukurreriaren kontrako neurriak. Lizarrako foruak, baina, jasotzen ditu kolektibo batzuetatik bestetara zeuden aldeak maileguaren baldintzei zegokienez.

Maileguei buruzko araudia, izan ere, desberdina zen, mailegatutako kopuruaren arabera. Kopurua hamar sueldotik gorakoa bazen, maileguaren baldintzak zorrotzagoak ziren. Ereku horretan, frankoen pribilegioak handizurenen antzekoak ziren:

«Frankoen artean, auzia egongo da 10 sueldotik gora, eta auzilariak frankoak izan behar dute, Logroñoiko zubitik honakoak eta Zangozatik honakoak, eta gauza bera Iruñean»⁵⁶.

10 sueldotik behera, franko batek 15 urte edo gehiagoko beste franko bat aurkeztuko du zin egiteko»⁵⁷.

⁵⁵ Lizarrako Forua. I. titulua, 12.

⁵⁶ Lizarrako Forua. II. titulua, 19.6.

⁵⁷ Lizarrako Forua. II. titulua, 19.7.

Gauza bera esan behar da handizurenei buruz, frankoekiko, eta frankoei buruz handizurenekiko»⁵⁸.

Bermeei buruzko arauak desberdinak ziren, bermea herritarrekin eta juduekin edo nafarrekin hitzartu behar zen:

«Baina handizurenek eta frankoek, herritar batekin eta judu batekin zorra dutenean, hamabost urteko edo gehiagoko gizon bat aurkeztuko dute zin egin dezan, 10 sueldo baino gutxiago denean»⁵⁹.

Eta juduek eta hiritarrek beren eskuaz zin egingo dute 12 dirutik gorako zorra denean. Eta nafarrak bere aitakidearen buruagatik zin egingo du; eta juduak Ekialdera begira, 12 dirutik behera denean; eta frankoak, 12 dirutik behera denean, bere aitakidearen edo aitabitxiaren buruagatik zin egingo du gizon guztien aurrean»⁶⁰.

Foruak zehatz-mehatz aurreikusten zituen, halaber, Lizarran bizi ziren erkidegoei aplikatzen zitzaizkien baldintzak zorrak ordaindu ezaren inguruko auzietan aurkeztutako frogetan:

«Judu batek kristau bati zerbait zor badio, eta ukatzen saiatzen bada, leku-koen bidez frogatu beharko du; franko bati zor badio, franko baten eta judu baten bidez frogatuko du; kanpotarra bada, kanpotar baten eta judu baten bidez; eta juduak kristauari zor badio, prozedura bera erabiliz»⁶¹.

Mota horretako auzietan, foruak errabinoaren agiriaren maila aitortzen du, baina juduari eskatzen dio froga dezala lekukoekin agiri hori bera:

«Eta kristauak agiria badauka, juduak ezingo du ukatu, errabinoaren agiriek lekukoek bezainbeste balio baitute juduen aurka. Baina juduak lekuko bidez frogatu beharko du agiria duenari ordaindu ziola, eta eskatzaileak ezin badu frogatu, zin egin beharko du ez zitziola ordaindu, eta orduan ordainduko zai»⁶².

Zorduna hilez gero, zorra semeetara igarotzen da, baina kristau batek judu bati egozten badio ez duela ordaindu, juduak froga-baldintza zorrotzagoak bete beharko ditu, eta ezin baldin badu frogatu bere aitak ordaindu zuela zorra eta semeak, agiriarekin, zin egiten badu ez zaiola ordaindu, kasu horretan judua ordaindu beharrean gertatuko da:

«Eta judua hiltzen bada, haren ondorengoek bete beharko dute aitaren betekizuna, lehen idatzitakoaren arabera, kristauak agiririk badu. [2, 55.4] Eta kristaua hiltzen bada, eta haren ondorengoek zorra eskatzen badute eta agiria

⁵⁸ Lizarrako Forua. II. titulua, 19.5.

⁵⁹ Lizarrako Forua. II. titulua, 19.8.

⁶⁰ Lizarrako Forua. II. titulua, 19.9.

⁶¹ Lizarrako Forua. II. titulua, 55.1.

⁶² Lizarrako Forua. II. titulua, 55.2.

badute, orduan juduak haien aitari ordaindu ziola frogatu beharko du. Eta ezin badu lekuko bidez frogatu, agiria duen ondorengoak zin egingo du bere aitari ez ziotela ordaindu, eta juduak ordaindu egingo du»⁶³.

Nolanahi ere, zinaren bidezko justifikazioa⁶⁴ guztiei aplikatzen zitzairen, bai juduei eta bai kristauei:

«Eta kristau batek judu baten kontra auziren bat badu, dirua, kolpeak edo beste arrazoiren bat dela medio, agiririk edo lekukorik izan ezean, juduak zin egingo du frogatzeko, eta aske geratuko da; era berean, kristauak juduaren aurka frogatzeko zin egingo du, lekukorik ez badu»⁶⁵.

Juduek, beraz, kristauen antzeko pribilegioak zituzten, nahiz eta baldintza horiek aldatu egiten ziren, eurak zordun bihurtzen ziren kasuan. Juduak behartuta zeuden zorrik handienak beren eskuz zin egitera; frankoek eta handizurenek, aldiz, ordezkari bat bidal zezaketen. Juduek, gainera, lekuko gehiago aurkeztu behar zituzten zerbait frogatu behar zen auzietan. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar judua zordun izatea oso kasu ezohikoa zela; beraz, ondorio praktikoetarako, Lizarrako foruak antzeko pribilegioak aitortzen ditu frankoentzat eta juduentzat.

IV. ONDORIOAK

XI. eta XII. mendeetan, juduen erkidegoa talde kohesionatua eta heterogeneoa zen, eta erregearen sostengua eta babesari jaso zuen. Mendebaldeko Europak loraldi ekonomikoa bizi zuen, eta birpopulatzeen aroa zen, Iberiar penintsularen birkonkistaren esparruan. Testuinguru horretan, monarka nafarrek zenbait neurri jarri zituzten abian Europatik zetozen erromesak erakartzeko eta erresumako lurraldeetan frankoen hiriguneak ezartzeko. Erregeak talde horiei emandako babesari esker sortu ziren Erdi Aroko lehenengo burguak, eta hala sustatu ziren merkataritza eta erresumaren hiri-garapena. Diruan oinarritutako ekonomiak berehala erakarri zituen hebrearrak, eta judutegiak sortu ziren frankoen burguetatik hurbil. Jarduera ekonomikoa gero eta handiagoak erakarritu iritsi ziren erresumara juduen erkidegoak eta, merkataritzan eta maileguak ematen adituak zirenez, haien presentzia mesedegarri izan zen Nafarroako erresumaren hazkunde ekonomikorako.

⁶³ Lizarrako Forua. II. titulua, 55.3.

⁶⁴ Lizarrako foruak ez du zehazten zer motatako zina egiten zuten juduek zorrak zeuden kasuan, baina ohikoena Torá edo Moisesen legearen gainean zin egitea zen, Jainkoaren epaia edo ordalia kristauekin soilik erabiltzen baitzen.

⁶⁵ Lizarrako Forua. II. titulua, 55.5.

Lizarrako aljama erresumako garrantzitsuenetakoa izan zen. Lizarra toki estrategikoan kokatuta zegoen, bai merkataritzaren sustapenerako eta bai Nafarroaren defentsa militarerako; horregatik, Antso Nagusiak Donejakue bidea Errioxa aldera ireki eta egokitu zuenean, Lizarrerriaren erdigunea, denborarekin, hirigune jendetsu bati harrera egin beharrean gertatu zen. Antso Ramirezek 1076-1077 aldera emandako Lizarrako foruak hiribilduko biztanle berrien babes juridikoa bermatu zuen. Biztanle berri haiek, batez ere, frankoak ziren, baina baziren juduak ere. Foruak kolektiboen arteko harremanak arautu zituen, eta berariazko babesa eman zien juduei transakzio ekonomikoei zegokien guztian. Foruak baldintza zorrotzagoak ezarri zituen juduentzat eurak mailegu-eskatzailerik ziren kasurako, baina horrek, praktikan, ez zuen ia ondoriorik, oso arraroa eta bakana izaten baitzen judu batek inori dirua eskatzea. Izan ere, normalena eta ohikoena juduak hartzekodunak izatea zen.

Lizarrako forua, beraz, dokumentu historiko adierazgarrienetako bat da Nafarroako erresumak XI. eta XII. mendeetan izan zuen egoera juridikoa, politikoa eta soziala marrazteko. Testuak erkidego frankoak eta juduak babesten zituen, hirigune berrien sorrera sustatzen, eta udalerrri horietako biztanleen lehenbiziko eskubideak eta pribilegioak ezartzen. Testuak erakusten du, era berean, monarkiak babesa eman ziela erkidego juduei, baina babes haren tonua aldatuz joango zen XIII. mendean zehar, harik eta pertsekuzio eta triskantza bihurtu zen arte XIV. mendetik aurrera.

V. BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI AGUIRREBEÑA, Juan Ignacio, La actividad comercial en el espacio urbano medieval: el ejemplo de Estella, *Cuadernos de sección. Historia -Geografía* 21, Eusko Ikaskuntza (1993), 99-114. or.
- BIELZA DE ORY, VICENTE, Estella, estudio geográfico de una pequeña ciudad navarra, *Príncipe de Viana*, 29, 110-111 (1968), 53-115. or.
- CANTERA MONTENEGRO, Enrique, La mujer judía en la España medieval. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie III, Historia medieval*, 2. lib., (1989), 37-64. or.
- CARRASCO PÉREZ, J., El libro del menidaje en Estella (1328-1331), *Miscelánea de Estudios Árabes y Hebráicos* 30, (1981), 109-120. or.
- CARRASCO PÉREZ, Juan, Propiedades de judíos en la merindad de Estella (1330-1381), *En la España medieval*, 2 (1982) (Liburuak eskaintza hau du: Salvador de Moxóren memoria (I), 275-295.
- CARRASCO PÉREZ, Juan, Juderías y Sinagogas en el reino de Navarra, *Príncipe de Viana*, 63, 225 (2002), 113-156. or.

- CARRASCO, Juan, MIRANDA GARCÍA, Fermín eta RAMÍREZ VAQUERO, Eloísa, *Los judíos del reino de Navarra. Documentos 1093-1333*, Nafarroako Gobernua, 1994.
- CIERBIDE MARTINENA, Ricardo, La lengua de los francos de Estella: intento de interpretación, *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 3 (1999), 115-145. or.
- DE MENDOZA, Fernando, Con los judíos de Estella, *Príncipe de Viana*, 44-45 (1951), 235-271. or.
- FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier, Fueros locales de Navarra, *Revista Príncipe de Viana*, 68, 242 (2007), 865-900. or.
- GARCÍA ARANCÓN, M^a Raquel, Marco jurídico y proyección social de las minorías navarras: judíos y mudéjares (siglos XII y XV), *Iura Vasconiae* 4, 2007, 459-516. or.
- GOÑI GAZTAMBIDE, José, La matanza de judíos en Navarra en 1328, *Hispania Sacra XXIII*, (1959), 5-33. or.
- HINOJOSA MONTALVO, José Ramón, Los judíos de la España medieval: de la tolerancia a la expulsión, *Los marginados en el mundo medieval y moderno*. Almería, 1998ko azaroaren 5etik 7ra, 2000, 25-41. or.
- IRUJO, Xabier, *Giving Birth to Cosmopolis. The Code of Laws of Estella (c. 1076)*. Santa Barbara: University of California, Basque Law Series, 1. zk. Barandiaran Basque Studies Chair, 2011.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán, El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005), 45-83. or.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Los Fueros de Navarra, Leyes Históricas de España*, Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2016.
- JIMENO JURÍO, José María, *Merindad de Estella. I. Historia de Estella/Lizarrara*. Lan osoak 33. zk. Iruñea: Pamiela, Udalbide eta Euskara Kultur Elkargoa, 2006.
- LACARRA, José María eta MARTÍN DUQUE, Ángel, *Fueros derivados de Jaca. I. Estella-San Sebastián*. Iruñea: Foru Aldundia, 1969.
- LEGARDA SEMBROIZ, José Miguel, La judería Nueva de Estella. Intervención Arqueológica, 2008, *Trabajos de Arqueología de Navarra (TAN)* 21, (2009), 325-337. or.
- MARTÍN DUQUE, Ángel M., El fenómeno urbano medieval en Navarra. *El fenómeno urbano medieval entre el Cantábrico y el Duero: revisión historiográfica y propuestas de estudio. El fenómeno urbano medieval entre el Cantábrico y el Duero: revisión historiográfica y propuestas de estudio*, Asociación de Jóve-

- nes Historiadores de Cantabria. Jesús Ángel Solórzano Telecheak eta Beatriz Arízaga Bolumburuk koordinatutako lana, 2000, 9-58. or.
- La fundación del primer burgo navarro: Estella, *Príncipe de Viana*, 63, 227 (2002), 317-328. or.
- MIRANDA GARCÍA, Fermín, El precio de la fe. Rentas de la corona y aljamas judías en Navarra (siglos XII-XIV), *Príncipe de Viana*, 58, 210 (1997), 51-65. or.
- ORELLA MARTÍNEZ, José Luis, Los judíos en las fuentes jurídicas medievales del pueblo vasco, *Revista internacional de los estudios vascos-Eusko ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria*, 29, 2, (1984), 261-298. or.
- RAPOPORT, Josef, Los médicos judíos y su actividad en el reino de Navarra. 1349-1425, *Príncipe de Viana*, 64, 229 (2003) 333-351. or.
- RODRÍGUEZ OCHOA, J. M., *Menahem ben Zerah, rabino estellés (1310-1385). Aproximación a una cultura que floreció en Sefarad*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2011.
- SOLA ALAYETO, Antonio eta ROS Zuasti, Toño. *Estella, posta y mercado en la Ruta Jacobea*. Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kuxa, 1992.
- SUÁREZ BILBAO, Fernando, La comunidad judía y los procedimientos judiciales en la Baja Edad media, *Cuadernos de Historia del Derecho*, 2 (1995), 99-132. or.

Lizarrako eta Donostiako foruen familia 1200. urtetik aurrera

Nere Jone INTXAUSTEGI JAUREGI
Deustuko Unibertsitatea

Aurkibidea

I. SARRERA II. LIZARRAKO FORUA ETA HAREN FORU-FAMILIA. III. DONOSTIAKO FORUA. IV. EPILOGO MODURA. V. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Foru hitzaren jatorri etimologikoa latineko *forum* hitza da, eta foruak Espainiako Erdi Aroko zuzenbidearen sorburutzat jotzen dira¹. Foruak askatasun eta pribilegioak emateko ziren, hau da, erregeak edo jauntxoak toki jakin bateko biztanleei ematen zizkien abantaila juridikoak. Esan beharra dago foruek ez zutela herri horren erabateko autonomia sinbolizatzen, baina, egia esan, landa-esparru periferikoarekin alderatuta, udalerrria eremu berezitu eta pribilegiatua bihurtzen zuten². Foruak bilakaera baten ondorio izan dira; bilakaera horretan, hainbat elementu uztartu dira eta guri elementu horien bilakaeraren azken fasea iritsi zaigu, hau da, idatziz jaso zirenean³. Bilakaera horretan, hainbat foru mota agertu ziren: laburrak edo luzeak, onak edo txarrak. Foruen beste arketipo bat udal-foruak izan ziren; Erdi Aroko arau-multzotzat hartu behar dira, auzo-komunitateak eratzeko erabiltzen ziren eta beren ezaugarri nagusia berorien inguruko konplexutasuna izango da⁴.

¹ ESCUDERO, J. A., *Curso de Historia del Derecho. Fuentes e Instituciones político-administrativas*, Madril: Edisofer, 1995, 406. or.

² TOMÁS Y VALIENTE, F., *Manual de Historia del Derecho español*, Madril: Editorial Tecnos, 2012, 145. or.

³ SÁNCHEZ-ARCILLA BERNAL, J., *Historia del Derecho*, Colección jurídica general, Madril: Editorial Dykinson, 2009, 148. or.

⁴ BARRERO GARCÍA, A. M., El proceso de formación del derecho local medieval a través de sus textos: los fueros castellano-leoneses. IGLESIA DUARTE, J. I. (koord.), *I Semana de Estudios Medievales, Naiara*, 1990, 89. or.

Azken mota horren barruan, adibide bat foru-familia terminoa da; foru-familia hitzarekin, azken batean, foru nagusi edo printzipal batetik eratorritako foru-testu ahaideak adierazten dira⁵; beste hitz batzuekin esateko, herri bati emandako foru nagusi bat egon zen eta, gero, foru hori bera erabili zen beste hainbat tokitan. Hortaz, foru batek izandako zabalkundeaz ari gara. Alabaina, Ana María Barrero García autoreari jarraikiz, arazoren bat edo beste izan zela esan behar da, maiz gertatu baitzen erreproduzitu zen testua bat ez etortzea ustez ematen zen foruarekin. Adibidez, 1135. urteko Santo Domingo de Siloseko foruan dio Sahagún herriko forua erreproduzitzen dela, baina ez dator bat Leongo hiribildu horretan gordetzen den foru bakar batekin ere; edo 1182. urtean Antso Jakituna errege nafarrak Arabako Antoñana eta Bernedo herriei Guardiako forua eman zien; aitzitik, ez dator bat hiribildu horri emandakoarekin, baina bai 1191. urteko Argantzongoarekin⁶. Adibide horietan ikus daiteke foruen zabalkundea ez dela gai erraza, eta kasu horietan baliteke foru bat ematea, baina gero egindako gehikuntzetan eraldatuz joatea hura ia erabat aldatzeraino, nahiz eta jatorrizko izena erabiltzen jarraitu hura izendatzen zenean⁷. Gainera, foru jakin batzuk zergatik zabaldu ziren galdetu beharko litzateke, eta beste batzuk zergatik ez. Galdera horren aurrean, zuzenbideko historialarien erantzuna da transmisioa foru horien edukiaren erakargarritasun juridikoarekin lotuta egoten zela eta, horregatik, hainbat herrik zituzten askatasunak eta pribilegioak nahi izaten zituztela beste herri batzuek ere⁸.

Halaber, foru-familiak eratzeak foruen aniztasuna murriztea eragin zuela suma daiteke, eta tokiko ordenamenduen atomizazioa ekarri zuela⁹. Alegia, foru-familiak egotearen eraginez, ez ziren foru asko eta askotarikoak sortu, foruen kopurua kontrolatzeko tresna izan baitzen.

Bestalde, Lacarrak dioenez, Erdi Aroko foruen eta foru-familien gaia lantzea ez da lan erraza; izan ere, oro har, ez dira foru original asko gorde eta ikertzaileak kopiekin edo erreferentziekin konformatu behar izaten du. Egia da hainbat kasutan jatorrizko alea kontserbatu dela, baina ezin izaten da eskuratu eta, beraz, arazoak eta zalantzak hortxe geratzen dira¹⁰.

⁵ ESCUDERO, J. A., *Curso de Historia del Derecho*, op. cit. 409. or.

⁶ BARRERO GARCÍA, A. M., El proceso de formación, op. cit. 101. or.

⁷ LACARRA DE MIGUEL, J. M., Notas para la formación de las familias de fueros navarros, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 10 (1933), 204. or.

⁸ TOMÁS Y VALIENTE, F., *Manual de Historia del Derecho español*, op. cit. 147. or.

⁹ MARTÍNEZ GONZÁLEZ, A. J., El Fuero de Estella: instrumento de atracción en las peregrinaciones europeas. SÁNCHEZ RIBES, A. (arg.) *El Mediterráneo en el origen: IX Congreso Internacional de Asociaciones Jacobeas*, 2012, 78. or.

¹⁰ LACARRA DE MIGUEL, J. M., Notas para la formación de las familias. op. cit. 203. or.

Gaiak erreakzio asko eragiten dituen arren, argi dago testuinguru historikoa lagungarri izaten dela argitzeko. Hartara, alde batetik, ez dira ahaztu behar mende haietan izandako errekonkista eta egin ziren birpopulatzeak. Kristauek musulmanen kontra jardun zuten okupatutako lurraldea berreskuratzeko, eta birkonkistatutako lurretan birpopulatze-prozesua jartzen zen abian; prozesu horretan foruak baliatzen zituzten populazioa guner berri horietara erakartzeko, zela penintsulatik, zela Pirinioez haraindi. Gainera, beste alde batetik, Donejakue biderearen fenomenoak ez dugu ahaztu behar, besteak beste, populazioa erakartzeko ere balio izan baitzuen, batik bat, Europatik.

Gure kasuan, badakigu Donostiako forua 1180. urtean eman zela eta Lizarrako forutik datorrela; Lizarrakoa 1164koa da eta, aldi berean, Jakako forua du jatorri. Gainera, Donostiako forua Gipuzkoako beste hainbat hiribilduei eman zitzaion, hala nola Hondarribia edo Zarautzi, baita Gaztelaren mendeko San Vicente de la Barquerari ere. Hortaz, artikulua honetan, bi foru horiek osatu zituzten foru-familiak aztertuko ditugu.

II. LIZARRAKO FORUA ETA HAREN FORU-FAMILIA

1164. urtean, Antso VI.a Jakitunak Lizarrako Forua berretsi zuen, Nafarroako foru luzeen artean zaharrena jotzen dena¹¹. Alabaina, herriak bazuen lehenagotik beste foru bat: Lizarrako foru laburra. Foru laburra Antso V.a Ramirezek emana zen, baina ez dakigu zehatz-mehatz noiz; tradizioz 1090. urtean eman zela esan izan da, baina gerora beste urte batzuk ere aipatu izan dira. Azkenean, Ana María Barrero Garcíaren iritzian, jatorrizko foru hori 1076-1077 inguruan eman zen¹².

Lizarrako Forua Jakako Foruak Nafarroan izan duen eta data ezaguna duen aplikazio zaharrena dela jotzen da¹³; izan ere, Jakako Foruak orokorrean –ez Nafarroan soilik– izan duen garapenaren bertsio goiztiarra da, baina tokiko berezitasunik baduela ere esan behar dugu, hiribildurako berariazko aginduak ere txertatzen baititu, hala nola ostegunetako merkatuei buruzko alderdiak, edo frankoen eta nafarren arteko harremanen arautzea¹⁴. Horretaz gain, Lizarrako

¹¹ FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J., *Fueros locales de Navarra, Príncipe de Viana*, 68. urtea, 242 (2007), 881. or.

¹² JIMENO ARANGUREN, R., *Los Fueros de Navarra, Leyes Históricas de España*, Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2016, 319. or.

¹³ LACARRA DE MIGUEL, J. M., *Notas para la formación*, *op. cit.*, 219. or.

¹⁴ JIMENO ARANGUREN, R., *Los Fueros de Navarra, op. cit.*, 320. or.

foruak nortasun handia lortu zuenez, beste herri batzuetara zabaldu zenean Lizarrakoa aipatzen zen, eta ez Jakakoa, nahiz eta jatorrizkoa hau izan¹⁵.

Artikulu honetan foru-familiak aztertuko ditugunez, Lizarrako Forua garazten jarraitu aurretik Jakako Foruari erreparatuko diogu, esan dugunez, hori izan baitzen Lizarrakoaren jatorri eta aitzindari. Lehenik, Aragoiko herri hori Erdi Aroko Zuzenbidearen sorkuntzan, transmisioan eta zabalkundearen funtsezkoa izan zela nabarmendu behar dugu¹⁶. Izan ere, Jakako Forua Nafarroako hainbat foruren sorburu izan zen, Lizarran ez ezik, Zangozan edo Iruñeko San Zerninen ere. Gainera, penintsulako beste hainbat tokitan ere erabili izan zuten: Teruelen edo Cuencan, adibidez. Horrela, bada, hainbat artikulu hitzez hitz kopiatutakoak dira, hala nola bahi eta fidatzaileei buruzkoak, adulterioan jaiotako seme-alaben herentziarekin lotutakoak, fidantzei buruzkoak edo eliz-gizon eta laikoen arteko liskarrekin lotutakoak; beraz, argi eta garbi ikusten da Jakako Forua izan zela inspirazio-iturri lurralde horietan¹⁷.

Jaka, Aragoiko erresumaren lehen hiriburua, 1063. urtean sortu zen, Antso Ramirez erregeak hiribilduari Forua eman zionean; foru horren bitartez, hiri bihurtu zen¹⁸. Aragoiko eta Nafarroako lurretan nagusi zen errege horrek Aragoiko erresumaren batasun juridiko teorikoa urratu zuen, herri bat Aragoiko gainerako hiribilduetatik aldendu baitzuen, pribilegio desberdinak eman zizkiolako¹⁹. Goi Erdi Aroko politika hori hainbat erregeren birpopulazte-jardueren barruan sartzen da; jarduera horien helburua populazioa puntu jakin batzuetara erakartzea zen, askatasunak eta pribilegioak eskainita. Izan ere, 1137. urtearen inguruan, Jakako populazioaren % 21,15 ziren aragoiarrak, eta % 78,85 Pirinioez haraindikoak²⁰. Kolono horien ehuneko handi bat atzerritarrak ziren, batik bat, frantsesak²¹, eta Errekonkistara zihoazen soldaduekin eta Donejakue bidean barrena kokatzen ziren merkatariekin batera, eragin oso handia izan zuten pe-

¹⁵ LACARRA DE MIGUEL, J. M., Notas para la formación, *op. cit.*, 204. or.

¹⁶ ARROYAL ESPIGARES, P. J., Las fuentes del Derecho de los fueros de la Familia Cuenca-Teruel: el fuero de Jaca, *Baetica. Estudios de Arte, Geografía e Historia*, 2-1 (1979), 168. or.

¹⁷ *Ibíd.*, 176. or.

¹⁸ SERRANO DAURA, J., El Fuero de Jaca, *Boletín de la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona*, 49 (2003-2004), 532. or.

¹⁹ MOLHO, M., Difusión del derecho pirenaico (Fuero de Jaca) en el reino de Aragón, *Boletín de la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona*, XXVIII liburukia, 1960, 268. or.

²⁰ LADERO QUESADA, M. Á., *La formación medieval de España. Territorios. Regiones. Reinos*, Madril: Alianza Editorial, 2006, 113. or.

²¹ Europatik etorritako populatzaile kristau horietako asko frantsesak zirelako deitzen zitzaizen de-nei frankoak.

nintsulako Erdi Aroko garai haietan, bereziki, Aragoi aldean²². Izan ere, Jakako Foruan irakur daiteke toki guztietako jendeari zuzenduta dagoela, *omnibus hominibus qui sunt usque in oriente, et occidente, et septentrionem, et meridiem*, eta, Pilar García Mouton autoreak dioenez, XI. menderako erabat ezohikoak ziren askatasunak biltzen ziren; esaterako, askatasun pertsonala edo egoitzaren bortxaezintasuna agintzen ziren²³. Horrela, bada, ondasun bat urtebete eta egun batez izateak ondasunaren jabetza ematea, duela judiziala probatzen hartzeari mugak jartzea, sexu-delituen zigorretan tolerantzia izatea, edota hainbat berme prozesal ezartzea²⁴ bezalako foru-legeek ezin hobeto azaltzen dute Jakako Foruak garai hartan izan zuen arrakasta. Izan ere, Foru horrek eta garai hartako beste foru batzuek hainbeste askatasun eta pribilegio ematen zituzten, ezen «frankoen zuzenbidea» esamoldea «askatasunen zuzenbidea» esamoldearen sinonimo bilakatu baitzen²⁵.

Tamalez, ez zaigu iritsi Erdi Aroko garai haietako Jakako konpilaziorik²⁶. Izan ere, jatorrizko idazkitik lau kapitulu baino ez dira gorde, eta gainerakoa xedapen sorta bat da, batzuk Jakakoak baina beste batzuk beste herri batzuetakoak²⁷. Dena den, Lizarrako eta Jakako Foruen arteko antza ikusita, argi dago garai haietan Jakako konpilazioren bat iritsi zela Nafarroako herrira²⁸. Lehenik eta behin esan behar da bi herriak Donejakue bidearen ondoan kokatuta daudela geografikoki, zeinari penintsulako Erdi Aroko fenomeno konplexuenetako bat irizten baitzaio²⁹. Lizarra, Iruñea eta Zangozarekin batera, Pirinioez haraindi etorritako etorkin kristauen hartzaile nagusia izan zen³⁰; hain zuzen, Jakan gertatu zenaren ildotik, populatzaileak erakartzeko asmoz sortua izan baitzen. Horrela bada, XI. mendearen amaieratik hauteman daiteke kolono frankoen presentzia

²² GARCÍA MOUTON, P., Los franceses en Aragón (siglos XI-XIII), *Archivo de filología aragonesa*, 26-27 lib., 1980, 7. or.

²³ *Ibid.*, 10. or.

²⁴ ESCUDERO, J. A., *Curso de Historia del Derecho*, op. cit. 464. or.

²⁵ GACTO FERNÁNDEZ, E., ALEJANDRE GARCÍA, J. A., GARCÍA MARÍN, J. M., *Manual Básico de Historia del Derecho (Temas y antología de textos)*, Madril: Editorial Dykinson, 1997, 102. or.

²⁶ Mauricio Molhok dioenez, bost idazki luze eta bi zatikatu ezagutzen dira. MOLHO, M., *Difusión del derecho pirenaico*, op. cit., 267. or.

²⁷ SÁNCHEZ-ARCILLA BERNAL, J., *Historia del Derecho*, op. cit., 168. or.

²⁸ JIMENO ARANGUREN, R., *Los Fueros de Navarra*, op. cit., 320. or.

²⁹ RUIZ GÓMEZ, F., *El Camino de Santiago: circulación de hombres, mercancías e ideas*. IGLESIA DUARTE, J. I. de la, *IV Semana de Estudios Medievales de Nájera*, 1993, 167. or.

³⁰ MARTÍN DUQUE, Á. J., *El fenómeno urbano medieval en Navarra*. SOLORZANO TELECHEA, J. Á., ARÍZAGA BOLUMBURU, B., *El fenómeno urbano medieval entre el Cantábrico y el Duero: Revisión historiográfica y propuestas de estudio*, 2002, 755. or.

Nafarroako erresuman³¹. Are gehiago, Miguel Ángel Ladero Quesadaren arabera, Donejakue bidea iparraldeko lurraldeen arteko eskualdearteko harremanetarako bitartekoa izan zen, komunikaziorako bide nagusi bat sortu baitzuen ekialdetik mendebalderanzko noranzkoan³²; horrek azaltzen du Jakak mendebaldean eta Donejakue bideari jarraituta kokatutako herrietan izan zuen eragina.

Lizarrari dagokionez, lehen aipamenak etimologiarekin lotuta daude. 958. urtetik aurrera Lizarrara³³ izena agertzen da, eta 1076. urterako jasota dago Lizarrarako gazteluaren babesean burgu bat eratzen hasia zela³⁴. Bestalde, 1084an Estella izena erabiltzen zen jada³⁵, hau da, latinezko Stella hitzaren forma erro-manizatua³⁶, baina Ángel J. Martín Duque autorearen arabera, Estella eta Lizarrara ezin dira berdintzat jo, lehenengoa populatzaile frankoak hartzeko sortu baitzen³⁷, eta bigarrena, aldiz, bazen lehendik ere. Izan ere, erregeak hiri berri hori frankoentzat soilik diseinatu zuela argi adierazten du honako honek: nafarrek ezin zuten bertako auzotar bihurtu erregearen eta tokiko agintarien –besteak beste, alkateen– onespelik izan gabe³⁸ (*el quod ullus navarrus vel presbiter de foras non possit populare in Stella sine voluntate regis et omnium stellensium*). Beraz, Jakako Forua bezalaxe, Lizarrakoa ere atzerriko populatzaileak erakartzeko diseinatuta dagoela ikus daiteke argi eta garbi; hasieran, San Martin kape-raren inguruan bildu zituzten etorkin horiek eta, gero, jatorrizko Lizarrako beste gune batzuetara zabaldu ziren. Populazio franko horrek –batik bat, Languedoc-ekoak eta gaskoiak ziren³⁹– garrantzi handia izan zuela ikusten da, argi eta garbi, dokumentazioan; izan ere, XIV. mendera arte, dokumentu juridiko asko, hau da, erroldak, salerosketak edo kontuak, okzitaniaraz idatzita daude⁴⁰. Alabaina,

³¹ FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J., Fueros locales de Navarra, *op. cit.*, 867. or.

³² LADERO QUESADA, M. Á., *La formación medieval de España*, 105. or.

³³ JIMENO JURÍO, J. M., Estella/Lizarra, *Toponomía, Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 30. urtea, 77 (1998), 135. or.

³⁴ LALIENA CORBERA, C., *La servidumbre y las transformaciones de la organización*, Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza, 2013, 396. or.

³⁵ GONZÁLEZ OLLE, F., Etimología del topónimo Estella, *Vianako printzea*, 51. urtea, 190 (1990), 329. or.

³⁶ JIMENO JURÍO, J. M., Estella/Lizarra, *op. cit.* 136. or.

³⁷ MARTÍN DUQUE, Á. J., La fundación del primer burgo navarro. Estella, *Vianako printzea*, 63. urtea, 227 (2002), 320. or.

³⁸ MARTÍNEZ GONZÁLEZ, A. J., El fuero de Estella. Instrumento de atracción..., *op. cit.* 82. or.

³⁹ CIERBIDE MARTINENA, R., La lengua de los francos de Estella: intento de interpretación, *Sancho el Sabio: Euskal kultura eta ikerketa aldizkaria*, 3 (1999), 118. or.

⁴⁰ ORELLA UNZUE, J. L., La gasconización medieval occidental del Reino de Navarra, *Lurralde: investigación y espacio*, 33 (2010), 181. or.

nahiz eta hasieran bertakoak alde batera geratu ziren, Antso Jakitunaren garairako bertakoak ere aintzat hartuak izan ziren Foruaren berrespenean⁴¹. Dena den, Tibalt I.aren proiektuan, beste behin ere, desberdintasun sozialak agertzen ziren Lizarrako foruaren eraginpeko populazioari zegokionez⁴².

Adierazi dugunez, Lizarrako Foruaren data ez dago zehaztuta, baina bai Antso VI.a erregeak egindako berrespena. Gerora, Tibalt I.aren garaian, baliteke bertsio berri bat prestatu izana, latinez idatzia hori ere baina lexikoan hainbat ukitu eginda; dena den, ez zen promulgatua izatera iritsi. Alabaina, XIII. mendearen amaieran 1164ko gorputz juridiko beraren bi bertsio simple egin ziren, eta ez zituzten jaso Tibalten garaiko aginduak⁴³. Hori ikusita, Horacio Arrechea-ri jarraikiz, zera esan dezakegu, «data horretatik aurrera, Lizarrako zuzenbidea paralizatu egin zela»⁴⁴; alegia, Lizarrako Foruari buruz ari garenean Antso VI.a Jakitunak egindako berrespenari buruz ari garela, eta ez geroztiko berrespen edo proiektuei buruz.

Bestalde, Lizarrako Foruaren hainbat bertsio iritsi zaizkigula esan behar dugu, eta hainbat bertsio ez ezik, hainbat hizkuntzatan idatzitakoak: originala latinez eta erromantzez idatzi zen, kolono frankoek erabil zezaten. Hortaz, foru horrek garrantzi juridikoa izateaz gainera, garrantzi linguistikoa ere badu⁴⁵.

Azkenik, Lizarrako Forua Donejakue bideko eta Nafarroa Erdialdeko hiribilduetan zabaldu zela aipatu behar dugu. Horrela, bada, honako herri hauei egin zitzaizkien emakidak: Gares (1122), Olite (1147), Elo (1149), Tebas (1264), Torralba (1264), Urrotz (1286), Tafalla (1423), Artaxoa (1423), Uharte Arakil (1461) eta Mendigorria (1463)⁴⁶. Artikuluaren hasieran esan dugun bezala, beste foru batetik eratorritako foru askok garrantzi eta pisu juridiko oso handia lortu zuten, eta haiek beste herri batzuei eman zitzaizkienean ez zen jatorrizko forua aipatu, baizik eta hasieran hartzailea izan zen herriaren izena. Eta, hain justu, horixe gertatu zen Lizarrakoarekin; Nafarroako herri horiei eman zietenean, ez zen Jakako Forua inon ere agertu eta Lizarrako Forua zuzenean aipatu zen⁴⁷.

⁴¹ LACARRA DE MIGUEL, J. M., Notas para la formación..., *op. cit.* 220. or.

⁴² JIMENO ARANGUREN, R., El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005), 58. or.

⁴³ MARTÍN DUQUE, Á. J., El fenómeno urbano medieval en Navarra, *op. cit.* 737. or.

⁴⁴ ARRECHEA SILVESTRE, Horacio, Algunas correspondencias entre el Fuero de Estella y el Fuero de Tudela, *Vianako printzea*, 14 (1992), 318. or.

⁴⁵ HOLMER, G., *El Fuero de Estella según el Manuscrito 944 de la Biblioteca de Palacio de Madrid*, Almqvist & Wiksell, 1963, 5. or.

⁴⁶ FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J., Fueros locales de Navarra, *op. cit.* 870. or.

⁴⁷ LACARRA DE MIGUEL, J. M., Notas para la formación..., *op. cit.* 221. or.

III. DONOSTIAKO FORUA

Donostiako Forua Gipuzkoako lehen udal-forua izan zen, eta garrantzi handia izan zuen, Kantauri itsasoaren kostaldeko gune horretako giza komunitateen metamorfosi juridikoaren hasiera markatu baitzuen⁴⁸. Garrantziak garrantzi, gaur egun ez dugu jatorrizko forurik; horregatik, hainbat kopia eta edizio erabili izan dira, baina gaur egun dagoen Donostiako Foruaren testu zorrotz eta espezifikoa bi dokumentutan oinarritzen da: Joan II.ak 1424. urtean egindako Errege Berrespena, eta 1474ko notario-kopia⁴⁹.

Esan beharra dago udal-foru gehienetan erregearen figura agertzen dela foruen emaitzat, baina, egiaz, askotan, kontzejuek aukeratzen zutela haien in-tereseko zuzenbidea. Errealitate horren adierazgarri da zenbait foru hurbileko to-kietara zabaldu izana eta eskualde handiak hartzea eraginpean; hau da, argi dago herri askok albokoak indarrean zeukan zuzenbidea nahi izaten zutela⁵⁰. Eta ho-rron adibidea, hain justu, Donostiako Foruaren kasua da, Gipuzkoako kostaldeko honako herri hauei eman baitzitzaien: Hondarribia (1203), Getaria (1204-1609?), Mutriku (1256), Zarautz (1237), Errenteria (1320), Oiartzun (1320), Zumaia (1347), Usurbil (1371), Orío (1379), eta Hernani (1379 baino lehen), eta ez soi-lik Gipuzkoako hiribilduei, baita Kantabriako San Vicente de la Barquerari ere, 1210. urtean. Zalantzarik gabe, kostaldeko forua da zeren, bestalde, barrualdeko hiribildu gipuzkoarretan Logroño-ko Forua erabili baitzuten⁵¹.

Donostiako Forua Lizarrako Foruaren familiakoa denez, Lizarrako 1164. urteko forua erreproduzitzen du. Alabaina, ekarpen originalak ere badituela esan behar da; zehazki, itsas zuzenbideari dagokionez⁵², baina gauza logikoa da hori, Lizarra ez ezik, Jaka ere geografikoki non kokatzen diren aintzat hartuz gero. Gainera, merkataritzako gaiekin lotutako ekarpen original horretan argi eta garbi azaltzen da kostaldeko gainerako hiribilduek edo kostaldearen inguruan koka- tutakoek ere zergatik hartu zuten Donostiako Forua, eta barrualdeko hiribilduak sortzeko, lehen esan dugunez, Logroño-ko Forua erabili izana.

⁴⁸ BAÑOS Y AGUIRRE, J. L., *El Fuero de San Sebastián*, Donostia: Argitaletxea, Donostiako Udala, 1. or.

⁴⁹ MARTÍN DUQUE, Á. J. *El Fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica. Congreso el Fuero de San Sebastián y su época*, Eusko Ikaskuntza, 1982, 699. or.

⁵⁰ LACARRA DE MIGUEL, J. M., *Notas para la formación... op. cit.*, 204. or.

⁵¹ ARIZAGA BOLUMBURU, B., *Las villas guipuzcoanas que reciben el Fuero de San Sebastián: modos de vida de sus habitantes, Congreso el Fuero de San Sebastián y su época*, Eusko Ikaskuntza, 1982, 113-114 or.

⁵² MONREAL ZIA, G. eta JIMENO ARANGUREN, R., *Textos histórico-jurídicos navarros. I Historia Antigua y Medieval*, Iruñea: Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua, 2008, 330. or.

Bestalde, lehen aipatu dugun Antso VI.a Jakitunak 1164an Lizarrako Forua berresteaz gain, Donostiari ere bere Forua eman zion 1180. urtean eta, horren ondorioz, Gipuzkoako hiribildua Nafarroako erresumaren portu bilakatu zen. Dena den, 1200. urtean Gipuzkoa Gaztelako erresuman sartu zenez, Gaztelako hainbat erregek –Alfontso VIII.ak, Alfontso X.ak edo Alfontso XI.ak– eman zieten Donostiako Forua lehen aipatu ditugun hiribilduei. Alegia, Gaztelako erregeek eman zuten foru hori errege nafar batek eman zuen lehen aldiz.

Dena den, esan beharra dago, dirudienez, ez zela lotura esturik mantendu Gipuzkoako eta Nafarroako herri horien artean. Horren adibide da XV. mendean *donostiarrek* Foruko agindu jakin batzuei buruzko zalantzak izan zituztenean, Jakara jo zutela, eta ez Lizarrara, laguntza-eske, sortutako zalantza juridikoak argitzera⁵³. Horretan kontrastea egiten du Lizarrakoarekin, Lizarrakoan ez baitira ez Jaka hiria, ezta Jakako Forua ere aipatzen, eta ez dirudi gerora ere harremanik egon zenik bi herrien artean⁵⁴. Horrenbestez, Lizarrako Forua benetan Jakako Forutik datorren edo ez eztabaidatzen bada, gertaera horrek adierazten du, antza, mendetasun eta lotura hori benetan egiazkoak izan zirela.

Ikusi dugu Jakan eta Lizarran Donejakue bidea elementu egituratzailea izan zela; izan ere, Erdi Aroaren erdialdeko mendeak –herri horiek orduan sortu ziren– Donejakue bidearen urrezko arotzat jotzen dira⁵⁵. Horrela, bada, Donostiako hiribildua ere Donejakue bidean kokatuta dago, zehazki, Kostaldeko Donejakue bidean, hau da, Frantziako bidearen kostaldeko adarrean⁵⁶. Alabaina, Bidearen adar horren jatorriari dagokionez, historiografian ez dago adostasunik; alde batetik, Cirlot edo Menéndez Pidal autoreek diote bide hori antzina sortua zela, gaur egun Bide Frantsesa esaten zaion hori baino ere lehenago. Aitzitik, Lacarraren ustez bide hori XIII. mendean hasi zen erabiltzen, lehenago ez baitzen segurua bertako biztanleak zirela eta⁵⁷. Beraz, ez dago argi Donostiako hiribildua Donejakue bidea zegoen tokian sortu zen, edo bide hori geroago erabiltzen hasi ote ziren. Dena den, gauza batean ez dago za-

⁵³ GACTO FERNÁNDEZ, E., ALEJANDRE GARCÍA, J. A., GARCÍA MARÍN, J. M., *Manual Básico de Historia del Derecho*, op. cit. 129. or.

⁵⁴ HOLMER, G., *El Fuero de Estella según el Manuscrito 944*, op. cit. 4. or.

⁵⁵ MARTÍNEZ GARCÍA, L., Formación y desarrollo del Camino de Santiago en la Edad Media. Algunos aspectos generales, *Estudio e investigación*, 24 (2009), 249. or.

⁵⁶ ALONSO OTERO, F., Santiago y los Caminos de Santiago: un paisaje cultural, una cultura del paisaje, *Boletín de la A. G. E.*, 51 (2009), 209. or.

⁵⁷ SAS VAN DAMME, A., Peregrinación a Santiago y Oviedo por la ruta costera en la Edad Media, *Estudios Medievales Hispánicos* 3 (2014), 176. or.

lantzarik: hiribildua Donejakue bide batean kokatuta dago, Jaka eta Lizarra bezalaxe.

Gainera, beste bi herri horietan gertatu zen moduan, forua ematean, erregearen helburua frankoak erakartzea ere bazen, Donostia populatze aldera. Horregatik, Donostiako Foruaren testuan hainbat aldiz irakur daiteke forua Donostiako populatzaileei zuzenduta dagoela, eta populatzaile ez direnak Foruaren eraginpetik kanpo uzten ditu⁵⁸. Hala ere, diferentzia horiek ez zuten asko iraun; izan ere, XIV. mendearen amaierarako gipuzkoar guztiak juridikoki parekatzeko saiakera egin zen, Kaparetasun Unibertsalaren proiektuarekin. Izan ere, erregeak gipuzkoar guztien kaparetasun unibertsala deklaratu aurretik, 1397. urtean Getarian bildu ziren Batzar Nagusietan Probintziak gipuzkoar guztiak kaparetzat jo zituen eta, urtebete geroago, Henrike III.ak berretsi egin zuen hori⁵⁹.

IV. EPILOGO MODURA

Hasteko, foru-familia kontzeptuari erreparatu behar zaio; foruak ematea neurrigabeko hazkundera saihesteko eta eragozteko modua izan zen eta, beraz, Erdi Aroko fenomeno juridiko hori bideratzeko eta kontrolatzeko modua. Gainera, García-Gallo autoreak foruak lau eremutan sailkatu zituela esan behar dugu: Aragoi eta Nafarroako eremua, Leongo Extremadurako eremua, Gaztelako Extremadurako eremua eta Kataluniako eremua. Zehazki, lehenengoan sartzen dira hemen aipagai ditugun Jakako eta Lizarrako foruak. Lizarrakoak Jakan du jatorria eta, lehen ikusi dugunez, beste toki batzuei ere eman zitzaizen, Nafarroaren barruan eta kanpoan; hortaz, Jakako Zuzenbidearen transmisio-katea sortu zen eremu horietan guztietan, nahiz eta politikoki ez ziren Aragoikoak⁶⁰.

Jakako, Lizarrako eta Donostiako foruen artean antzekotasunak aurki daitezke edukiari dagokionez, eta hori logikoa ere bada, Jakakoa beste bien oinarri juridikoa izan zela jakinda. Horretaz gain, beste alderdi batzuk ere partekatzen dituzte, esate baterako, jatorrizko foruak desagertuta dituztela. Gabezia horrek arazoak eragin ditu hainbat arlotan eta, esaterako, foruak eman zireneko data zehatzari buruz hainbat hipotesi sortu dira. Era berean, Donejakue bidea hiru herriekin lotuta dagoela ere esan dezakegu, eta hirurak atzerritarrak erakartzeko asmoz sortu zirela.

⁵⁸ SALINAS QUIJADA, F., El derecho civil en el Fuero de San Sebastián y sus relaciones con el derecho civil en los fueros navarros, *Congreso el Fuero de San Sebastián y su época*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 313-314 or.

⁵⁹ ARIZAGA BOLUMBURU, B., Las villas guipuzcoanas que reciben..., *op. cit.* 120. or.

⁶⁰ TOMÁS Y VALIENTE, F., *Manual de Historia del Derecho español*, *op. cit.* 151. or.

Bestalde, hiru herriak hiribildu izan ziren hasieran, baina Jakak⁶¹ eta Lizarrak hiri kategoria eskuratu zuten 1483. urtean⁶²; Donostiak, aldiz, hiribilduaren tituluari eutsi zion eta gaur egun ere eusten dio⁶³.

Bukatzeko, foruak erregeek eman eta berretsi zituzten. Horrela, bada, artikulua honetako protagonista diren foruek, hau da, Lizarrakoak eta Donostiakoak, erregearen figura partekatzen dute; izan ere, alde batetik, Antso Jakituna errege nafarrak Gasteizko eta Donostiako foruak eman zituen baina, bestetik, Lizarrakoa eta Logroñokoa ere berretsi zituen⁶⁴; beraz, euskal eta nafar foruei dagokienez, garrantzi handiko figura izan zen.

V. BIBLIOGRAFIA

ALONSO OTERO, Francisco, Santiago y los Caminos de Santiago: un paisaje cultural, una cultura del paisaje, *Boletín de la A. G. E.*, 51 (2009).

ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz, Las villas guipuzcoanas que reciben el Fuero de San Sebastián: modos de vida de sus habitantes, *Congreso el Fuero de San Sebastián y su época*, Eusko Ikaskuntza, 1982.

ARRECHEA SILVESTRE, Horacio, Algunas correspondencias entre el Fuero de Estella y el Fuero de Tudela, *Príncipe de Viana*, 14 (1992).

ARROYAL ESPIGARES, Pedro J., Las fuentes del Derecho de los fueros de la Familia Cuenca-Teruel: el fuero de Jaca, *Baetica. Estudios de Arte, Geografía e Historia*, 2-1 (1979).

BAÑOS Y AGUIRRE, José Luis, *El Fuero de San Sebastián*, Donostia-San Sebastián: Editorial, Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

BARRERO GARCÍA, Ana María, El proceso de formación del derecho local medieval a través de sus textos: los fueros castellano-leoneses. IGLESIA DUARTE, José Ignacio (koord.), *I Semana de Estudios Medievales, Nájera*, 1990.

CIERBIDE MARTINENA, Ricardo, La lengua de los francos de Estella: intento de interpretación, *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 3 (1999).

⁶¹ SERRANO DAURA, J., El Fuero de Jaca, *op. cit.* 532. or.

⁶² MARTÍN DUQUE, Á. J., El fenómeno urbano medieval en Navarra, *op. cit.* 738. or.

⁶³ Gaur egun diogunean 2018. urteaz ari gara, artikulua hau orduan idatzi baitzen.

⁶⁴ ORELLA UNZUETA, J. L., Estudio jurídico comparativo de los Fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño, 255. or.

- ESCUADERO, José Antonio, *Curso de Historia del Derecho. Fuentes e Instituciones político-administrativas*, Madril: Edisofer, 1995.
- FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier, Fueros locales de Navarra, *Revista Príncipe de Viana*, 68. urtea, 242 (2007).
- GACTO FERNÁNDEZ, Enrique, ALEJANDRE GARCÍA, Juan Antonio, GARCÍA MARÍN, José María, *Manual Básico de Historia del Derecho (Temas y antología de textos)*, Madril: Editorial Dykinson, 1997.
- GARCÍA MOUTON, Pilar, Los franceses en Aragón (siglos XI-XIII), *Archivo de filología aragonesa*, 26-27 bol., 1980.
- GONZÁLEZ OLLE, Fernando, Etimología del topónimo Estella, *Príncipe de Viana*, 51 zbk., 190 (1990).
- HOLMER, Gustaf, *El Fuero de Estella según el Manuscrito 944 de la Biblioteca de Palacio de Madrid*, Almqvist & Wiksell, 1963.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Los Fueros de Navarra, Leyes Históricas de España*, Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2016.
- El municipio de Vasconia en la Edad Media, *Iura Vasconiae*, 2 (2005).
- JIMENO JURÍO, José María, Estella/Lizarra, *Toponomía, Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 30. zbk., 77 (1998).
- LACARRA DE MIGUEL, José María, Notas para la formación de las familias de fueros navarros, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 10 (1933).
- LADERO QUESADA, Miguel Ángel, *La formación medieval de España. Territorios. Regiones. Reinos*, Madril: Alianza Editorial, 2006.
- LALIENA CORBERA, Carlos, *La servidumbre y las transformaciones de la organización*, Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza, 2013.
- MARTÍN DUQUE, Ángel J., El fenómeno urbano medieval en Navarra. SOLORZANO TELECHEA, Jesús Ángel, ARÍZAGA BOLUMBURU, Beatriz, *El fenómeno urbano medieval entre el Cantábrico y el Duero: Revisión historiográfica y propuestas de estudio*, 2002.
- MARTÍN DUQUE, Ángel J., La fundación del primer burgo navarro. Estella, *Príncipe de Viana*, 63. zbk., 227 (2002).
- El Fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica, *Congreso el Fuero de San Sebastián y su época*, Eusko Ikaskuntza, 1982.
- MARTÍNEZ GARCÍA, Luis, Formación y desarrollo del Camino de Santiago en la Edad Media. Algunos aspectos generales, *Estudio e investigación*, 24 (2009).
- MARTÍNEZ GONZÁLEZ, Alfredo José, El Fuero de Estella: instrumento de atracción en las peregrinaciones europeas. SÁNCHEZ RIBES, Amparo (ed.)

- El Mediterráneo en el origen: IX Congreso Internacional de Asociaciones Jacobeas*, 2012.
- MOLHO, Mauricio, Difusión del derecho pirenaico (Fuero de Jaca) en el reino de Aragón, *Boletín de la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona*, Tomo XXVIII, 1960.
- MONREAL ZIA, Gregorio eta JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Textos histórico-jurídicos navarros. I Historia Antigua y Medieval*, Iruñea: Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua, 2008.
- ORELLA UNZUE, José Luis, La gasconización medieval occidental del Reino de Navarra, *Lurralde: investigación y espacio*, 33 (2010).
- ORELLA UNZUETA, José Luis, Estudio jurídico comparativo de los Fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño, *Congreso el Fuero de San Sebastián y su época*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982.
- RUIZ GÓMEZ, Francisco, El Camino de Santiago: circulación de hombres, mercancías e ideas, en IGLESIA DUARTE, José Ignacio de la, *IV Semana de Estudios Medievales de Nájera*, 1993.
- SALINAS QUIJADA, Francisco, El derecho civil en el Fuero de San Sebastián y sus relaciones con el derecho civil en los fueros navarros, *Congreso el Fuero de San Sebastián y su época*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982.
- SÁNCHEZ-ARCILLA BERNAL, José, *Historia del Derecho*, Colección jurídica general, Madril: Dykinson, 2009.
- SAS VAN DAMME, Astrid, Peregrinación a Santiago y Oviedo por la ruta costera en la Edad Media, *Estudios Medievales Hispánicos* 3 (2014).
- SERRANO DAURA, Josep, El Fuero de Jaca, *Boletín de la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona*, 49 (2003-2004).
- TOMÁS Y VALIENTE, Francisco, *Manual de Historia del Derecho español*, Madril: Tecnos, 2012.

Donostiako foruari buruzko oharrak: foruaren hedapena, indarraldia eta modernotasuna, eta foru-testuen azterketa

M^a Rosa AYERBE IRIBAR
Euskal Herriko Unibertsitatea

Aurkibidea

I. SARRERA. II. KOSTALDEKO HIRIBILDUEN ETA HAIEN INGURUNEAREN LEHEN AFORAMENDUA. III. AFORAMENDU HORIBARNEALDEKO UDALERRIETARA ZABALTZEA. 1. Andoain. 2. Zubietia. 3. Igeldo eta Ibaeta. 4. Urnieta. 5. Aduna eta Alkiza. 6. Altxa eta Pasaia San Pedro edo «Pasajes de Aquende o de San Sebastián». 7. Lezo, Pasaia Donibane edo «Pasajes de Allende o de Fuenterrabía», eta Irun. 8. Beste batzuk. IV. DONOSTIAKO FORUA BIGARRENEZ EMATEA ALKATETZA NAGUSIEI ETA BAILAREI. 1. Oiartzungo bailara. 2. Arieriako Alkatetza Nagusia. 3. Saiatzeko Alkatetza Nagusia. 4. Aiztondoko Alkatetza Nagusia. V. DONOSTIAKO FORUAREN INDARRALDIA ETA MODERNOTASUNA XVI. ETA XVII. MENDEETAN. VI. DONOSTIAKO FORUAREN TESTUAK. 1. Erdi Aroko eskuizkribuak. 2. Eskuizkribu modernoak. VII. BIBLIOGRAFIA. VIII. ERANSKINA (1). IX. ERANSKINA (2).

I. SARRERA

Antso VI.a Jakituna Nafarroako erregeak 1180. urte aldera (ez baitago datatuta¹) Donostiari forua ematea funtsezko gertaera gogoangarria izan zen Gipuzkoako udalerrien antolamenduan. Lurraldea egituratzen zuten antzinako bailarak desagertzen hasi ahala, udalerrri mugatuagoak eta zehatzagoak agertu

¹ Datazioari buruzko iritzia asko eta askotarikoak daude, baina guk José M^a Lacarraren usteari jarraituko diogu, Gaztelaren presioaren aurrean Nafarroako Erresuman sortutako testuinguru politiko gatazkatsuan oinarritu baitzen; izan ere, presio horrek mugaldearen defentsa eta populatzea irmotzeko premia ekarri zuen.

ziren, lurraldearen ikuspegitik, eta garatuagoak eta trinkoagoak ere bai, erakundeen eta publikotasunaren alderditik begiratuta.

Emakida horretan argi eta garbi zedarritu ziren hiribildu berriaren muga jurisdikzionalak; hiribildua Urgull mendiaren magalean zegoen herrixka baten gainean eraiki zen, badiaren eta Urumea ibaiaren bokalearen artean (Donostiako ingurune guztitik toki egokienean, Nafarroako erregearen defentsako eta ekonomia-arloko interesei erreparatuta). Hiribilduaren mugak honako hauek ziren: «*de Hondarribia usque ad Oriam et de Arenga usque ad Sanctum Martinum de Arano*».

Historiografiak, oro har, zera ikusi du mugapen horretan, Hondarribia ere emandako lurretan sartzen zela. Hondarribiari buruz ari delarik, Pablo de Gorosabelek berak dio Gipuzkoako herri zaharrenetako bat dela eta «Undarribia» izenarekin agertzen dela 1180. urtean Donostiari forua emateko emakidan, «*eta horrek adierazten du askoz lehenagotik existitzen zela*»²; aldiz, Donostiari buruz eta foruaren emakidari buruz ari denean, Donostiako mugapean txertatu zuen jada, Irun, Oiartzun, Erreterria, Lezo, Pasaia, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Lasarte, Usurbil eta Orio herrieekin eta Andoaingo unibertsitatearekin batera, eta Zubieta, Aduna eta Alkiza zatitzen ditu³.

Gure ustez, ordea, esamolde horrek zera adierazten zuen, Donostiako mugape berria «*Hondarribia*» herritik «*hasten*» zela, «*Sanctum Martinum de Arano*»raino iristen zen moduan, baina bi kasuetan herri horiek hiribildu berriaren jurisdikziotik kanpo geratu ziren. Donostiako –Hernaniko bailarako herria zen– jurisdikzioa, beraz, Pasaia portuak⁴ eta Oria ibaiak mugatzen zuten Nafarroa aldera, eta bere jurisdikziopean hiribildu berriak sortu ziren geroago: Hernani, Usurbil eta Orio, baina ez Hondarribia (Oiartzungo bailarari zegokion), eta 1203. urtean Donostiako forua Hondarribiraino iritsi zen, ordura arte beti nafarra izan zen Urumea ibairaino iristen zen gunea Gaztelari atxiki ostean⁵.

² GOROSABEL, P. de, *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa, con un apéndice de cartas-pueblas y otros documentos importantes*, Tolosa: 1862 [730-741 orrietan dago forua]. Berriz argitaratu zen Bilbon: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972, 171. or.

³ *Ibid.*, 436. or.

⁴ Autore gehienek «Arrenga» izenarekin identifikatzen dute, baina Gamon-en ustez Lesakako *Ren-ga* mendiari zegokion.

⁵ Gonzalo Martínez Díezen arabera, 1200. urtean, Alfonso VIII.ak «*garai batean [bere herenaitona] Alfonso VI.arenak izandako lurralde guztiak berreskuratzeaz gain: –Araba osoa eta Gipuzkoa Urumea ibaira arte–, ibai hori igarota ere, ordura arte Nafarroaren mendeko izandako eskualde bat atxiki zuen, Urumea eta Bidasoa ibaietako lurraldea*» [Alfonso VIII, *Rey de Castilla y Toledo (1158-1214)*, Burgos: Olmeda arg., 1995, I, 95. or (Corona de España XXI. Reyes de León y Castilla)].

Izan ere, Hondarribiari forua eman ziotenean 1203. urtean, mugape jurisdikzionala honela zehaztu zen: «*de ribo de Oyarzum vsque ad ribum de Fonte Rabia [Bidasoa], et de Pena de Aia usque ad mare, et de Lesaca usque ad mare, et de Belfa⁶ usque ad mare, et terminum de Yrun cum omnibus inde habitantibus*». Hau da, Oiartzun ibaiak mugatzen zituen bi jurisdikzioak. Eta «*Astuuiga*»⁷-ko portua eta Lezo herri berria ere («*Et dono uobis Guillelmum de Lacon et socios suos, ut sint uestri uicini*») sartzen zituen.

Ez da logikoa Errege Jakitunak, Donostiako herritarren leialtasuna irabazteko asmoz eta gaskoien nukleo garrantzitsu batez osatuta zegoela jakinda (Nafarroako Erresumaren barruan egon arren, antzina Nafarroaren eta Gaztelaren artean hara eta hona ibilia zen), Hondarribiko biztanleria leiala haren jurisdikziopean jartzea, hondarribiarrak nafarrak izan baitziren eta orduan ere hala ziren; izan ere, Gaztelaren mendera 1200. urtean igaro baldin bazen, «konkistatua» izan zelako izan zen.


Ez dugu ahaztu behar, halaber, Hondarribiko mugape jurisdikzional hori Baionako Elizbarrutiaren mendekoa izan zela eta izango zela⁸; Donostia, aldiz, Iruñeko Elizbarrutiarena izan zen beti.

Interpretazio hori aspaldikoa da, baina, ziurrenik, itzulpen desegoki batek dator; izan ere, 1950. urtean, José Luis Banús y Aguirrek *El límite oriental de San Sebastián y el Puerto de Pasajes* argitaratu zuen eta 1963an *El Fuero de San Sebastián*, eta hausnarketa handiegirik gabe egin zuen testu horren jarraipena, latinetik gaztelaniara oker ekarria baitzegoen. Argitaratu zuen latinezko foruan argi eta garbi mugatzen da Donostiaren jurisdikzioa, honela (I-11. art.): «*Eciam terminum dono al popullatores de Sancto Seuastiano, de Hundarribia usque ad Oriam, et de Arrenga usque ad Sanctum Martinum de Arano; scilicet quod ego habeo sub terminum illum et totum quod ibi est de rreyalengo*». Argi dago Hondarribitik Oria ibaira bitarte eta Arrengatik (Pasaia) Aranora (Nafarroa) bitarte zegoen eremua esleitzen zela.

⁶ «Vera de Bidasoa» bezala identifikatu da.

⁷ Hiribilduaren ipar-ekialdean kokatutako portua.

⁸ Zelestino III.a Aita Santuaren Bulda bidez -1194. urteko azaroaren 13an eman zen, Done Joan Laretangoaren basilikan-, Baionako Apezpikuak eta Kalonjeek, Urbano III.a Aita Santu zela, 1186. urtean sinatutako kontzertua berretsi zen eta Baionako elizari muga berriak esleitu zitzaizkion, honela: «*Vallem quæ dicitur Oyarzu usque ad Sanctum Sebastianum*»; horri esker, Baionako Apezpikutzaren mende geratu ziren Bidasoa ibaitik Donostiara bitarteko herri gipuzkoarrak eta Nafarroako Leringo, Baztango eta Bortzirietako bailaretako herriak (aldizka aterako baziren ere, haren mende egongo ziren harik eta 1566. urtean, behin betiko bereizi ziren arte). Horrela, bada, Baionako Apezpikutzari zegozkion «*Hondarribiko Artzapez-barrutia*» (gerora, «*Artzapez-barruti txikia*» esan zitzaion) osatzen zuten herriak, eta Iruñekoari, aldiz, lehen «*Gipuzkoako Artzapez-barrutia*» (gerora «*Artzapez-barruti nagusia*») osatzen zutenak.



1. mapa. Donostiako mugape jurisdikzionala 1180. urtean.

Alabaina, itzulpenaren arabera, «*mugape modura, Donostiako herritarrei Bidasoa ibaitik Oria ibaira bitartekoa, eta Arrengatik Aranoko San Martinera bitartekoa esleitzen die; hau da, mugape horren barruan nirea den guztia eta erregeari dagokion guztia*»⁹. Eta ez da gauza bera muga Hondarribian bertan hastea, edo herriaren bukaeran, Nafarroarekin duen muga...

Eta ikuspegi inklusibo horrekin ados daude Leandro Silván¹⁰, Beatriz Arizaga¹¹ eta itzulpen desegoki horri zuzenean edo zeharka jarraitu eta kasu egin dioten gainerako autore guztiak.

⁹ BANÚS Y AGUIRRE, J.L., *El Fuero de San Sebastián*, Donostia: Udala, 1963, 259. or. + 18 lam. [79-110 or., Juan de Sorolak 1474-IX-26an egindako kopiari jarraikiz. Latina eta gaztelania], 84. or.

¹⁰ SILVÁN, L., *El término municipal de San Sebastián: su evolución histórica*, Donostia: Historia Donostiarraren Doctor Camino Taldea, 1971, 30. or.

¹¹ ARIZAGA BOLUMBURU, B., Las villas guipuzcoanas que reciben el Fuero de San Sebastián: modos de vida de sus habitantes. *Congreso «El Fuero de San Sebastián y su época*, 1982, 115. or.

II. KOSTALDEKO HIRIBILDUEN ETA HAIEN INGURUNEAREN LEHEN AFORAMENDUA

Jatorrizko forua berehala galdu zen (1396. urtea baino lehen, Gonzalo Moro doktorearen ustez) eta, beraz, ezinezkoa izan da eta da berori fisikoki aztertzea. Dena den, Gaztelako Alfontso III.a erregeak forua Donostiari berretsi ostean (errege hark atxiki zion Gipuzkoa Gaztelako koroari 1199-1200ean)¹², beste herri batzuei ere eman eta esleitu zitzaionez, testu haren zentzua eta edukia ezagutu eta argitu ahal izan da eta egin daiteke, oraindik ere, Lizarrako (eta Jakako) foruarekin lotuta. Lehenengo fasean, Gipuzkoako kostaldeko hiribildu guztietara (Deba izan ezik) eta Kantabriako San Vicente de la Barquera (1210) herrira hedatu zen foru hura¹³. Horrela, bada, foru hori jaso zuten honako hauek:

Hondarribia (Alfontso VIII.a, Palentzia, 1203-IV-18)

«*Dono et concedo uobis concilio de Fonte Rabia presenti et futuro forum de Sancto Sebastiano perpetuo hauendum*»¹⁴.

Getaria (Alfontso VIII.a, Donostia, 1209-IX-1)

«*Dono itaque vobis et concedo forum Sancti Sebastiani, ut illud perpetuo habeatis in montibus, pascuis, aquis et in omnibus causis, eo modo quo rex Navarre illud dedit vobis habendum*»¹⁵.

Mutriku (Alfontso VIII.a, Donostia, 1209-IX-1)

(Foruaren jatorrizko emakida galdu egin da, baina Fernando III.ak Gasteiztik berretsi zuen 1237-III-23an, eta Alfontso X.ak Burgostik 1256-V-16an: «*do vos*

¹² «*Notum sit tam presentibus quam futuris quod ego Aldefonssus Dey gratia Rex Castelle et Toleti, vnaque cum uxore mea Alienor, Regina, et cum fillio meo Fernando, libente animo et boluntate espontanea concedo in rregno meo et confirmo uobis vniuerso concillio de Sancto Seuastiano presenti et futuro omnes foros et consuetudines et liuertates, videlicet de terminis de foris et consuetudinibus et pedagogiis liuertatibus et alliis rrebus quas Sancius, fillius Regis Garsie, quondam Rex Nauarre abunculus meus nobis dedit et concessit in rregno suo cum eandem villam de nobo construxit, sicut in instrumentyo ab eodem nobis condito plenius et expressius continetur. Et vt omnia predicta firmus obseruentur \ et/ presens sigilum meum plumbeum aponi precepi. Si quis bero contra hoc preceptum egerit rregem indignacionem incurrat et rregia parti .M^o. aures in tanto persoluat daptum super hoc illatum rrestituat duplicatum. Facta carta apud Burgos rrege esprimete, XVI^a die menssy augusti, era M^a CC^a XL^a. [AGG -GAO CO LCI 4, 76. fol. aurre.-atzea.]*

¹³ Hiri-gutuna galdu bazen ere, kopia bat jasota dago Gervasio Eguaras Fernándezek osatutako «*Colección de Documentos para la Historia de la Provincia de Santander*» bilduman; horren arabera, «*dono itaque vobis et concedo forum de Santo Sebastiano, quantum ad illud scilicet quod vos vicini villa dare debitis*» [Cit. BANÚS y AGUIRRE, J.L., *El Fuero de San Sebastián, op. cit.* 215. or.].

¹⁴ MARTÍNEZ DÍEZ, G., GONZÁLEZ DÍEZ, E., MARTÍNEZ LLORENTE, F., *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*, Donostia: Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia, 1991, I, 4. dok., 20. or.

¹⁵ *Ibíd.*, 5. dok., 21. or.

demás e otorgo vos aquellas libertades e franquezas por todo mio regno que han los de San Sebastián»; eta Zumaiaiko hiri-gutunak honako hau dio: «ayan los que en ella poblaren el fuero de San Sabastián, así como los de San Sabastián an el fuero de Iaca e segund que lo an e son poblados al dicho fuero las villas de San Sabastián e de Guetaria e de Motrico»).

Zarautz (Fernando III.a, Burgos, 1237-IX-28)

«Dono itaque vobis et concedo pro foro quia detis mihi duos solitos de qualibet domo annuatim in festo Sancti Martini, et si maraveritis aliquam baleam detis in [mihi] unam tiram a capite usque ad caudam, sicut forum est; et in ombibus aliis causis habeat illud forum, quod habet concilium de Sancto Sevastiano»¹⁶.

Villanueva de Oyarzun edo Errenteria (Alfontso XI.a, Valladolid, 1320-IV-5)

«E que assí los que agora y poblaren commo los que fueren moradores en esta dicha villa de Villanueua de Oyarço, a tanbién fijosdalgo commo otros omnes qualesquier; que ayan el fuero de Sant Sauastián, por que se iudguen segund que lo ouieron en tiempo que los otros rreyes onde nos venimos e en el nuestro fasta aquí quando se llamaua conceio de Oyarço»¹⁷.

Hernani (1332 baino lehen)

(Foruaren jatorrizko emakida galduta da.)

Villagrana de Zumaya (Alfontso XI.a, Valladolid, 1347-VII-4)

«... tovimoslo por bien que fagan villa en el dicho lugar Çumaia e le çerquen de muros e torres lo meior que ellos entendieren que cunple para nuestro seruiçio, e que aya nonbre el dicho logar Villagrana de Çumaya, e que ayan los que en ella poblaren el fuero de San Sabastián, así como los de San Sabastián an el fuero de Iaca e segund que lo an e son poblados al dicho fuero las villas de San Sabastián e de Guetaria e de Motrico; e ayan e pongan sus alcaldes, preboste e iurados e escriuanos públicos e fieles e ofiçiales segund que lo an e ponen en Sant Sabastián e en Guetaria e en Motrico, e de los iuizios e sentençias de los alcaldes de dicho lugar de Villagrana de Çumaya que ayan las alçadas para San Sabastián e de San Sabastián para la nuestra Corte»¹⁸.

Belmonte de Usurbil (Henrike II.a, Toro, 1371-IX-11)

«e hayades el fuero e las franquezas e libertades e los buenos usos e las buenas costumbres que ha la nuestra villa de San Sebastián, e usedes de todo

¹⁶ *Ibíd.*, 12. dok., 28. or.

¹⁷ *Ibíd.*, 141. dok., 143. or.

¹⁸ *Ibíd.*, 238. dok., 253. or.

ello según que mejor e más cumplidamente los han e usan de ellos en la dicha villa de San Sebastián»¹⁹.

Villarreal de San Nicolás de Orio (Joan I.a, Burgos, 1379-VII-12)

«E que ayades el fuero de la villa de Sant Sabastián e todas las franquezas e libertades e buenos vsos e buenas costumbres que el dicho conçeio de la dicha villa de Sant Sabastián an de los rreyes onde yo vengo e de mí, e que pongades en la dicha villa por cada anno alcalles e preuoste, iurados e escriuanos e otros ofiçiales qualesquier segund en la dicha villa de Sant Sabastián los an e suelen poner»²⁰.

Errenteria eta Usurbil izan ezik, beste guztiak kostaldeko herriak dira. Eta barrualdeko bi hiribildu horiek foru hori jasotzearen arrazoia, zalantzarik gabe, honako hau izan zen:

- 1.- Usurbil Donostiako mugartean zegoen 1180. urtean sortu zenean, eta Donostiatik bereizi eta 1371. urtean hiribildu bihurtu zenean, erregeak mende batez baino gehiagoz ezagutu eta praktikatutako forua eman zion.
- 2.- Errenteria Oiartzungo bailaratik bereizi zen hiribildu modura, Villanueva de Oyarzun izenarekin eta, antza, 1320. urtea baino lehen ere Oiartzungo bailara Donostiako foruari atxikita zegoen –bailarari buruz hitz egiten dugunean aipatuko dugu–.

Gipuzkoako kostaldeko herriei Donostiako forua emateko arau orokorrekin salbuespen bakarra izan zuen: **Monreal de Deva** hiribildua; kostaldekoa izan arren, Alfontso XI.ak, Algecirasetik, 1343-VI-17an Gasteizko forua eman zion:

«Por rrazón que el conçeio de la villa de Monrreal, que es en Guypuzca, nos enbieron dezir que ellos que sson poblados al ffuero de Bitoria e el rrey Don Ssancho, nuestro auuelo, que Dios perdone, que les dio ssus priuilegios e ffranquezas e libertades, e porque en aquel logar do sson poblados no podían auer las cosas assy commo les era menester para ssu mantenimiento, porque están alongados del agua e de las lauores del pan, e que en término de la dicha villa de Monrreal que á vn suelo en que non á ninguna puebla, que es çerca del agua de Deva en la rribera de la mar, e que era su voluntad de poblar ally e nos pedían merçed que nos ploguyese ende.

Nos por esto, e por fazer bien e merçed al conçeio de la dicha villa de Monrreal, tenemos por bien que puedan poblar e pueblen en el dicho suelo que es çerca del agua de Deua; e aquella puebla que se y fecier que aya nonbre Mon-

¹⁹ BANÚS y AGUIRRE, J.L., *El Fuero de San Sebastián*, op. cit. 221. or. eta 10. eranskina

²⁰ MARTÍNEZ DÍEZ, G., GONZÁLEZ DÍEZ, E., MARTÍNEZ LLORENTE, F., *Colección de Documentos Medievales...* op. cit., 382. dok., 101. or.

rreal, e aquellos que y poblaren e moraren de aquí adelante que ayan aquel fuero e aquellas ffranquezas e libertades que agora an en aquel lugar do sson poblados, e ellos que nos ffaغان aquellos ffueros rreales que nos agora ffazen e sson tenudos a fazer, e nos den aquellos pechos e ffueros e derechos que agora auemos e deuemos auer en la dicha villa de Monrreal»²¹.

«Itxuraz kontraesana» dirudien hori –Elena Barrenak ezin hobeto definitu zuen²²–, zalantzarik gabe, egoera honen ondorio izan zen: Gasteizko forua Itziar herriari eman zitzaion hasieran (Valladolid, 1294-VI-24). Toki hori goialdean eta kostatik urrun dago, eta bertako biztanleak gehiago identifikatzen ziren Gasteizko foruak arautzen zuen jarduera ekonomikoarekin, Donostiako foruak arautzen zuenarekin baino; horrela, bada, biztanleek operazio-zentroa, hau da, hiribildua, itsas bazterrera eraman zutenean, beren forua ere eraman zuten, nahiz eta aurrerantzean nagusituko ziren jarduerak Donostiako foruan hobeto jasota egon.

Horrenbestez, Debaren salbuespena salbuespen, Gipuzkoako kostaldeko gainerako hiribilduek Donostiako forua jaso zuten sortu zirenean. Baina bada beste arazo bat ere Gipuzkoako foru-emakidak aztertzeko orduan: **Hernani** hiribilduaren kasua, hiri-gutuna XV. mendearen amaierarako desagertuta baitzen jada. Izan ere, 1491. urteko Tolosako Batzar Nagusian, Hernanik zera esan zuen, «*antzina erre zela herrian zegoen paperen artxiboa*»²³.

Euskal historiografian, Hernani Henrike II.ak edo Joan I.ak sortu zuela uste izan da beti, 1380. urtea baino lehen (1379ko maiatzean egin zen botere-aldaketa), eta Donostiako forua esleitu zitzaiola. Alabaina, Nafarroako dokumentazioa aztertuz gero, Hernani harresiz inguratutako hiribildutzat agertzen da jada 1332. urtean, eta 1380. urtea baino lehen sortu zela pentsarazi izan duen erreferentziako datua Donostiako hiribilduarekin 1379-VIII-2an «berdinen artean» sinatutako auzotasuneko edo egoki moldatzeko kontratu bat baino ez da; kontratu horretan, funtsean, bi hiribilduen arteko merkataritzako eta ekonomia-ko harremanak arautu ziren, eta gerora ere eutsi egin zitzaien ezaugarri horiei.

Hernani XIII. mendearen 2. erdian bihurtu bide zen hiribildu; izan ere, Alfontso X.ak (1252/1284-IV-4) jarraitutako fundazio-politikan, itxura guztien arabera, Arabatik Oria ibaian barrena Donostiara iristeko ibilbidea bermatzeari eman baitzitzaion lehentasuna. Eta politika horri jarraikiz sortu zituen erregeak 1256. urtetik 1268. urtera bitarte Segura, Ordizia eta Tolosako hiribilduak, antzeko distantziara, bideen erabiltzaileentzat geldialdiak egiteko eta erreferen-

²¹ *Ibid.*, 224. dok., 236. or.

²² BARRENA OSORO, E., El Fuero de Vitoria en la villa de Deva. *op. cit.*, 135-147 or.

²³ BANÚS y AGUIRRE, J.L., *El Fuero de San Sebastián*, *op. cit.* 223. or.

tziako puntu izateko; une hartan Hernaniko hiribilduari forurik eman ez izanak «hutsune» nabarmena eragingo zukeen ibilbidean, Tolosatik Donostiara zihoan errege-bidea Andoain-Lizaurretik, Urnietatik eta Hernanitik igarotzen zelako; azken herri horretako ibai-portuetatik salgaiak itsasontziz jaisten ziren Donostiako Santa Katalinako portu edo lonjara, betiere Astigarragan Murgiako bidesaria ordaindu ostean.

Orain dela gutxi arte uste genuenez (Luis Murugarren²⁴ eta Luis Miguel Díez de Salazar²⁵ ere gurekin bat zetozen), hiribilduaren emakida horretan, Hernanik ez zuen Donostiako forua hartu, beti esan izan zen moduan, baizik eta Gasteizkoa, Segura, Ordizia eta Tolosaren kasuan bezala; izan ere, (hiribildu horiek bezala) ez baitu kostarik eta haiekin batera bihurtuko zelako hiribildu; eta, gainera, fundazioaren ondoko bizimoduak eta barne-antolamenduak ez dutelako inolako antzik Donostiako foruari dagozkion erakundeekin (bereziki, probetuen eta alkatetza bikoitzaren figurak). Fundazioen logikak eta hiribilduaren sorrerako (1332 baino lehen, betiere) jatorrizko testua galdu izanak –frantsesen sarraldietan behin eta berriro erre izanaren ondorioz– hori uste izatera bultzatu gintuzten. Alabaina, gaur egun seguru esan dezakegu Hernaniko hiribildua ere Donostiako foruaren arabera sortu zela, hiribilduko 1518ko Ordenantzetan jasotzen den moduan –1542. urteko berrespenaren aurrekoak dira aipatu ordenantzak–:

«Yten, que pues esta villa esta aforada con San Sabastián que se guarde el prouillejo de no sacar de casa por devda çebil a ningún vezino ny estrano »²⁶.

Horrela ulertzen da Hernaniko 1518ko udal-antolamendu horretan Donostiako udal-antolamenduaren hainbeste aipamen agertzea. Esaterako:


«Sobre las ynjurias y rrenzillas de entre vezinos, que se pongan las hordeanças de San Sabastián que sobre esto hablan.

Que conforme a la carta e prouysión rreal de San Sabastián, los alcaldes no procedan de ofiçio syn pidimiento de parte sobre palabras d'entre vezinos donde no ay armas ny sangre, y las partes fueren amigos.


²⁴ MURUGARREN ZAMORA, L., *Hernani y su historia e instituciones*, Donostia: Udal Aurrezki Kutxa, 1970.

²⁵ DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., *La vecindad de Hernani (1379-1429)*, Bartzelona: CESIC, 1989, T. II, 367-377 [*Homenaje a la Memoria del Prof. Dr. Rmilio Sáez (1917-1988)*].


²⁶ AGSimancas. Errege Kontseilua. Eskribautzak, 236-5. Hernaniko kontzejuak hiribilduko ordenantzak berrets zitezen eskatu zuen; 1518ko uztailaren 8an erregearen xedapenez egin ziren ordenantzak, 125 kapitulutan. Kontra agertu ziren Juan de Ilarreta eta Hernaniko beste herritar batzuk. Zigorrei eta beste gai batzuei buruzko hainbat titulu aurkeztu ziren, eta orri-bazterretan oharrak eta iruzkinak idatzi zituen Navia Lizentziaduna korrejidoreak, 1540ko urtarrilaren 31n egindako txostenean. Eskerrik asko Iago Irijoa Cortés-i horiek guztiak gure esku jartzeagatik.




1203 (Hondarribia).




1209 (Getaria eta Mutriku).



1237 (Zarautz).



1320 (Errenteria).



1347 (Zumaia), 1371 (Usurbil) y 1379 (Orio).

2. mapa.- Erdi Aroko hiribilduei Donostiako forua emateko prozesua 1180-1379.

Yten, que pues esta villa esta aforada con San Sabastián que se guarde el preuillejo de no sacar de casa por devda çebil a ningún vezino ny estrano.

Yten que quando ay acusador sobre heridas e ynurias que se goarden las hordenanças que la villa de San Sabastián tiene sobre ello».

III. AFORAMENDU HORI BARNEALDEKO UDALERRIETARA ZABALTZEA

Bi mendetan (1180-1383) 25 hiribildu sortu ziren, dela Jaka-Lizarra-Donostiako foruari atxikita, dela Logroño-Gasteizko foruari atxikita; 25 hiribildu horietaz gain, baziren Gipuzkoan herrigune txikiak ere, garai hartako dokumentazioan «elizate», «unibertsitate», «parrokia», «kolazio» edo, aurrerago, «herrixka» esaten zitzaienak. Herrigune txiki horiek ez zuten hiribilduen zuzenbide pribilegiaturik; aitzitik, zuzenbide tradizionalaren eta lurraldeko jauntxoen, nobleen edo Ahaide Nagusien eraginpean zeuden, horiek baitziren landa-eremu zabalen nagusi, eta landa-eremu horietan nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak gauzatzen ziren, hiribildu forudunetan eskulangintzako, merkataritzako edo industriako jarduerak nagusi ziren bitartean.

Horregatik, XIV. mendetik aurrera, hiribilduei emandako foruaren esku-bidea baliatzeak bizi-baldintzak hobetzea eragiten zuen, batik bat, erregearen segurtasuna eta babesba zekarrelako handikien presioaren aurrean; eta XV. mendetik aurrera, batik bat, onura ekonomikoengatik, unibertsitate edo komunitate txiki askok (baita pertsona eta etxe partikularrek ere) auzotasun-kontratuak sinatu zituzten inguruko hiribilduren batekin. Esate baterako:

- Donostia (Andoain txertatu zuen [1475. urtean Tolosara aldatu zen arte], Zubietako zati bat, Igeldo eta Ibaeta 1379. urtean; Aduna eta Alkiza [Tolosatik Donostiara aldatu ziren 1478an], Urrietako 29 etxe, eta Altza eta Pasaia *San Pedro* edo «*Pasajes de Aquende o de San Sebastián*»)

- Hondarribia (Irun Urantzu mugape jurisdikzionalaren barruan txertatu zuen hiribilduaren sorreran, Lezo eta Pasaia Donibane edo «*Pasajes de Allende*» edo «*de Fuenterrabía*»)

- Tolosa (Berrobi, Gaztelu, Irura, Leaburu eta Orea; Abaltzisketa, Albístur, Alegia, Altzo, Amasa, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Zizurkil, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Lizartza eta Orendain, 1374tik 1392ra bitarte; Aduna, Alkiza [Donostiara igaro ziren 1475ean] eta *Asteasu*, 1386. urtean; *Larraul eta Sorabilla* [Asteasurekin batera Aiztondoko Alkatetza Nagusira igaro ziren]; Andoain [Donostiatik bereizi eta Tolosari atxiki zitzaion 1475ean]; eta Villabonarekin zalantza dago)

- Segura (Astigarreta, Zegama, Zerain, Gabiria, Gudugarreta, Idiazabal, Legazpi, Mutiloa eta Ormaiztegi atxiki zitzaizkion 1384an, eta geroago Ezkio eta Zumarraga)

- Villafranca edo Ordizia (Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Legorreta eta Zaldibia 1399. urtean, baita Lazkaoko 8 etxe ere)
- Arrasate (1353. urtean, Garagartza, Udala, Gesalibar, Uribarri, Herenuzketa, Isasigaña eta Oleaga atxiki zituen, Leintz bailaratik bereizi ostean).
- Bergara (Oxirondo 1348. urtean, eta Usarraga [gerora Antzuola] 1391. urtean)
- Villarreal edo Urretxu (Zumarraga 1383an, baina Segura kontra zegoenez bereizi egin zen, eta Areriako alkatetza nagusiaren buru bihurtu zen)
- Usurbil (Aginaga eta Urdaiaga hasiera-hasieratik hiribilduan txertatu ziren, eta Zubietaren zati bat 1379. urtean)
- Hernani (Urnietako 16 etxe 1402. eta 1429. urteetatik aurrera)
- Deba (Itzár hasieratik, eta Garagartza)
- Elgoibar (Alzola eta Azpilgoeta)
- Zumaia (Aizarnazabal 1480. urtean, eta Oikia)
- Zestoa (Aizarna hasieratik, eta geroago Aizarnazabal 1480. urtera arte [Zumaiera igaro zen])

Horrela bada, hiribilduak lurraldea antolatzeko mekanismo bihurtu ziren eta, horien bitartez, herrigune eta landa-eremuko gune txikiak nukleo nagusi edo «jurisdikzio buru» bati atxikita geratuko ziren; jurisdikzio buru esaten zitzaion alkateak hartzen zuelako errege-jurisdikzio zibil eta kriminala. Hiribilduei atxikitako herrixka, kolazio edo unibertsitateetan, beraz, erakundeen garapena oso txikia izan zen, eta kontzejuetan ez zuten ia garrantzirik izaten. Antzuola eta Oxirondo (Bergarari atxikitakoak) edo Aginaga (Usurbili atxikita) kolazioek soilik lortu zuten parte-hartze aktiboagoa eta proportzio handiagokoa udal-gobernuan (eta, aurrerago, probintziakoan), betiere hiribilduarekin sinatu zituzten kontzertuei edo gutun zatituei –«cartas partidas»– esker.

Oro har, hiribilduek beren kolazioen bizimodua antolatu zuten, baina nahieran jokatzeko askatasuna uzten zieten, betiere hiribilduaren interesen kontrako ekimenak ez baziren. Ikuspegi politikotik begiratuta, auzo-alkateak izendatu zituzten, eskumen mugatuekin, hiribilduetako alkate arrunten eskumenen arabera; dena den, barne-antolamenduan nolabaiteko autonomia eman zieten, nahiz eta hiribilduen eta hiribilduetako oligarkien interesek funtsezko egitekoa betetzen zuten, haien iritziak erabakigarriak izaten baitziren jarduerak eta jardueren aprobeixamenduen onura-araubidea diseinatzeko garaian. Aitzitik, diru-kontuak eta ogasunarekin lotutakoak hiribilduetan hertsiki zentralizatu eta kontrolatzen zituzten.

Arazoak arazo (hiribilduen nagusikeriak eta gehiegikeriak zirela medio), denboraren poderioz, Gipuzkoan auzotze-mugimendua asko zabaldu zen eta, XV. mendearen amaierarako, hiru alkatetza nagusiak (Areria, Saiatz eta Aiz-

tondo), bi bailarak (Leintz eta Oiartzun) eta hainbat partikular (beren buruari «Ahaide Nagusi» esaten jarraitu zuten) salbuetsita, Gipuzkoa osoa baliatzen zen Donostiako edo Gasteiz-Logroñoko foruetako eskubideez.

Horrela, bada, «auzotzearen» bide horren bitartez, Donostiako forua honako hauek zabaldu zen: Andoain [1475. urtera arte; urte hartan Tolosarekin auzotu zen eta Logroño-Gasteizko foruaz baliatzera igaro zen], Igeldo, Ibaeta eta Zubietaren parte bat (1379. urtean) eta Urnietako 29 etxe (XIV. mendearen amaieratik), Aduna, Alkiza, baita Altza eta Pasaia San Pedro ere (azken bi komunitate horiek Donostiako udalerrian txertatu ziren forudun bihurtu zenetik).

1. Andoain

Andoain-Leizaur kolazioa zen, eta XIV. mendearen amaierarako industria sidero-metalurgiko garrantzitsua zuen jada; Tolosako eta Donostiako hiribilduetan sartu eta atera ibili ostean, Donostiari atxikitzea erabaki zuen. Auzotze hori Henrike II.ak berretsi zion Valladoliden, 1379-II-28an, Zubietari, Igeldori eta Ibaetari bezalaxe²⁷. Errege-xedapen horren osagarri, urte bereko martxoaren 2an erregeak beste bat eman zuen eta, horri esker, hiribilduaren jurisdikziopeko herrixketan alkateak izendatzeko ahalmena zuten herritarrek; alkate horiek Donostian zin egin behar zuten, hiribildura joan behar zuten apelazioan eta 4 marabeditik beherako auziak soilik ebatzi ahal zituzten²⁸.

Ezinezkoa da dokumentua kontsultatzea, 1813. urtean Donostiako artixboa suntsitu zenean desagertu zelako eta, beraz, ezin dugu argitu 1379. urtean Andoain auzotu zen ala auzotzea berretsi egin zen (edo biak), ez aldeek zer arrazoi argudiatu zituzten, ez eta lotura edo auzotze horrek zer nolako baldintza, betebehar edo onurak zekartzan ere. Izan ere, Luis Cruzat-ek honako hau zioen Inbentarioan egindako aipamenean: «*Privilegio del rey Don Enrique de la vecindad de Zubieta, de Igueldo, de Ybaeta y de Andoayn*», eta José Luis Banúsek, berriz, honako hau: «*Privilegio del rey Don Enrique que confirma por lugares de su vecindad a las tierras de Zubieta, de Igueldo, de Ybaeta y de Andoayn*».

²⁷ Halaxe erregistratu zuen Luis CRUZATEk, 1581. urtean egindako inbentario batean; inbentario hori hemen argitaratu zen: *Inventario de los papeles que la ciudad de San Sebastián tiene en su archivo*, «Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa», 2, Donostia, 1958, 73. or. (autore horren arabera, inbentarioak berunezko zigilua ere bazuen, 5. folioaren atzealdean). Erreferentzia hori bera argitaratu zuen autore honek: BANÚS y AGUIRRE, J.L., *El Archivo Quemado. Inventarios antiguos y acervo documental de la M.N. y M.L. Ciudad de San Sebastián antes de la destrucción de 1813*, Donostia: Historia Donostiarren Doctor Camino Taldea, 26, 1986, 32. or.

²⁸ CAMINO Y ORELLA, J.A., *Historia civil...*, 132-133 or.

Errege-erreginek Donostiari eman zioten Andoaingo lurraren gaineko jurisdikzioa betearazteko eskubidea babesten zuen gutuna, Tolosak ere eskatzen baitzuen (Medina del Campo, 1475-III-10²⁹), eta gutun horri esker dakigu atxikitze hori borondatez eta betiko egin zela («*de su propia voluntad la dicha tierra e universidad de Ahinduán se obligaron por contrabto de no salir de dicha ve-sindad, so çiertas penas*»), Andoain hiribilduaren jurisdikzioaren eta epaitegiaren eraginpean geratzen zela, bai alderdi zibilean, bai alderdi kriminalean, eta Andoaingo lurra eta unibertsitatea urtean mila marabedi ordaintzera behartzen zuela «*por respeto de dicha vezindad*».

Andoainen Donostiarekiko lotura 1475. urtean eten zen, Andoainek hurbilago zuen Tolosako hiribilduari behin betiko atxikitzea erabaki baitzuen, eta forua ere aldatu zuen. Erabaki horrek gatazka eragin zuen Donostiaren eta Tolosaren artean, baina 1479. urtean amaitu zen liskarra, bi hiribilduek iraganeko irainak elkarri barkatzea adostu zutenean, eta probintziako Batzarretan eta beste toki batzuetan elkarri laguntzeko promesa egin zutenean³⁰.

2. Zubieta

Gaur egun Zubieta auzoa den hori kolazio edo unibertsitate zen, eta 1379. urtean hainbat zubietar Donostiako hiribilduarekin auzotu ziren, eta beste batzuk Usurbilgo hiribilduarekin. Auzotzeen zatiketa horrek parrokia-elizan ere eragina izan zuela nabarmendu nahi dugu; izan ere, gaur egun oraindik ere bi ate baititu, auzo bateko edo besteko sinestunak sartzeko.

Atxikitzeari buruzko dokumentua galdu denez, ez dakigu zer baldintzatan egin zen, baina horri esker, gainerako herri eta herritarrek bezalaxe, Donostiako hiribilduaren foruaz baliatzeko aukera izan zuen Zubietak, Usurbilen antzera.

3. Igeldo eta Ibaeta

Gaur egun, Igeldo eta Ibaeta auzoak dira, baina hasieran ongi zehaztutako kolazioak ziren, bakoitzak bere parrokia ere bazuela, donostiar peto-petoak ziren Santa Maria eta San Bizente parrokietatik (hiribilduaren herrigunean txertatuta zeuden), Antiguako San Sebastian parrokiatik edo Hernaniko San Sebastian parrokiatik bereizita; azken hori hiribilduaren aldirietan kokatuta zegoen, harre-

²⁹ AGSimancas (RGS), III-1475, 293. fol.

³⁰ Hori guztia ikus daiteke hemen: AYERBE IRIBAR, M^a R., eta DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., *Andoain, de Tierra a Villazgo (1379-1615). Un caso modélico de preautonomía municipal en Gipuzkoa*, Andoain: Udala «Leyçaur, 0», 1996, 890. or.

siz inguratutako gunetik oso urrun, eta harresi barruko hori bihurtu zen, gerora, Donostiako hiribilduaren herrigunea.

Egia esateko, Donostiari 1180. urtean emandako mugape juridikzionalen txertatuta egon behar zuten, baina ofizialek ez zituztenez udal-eskumen asko gauzatzen mugape horietan eta auzotarrek ere (bereziki, Igeldokoek) nortasun handia zutenez (Antiguako auzotarrek ere bai, baina hiribilduko harresietatik gertuago zeudenez eta patrizio donostiarrek Antiguari interes gehiago zituztenez, hiribilduaren juridikzioaren eraginpean jarri zituzten³¹), beren interesak defendatzea lortu zuten eta hiribilduko ofizialen eta patrizioen presioetatik askatasun handiagoz bizitzea.

Ziurrenik arrazoi horregatik sinatu zuten 1379. urtean (Zubietako eta Andoingo herritarrek bezala) auzotze-kontratua hiribilduarekin, Donostiako juridikzioarekiko bestelako eta berezitateko herri-erakundetzat; hala ere, kontratua galduta dagoenez, kasu honetan ere ezin dugu jakin bi aldeek zer baldintza eta betebeharrak adostu zituzten³².

4. Urnieta

Urnietako unibertitate edo kolazioa Aiztondoko alkatetza nagusian txertatuta agertu izan da historian, Asteasu (burua), Astigarraga (Murgia gabe), Larraul eta Sorabillarekin batera.

Gipuzkoan gertatu zen auzotze-prozesuan, Urnietako hainbat biztanle Donostiako hiribilduari atxiki zitzaizkion, beste batzuk Hernanikoari, eta gainerakoak Aiztondoko alkatetzan geratu ziren, 1615. urtean hiribildu bihurtu zen arte³³.

Donostia zen Gipuzkoako hiribildu zaharrena, eta Gaztelako errege-erreginek pribilegio eta salbuespen ugari ematen zizkieten, erresumaren muga geografikoen barruan eta kanpoan ere garatzea nahi zutelako; pribilegio eta salbuespen horiek garrantzi handia izango zuten, bada, Urnietako biztanle askok hiribildu horri atxikitzeko erabakia hartu zutenean.

³¹ Argi eta garbi ikusten da hori hemen: AYERBE IRIBAR, M^a R., *El Monasterio Dominico de San Pedro González Telmo (San Sebastián). De centro religioso a centro cultural y museístico de primer orden de la ciudad*, Donostia: Historia Donostiarraren Doctor Camino Taldea, 2012, 215-260.

³² Auzotze honen berri izan dugu 1581. urtean Luis CRUZATEk egindako *Inventario de los papeles que la ciudad de San Sebastián tiene en su archivo* inbentarioari esker; inbentario hori hemen argitaratu zen: «Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa», 2, Donostia, 1958, 73. or. Erreferentzia hori bera argitaratu zuen autore honek ere: BANÚS y AGUIRRE, J.L., *El Archivo Quemado. op. cit.*, 32. or.

³³ Hemen ikus daiteke historia: AYERBE IRIBAR, M^a R., *Urnietako, de Tierra a Villazgo (1402-1615)*, Urnieta: Udala, 2015, 957. or.

Ez dugu aurrekaririk, ez dakigu atxikitzea noiz gertatu zen, ez eta konpromisoan zer baldintza sinatu zituzten ere, akordioa biltzen duen dokumentua ez baitago jasota ez artxibo batean, ez bestean. Baina badakigu Donostiako jurisdikzioari atxikitako zatian, XIV. mendearen amaieran edo XV. mendearen hasieran, Urnietako biztanleriaren zati garrantzitsua sartzen zela, hau da, San Migel parrokia-eliza, eta Urnietako 29 baserri eta etxe aberatsenak: Adarraga, Alariku (edo Alarizu) handia, Alariku (edo Alarizu) txikia, Altzibar, Almortza, Amitesarobe, Arantzibia, Araneder, Aierdi, Azkonobietza, Barkardaztegi edo Barkaiztegi goikoa³⁴, Basoaltu, Berasaberro, Berrasoeta, Dendaltegi (edo Tendategi), Elketa, Elkezabal, Enbutodi, Erauso-andia, Ermutegi, Galardi, Gereza, Larburu (edo Arburu) goikoa, Larburu (edo Arburu) erdikoa, Lasarte goikoa, Loperdi, Orkaien (edo Akain), Oianume eta Oiarbide; eta aurrerago, honako etxe eta baserri hauek ere bai: Berazaburu, Etxeberria, Florentzia, Garmendia, Kerin eta Urmeneta³⁵. Bi aldeek sinatutako dokumenturik ez dugunez, ezin dugu jakin zehatz-mehatz zein baldintza itundu zituzten.

Bestalde, Hernanirekin (Donostiako foruari atxikitako hiribildua zen) auzotu ziren Urnietako 16 etxe eta baserri. Lehenengo 15ak hiribilduarekin sinatutako kontratuaren bidez; kontratua 1402-I-19an sinatu zen, Arreizolako (Hernanin) sagastian³⁶: Agirre, Altuna, Arizola, Artoloniaga edo Artolea, Aztegieta, Bidarte, Egurrolako 2ak, Erauso, Garratza, Gorostiaga, Gurutzeta, Idiazabal, Izagirre eta Zuzinaga. Auzotze hori betiko zen, eta auzotutakoek beren borondatez jardun zuten, «*de nuestra propia, franca voluntad e autoridad, sin premia ni costrenimiento alguno*», beren izenean eta beren oinordekoen izenean, Erregeari hobeto zerbitzatzeko eta beren segurtasunagatik («*por pro y anparamiento de*

³⁴ GOROSABELek dio Barkardaztegi behekoa etxea dela Donostiarekin auzotu zena, baina goikoa izan zen; behekoa Hernanirekin auzotu zen.

³⁵ Azken horiek aurrekoekin batera agertzen dira 1615. urtean korrejidoreak berorien jabetza Donostiako hiribilduari eman zionean, erregeak hiribildu bihurtzeko alde zaurretik emandako salbuespena atzera bota ostean.

³⁶ Hona hemen kontratu horretan konpromisoa hartu zuten «*Urrieta*» kolazioko biztanle eta egoileak: «*Martín de Çuçinaga dueño y señor de la casa y casería de Çuçinaga, e doña María Joan de Ydiacábal dueña de la casa y casería de Ydiacábal, e Joan de Çaldu dueño y señor de la casa y casería de Vidarte, e Pedro de Otálora dueño y señor de la casa y casería d'Egurrola, e Miguel señor de la casa y casería d'Egurrola, e Joan de Artoloniaga dueño y señor de la casa y casería de Artoloniaga, e Pedro de Estierreche dueño y señor de la casa y casería de Altuna, e Lope de Sarrudegui e Michelco de Aguirre dueño y señor de la casa y casería de Aztegieta, e Miguel de Areyçola señor de la casa y casería de Areyçola, e Garçía de Artoloniaga señor de la casa y casería de Gurruçeta, e Joan señor de la casa y casería de Yçaguirre, e Miguel de Herauso señor de la casa y casería de Erauso, y Miguel de Yçurça e Pedro de Garraça dueño y señor de la casa y casería de Garraça, e Joan de Gorostiaga señor de la casa y casería de Gorostiaga*» [A. Marqueses de Rocaverde, «Mayoralgo Ayerdi-Epela», 1. kutxa, 9. dok. (Katalogoan 1520ko data). Arg.: DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M.: La vecindad en Hernani..., *op. cit.* 378-379 or.].

la dicha tierra)». Ez bazuten nahi, hiribilduan erronda-zerbitzua eta beilak ez egiteko eskubideari eutsi zioten, eta bakoitzak bere sagardoa libreki balia zezakeen.

Trukean, hiribilduko kontzejuak eta gizon onek beren auzoan hartu zituzten, honako promesa hau eginda: «*vos ayudar e sostener e anparar y defender y aconsejar como a nuestros propios vecinos*», eta ahalmena ematen zieten aziendak hiribilduko mendi eta herri-lurretan bazka zitezten, hango belarrak eta hango urak libreki jan eta edan zitzaizten, eta zerriak kontzeju-mendietan ibil zitzaizten. Aprobetxamendu bakarra ukatu zitzaien: ezein zuhaitz botatzea «*chico ni grande*», kontzejuaren baimenik izan gabe, beste edozein auzotarrek ere egin ezin zuen moduan.

Auzotze hori 1429ko azaroaren 6an osatu zen Hernaniko San Joan elizako hilerrian, beste auzotar bat lotu baitzitzaion hiribilduari (16.a): Ochoa de Arezimendi, goitizenez «*Ochoalaza*», «*duenno e sennor de la casa e casería nueva que agora tengo començada a faser en la dicha tierra e collaçión de Urrieta, en el logar qu'el disen Oyharbide*»³⁷.

Bere izenean eta bere oinordekoen izenean sinatu zuen auzotzea, «*para en todo tiempo del mundo*», «*e segund e commo lo han acostunbrado de faser besindad con vos el dicho conçejo los otros besinos de la dicha tierra e collaçión de Urrieta*» 1402. urtean, eta Urrietako gainerako biztanleen antzera, «*prestaciones et libertades et franquesas que los otros vuestros besinos de Urrieta han en los términos de vos el dicho conçejo et de todas las otras cosas*». Aurreko kasuan bezalaxe, hiribilduak honako konpromiso hau hartu zuen: «*vos dar ajuda e sostener et anparar et defender et aconsejar bien et lealmente commo a nuestro besino, et segund e de la forma e manera que a los otros nuestros besinos de la dicha tierra e collaçión de Urrieta*». Eta bi aldeek auzotasun egokia izateko konpromisoa hartu zuten, baita erregearen berrespesa eskatu eta lortzekoa ere.

Ez kasu batean, ez bestean, ez da aipatzen Donostiako foruaz baliatzeko aukera, baina inplizituztat jotzen zen hori, bi hiribilduak foru horri atxikita baitzeuden.

5. Aduna eta Alkiza

Ez dakigu gauza askorik bi kolazio horiei buruz; 1386-III-23an, Asteasu-rekin batera, Tolosako hiribilduarekin auzotu ziren eta hiribildu horren foruari atxiki zitzaizkion ondasun eta pertsonen zegokienez, baina beren errenten ad-

³⁷ AM Hernani C/5/V/1/1. Pergaminoa egoera txarrean dago [Arg.: DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M.: La vecindad en Hernani..., *op. cit.*, 380-381 or.].

ministrazioari eta beren mendiak baliatzeari eutsi zieten. Desadostasunak izan zituzten bi kolazioek hiribilduarekin eta, horien ondorioz, 1450. urtean Donostian txertatu ziren. Horrek liskarrak eragin zituen bi hiribilduen artean (Andoain ere txertatu nahi zuen bakoitzak), eta 1479ko itunarekin amaitu ziren: Andoain (Donostiari atxikita zegoena) Tolosan txertatu zen, eta Aduna eta Alkiza (Tolosari atxikita zeudenak) Donostian txertatu ziren Alkiza 1731. urtean bihurtu zen hiribildu, eta Adunak 1883an eskuratu zuen udal-autonomia.

6. Altza eta Pasaia San Pedro edo «Pasajes de Aquende o de San Sebastián»

Bi herriak Donostiako hiribilduaren jurisdikziopean txertatu ziren hasieratik eta, beraz, hiribilduko foruaren onurak ere bazituzten.

Baina Donostiako udalerrian txertatuta egoteagatik edo harekin lotura izateagatik foruaz baliatzen ziren herri horietaz gain, herri gehiago ere baziren foru hartaz baliatzen zirenak Donostiako foruari atxikitako hiribilduetan txertatuta zeudelako edo haiekin lotura zutelako. Hain justu ere, honako hauek:

7. Lezo, Pasaia Donibane edo «Pasajes de Allende o de Fuenterrabía», eta Irun


Hondarribiko jurisdikzioan txertatuta zeudenez, Donostiako foruaren eraginpean zeuden hiribildua 1203. urtean sortu zenetik. Gaur egun, Lezo unibertsitatea da oraindik ere, eta udalerrri da; Pasaia hiribildu da (3 Pasaiaz osatzen da: San Joan edo Donibane, San Pedro eta Antxo) eta Irun hiria da.

8. Beste batzuk

Aginaga eta **Urdaiaga**, Usurbilgo hiribilduan txertatuta zeuden sortu zenetik (1371), baita Zubietaren zati bat ere 1379tik. Gaur egun, udalerriko auzoak dira.

Aizarnazabal, Zumaiarekin auzotuta egon zen 1480. urtetik (gaur egun udalerrri burujabea da), eta **Oikia** hiribilduan txertatu zen 1347an sortu zenetik (gaur egun auzoa da).

Mendaro, herri burujabea da 1983. urteaz gozotik, baina Donostiako foruaren eraginpean egon zen Mutrikuko hiribilduari zegokion zatian (Mutrikutik bereizi egin zen), eta beste zatia Logroño-Gasteizko foruaren eraginpean geratu zen, Elgoibarko hiribilduari atxikitzeagatik; Elgoibartik ere zati bat bereizi zen, eta bereizitako bi zatiek udalerrri berria eratu zuten.



3. mapa.- Donostiako foruaren eraginpean auzotutako hiribildu eta herrixkak.

Aizarnazabal (Zumaiarekin), Aduna eta Alkiza (Donostiarekin), Andoain (aldi batez, gero Tolosarekin auzotu baitzen) izan ezik, gainerakoak Donostiako foruaren eraginpean zeuden jada.

IV. DONOSTIAKO FORUA BIGARRENEZ EMATEA ALKATETZA NAGUSIEI ETA BAILAREI

Erdi Aroan, Gipuzkoan 25 hiribildu eratu ziren eta herri txikiagoak (elizateak, kolazioak edo unibertsitateak) hiribildu horiekin lotu ziren auzotze-kontratuen bitartez; antzinako bailaren antolamendutik, beraz, 3 alkatetza nagusi (Arería, Saiatz eta Aiztondo) eta 2 bailara (Leintz eta Oiartzun) baino ez ziren geratu. Batzuk eta besteak herri txikiz edo unibertsitatez osatuta zeuden, eta herri edo unibertsitate horiek beren kabuz antolatzen ziren, baina lehenengoak erregeak izendatutako alkate nagusiaren mende zeuden; alkate horrek, oro har, alkateorde edo auzo-alkatearen gain eskuordetzen zituen bere eginkizunak (titularra edo «nagusia» Gortean bizi baitzen, bere errenta eta eskubideekin). Lurrak edo bailarak, bestalde, hainbat modutara antolatu ziren. Leintzeko bailara Gebaratarren jaurerria izan zen 1556ra arte (errege-herri izatera igaro zen orduan), eta haien agintepean zeuden, baina 1493an alkatea eta merioa izendatzeko ahalmena eskuratu zuten herritarrek, eta haien ekarpenak jaurerriko alkate nagusiarentzat izaten ziren. Oiartzungo prozesua bestelakoa izan zen, bertako ofizialen

agintean baitzegoen. Alabaina, batzuek eta besteek heldutasun politikoa lortu zuten eta probintziako Batzarretan zuzenean parte hartzen zuten. Horrela, bada:

Oiartzungo bailara: Pasaia kanalean hasi eta Bidasoa ibairaino zabaltzen zen hasieran. 1203. urtean Hondarribia (eta Irun, Lezo eta Pasaia Donibane edo «*Pasajes de Allende de Fuenterrabía*») eta 1320an Erreterria (Oreterri herriaren gainean eraikitako Villanueva de Oyarzun izenarekin) bereizi ziren, eta honako herri hauek geratu ziren bailaran: Elizalde (burua), Altzibar, eta Iturriotz.

Leintz bailara: Honako hauek osatzen zuten hasieran: Arrasateko (hiribildu bihurtu zen 1260an, Montdragón izenarekin) hainbat elizate (Garagartza, Udala, Gesalibar, Uribarri, Herenuzketa, Isasigaña eta Oleaga, bailaratik bereizi eta hiribilduan txertatu ziren 1353. urtean), Aretxabaleta eta Eskoriatza (buru izateko lehian ibili ziren, bereizi eta 1630ean Eskoriatza hiribildu bihurtu zen arte), Aozaraza, Arentza, Bedoña, Galartza, Goronaeta, Isurieta, Larrino (Aretxabaletarekin geratu ziren), eta Apozaga, Bolibar, Marin, Mazmela, Gellano, Mendiola eta Zarimutz (Eskoriatzarekin geratu ziren).

Aiztondoko alkatetza nagusia: hasieran Asteasu (jurisdikzio buru), Zizurkil (Tolosara igaro zen 1391n, eta 1615. urtean hiribildu bihurtu zen), eta Aduna eta Alkiza (Tolosatik Donostiara igaro ziren 1479an) herriez gain, Larraul, Sorabilla, Astigarraga eta Urnietako zati bat (Hernanirekin eta Donostiarekin auzotu gabeko biztanleak) ere biltzen zituen, eta azken herri horiek alkatetza nagusia desagertu arte iraun zuten bertan.

Areriako alkatetza nagusia: Zumarraga (jurisdikzioko burua izan zen 1661ean hiribildu bihurtu arte), Lazkao (Ordiziarekin auzotutako 8 etxeak izan ezik), Olaberria, Itsaso, Arriaran, Gabiria eta Ezkio.

Saiatz: Aia (jurisdikzio buru), Beizama, Goiatz, Errezil eta Bidania.

Ez zuten ez forurik jaso, eta ez zirenez hiribilduren batekin auzotu, herri txiki horiek ohiturazko zuzenbidearen arabera arautzen jarraitu zuten. Hala ere, txikiak zirenez eta hiribildu forudunetatik oso hurbil zeudenez, XV. mendearen erdialdetik aurrera Donostiako foruaren eraginpera igaro ziren (Leintz bailara izan ezik). Horrela, bada:

1. Oiartzungo bailara

Zalantzarik gabe, Donostiako foruaren eragina jasotzen lehenengotakoa izateko aukera gehien zituen. Antza, Hondarribia (eta Irun, Lezo eta Pasaia Donibane edo «*Pasajes de Allende de Fuenterrabía*») bereizi ostean, populazioa areagotu eta finkatzeko (Frantziatik eta Nafarroatik hain gertu egonik), Alfontso VIII.ak pribilegio bat eman bide zion –Gorosabel³⁸ autoreak aipatu eta Banús³⁹

³⁸ GOROSABEL, P. de, *Diccionario...*, op. cit., 378-379 or.

³⁹ BANÚS y AGUIRRE, J. L., *El fuero...*, op. cit., 216-217 or.

autoreak zehaztu zuen–, «*concilio de Oiarso*»-ri zuzendutako Fernando III.aren pribilegio errodatuaren bitartez (Gasteiz, 1237-III-20). Erregeak bere aitona (Alfontso III.ak) emandako foru, erabilera, ohitura eta salbuespenak berretsi zizkion kontzilioari, zeinaren graziak «*habísteis y tenísteis hasta su muerte*». Era berean, hark adierazitako mugape, mendi, bazkaleku eta larreak eman zizkion, betiko balia zitzaten, eta Donostiako herritarrei honako hau agindu zien: «*os ayuden e defiendan*». Hori guztia Alfontso XI.ak berretsi zuen Valladoliden, 1318-VI-15ean.

1318. urtean egindako aipamen bat seguruagotzat jotzen da; Fernando III. ak sinatutako gutun baten aipamena da, hartzailea «*concejo de Oyarzun*» bera da, eta honako hau aipatzen da: «*cartas de cómo son pobladas al fuero que tienen los de San Sebastián*». Gutunaren originala galdua dago. Kontua zera da, Villanueva de Oyarzun (Errenteria) hiribildua 1320. urtean sortu zenean, Oiarzungo bailaran Donostiako foruari jarraitzen ziotela jada.

Banús⁴⁰ek aipatu eta Gamón⁴¹ek zalantzan jartzen duen dokumentu batek –*Memorial del fecho del pleito con Rentería*– dioenez, Donostiak eta Errenterriak auzia izan zuten Pasaiako portuaren jabetza zela eta, eta Donostiako hiribilduak ABC bidez zatitutako gutun bat aurkeztu zuen; gutun hori Oiarzungo lurraldearen eta hiribilduaren artean egina zen, Fernando III.aren (1217-1252) aurrean, eta honako alderdi hauek adostu zituzten: lugorri zena bi aldeentzat erkide izatea, Oiarzungoak Donostiako forupean bizitzea eta «*que fiziesen vecindad con ellos en todas las cosas, salvo que no les ayudasen a velar la villa ni a cercarla, e que los de Oyarzun huviessen preboste e iurado e alcalde, assí como lo mandava el fuero de San Sebastián*». Marichalar eta Manrique autoreen arabera, Fernando III.ak berretsi zion Donostiako forua 1237. urtean Oiarzungo bailara osoari.⁴²

Villanuevako hiribilduaren eta Oiarzungo bailararen artean arazo eta gatazka juridikzional larriak sortu zirenez, bailarak hiribilduaren juridikziope-
tik erabat bereizteko eskaera aurkeztu zion erregeari 1453. urtean. Eskaera hori egiteko arrazoi ugari eman zituen: eskandaluak, liskarrak, eztabaidak, gerra eta borrokak, giza hilketak, etxeak erretzea, sagarrondoak moztea eta hiribildukoek egindako beste hainbat kalte, baita bertako nahiz kanpoko gaizkileek (Nafarroa-koek, Baionakoek eta Lapurdikoek) egindakoak ere, bailaran ez zutelako alka-
terik edo epaile propiorik. Horregatik, 1453-VI-20an, Joan II.ak, Escalonatik,

⁴⁰ BANÚS y AGUIRRE, J.L., *El fuero de San Sebastián*, op. cit., Memorialaren 6. fol. atze.-7. fol. aurre., 218. or.

⁴¹ GAMÓN, J.I., *Noticias Históricas de Rentería*: Donostia: Nueva Editorial, 1930, 95. or.

⁴² MARICHALAR, A. eta MANRIQUE, C., *Historia de la Legislación y recitaciones del Derecho Civil de España*. Madril: Gasset-Loma inprim., 1868, VIII. liburukia, honako honi buruzkoa: *Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava*, 485. or.

jurisdikzio orotik salbuetsi zituen bailarako pertsona onak eta egoiliarak (Elizalde, Iturriotz eta Altzibarkoak), baita Villanueva de Oyarzun-Errenteria hiri-bildukotik ere, eta beren jurisdikzio propioaren eraginpean jarri zituen; halaber, aurrerantzean buru eta kontzeju bereizia eta berezkoa izan zezaten agindu zien, eta Donostiako forua atxiki zien:

«E otrosí, demás de esto, es mi merced que la dicha tierra e todos los vecinos e moradores de ella que sean aforados al fuero de la villa de Sant Sebastián, que es en la dicha Provincia de Guipúzcoa, e que hayan el fuero de ella, e todas las otras franquezas, exenciones, libertades, privilegios, usos e costumbres según que los han en la dicha villa de San Sebastián»⁴³.

Pribilegio hori Joan II.a errege berak berretsi zuen hiru hilabete geroago (1453-IX-13an, Becerril de Camposetik). Eta, Errenterian kexaren aurrean, 1463. urtean Henrike IV.ak bere aitak Oiartzuni emandako hobaria baliogabetu zuen arren, Frantziarako bidean bailaratik igaro zenean ikusi zuen Oiartzunen biztanle gehiago zeudela Errenterian baino, eta bailara Frantziaren eta Nafarroaren arteko mugan zegoela; orduan, berretsi egin zuen eta Joan II.aren hobaria betetzeko agindu zuen, 1470-IX-24an Valladoliden emandako pribilegio baten eta 1472-X-10ean Segovian emandako beste baten bitartez. Errege-erregina Katolikoek ere berretsi zuten, Sevillan, 1484ko otsailaren 20an⁴⁴.

2. Areriako alkatetza nagusia

Sortu zenean honako herri hauek osatzen zuten: Lazkao, Olaberria, Itsaso eta Arriaran (gaur egun Beasaingo auzoa da), eta gero Ezkio, Gabiria eta Zumarraga (buru izango zena) gehitu ziren. 1661. urtean azken hirurak bereizi egin ziren, eta aipatu ditugun lehen 4ak baino ez ziren geratu.

Alkate-makila Lazkano etxearen esku egon zen antzinatik, Martin Lopez de Lazcano hil zen arte. Orduan, erregeak aginte-makila Fortuño de Nuncibayri eman zion eta hark alkatetzako kontzejuei laga zizkien bere eskubideak: urteko alkateak izendatzeko ahalmena eman zien, justizia zibila nahiz kriminala egin zezaten. Hori ikusita, 1460. urtean, Gipuzkoako Anaiarteak –Bergaran bilduta zegoela, Batzarrean– Henrike IV.a erregeari erregutu zion Fortuño de Nuncibayk egindako ukoa onar zezala eta alkatetzako kontzejuei ahalmena eman diezaiela alkateak izendatzeko eta kontzejua, diru-kutxa erkidea eta nahi zuten

⁴³ GOROSABEL, P. de, *Diccionario...*, *op. cit.*, Eranskina, «Oyarzun» hitza, 699-701 or. (700. or.). Oiartzuni buruz hitz egiten duenean ere aipatzen du (384. orrialdean, hiribilduari buruzko 376-397 orrialdeetatik); dioenez, erregeak 1453. urtean honako hau eman zien: «*a sus habitantes el fuero, franquezas y exenciones, privilegios y usos de la entonces villa de San Sebastián*».

⁴⁴ GOROSABEL, P. de, *Diccionario...*, *op. cit.*, 385. or.

zigilua izateko. Horregatik, 1461-III-12an, Segoviatik, Henrike IV.ak Nunciabayren ukoa onartu zuen eta eskatutakoa eman zien; halaber, Donostiako forua alkatetzara ere zabaldu zuen:

«E demás d'esto es mi merced e voluntad que el dicho concejo e alcaldía e todos los vecinos e moradores de ella sean aforados e vivan e se rijan por el fuero de la villa de San Sebastián, que es de la dicha Provincia de Guipúzcoa, e viva e rija otrosí por los usos e costumbres d'ella segund que los han en la dicha villa de Sant Sebastián»⁴⁵.

Hobari hori Errege-erregina Katolikoek berretsi zuten Segovian, 1476-IX-15ean⁴⁶.

3. Saiatzeko alkatetza nagusia

Aia (alkatetza buru), Beizama, Goiatz, Errezil eta Bidania herriek osatzen zuten. Eta Aia kostaldeko herria izan arren, ez zuen Donostiako forua jaso Erdi Aroan.

«Mendilerroko bost herrixkak» esaten zitzairen, eta erregeak izendatutako hainbat alkate nagusi izan ziren agintari, Joana erreginak alkate-makila Azkoitiko Francisco Perez de Idiaquezi eman zion arte (Valladolid, 1545-V-2).

Gortean bizi zenez, alkateordeek agintzen zuten bost herrietan, gai zibil eta kriminalei zegokienez. Administrazioerik ezak herritarren kexak eragin zituen eta, horren ondorioz, Francisco Perezek aginte-makilari uko egin behar izan zion; orduan, Zestoako Batzar Nagusiek eskaera bat egin zioten erregeari 1563. urtean: alkateak izendatzeko ahalmena ematea herriei. Horregatik, Monzon herritik (Aragoi), 1563-XII-23an, Felipe II.ak alkatetza-makilaren pribilegioa eman zien herri horiei, baita Donostiako forua ere:

«Y asimismo es nuestra voluntad que el dicho concejo y alcaldía y todos los vecinos y moradores de ella sean aforados y vivan y se rijan por el fuero de la villa de San Sebastián, en la dicha Provincia»⁴⁷.

4. Aiztondoko alkatetza nagusia

Honako herri hauek osatzen zuten: Asteasu (burua), Larraul eta Sorabilla, eta Astigarraga (Murgiarik gabe) eta Urnieta (Donostiarekin eta Hernanirekin auzotuta ez zegoen zatia, bereziki, Lasarte ingurua) ere izan ziren partaide.

⁴⁵ GOROSABEL, P. de, *Diccionario...*, op. cit., Eranskina, «Areria» hitza, 671-673 or. (673. or.).

⁴⁶ *Ibid.*, 52. or.

⁴⁷ *Ibid.*, Eranskina, «Sayaz» hitza, 716-718 or. (718. or.).

XVI. mendean, alkate-makila Juan de Borja jaunaren esku zegoen. 1608an hura hil zenean, herrietan justiziarik ez zegoela ikusita eta Asteasuk buru bihurtu nahi zuenez, Urnietak eta Astigarragak auzia abiarazi zuten Errege Kontseiluan. Baina erregeak Francisco de Borja y Aragón, Esquilacheko printzea (Don Juanen semea), izendatu zuen alkate nagusi, eta hark 1612. urtean makila saldu nahi izan zuen 2.000 dukaten truke. Urnietak eta Astigarragak erosteko proposamena egin ziotenez, Donostiak eta Hernanik 3.000 dukat eskaini zizkioten. Baina Don Francisco Indietara joan zen, Peruko erregeorde moduan, eta ez zuenez agente-makila bere egin, gaia ebatzi gabe geratu zen. Hura hiltzean, Tolosako Batzar Nagusiak, alkatetzako herrien izenean, makila herriei emateko erregutu zuen 1651. urtean. 1659-XII-22an, Madrildik, Felipe IV.ak alkate-makilaren pribilegioa eman zien, eta honako hau agindu:

«en la elección y nombramiento que hiciéredes de la dicha vara hayáis de observar y guardar la misma forma que se observa y guarda en los demás valles y concejos de la dicha Provincia, a quien tengo hecha merced de esta vara, sin que se pueda alterar en manera alguna en ningún tiempo»⁴⁸.

Kasu horretan, ez da aipatzen Donostiako forua ematen dionik alkatetzari, baina egoera oso berezian zegoen. Urnieta eta Astigarraga 1180. urtean Donostiari emandako foruaren eraginpeko mugapean kokatuta zeuden. Larraul eta Sorabilla herri oso txikiak ziren, eta Asteasuk eragin handia zuen haietan. Eta ez dezagun ahantzi Asteasu Tolosarekin lotu zela 1386an, baina berehala bereizi zela berriro eta, antza, hiribildu kategoria lortu zuela (ez dakigu noiz), «Noble y Leal villa» deitzen baitzen aspaldi-aspalditik.


V. DONOSTIAKO FORUAREN INDARRALDIA ETA MODERNOTASUNA XVI. ETA XVII. MENDEETAN

Fisikoki berehala galdu zen arren (hiribilduak 1397ko otsailean jasan zuen sutean⁴⁹), Donostiako foruaren edukiaren berri izan dezakegu gaur arte iritsi diren hainbat kopiaren bitartez, Alfontso VIII.ak 1202an egindako Donostiako foruaren berrespenean oinarrituta⁵⁰. José Luis Banús, José M^a Lacarra, Ángel J. Martín Duque eta José Luis de Orella autoreek egindako azterketak bat datoz Serapio Mugicak egindakoarekin honako hau esatean: berezko artikuluez gain, Lizarrako forutik (1090) eta Jakakotik (1063) hartutako artikuluez ere osatzen dela.

⁴⁸ GOROSABEL, P. de, *Diccionario...*, *op. cit.*, Eranskina, «Aiztondo» hitza, 669-671 or. (670. or.).

⁴⁹ Según José Luis BANÚS y AGUIRRE en su *Fuero de San Sebastián*, *op. cit.*, 63. or.

⁵⁰ Forua erre ostean, Alfonso VIII.ak 1202. urtean egindako berrespena erabiltzen zen originaltzat. MÚGICA, S., Donación a Leire. Orígenes de San Sebastián. Iglesias de Santa María, San Vicente y San Sebastián, *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*, XXVI (1935), 10. or.



4. mapa. Donostiako foruari atxikitako Gipuzkoa XVI. mendean.

Oiartzungo bailara, antza, Alfontso VIII. arekin, baina dokumentuen arabera 1453an;
Aleriako alkatetza nagusia 1461ean; Saiatzeko alkatetza nagusia 1563an.

Baina batzuk eta besteak ez datoz bat artikulu kopuruan; lehenengoan ustez 40 artikulu ziren, baina Serapio Múgicak 37 zenbatu zituen (nahiz eta zailantzan jartzen zuen Antso VI.ak emandakoak hainbeste zirenik), eta horietatik 25ek Lizarrako foruarekin lotura zuten, Lizarrakoaren bitartez Jakako forutik hartutako 13 artikuluak horien artean sartuta⁵¹. José de Yanguas y Mirandak aipatu ere egiten du; izan ere, haren arabera, 35. artikulura iristean –artikulua- ren hasiera: «*Omnis troselus*»– eta kapitulu bereko «*et si hospes*»-era iritsi arte, «*parece según su distinto lenguaje, que fue intercalado en tiempos posteriores, como sucedió en otros muchos fueros (hizkuntza desberdina denez, badirudi beranduago txertatutako zatia dela, beste foru askotan gertatu zen moduan)*»⁵². Are gehiago, Gabriel de Henaok berak honako hau esan zuen foruari buruz: «*en este instrumento se ven confirmados los fueros antiguos de San Sebastián y añadidos muchísimos otros muy favorables, y se dan leyes para comercios, contra-*

⁵¹ *Ibid.*, 9. or., 2. zk.

⁵² YANQUAS y MIRANDA, J., *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, Iruñea, 1840, 3 liburuki, gehi erantsitakoen beste 1 (Iruñea, 1843), III. lib., 314. or.

tos, etc. (tresna honetan Donostiako foru zaharrak berresten dira eta beste asko ere gehitzen zaizkio, eta legeak ezartzen dira merkataritzarako, kontratuatarako eta abar)»⁵³.

Forago aipatu ditugun autoreen arabera, foruaren osaeran bi zati bereizten dira argi eta garbi:

- 1.- Salbuespen eta askatasuneko estatutu berriaren ezarpenari dagozkion artikulua; estatutu hori Lizarrako forutik dator (1090), aldaketa txikiekin, eta Lizarrako horretan Jakari 1063. urtean emandakoa jasotzen da, aldaketa txikiekin; eta
- 2.- Hainbat artikulua original, itsas zuzenbideko kode bat osatzen dutena, garai hartan eremu atlantikoan zeuden *usus mercatorum* edo merkataritza-ohiturei jarraikiz.

Alabaina, artikuluek ez dute inolako egitura edo antolamendurik azalpenari dagokionez, eta, edukiaren arabera, honako gai nagusi hauek bereiz daitezke:

- a) Errege-ondasunak ematea;
- b) Biztanleei salbuespen eta askatasuneko estatutu juridikoa ematea;
- c) Zerga-pribilegioak;
- d) Zuzenbide pribatua, bereziki, ondasun tronkalen arloan;
- e) Zuzenbide zibil publikoa eta administratiboa;
- f) Auzibideko zuzenbidea;
- g) Zigor-zuzenbidea; eta
- h) Itsas zuzenbidea.

Foruaren jatorrizko edukiak komunitate baten status politiko-juridikoa aldatu zuen, Behe eta Goi Erdi Aroan Gaztelako erresuma osoan barrena hedatu ziren gainerako foruekin gertatu zenaren antzera, baina herri eta hiribilduetan Udal Ordenantzen bitartez Zuzenbide berria sortzen hasi zen arren, beste herri eta hiribildu batzuetan ez bezala, Donostiako foruak indarrean jarraitu zuen, gutxienez (halaxe dago dokumentuetan jasota) XVII. mendera arte.

Izan ere, Donostiako forua foru bizia zen, eta forudunen artean gai tronkalei buruz sortzen ziren auzietan maiz aipatzen zen, baita XVI. eta XVII. mendeetan ere.

⁵³ HENAO, G. de, *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria: enderezadas principalmente a descubrir las de Guipuzcoa, Vizcaya y Alaba, provincias contenidas en ella*, Salamanca: Eugenio Antonio Garcia, 1689, T. V, 333. or.

Foruaren aipamena egiten den testuinguru historikoa beti ondasun tronka-lei buruzko liskarren bat izaten da, baina ezarpen hori Donostiako foruan jasota zegoen eta ez zen beharrezkoa ezkonsari-gutunetan eta antzeko dokumentuetan idatziz jasotzea foru horren eraginpeko tokietan, foruari atxikitako gauza zelako (Logroño-Gasteizko foruaren eraginpeko herrietan ez zen horrelakorik gertatzen, eta ezkonsari-gutunetan ondasun tronkalen itzulketa idatziz eta berariaz adierazi behar zen)⁵⁴. Ezarpen hori foruan araututa zegoen, hasieratik; honela zioen, hitzez hitz:

«*De homine mortuo*

Si quis moritur et non fecerit testamentum ad obitum mortis et rremanserint parui filii et mater ducit alium maritum, parentes filiorum possunt partire et cognoscere partem filiorum patris et dare fermens et accipere. Et sy mater bo-luerit tenere fillos suos cum honore et habere debet dare mater bonas fidas parentibus filliorum, quod quando filii peruenerint ad perfectam hetatem rred-dat illis predictum honorem et haberem.

Et sy filii interim obiuntur, illam hereditatem et honorem et hauere debet tornare vnde venit parentibus suis».

Beraz, foruko xedapen tronkal horren aplikazioak eragin zuen forua bizi-rik egotea eta ezkon-sarietako ondasun edo onibarren itzulketari buruz auzite-gietan ebazten ziren auzietan proba-dokumentutzat aipatu eta kopiatu izana.

Luis Miguel Díez de Salazar autoreak 1980. urtean adierazi zuenez⁵⁵, tronkaltasunak zera adierazten zuen, bazegoela odoleko ahaide bat eta arbaso erkide batenak izandako ezkonsari-ondasunak edo onibarrak (higiezinak) zirela. «*Enborra enborrera itzultzen da, eta sustraia sustraia*» printzipioari jarraikiz, jabea hiltzen bazen eta ez bazuen seme-alabarik izan (edo seme-alabak testa-mentua egin gabe edo testamentua egiteko adina izan gabe hiltzen baziren), hil-dakoaren ondasunak jatorrizko familiari itzuli behar zitzaizkion, eta alargunak ezin izango zituen herentzian jaso (beregana zitzakeen, ordea, Gaztelako zu-zenbidean). Gurasoek ez zuten seme-alaben herentziarik jasotzen; ondasunak familia tronkalera itzultzen ziren, besterik gabe.

Horixe gertatu zen Gómez de la Puerta korrejidoreak 1581. urtean eba-tzitako auzian: Oiartzungo María López de Ambulodi eta Tomás de Sarasa ez ziren ados jartzen Joanes de Sarasa arbaso erkidearen ondasunak zirela eta⁵⁶.

⁵⁴ DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., Un nuevo manuscrito del Fuero de San Sebastián. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época*, 1982, 533. or.

⁵⁵ DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., Vigencia y aplicación del principio de la troncalidad de bienes según el Fuero de San Sebastián, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 14 (1980), 275-295 or.

⁵⁶ AGG-GAO CO ECI, 425 [99. fol. atzea.-113. fol. atzea. Foruan txertatuta dago].

María Lópezek, bere eskubidea defendatzeko, foruaren kopia eskatu zion korrejidoreari, honako honetarako: «*los ascendientes no sucedan a los descendientes avintestato, sino que buelban los bienes al tronco*». 1581eko otsailaren 11n korrejidoreak horixe agindu zion Donostian (Auzitegia zegoen tokian) Marcos de Garay hiribilduko eskribauari, zeinak Juan Bono Tolosako eskribauak 1552ko abenduaren 22an egindako kopian aldaturik baitzuen⁵⁷.

Eta beste horrenbeste gertatu zen 1632an, Juanes eta Miguel de Echeverría anaiek beren koinatu alargun Juanes de Leguía zaharraren aurka jarritako auzian; bi anaiek haren seme (eta bien iloba) Juanes de Leguía gaztearen ondasunak eta herentzia enborrera itzultzea eskatzen zutelarik, Donostiako foruko klausularen arabera⁵⁸. Eta itzulketa tronkaleko adibide ugari aurki daitezke Korrejimenduan, XVIII. mendean aurrera egin arte ere.

VI. DONOSTIAKO FORUAREN TESTUAK

Esan beharra dago Donostiako foruaren ale guztiak –argitaratu direnak– ez direla berdin-berdinak. Originala galdu zenez, testua berreraikitze saiakerak ere egin ziren eta, horren ondorioz, hainbat aldaera sortu ziren –garrantzitsuak, zenbait kasutan–, jatorrizkotik gero eta gehiago urruntzen zelako. Irakurketako eta transkripzioko akatsak izan daitezke, inprentako akatsak edo aldaera ortografikoak, eta horien ondorioz testuaren zentzua alda daiteke edo testu batzuetako xedapenak beste testu batzuetakoekin kontraesanean egon daitezke.

1813. urtea baino lehen Donostiako Udal Artxihoan gordetzen ziren kopiek izan behar zuten leialenak, baina, antza, ez zen horrela. Izan ere, Marichalarrek eta Manriquek diotenez, Historiako Errege Akademiaren *Diccionario* edo hiztegian Joaquín de Camino y Orella jaunak argitaratu zuen forua honela zegoen: «*extremadamente estropeado por los errores de copiantes e impresores (oso-oso hondatuta kopiatzaileen eta inprimatzaileen akatsak zirela eta)*»⁵⁹, eta orriak irakurritz gero, hainbat hitz, baita lerro osoak ere, falta direla sumatzen da «*por no haber tenido, sin duda, bastante cuidado en la corrección de las pruebas de imprenta (zalantzarik gabe, inprentako probak zuzentzean kontu handia ez izateagatik)*»⁶⁰.

⁵⁷ Autorearen arabera, beste esku batean eta 1. folioan honako hau agertzen da: «*Este privilegio es de la villa de San Sebastián y no del valle de (Oyarzun, ...) este valle esté aforado a este privilegio; cuánto más que los testigos del (...) del dicho valle de Oyarzun que no le tienen ni paresçe*» [DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., *Un nuevo manuscrito...*, *op. cit.*, 533-534 or.].

⁵⁸ AGG-GAO CO LCI 830.

⁵⁹ MARICHALAR, A., y MANRIQUE, C., *Historia de la Legislación...*, *op. cit.*, 354. or.

⁶⁰ MÚGICA, S., *Orígenes de San Sebastián...*, *op. cit.*, 10. or.

Jarraian, aurkitu ditugun foruaren testuen zerrenda aurkeztuko dugu; testuak eskuz idatzita edo inprimatuak izan daitezke, latinez, gaztelaniaz edo euskaraz idatzitakoak. Azken Eranskinean, eskuz idatzitako eta argitaratutako testu garrantzitsuenen transkripzioa edo kopia leiala txertatu dugu, latinez eta gaztelaniaz, ikertzaileak bere kabuz azter ditzan kopiatzaile edo autore batzuek eta besteek jatorrizko testuan txertatutako aldaerak.

1. Eskuizkribuak

1.1. Erdi Arokoak

1.- Joan II.ak Getariako hiribilduari Donostiako forua berretsi zionekoa (Simancas, 1426ko uztailaren 12a), Historiako Errege Akademiako Liburutegian gordetzen da, Salvá bildm., 9-22-7, 4307. Pergamino originala: 800 x 670 mm. Hauexek osatzen dute:

1. Joan II.aren berrespen-protokoloa,
2. Joan I.aren berrespen-protokoloa,
3. Alfontso XI.aren berrespen-protokoloa,
4. Alfontso VIII.ak Getariako hiribilduari Donostiako forua eman zionekoa (Donostia, 1209-IX-1),
- 3.bis, Alfontso XI.aren berrespenaren xedapenak eta eskatokoloa (Burgos, 1332-IV-11),
5. Antso VI.ak emandako Donostiako foruaren kopia (1180) eta
6. Alfontso VIII.aren berrespenarena (1202),
- 2.bis, Joan I.aren berrespen-pribilegio errodatuaren xedapenak eta eskatokoloa (Burgos, 1379-XI-15),
7. Joan II.aren errege-zedula, berrespena egiteko agintzen duena (1424-IX-20), eta
- 1.bis, Joan II.aren berrespenaren xedapenak eta eskatokoloa (Simancas, 1426-VII-12).

Antza, Juan Antonio Llorentek hori erabili zuen, eta Pablo de Gorosabelek aurreko horri jarraitu zion. Hurrengoarekin alderatzeko erabili zuten José M^a Lacarrak eta Ángel J. Martín Duquek.

2.- Juan de Sorola Tolosako eskribauak 1474-IX-26an egindako kopia; 1543. urtean Juan de Zaldivarrek Juan de Ayerdiren eta Clara de Luscardoren aurka Gipuzkoako Korrejimenduan izandako auzian gordetzen da (AGG-GAO CO LCI, 4). Prozesuan txertatu zen, 72 fol. atzea.-76. fol. aurrea. Hauexek osatzen dute:

1. Sorola eskribauaren atariko klausulak,
2. Henrike IV.aren berrespen-protokoloa,
3. Henrike III.aren berrespen-protokoloa,
4. Gonzalo Moro doktoreak agindutako eta Oviedoko Alfonso Fernández eskribauak baimendutako kopiaren atariko klausulak,
5. Antso VI.ak emandako Donostiako foruaren kopia (1180), Gonzalo Mororen sinadura eta
6. Alfontso VIII.aren berrespena (1202-VIII-16),
- 4.bis, Gonzalo Morok agindutako kopiaren azken klausulak (Getaria, 1396-II-23),
 7. Henrike III.aren errege-zedula, berrespena egiteko agintzen duena (1402-IX-29),
 8. Domingo Fernández de Candamo kantzilerraren probidentzia, berrespena idazteko agintzen duena (d/g),
- 3.bis, Henrike III.aren berrespen-privilegio errodatuaren xedapenak eta eskatokoloa (Valladolid, 1403-IV-14),
- 2.bis, Henrike IV.aren berrespen-privilegio errodatuaren xedapenak eta eskatokoloa (Medina del Campo, 1403-VI-15), eta
- 1.bis, Juan de Sorolaren kopiaren azken klausulak (Donostia, 1474-IX-26).

Jesús M^a de Leizaolak eman zuen horren berri 1935. urtean, eta José Luis Banús y Aguirrek forua aztertze eta argitaratzeko oinarritzat hartu zuen; Banúsek irudiak txertatu zituen bere liburuan. Aurrekoarekin alderatzeko erabili zuten José M^a Lacarrak eta Ángel J. Martín Duquek.

1.2. Modernoak

1.2.1. XVI. mendea

1.- Tolosako Juan Bono eskribauak 1552-XII-22an egindako kopia (gal-duta dago), geroagoko kopia askoren oinarri.

2.- Gómez de la Puerta korrejidoreak aginduta Marcos de Garay eskribauak 1581-II-11n egindako kopia, Oiartzungo María López de Ambulodiren eta Tomás de Sarasaren arteko auzian; izan ere, desadostasunak zituzten Joanes de Sarasa arbaso komunaren ondasunak zirela eta. Hemen dago: AGG-GAO

ECI, 425 [99. fol. atzea.-113. fol. atzea.]; antza, Tolosako Juan Bono eskribauak 1552ko abenduaren 22an egindako kopiatik kopiatu zuen

Luis Miguel Díez de Salazar Fernández autoreak argitaratu zuen.

1.2.2. XVII. mendea

1.- Henrike IV.ak Hondarribiko hiribilduari 1457an egindako berresparen kopia, Hondarribiko eskribau Esteban de Lesacak 1632-VII-24an baimendutakoa, Tolosako Juan Bono eskribauak egindako kopiatik (galduta dago) (Donostia, 1552-XII-22), Juanes eta Miguel de Echeverria anaiek Juanes de Leguáren aurka izandako auzian. Hemen dago: AGG-GAO CO LCI, 830, 153. fol. aurea.-159. fol. atzea. (147-172 fol., 1474ko kopiarekin).

2.- Hondarribiko eskribau Martín Sanz de Labordak 1653-III-27an baimendutako kopia, Gabriel de Astarbek eta María de Ugartek Pedro de Candiaren aurka izan zuten auzian. Foruaren testua eta Alfontso VIII.ak hiribilduari egindako emakida (Palentzia, 1203-IV-19) soilik biltzen ditu. Hemen dago: AGG-GAO CO LCI, 1250, 80. fol. aurea.-83. fol. atzea. (Sorolaren 1474ko kopian oinarrituta).

1.2.3. XVIII. mendea

1.- Donostiako Udal Artxiboan dagoen «Privilegio de fundación de la ciudad de San Sebastián, en latín (Donostia hiriaren sorrera-privilegioa, latinez)» testuaren kopia sinplea, B/I/4/I/I (J. A. Camino y Corella autoreak horri jarraituzion).

2.- «Confirmación del privilegio de la refundación de la villa de San Sebastián (Donostiako hiribildua birsortzeko pribilegioaren berrespena)» testuaren kopia sinplea, Donostiako Udal Artxiboan dagoena, B/I/4/I/2 (hiriko kodexean –gaur egun galduta dago– agertzen zenaren eta, ustez, Historiako Errege Akademiak bere *Diccionario* hiztegian argitaratu zuenaren kopia da; halaber, Mariano de Zuaznabar eta José Yanguas y Miranda autoreek horri jarraitu zioten).

3.- Joan II.ak 1424. urtean Getariaren alde egindako foruaren berresparen kopia, anaia Lorenzo Frías maisuak egindakoa. Historiako Errege Akademiako Liburutegian dago, ms. 9-22-7, 52-60 fol.

4.- Juan Bono Tolosako eskribauak Hondarribirako egindako foruaren kopia (Donostia, 1552-XII-22). Historiako Errege Akademiako Liburutegian dago, Vargas Ponce bild., 25. liburukia, 22-41 fol. Kopia horretan dioenez, «*Existe en el primer Libro Becerro del archivo de Irún; era y es su primer documento, aunque está en papel y es copia, si bien autorizada*».

5.- Don Pedro Cano y Mucientes korrejidoreak egindako foruaren itzulpenaren kopia, Juan Bautista de Landa eskribauak 1757-VII-8an baimendua. Historiako Errege Akademiako Liburutegian dago, Vargas Ponce bild., 24. liburukia, 8 foliotan eta izenburu honekin: «*Copia traducida del latín al castellano del real privilegio expedido por el señor Rey Don Sancho para la refundación de la Muy Noble y Muy Leal Ciudad de San Sebastián, y testimonio de las confirmaciones reales posteriores*». Juan Ignacio Gamónek aipatzen du hemen: *Noticias Históricas de Rentería*: Donostia: Nueva Editorial, 1930, 224. or.

2. Inprimatuak

ANABITARTE, Baldomero, *Colección de documentos históricos del Archivo Municipal de San Sebastián (1200-1813)*, Donostia: Udala, 1895 [7-15 orr. foruaren bertsio akastuna gazteleraz txertatzen du].

AYERBE IRIBAR, M^a Rosa, *Fuentes normativas y documentales del País Vasco* [<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=57>].

BANÚS Y AGUIRRE, José Luis, *El Fuero de San Sebastián*, Donostia: Udala, 1963, 259 orr. + 18 lam. [79-110 orr., Juan de Sorolaren bidea jarraituz 1474-IX-26. Latina eta gaztelera].

BASABE MARTÍN, Alberto, Estudio lingüístico del Fuero de San Sebastián. *El fuero de San Sebastián y su época* kongresuan, 1982, 27-68 orr. [gaztelerara egindako itzulpena].

CAMINO Y ORELLA, José Antonio de, *Historia civil-diplomática-eclesiástica, antigua y moderna de la ciudad de San Sebastián*, Donostia, Revista Euskal-Erria, 17 eta 18, 1887 eta 1888 [17. alea, 377-379 orr., 444-446 eta 569-571; eta 28. Alea, 27-28 orr. eta 41-45].

AUÑAMENDI HIZTEGIA, «San Sebastián» ahotsa [333-336 orr., Angel J. MARTÍN DUQUERen transkripzio latindarra eta Alberto BASABEk gaztelaniaz egindakoa oinarri hartuta, *El fuero de San Sebastián y su época* kongresuan argitaratua].

ECHEGARAY, Carmelo de, *Fuero de repoblación de San Sebastián, concedido por Don Sancho VI el Sabio (Rey de Navarra)*. Trabajo sobre ese tema presentado al *Concurso abierto por la Comisión Municipal de Fiestas Euskaras de San Sebastián el año 1906 por Don Carmelo de Echegaray, Cronista de las Provincias Vascongadas*, Donostia: Sociedad Española de Papelería, 1909, 67 orr. [31-47 euskaraz, 49-69 gazteleraz; euskarazko testua RIEVen txertatu zen], II, 1908, 111-187].

GOROSABEL, Pablo de, *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa, con un apéndice*

- ce de cartas-pueblas y otros documentos importantes*, Tolosa: 1862 [forua 730-741 orrietan dago]. Bilbon berargitaratua: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972, 734 orr. [707-714 orr., Juan Antonio Llorenteri jarraikiz].
- LACARRA DE MIGUEL, José María eta MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Fueros de Navarra. 1. Fueros derivados de Jaca. I. Estella-San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa, 1969, 364 orr. + xx lam. [269-286 orr., 1426ko foruan Getariako hiribilduari Juan IIak emandako testua ardatz hartuta, 1474ean Juan de Sorolak egindako aldaketekin].
- LLORENTE, Juan Antonio, *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas: Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Madril: 1808 [forua txertatzen du IV. tituluari, 244-254 orr., antza denez, 1426an Juan IIak egindako Getariko foruaren konfirmazioa jarraikiz].
- MARICHALAR, Amalio eta MANRIQUE, Cayetano, *Historia de la Legislación y recitaciones del Derecho Civil de España*. Madril: Gasset-Loma, 1868, VIII. aleak honako gaia jorratzen du: «*Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava*», 682 orr. [354-361 orrietako lehen oharra Donostiako artxiboak bildutako testu batena da, «bereziki hondatuta zegoen testu batena, eta kopia-tzaileen eta inprentaren akatsak biltzen zituen»].
- MARTÍN DUQUE, Ángel J., El Fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica, *El Fuero de San Sebastián y su época* kongresuan, 3-25 orr. [1424ko Juan IIaren Getariko foruaren konfirmazioa berrikusita eta forua eramanda (1457ean Enrique IVak konfirmatuta) Tolosako Juan de Sorolaren bidez, 1474ean].
- REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA, *Diccionario histórico-geográfico-histórico de España. Sección I, comprende el reyno de Navarra, señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa*, Madril: RAH, 2 ale [II. alean 541-557 orr.].
- YANGUAS y MIRANDA, José, *Diccionario de antigüedades del Reino de Navarra*, Iruñea, 1840, 3 ale, gehigarri batekin (Iruñea, 1843) [III. alean, 302-316 orr.]; eta 1964 [II. alean, 19-29 orr.].
- ZUAZNABAR, José María, *Ensayo histórico-crítico sobre la legislación de Navarra*, Donostia: 1827, 4 ale. [II. alean, 205-215 orr.].

VII. BIBLIOGRAFIA

- ALONSO, Paz, El proceso penal en el Fuero de San Sebastián. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, 1982, 397-405 orr.
- ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz, Las villas guipuzcoanas que reciben el

- Fuero de San Sebastián: modos de vida de sus habitantes. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, 1982, 113-134 or.
- AYERBE IRIBAR, M^a Rosa, eta DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, Luis Miguel, *Andoain, de Tierra a Villazgo (1379-1615). Un caso modélico de preautonomía municipal en Gipuzkoa*, Andoain: Ayuntamiento «Leyçaur, 0», 1996, 890 or.
- BARRENA OSORO, Elena, El litoral vasco peninsular en la época pre-urbana y el nacimiento de San Sebastián, *Lurralde*, XIII (1990), 227-312.
- El Fuero de Vitoria en la villa de Deva. Aparentes contradicciones geopolíticas. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época*, 1982, 135-147 or.
- ARZAMENDI, Jesús, Formas «vascas» en documentos de Sancho el Sabio. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época*, 1982, 69-85 or.
- BANÚS Y AGUIRRE, José Luis, El límite oriental de San Sebastián y el puerto de Pasajes, «*Homenaje a Don Julio de Urquijo*» ofrecido por la Real Sociedad Vancongada de los Amigos del País, Tomo III (1950), 303-329.
- La página de historia donostiarra. El fuero de San Sebastián, *Boletín de Información Municipal*, 2. urtea, 6. zbk. (apirila-ekaina 1960), 8-16 or.
- De cómo se perdió el privilegio de confirmación del fuero de San Sebastián otorgado por el rey Enrique IV en 1457, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 21, (1987), 463-474 or.
- El sello de la confirmación por Alfonso VIII del fuero de San Sebastián, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 23, (1989), 537-548 or.
- La formación histórica de Guipúzcoa: transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*, Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1989, 465 or.
- BERISTAIN, Antonio, El Fuero de San Sebastián y su continuación en el Derecho Penal vasco (iniciación en el Derecho Penal vasco de ayer, hoy y mañana). *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, 1982, 407-447 or.
- BRAGA DA CRUZ, Guilhervie, *O direito de troncalidade e o regime jurídico do património familiar (a excluão sucessória dos ascendentes)*, Braga: II, 1947.
- CILLÁN Y APALATEGUI GARCÍA DE ITURROSPE, María del Coro, El sistema probatorio en el fuero de San Sebastián, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 16 (1982-1983), 104-111 or.
- DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, Luis Miguel, Un nuevo manuscrito del Fuero de San Sebastián. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, 1982, 531-535 or.

- Vigencia y aplicación del principio de la troncalidad de bienes según el Fuero de San Sebastián, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 14, 1980, 275-295 [289-295 or., hartutako zatia: AGG-GAO CO ECI 425, 99 -113 or.
- La vecindad de Hernani (1379-1429), Bartzelona: CESIC, 1989, II. B. 367-377 [*Homenaje a la Memoria del Prof. Dr. Rmilio Sáez (1917-1988)*].
- ECHEGARAY, Bonifacio de, La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XIII (1922), 273-336 eta 582-613 or.; eta XIV (1923), 27-60 or.
- FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier, San Sebastián en el dominio del Monasterio de Leire (siglo XI-1235). *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época lanean*, 1982, 451-467 or.
- GAMÓN, Juan Igancio, *Noticias Históricas de Rentería*: Donostia: Nueva Editorial, 1930, 449 or.
- GARCÍA CANTERO, Gabriel, El Derecho Civil en el Fuero de San Sebastián. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época*, 1982, 379-396 or.
- GARCÍA DE CORTÁZAR Y RUIZ DE AGUIRRE, José Ángel, La sociedad guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época lanean*, 1982, 89-111 or.
- HENAO, Gabriel de, *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria: enderezadas principalmente a descubrir las de Guipuzcoa, Vizcaya y Alaba, prouincias contenidas en ella*, Salamanca: por Eugenio Antonio Garcia, 1689.
- IZAGUIRRE, Ricardo de, La donación a Leire. Contribución al estudio de los orígenes de San Sebastián, *E. Alde*, XXI (1931), 126-129 or.
- En torno a los orígenes de San Sebastián. El Urumea y los puertos donostiarras*, Donostia: Sociedad de Oceanografía de Guipúzcoa, 1933.
- Historia y toponimia donostiarras. El primer grupo de documentos referentes a San Sebastián y Hernani, Donostia: 1951, *Homenaje a Don Julio de Urquijo*, III. B., (1951), 335-406 or.
- LACARRA DE MIGUEL, José María, Notas para la formación de las familias de fueros de Navarra, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 1933, 203-272.
- Tres documentos del s. XII referentes a Guipúzcoa, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, V (1949), 421-425 or.
- LEIZAOLA, Jesús María de, Descubrimiento de un traslado autorizado del Fuero de San Sebastián, extendido el año 1474. Notas acerca de la troncalidad en Guipúzcoa, *Yakintza: revista de cultura vasca*, 13 (urtarilla-otsaila 1935), 43-47 or.

- MARTÍN DUQUE, Ángel J., El Fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época*, 1982, 3-25 or.
- MÚGICA, Serapio, Donación a Leire. Orígenes de San Sebastián. Iglesias de Santa María, San Vicente y San Sebastián, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XXVI (1935), 393-422 or.
- Orígenes de San Sebastián, Separata de la *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XXVII (1936), 31 or.
- Los gascones en Guipúzcoa, *Estudios sobre San Sebastián*, San Sebastián: Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra, 1980, 65-97 or.
- MURUGARREN ZAMORA, Luis, *Hernani y su historia e instituciones*, Donostia: Aurrezki Kutxa, 1970.
- NAVAJAS LAPORTE, Álvaro, *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1975.
- El concepto del Derecho en el Fuero de San Sebastián. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, 1982, 523-529 or.
- ORELLA UNZUÉ, José Luis de, Estudio jurídico comparativo de los Fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, 1982, 256-300 or.
- SALINAS QUIJADA, Francisco, El Derecho Civil en el Fuero de San Sebastián y sus relaciones con el Derecho Civil de los fueros navarros. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, 1982, 301-378 or.
- SERRANO PIEDECASAS, Luis, San Sebastián y Fuenterrabía, dos puertos clave en las importaciones castellanas del s. XIII. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, 1982, 489-498 or.
- SILVÁN, Leandro, *El término municipal de San Sebastián: su evolución histórica*, Donostia: Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra, 1971, 66 or.
- VV.AA. *Congreso El Fuero de San Sebastián y su época* (San Sebastián, 19/23-I-1981), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 538 or.

VIII. ERANSKINA (1)*Mapetan agertzen diren herrien zerrenda*

Abaltzisketa	Zizurkil
Aduna	Deba
Aizarnazabal	Eibar
Albiztur	Elduain
Alegia	Elgoibar
Alkiza	Elgeta
Altzaga	Eskoriatza
Altzo	Ezkio-Itsaso
Amezketta	Hondarribia
Andoain	Gaintza
Anoeta	Gabiria
Antzuola	Gaztelu
Arama	Getaria
Aretxabaleta	Hernani
Asteasu	Hernialde
Astigarraga	Ibarra
Ataun	Ikaztegieta
Aia	Itsaso
Azpeitia	Idiazabal
Azkoitia	Irun
Baliarrain	Irura
Beasain	Itsasondo
Beizama	Larraul
Belauntza	Lasarte-Oria
Berastegi	Lazkao
Berrobi	Leaburu
Bidania-Goiatz	Legazpi
Zegama	Legorreta
Zerain	Lezo
Zestoa	Lizartza

Mendaro

Arrasate

Mutriku

Mutiloa

Olaberria

Oñati

Orexa

Orendain

Orio

Ormaiztegi

Oiartzun

Pasaia

Soraluze

Errezil

Errenteria

Leintz Gatzaga

Donostia

Segura

Tolosa

Urnieta

Usurbil

Bergara

Villabona

Ordizia

Urretxu

Zaldibia

Zarautz

Zumarraga

Zumaia

IX. ERANSKINA (2)

DONOSTIAKO FORUA

Donostiako foruaren jatorrizko testuaren gabeziak testu horren hainbat bertsio existitzea eragin du. Oro har, bertsio inprimatuak izan dira, eta ikerlariak eta irakurleak Erdi Aroko iturrietatik aldendu dituzte. Hala ere, nahiz eta kopiak izan, printzipioz, XII. mendeko jatorrizko testuaren antzekoak izan beharko lirateke.

*Orígenes de San Sebastián*⁶¹ testuan, Serapio Múgicak 1936ean idatzi zuenez,

«autore ezberdinek argitaratu dituzten foruaren ale guztiak ez dira zehazki berdinak, batzuetan oinarriko ezberdintasunak dituzte, jatorrizkoa orain dela hainbeste mende desagertu zenez, ikerlariak kopien kopiak erabili behar izan dituztelako; horiek jatorrizko testutik aldendu dira halabeharrez, eta transkripzio eta inprenta akatsak, eta ortografia ereduak aldaketak, izan dituzte, besteak beste».


Ezaguna den kopia bat oinarri gisa hartu beharrean, latinezko lau testu hautatu ditugu. Lehendabiziko biak, ezagutzen diren Erdi Aroko kopia bakarrak dira. Nik neuk transkribatu ditut, baina bigarrena (1474koa) José Luis Banús y Aguirrek erabili eta transkribatu zuen foruaren inguruko ikerketa sakona egiteko. Lehengo testua, bestalde, 1426ean Getariako foruraren konfirmazioan Juan IIak txertatu zuen testua da. Lacarra eta Martín Duquek kopia hori erabili bazuten ere, hauxe da modu independentean argitaratzen den lehen aldia.

Testu bien irakurketak erakusten duenez, kopiatzaileak ez ziren erabat fidelak izan. Izan ere, logikarekin, zentzu onarekin eta ondorengo beste kopia batzuekin talka egiten duten zenbait hitz, esaldi eta adiera erabiltzen dituzte.

Hori dela eta, lehen bi testu horiek beste bi kopiarekin bateratu ditugu. Beste bi kopia horiek gaur egun ezagunenak eta erabilienak dira: Pablo de Goro-sabelena, Gipuzkoako historia ikerketetan oinarriko testua dena, eta Ángel M. Martín Duquerena, zeinak bere ezagutzak eta irakaspenak argi utzi zituen «*El Fuero de San Sebastián y su época*» kongresuan. Berak egindako lanek, hain zuzen ere, Donostiako foruaren aurreko edizioak eklipsatu zituzten.

Itzulpenen aldetik, bestalde, José Luis Banús y Aguirre eta Alberto Basabe Martínek argitaratutakoak erabili ditugu, eta horiekin batera 1426ko kopiaren gainean egindakoa ere gehitu dugu.

⁶¹ *Eusko Ikaskuntzaren Aldizkaria*, Separata, XXVII, 1936, 10 or.



Testuen irakurketak eginda, ondorioztatu genezake bere artikuluen in-
guruan esan diren gauza batzuk zalantzan jarri daitezkeela. Adibiderik argiena,
zalantzarik gabe, 7.2 artikuluari erreferentzia egiten diona da. Horrela itzuli da
orain arte: «2. *Et ut clericus nec nauarrus sit populator in populacione nisi vo-
luntate regis et consilio omnium vicinorum*», hau da, itzuli zen elizgizon eta
nafarrek debekatuta zeukatela Donostiako herritar izatea erregearen lizentziarik
eta herritar guztien onespenez jaso gabe. Ordea, hau da itzulpen zuzena: «2.- *Et
ut clericus non nauarrus sit populator in populacione nisi voluntate rregis et
consilio omnium vicinorum*», hau da, debekua elizgizon ez nafarrentzat zen...
eta 1180. urtean Donostia nafarra zen.

Bada, hemendik aurrera irakurlearen lana izango da testuak alderatzea eta
ondorio propioak ateratzea.

LATINEZKO BERTSIOA

<p><i>Biblioteca de la Real Academia de la Historia, Col. Salvá, ms. 9-22-7, fol. 52-60. Transcripción propia. Es la confirmación de 1426 que hizo Juan II a la villa de Guetaria del fuero donostiarra. Es el texto-base, cotejado con el texto de AGG-GAO CO LCI 4, fols. 72 vto.-76 rº. publicado por LACARRA, José Mª y MARTÍN DUQUE, Ángel J., Fueros de Navarra- I. Fueros derivados de Jaca I. Estella-San Sebastián, Pamplona: Diputación Foral de Navarra. Institución Príncipe de Viana, 1969, 269-286.</i></p>	<p>AGG-GAO CO LCI 4, fols. 72 vto.-76 rº. Transcripción propia. Es el traslado fehaciente del escribano Sorola hecho en 1474. Es el texto-base de BANÚS Y AGUIRRE, José Luis, <i>El Fuero de San Sebastián</i>, San Sebastián: Ayuntamiento, 1963, 79-110.</p>	<p>GOROSABEL, Pablo de, <i>Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa</i>, Tolosa, 1862, 770-714</p>	<p>MARTÍN DUQUE, Ángel Juan, <i>El Fuero de San Sebastián</i>. Tradición manuscrita y edición crítica, San Sebastián: Eusko-Ikaskuntza, 1982, 14-25 [Congreso «El Fuero de San Sebastián y su época», San Sebastián, 17-23/01/1981]</p>
<p>notoria a los parientes o vecinos; y también por hambre de sus hijos puede vender.</p> <p>Si quedase un hijo pequeño y posteriormente llegase a la mayor edad, y pidiere a la madre la parte del honor y del haber de su padre, de aquello que fuere presente tendrá parte en la parte del padre. Y si el hijo dijera: «<i>más tienes de mi padre</i>», y la madre dijera: «<i>non</i>», el hijo puede tener de ello un juramento de su madre.</p> <p>Y si los testamentarios quieren hacer particiones, y el abuelo parte en nombre de sus nietos, y da fianzas y recibe (la parte), autorizándolo los hijos, valdrá y será estable.</p> <p>Y cuando vinieren los hijos a hacer la partición, deben los hijos partir, y el padre y la madre deben elegir entre todas las heredades.</p> <p>Y si alguno quisiera alquilar aquella heredad, y la madre quisiera retenerla por el mismo precio que el otro, reténgala.</p>	<p>bién por hambre, por sus hijos, puede vender.</p> <p>14. Si quedare un hijo pequeño y posteriormente llegare a la mayor edad, y pidiere a la madre la parte del honor y del haber de su padre, de aquello que esté presente tendrá parte en la parte del padre.</p> <p>15. Y si el hijo dijere: «<i>más tenéis de mi padre</i>», y la madre dijere: «<i>no</i>», el hijo puede tener de ello un juramento de su madre. Y si los testamentarios no quieren repartir, y el abuelo reparte en nombre de sus nietos, y da fianzas y recibe, autorizándolo los hijos, valdrá y tendrá estabilidad.</p> <p>16. Y cuando vinieren los hijos a hacer la partición, deben partir los hijos, y el padre y la madre deben elegir entre todas las heredades.</p> <p>17. Y si alguien quisiera alquilar la heredad de los hijos, y la madre quisiera retenerla por el mismo precio que el otro, reténgala.</p>	<p>fuere notoria a los parientes o vecinos; y también puede vender por hambre de sus hijos.</p> <p>14. Si quedare un hijo pequeño y posteriormente llegare a la mayor edad, y pidiere a la madre la parte del honor y del haber de su padre, de aquello que esté presente tendrá parte en la parte del padre.</p> <p>15. Y si el hijo dijere: «<i>más tenéis de mi padre</i>», y la madre dijere: «<i>no</i>», el hijo puede tener por ello un juramento de su madre.</p> <p>Y si los cabezaleros lo quieren repartir y el abuelo reparte por sus nietos, y da fianzas y recibe, autorizándolo los hijos valdrá y tendrá estabilidad.</p> <p>16. Y cuando vinieren los hijos a hacer la partición, deben partir los hijos, y el padre y la madre deben elegir entre todas las heredades.</p> <p>17. Y si alguien quisiera alquilar la heredad de los hijos, y la madre quisiera retenerla por el mismo precio que el otro, reténgala.</p>
PARTE IV	PARTE IV	PARTE IV
<p><i>Artículo IV-1</i></p> <p>Todos los pobladores de San Sebastián, de cualquier oficio que fueren, hagan su lucro sin latrocinio ni traición.</p>	<p>Artículo 1</p> <p>Todos los pobladores de San Sebastián, de cualquier oficio que fueren, hagan su lucro sin latrocinio ni traición.</p>	<p>Artículo 1</p> <p>Todos los pobladores de San Sebastián, de cualquier oficio que fueren, hagan su lucro sin latrocinio ni traición.</p>
<p><i>Artículo IV-2</i></p> <p>Ningún hombre que se hospedare en alguna casa de San Sebastián, por ninguna deuda ni fianza no pueden sacarle de la casa, ni tampoco a su hacienda.</p> <p>Y si el merino o algún hombre mostrare el sello del rey al señor de la casa, él no responderá de ello.</p>	<p>Artículo 2</p> <p>1. A ningún hombre que se hospedare en alguna casa de San Sebastián, por ninguna deuda ni fianza, pueden sacarlo de la casa, ni tampoco a su haber.</p> <p>2. Y si el merino o algún hombre mostrare el sello del rey al señor de la casa, no le responderá de esto.</p>	<p>Artículo 2</p> <p>1. A ningún hombre que se hospedare en alguna casa de San Sebastián, por ninguna deuda ni fianza pueden sacarlo de la casa, ni tampoco su haber.</p> <p>2. Y si el merino o algún hombre mostrare el sello del rey al señor de la casa, no le responderá de esto.</p>
<p><i>Artículo IV-3</i></p> <p>Quienquiera que tenga fianza por su haber, procure prenda para su fianza.</p>	<p>Artículo 3</p> <p>1. Quienquiera que tenga fianza por su haber, procure prenda para su fianza.</p>	<p>Artículo 3</p> <p>1. Quienquiera que tenga fianza por su haber, procure prenda para su fianza.</p>

<p>Y si presentare como fianza una prenda (una res) muerta, que valga menos de una tercera parte, acepte tal prenda, y esto es del tercer al tercer día.</p> <p>Pero si diera una bestia viva, acéptela, lo mismo antes que después.</p> <p>Pero si la deuda valiera más de cien sueldos, preséntele caballo o mulo o mula o yegua viva.</p> <p>Y si su haber vale cien sueldos preséntele una bestia que valga veinte sueldos; y si cincuenta, presente una bestia de diez sueldos.</p> <p>Y si no pudiera dar prenda, según está escrito arriba, muéstrela al sello del rey, y si no quiere depositar la prenda, el sello del rey, vaya al día siguiente con el señor de la villa y reclámele sesenta sueldos, y póngale en la cárcel del rey hasta que tenga el haber.</p> <p>Y las costas de aquellas bestias sean 18 dineros entre el día y la noche, y si es asno, 9 dineros.</p> <p>Y si el mismo fiador estuviere en cautividad, por cada noche pague 60 sueldos aquel por quien está preso.</p> <p>Y si hiciera pechar aquel haber, devuélvale duplicado.</p> <p>Y si el fiador reclamare a la autoridad, déle cinco días de tregua si está en la tierra del rey; y si fuera, 10 días. Y si está en Santiago, un mes y un día; en San Gil, un mes y un día; en Jerusalén, un año y un día. Y si en los términos predichos no viniere, déle su haber sin contradicción.</p> <p>Y donde hallare prenda de su fianza, lo que tome de deudor a deudor, muestre el signo del rey, y si negare, tome fiador de derecho; y si fuera manifiesto, páguele o tenga su haber; y si quebrantare el sello del rey, peche sesenta sueldos.</p>	<p>2. Y si mostrare como fianza una prenda muerta, que valga una tercera parte menos, acéptele la prenda, y esto del tercer al tercer día.</p> <p>3. Pero si diere una bestia viva, acéptela bien antes bien después. Pero si la deuda valiere más de cien sueldos, muéstrela un caballo o una mula o mulo o una yegua viva.</p> <p>4. Y si su haber vale cien sueldos, muéstrela una bestia que valga veinte sueldos; y si cincuenta, muestre una bestia de diez sueldos.</p> <p>5. Y si no pudiera dar prenda, según está escrito arriba, muéstrela el sello del rey; y si no quisiera mostrar el sello del rey, en hora óptima vaya con el señor de la villa, y reclámele sesenta sueldos, y métese en la cárcel del rey hasta que tenga su haber.</p> <p>6. Y las engueras [<i>alquiler</i>] de aquellas bestias son dieciocho denarios entre el día y la noche; y si es asno, nueve denarios.</p> <p>7. Y si el mismo fiador estuviere en cautividad, por cada noche peche sesenta sueldos aquel por quien está preso.</p> <p>8. Y si hiciera pechar aquel haber, devuélvale duplicado.</p> <p>9. Y si el fiador apelare al autor, dé cinco días de tregua si está en la tierra del rey; y si está fuera, diez días. Y si está en Santiago, un mes y un día; en San Gil, un mes y un día; y en Jerusalén, un año y un día. Y si en los términos predichos no viniere, déle su haber sin resistencia.</p> <p>10. Y donde hallare prenda de su fianza tal que, como acreedor, pueda tomársela al deudor, muestre el signo del rey, y si negare, tome fiador de derecho. Y si fuere manifiesto, páguele o tenga su amor; y si rompiere el sello del rey, peche sesenta sueldos.</p>	<p>2. Y si mostrare como fianza una prenda muerta, que valga una tercera parte menos, acéptele la prenda, y esto del tercer al tercer día.</p> <p>3. Pero si viviese en un lugar de San Sebastián y diese allí un caballo o mula o mulo deje aquél vivo.</p> <p>4. Pero si su haber valiere 100 sueldos muestre allí un animal que valga 20 sueldos. Y si 50, muestre un animal de 10 sueldos.</p> <p>5. Y si no pudiere dar prenda, según está escrito arriba, muestre allí el sello del rey. Y si no quisiera mostrar el sello del rey, en hora óptima vaya con el señor de la villa y reclame 60 sueldos, y sea metido en la cárcel del rey hasta que tenga su haber.</p> <p>6. Y las costas de aquellas bestias son 18 denarios entre el día y la noche. Y si es asno, 9 denarios.</p> <p>7. Y si el mismo fiador estuviere en cautividad, por cada noche peche 60 sueldos aquel por quien está preso.</p> <p>8. Y si hiciera pechar aquel haber, devuélvale duplicado.</p> <p>9. Y si el fiador apelare al autor, dé 5 días de tregua si está en la tierra del rey; y si está fuera, 10 días. Y si está en Santiago, un mes y un día; en San Egidio, un mes y un día; y en Jerusalén, un año y un día. Y si en los términos predichos no viniere, déle su haber sin resistencia.</p> <p>10. Y donde hallare prenda de su fianza que la tome. De acreedor a deudor, muestre el signo del rey. Y si negare, tome fiador de derecho. Y si fuere manifiesto, páguele o tenga su afecto. Y si rompiere el sello del rey, peche 60 sueldos.</p>
---	---	--

<p><i>Artículo IV-4</i></p> <p>Y si algún hombre hiciera testimonio por alguna cosa, no le debe fallar (el testimonio).</p> <p>Y si dijera: que no recuerdo, debe jurar él que no recuerda.</p> <p>Y si algún deudor o actor negare al demandador su haber, si pudiera probar con testimonios, peche el censo con quince sueldos de caloña, y la mitad de la caloña será del señor de la villa y la otra mitad del señor cuyo es el censo que se le prueba. Y si no pudiera probar, que le tome su juramento y le dé fianza para que no le requiera más por esto; y si quisiera tornear y no se le creyera por su juramento, de cualquier haber que fuere, de 10 sueldos de la moneda del rey.</p> <p>Más ampliamente, que se torne con arreglo a fuero:</p> <p>Y el hombre que llevare el hierro, que sea franco, que no haya llevado hierro ni sea ferrón.</p> <p>Y aquel hombre que llevare el hierro, que jure que no es ferrón ni nunca levantó el hierro, ni él ni ningún hombre o mujer no han hecho ninguna cosa en este hierro por la cual aquel hombre pierda su derecho.</p> <p>Quien reclama este haber, jure que no debe este haber que reclama.</p> <p>Y antes de que levante el hierro que el dicho haber sea puesto en manos del fiel, bien en oro bien en plata.</p> <p>Y si el hombre que levantó el hierro se quema, devuelva el haber al señor que lo reclama, y peche sesenta sueldos al señor de la villa.</p> <p>Y si se salva, que peche aquel hombre que requería 60 sueldos al señor de la villa.</p> <p>Y si el hierro no es llevado después de que fue dada la fian-</p>	<p>Artículo 4</p> <p>1. Y si algún hombre hiciera a otro testigo de alguna cosa, no le debe fallar. Y si dijere: «<i>no me acuerdo</i>», debe jurar que no se acuerda.</p> <p>2. Y si algún deudor o autor negare al demandador su haber, si pudiera probar con testimonios, peche el censo con quince sueldos de caloña; y la mitad de la caloña será del señor de la villa, y la otra mitad del señor que lo ha probado y de quien es el censo.</p> <p>3. Y si no pudiere probar, que le tome su juramento y le dé fianza para que no le requiera algo más por esto. Y si quisiera tornear y no creyera en su juramento, cualquiera que sea el haber de que se trate dé además diez sueldos de la moneda del rey, para que torne por medio del hierro.</p> <p>4. Y el hombre que llevare el hierro, que sea franco que no haya llevado hierro ni sea ferrón. Y el hombre que llevare el hierro, que jure que no es ferrón ni nunca levantó el hierro, y que ni él ni hombre o mujer alguna ha hecho ninguna fatila [<i>hechizo o encantamiento</i>] en este hierro, por la cual el hombre que reclama ese haber pierda su derecho; y que jure que no debe este haber que reclama. Y antes de que levante este hierro, que este haber sea puesto en mano del fiel, bien en oro, bien en plata.</p> <p>5. Y si el hombre que levantó el hierro se quema, entregue el censo al señor que lo reclama, y peche sesenta sueldos al señor de la villa. Y si se salva, que el hombre que requería peche sesenta sueldos al señor de la villa.</p> <p>6. Y si no llevare el hierro después de que ha sido dada la fian-</p>	<p>Artículo 4</p> <p>1. Y si algún hombre hiciera a otro testigo de alguna cosa, no le debe fallar. Y si dijere que no le honran, debe jurar que no se acuerda.</p> <p>2. Y si algún deudor o autor negare al demandante su haber, si pudiera probar con testimonios que peche el censo con 15 sueldos de caloña; y la mitad de la caloña sea del señor de la villa, y la otra mitad del señor que lo ha probado y de quien es el censo.</p> <p>3. Y si no pudiere probar, que le tome su juramento y le dé fianza para que no le requiera algo más por esto. Y si quisiera tornear y no creyera en su juramento, cualquiera que sea el haber de que se trate dé además 10 sueldos de la moneda del rey, para que torne por medio del hierro.</p> <p>4. Y el hombre que llevare el hierro, que sea franco que no haya llevado hierro ni sea ferrón. Y el hombre que llevare el hierro, que jure que no es ferrón ni nunca levantó el hierro, y que ni él ni hombre o mujer alguna ha hecho ninguna fatila⁸³ en este hierro, por la cual el hombre que reclama ese haber pierda su derecho, y que jure que no debe este haber que reclama. Y antes de que levante este hierro, que este haber sea puesto en mano del fiel, bien en oro, bien en plata.</p> <p>5. Y si aquél hombre que levantó el hierro se quema, entregue el censo al señor que lo reclama y peche 60 sueldos al señor de la villa. Y si se libera en cuanto a la prueba, aquél que reclamaba peche 60 sueldos al señor de la villa.</p> <p>6. Y si no llevare el hierro después de dada la fianza, aquél en</p>
--	---	---

⁸³ «Hechizo» edo «encantamiento» beharrean.

<p>za, aquél en poder de quien permanece, que peche 10 sueldos. Y la caloña del hierro, es en la tercera parte del rey, en otra tercera parte del almirante y en otra tercia parte del alcalde.</p>	<p>za, aquel en quien permanece el hierro peche diez sueldos. 7. Y la caloña del hierro es la tercera parte del rey, y otra tercera parte del almirante, y otra tercera del alcalde.</p>	<p>quien permanece peche 10 sueldos. 7. Y la caloña del hierro es: la tercera parte del rey, y otra tercera parte del almirante, y otra tercera del alcalde.</p>
<p><i>Artículo IV-5</i> De todos los fardos que vengan de ultra puertos a San Sebastián, después de que permaneciera más de una noche, dé a su huésped 6 dineros de hostalaje. Y medio fardo, dé tres dineros. Y si es carga de cobre, dos dineros. La carga de estaño dé dos dineros. Y la carga de plomo, dos dineros. Y toda carga de peces que venga por mar, de una noche en adelante, dé a su huésped dos denarios. La carga de pimienta, 6 dineros. La carga de cera, dé dos dineros. La carga de pieles de carnero, dé dos dineros. La carga de garduñas, dos dineros. La carga de cueros de vacas, dos dineros. La carga de pieles de cabra, dé dos dineros.</p>	<p>Artículo 5 1. Todo fardo que viene a San Sebastián de más allá de los puertos, después de que permanezca más de una noche, dé a su huésped seis dineros de hostalaje. Y medio fardo dé tres dineros. 2. Y la carga de cobre, dos dineros. 3. Y la carga de estaño, dé dos dineros. 4. Y la carga de plomo, dos dineros. 5. Y toda carga de pez que venga por mar, de una noche en adelante, dé a su huésped dos dineros. 6. Por carga de pimienta, cuatro dineros. 7. Por carga de cera, dos dineros. 8. Y por carga de pieles de carnero, dos dineros. 9. La carga de garduñas, dos dineros. 10. La carga de cueros de vaca, dos dineros. 11. Por carga de pieles de cabra, dé dos dineros.</p>	<p>Artículo 5 1. Todo fardo que viene a San Sebastián de más allá de los puertos, después de que permanezca más de una noche, dé a su huésped 6 dineros de hostalaje. Y medio fardo dé 3 dineros. 2. Y la carga de cobre, 2 dineros. 3. Y la carga de estaño, dé 2 dineros. 4. Y la carga de plomo, 2 dineros. 5. Y toda carga de pez que venga por mar, de una noche en adelante dé a su huésped 2 dineros. 6. Por carga de pimienta, 6 dineros. 7. Por carga de cera, 2 dineros. 8. Y por carga de [pieles de carnero⁸⁴], 2 dineros. 9. La carga de [garduñas]⁸⁵, 2 dineros. 10. La carga de cueros de vaca, 2 dineros. 11. Por carga de [pieles de cabra]⁸⁶, dé 2 dineros.</p>
<p><i>Artículo IV-6</i> El fardo de tela de algodón, si es vendido en casa de huésped suyo (del vendedor), dé aquel que compra 5 sueldos; y si es vendido por piezas todos, dé la pieza un dinero, y la cuerda y la arpillera y la envoltura del fardo dé si es de lino.</p>	<p>Artículo 6 1. Por cada fardo de fustanes, si se vende en la casa de su huésped, dé el que compra cinco sueldos; y si se vende por piezas, por cada pieza un dinero, y la cuerda y la arpillera. 2. Y el fardo de trapos de lana, doce dineros; y si se vende por</p>	<p>Artículo 6 1. Por cada fardo de fustanes⁸⁷, si se vende en la casa de su huésped, dele el que que compra 5 sueldos; y si se vende por piezas, dé por cada pieza 1 dinero. Y la cuerda y la arpillera y el fardo de trapos de lana, 12 dineros.</p>

⁸⁴ Ez dugu aurkitu «montoni» esamolderako itzulpena, eta «montaña»rekin lotu dugu.

⁸⁵ Ez dugu aurkitu «daguinnas» esamolderako itzulpena.

⁸⁶ Ez dugu aurkitu «boquinasd» esamolderako itzulpena.

⁸⁷ Kotoizko oihala, alde batetik ilea duena.

<p>Y el fardo de telas de lana, 12 dineros; y si es vendido por piezas la pieza dé un dinero, y la cuerda y la arpillera si es de lino.</p> <p>Telas de lino, el ciento, 1 dinero.</p> <p>Y de cobre, del quintal, el comprador, 4 dineros.</p> <p>Y de estaño, 4 dineros.</p> <p>Y de plomo, 2 denarios.</p> <p>Y de pieles de carnero, si se venden, dé el comprador por la docena una mealla.</p> <p>Y de pieles de cordero, el ciento 1 dinero.</p> <p>Y la piel de conejos, 1 dinero.</p> <p>Y de gatos salvajes, la docena 1 dinero.</p> <p>Y de gatos domésticos. 1 mealla. Y de la docena, diez meallas.</p> <p>Y de la docena de pimienta, 2 dineros.</p> <p>Y de la docena de incienso, 2 dineros.</p> <p>De la caballería, si se vende en su hostal, 1 dinero y la silla, si ésta es de 5 sueldos para abajo. Y si (la silla) vale más de 5 sueldos, dé 12 dineros. Y si tiene baste, lo mismo.</p> <p>Y de la docena de pieles de zorra, 1 dinero.</p> <p>Y del ciento de pieles de ardilla, 1 dinero.</p> <p>Y del ciento de pieles de liebre 1 dinero.</p> <p>Y de la docena de pieles de cabrío, 1 dinero.</p> <p>Y la carga de cueros vacunos, 2 dineros.</p> <p>Y la media (carga), 1 dinero.</p> <p>Y de media para abajo, por cada cuero, 1 dinero.</p> <p>Y de cueros de ciervo, lo mismo.</p>	<p>piezas, por cada pieza un dinero, y la cuerda y la arpillera si es de lino.</p> <p>3. Trapos de lino, el ciento, un dinero.</p> <p>4. Y por el cobre, por el quintal, dé el comprador cuatro dineros.</p> <p>5. Y por el estaño, cuatro dineros.</p> <p>6. Y por el plomo, dos dineros.</p> <p>7. Y por las pieles de carnero, si se vendieren, dé el comprador por la docena una mealla.</p> <p>8. Y por las pieles de cordero, por sesenta, un dinero.</p> <p>9. Y la piel de conejos, un dinero.</p> <p>10. Y de gatos salvajes, por la docena, un dinero.</p> <p>11. Y de gatos domésticos, por la docena, una mealla.</p> <p>12. Y la docena de cera, una mealla.</p> <p>13. Y por la docena de pimienta, dos dineros.</p> <p>14. Y la docena de incienso, dos dineros.</p> <p>15. Por una bestia, si se vende en su hostal, un dinero; y la silla, si es de cinco sueldos o menos. Y si vale más de cinco sueldos, dé doce dineros. Y si tiene baste, lo mismo.</p> <p>16. Y por la docena de pieles de zorra, un dinero.</p> <p>17. Y por el centenar de pieles de ardilla, un dinero.</p> <p>18. Y por el centenar de pieles de liebre, un dinero.</p> <p>19. Y por la docena de pieles de cabra, un dinero.</p> <p>20. Y la traca de cueros vacunos, dos dineros. Media, un dinero. Y de media para abajo, por cada cuero, un dinero.</p> <p>21. Y por los cueros de ciervo, lo mismo.</p>	<p>2. Y si se vende por piezas, por cada pieza 1 dinero, y la cuerda y la arpillera.</p> <p>3. Y si es de lino del lugar, 1 dinero.</p> <p>4. Y del cobre, del quinto dé el comprador 4 dineros.</p> <p>5. Y del estaño, 4 dineros.</p> <p>6. Y del plomo, 2 dineros.</p> <p>7. Y por las [pieles de carnero], si se vendieren dé el comprador por la docena 1 mealla.</p> <p>8. Y por las [pieles de cordero], 60, 1 dinero.</p> <p>9. Y la piel de conejos, 1 dinero.</p> <p>10. Y de gatos salvajes, de la docena 1 dinero.</p> <p>11. Y de gatos domésticos, de la docena 1 mealla.</p> <p>12. Y la docena de cera, 2 meallas.</p> <p>13. Y por la docena de pimienta, 2 dineros.</p> <p>14. Y la docena de incienso, 2 dineros.</p> <p>15. De bestia, si se vende en su hostal, 1 dinero; y la silla, si es de 5 sueldos o menos. Y si vale más de 5 sueldos, dé 12 dineros. Y si tiene baste lo mismo.</p> <p>16. Y por la docena de pieles de zorra, 1 dinero.</p> <p>17. Y de 100 [pieles de ardilla], 1 dinero.</p> <p>18. Y de 100 [pieles de liebre], 1 dinero.</p> <p>19. Y de la docena de [pieles de cabra], 1 dinero.</p> <p>20. Y la traca de cueros vacunos, 2 dineros. Y media, 1 dinero. Y de menos, por cada cuero, 1 dinero.</p> <p>21. Y de cueros de ciervo lo mismo.</p>
<p><i>Artículo IV-7</i></p> <p>Y si el huésped quiere tener parte en cualquier haber que se vendiere en su casa, puede tener</p>	<p>Artículo 7</p> <p>Y si el huésped quiere tener parte en cualquier haber que se vendiere en su casa, puede tener</p>	<p>Artículo 7</p> <p>Y si el huésped quiere tener parte en cualquier haber que se vendiere en su casa, puede tener</p>

ner parte si da la mitad del haber. Y si es partícipe, nol tome hostalaje.	parte si da la mitad del haber. Y si es partícipe no tome hostalaje.	tener parte si da la mitad del haber. Y si es partícipe no tome hostalaje.
<i>Artículo IV-8</i> Y yo doy como fuero a los pobladores de San Sebastián que todos los años, al principio del año, cambien el preboste y el alcalde.	Artículo 8 Y yo doy por fuero a los pobladores de San Sebastián, que en cada año, al principio del año, cambien el preboste y el alcalde.	Artículo 8 Y yo doy por fuero a los pobladores de San Sebastián, que en cada año, al principio del año, cambien el oficial alcalde.
<i>Artículo IV-9</i> Y doy como fuero a los pobladores de San Sebastián que donde quiera que estén en mi tierra, o en mi curia, sean juzgados según el fuero de San Sebastián.	Artículo 9 Y doy por fuero a los pobladores de San Sebastián que donde quiera que estén en mi tierra, o en mi curia, sean juzgados según el Fuero de San Sebastián.	Artículo 9 Y doy por fuero a los pobladores de San Sebastián que donde quiera que estén en mi tierra, o en mi curia, sean juzgados según fuere de San Sebastián.
Gonzalo Moro doctor en leyes.		

Donostiako foruaren ondorengo itsas zuzenbidearen garapena¹

Margarita SERNA VALLEJO

Kantabriako Unibertsitatea

Aurkibidea

I. SARRERA. II. *RÔLES D'OLÉRON* ZIRELAKOAK ETA DONOSTIAKO FORUA. III. DONOSTIAKO KONTZEJUAK ETA SANTA KATALINA ETA SAN PEDRO KOFRADIEK EZARRITAKO ITSAS ZUZENBIDEA. 1. Udal-ordenantzak eta Santa Katalina eta San Pedro kofradien ordenantzak 1489. urtean. 2. Donostiako 1489ko udal-ordenantzetako itsas aurreikuspenak. 3. Santa Katalinako eta San Pedroko ordenantzen edukia. IV. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

XII. mendetik aurrera, Forua ematearekin eta horren ondoriozko berehalako hazkundearekin, Donostiako hiribildua itsas tradizio atlantikoari atxiki zitzaion; horixe adierazten dute hiribilduko herritar eta agintarien borondatea jasozten duten lekukotza ugariak, izan ere, Europako fatxada atlantikoko gainerako tokiekin eta pertsonekin harremanak finkatu eta luzatu nahi baitzituzten. Zentzu horretan, gogora ditzagun hainbat lekukotza: itsasontzi berberak Donostiako portuan eta Atlantikoko beste portu batzuetan egon izana adierazten dutenak; eskifaiak mistoak zirela aipatzen dutenak, hau da, Atlantikoko kostaldeko hainbat puntutako kideez osatutakoak, donostiarrak ere barnean hartuta; Gipuzkoak Lapurdi probintzia frantsesarekin eta Kostaldeko Lau Hiribilduekin sinatutako elkarrekikotasun egokiaren hainbat tratatutan –merkataritzako konbertsak ere esaten zitzaien– parte hartu izanaren berri ematen dutenak; eta itsasoarekin eta itsas jardurekin lotura handia zuen Baionatik etorritako gaskoien komunitatea Donostian kokatu izanaren albiste ematen dutenak.

¹ Lan hau *Culturas urbanas en la España Moderna: policía, gobernanza e imaginarios* (siglos XVI-XIX) Estatu proiektuaren baitan kokatzen da eta honako erreferentzia du: HAR2015-64014-C3-1-R. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak diruz lagundu du. Europak ere finantzatu du *Rebellion and Resistance in the Iberian Empires, 16th-19th centuries* proiektuaren baitan, Europar Batasuneko Horizon 2020 programaren barruan eta Marie Skłodowska-Curie No 778076 akordioaren bitartez.

Donostiako historiarekin estuki lotutako itsas tradizio atlantiko horren testuinguruan, zuzenbideak garrantzi handia izan zuela nabarmendu nahi dugu, tradizio horren parte baitziren nabigatzaileek Atlantikoaren kostaldean garatzen zituzten itsas jarduerak –funtsean, merkataritzako eta arrantzako jarduerak– antolatzen eta erregulatzen zituzten arau juridikoak. Beraz, Erdi Aroan eta Aro Modernoan Atlantikoko itsas zuzenbide bat bazegoela esan dezakegu.

Europako kostalde atlantikoetako nabigatzaileen –Donostiako herritar asko tartean zirela– merkataritzako eta arrantzako zereginak antolatzeko baliotza izan zuen zuzenbide horren barruan hainbat mota, jatorri eta hedaturatako arauak biltzen ziren, baina guri bi bloke juridiko, batik bat, interesatzen zaizkigu. Alde batetik, Atlantikoko nabigatzaile guztientzat erkidea zen gorputz juridikoa; izan ere, nabigatzaileek berek, itsas jardueretan jardun ahala, ohituretan oinarrituta sortutako zuzenbidea zen, eta sortze-prozesu horretan ez zuten parte hartu ez juristek, ezta botere politikoaren titularrek ere. Eta, bestetik, kostaldeko hiribilduetako eta profesionalen hainbat korporaziok –esaterako, Kantauri itsasoko kostaldean hain garrantzitsuak ziren itsas kofradiak– prestatutako udal-erloto eta/edo korporazio-erloto xedapenen multzoa, batik bat, tokiko mailan aplikatzen zirenak eta, beraz, aurreko blokekoak baino nabarmen mugatuagoak direnak.

Erdi Aroan eta Aro Modernoaren zati handiengan, ordea, ez zen itsas zuzenbide nazionalik edo Atlantikoak bustitako erresumetako berariazko itsas zuzenbiderik izan, Frantzia, Ingalaterran, Gaztelan eta gainerako entitate nazionaletan botere politikoa zutenek denbora asko behar izan zutelako itsasoan zer gertatzen zen benetan jakin nahi izateko eta itsas jardueren arloko legeak egiteko. Horren adierazgarri da, kontinente osoan lehen itsas legedi nazionalizat jotzen duguna 1681. urteko *Itsas armadaren ordenantza* frantsesa izatea. Horren aurretik, Europako errege-erreginek eman izan zituzten, modu isolatuan bada ere, itsasoarekin lotutako xedapenak; oso bakan eta, gainera, oso tarteka; beraz, ezin dugu esan Europako nazio bakoitzak bere itsas zuzenbidea izan zuenik 1681 baino lehen².

Aipatu berri ditugun Erdi Aroko kostalde europarretako itsas zuzenbidearen bi adierazpide horiek indarrean egon ziren Donostian 1180an hiribilduari Forua eman ziotenetik³. Hortaz, nabigatzaile donostiarren merkataritzako eta

² Ordenantza frantses horri buruz, ikus SERNA VALLEJO, M., La Ordenanza francesa de la marina de 1681 unificación, refundición y fraccionamiento del derecho marítimo en Europa, *Anuario de Historia del Derecho*, 78-29 (2008-2009), 233-260 or.

³ Foruaren honako argitalpen hau erabili dugu: BANUS Y AGUIRRE, J. L., *El Fuero de San Sebastián*, Donostia: Donostiako Udala, 1963, 79-110 or.

arrantzako jarduerak bi zuzenbideren arabera antolatu ziren, aldi berean: alde batetik, Europako kostalde atlantikoetako nabigatzaile guztiek partekatzen zuten itsas zuzenbidea eta, bestetik, hiribilduko kontzejuak eta Santa Katalina eta San Pedro kofradiek sortutako itsas zuzenbidea; Santa Katalina eta San Pedro kofradia Erdi Aroan Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldean finkatu ziren marinelen, nabigatzaileen eta arrantzaleen kofradietako bi ziren⁴.

II. RÔLES D'OLÉRON ZIRELAKOAK ETA DONOSTIAKO FORUA

Atlantikoko nabigatzaileen itsas zuzenbide erkidearen iturri garrantzitsue-
na merkataritzako eta arrantzako jardunbidetik beretik sortutako ohitura zen, eta ohiturazko ordenamendu hori idatziz jaso zen partzialki XIII. mendearen erdiko urteetan; testu horri *Rôles d'Oléron* edo *Layrongo Forua* esaten zaio⁵. Obra horri nahitaez erreparatu behar diogu, hainbat autorek Donostiako foru-testuaren edukiarekin lotu duten aldetik, hala nola José Ángel García de Cortázar, José Luis Orella Unzué eta Soledad Tena García autoreek.

Alabaina, iruditzen zaigu autore horiek bi testuen artean egin duten lotura ez dela guztiz zuzena, zenbait baieztapen eztabaidagarri egiten baitituzte, gure ikuspegitik begiratuta. Zehazki, diotenez, alde batetik, Donostiako Foruan *Rôles d'Oléron* arauetatik hartutako edo arau horietan oinarritutako xedapenak daude. Eta bestetik, obra hori XI. mendearen amaieran egindako ohituretan oinarritutako epaien bilduma bat baino ez dela diote⁶. Baina, gu zergatik ez gatoz bat argudio horiekin?

⁴ Euskal itsas kofradiei buruz argitaratu diren lanak alde batera utzita, erakunde horien ikuspegi orokor bat izateko, ikus ERKOREKA GERVASIO, J. I., *Análisis histórico-institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991. Eta GARCÍA FERNÁNDEZ, E., *Las cofradías de mercaderes, mareantes y pescadores vascos (siglos XIV a XVI)*. ARÍZAGA BOLUMBURU, B. eta SOLÓRZANO TELECHEA, J. A. (arg.), *Ciudades y villas portuarias del Atlántico en la Edad Media. Nájera, Encuentros Internacionales del Medioevo: Nájera, 27-30 de julio 2004*, Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 2005, 257-294 or.

⁵ Testu horri buruz, ikus SERNA VALLEJO, M., *Los Rôles d'Oléron el coutumier marítimo del Atlántico y del Báltico de época medieval y moderna*, Santander: Centro de Estudios Montañeses, 2004.

⁶ GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Á., *Una villa mercantil. 1180-1516*. ARTOLA, M. (koord.), *Historia de Donostia-San Sebastián*, Donostia: Nerea argitaletxea, 2004, 15-35 or., vid. 22. or.; ORELLA UNZUÉ, J. L., *Estudio jurídico comparativo de los Fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño. El Fuero de San Sebastián y su época*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 255-299 or., vid. 275. or.; *El Fuero de San Sebastián y su entorno histórico*. SÁEZ, J. A. eta GÓMEZ PIÑEIRO, J., *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián*, Donostia: Ingeba, urriko edizioa, 2018. Online: <http://www.ingeba.org/liburua/donostia/43fuero/43fuero.htm> (2013ko irailaren 13an kontsultatu genuen); TENA GARCÍA, S., *Composición social y articulación interna de las cofradías de pescadores y mareantes*.

García de Cortázar irakasleak bere garaian adierazi zuenez, egia da Donostiako Foruaren kapituluetan merkataritza-jarduerari buruzko aurreikuspen asko biltzen direla⁷, baina, gure ustez, aurreikuspen horiek guztiak ez dira sartzen itsas zuzenbidearen kontzeptuaren barruan. Eta hori diogu nahiz eta bada-kigun testu donostiarrean lehenetsunez aipatzen den merkataritza-trafikoa, hain justu, itsasoko merkataritza dela.

Abiapuntuzat hartzen badugu itsas zuzenbidea itsasoan egiten diren arrantzako eta merkataritzako bidaietan inplikaturako guztien artean ezartzen diren harremanak antolatzen dituzten arauen multzoa dela –arau horiek ohiturazkoak edo lege-arauak izan daitezke–, kontzeptu horretatik kanpo utzi behar dira Donostiako Foruan bildutako hainbat aurreikuspen: soilik lurreko merkataritza aipatzen duten aurreikuspenak; lurreko eta itsasoko trafikorako erkidetzat har daitezkeenak; eta, gaur egun, zerga-zuzenbidea esaten diogun eremuan sartzen direnak. Azken aurreikuspen horien xedea merkataritzako elkartrukeri zergak ezartzea zen edo, bestela, zenbait zergatik salbustea.

Beraz, planteamendu horren arabera, egiaz, Donostiako Foruan, zentzu hertsian hartuta, itsas zuzenbideko xedapen bakarra biltzen dela ondoriozta dezakegu. Hain zuzen ere, I-10 kapitulua; testu horrek, alde batetik, merkatarien jabetza-eskubidea babesten du⁸ hondoratzeetan berreskuraturako ondasunei dagokienez, hau da, bai itsasontzietan, bai salgaietan dagokienez, ezbeharra zerk eragin zuen aintzat hartu gabe; esate baterako, ekaitzaren ondoriozko urperatze bat, edo gizakiak eragindako ekintza baten ondorioz, hala nola itsas-lapur, kortsario edo etsaien erasoaldi bat edo gezurrezko itsasargiak jartzea. Bestetik, kontzejuari hainbat eskubide ekonomiko ordaindu behar zitzaizkiola xedatzen du, merkatariek hondoratze batetik salbatutako beren ondasunak berreskuratu ahal izateko. Aurreikuspenean zehazten denez, «10 sueldo eta dagokion lezda» ordaindu behar ziren⁹, eta I-3 kapituluan ere eskubide berak ezartzen ziren Donostiakoak ez ziren itsasontziak Donostiako portuan sartu ahal izateko¹⁰.

(Un análisis de la explotación de los recursos marítimos en la Marina de Castilla durante la Baja Edad Media), *Espacio, Tiempo y Forma, Serie III, Historia Medieval*, 8 (1995), 111-134 or., vid. 113. or.

⁷ Autore horren arabera, foru-testuko 146 xedapenen heren batek lotura zuen merkataritzako jarduerarekin eta, bereziki, hiru eragiketarekin: salgaien lurreko eta itsasoko garraioarekin, salgaiak biltegiarekin eta ostalarien etxeetan egindako transakzioekin (GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., *Una villa mercantil, op. cit.*, 24. or.).

⁸ Foruaren kapitulu horretan «merkatariek» hitza erabiltzen da baina, gure ustez, salgaiak itsasoz trafikatzeko zuzentzen sartzen dira kontzeptu horretan, hau da, salerosleak, zentzu hertsian hartuta; baina baita itsasontzietan jabeak ere, urperatutako itsasontzietan eta salgaien hondarrak berreskuratzeko buruz hein berean mintzo baita agindua.

⁹ I-10 kapitulua: «Si aconteciese que alguna nave naufragase en término de San Sebastián, los mercaderes de la nave recuperan la nave y todas las mercancías dando 10 sueldos y su lezda según más

I-10 kapituluko xedapenak Donostian *ius naufragii* ez aplikatzea zekarren; zuzenbide hori Europako kostaldeetan zabaldu zen garai batean, betiere kostaldeko agintarien laguntza edo babesarekin, haiek izaten baitziren, kasu askotan, ohitura horren onuradun nagusiak. Zuzenbide horren arabera, norbaitek hondoratzeetako hondakinak aurkitzen bazituen, pertsona hori bihurtzen zen aurkitutakoaren jabe. *Ius naufragii* zuzenbidearen aurkako kritikak zabaldu ziren Europako kostaldeko hainbat puntutan eta, azkenean, debekatzera iritsi ziren, aztertzen ari garen Donostiaren kasuan, esaterako; Donostian, Elizak egin-kizun erabakigarria bete zuen, zuzenbide hori indargabetzearen alde zegoela aldarrikatu ostean¹¹.

Eta Donostiako Foruan itsas zuzenbideari dagokion xedapen bakarra hori dela onartuz gero, García de Cortázar eta Orella Unzué autoreek egindako baieztapenak gehiegikeriatzat hartu behar dira; izan ere, autore horiek zioten testuan Lizarrako Forutik eta *Rôles d'Oléron* arauetatik hartutako xedapenak uztartzen zirela, edo tokiko testuaren iturri juridikoak bigarren obra horretan oinarritzen direla. Baieztapen horiek ontzat emateko, Donostiako Foruan beste itsas aurreikuspenen bat ere bildu beharko litzateke. Eta ez da horrela.

Baina, gainera, hondoratzeko batetik berreskuratutako ondasunen jabetzari buruzko kapitulua *Rôles d'Oléron* testutik hartuta dagoela dioen baieztapena ere ezin dugu zuzentzat jo, itsas testuaren lau bertsioetako –jatorrizkoa, gaztelaniazkoa, ingelesezkoa eta bretoierazkoa– ezin kapitulutan ez baita ezarpen hori aipatzen¹². Hori ikusita, galdera hau egin behar diogu geure buruari: zertan oinarritzen dira García de Cortázar, Orella Unzué eta Tena García autoreen usteak?

Hiru autoreetatik bakar batek ere ez du berariaz aipatzen, baina haien planteamenduaren justifikazioa zein den badakigulakoan gaude; izan ere, kontuan izan behar da, alde batetik, haien lanak argitaratu zituztenean *Rôles d'Oléron* testuari buruzko jakintzaren egoera zein zen eta, bestetik, garai hartako his-

arriba (se determina) [Itsasontziren bat Donostiako mugapean urperatuko balitz, itsasontziko merkatariek ontzia eta salgai guztiak berreskuratzeko 10 sueldo eta dagokion lezda ordaindu beharko dituzte, gorago (zehaztutakoaren) arabera]». BANUS Y AGUIRRE, J. L., *El Fuero*, op. cit., 83. or.

¹⁰ I-3 kapitulua: «... Pero las naves extrañas paguen lezda: por cada nave, diez sueldos de mi moneda; y por cada fardo que sea sacado de la nave, 12 denarios de arribada más su lezda, pero deduciendo la tercera parte de lo que diera... (Baina itsasontzi arrotzek lezda ordain dezatela: itsasontzi bakoitzeko hamar sueldo nire txanponean; eta ontzitik ateratzen den fardel bakoitzeko 12 denario porturatzeagatik gehi dagokion lezda, baina ematen duenaren heren bat kenduta...)».

¹¹ Elizaren jarrerari buruz, ikus SCHIAPPOLI, D., *Il ius naufragii secondo il Diritto della Chiesa*, Roma, Società Editrice del Foro Italiano, 1938.

¹² *Rôles d'Oléron* testuaren lau bertsio horiei buruz, ikus SERNA VALLEJO, M., *Los rôles d'Oléron el coutumier*, op. cit.

toriografiak *Rôles d'Oléron* testuaren zein edizio erabiltzen zuen itsas testuaren erreferentetzat.

Egile horien lanak argitaratu zirenean, Espainiako nahiz atzerriko doktrina nagusiaren arabera *Rôles d'Oléron* testua XI. mendearen amaieran egindako epai-bilduma bat baino ez zen, eta zenbait kasutan ohituretan oinarritutakoa zela gehitzen zen; beraz, Jean-Marie Pardessus-ek XIX. mendean ezarritako tesia zuzentzat jotzen zen¹³, eta autore horrek berak itsas zuzenbidearen historiari egindako ekarpen eskergan argitaratutako *Rôles d'Oléron* testuaren edizioa erabiltzen zen erreferente gisa¹⁴. Baina itsas kodearen bertsio hori Pardessus-ek berak artifizialki eraikitakoa da, eta ez dator bat Europako nabigatzaileek ezarritako lau bertsioetako bakar batekin ere.

Egile frantses hark argitaratutako *Rôles d'Oléron* testuaren abiapuntua desira bat izan zen: *Rôles d'Oléron*¹⁵ arauen edizio kritiko bat eraman nahi zuen inprimategira, hainbat eskuizkributan eta Pierre Garcie¹⁶ eta Etienne Cleirac¹⁷ autoreek egindako aurreko edizioetan oinarrituta. Aurreko edizioak ere autore horiek egindako material-bilketa baten ondorio izan ziren, eta kontinenteko zirkulu jakin batzuetan nolabaiteko oihartzuna izatera iritsi ziren¹⁸.

Pardessus-ek egindako bilketa-lanaren emaitza 56 kapituluak bilduma bat izan zen, baina ez zuen zerikusi handirik *Rôles d'Oléron* testuaren lau bertsioekin; kapitulu horietan, hondoratzeetatik berreskuratutako ondasunen jabetzari buruzko hainbat agindu biltzen dira, Garcie eta Cleirac autoreen testuetan jada agertzen zirenak (36.etik 56.era bitarteko kapituluak).

Datu horien argitara, ez da zaila gertatzen García de Cortázar, Orella Unzué eta Tena García egileek egindako baieztapenek beren zentzua bazutela esatea, kontuan izanik Pardessus-en *Rôles d'Oléron* testuaren edizioan eta azterke-

¹³ PARDESSUS, J. M., *Collection des lois maritimes antérieures au XVIII siècle*, 6 lib., Paris: L'Imprimerie Royal, 1828-1845, vid. I, 300-303 or.

¹⁴ PARDESSUS, J. M., *Collection des lois*, I, *op. cit.*, 323-353 or.

¹⁵ SERNA VALLEJO, M., La historiografía sobre los *Rôles d'Oléron* (siglos XV a XX), *Anuario de Historia del Derecho Español*, 70 (2000), 471-498 or, vid. 486-487 or.

¹⁶ GARCIE, P., *Le Grand routier et pillotage et enseignement pour encrent tant ès ports, havres que lieux de la mer, tant des parties de France, Bretagne, Engleterre, Espagne, Flandres et haultes Alemaignes...* St. Gilles-sur-Vie: 1483-1484. Ezagutzen den 1. edizioa, Poitiers, 1520; 2. ed., 1521. Garcie autorearen obra hemen argitaratu zen: WATERS, D. W., *The Rutters of the Sea. The Sailing Directions of Pierre Garcie. A Study of the first english and french printed Sailing Directions with facsimile Reproductions*. New Haven eta Londres: 1967, 205-400 or. Kapituluak ikusteko, ikus 376-393 or.

¹⁷ CLEIRAC, E., *Us et coutumes de la mer divisées en trois parties*, 1. ed., Bordele: Guillaume Millanges, 1647; 6. edizioa, Rouen: E. Viret, 1671, 7-135 or.

¹⁸ *Rôles d'Oléron* testuaren edizio horien jatorriari eta ezaugarriei buruz, ikus SERNA VALLEJO, M., La historiografía sobre los *Rôles d'Oléron*, *op. cit.*, 473-479 or.

tan oinarrituta egin zituztela, baina, gaur egun, *Rôles d'Oléron* testuaren gaineko jakintzaren egoera zein den ikusita, ezin dira baliozkotzat jo, eta ezin da pentsatu Donostiako Foruko hondoratzeei buruzko agindua *Rôles d'Oléron* testutik datorenik, zeren, lehen esan dugunez, testuaren lau bertsioetatik ezin etan ez baita gaia aipatu ere egiten.

Eta, bestalde, ezin da defendatu *Rôles d'Oléron* testua epai-bilduma soil bat denik, orain seguru dakigulako hizpide dugun obra hori, egiaz, itsas *coutumier* bat zela. Hau da, ohiturazko itsas zuzenbideari buruzko bilduma bat¹⁹. Azkenik, testuaren datazioari dagokionez, obra XI. mendean idatzi zen ideia ere baztertu beharrean gaude, hain zuzen ere, XIII. mendean erdialdeko urteetan idatzi zela dioen tesia nagusitu eta sendotu baita²⁰.

Hortaz, azaldutako datuak aintzat hartuta, *Rôles d'Oléron* obrako arauak Donostiako Foruan ezin izan zutela eraginik izan pentsatzen dugu, itsas testu hori Forua eman ondoren idatzi baitzen. Baieztapen hori gorabehera, Donostiako Foruan hondoratzeetatik salbatutako ondasunen jabetzari buruz agertzen den aurreikuspena Atlantikoko itsas tradizio baten parte zela pentsa daiteke; hain zuzen ere, *Rôles d'Oléron* zelakoak biltzen zituen itsas tradizio beraren parte, eta biak Atlantikoko ziklo horretako partaide zirenez, ulertzekoa da Garciek, Cleirac-ek eta, geroago, Pardessusek berak, *ius naufragii* zuzenbideari zegozkion kapituluak beren testuetan txertatzea.

Donostiako Foruan *ius naufragii* zuzenbideari buruz dagoen aurreikuspenaren eta merkataritza-arloko eta arlo juridikoko tradizio edo kultura atlantikoaren arteko lotura hori bazegoela adierazi zuen duela zenbait urte –zuzen adierazi ere–, Bonifacio de Echegaray Cortak²¹, eta José Luis Banus y Aguirrek bere egin zuen²²; izan ere, hondoratzeetako ondasunei buruzko Foruko araua eremu atlantikoko beste testu batzuetako aurreikuspenekin erlazionatu zuen, antzeko edukia zuten aldetik. Esate baterako, honako testu hauetakoak, Banus y Aguirren esanetan: Rikardo I.a Ingalaterrakoaren pribilegio bat, Jerusalemgo *Assises de la court des barons* obra eta Olerón irlako zuzenbidea –ez nahastu *Rôles*

¹⁹ Arauen amaieran *Et cest le jugement en ceo cas* leloa dagoenez, Pardessusek pentsatu zuen jatorri judizialeko xedapenen bilduma bat zela, baina, izatez, obra idazteko bilketa-lana egin zuenaren baliabide bat baino ez zen izan, testua osatzen duten eta ohituretan oinarritzen diren xedapenei organo judizialen aurrean aginpide handiagoa emateko intentzioarekin. Horri dagokionez, ikus SERNA VALLEJO, M., La historiografía sobre los *Rôles d'Oléron*, *op. cit.*, 65-67 or.

²⁰ Gai horiei buruz, ikus SERNA VALLEJO, M., *Los Rôles d'Oléron*, *op. cit.*, 55-74 or.

²¹ ECHEGARAY CORTA, B. de, La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas, *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*, 13-3 (1922), 273-336 or.; 13-4 (1922), 582-613 or.; 14-1 (1923), 27-60 or., por vid. 13-4, 588-597 or.

²² BANUS Y AGUIRRE, J. L., *El Fuero*, *op. cit.*, 152-157 or.

*d'Oléron*²³ testuarekin—. Aurreko horri gehituko diogu berorien espiritua ere bat datorrela Errege Foruan (IV, XXV,1) eta Partidetan (V, IX, 7) xedatutakoarekin eta, azken batean, zuzenbide erromatarrekin, zeren ordurako, arian-arian, hondoratzeetako hondakinen jabetza babesteko beharrezkoa zen esparru juridikoa eraikia baitzen; beraz, historia juridiko erromatarren hasierako aldiak soilik jo ziren hondoratzeetako ondasunak *res nullius* eta, hortaz, aurkitzen zituen edonor egin zitekeen haien jabe²⁴.

Eta, orain, aurreko kontu horiek argitu ostean, epigrafe hau amaitzeko beste galdera bat egingo dugu: *Rôles d'Oléron* testua iritsi ote zen nabigatzaile donostiarren artean indarrean egotera? Orain arte, ez dugu lortu Donostiako nabigatzaileek Atlantikoko itsas *coutumier* hori erabili zutela berariaz baieztatzeak aukera emango digun inolako lekukotzarik, Gaztelako kostaldeko beste puntu batzuetan ez bezala; izan ere, beste toki horietako herritar eta nabigatzaileek testua erabili zutela inolako zalantzarik gabe frogatzen duten hainbat lekukotza aurkitu izan dira. Besteak beste, Sevillan, Pontevedran edo San Vicente de la Barqueran²⁵.

Alabaina, *Rôles d'Oléron* arauak Europako fatxada atlantikoan izan zuten zabalkunde orokorra askotariko iturrien bitartez dokumentatuta dagoela ikusita —orain arte, haren artikuluen ehun kopia baino gehiago aurkitu ditugu—; Frantziako monarkiak berak Gaztelako nabigatzaileei *Layrongo Foruaren* —obraren gatzelaniazko bertsioa²⁶— arabera gobernatzeko baimena eman ziela, 1364. urtetik aurrera; eta kontuan izanik lotura handia egon zela Donostiako eta Gaskoiniako herritarren artean —Gaskoinian sortu ziren, ziurrenik, *Rôles d'Oléron*—; eta donostiarrek Erdi Aroko merkataritza atlantikoan parte-hartze aktiboa izan zuten eta jarduerari hori, hain justu, kode horren arabera arautzen zenez, ez dirudi zentzugabea, ezta ausarkeria ere zera esatea, Donostiako nabigatzaileek *Rôles d'Oléron* arauak erabili zituztela, Atlantikoko itsas tradizioarekin batera. Dena den, dokumentazio berririk aurkitu ezean, ezin izango dugu hipotesi hori berretsi.

III. DONOSTIAKO KONTZEJUAK ETA SANTA KATALINA ETA SAN PEDRO KOFRADIEK EZARRITAKO ITSAS ZUZENBIDEA

Jarraian, Atlantikoko itsas zuzenbide erkideari eta *Rôles d'Oléron* arauari buruzko hausnarketak alde batera utziko ditugu, gure azterlanean aurrera egi-

²³ *Ibid.*, 154-157 or.

²⁴ Zuzenbide erromatarrean hondoratzeetako ondasunei ematen zitzaizkien tratamenduak buruz, ikus ZAMORA MANZANO, J. L., El salvamento y la asistencia marítima en el Derecho romano, *Revue Internationale des Droits de l'Antiquité*, XLVIII (2001), 373-403 or.

²⁵ Ikus SERNA VALLEJO, M., Los *Rôles d'Oléron*, *op. cit.* 120. eta 169-171 or.

²⁶ SERNA VALLEJO, M., Los *Rôles d'Oléron*, *op. cit.*, p. 120.

tearren, eta hasierako orrialdeetan aipatu dugun itsas zuzenbidearen bigarren adierazpenari erreparatuko diogu orain. Donostiako kontzejuak eta Santa Katalina eta San Pedro kofradiak ezarritako itsas zuzenbideaz ari naiz. Nabigatzaile donostiarrentzat oso garrantzitsua izan zen zuzenbide hori, gertu-gertukoa eta berehalakoa zelako, nahiz eta Atlantiko osorako itsas zuzenbide erkideak baino askoz ere indar mugatuagoa zuen bai lurraldearen aldetik, bai pertsonen aldetik; izan ere, zuzenbide horretako xedapenek hiribilduan zeuden pertsonak baino ez zituzten behartzen, kofradia bakoitzeko kideekin batera.

Tokiko itsas zuzenbidean oinarritutako ikuspegi horretatik begiratuta, hiribilduko gobernu-organoez tartean-tartean hartzen zituzten itsasoarekin lotutako erabakiek garrantzi txikiagoa izan zuten Donostiako kontzejuaren ordenantzetan bildutako itsas xedapenek baino, eta Erdi Arotik Gipuzkoako hiriburuan ezarrita zeuden bi itsas kofradietako bakoitzaren ordenantzetan bildutakoekin baino. Horregatik, jarraian, ordenantzak izango ditugu aztergai, eta beste baterako utziko dugu hiribilduko udal erregimentuak itsasoarekin lotutako gaiei buruz hartu zituen erabaki solteen azterketa.

Baina ordenantza horiek aztertzen hasi baino lehen, hausnarketa orokorragoak planteatu behar dira.

Kostaldean kokatutako herrietako –Donostia, esaterako– udal-ordenantzei dagokienez, itsas aurreikuspenak, oro har, egoera jakin batzuetan garrantzitsuagoak izan zirela esan behar dugu; hain zuzen ere, kontzejuetako gobernuak itsasoarekin lotutako zereginetan jarduten zuten herritarren jarduerak kontrolatu nahi izan zituztenean –arrakasta handia nahiz txikia izan–, baita, bereziki, nabigatzaileen, marinelen eta arrantzaleen kofradien jarduerak kontrolatu nahi izan zituztenean ere. Aitzitik, kontzejuek herritar horien gain inolako nagusitasunik baliatu nahi izan ez zuten egoeretan ez ziren hain garrantzitsuak izan.

Horri gehitu behar zaio, tokiko oligarkiaren kontrolpean zeuden udal-erregimentuak kezkatu eta itsas gaitan gehiago esku hartzen hasi zirela, itsas kofradiak kontzejuen interesetarako arriskutsuak izan zitezkeela konturatu ziren momentutik aurrera, esandako korporazio horiek hainbat herritako Herri Xehearren egituratzaile politiko bihurtzen hasi ziren edo bihurtu nahi zuten neurrian. Itsas anaiartek interes hori izatearen arrazoia zera zen, hiribildu askotako Herri Xehea osatzen zuten herritar gehienak itsas jardueretan lan egiten zuten pertsonak zirela, itsas gremioetako kide zirela eta, haien egoera soziala zela eta, udal-gobernuetatik kanpo geratzen zirela.

Bi ikuspegi horietatik begiratuta, Donostiako kontzeju-gobernuaren kasua bereziki interesgarria da, berezitasun garrantzitsuak izan zituelako inguruko itsas hiribildu gehienetan –Gipuzkoan nahiz Bizkaian– garai berean gertatzen

ari zenarekin alderatuta, baita Kostaldeko Lau Hiribilduetako Korrejimenduko hiribilduetan ere.

Era berean, Donostia kasu berezitat jotzen da itsas kofradien ordenantzei dagokienez ere, Kantauriko oso herri gutxitan bildu baitziren marinela, nabigatzaile eta arrantzaleak bi kofradiatan, kofradia bakarrean bildu ordez, Gaztela iparraldeko kostaldean ohikoa zen bezala; dena den, beste herrietako kofradia bakar horretan itsasoarekin lotutako kolektibo jakin bat izan zitekeen nagusi, dela arrantzarekin lotutakoa, dela merkataritza-jarduerekin lotutakoa. Donostiaren kasuan, ordea, Behe Erdi Arotik bi kofradiatan antolatu ziren eta, horregatik, Santa Katalina kofradiak bere ordenantzak zituen, merkataritza-jardueraren antolatzeko pentsatuak, eta San Pedro kofradiak, aldiz, beste batzuk, arrantza-jardueraren aritzen ziren hiribilduko herritarrentzat²⁷.

1. Udal-ordenantzak eta Santa Katalina eta San Pedro kofradien ordenantzak 1489. urtean

XV. mendeaz geroztik, Kostaldeko Lau Hiribilduetako Korrejimenduko marinelen lau kofradia garrantzitsuenak Herri Xehearren egituratzaile politiko izan ziren San Vicente de la Barquera, Santander, Laredo eta Castro Urdiales herrietan²⁸, baita Lekeition ere²⁹, eta tokiko gobernuek, logikari jarraikiz, aurkako jarrera eta erresistentzia agertu zieten, itsas gremioek betetzen zuten eginkizun hori ez zelako udal agintarien gustukoa, ezta kontzejuak kontrolatzen zituzten oligarkien gustukoa ere. Donostiaren kasuan, Santa Katalina eta San Pedro kofradiak ez ziren iritsi eginkizun politiko hori betetzera, garai batean, agian, saiatu ahal izan ziren arren. Haien nahiak porrot egin zuen Donostiako gobernua, monarkiaren berariazko laguntzarekin, bideraezin egin zuelako aukera hori.

²⁷ Soledad Tena García autoreak hirugarren kofradia bat ere aipatzen du, San Nikolas kofradia, baina oraingoz ez dugu horren beste berririk. TENA GARCÍA, S., *Cofradías y concejos: encuentros y desencuentros en San Sebastián a finales del siglo XV*. MONSALVO ANTÓN, J. M. (arg.), *Sociedades urbanas y culturas políticas en la Baja Edad Media castellana*, Salamanca: Salamancako Unibertsitatearen argitalpenak, 247-254 or., vid. 233. or.

²⁸ SERNA VALLEJO, M. El conflicto político entre las gentes del mar y las oligarquías locales en el Corregimiento de las Cuatro Villas de la Costa en el Antiguo Régimen. REY CASTELAO, O., CASTRO REDONDO, R. eta FERNÁNDEZ CORTIZO, C. (arg.), *La vida inquieta. Conflictos sociales en la Edad Moderna*, Santiago de Compostela: Santiago de Compostelako Unibertsitatea, 2018, 119-143 or.

²⁹ ERKOREKA GERVASIO, J. I., *Análisis histórico-institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991, 402-405 or. eta TENA, Composición social y articulación interna de las cofradías, 133-134 or.

Eta egoera hori 1489. urtean Donostiako udal-ordenantzak landu eta berretsi izanarekin lotu behar da³⁰, baina baita Santa Katalina³¹ eta San Pedro kofradien ordenantzekin ere, 1489. urte berekoak baitira³².

Bi kofradia horien ordenantzak elkarren oso antzekoak dira. Egia esan, agindu edo arau asko berdinak dira bi testuetan, eta kofradia bakoitzeko kideek gauzatzen zituzten jarduera bereziak arautzen dituzten kapituluak soilik dira desberdinak. Antzekotasun horren arrazoia zera izan zen, aldi berean idatzi zirela, helburu berarekin eta pertsona berak: Diego Arias de Anaya batxilerrak, hiribilduko epaile ikerlariak; izan ere, batxiler horrek berak bi erakundeak indargabetu zituen aldez aurretik, eta Errege-erregina Katolikoek berriro sortu zituzten.

Baina gremioen bi ordenantza horien eta urte bereko udal-ordenantzen artean ere badira lotura-puntuak, eta azalpena eman beharrean gaude.

Hiru testuen irakurketa gurutzatua eginez gero, zera ikusiko dugu, hiribilduko marinel eta arrantzaleak –Donostiako Herri Xehearren gehiengoa osatzen zuten– arriskutzat jotzen zituztela eta kezka-iturri bihurtu zirela udal-gobernua kontrolatzen zuen oligarkiaren ustez, bederen; zeren kofradietan antolatutako ondoren, kontzejuaren gobernuan parte hartu nahi baitzuten beren interesak defendatzeko eta, gainera, une horietan udal-erregimentua etapa zaila igarotzen ari zen³³.

³⁰ Donostiako udal-ordenantzak Errege-erregina Katolikoek onartu zituzten 1489ko uztailearen 7an. Hemen argitaratu dira: AYERBE IRÍBAR, M. R., Las ordenanzas municipales de San Sebastián de 1489, *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 40 (2006), 11-91 or., vid. 14-91 or.

³¹ Maisu, merkatari, pilotu eta marinelen Santa Katalina kofradiaren ordenantzak, Errege-erregina Katolikoek 1489ko uztailearen 7an emandakoak. Hemen argitaratu dira: BANUS Y AGUIRRE, J. L., Ordenanzas de la Cofradía de Santa Catalina, *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 8 (1974), 73-106 or., vid. 90-99 or. Gerora, Karlos I.ak 1539. urtean berretsi zituen (BANUS Y AGUIRRE, J. L., *Ordenanzas de la Cofradía*, 99-101 or.) eta 1642an eraberritu zituzten (Testua hemen ikus daiteke: *Ibidem*, 101-106 or.).

³² Marinelak biltzen zituen San Pedro kofradiaren ordenantzak, Errege-erregina Katolikoek 1489an emandakoak. Hemen argitaratu dira: AYERBE IRÍBAR, M^a. R., Ordenanzas de la cofradía de mareantes de San Pedro, en San Sebastián (1489), *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 41 (2007), 417-437 or., vid. 428-437 or. Argitaratutako testuak datarik ez duenez, Ayerbe irakasleak 1489ko uztailearen 7ko data esleitu zien ordenantzei, Pedro Manuel Soraluçek egun hori aipatu zuela esanez, 1539ko berrespenetik hartuta. Hala ere, gu ez gaude ados datazio horrekin, zeren 1539ko berrespena, berez, Santa Katalina kofradiaren ordenantzei dagokie, aurreko oharrean adierazi dugunez, eta ez San Pedro kofradiari (AYERBE IRÍBAR, M^a. R., *Ordenanzas de la cofradía de mareantes*, 428. or, 34. oharra). Ayerbe irakasle andreak aipatutako Soraluçeren iruzkina hemen dago: SORALUCE, P. M. de, Las cofradías de mareantes de San Sebastián desde la Edad Media hasta nuestros días, *Euskal-Erria*, XX-VIII (1983), 380-384, 407-414, 459-466 or., vid. 410. or. Gerora, zehazki, 1491. urtean, San Pedro kofradiako ordenantzak ere berretsi zituzten. Berrespen horren ondoriozko testua ikusteko: ERKOREKA GERVASIO, J. I., *Análisis histórico-institucional de las cofradías*, op. cit., 461-469 or.

³³ Donostiako Erdi Aroko oligarkia Mans-Engómez leinu gaskoien inguruan sortu zen hasieran, eta prozesu bikoitz baten bitartez, denboran bata bestearen atzetik, lehenik, hiribilduko beste leinu gas-

Ez dugu ahaztu behar 1489ko urtarrilean sute ikaragarria izan zela hiribilduan eta hiria berreraiki egin behar izan zela Errege-erregina Katolikoek berariazko laguntzarekin³⁴, eta hilabete horietan, kofradiek hainbat gehiegikeria egin zituztela, kontzejuari indarrez ezarri nahi izan baitzizkioten beren asmoak betetzen laguntzeko hainbat akordio, tokiko agintariek hartutako erabakien aurkakoak.

Beraz, 1489. urteko itsas kofradien bi testuek eta kontzejuaren ordenantzak helburu bera dute, hau da, tokiko oligarkiak kontrolatzen zuen herritarren gobernua indartzea, udal-agintaritzan krisi instituzional sakona zegoen une batean; kofradiek hiribilduan izan zezaketen boterea eta protagonismoa mugatzea; eta tokiko agintariek itsas gremioen gain zuten kontrola areagotzea. Eta helburu horiek betetzeko, udal-agintariek Errege-erregina Katolikoek laguntza ordainezina izan zuten.

Diego Arias de Anaya batxilerra bidali zuten hiribildura udal-hauteskundeen harira herrian sortu ziren gatazkak ikertzera; orduan, Donostiako Santa Katalina eta San Pedro kofradiak indargabetu zituen, kofradiak eta monipodioak errepublikarentzat, ondasun erkidearentzat eta Monarkia berarentzat kaltegarriak zirela argudiatuta³⁵; argudio berari jarraikiz, bi kofradiak kontzejuaren kontrolpean geratu ziren berrezarri ostean.

Egia esateko, kofradien existentziak eragiten zituen kalteei buruzko argudioak ez ziren berriak, zeren hainbat instantzia aspalditik ari baitziren gremioen eta kofradien aurkako jarrerak adierazten, orokorrean batzuetan, berezikiago beste batzuetan, Arias de Anaya batxilerrak emandakoen oso antzeko arrazoie-

koi batzuk sartu ziren eta, geroago, Gipuzkoako lurretan jatorria izanik hiribilduan kokatu ziren beste leinu batzuk. Ikus TENA GARCÍA, S., Los Mans-Engómez: el linaje dirigente de la villa de San Sebastián durante la Edad Media, *Hispania* 185 (1993), 987-1008 or.; *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Donostia: Kutxa Fundazioa, 1997; Los linajes urbanos de las villas del Puerto de Pasajes (San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía): dos modelos de formación de las oligarquías municipales. DÍAZ DE DURANA, J. R. (koord.), *La lucha de bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal: Guipúzcoa, de los bandos a la provincia (siglos XIV a XVI)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1998, 323-339 or. Eta leinu nagusiekin loturarik ez zuten donostiarrei buruz, ikus GARCÍA FERNÁNDEZ, E., La comunidad de San Sebastián a fines del siglo XV: un movimiento fiscalizador del poder concejil, *Espacio, Tiempo y Forma, Serie III, Historia Medieval*, 6 (1993), 543-572 or.

³⁴ Suteari eta Fernando eta Isabel errege-erreginek berreraikitze-lanetarako emandako laguntzari buruz, ikus BANUS Y AGUIRRE, J. L., Viejas ordenanzas de construcción en San Sebastián, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1 (1945), 185-194 or. Los Reyes Católicos y San Sebastián. El incendio de 1489 y la reconstrucción de la villa, *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, 17 (1961), 283-304 or.

³⁵ San Pedro eta Santa Katalina kofradietako ordenantzen atarikoan, erakunde bateko nahiz beste kofradeak elkartu —«ayuntamientos»— izanaren erruz herrian izandako arazoak aipatzen dira.

kin. Besteak beste, Monarkiak³⁶, Gortee³⁷ eta Gipuzkoako Ermandade edo Anaiarteak³⁸ izan zituzten horrelako jarrerak, baina kasu guztietan ez dago argi horrelako erabakiak hartu zituzten bakoitzean helburua kofradiak eta gremioak, oro har, desagerraraztea zen, ala izaera politikoa zutenak, edo, lanbide-arlokoak izanik, eginkizun politikoren bat betetzen zutenak soilik ezabatu nahi zituzten, ordena publikoarekin lotutako arazoak sorrarazten baitzituzten herrietan eta ez baitzituzten betetzen legeak eskatutako baldintzak³⁹.

Ikusirik Kantauriko kofradia batzuek eta besteek jaso zuten tratua oso desberdina izan zela, ez mendeetan zehar soilik, baita hainbat une zehatzetan ere, zentzuzkoa dirudi pentsatzea debekuen egiazko helburua honako hau zela: monipodio bihurtutako kofradiak desagerraraztea. Bestela esateko, toki bateko herritarren eta agintarien gain presio egiten zuten talde edo liga bihurtu zirenak, betiere beren interesen aldeko eta besteren interesen kalterako neurriak ezartzea zutelarik xede⁴⁰; horrenbestez, «helburu gaiztoa» zuten, *Diccionario de Autoridades* hiztegian aipatzen zen moduan.

Monarkiak kofradiei emandako tratu desberdinei dagokienez, honako hau gogorarazi behar dugu: Errege-erregina Katolikoak Santa Katalina eta San Pedro kofradiak Donostiako kontzejuaren mende jarri eta haien autonomia mugatzearen alde agertu ziren arren, Errege-erregina Katoliko beroriek Kantauriko kostaldeko beste toki batzuetan itsas kofradiak berariaz bultzatzen eta indartzen ari zirela. Horregatik, gure ustez, Monarkiak benetan uste izan balu itsas anaiar-

³⁶ Erakunde horiekiko mesfidantzak Alfonso X.aren erreinalditik zetozen, *Partidas* testutik (*Partidas*, V, VII, 2) ondoriozta daitekeenez. Eta errege horren zenbait ondorengok jarrera horiek errepikatu zituen, hala nola Henrike IV.ak, 1460. urtean San Pedro kofradiara jo zuenean errege-epailearen aurkako jarduketengatik hiribilduan sorrarazi zituzten istilu eta iskanbilengatik kexu (Historiako Errege Akademia. Vargas y Ponce bilduma, XXXIX liburukia, 9/4207; aipamena hemendik hartu dugu: GONZÁLEZ ARCE, J. D., *Asociacionismo, gremios y restricciones corporativas en la España medieval* (siglos XIII-XV, *Investigaciones de Historia Económica*, 10 (2008), 9-34 or, vid. 21-22 or) y Carlos I en 1552 (1552ko Pragmatika, 16. kap. NoR, XII, XII, 13 (=NR VIII, XIV,4).

³⁷ Cortes de Toledo de 1462 (36. eskaera. NoR, XII, XII,12 (=NR VIII, XIV,3) y de Santa María de Nieva de 1473 (31. eskaera. NoR, XII, XII,12). Eta, geroago, Madrilgo Gortee ere antzeko erabakiak hartu zituzten 1534. urtean (29. eskaera. NoR, XII, XII,12).

³⁸ *Cuaderno Viejo de Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa, aprobado por Enrique IV en Vitoria el 30 de marzo de 1457*, 136. kapituluak. BARRENA OSORO, E., *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa (1357-1463)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982; *Cuaderno Nuevo de Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa, elaborado en la Junta General celebrada en Mondragón, con los Comisarios nombrados por Enrique IV, el 13 de junio de 1463*, 177. eta 180. kapituluak, ibidem.

³⁹ Eztatbaida horri buruz, ikus: GONZÁLEZ ARCE, J. D., *Asociacionismo, gremios y restricciones corporativas*, *op. cit.*

⁴⁰ ARAGÓN RUANO, Á. eta ALBERDI LONBIDE, X., El proceso de institucionalización de las cofradías guipuzcoanas durante la Edad Moderna: cofradías de mareantes y de podavines, *Vasconia. Cuadernos de Historia-geografía*, 30 (2000), 205-222 or., vid. 207. or.

teak guztion onerako hain kaltegarriak zirela –eta Donostiako kofradiei buruzko dokumentaziotik ondorio hori atera daiteke–, kofradia guztien aurka jardungo zuen, eta ez zuen horrelakorik egin. Egia esan, beste inguruabar eta gai askotan bezala, Monarkiak kofradiekiko zuen jarrera interesen arabera zen, itsas anaiarteen ekintza politikoaren eraginpean egon zitezkeen unean uneko interesen arabera, alegia, eta, bereziki, tokiko gobernuak eta gobernu horiek kontrolatzen zituzten eliteek errege-erreginen erakundeari egiten zioten presioaren arabera.

Eta Donostiako kasuan, nabaria da udal-gobernuak sinetsarazi zuela Errege-erregina Katolikoei Santa Katalina eta San Pedro kofradiak mehatxua zirela herritarren bizimodurako, haien gobernu onerako eta segurtasunerako, Herri Xehearren egituratzaile gisa bete nahi zuten ekintza politikoa zela eta; gainera, une haietan Donostiako gobernuak une latzak igarotzen ari zen.

Horrek azalduko luke Errege-erregina Katolikoek kofradia donostiarrek desagerrarazteko erabakiaren alde egin izana eta, erakunde bateko zein besteko kofradeek aurkeztutako erreklamazioei kasu eginez, kofradiak berreskuratzea erabaki zutenean, haiek udal-agintarien kontrolpean jartzeko erabakia hartu izana; erabaki horren ondorioz, eskumenak nabarmen murriztu zitzaizkien eta ekintza politiko eraginkorra gauzatzeko aukera oro zapuztu zitzaien.

Arrazoi horregatik, ordenantzetan ligak eta monipodioak debekatu ziren eta, lanbidearekin lotutako gaiak lantzeko kofradeei bilera-deialdia egin behar bazieten, udal-kabildoaren baimena behar zuten; kofradietako kideek kontzejua- ren bileretan modu iraunkor eta egonkorrean parte hartzeko aukera debekatu zen eta, udal-erakundeetan parte hartu ahal izateko, udal-kabildoak alde aurretik deialdia helarazi behar zien kofradietako bozeramaileei; eta kofradietako ordezkariak udal bileretan esku hartzeko aukera izango zuten, baina mugatuta, hau da, jaso zuten deialdian aipatutako gai zehatzen inguruko hausnarketan baino ez.

Horixe da, hain justu, Donostiako kofradien eta Kantauriko kostaldeko beste puntu batzuetako kofradien artean dagoen alde garrantzitsuenetako bat; izan ere, beste toki horietako kofradiek lanbide-arloko eginkizunak, ongintza-laguntzakoak, erlijio-arlokoak eta judizialak betetzeaz gain, ekintza politiko garrantzitsua ere bete izan zuten.

Lehen esan dugunez, bi kofradiak berreskuratu ahal izateko kofradeek mobilizatu egin behar izan zuten, eta Errege-erregina Katolikoengana jo zuten Diego Arias de Anaya batxilerrak hartutako erabakia zuzendu zezaten.

Eskaera egin zutenean, erakunde bateko nahiz besteko kofradeek ez zuten ezertxo ere esan hiribilduan eragin zituzten istiluei buruz –nola bestela–, parte-hartze aktiboa izan baitzuten, antza, iskanbila horietan eta, kontzejua- ren gobernuak erantzuleztat jotzen zituen. Besterik gabe, aurreko urteetan burututako

jardueraren alde onak nabarmendu zituzten, antzeko hitzak erabilia bi kasuetan, eta, haien ustez, alderdi positibo horiek nahikoa ziren kofradia berrezartzea justifikatzeko.

Horrela, bada, San Pedroko kofradeek, Monarkiaren aurrean kofradia berrezartzea komeni zela defendatzeko, erakundea existitu zen bitartean eman izan zituen zerbitzu garrantzitsuak gogorarazi zituzten. Zehazki, haiei esker, hiribilduak su bat, hau da, itsasargi bat zuela portura iristen ziren itsasontziak gidatzeko; gremioko maiordomoak justizia egiten zuela arrantzako jardunean sortzen ziren gorabeherak ebazteko, prozedura erraz, azkar eta merke bati jarraikiz; eta gremioak txiro askori eman izan zela laguntza. Santa Katalinako kofradeen kasuan, hiribilduan kai bat eta nasa bat eraiki zituztela gogorarazi zuten; kofradia-ko maiordomoak itsas jarduerak eragindako kausak ebazten zituela; eta txiro askori lagundu izan zietela.

2. Donostiako 1489ko udal-ordenantzetako itsas aurreikuspenak

Donostiako 1489ko udal-ordenantzetan bildutako aurreikuspenei dagokienez, bi itsas gremioak zuzenean eraginpean hartzen zituzten aurreikuspenen helburu garrantzitsuenak honako hauek ziren: hiribilduko herritarrei produktu jakin batzuen hornidura bermatzea, produktu horien eskasia zela eta; arrainen prezioa, kalitatea eta salmenta arautzea; arrantza-baliabideen salmentan iruzur-rrak saihestea; zuzeneko merkataritza ahalbidetzea bitartekarien esku-hartzea saihestuta; zenbait alderditan, gutxienez, arrantza-jarduera kontrolatzea; herritarren segurtasuna eta ordena bermatzea; eta aurre-neurriak hartzea usain txarrak sortzeagatik auzoko higie maila eta osasungarritasuna jaitsi ez zitezen. Oro har, helburu horiek bat datoz Kantauriko gainerako hiribilduetako –baita Gipuzkoakoak ere– udal-ordenantzen bitartez bete nahi ziren helburuekin⁴¹.

Horrela, segurtasuna eta ordena bermatze aldera, 1489ko udal-ordenantzetan liga eta monipodioak eratzea debekatu zen, horrelako erakundeek hiribilduan sortzen zituzten iskanbila eta istiluak saihesteko, alde batetik, eta bestetik, alkate eta epaimahaiek hartutako erabakiei inork kontra egin ez ziezaien (20. kap.). Eta honako hau xedatu zen: kofradien edo batzarren bilerak egitea komeni izanez gero, alde aurretik udal-erregimentuak lizentzia eman beharko zuen (40.

⁴¹ GARCÍA FERNÁNDEZ, E., Para la buena gobernación e regimiento de la villa e sus vecinos e pueblo e republica: De los Fueros a las Ordenanzas municipales en la Provincia de Guipúzcoa (siglos XII-XVI). LEMA, J. Á., FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A., GARCÍA, E., LARRAÑAGA, M., MUNITA, J. A. eta DÍAZ DE DURANA, J. R., *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2002, 27-58 or.

eta 41. or.). Aurreikuspen horiek itsas kofradiei eragiten zieten zuzenean, eta udal-kabildoak Santa Katalina eta San Pedro kofradien gaineko kontrola eta nagusitasuna izan zitzaizkien finkatu zituzten, kofradiak berriro sortu ostean.

103., 104. eta 105. kapituluaren arabera, debekatuta zegoen «gure auzoko Pasaian» garia, gatza, arraina edo beste edozein salgai kargatzea eta deskargatzea hiribilduko alkate eta errejidoreen lizentziarik izan gabe⁴²; arrantza-baliabide oro lehorteza; eta Pasaiakoek Donostiara garagarra edo garia itsasoz eramatea, betiere tokiko agintariek zegokion baimena eman ezean.

110-117 kapituluaren helburu nagusia zen hiribilduan arrain-hornidura egokia bermatzea eta, horretarako, herriko kaleetan arraina saltzeko modua, salmenta horren ezaugarriak eta baldintzak arautzen ziren, baina halaber, baita «Hondarribiako Pasaiatik» –gaur egungo Pasaia San Juan edo Donibanetik– edo herrikoa ez zen beste portu batetik Donostiara iritsi zitekeen arrantzaren kasuan ere.

Eta, 117. kapituluaren, toki jakin batzuetan trainak errentan emateko bete beharreko araubidea xedatzen zen.

3. Santa Katalinako eta San Pedroko ordenantzen edukia

Eta, Santa Katalina eta San Pedro kofradietako ordenantzen edukia dugokionez, deigarriena zera da, kofradia bakoitzaren gobernuari buruzko aurreikuspen bakar bat bera ere ez dagoela kapitulu guztietan, eta itsas kofradien ordenantzetan ohiko moduan biltzen diren beste gai batzuei buruzko xedapenak murriztu samarrak direla. Horixe gertatzen da honako gai hauei buruzko kasuetan: kofradien diru-baliabideak, anaiarte bakoitzeko kideen lanbide-jardueren antolaketa, edo itsasoarekin lotutako kofradiek ohiko moduan betetzen zituzten ongintza-asistentziako eta erlijio-arloko eginkizunak betetzea.

Aitzitik, bi testuetan garrantzi handia ematen zaio kofradia bakoitzeko maiordomoak kofradeen artean justizia administratzeari. Eta, halaber, anaiarte bakoitzeko kideentzat interesekoak ziren gaiak ez ezik, tokiko agintarientzat kezka-iturri izan behar zuten gaiak ere landu zituzten; esate baterako, nasa edo kaien kontserbazioa eta garbiketa, eta itsasargiaren eginkizuna betetzen zuen sua mantentzea. Kaia eraiki eta mantentze-lanak egiteaz Santa Katalina kofradia arduratzen zen eta San Pedrokoa itsasargiaren eginkizuna betetzen zuen «sua-aren» erantzule zen; eta bi erakundeetako kofradeek Errege-erregina Katolikoei kofradiak berrezartzea eskatu zietenean bi argudio horiek aurkeztu izanak justia-

⁴² Gaur egun Pasaia San Pedroko portua den horri buruz ari da; garai hartan Oiartzungo portua esaten zitzaion, eta Donostiak Erdi Aroan zituen lau portuetatik garrantzitsuenen zena.

fikatzen du gai horiek Donostiako gremioen ordenantzetan hainbesteko garrantzia izatea.

Ordenantza horietan hainbat berezitasun topatu ditugu, Kantauriko gainerako itsas kofradia gehienetan, oro har, ikusten ez direnak; hain zuzen ere, 1489ko udal-ordenantzetako aurreikuspenei dagokienez, kofradiak kontzejuko agintarien kontrolpean jartzeari eta beren jarduera-eremua mugatzeari buruzko aurreikuspenekin lotutako berezitasunak dira. Eta, batik bat, nabigatzaile, marinel eta arrantzale donostiarren bilerak ezohiko zerbait bihurtzeko nahiarekin zuten zerikusia, betiere tokiko agintarien kontrolpean.

Santa Katalina eta San Pedro kofradiak udal-kabildoaren mendean eta hari atxikita geratu ziren 1489. urteaz geroztik, eta hori salbuespentzat har daiteke Kantauriko itsasertzean. Oro har, Gaztela iparraldeko kostaldeko marinek kofradiak –Erdi Aroan sortu ziren– autonomia-maila handia izan zuten udal-gobernuekiko eta, gainera, Monarkiaren berariazko babesa ere bazuten horretarako. Horretaz gain, hiribilduetako tokiko gobernuetan sartzea ere lortu zuten eta, horri esker, kontzejuetako erabakietan parte hartu ahal izaten zuten eta kontzejua bileretan lantzen ziren gaien berri izaten zuten etengabe eta zuzenean, beren interesak eraginpean hartzen zituztenean. Gaztelako kostaldeko beste toki batzuetako kofradiak ere lortu zuten tokiko gobernuetan sartzea, eta kontzejuan ordezkaritza iraunkorra izateaz gain, udal-ofizio jakin batzuk nahitaez marinek kofradietako kideren bati esleitzea ere lortu zuten.

Donostiako itsas kofradien ordenantzen beste berezitasun bat da –gainerako kofradia kantauriar gehienekin alderatuta– zer erakundek hartu zuen parte ordenantzen idazketan.

Oro har, Erdi Aroan, behintzat –Aro Modernoan aldaketaren bat edo beste izan baitzen arlo horretan–, ohikoa zen kofradeek beraiek idaztea gremioaren ordenantzak eta, gero, Gaztelako Kontseilura bidaltzea, Kontzejua bitartez, Monarkiak testua berretsi zezan edukiak egokiak zirela egiaztatu eta kontrastatu ostean. Berretsi aurretik, kofradiak egoitza zuen herriko kontzejutara bidaltzen ziren ordenantzen testuak, udal-agintariak ikus-onetsia emateko edo egoki irizitako aldaketak proposatzeko; kasu horretan, Gaztelako Kontseiluak aldaketa horiek aintzat har zitzaizkeen eta Monarkiak onartutako behin betiko testuari gehitu.

Alabaina, Santa Katalina eta San Pedro kofradien ordenantzak egiteko prozedura oso bestelakoa izan zen. Arias de Anaya batxilerrak idatzi zituen, kofradeek idatzi ordez, baina kofradien lehengo ordenantzak bistan zituela eta, batez ere, Donostiako udal-erregimentuaren interesak oso kontuan hartuta.

Dena den, denboraren poderioz, Donostiako udal-agintaritzak itsas jardueretan aritzen ziren herritarren gainean egiten zuen kontrola lasaitu egin zen,

antza, zenbait alderditan, bederen; horrenbestez, Santa Katalina kofradiaren ordenantzak geroago idatzi zirenez, kofradeek eta maiordomoak idatzi zituzten eta Gaztelako Kontseiluak 1642. urtean berretsi zituen, baina Gaztelako Kontseilua-
ren onarpena Donostiako kontzejuak, justiziak eta udal-erregimentuak izapidetu zuten⁴³. Aitzitik, udal-gobernuko kideak kofradiako hauteskundeetan hautatuak izateko eta hautesle gisa onartzeko baimena (2. kap.) eta beste hainbat neurri zirela eta, kofradiak udal-erregimentuaren mende eta kontrolpean egoten jarraitu zuen.

Aurreko orrialdeetan esan dugunez, San Pedro eta Santa Katalina kofradietako ordenantza berrien helburu nagusia bi gremioen ekintza politikorako ahalmena deuseztatzea zen; horretarako, bi ordenantzen atarikoan debekatu egiten zaie kofradiak deituta bileran elkartzea eta beren buruari kofrade deitzea; hori eginez gero, ordenantzetan bildutako zigorrak eta herrietako sediziozile eta zalapartarientzat legeria orokorrean bildutako zigorrak jasoko zituzten. Aurreikuspen hori errepikatuta dago bi ordenantzetako gorputzaren lehenengo kapitulu-
luan, baita maiordomoen eginkizun jurisdikzionala baliatzeari buruzko kapitulu-
lun ondoren ere, bi ordenantzetan.

Agindu hori betetzen ez zuenarentzat aurreikusitako zigorrak benetan larriak ziren: mila marabediko zigorra eta hiribildutik eta jurisdikziotik erbestera-
tzea bi urtez, eta dirurik ez zutenen kasuan, isunaren orde z hogeita hamar egun igaro behar zituzten dorrearen zoruan eta erbestean bi urtez egon behar zuten. Eta zigorrak are larriagoak ziren iskanbilak sortzearen erantzule zirenentzat, be-
tiere iskanbila horietan odol-zauriak izan baziren; kasu horretan, heriotza-zigorra ezartzen zitzairen.

Kofradeek udal-erregimentuaren bileretan parte hartzeko aukera bi ordenantzetako 1. kapitulu-
luan aurreikusten zen; horren arabera, kontzejuaren erabakiak errepublikarentzat kaltegarriak zirela uste zutelako erabaki horiekin ados ez zeudenek udalaren saioretan parte har zezaketen, beren ikuspegia azaltzeko.

Kofradeek bilerak egin zitzaizketen, baina soilik kofradietako kideek praktikatzen zituzten lanbideei buruzko gaiak ebazteko baldin baziren; dena den, bilera horien deialdia egin ahal izateko, lehen esan dugunez, udal-erregimentuak alde z aurretik baimena eman behar zuen eta, bestela, bildutakoei heriotza-zigorra ezarri eta ondasunak konfiskatuko zitzaizkien (bi ordenantzetako 2. kapitulu-
lun).

Jarraian, bi testuetan, eta bi erakundeetako kofradeek merezimenduztat argudiatutakoa ikusita –maiordomoek betetzen zuten eginkizun jurisdikzionala-

⁴³ Santa Katalina kofradiaren ordenantza berrien testua –apirilaren 7an berretsi zen– hemen argitaratu da: BANUS Y AGUIRRE, J. L., *Ordenanzas de la Cofradía*, *op. cit.*, 101-106 or.

ri zegokionez–, bi anaiarten esparruan, ofizial horiek kofradeen artean justizia administratzen jarraituko zutela aurreikusi zen, betiere 6.000 marabedi baino gutxiagoko kausetan eta itsas jarduerak –arrantzakoak edo merkataritzakoak– eragindakoak izanik. Kofradietako maiordomoak aukeratzeko aurreikusitako prozedura konplexu samarra da; aurreikuspen horiek hamar urtez aplikatzen ziren eta, horien arabera, urtean behin maiordomo bat izendatzen zen, baita maiordomoen kontuak aztertzeke bi aztertzaile ere. Kontu horiek karguaren ekitaldia amaitutakoan aurkeztu behar ziren, bi aztertzaileek azter zitzaaten kofradia bakoitzeko bi edo hiru nagusiren aurrean.

Bi testuetan bigarren instantzia bat aurreikusten da prozedura judizialean, kofradia bakoitzeko maiordomoak emandako epaien helegitea onartu ostean, epaimahai baten aurrean; epaimahaia honela osatzen zen: lau maisu eta marinel Santa Katalinaren kasuan, eta lau maisu edo arrantzale San Pedro kofradiaren kasuan.

Maiordomoek ofizial baten laguntza izan zezaten eta, hartara, beren eginkizun juridikzionalak hobeto bete ahal izateko, laguntza hori ordenantza batek emango ziela xedatzen zen testuetan.

Bi testuen amaiera aldera, maiordomoek eta ordenantzek beren eginkizunak betetzeagatik zenbateko soldata jaso behar zuten aipatzen zen.

Eta, bukatzeko, arlo horretan, kofradia bakoitzaren esparruan lehenengo edo bigarren instantzian emandako epaiak betearaztea hiribilduko probestuari zegokiola aurreikusten zen; probestuak, maiordomoaren aginduari jarraikiz, epaia betearazi behar zuen, hala pertsoneri nola ondasuneri zegokienez.

Kofradia bakoitzean ongintza-asistentziako eginkizunak eta erlijiosoak arautzen dituzten aginduak ere bat datoz Santa Katalinako eta San Pedroko gremioetan. Kofradietan zenbat meza eman behar ziren zehazten duten arauak, esaterako, edo nola ordaindu behar ziren eta noiz eman behar ziren; itsas jardueretan jarduteko gai ez ziren gaixoei eta zaharrei laguntzeko zenbateko limosna eman behar zen; hildako kofradeen hiletetara joan behar zela; eta Apezpikutzak ezarritako gorde beharreko jaiak errespetatu behar zirela –debekatuta zegoen egun horietan itsasora irtetea–.

Ordenantza batzuen eta besteen artean alde gehien dituen blokea, noski, Santa Katalinako eta San Pedroko kofradeen lanbide-jardueri buruzkoa da.

Arrantza-gremioaren kasuan, hiribilduan arraina saltzeko arauak ezarri ziren, baita atzerritarrei erositakoa ere, eta txikizka nahiz handizka; portuan itsasontziei porturako sarbidea adierazten zien sua zaintzeko eta mantentzeko arauak ere finkatu ziren eta, horien arabera, maiordomoak su horren mantentzeaz arduratzeko pertsona bat izendatu behar zuen urtero. Eta Santa Katalinako testuan, eskifaian erroldatzeko kontratuak betetzeko araubidea aurreikusten zen;

jaiegunetan kargatzeko eta deskargatzeko debekua; kaian lastan jartzeko baldintzak; portuan itsasontziak –txiki nahiz handi– kokatzeko jarraibideak; nasan zikinkeria botatzeko debekua; nabigatzeko moduan ez zeuden itsasontziak portuan uzteko debekua; atzerriko salgaientzat aurreikusitako araubidea; eta nasaren mantentze-lanetarakoa.

IV. BIBLIOGRAFIA

AYERBE IRÍBAR, María Rosa, Las ordenanzas municipales de San Sebastián de 1489, *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 40 (2006), 11-91. or.

-Ordenanzas de la cofradía de mareantes de San Pedro, en San Sebastián (1489), *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 41 (2007), 417-437. or.

BANUS Y AGUIRRE, José Luis, Viejas ordenanzas de construcción en San Sebastián, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1 (1945), 185-194. or.

-Los Reyes Católicos y San Sebastián. El incendio de 1489 y la reconstrucción de la villa, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 17 (1961), pp. 283-304.

-*El Fuero de San Sebastián*, Donostia: Donostiako Udala, 1963.

-Ordenanzas de la Cofradía de Santa Catalina, *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 8 (1974), 73-106. or.

CLEIRAC, Etienne, *Us et coutumes de la mer divisées en trois parties*, 1.º edizioa, Burdeos: Guillaume Millanges, 1647; 6. edizioa, Rouen: E. Viret, 1671.

ECHEGARAY CORTA, Bonifacio de, La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 13-3 (1922), 273-336. or. ; 13-4 (1922), 582-613. or. ; 14-1 (1923), 27-60. or.

ERKOREKA GERVASIO, Josu Iñaki, *Análisis histórico-institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*, Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 1991.

GARCÍA DE CORTÁZAR, José Ángel, Una villa mercantil. 1180-1516. ARTOLA, Miguel (koord.), *Historia de Donostia-San Sebastián* lanean, Donostia: Editorial Nerea, 2004, 15-35. or.

GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto, La comunidad de San Sebastián a fines del siglo XV: un movimiento fiscalizador del poder concejil, *Espacio, Tiempo y Forma, Serie III, Historia Medieval*, 6 (1993), 543-572. or.

- Las cofradías de mercaderes, mareantes y pescadores vascos (siglos XIV a XVI). ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz eta SOLÓRZANO TELLECHEA, Jesús Ángel (ed.), *Ciudades y villas portuarias del Atlántico en la Edad Media. Nájera, Encuentros Internacionales del Medievo: Nájera, 27-30 de julio 2004*, Logroño: Errioxako Ikerketen Institutua, 2005, 257-294. or.
- Para la buena gobernación e regimiento de la villa e sus vecinos e pueblo e republica: De los Fueros a las Ordenanzas municipales en la Provincia de Guipúzcoa (siglos XII-XVI). LEMA, José Ángel, FERNÁNDEZ DE LARREA, Jon Andoni, GARCÍA, Ernesto, LARRAÑAGA, Miguel, MUNITA, José Antonio eta DÍAZ DE DURANA, José Ramón, *El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)* lanean, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2002, 27-58. or.
- GARCIE, Pierre, *Le Grand routier et pillotage et enseignement pour encrer tant ès ports, havres que lieux de la mer, tant des parties de France, Bretagne, Engleterre, Espagne, Flandres et haultes Alemaignes...* St. Gilles-sur-Vie: 1483-1484. Ezagutzen den lehen edizioa, Poitiers, 1520; 2.edizioa, 1521. WATERS, David Watkin, *The Rutters of the Sea. The Sailing Directions of Pierre Garcie. A Study of the first english and french printed Sailing Directions with facsimile Reproductions* lanean. New Haven eta London, 1967, 205-400. or.
- GONZÁLEZ ARCE, José Damián, Asociacionismo, gremios y restricciones corporativas en la España medieval (siglos XIII-XV), *Investigaciones de Historia Económica*, 10 (2008), 9-34. or.
- GONZÁLEZ ARCE, José Damián eta GIL SÁEZ, Joaquín, El puerto de San Sebastián y su cofradía de mareantes de Santa Catalina (1450-1550), *Tst. Transportes, Servicios y telecomunicaciones*, 21 (2011), 84-111. or.
- ORELLA UNZUÉ, José Luis, Estudio jurídico comparativo de los Fueros de San Sebastián, Estella, Vitoria y Logroño. *El Fuero de San Sebastián y su época* lanean, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 255-299. or.
- El Fuero de San Sebastián y su entorno histórico. SÁEZ, J. Antonio eta GÓMEZ PIÑEIRO, J., *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián* lanean, Donostia: Ingeba, urriko edizioa, 2013. Online: <http://www.ingeba.org/liburua/donostia/43fuero/43fuero.htm> (azken kontsulta, 2018ko irailaren 13an).
- PARDESSUS, Jean Marie, *Collection des lois maritimes anterieures au XVIII siècle*, 6 bol., Paris: L'Imprimerie Royal, 1828-1845.
- SCHIAPPOLI, Domenico, *Il ius naufragii secondo il Diritto della Chiesa*, Roma, Società Editrice del Foro Italiano, 1938.

SERNA VALLEJO, Margarita, La historiografía sobre los *Rôles d'Oléron* (siglos XV a XX), *Anuario de Historia del Derecho Español*, 70 (2000), 471-498. or.

-*Los Rôles d'Oléron. El coutumier marítimo del Atlántico y del Báltico de Época medieval y moderna*, Santander: Centro de Estudios Montañeses, 2004.

-El conflicto político entre las gentes del mar y las oligarquías locales en el Corregimiento de las Cuatro Villas de la Costa en el Antiguo Régimen. REY CASTELAO, Ofelia, CASTRO REDONDO, Rubén Castro eta FERNÁNDEZ CORTIZO, Camilo (ed.), *La vida inquieta. Conflictos sociales en la Edad Moderna* lanean, Santiago de Compostela: Santiago de Compostelako Unibertsitatea, 2018, 119-143. or.

TENA GARCÍA, Soledad, Los Mans-Engómez: el linaje dirigente de la villa de San Sebastián durante la Edad Media, *Hispania* 185 (1993), 987-1008. or.

-Composición social y articulación interna de las cofradías de pescadores y mareantes. (Un análisis de la explotación de los recursos marítimos en la Marina de Castilla durante la Baja Edad Media), *Espacio, Tiempo y Forma, Serie III, Historia Medieval*, 8 (1995), 111-134. or.

-*La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Donostia: Kutxa Fundazioa, 1997.

-Los linajes urbanos de las villas del Puerto de Pasajes (San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía): dos modelos de formación de las oligarquías municipales. DÍAZ DE DURANA, José Ramón (koord.), *La lucha de bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal: Guipúzcoa, de los bandos a la provincia (siglos XIV a XVI)* lanean, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1998, 323-339. or.

-Cofradías y concejos: encuentros y desencuentros en San Sebastián a finales del siglo XV. MONSALVO ANTÓN, José María (ed.), *Sociedades urbanas y culturas políticas en la Baja Edad Media castellana* lanean, Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca, 2013, 247-254. or.

ZAMORA MANZANO, José Luis, El salvamento y la asistencia marítima en el Derecho romano, *Revue Internationale des Droits de l'Antiquité*, XLVIII (2001), 373-403. or.

PARTEHARTZAILEAK

José Ángel Lema Pueyo

Euskal Herriko Unibertsitatea

Donostian jaio zen 1960ean. Deustuko Unibertsitatean egin zuen doktorego tesia Historian (1994) eta gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatean irakasle titularra da, Gasteizko kanpusean. Erdi Aroko Historia, Paleografia eta Diplomatika ikasgaiak irakasten ditu. Bere ikerketa lerroek bi ardatz dituzte: XII. mendeko Nafarroako eta Aragoiko instituzioak eta monarkia, eta Erdi Aro bukaerako euskal gizartea. Hainbat ikerketa eta iturri editatu ditu. Fakultate horretako Erdi Aroko Historian, Historia Modernoan eta Ameriketako Historian katedradun José Ramón Díaz de Duranak zuzentzen duen *Gizartea, boterea eta kultura ikerketa* taldeko kide da.

Javier Ilundain Chamarro

Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea

Nafarroako Unibertsitatean nazioarteko doktorego tesia egin zuen (2014), ikerketa horrengatik sari berezia jaso zuelarik. Errioxako Nazioarteko Unibertsitatean irakasle doktore laguntzailea da 2014tik, eta beste hainbat zentrotan aritu da ikerlari gisa: Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenean (CSIC), Nafarroako Unibertsitatean eta Leicester Unibertsitatean, tartean. *Los buenos hombres de Olite (siglos XII y XIV). Sociedad, poder y élites urbanas* (Nafarroako Gobernu, 2017) lanaren egilea da.

Iosu Etxezarraga Ortuondo

Ikerlari independentea

Iosu Etxezarraga Ortuondo (Donostia, 1981) Deustuko Unibertsitateko lizentziadun da Historia/Ondare Kulturallean (2003). Euskal Herriko Unibertsitatean eta Valladolideko Unibertsitatean egin zuen doktorego tesia (2017). Tokiko lurraldeko antolaketa, nahiz gizartean eta politikan gertatzen diren aldaketak ikertzeko, elizak iturri gisa erabiltzen ditu, eta Erdi Aroko Gipuzkoako eliza antolaketa ere ikerketa lerro nagusi gisa dauka. Hala ere, beste ikerketa lerro batzuk ere landu ditu, batez ere mendietako baliabideen ustiaketari lotutakoak (burdinaren paleosiderurgia eta abere nahiz basoetako ezarpenak). Ia 20 urteetako eskarmentua dauka Arkeologian eta zientzia hori bere ikerketetan erabiltzen du.

Ana M^a Barrero García

Ikerlari zientifikoa

Ana Maria Barrerok ibilbide luzea du ikerkuntzan. Erdi Aroko Zuzenbidearen Historian eta foruen inguruan lan zabalak egin ditu bere ibilbide akademikoan. Jakako foruari buruz egin dituen ikerketa berritzaileez gainera (lan honetan biltzen da horien zati bat), tokiko foruak eta foruen familiak izan ditu ikerketa lerro nagusi gisa. Hala, Logroñoko, Enkarterriko eta Cuencako foruak ikertu ditu, besteak beste. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenean (CSIC) eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (UAM) aritu da ikerlari lanetan.

Roldán Jimeno Aranguren

Nafarroako Unibertsitate Publikoa UPNA/NUP

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle titularra da Zuzenbidearen Historian. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean (UNED) Zuzenbidea ikasi zuen eta Nafarroako Unibertsitatean, aldiz, Historia (gradu sari berezia jaso zuen eta Estatu mailako hirugarren saria ere bai). Historian doktore da Nafarroako Unibertsitatean; Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan doktore Euskal Herriko Unibertsitatean eta Zuzenbidean doktore Deustuko Unibertsitatean. Hainbat egonaldi egin ditu Irlandan, Italian, Estatu Batuetan, Venezuelan eta Frantzian. 20 libururen egilea da eta ehun bat artikulua eta kolaborazio akademiko argitaratu ditu. Tokiko foruen esparruan, honako liburua idatzi du: *Los Fueros de Navarra* (Madril: Estatuko Aldizkari Ofiziala Estatu Agentzia, 2016).

Xabier Irujo

Nevadako Unibertsitatea (Reno, Amerikako Estatu Batuak)

Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies ikerketa zentroko zuzendaria da. Unibertsitate horretan ere, Genozidio ikasketen atalean irakaslea da. Boiseko Estatu Unibertsitatean, Liverpooletako unibertsitatean eta California-ko Unibertsitatean ere eskolak ematen ditu. Filologian, Historian eta Filosofian egin ditu ikasketak eta bi doktorego tesi ditu. Hainbat unibertsitatetako eta argitalpen kontseilu akademikotako kide da. Hamar liburu idatzi ditu eta aldizkari akademikoetan lan ugari kaleratu ditu. Nazioarteko hainbat sari ere jaso ditu.

Amaia Álvarez Berastegi

Nafarroako Unibertsitate Publikoa UPNA/NUP

Ulsterreko Unibertsitatean egin zuen doktorego tesia (Irlandako Iparraldea, 2016). Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaile eta irakaslea da. Aurretik, Ulsterreko Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitatean ikerlari

gisa aritu da. Bogotako Rosario Unibertsitatean egonaldia egin zuen, Jurisprudentzia Fakultatean. Nazioarteko hainbat argitalpen ditu eta hogeiki kongresu baino gehiagotan hartu du parte.

Nere Jone Intxaustegi Jauregi

Deustuko Unibertsitatea

Nere Jone Intxaustegi Jauregi Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Publikoko Departamentuko irakaslea da. *Zuzenbidearen Historia* eta *Zientzia Politikoa: Estatuaren Teoria eta Konstituzio Erregimena* ikasgaiak irakasten ditu. Euskal Herriko Unibertsitatean egin zuen doktorego tesia (2017) eta Zuzenbidean lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean (2013). Bere ikerketa lerroek Bizkaiko Aro Modernoko historiarekin, gizartearekin eta instituzioekin harremana daukate.

M^a Rosa Ayerbe Iribar

Euskal Herriko Unibertsitatea

M^a Rosa Ayerbe Iribarrek (Hernani, 1954) Gipuzkoako Goi Mailako Ikasketak eta Teknikoen Filosofia eta Letren Fakultatean egin zituen ikasketak, eta Deustuko Unibertsitatean ere Historia espezialitatea ikasi zuen. Bartzelonako Unibertsitate Zentralean egin zuen doktorego tesia (1982). Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da Zuzenbidearen eta Instituzioen Historia atalean, Donostiako Zuzenbide Fakultatean. Bere ikerketa lerroek historia-juridikoa landu dute eta batez ere Gipuzkoako eta Euskal Herriko historiari buruzko lanak kaleratu ditu. Dokumentazioaren alorrari dagokionez, hainbat bilduma garrantzitsu argitaratu ditu.

Margarita Serna Vallejo

Kantabriako Unibertsitatea

Kantabriako Unibertsitatean doktore da (1995) eta gaur egun unibertsitate horretako Zuzenbide Pribatuko Departamentuan Zuzenbidearen Historiako katedraduna da. Bere ikerketa lanak batez ere zuzenbide pribatuaren historiaren alorrean murgildu dira eta bereziki jabegoaren historiaren eta Erdi Aroko eta Aro Modernoko iturri eta itsasoko instituzioen ingurukoak izan dira. Hala ere, zuzenbide publikoko ikerketak ere egin ditu, batez ere Kantabria historikoaren lurralde eta tokiko antolaketari buruzkoak. Hainbat aldizkari historiko-juridikotako erredakzio kontseiluetako kide izan da. *Iura Vasconiae* aldizkari idazkari izan da eta *Historia et Ius* aldizkari italiarreko «Orri espainarretako» arduradun izan da.

Lizarrako eta Donostiako foruak
liburuaren inprimaketa 2020ko
ekainean burutu zen.

